

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Doktorego Tesia

**Herri Batasuna eta espainiar Trantsizioa (1977-1983).
Metakontakizun nazionalak eta eguneroko espazioak**

Gorka Etxebarria Dueñas

Zuzendariak:

José María Beascochea Gangoití

Alejandro Quiroga Fernández de Soto

Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikidea Saila

(UPV/EHU)

2020ko iraila

Summary

Herri Batasuna and the Spanish Transition (1977-1983).

National metanarratives and everyday spaces

This thesis analyses how the Herri Batasuna independence coalition was expressed in 1977-1978 with a nationalist and left-wing conviction, based on a specific version of the Basque national metanarrative. Basque society was interpreted as advancing inexorably towards an independent, socialist and Basque speaking Basque Country. The origin and development of the Basque national metanarrative and how it was dialogically related to the Spanish metanarrative during the Transition is explained. The way in which Herri Batasuna was formed at the height of 1980 as an identifiable and differentiated political culture is analysed. This consolidation is related to the ability that its discourse had to interpellate society, based on daily experience. Thirdly, the causes of the pro-independence decline observed at the height of 1983 are analysed, as well as the capacity for reproduction and adaptation that allowed the pro-independence movement to maintain significant support beyond the Transition period.



Iturria: *Egin*.

Herri Batasunaren prentsaurrekoa 1983an, Bilboko egoitzan. Eskuinetik ezkerrera: Iñaki Esnaola, Izaskun Larreategi, Jon Idigoras, Jokin Gorostidi eta (atzean) Txomin Ziluaga.

Bozeramaileen atzean, *Laugarren Estatua* (Giuseppe Pellizza de Volpedo, 1901) margolanaren kopia handia. Europar ezkeraren sinbolo bihurtua urte batzuk lehenago *Novecento* filmari esker.

Gurasoei eta arrebari, nire burutazioak, hausnarketak, haserreak, eskeak... irribarre batekin jasan dituzuelako.

Heberi, urte askotako lagun fina izateagatik eta tartetxo bat lapurtzen uzteagatik mapak marrazteko.

Varuñi, nahiz eta gutxitan izan ezin gusturago elkartzen garelako eta testua erreparatzeko lan astuna hartu duzulako.

Davidi, ahozko historia egiteko jarraibideak eta eredu bikaina eman dizkidazulako.

Haizeari, Beñati, Zumairi, Josuri, Aneri, Espiri, Patasi, Jonbiri, Irustari, Markeli, Pablori, Serafori, Gartxiri, Alexi, Marcosi, Póli eta aipatu ez zaituztedan lagun askori (barka ieazaidazue), bizipoza eta askoz ere gehiago ematen didazuelako.

Artxiboetako langileei, berebiziko lana egiten duzuelako.

Anari eta Dartari, Patxi Erdozaini, Tasio Erkiziari, Jose Mari Esparzari eta Guillermo Pereari, artxiboetan ez dagoena erakutsi didazuelako.

Jose Mariri, lehen unetik proiektuarekin aurrera egiteko konfiantza eman didazulako.

Álexi, behin eta berriro nire ikuspegia eta idazkera zalantzan jartzera behartu nauzulako eta Newcastlen lagun onenen pare hartu ninduzulako.

Milesker guztioi, bihotz bihotzez.

Herri Batasuna eta espainiar Trantsizioa (1977-1983).

Metakontakizun nazionalak eta eguneroko espazioak

Sarrera	13
Ikerketaren hipotesia eta tesiaren egitura	13
Ikergaiaren egoera	16
Teoriari eta metodologiari dagozkionak	24
1. Euskal metakontakizun nazionala. Europar herentzia Herri Batasunean	33
Metakontakizun nazionalak.....	35
Aldez aurreko elementuak euskal metakontakizun nazionalean	39
Euskal metakontakizun nazionalaren sorreraren testuingurua	48
Aranaren euskal metakontakizun nazionala	53
Euskal autonomia	59
Ondorioak.....	67
2. Hegemoniarako aukera. Konbentzimendu nazionalista eta ezkertiarra Herri Batasunean	69
Gramsci eta bere eragina	72
Euskara metakontakizun nazionalaren erdigunean.....	75
ETAren euskal metakontakizun nazionala.....	81
Euskalduntasuna, bitxikeriatik gazte errebolta	87
Arketipo landatartua, langile klasearen abangoardia	98
Francorik gabeko frankismoa, hezurdura hutsa?	108
Ondorioak.....	117
3. Gerra, bakea eta autonomia. Herri Batasuna eta erakunde politiko berriak	119
Autonomiaren eskaera	121
1936ko gerra atzean uzteko beharra	130
Bakea irudikatzeke lehia	134
Independentisten proiektuaren aldaketa.....	146
Herri Batasunaren zatiketa	153
Ondorioak.....	162

4. "Alkaterik onena... herria!". Herri Batasunarekin identifikazioa Trantsizioan.....	165
Desarrollismoko hiriburuak.....	175
Sare asoziatiboa eta frankismoa porrot urbanistiko bezala	183
Non bozkatu zuten eta non ez, Herri Batasuna.....	195
Ondorioak.....	208
5. Kotsentsuaren bukaera eta frankismoarekiko haustura. Herri Batasuna eta legegintzaldi aztoratua	211
Espainiartasuna, iragana ala etorkizuna?	212
<i>Alter ego</i> eurokomunista	217
Nazioa babesteko beharra	223
1977ko gauza bera?	233
1982ko hauteskunde orokorrak	244
Ondorioak.....	252
6. Zikloaren bukaera. Herri Batasunaren gainbehera eta kalearen lehentasuna.....	255
Higaduraren zantzuak	257
Banderen gerra	263
Kalearen ordezkaria	268
Punk, de entrada sí.....	280
Industriaren krisia.....	292
Ondorioak.....	301
General Conclusions	303
Ikerketaren idatzizko iturriak.....	315
Bibliografia	315
Aldizkariak.....	350
Artxiboak	350

Sarrera

Ikerketaren hipotesia eta tesiaren egitura

2016an bideo zahar bat ibili zen sare sozialetan zehar. Txomin Ziluaga agertzen zen, Herri Batasuneko buruzagietako bat, polizia batekin hizketan. Tesi hau taxutzeko lehen pausuak ematen ari nintzen ni. Nolabaiteko forma eman nahi nion ikerketa proiektu bati, bertan uztartuz identitate nazionalen inguruko ikerketa, Trantsizioaren historia eta kultura politikoen eraketa. Lagunek bideoarengatik galdetu zidaten. Bazekiten Herri Batasunaren inguruan ikertzen ari nintzela eta jakin nahi zuten noiz eta nola gertatu zen Ziluagaren eta poliziaren arteko elkarrizketa. Bilatzeari ekin nion, grabazioaren urtea topatu arte: 1983. Hilabete batzuk geroago, jada nire ikerketan sakonki murgilduta nengoelarik, berriro bideoa ikusi nuen eta harritu ninduen konturatzek nire doktorego tesian lantzen ari ziren zenbait auzi garrantzitsu bideo labur hartan jasotzen zirela. Are gehiago, grabazioaren datak berak ere nolabaiteko garrantzia hartua zuen ikerketan, tesi honen azken kapituluaz azalduko dudana bezala. Zenbait aukeraren artean zalantza egin eta gero, azkenean erabaki nuen bideoarena bera zela data egokia ikertzen ari nintzen garaiaren amaiera markatzeko.

Bideokoak udazkeneko eguna dirudi, gris koloreen artean harrotzen den haize desatsegina dago. Dirudenez, ekitaldi politiko bat egiteko aukera negoziatzen ari dira, baina giroa tenkatua dago. Polizia urduri ageri da, azaltzen dion bitartean Ziluagari ez direla tartean sartuko baldintza bat betez gero: "[que] no haya incidentes, de gritos en favor de teta y en apología del terrorismo y en contra de las fuerzas de orden público". Buruzagi independentistak lasai erantzuten dio, zigarroa erretzen duen bitartean begirada altxatu gabe: "¿de? ¿de teta?". Erantzun maltzurak bisaia aldatuta, asaldatu egiten da polizia: "¡de ETA! Aquí no hay teta ninguna"¹.

Bideoaren grazia, izatekotan, lapsus txikian eta ondorengo erantzunetan zegoen. Baina hogeitasei segundo irauten duen grabazioaren gainontzekoa biziki da interesgarria. Lehen zatian egurrezko balkoi zuri batzuk ageri dira, Gasteizko Ama Birjina Zuriaren enparantzakoak. Ekitaldirako jarri zituzten bozgorailu batzuen laguntzaz, plazan

¹ «Txomin Ziluaga (HB) vacilando a un madero en los 80» (Asier Baiona, 2014). https://www.youtube.com/watch?v=M-xM4s1XEtU&feature=emb_title [kontsulta: 2020ko iraila].

bildutakoei zuzentzen zaie Jon Idigoras: "¡Porque estamos orgullosos de ser de Herri Batasuna! ¡Por eso estamos orgullosos de pertenecer a euskal herria!"². Eta Txomin Ziluaga eta polizia hizketan ari diren bitartean, honakoa ohiukatzen du jendeak: "¡Todos a una, Herri Batasuna!"³.

Bertan bildutakoen eta Idigorasen hitzetatik ondoriozta daitekeenez, Herri Batasunekoa izatearekin lotutako nolabaiteko harrotasun sentimendu bat bazegoen. Gainera, euskal herria delakoari lotuta ei dago. Horiexek dira hain zuzen ere tesi honetan erantzungo ditugun zenbait galdera: zein esanahi du euskal herriak? Zer zen Herri Batasuna? Zein harreman zuen hark guztiak ETArekin eta poliziarekin? Dokotorego tesi hau gidatu duen hipotesia hurrengo paragrafoan zehaztuta dago.

Herri Batasuna bi metakontakizun nazionalen arteko harremanaren baitan gorpuztu zen. Euskal eta espainiar metakontakizun nazionalak Trantsizio espainiarren garaian izan zutena hain zuzen ere. Gainera, Herri Batasunak euskal metakontakizun nazionalaren subjektu nagusiaren ordezkari bezala aurkezten zuen bere burua. Horrek zedarritu egiten zuen Estatuarekiko hartu beharreko jarrera eta baita kultura politiko bat sortu eta finkatzeko aukera ere.

Aipatu bideoa 1983ko azaroaren 26an dago grabatua. Herri Batasuneko buruzagiek Madriletik bueltan egin zuten geldialdia Gasteizen, 1981ean Gernikan erregearen hitzartzea boikotatu izanagatik epaituak izan ondoren bueltan zetozela. Egun hartan, Santi Brouardek gerora ikusita profetikoak diruditen adierazpenak egin zituen egun hartan: "Prometemos seguir luchando, si es preciso hasta la muerte, por la libertad de Euskadi"⁴. Brouard urtebete pasa aurretik erail zuen GALEk. Aipatu adierazpen horiek egin zituen egun berean, ETA (militarra)-k Gasteizen bertan José Antonio Julián hil zuen, droga trafikoa nahastuta egotea eta poliziaren isil-mandatari izatea egotzita. Ez ETAREN hilketak, ez eta independentisten aurkako erasoak, ez ziren berriak. Hala ere, GALen agerpenak testuingurua aldatu zuela deritzogu eta egoera politikoa ezberdina zela 1983ko bukaeran, GALen existentzia ezezaguna zenean. Euskal testuinguru politikoa ere aldatu egin zen gainera epe laburrean, EAJren baitan eman zen krisiarekin

² Letra larriz Euskal Herria idaztean lurraldeari egingo diogu erreferentzia. Bestela, euskal herria 'pueblo vasco' ren parekide bezala erabiliko dugu.

³ «Txomin Ziluaga (HB) vacilando...

⁴ Egin, «La ocupación policial impidió un recibimiento multitudinario a los electos de HB», *Egin*, 1983ko azaroaren 27a.

eta ondorengo zatiketarekin. Horregatik deritzogu zentzuzkoa dela doktorego tesi honetan aztertutako epea 1983ko azaroaren 26ra artekoa izatea.

Egun hartan, nahiz eta Gasteizko ekitaldia Madrilen buruzagi independentisten aurka burutu zen epaiketaren aurkako mobilizazio kanpainaren goren-unea bezala prestatua zegoen, Herri Batasunekoek hamarnaka lagun besterik ez zituzten elkartu. Herri Batasuneko propagandak azpimarratzen zuen epaiketa hura 1970eko Burgosko Prozesuaren errepikapena zela⁵. Orduko hartan, ETAko zenbait kide juzgatu zituen epaitegi militar frankista batek. Burgosko Prozesua, gainera, 1977ra arte luzatu zen mobilizazio garai loriatsuaren abiapuntu bezala gogoratzen zen. Eta Herri Batasunak garai haren oinordeko bakar bezala zekusan bere burua⁶.

Doktorego tesi honetan aztertu egiten da independentisten koalizioa nola eratu zen 1977-1978 artean eta nola eraketa haren abiapuntuan egoeraren irakurketa oso optimista zegoen, euskal metakontakizun nazionalaren bertsio zehatz batean oinarritua. Kapitulu ezberdinetan zehar, azaldu egingo dugu euskal metakontakizunaren jatorria eta garapena eta analizatuko dugu nolako harremana ezarri zen euskal eta espainiar metakontakizun nazionalen artean Trantsizio garaian. Ondoren, aztertuko ditugu 1983rako Herri Batasunaren mobilizazio ahalmenean gertatu zen gainbeheraren arrazoiak. Baina azpimarratuz aldi berean ezarriak zituztela Trantsizio garaiaz haratago kultura politiko sendo bat izaten jarraitzeko oinarriak, zeintzuek epe ertainean sostengu handiago bat ere ekarri baitzuten Herri Batasunarentzat.

Lehen kapituluan proposamen bat egiten dugu, euskal nazionalismoari buruzko ikerketa eta jakintza metakontakizun nazionalen marko teorikora egokitzea, aldi berean azpimarratuz nazioarteko loturak eta europar testuinguru orokorra. Horrela, euskal nazionalismoaren jatorriaren, ezaugarrien eta garapenaren inguruko proposamen orokor bat ere mahaigaineratu dugu. Bigarren kapituluan, euskal metakontakizun nazionala frankismo garaian nola eraldatu zen aztertuko dugu. Horretarako, gizartean sentimendu antifrankistaren hedapena azaltzeko Espainian egin diren ikerketak hartuko ditugu kontuan eta berorien erabilera proposatuko dugu baita euskal testuingurua aztertzeko ere. Hirugarren kapituluan aztertuko dugu zein izan zen harremana monarkia

⁵ Egin, «Herri Batasuna: “A quien se va a juzgar es al Gobierno de Felipe González”», *Egin*, 1983ko azaroaren 20a.

⁶ Itziar Aizpurua eta Jokin Gorostidi, «Euskadik ez du etsiko», *Egin*, 1983ko apirilaren 26a; José Luis Cereceda, «Ea, ea, el PSOE se cabrea», *Egin*, 1983ko ekainaren 10a.

konstituzional berriaren espainiar metakontakizun nazionalaren eta berarekiko Herri Batasunak hartu zuen jarreraren artean. Horrela, azaldu egingo dugu nola Herri Batasunak bere proiektu politikoa moldatu zuen, bai Estatu mailan, bai maila autonomikoan ezartzen joan ziren instituzio politikoak finkatu ziren heinean. Tesiaren lehen zati horretan argudiatzen da nola Herri Batasuna kultura politiko ezberdindu bezala finkatu zen 1980rako.

Tesiaren bigarren zatiaren oinarrian norbanakoen eguneroko espazioak daude eta bertan aztertuko dugu zeintzuk izan ziren Herri Batasunaren arrakastaren espazioak eta nola bere interpelazioak indarra galdu zuen 23-F delako estatu-kolpe saiakeraren ostean. Laugarren kapituluaren azalduko ditugu zeintzuk izan ziren Hego Euskal Herrian frankismoaren desarrollismo garaian gertatu ziren eraldaketa sozioekonomikoak eta nola uztartu zen hori Herri Batasunaren kanpainarekin, 1979ko udal hauteskundeetan. Bosgarren kapituluaren aztergai nagusia PSOE Espainiako gobernura iritsi aurreko hilabeteak dira eta azalduko dugu nola espainiar egoera politikoan gertatu ziren aldaketen irakurketa okerra egin zuen Herri Batasunak eta nola, horrexegatik, ez ziren bete independentisten aurreikuspen optimistak. Azkenik, seigarren kapituluaren zenbait zertzelada emango ditugu, 1980ko hamarkada ezaugarritu zuten elementuen eta Herri Batasunaren arteko harremanari buruz. Aztertu egingo dugu nola erritualizatu zuen Herri Batasunak bere kultura politikoaren egunerokotasunean eta zein erlazio izan zituen punk eszenarekin, NATOren aurkako mugimenduarekin, industriaren krisiarekin eta bazterketa sozialarekin.

Ikergaiaren egoera

Euskal nazionalismoari buruzko lehen ikerketak 1970eko hamarkadaren bukaeran egin ziren, eta mugimendu politiko horren lehen hamarkadak aztertu zituzten. Javier Corcuera Sabino Aranaren pentsamendua xehatu zuen eta Antonio Elorzak hurbilketa bat egin zuen, aztertuz zein ideologiek eragin zuten euskal nazionalismoan XX.

mendeko lehen herenean⁷. Horrez gain, José María Garmendiak eta Gurutz Jáuregui ETAre historiari buruzko lan bana idatzi zituzten⁸.

1980ko hamarkadan, gerraurreko euskal nazionalismoaren azterketan sakondu zuten bi lan garrantzitsu argitaratu ziren. José Luis de la Granja Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) mugimendu politiko akonfesionala ikertu zuen eta Javier Tusellek Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ), Espainiako demokrazia kristauaren historia baten baitan⁹. Lan horiez gain Alfonso Pérez-Agoteren eta Ander Gurruchagaren ikerketak azpimarratu behar dira. Horiek frankismo garaian euskal nazionalismoak bere burua nola erreproduzitu zuen aztertu zuten, azaldu nahirik Trantsizioko bizitza publikoan euskal nazionalistek izan zuten protagonismoa¹⁰. Espainiatik kanpo ETARI eta euskal nazionalismoari buruz egindako ikerketak ere orduan argitaratu zituzten Robert Clarckek eta John Sullivanek¹¹.

1990eko hamarkadan berriaz Herri Batasuna ikertu zuten zenbait lan argitaratu ziren. Francisco Letamendiak ETARI lotutako euskal nazionalismoaren ikerketa mardula argitaratu zuen, 1950eko hamarkadatik 1990eko hamarkadaren hasierara arteko epea hartzen zuena, eta oraindik orain garaia aztertzeko erreferentziazko lana da¹². José Manuel Matak Herri Batasunaren kultura politikoa 1982-1988 artean aztertzen zuen lan soziologikoa argitaratu zuen eta bertan azpimarratu zuen nazionalismoak kultura politiko antisistema baten katalizatzaile edota lotzaile bezala funtzionatzen zuela¹³.

Nereida Vidalesek 1980ko hamarkadako azken urteak aztertu zituen eta arrazoitu zuen orduan zartatu zirela Herri Batasunaren eta gainontzeko kultura politikoen arteko

⁷ Antonio Elorza, *Ideologías del nacionalismo vasco. 1876-1937 (de los “euskaros” a Jagi Jagi)* (Donostia: Luis Haranburu editor, 1978); Javier Corcuera, *Orígenes, ideología, y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)* (Madrid: Siglo XXI, 1979).

⁸ José María Garmendia, *Historia de ETA* (San Sebastián: Luis Haranburu editor, 1979); Gurutz Jáuregui Bereciartu, *Ideología y estrategia política de ETA: análisis de su evolución entre 1959 y 1968* (Madrid: Siglo XXI, 1981).

⁹ José Luis de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República en el País Vasco : estatutos de autonomía, partidos y elecciones, historia de Acción Nacionalista, 1930-1936* (Madrid: Siglo XXI de España, 1986); Javier Tusell, *Historia de la Democracia Cristiana en España (II)* (Madrid: Sarpe, 1986).

¹⁰ Alfonso Pérez-Agote, *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco* (Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas & Siglo XXI de España, 1984); Ander Gurruchaga, *El código nacionalista vasco durante el franquismo* (Barcelona: Antrophos, 1985).

¹¹ Robert Clarck, *The Basque Insurgents. ETA, 1952-1980* (Madison: University of Wisconsin Press, 1984); John Sullivan, *ETA and Basque Nationalism. The Fight for Euskadi 1890-1986* (London & New York: Routledge, 1988).

¹² Francisco Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo vasco y de ETA* (San Sebastián: R&B, 1994).

¹³ José Manuel Mata López, *El nacionalismo radical vasco: discurso, organización y expresiones* (Leioa: Universidad del País Vasco, 1993).

zubiak, frankismoaren bukaeran eta Trantsizio garaian zeuden loturak eten zirelarik¹⁴. Mikel Arriagaren ekarpena 1970eko hamarkadaren bukaeran eta 1980koaren hasieran Herri Batasunarekin identifikatu ziren norbanakoen istorioen azterketa izan zen, azalduz nola gertatu zen, 1990eko hamarkadarako, norbanako horien urruntzea Herri Batasunarekiko¹⁵. Arriagak belaunaldi ezberdinei zegozkien ezaugarriak azpimarratu zituen batez ere eta Mataren eta Vidalesen lanarekin zenbait lotura ezar daitezke. Hiru autore horien lanek gaur egun ere Herri Batasuna aztertzeke analisi marko interesgarria osatzen dute. Aipatu beharrekoa da baita José María Murguialdayren lana ere. Autore horrek Herri Batasunaren inguruko irudiak eta estereotipoak aztertu zituen ikuspegi filosofiko batetik eta azpimarratu egin zuen zein handia zen Herri Batasunak bere buruarekiko zuen irudiaren eta gizartearen gainontzeko zatiak independentisten inguruan zuenaren arteko zanga¹⁶.

Herri Batasunaren inguruko ikerketa historiografikoa 1990eko hamarkadaren bigarren zatiko bi lanek markatua izan da. Antonio Elorzak erlijio politikoa kontzeptuan oinarritutako hurbilketa egin zuen eta euskal nazionalismoa aztertzeke gerrarteko totalitarismoen corpus teorikoa erabili zuen, lehenago Juan Aranzadik egindako proposamenari bide eginez¹⁷. Ikuspegi horretan sakondu zuten Izaskun Sáez de la Fuenteren eta Jesús Casqueteren lanek eta aztertu egin zituzten Herri Batasunaren baitan zeuden sinboloak, mitoak eta errituak¹⁸. Gure ikerketan ere Herri Batasunaren kultura politikoaren erritualizazioaren eta egunerokotasunaren artean zeuden harremanak aztertu ditugu. Elorzak, Sáez de la Fuentek eta Casquetek beren analisisia 1990eko eta 2000ko hamarkadeta biolentziaren erabilera justifikatzen zuen kultura politiko baten berezitasunean oinarritu zuten. Gure lanean azpimarratuko dugu Herri Batasuna kultura politiko nazionalista bat izan zen heinean, harremanak ezar daitezkeela nazioak egunerokotasunean nola erreproduzitzen diren aztertu duten ikerlanekin, horiek kontuan

¹⁴ Nereida López Vidales, *El discurso político del MLNV (1988-1995)* (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 1998).

¹⁵ Mikel Arriaga Landeta, *Y nosotros que éramos de HB: sociología de una heterodoxia abertzale* (Donostia: Haranburu, 1997).

¹⁶ José M^a Murguialday Chasco, *Representaciones de E.T.A y H.B. Logos y confrontación* (Vitoria-Gasteiz: Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, 1996).

¹⁷ Antonio Elorza, *La religión política: el nacionalismo sabiniano y otros ensayos sobre nacionalismo e integrismo*, ed. R&B (San Sebastián, 1995); Juan Aranzadi, *Milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo* (Madrid: Taurus, 1981).

¹⁸ Izaskun Sáez de la Fuente Aldama, *El movimiento de liberación nacional vasco, una religión de sustitución* (Instituto Diocesano de Teología y Pastoral, 2002); Jesús María Casquete Badallo, *En el nombre de Euskal Herria: la religión política del nacionalismo vasco radical* (Madrid: Tecnos, 2009).

hartu baitituzte alderdi politikoak ez beste agente batzuk ere¹⁹. Horregatik, Tim Edersonen proposamenean jarri dugu arreta, autore horrek argudiatu baitu erritual publiko, ikusgarri eta antzeztuez haratago, nazionalismoa batez ere eguneroko praktiketan eta ohiko espazioetan erreproduzitzen dela²⁰.

Bestalde, euskal nazionalismoaren historian eraginik handiena izan duen lana *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco* izan da, 1999. urtean Santiago de Pablok, Ludger Meesek eta José Antonio Rodríguezek argitaratu zutena²¹. Ikerlan horretan penduluaren metafora erabili zuten azaltzeko euskal nazionalismoan etengabeko tentsio bat existitzen dela aldaera moderatu baten eta aldaera erradikal baten artean. Zentzu horretan, Herri Batasuna euskal nazionalismoaren aldaera erradikalaren agerpenetako bat litzateke. Nazionalismo moderatuaren eta erradikalaren artean autore horiek ezarri zuten ezberdintasunaren oinarrian bi nazionalismo mota dauden ideia dago: bata zibikoa eta liberala, frantses jatorrikoa, eta bestea etnikoa eta antiliberala, alemaniar jatorrikoa²². Euskal nazionalismoaren aldaera erradikala nazionalismo etniko-germaniarraren antzekoa litzateke eredu horretan eta moderatua urrundu egingo litzateke alemaniar eredutik. Beranduago, José Luis de la Granjak sailkapen hori sistematizatu zuen eta hirugarren aldaera bat gehitu zuen: euskal nazionalismo heterodoxoa, eredu hiritar-frantsesaren hurbilekoa litzatekeena²³.

Euskal nazionalismoan hiru aldaera daudela azpimarratzen duen sailkapen hori erabili zuten Gaizka Fernándezek eta Raúl Lópezek *Sangre votos y manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical (1958-2011)* liburuan, bertan Hego Euskal Herrian Trantsizioaren historia sakon bat proposatzen zutelarik. Baita autore horien doktorego tesiak biltzen dituzten argitalpenetan ere, mugimendu sozial berriei dagokienenean Raúl Lópezen kasuan eta Euskadiko Ezkerrari buruzkoa Gaizka Fernándezenean²⁴.

¹⁹ Michael Billig, *Banal Nationalism* (London: Sage, 1995); Michael Skey, *National Belonging and Everyday Life. The significance of Nationhood in an Uncertain World* (New York: Palgrave Macmillan, 2011).

²⁰ Tim Ederson, *National Identity, Popular Culture and Everyday Life* (Oxford: Berg Publishers, 2002).

²¹ Santiago de Pablo Contreras, Ludger Mees eta José A. Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936* (Barcelona: Crítica, 1999); Santiago de Pablo Contreras, Ludger Mees eta José A. Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, II: 1936-1979* (Barcelona: Crítica, 2001).

²² de Pablo Contreras, Mees eta Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I...*, 37.

²³ José Luis de la Granja Sainz, *El nacionalismo vasco: claves de su historia* (Madrid: Anaya, 2009).

²⁴ Gaizka Fernández Soldevilla eta Raúl López Romo, *Sangre, votos y manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical (1958-2011)* (Madrid: Tecnos, 2012); Raúl López Romo, *Años en*

Pentsa daiteke euskal nazionalismoaren barneko sailkapen hori erabilgarria dela baina kontuan hartu behar dugu azken hamarkadetako ikerketak bertan behera utzi duela nazionalismo etnikoen eta zibikoen arteko balizko zatiketa. Gainera, azpimarratua izan da nola nazioa etniko edo zibiko bezala ulertzea kultura politiko bakoitzari dagokion, eta bide batez, eredu bezala erabili diren bi nazioek (alemaniarrek eta frantsesak) beren baitan jasotzen dituztela esanahi etnikoak eta zibikoak²⁵. Gainera, praktikan euskal nazionalismoaren aldaerak zehazteko orduan, euskal nazioak Espainian eduki beharreko statusarekiko jarrera hartu dute kontuan autore horiek: independentzia erradikalentzat, autonomia baldintzatua moderatuentzat eta autonomia soila heterodoxoentzat. Hau da, independentzia proiektu politiko etnikoa litzateke eta autonomia proiektu politiko zibikoa²⁶.

Eredu hori erabiltzen jarraitzeko aukerak oso mugatuak direla uste dugu, oso-osoan azken urteetako ikerketak baztertutako nazio etnikoen eta zibikoen ideiatik ondorioztatzen delako. Gainera, sailkapen horrek kategoria berberean ezartzen ditu garai historiko eta ideologia ezberdinetako kultura politikoak. Adibidez, Sabino Aranaren independentismo integrista katolikoa Herri Batasunaren sozialismo iraultzailearen parekide litzateke. Biek ala biek independentzia nahi baitute eta, horrenbestez, euskal nazionalista erradikal baitira. Iñigo Bulláin lanak, esaterako, adibide horixe bera erabili zuen zalantzan jartzeko aipatu euskal nazionalismoaren barneko sailkapena. Bulláinek azpimarratu egin ditu hasiera batean maoismoak eta 1980ko hamarkadaren bukaeratik populismo komunistak Herri Batasunaren ideologian izandako eraginak, aurreko euskal nazionalismoaren eraginaren gainetik²⁷.

Zenbait lotura ezar daitezke euskal nazionalismo erradikala delakoaren baitan, Adrián Almeidak orain gutxi egindako proposamenean bezala, zeinak Frankfurteko Eskolaren

claroscuro: nuevos movimientos sociales y democratización en Euskadi (1975-1980) (Leioa: Universidad del País Vasco, 2011); Gaizka Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos, traidores: historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)* (Madrid: Tecnos, 2013).

²⁵ Taras Kuzio, «The myth of the civic state: a critical survey of Hans Kohn's framework for understanding nationalism», *Ethnic and Racial Studies* 25, 1 zbk. (2002): 20-39; R. Maíz Suarez, «Per modum unius. Más allá de la dicotomía nacionalismo cívico vs. nacionalismo étnico», hemen: *El presente del Estado-Nación*, ed. A. Gurrutxaga Abad (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2004), 107-28; Xosé Manuel Núñez Seixas, «Sobre la memoria histórica reciente y el "discurso patriótico" español del siglo XXI», *Historia del presente* 3 (2004): 137-56.

²⁶ Joseba Agirreazkuenaga, «Reseña», *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 45, 2 zbk. (2000): 665-673.

²⁷ Ignacio Bullain López, *Revolucionarismo patriótico: el Movimiento de Liberación Nacional Vasco (MLNV): origen, ideología, estrategia y organización* (Madrid: Tecnos, 2011).

Ilustrazioaren dilalektika hartu baituen oinarri bezala euskal nazionalismoa azaltzeko²⁸. Hala ere, Bulláinen ideia gure egiten dugu eta beraz, defendatzen dugu denboran hain urrun dauden kultura politikoak talde berean sailkatzeak kultura politiko bakoitzaren ikerketa oztopatzen duela. Horregatik, aurrerago azalduko dugun eran, analisirako beste kategoria bat proposatuko dugu: metakontakizun nazionala. Metakontakizun nazionala analisirako kategoria bezala erabiltzeak ahalbidetu egiten du garai ezberdinetako kultura politikoen arteko loturak ezartzea, baina baita ere argi adieraztea zeintzuk diren dauden ezberdintasunak eta aldaketa horiek Europa mailako korrante ideologiko orokorrekin lotzea. Euskal nazionalismoan metakontakizun nazionalak nola eraiki diren aztertzeo orduan, Diego Murok egindako ekarpena hartuko dugu kontuan, hala nola beranduago Idoia Estornése, Gaizka Fernándezek, Antonio Riverak eta Luis Castellesek, eta Eider Landabereak egindakoak, autore horiek guztiek euskal nazionalismoan nagusi diren eredu diskurtsiboak eta historia interpretatzeko duen modua aztertu baitituzte²⁹.

Beste alde batetik, zenbait autoreren lanak ere azpimarratu behar ditugu, euskal nazionalismoaren historiari ekarpen mamitsuak egin baitizkiote ikuspegi ezberdinetatik abiatuta. Santi Leonék euskal kasura egokitu zituen Benedict Andersonen *Imagined Communities* lan ezagunean proposatutakoak, saiakera bizi batean³⁰. Javier Díaz Freirek Sabino Aranaren ideologiara hurbilketa bat proposatu zuen, emozioen historiaren baitan³¹. Eta genero ikuspegitik bereziki lan interesgarriak argitaratu dituzte Carrie Hamiltonek, Oier Araolazak eta Nerea Arestik³². Azkenik, aipatu beharra dugu orain

²⁸ Adrián Almeida Díez, «La Hipótesis Revolucionaria. Nacionalismo Vasco y la Crítica a la Modernidad», *Araucaria. Revista Iberoamericana de Filosofía, Política, Humanidades y Relaciones Internacionales* 43 (2020): 119-42.

²⁹ Diego Muro, «Nationalism and nostalgia: the case of radical Basque nationalism», *Nations and Nationalism* 11, 4 zbk. (2005): 571–589; Diego Muro, *Ethnicity and Violence: the case of radical Basque nationalism* (New York: Routledge, 2007); Gaizka Fernández Soldevilla, «Mitos que matan. La narrativa del “conflicto vasco”», *Ayer* 98 (2015): 213-40; Luis Castells eta Antonio Rivera, «The battle for the past: Community, forgetting, democracy», hemen: *ETA's Terrorist Campaign: from violence to politics, 1968-2015*, ed. Rafael Leonisio, Fernando Molina eta Diego Muro (London & New York: Routledge, 2016), 184-200; Idoia Estornés Zubizarreta, «La militancia vasca anti-franquista en la selva de los mitos», hemen: *Militancias radicales. Narrar los sesenta y setenta desde el siglo XXI*, ed. Cecilia González eta Aránzazu Sarría Buil (Madrid & Buenos Aires: Postmetropolis, 2016), 39-59; Eider Landaberea Abad, *Los «nosotros» en la Transición. Memoria e identidad en las cuatro principales culturas políticas del País Vasco (1975-1980)* (Madrid: Tecnos, 2016).

³⁰ Benedict Anderson, *Imagined communities: reflections on the origin and spread of nationalism* (London: Verso, 1983); Santi Leoné, *Euskal Herri imaginario baten alde* (Donostia: Elkar, 2008).

³¹ Javier Díaz Freire, «El cuerpo de Aitor: emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca», *Historia Social* 40 (2001): 79-96.

³² Carrie Hamilton, *Women and ETA. The gender politics of Basque nationalism*, (Manchester: Manchester University Press, 2007); Oier Araolaza Arrieta, «El último auresku. Género, danza y nacionalismo vasco a comienzos del siglo XX», *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea* 17 (2018): 235-57; Nerea Aresti, «Women Warriors or Mothers of the Fatherland: Hero Cults and Gender

gutxi argitaratu dela —gure ikerketa jada bukatua zegoelarik— Nicolás Buckleyren lana eta autore horrek egunerokotasunaren eta nazionalismoaren arteko erlazioen eta kontakizun nazional ezberdinen arteko dialektikaren garrantzia azpimarratu dituela, horiek izanik, hain zuzen ere, gure tesian sakonki lantzen ditugun gaiak³³.

Eukal nazionalismoaren analisirako metakontakizun nazionalen kategoria erabiltzeaz gain, tesi honen helburu zehatzagoa Herri Batasunaren kultura politikoa nola sortu eta finkatu zen azaltzea da. Horretarako, beharrezkoa da diskurtsoaren analisisiaz haratago joatea eta aztertzea zer nolako harremana ezartzen den kultura politikoen eta norbanakoen egunerokotasunaren artean. Herri Batasunarena Trantsizio garaian agertu zen kultura politiko bat izan zela oinarrizatzat jarriarik, kontuan hartuko ditugu frankismoaren bukaerako egunerokotasunean eman ziren aldaketak eta horien eta norbanakoen interpretazio politikoen arteko harremanak aztertu dituzten lanak. Egunerokotasuneko aldaketen eta pertzepzio politikoen arteko loturak egiteko orduan, langile mugimenduaren eta mugimendu asoziatiboaren garrantzia azpimarratu dituzte Xabier Domènechen eta Pamela Radcliffen lanek³⁴. Domènechek aztertu du nola langile mugimenduari loturiko zenbait praktika errotu ziren langile auzoetan eta nola praktika horiek diktaduraren autoritatea zalantzan jartzen zuten eta beste gizarte eredu posible bat irudikatzen zuten. Radcliffek, bestalde, herritarren mugimendu asoziatiboak nola frankismoaren sostengua ahuldu zuen azaldu du. Orain gutxi, Inbal Oferrek ikuspegi berean sakondu du, bere analisiaren erdigunean auzo elkarteak jarriarik³⁵.

Doktorego tesi honetan alor horiekin erlazionatuko dugu Herri Batasunaren sorrera eta finkapena, frankismoaren bukaerari eta Trantsizioari buruz egin diren zenbait ekarpen orokor Hego Euskal Herriko testuingurura egokituz. Zentzu horretan, oso presenteeudukiko ditugu Gonzalo Wilhelmi, Germán Labradorrek eta David Beorleguik frankismoaren bukaerako eta Trantsizioko ezker iraultzaileari eta giro disidente

in Basque Nationalism», hemen: *Women Warriors and National Heroes. Global Histories*, ed. Boyd Cothran, Joan Judge eta Adrian Shubert (London: Bloomsbury, 2020), 55-72.

³³ Nicolás Buckley, *Del sacrificio a la derrota. Historia del conflicto vasco a través de las emociones de los militantes de ETA* (Madrid: Siglo XXI de España, 2020).

³⁴ Xavier Domènech Sampere, *Clase obrera, antifranquismo y cambio político. Pequeños grandes cambios, 1956-1969* (Madrid: Catarata, 2008); Pamela Beth Radcliff, *Making Democratic Citizens in Spain. Civil Society and the Popular Origins of the Transition, 1960-78* (New York: Palgrave Macmillan, 2011).

³⁵ Inbal Ofer, *Claiming the City and Contesting the State. Squatting, Community Formation and Democratization in Spain (1955-1986)* (London and New York: Routledge, 2017).

ezkertiarrei buruz egindako ikerlanak³⁶. Lan horiek ere Herri Batasunaren azterketarekin harreman du daitezkeela uste baitugu.

Diskurtsoen egituraketa eta egunerokotasunaren eta jarrera politikoen arteko harremana landu duten ikerketez gain, hirugarrenik, espazioak eta eguneroko praktikak kultura politikoen garapenarekin lotu dituzten proposamenei erreparatuko diegu. 1936ko gerraren osteko euskal nazionalismoari dagokionean bi aurrekari interesgarri ditugu. Joseba Zulaikak Itziarren (Gipuzkoa) frankismo garaian gertatzen ziren harreman pertsonalak eta politikoak aztertu zituen, ETAk 1975ean herriko biztanle bat hil zuela bere azalpenaren erdigunean jarritz³⁷. Bestalde, Ernesto Zirakzadehk 1950eko eta 1960ko hamarkadetan Hego Euskal Herriko kantaurialdeko landaguneetan eta arrantzale herrietan eman ziren aldaketa ekonomikoak azpimarratu zituen, horien ondorio ekonomikoek herritarren artean frankismoarekiko desatxikimendua eragin zutela argudiatuz³⁸.

Askotan euskal nazionalismoa landaguneekin harremantzen den arren, doktorego tesi honetan Herri Batasunaren hiritar izaera azpimarratuko dugu. Horregatik, kontuan hartuko ditugu azken urteotan hiri historian egin diren ekarpen interesgarriak. Hiri historiaren baitan sendotzen joan da hiri espazioko aldaketen, hiritarren portaeren eta kultura politikoen arteko loturak aztertu dituen korrante bat. Hau da, azpimarratu egin dira espazioaren sorreraren norbanakoen identitateen eta identitate kolektiboen arteko konexioak³⁹. Jeif Lerramen, Maurizio Gribaudiren eta Molly Lobergen lanek, esaterako, europar historia politikoko prozesu garrantzitsuak berrinterpretatu dituzte, hirietako biztanleen eta eguneroko espazioen arteko harremanetan sakonduz⁴⁰. Gure ikerketan mahaigaineratu egiten dugu euskaraz hitz egiteak, lantokian protesta bat

³⁶ Gonzalo Wilhelmi, *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición española (1975-1982)* (Madrid: Siglo XXI de España, 2016); Germán Labrador Méndez, *Culpables por la literatura. Imaginación política y contracultura en la transición española (1968-1986)* (Madrid: Akal, 2017); David Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986)* (Madrid: Postmetropolis, 2017).

³⁷ Joseba Zulaika, *Basque Violence. Metaphor and Sacrament* (Reno & Las Vegas: University of Nevada Press, 1988).

³⁸ Cyrus Ernesto Zirakzadeh, *A Rebellious People. Basques, Protests and Politics* (Reno & Las Vegas: University of Nevada Press, 1991).

³⁹ Carlos Hernández Quero, Cristina de Pedro Álvarez eta Julia Cámara Gómez, «La eclosión de la dimensión urbana: historia social y cultural de la ciudad», hemen: *Identidades en transición*, ed. Sandra Blasco Liza, Carlos Adán Gil eta Alfonso Bermúdez Mombiola (Zaragoza: Servicio de Publicaciones Universidad de Zaragoza, 2019), 470-79.

⁴⁰ Leif Jerram, *Streetlife. The Untold History of Europe's Twentieth Century* (Oxford: Oxford University Press, 2011); Molly Loberg, «The Streetscape of Economic Crisis: Commerce, Politics, and Urban Space in Interwar Berlin», *The Journal of Modern History* 85, 2 zbk. (2013): 364-402; Maurizio Gribaudi, *Paris ville ouvrière. Une histoire occultée, 1789-1848* (Paris: La Découverte, 2014).

antolatzeak edo auzo elkartean parte hartzeak zer nolako garrantzia duten egunerokotasuna eta metakonakizun nazionalak lotzeko orduan.

Laburbilduz, doktorego tesi honekin hiru ekarpen egingo ditugu. Batetik euskal nazionalismoaren azterketari, berori ikertzeko orduan metakontakizun nazionalen marko teorikoa erabiltzeko proposamenarekin. Bigarrenik Trantsizioaren historiari, Herri Batasunaren sorreraren eta finkapenaren azterketarekin. Hirugarrenik, kultura politikoen eta eguneroko espazioaren arteko harremanen azterketari, azalduz zein neurritan balio duten diskurtso politikoek, norbanakoek egunerokoan bizi duten errealitatea azaltzeko. Zentzu horretan, gure ikerketa identitate nazionalen eta egunerokotasunaren arteko lotura aztertu duten proposamenetan oinarritu da hein handi batean, jarraian azalduko dugun moduan.

Teoriari eta metodologiari dagozkionak

Herri Batasuna jendaurrean aurkeztu zenean, 1978ko apirilaren 27an, bere helburuak *Bases de constitución de una alianza* dokumentuan bildu zituen: "la liberación de Euskadi y la construcción del socialismo"⁴¹. Alde batetik, bi kontzeptu horiek —Euskadiren askapena eta sozialismoaren eraikuntza— aurretik ere erabiltzen ziren terminoak ziren. Hau da, Herri Batasunak jaso egin zituen Euskadiren askatasunari eta sozialismoari ordura arte atxikitako esanahiak. Bestetik, helburu horiek zehaztean, ezarritako Estatuaren aurka kokatu zuen bere burua Herri Batasunak, sistema espainiarra eta kapitalista izateagatik. Horrela, une hartako egoera politikoaren aurkako jarrera zehaztu zuen eta koalizioaren helburuetan etorkizun alternatiboa marraztu zuen. Hirugarrenik, koalizioak azpimarratzen zuen bere estrategiaren oinarrian "marco nacional vasco" zeritzana zegoela, hau da, euskalduntasuna ikuspegi nazionalista batekin interpretatzen zuen⁴².

Hiru ezaugarri horietan laburbilduta daude Herri Batasunaren inguruan egituratu zen kultura politikoen oinarritzko ezaugarri ideologikoak. Izan ere, kultura politikoa zer den azaltzeko orduan, hiru ezaugarri dira azpimarratu beharrekoak: ezarritako Estatuaren aurreko jarrera, balore eta praktika multzo bat eta historiari eta etorkizun ideal bati erreferentzia⁴³. Tesi honen ardatzetako bat Herri Batasunaren kultura politikoa nola

⁴¹ Herri Batasuna, «Bases de constitución de una alianza electoral», *Egin*, 1978ko apirilaren 28a.

⁴² *Ibid.*

⁴³ Miguel Ángel Cabrera, «La investigación histórica y el concepto de cultura política», hemen: *Culturas políticas: teoría e historia*, ed. Manuel Pérez Ledesma eta María Sierra (Zaragoza: Institución «Fernando

sortu eta finkatu zen aztertzea da. Garrantzi berezia emango diegu soziabilitateari eta sinboloei, kolektibo batek kultura politiko bat osatzeko orduan betetzen duten paperarengatik. Zentzu horretan, Herri Batasuna ikerketagai bezala hartuta, identitate indibidualak eta kolektiboak aztertuko ditugu, kultura politikoek norbanakoen eta beren eguneroko testuinguruaren arteko loturak ezartzen baitituzte.

Ideologia terminoa erabiltzen dugunean, berori kultura politikoari lotutako adieran ulertuko dugu. Honela defini dezakegu ideologia: norbanako talde batek konpartitzen duen ideia-sistema, munduarekiko ikuspegi zehatz bat ematen duena eta gertaerak interpretatzeko eta praktika sozial zehatzetarako eredu dena⁴⁴. Beraz, kontuan hartuko dugu bai kultura politikoak eta bai ideologiak anitzak direla gizarte batean. Eta, aldi berean, polemikoak direla eta gizartean dauden interesei eta gatazkei lotuta daudenez, atxikimenduak eta aurkakotasunak eragiten dituztela.

Adiera horiek gure egiteak ahalbidetuko digu ulertzea bai ideologiak eta bai kultura politikoak, norbanako ezberdinek erreferente konpartitu bezala hartzen dituztenean egikaritzen direla. Horregatik, guk ulertzen dugunez, identitatea ez da absolutua eta aldaezina den zerbait. Erreferente bezala ditugu Paul Ricoeur-ek eta Diane Fowlkes-ek identitateen inguruan egin dituzten ekarpenak. Autore horiek identitatearen izaera narratiboa eta dinamikoa azpimarratu dute eta azaldu dute nola identitatea norbere buruaren eta bestetasunaren arteko interakzioan gauzatzen den⁴⁵. Emozioen historiaren terminoak erabiliz ere azal dezakegun bezala, identitatea gure gorputzaren eta gure ingurunearen arteko harremanean gauzatzen da⁴⁶. Preseski, berriki ekarpen historiografiko iradokitzaileak egin dira identitate nazionalen eta emozioen arteko harremana aztertuz⁴⁷.

el Católico» (CSIC) & Diputación de Zaragoza, 2010), 41-48; Juan Pro Ruiz, «Afrancesados: sobre la nacionalidad de las culturas políticas», hemen: *Culturas políticas: teoría e historia*, ed. Manuel Pérez Ledesma eta María Sierra (Zaragoza: Institución «Fernando el Católico» (CSIC) & Diputación de Zaragoza, 2010), 205.

⁴⁴ Teun A. van Dijk, *Ideología y discurso. Una introducción multidisciplinaria* (Barcelona: Ariel, 2003), 14, 25-27.

⁴⁵ Paul Ricoeur, *Caminos del reconocimiento* (Madrid: Trotta, 2005), 106-7; Diane L. Fowlkes, «Moving from Feminist Identity Politics to Coalition Politics through a Feminist Materialist Standpoint of Intersubjectivity in Gloria Anzaldúa's Borderlands/La Frontera: The New Mestiza», *Hypatia* 12, 2 zbk. (1997): 105-24.

⁴⁶ Jo Labanyi, «Doing things: Emotion, Affect and Materiality», *Journal of Spanish Cultural Studies* 11, 3-4 zbk. (2010): 223-33; Javier Díaz Freire, «Cuerpo a cuerpo con el giro lingüístico», *Arenal: revista de historia de mujeres* 14, 1 zbk. (2007): 5-29.

⁴⁷ Andreas Stynen, Maarten Van Genderachter eta Xosé Manoel Núñez Seixas (ed.), *Emotions and Everyday Nationalism in Modern European History* (London: Routledge, 2018).

Xehetzen ari garen ikuspegia kultura politikoak eta ideologiak azaltzeko erabil dezakegu, hots, ulertzeko nola zenbait norbanako erreferente berberarekin identifikatzen diren. Esan dezakegu norbanakoek beste-ni (*alter ego*) bezala ulertzen dituztela identitate kolektibo berbera dutenak. Eta horrek ezberdindu egingo lituzke, beste-ni ez direnekiko. Beraz, identitate kolektiboak dinamikoak dira, ezegonkortu egiten baitira uneoro beste-ni delakoekin eta beste-ni ez direnekin sortzen den interakzioan⁴⁸.

Kultura politikoak eta ideologiak, horrenbestez, norbanako ezberdinek erreferente berberak dituztenean sortzen dira. Erreferente horiek aztertzeko orduan, Mikhail Bakhtin-ek garatutako proposamena erabiliko dugu. Autore horren arabera, erreferente bat erabiltzen dugun aldiro, lehenagoko erabileraren eta talde sozial ezberdinek erreferente hori erabiltzeko moduen markak ere barneratzen ditugu⁴⁹. Beste era batera esanda, kultura politikoek eta ideologiek erabiltzen dituzten terminoek lehenagoko garapen historiko bat dute eta gizartean dauden talde ezberdinen eta botere harremanen eraginpeko testuinguruan interpretatuak dira⁵⁰. Horrexegatik, Herri Batasunaren diskurtsoa eta proiektu politikoa aztertzeko orduan, bere diskurtsoan dauden marka horiek ikertu behar ditugu. Bai lehenagoko erabilerak utzitako markak, bai beste agente batzuek unean bertan egiten dituzten erabilerak.

Aro Garaikidean nazioa oso termino ohikoa da eta, esan bezala, Herri Batasunak ere erreferente hori zuen bere ideologiaren oinarrian. Nazio bat zer den eta zer ez den definitzen saiatzea baino, gure ikerketarako garrantzitsuena da konturatzea nazioa gure zentzu komunaren eta ohitura sozial eta intelektualen parte dela. Michael Billig-ek *Banal nationalism* lanean azaldu zuen moduan, "el mundo de las naciones es el mundo

⁴⁸ Ricoeur, *Caminos del reconocimiento...*, 165; Javier Gracia Calandín, «Identidades complejas y dinámicas. Redescubriendo el potencial hermenéutico de la filosofía política de Charles Taylor», *Revista Española de Ciencia Política* 28 (2012): 11-30; Leonor Arfurch, «Problemáticas de la identidad», hemen: *Identidades, sujetos y subjetividades* (Buenos Aires: Prometeo, 2002), 21-43; Stuart Hall, «Quién necesita identidad», hemen: *Cuestiones de identidad cultural*, ed. Stuart Hall eta Paul Du Gay (Buenos Aires: Amorrortu, 2003), 13-39.

⁴⁹ Tatiana Bubnova, «El espacio de Mijail Bajtín: filosofía del lenguaje, filosofía de la novela», *Nueva Revista de Filología Hispánica* 29, 1 zbk. (1980): 87-114; Hugo Aguilar eta Marisa Moyano, «Las disputas por el sentido y la construcción socio-discursiva de la identidad», *Espectáculo. Revista de estudios literarios* 41 (2009), <http://www.ucm.es/info/especulo/numero41/disputas.html>; Fernando Gómez Cabia, *Estructura y actualidad del pensamiento de Mijail Bajtín* (Madrid: Ediciones de la Universidad Autónoma de Madrid, 1998).

⁵⁰ Ramón Grosfoguel, «Descolonizando los universalismos occidentales: el pluri-versalismo transmoderno decolonial desde Aimé Césaire hasta los zapatistas», hemen: *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistemológica más allá del capitalismo global*, ed. Santiago Castro-Gómez eta Ramon Grosfoguel (Bogotá: Siglo del Hombre, 2007), 63-77; Monique Scheer, «Are emotions a kind of practice (and is that what makes them have history)? A Bourdieuan approach to understanding emotion», *History and Theory* 51 (2012): 193-220.

cotidiano, el territorio familiar de la época contemporánea"⁵¹. Gure mundua Michael Skeyk pentsamendu nazionalistaren logika deitzen duenak zeharkatzen du. Hau da, ontzat ematen da mundua naziotan banatuta dagoela, norbanakoak nazio zehatz bateko kide direla eta bakoitzaren naziotasunak zerikusia duela zenbait erantzukizun eta eskubiderekin eta pentsatzeko eta ekiteko modu batekin⁵². Oso interesgarria da, horri lotuta, ulertzea nola eguneroko praktikek, sinboloek, testuek eta objektuek, gure mundua nazioen mundu bezala erreproduzitzen duten. Modu horretan, gauza bat baino gehiago, nazioa erresonantzia-kategoria bat da. Nazioa gizartean oro har zalantzan jartzen ez den kategoria bat den heinean, gatazka eremu ere bada, bertan proiektatzen direlarik bai ideologiak, bai kultura politikoak eta bai norbanakoak eta beren identitateak, jarraian azalduko dugun bezala⁵³.

Reinhart Koselleck-ek aztertu du nola bihurtu zen nazioa Aro Garaikideko oinarrizko kontzeptuetako bat. Oinarrizko kontzeptua gizarteko talde ezberdinek beretzat hartzen duten erreferente konpartitua da eta berori definitzeko agente ezberdinen arteko lehia gertatzen da. Koselleckek bere lanean jasotzen duenez, XVIII. mendearen bukaeran nazioa beste termino batzuekin lotuta geratu zen, hala nola aberria eta herria. Garai hartan agertu zen abertzaletasunaren ideia, aberriarekiko eta norbere lurraldearekiko maitasunari lotua. Norbanako abertzalea, erromatar garaiko *civis bonus* terminoarekin erkatu zen, hau da, abertzalea erantzukizun politiko publikoa hartzen zuen hiritar ona zen. Horrenbestez, abertzaleek aberri/nazio/ legezkoaren eta justuaren alde jardungo lukete, lehenago aberriaren babesle bezala monarkiak zuen papera alboratuz. Abertzaleek, zentzu horretan, nazioa zehaztu eta babestuko lukete, berezko bizia daukan zerbait bailitzan⁵⁴.

Nazioa bizitza propioa duen zerbait bezala ulertzea terminoaren ezaugarri garrantzitsua da. Homi Bhabha-k aztertu du ezaugarri hori. Bere azalpenaren arabera, nazioak berebiziko garrantzia hartuko luke Modernitatearen eta Progreso historikoaren garaian, norbanakoen egunerokotasuna azaltzeko. Modernitatearen eta Progresoaren denbora historiko, lineal eta abstraktuaren garaian, nazioa funtsezko terminoa da hori guztia

⁵¹ Michael Billig, *Nacionalismo banal*, 1995 (Madrid: Capitán Swing, 2014), 21.

⁵² Skey, *National Belonging and Everyday...*

⁵³ Ibid., 10-12, 150; Jordi Muñoz Mendoza, *La construcción política de la identidad española: ¿del nacionalcatolicismo al patriotismo democrático?* (Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas, 2012), 5; Mata López, *El nacionalismo radical vasco...*, 77-78; John Hutchinson, *Nations as zones of conflict* (London: Sage, 2005).

⁵⁴ Reinhart Koselleck, *Historias de conceptos. Estudios sobre semántica y pragmática del lenguaje político y social*, 2006 (Madrid: Trotta, 2012), 37-46, 115-24, 144-60, 225-29.

ohiko espazioekin eta egunerokotasunarekin lotzeko. Hau da, nazioak lotura egiten du eguneroko bizimoduaren eta Modernitate unibertsalaren artean. Nazioak zentzu historikoa ematen die egunerokoari, hurbileko espazioari eta paisaiari. Beste era batera esanda, nazioak gure egunerokotasuna narrazio unibertsalean txertatzen du. Bhabharen azalpena jarraituz, nabarmendu egiten du nazioa aldi berean objektu aldaezina eta subjektu dinamikoa dela. Eta objektu eta subjektu izatearen arteko espazio horretan, Bhabhak nazioaren barne espazioa izendatzen duen horretan, kontakizun nazionala gertatzen dela. Nazioaren barne espazioan, lurralde batean bizi diren norbanakoek beren burua nazioaren barruan dagoela ulertzen dute eta barnean bizi direla imajinatzean, nazioa sortu egiten dute. Nahiko izaera paradoxikoa du horregatik nazioak, bere barnetik sortzen den objektu bat delako eta, zentzu batean, bizi propioa hartzen duelako sortzen den unean. Modu horretan, ikuspegi nazionalista batek nazioa jada aldeztu aurretik existitzen den zerbait dela ontzat ematen du baina aldi berean, nazioa subjektu aktibo bat dela adierazten du. Iraganaren (objektua) eta orainaldiaren (subjektua) arteko lotura horretan, nazionalistek edo abertzaleek kontakizun nazionala sortzen dute⁵⁵.

Herri Batasuna indar politiko abertzalea/nazionalista izan zen, bere burua euskal abertzaletasunaren ordezkari bezala ulertzen zuen heinean. Iñaki Aldekoa (Zornotza, 1940) buruzagiak horrela definitzen zuen 1979an Herri Batasuna: "consolidación política del bloque patriótico"⁵⁶. Eta honakoa adierazten zuen: "las únicas alternativas enfrentadas son las del poder central —llámese UCD o PSOE—, y la patriota"⁵⁷. Herri Batasuneko beste buruzagi batek, Telesforo Monzonek (1904-1981), abertzaletasuna klasearekin lotzen zuen, hau da, egunerokotasuna bizitzeko modu zehatz batekin. Euskal estatutuari buruzko akordioaren berri izan zuenean 1979an, idatzi zuen alaitasuna izango zela nagusi "en los consejos de administración bancarios" eta tristezia, berriz, "en las fábricas de Euskal Herria y en los modestos cenáculos de auténticos patriotas vascos"⁵⁸.

Herri Batasunak nazioaren ezaugarri paradoxikoa ere erreproduzitzen zuen, hau da, aldi berean objektu eta subjektu izatearena. 1979an, estatutu proposamen alternatibo baten prestaketarako barne dokumentuetan, erreferentzia egiten zioten ezaugarri bikoitz horri:

⁵⁵ Homi K. Bhabha, «DissemiNation: time, narrative, and the margins of the modern nation», hemen: *Nation and Narration*, ed. Homi K. Bhabha (London: Routledge, 1990), 291-322.

⁵⁶ Iñaki Aldekoa, «Herri Batasuna es ya la unidad de la izquierda abertzale», *Egin*, 1979ko otsailaren 3a.

⁵⁷ Egin, «Hay un pacto UCD-PSOE a nivel de Navarra», *Egin*, 1979 apirilaren 24a.

⁵⁸ Egin, «Monzón: "Las caras de los banqueros estarán más alegres que en las fábricas de Euskal Herria"», *Egin*, 1979ko uztailearen 19a.

alde batetik "las bases objetivas de las nacionalidades" leudeke, nazioa alde aurretik existitzen den objektu bezala, eta bestetik "posibilidades de ser conocidas por los miembros que las componen", hau da, nazioa nazioko kideek sortzen/ezagutzen duten subjektu bezala⁵⁹. Horrela, Herri Batasunak izaera bikoitz hori azpimarratzen zuen bere nazioaren ikuspegian: "sentirse grupo por sí (conciencia nacional) exige, en consecuencia, que el grupo exista en sí (base objetiva)"⁶⁰.

Horrenbestez, Herri Batasunak nazioa ulertzeko zuen modua ez zen salbuespena, Aro Garaikideko nazionalismoa azaldu duten erreferentziatzko lan nagusiei erreparatzen badiegu. Horregatik, gure ikerketarako metodologiaren oinarrietako bat nazionalismoa ikuspegi global batekin aztertu duten ikerketak euskal nazioa ere azaltzeko erabiltzea da⁶¹. Zentzu horretan, metakontakizun nazionala kontzeptua bereziki erabilgarria dela deritzogu. Metakontakizun nazionalak nazioa jada badagoen zerbait bezala hartzen dute baina aldi berean, nazioak jarraikortasun historikoa duela ulertzen dute. Kolektibo nazionalari buruzko kontakizunak dira eta norbanakoak nazioekin identifikatzea aldeztzen dute, norbanakoen bizitzaren kontakizuna eta kontakizun kolektiboa uztartzean. Metakontakizun nazionalak erreparatzeak, nazioa garai historiko ezberdinetan nola ulertu den jakiteko balioko digu eta ulertzeko nola joan diren aldatzen kontakizun horiek, une bakoitzean gizartean zeuden interesen eta botere harremanen arabera⁶².

Laburbilduz, nazioak erreferente bezala aldatzen ez diren arren, horien inguruko kontakizunak dira aldatzen direnak, nazioari ezaugarri eta balore batzuk atxikiz une batean edo bestean. Metakontakizun nazionalak eta horiek gizartean lortzen duten arrakasta aztertzeak lagunduko digu norbanakoen eguneroko bizimoduarekin harremanak ezartzen. Eta horrela ulertu ahal izango dugu norbanakoek identite nazionala nola erabiltzen duten bizi diren testuinguruan beren burua azaltzeko.

⁵⁹ Euskal Herriko Biltzarre Nazionala, «Material de debate nº 1 Sobre el Estatuto Nacional de Autonomía», 1979, 20. Fundación Sancho el Sabioren artxiboa.

⁶⁰ Ibid.

⁶¹ Stefan Berger, «The Power of National Pasts: Writing National History in Nineteenth- and Twentieth-Century Europe», hemen: *Writing the Nation. A Global Perspective*, ed. Stefan Berger, 2007 (New York: Palgrave Macmillan, 2015), 30-62; Stefan Berger eta Chris Lorenz, «National History Writing in Europe in a Global Age», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chris Lorenz, 2008 (Palgrave Macmillan, 2011), 1-23; Xosé Manuel Núñez Seixas, *Patriotas transnacionales. Ensayos sobre nacionalismos y transferencias culturales en la Europa del siglo XX* (Madrid: Cátedra, 2019), 17-36.

⁶² Krijn Thijs, «The Metaphor of the Master: "Narrative Hierachy" in National Historical Cultures of Europe», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chirs Lorenz, 2008 (Palgrave Macmillan, 2011), 71-72.

Gauzak horrela, doktorego tesi honek hiru ardatz metodologiko ditu: metakontakizun nazionalen analisia, norbanakoen egunerokotasunean gertatzen diren aldaketak aztertzea eta elkarrizketen bidez jasotako bizi istorioak aintzat hartzea.

Lehen ardatzari dagokionez, euskal metakontakizun nazionala nola sortu eta garatu zen aztertuko dugu eta batez ere espainiar eta frantses metakontakizun nazionalarekin duen harremanari erreparatuko diogu. Horrela ahalbidetuko dugu euskal identitate nazionala Europako mendebaldeko testuinguru orokorrean azaltzea eta bai espainiar eta bai frantses nazionalismoari buruz egin diren ikerketak gure analisiari txertatzea.

Bigarren ardatzaren harira, kontuan hartu behar dugu Herri Batasunak erreproduzitzen duen euskal kontakizun nazionala diktadura frankista eta aldaketa sozioekonomiko sakona gertatu zen garai batean egituratu zela. Horregatik, Herri Batasunaren diskurtsoa analizatuta aztertu ahalko dugu zein neurritan erantzuten zion orduko gizarteari, zein interes eta aurreiritzi jasotzen zituen eta nolako harremana zuen euskal metakontakizun nazionalaren beste bertsio batzuekin eta espainiar metakontakizun nazionalarekin. Gainera, eguneroko espazioen garrantzia azpimarratuta, metakontakizun nazionalak eta eguneroko bizimodua uztartzen diren tokiei erreparatuko diegu eta horrela, aztertu ahalko dugu nola bizi duten norbanakoek nazioa espazio ezberdinetan eta nola erreproduzitzen den nazioa bere aldaera mundutarrean⁶³.

Horri lotuta, kontuan hartuko dugu, Alejandro Quirogaren proposamena gure eginez, nazioa egunerokotasunean hiru eremu ezberdinetan erreproduzitzen dela: eremu publikoan (gobernua, eskola, legedia, erakunde ofizialak...), eremu sasi-publikoan (komunikabideak, alderdi politikoak, orotariko elkarteak...) eta eremu pribatuan (familia eta lagunak)⁶⁴. Herri Batasuna espainiar Trantsizioaren garaian analizatzea bereziki interesgarria da zentzu horretan, eremu publikoan erreproduzitzen zen nazioa beharrean (espainiarra), nazio alternatibo bat erreproduzitzen zuelako (euskalduna), aldaketa politiko handiak gertatu ziren epe batean.

Jasotako testigantzei dagokienez, gure ikerketarako bizi istorioen metodologia erabili dugu. Hamasei elkarrizketa burutu ditugu. Elkarrizketatuen artean sei emakumezkoak

⁶³ R. Jones eta L. Desforgers, «Localities and the reproduction of Welsh nationalism», *Political Geography* 22 (2003): 271–292; Melisa Gregg, «A mundane voice», *Cultural Studies* 18, 2/3 zbk. (2004): 363–383.

⁶⁴ Alejandro Quiroga Fernandez de Soto, «The three spheres. A theoretical model of mass nationalisation: the case of Spain», *Nations and Nationalism* 20, 4 zbk. (2014): 683–700.

dira eta hamar gizonezkoak. Herri Batasunarekiko duten harremanaren arabera, bost pertsonak erantzukizun publikoak izan zituzten bertan eta gainontzekoen harremana tokian tokiko mobilizazioetan parte hartzera eta boza ematera mugatzen da, inplikazio maila ezberdinekin. Elkarrizketatuen adinari dagokionean, zaharrena 1932an jaio zen eta gazteena 1964ean, hau da, Trantsizio garaian helduak edo gazteak ziren pertsonak dira. Erantzukizun publikorik izan ez zuten pertsonen kasuan, elkarrizketatuen izenak asmatu ditugu, beraiek hala eskatuta.

Bizi istorio erako metodologiak ez ditu alde zuzenetik prestatutako galdetegiak erabiltzen eta elkarrizketatuari bere bizitza kontatzeko eskatzen dio. Modu horretan, elkarrizketatuaren erantzunetan elkarrizketatzaileak izan dezaken eragina mugatzen da hein batean eta ahalbidetu egiten du norbanakoek bere identitatea kontakizun eran aurkeztea. Horrek garrantzi berezia du, lehenago azaldutako marko teorikoari baitatxekio. Bizi istorio eran jasotako testigantzetan, norbanakoen ohiko eremuak identifika daitezke, baita zeintzuk diren norbanakoek beren identitatea eraikitzeke orduan nabarmentzen dituzten elementuak, kontuan hartuz zeintzuk azpimarratzen dituzten eta zeintzuk ez dituzten aipatzen⁶⁵.

Hitz gutxitan esateko, nazioa Aro Garaikidean oinarritzko erreferente identitarioa dela ulertzen dugu, eskubideei, betebeharreri eta subiranotasun politikoari lotua, eta erreferentea dela bai norbanakoentzat, bai ideologia ezberdinentzat eta bai kultura politikoentzat. Gainera, nazioa lurralde zehatz bati atxikita ageri da eta lotura egiten du norbanakoen egunerokotasunaren eta kontakizun Moderno unibertsalaren artean. Nazionalismoaren historiari ekarpena egin nahi diogu zentzu horretan, metakontakizun nazional ezberdinen arteko konparazioak eginez eta azalduz horiek nola erlazionatzen diren norbanakoen eguneroko espazioekin eta bizi istorioekin.

⁶⁵ Jordi Roca i Girona eta Lidia Martínez Flores, «Mi vida, tu vida, la nuestra. Determinantes y configuración de la estructura narrativa de los relatos de vida», hemen: *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, ed. Miren Llona (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2012), 93-130; Rosa García-Orellán, «De la oralidad a la intención biográfica», hemen: *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, ed. Miren Llona (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2012), 61-91; Miren Llona, «Historia oral: la exploración de las identidades a través de la historia de vida», hemen: *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, ed. Miren Llona (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2012), 15-59; Kathryn Anderson eta Dana C. Jack, «Learning to listen. Interview techniques and analyses», hemen: *The Oral History Reader*, ed. Studs Terkel eta Tony Parker, 1998 (London & New York: Routledge, 2009), 129-42; Studs Terkel eta Tony Parker, «Interviewing and interviewer», hemen: *The Oral History Reader*, ed. Robert Perks eta Alistair Thomson, 1998 (London & New York: Routledge, 2009), 123-28.

1. Euskal metakontakizun nazionala. Europar herentzia Herri Batasunean

Tesi honen ikergai nagusia Herri Batasuna koalizioaren inguruan egituratu zen kultura politikoa da. Herri Batasunaren lehen urteei buruz idazteak beharrezko egiten du koalizioa sortu zen momentuan bere bultzatzaileek errealitatea aztertzeke erabili zituzten baliabide diskurtsiboen jatorria aztertzea. Orain arte egindako ikerketek, Herri Batasuna izaera nazionalistako kultura politiko bat izan zela azpimarratu dute. Hau da, Herri Batasunak pisu handia ematen ziola nazioari bere diskurtsoan eta une bakoitzeko egoera politiko eta soziala aztertzeke orduan. Beraz, bere mezua eta praktika euskal nazioari eta bere historiari buruzko interpretazio zehatzak baldintzatuta egon ziren⁶⁶.

Horregatik, beharrezkoa da euskalduntasunaren esanahiari buruz hausnartzea. Baina baita frantsesetasunari eta espainoltasunari buruz. Eta aldi berean, kontuan hartzea esanahi horiek aldatzen joan zirela garai ezberdinetan zehar, Herri Batasunaraino iritsi arte. Euskal nazionalismoa aztertu duten lan nagusiek, beren burua nazionalistatzat jo duten erakunde politikoak aztertu dituzte, eta horien diskurtsoen eta errealitatearen ikuspegiaren oinarrizko elementuak azpimarratu dituzte⁶⁷. Normalean, arreta euskal nazionalismoaren agerpenaren eta garapenaren berezitasunean jarri dute. Eta hurbilketa konparatibo bat egin denean, adibidez irlandar edo frisiar kasuarekin, ezberdintasunak azpimarratu dituzte, antzekotasunak beharrean⁶⁸. Lan isolatu gutxi batzuek aztertu dute euskal nazionalismoa ikuspegi global batekin, hau da, euskal nazionalismoa gutxienez Europako mendebalde osoan ematen den fenomeno baten tokiko adierazpen bezala aztertuz.

Lehena Jon Juaristiren klasikoa izan zen, zeinak XIX. mendeko euskal identitatea europar testuinguru literarioaren baitan nola egikaritu zen aztertu zuen⁶⁹. Beranduago, Francisco Letamendiaren ekarpenak estatu-nazionalismoen eta estaturik gabeko

⁶⁶ Fernández Soldevilla eta López Romo, *Sangre, votos y manifestaciones...*; Arriaga Landeta, *Y nosotros que éramos...*; Bullain López, *Revolucionarismo patriótico...*; Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*

⁶⁷ Casquete Badallo, *En el nombre de Euskal Herria...*; de la Granja Sainz, *El nacionalismo vasco...*; Javier Corcuera, *La patria de los vascos...*

⁶⁸ Barbara van der Leeuw eta Raúl López Romo, «Forjando nación desde abajo: violencia e identidades en el País Vasco y el Ulster», *Cuadernos de Historia Contemporánea* 35 (2013): 15-39; Barbara van der Leeuw, «Regionalismo y nacionalismo en el siglo XIX: la batalla de los conceptos (País Vasco, Flandes y Frisia)», *Rubrica Contemporanea* VI, 11 zbk. (2017): 45-65.

⁶⁹ Jon Juaristi, *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca* (Madrid: Taurus, 1987).

nazionalismoen arteko harremanak aztertu zituen⁷⁰. Orain gutxi, Ludger Meesek egindako hurbilketa interesgarria argitaratu da⁷¹. Autore horrek kapitulu honetan kontuan hartuko dugunaren antzeko kronologia eta ikuspegia erabili ditu. Baina bere ikuspuntua oso lotua dago espainiar nazionalizazio prozesu ahularen hipotesiarekin. Hau da, defendatzen du XIX. mendearen bukaeran euskal nazionalismoa agertu izanaren kausa nagusia izan zela XIX. mendean zehar espainiar nazionalismoak ez zuela behar besteko arrakastarik eduki⁷².

Gertatzen dena da azken urteetako ikerketek azpimarratu egin dutela espainiar identitate nazionalaren hedapena ez zela izan inguruko herrialdeekoa baino ahulagoa eta horrek berebiziko garrantzia du euskal nazionalismoaren agerpena azaldu nahi badugu⁷³. Izan ere, azaldu beharko duguna da nola Hego Euskal Herrian, gainontzeko espainiar eremuan gertatu bezala XIX. mendean zehar espainiar nazionalismoa hedatu arren, aldi berean euskal nazionalismoaren agerpena eragin zuen prozesu bat gertatu zen. Zentzu horretan, Joseba Agirreazkuenagaren ekarpenak abiapuntu interesgarria eskaintzen digu, autore horrek azterketa historiografiko bat egin baitu, azalduz nola agertu eta garatu zen euskalduntasuna subjektu historiko bezala⁷⁴.

Kapitulu honetan euskal nazionalismoari buruzko *longue durée* erako interpretazioa proposatuko dugu, eta horrek ahalbidetuko digu identifikatzea zeintzuk ziren euskal nazionalismoaren ezaugarri nagusiak eta zeintzuk jaso zituen oinordekotzan Herri Batasunak. Horretarako, gure argudiaketa metakontakizun nazionala kontzeptuaren baitan antolatu dugu eta azpimarratu dugu zer nolako garrantzia duen XIX. eta XX. mendeetako europar testuinguru aldakorrak. Modu horretan, euskal nazionalismoari buruz egin diren ikerketa ezberdinak elkartu ditugu, marko teoriko komun batean.

Alde batetik, euskal nazionalismoa ikertzeko erabiliko ditugu azken urteetako historiografiak europar nazionalismoak ikuspegi global batetik aztertzeke proposatu

⁷⁰ Francisco Letamendia Belzunce, *Juego de espejos. Conflictos nacionales centro-periferia* (Madrid: Trotta, 1997).

⁷¹ Ludger Mees, «Ethnogenesis in the Pyrenees: The Contentious Making of a National Identity in the Basque Country (1643–2017)», *European History Quarterly* 78, 3 zbk. (2018): 462–489.

⁷² Ludger Mees, *The Basque Contention. Ethnicity, Politics, Violence* (Oxon: Routledge, 2020), 12-24.

⁷³ Ferran Archilés Cardona, «“Hacer región es hacer patria”. La región en el imaginario de la nación española de la Restauración», *Ayer* 64 (2006): 121-47; Ferran Archilés Cardona eta Alejandro Quiroga Fernández de Soto ed., *Ondear la nación. Nacionalismo banal en España* (Granada: Comares, 2018); Xavier Andreu Miralles, «La nacionalización española en el siglo XIX. Un nuevo balance», *España contemporánea* 49 (2016): 169-84.

⁷⁴ Joseba Agirreazkuenaga, *De los vascos sin historia a los vascos con historia* (Donostia: Txertoa, 2016).

dituen eskemak. Bestalde, euskal metakontakizun nazionalak espainiar eta frantses metakontakizunekin izan zuen harremanari erreparatuko diogu. Horrenbestez, defendatuko dugun ideia nagusia honakoa da: euskal nazionalismoa ez da salbuespena europar testuinguruan eta beraz, ez dago zertan *ad hoc* marko interpretatiborik sortzeko beharrik.

Modu horretan, Herri Batasuna aztertzeko eta euskal nazionalismoaren historiarekin lotzeko proposamen orokor bat egingo dugu eta honako galderei erantzuna emango diegu: azter daiteke euskal nazionalismoa nazioarteko testuinguruan? Zeintzuk dira euskal metakontakizun nazionalaren ezaugarri nagusiak? Zein elementu jaso zituen Herri Batasunak historiaren interpretazio nazionalista egiteko orduan?

Metakontakizun nazionalak

Metakontakizun nazionalak Europako identitate nazionalen sorreraren eta hedapenaren oinarrian daude. Kontakizun historikoak dira eta nazioa jotzen dute historiaren subjektu nagusitzat. Metakontakizun horien eragina hainbestekoa da, ezen eta kultura politiko ezberdinen diskurtsoak eta praktikak baldintzatzen baitituen eta baita momentu bakoitzeko gatazka sozialen interpretazioak eta norbanakoen identitateak ere. Bai metakontakizun nazionalak, bai horien eragina, aldatzen joan dira testuinguru historiko bakoitzean. Gainera, metakontakizun nazional bakoitzetik abiatuta kontakizun nazional zehatzagoak ere garatu dira, kultura politiko bakoitzaren ardatz ideologikoetara moldatuz⁷⁵.

Metakontakizun nazionalen buruzko ikerketak azpimarratu egin du historiaren interpretazio zehatz bat dagoela identitate nazionalen sorreraren baitan. Beste era batera esanda, identitate nazionalen nukleoan honako premisa dagoela: nazioak jarraikortasun historiko baten adierazpena dira. Bere sorreratik, Herri Batasunak ere jaso zuen ideia hori. Koalizioa egituratu zenean, honela azaldu zituen garai hartako mobilizazio garrantzitsuak, koalizioa fundatu zuen alderdi politikoetako batek: "Euskadi (...) quiere ser ella misma el sujeto de su historia"⁷⁶.

⁷⁵ Stefan Berger eta Chris Lorenz ed., *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, 2008 (Palgrave Macmillan, 2011); Thijs, «The Metaphor of the Master: "Narrative Hierarchy" in National Historical Cultures of Europe»...; Berger eta Lorenz, «National History Writing...

⁷⁶ LAIA, «Acta reunión de partidos e independientes, 1979/11/24», *Erne* 6 (1979).

Azpimarratu beharrez nazionalismoek historia manipulatu dutela, agian egokiagoa da esatea identitate nazional guztien oinarrian historiaren interpretazio zehatz bat dagoela. Izan kontserbadoreentzat edo iraultzaileentzat, nazioaren balizko iragan loriatsuak ezarri zituen errealitatearen interpretazioaren oinarriak eta nazioaren ustezko helburuak⁷⁷. Are gehiago, sarreran esan bezala, ikerketa ezberdinek metakontakizun nazionalen garrantzia azpimarratu dute Modernitate unibertsala norbanakoen egunerokotasunera ekartzen duen oinarritzko lotura bezala. Hots, identitate nazionalak eta jarraikotasun historiko nazional bat dagoenaren ideiak, lotu egiten ditu gure egunerokotsuna eta Progreso unibertsala. Ulergarri egiten du eta gure eguneroko espazioetara ekartzen du Modernitatearen kontakizun abstraktua⁷⁸.

Nazioa terminoaren jatorriari dagokionean, atzerago joan gitezke, baina azpimarratu beharrekoa da XVIII. mendean hartu zuela hitz horrek balio berezia. Izan ere, ordura arte beste termino batzuei (gizarte zibila, subiranoa, aberria eta herria) lotutako esanahiak nazioak bere baitan bildu zituen. Pentsamendu ilustratuak eta Amerikako Estatu Batuen Independentziak, hala nola Frantses Iraultzak, nazioa oinarritzko kontzeptu bihurtu zuten, botere politikoari, subiranotasunari eta gizonaren (!) eskubideei lotuta geratu baitzen. Oinarritzko kontzeptu zen heinean, bere esanahia zehazteko gatazka eman zen jendarteko agente ezberdinen artean. Beste modu batean azalduta, kultura politiko bakoitzak borrokatu egin zuen, nazioak balio zehatz batzuei lotutako esanahia izan zezan eta ez beste bat. Horregatik, abertzaletasuna edo nazioaren defentsa, XIX. eta XX. mendeko ideologia unibertsalisten oinarrian dago. Liberalismoak, errepublikazaletasunak, konterbadurismoak, sozialismoak, komunismoak, faxismoak, etab., bakoitzak nazioari buruz egiten zuen interpretazioa gizarte osoak onar zezan ahalegina egin zuten eta beste ikuspuntuak baztertzekoa. Anarkismoak ere, hein batean, nazioa hartu zuen bere ideologia eraikitzeke erreferente bezala, kasu honetan, gainditu beharreko oztopo bezala⁷⁹.

Kultura politiko eta ideologia ezberdinek metakontakizun nazionalak irudikatu dituzte XIX. eta XX. mendeetan zehar. Iraganetik etorkizunera doazen kontakizunak dira eta

⁷⁷ Marius Turda, «National historiographies in the Balkans, 1830-1989», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chris Lorenz, 2008 (Palgrave Macmillan, 2011), 463-89.

⁷⁸ Bhabha, «DissemiNation: time, narrative, and the margins of the modern nation»...

⁷⁹ Mónica Quijada, «Sobre “nación”, “pueblo”, “soberanía” y otros ejes de la modernidad en el mundo hispánico», hemen: *Las nuevas naciones: España y México 1800-1850*, ed. Jaime E. Rodríguez (España: Fundación MAPFRE, 2008), 19-51; Hutchinson, *Nations as zones of conflict...*; Koselleck, *Historias de conceptos...*

nazioa da kontakizunaren subjektu nagusia. Normalean, nazioaren epe arkaiko bat, ideala, imajinatzen da eta epe horri gainbehera nazional garai batek jarraitzen dio. Azkenik, etorkizunean berriro nazio ideala berreskuratzeko bide zail bat irudikatzen da. Egitura triadiko bezala definitu dute Mathew Levingerrek eta Paula Franklinek. Egitura triadiko horren abiapuntua urrezko garai baten osteko gainbehera da eta ideia hori jada presente zegoen mito klasikoetan eta kristautasunean⁸⁰.

Diego Murok azpimarratu duen bezala, euskal metakontakizun nazionalak ere egitura triadikoa du eta, gainontzeko nazionalismoetan bezala, egitura triadikoak iragan loriatsu bat azpimarratzen du, komunitate nazional garbia eta armonikoki batua imajinatuz⁸¹. Orainaldia, aldiz, makurra da, zenbait agente eta gertakizunek gainbehera nazionala eragin zutelako. Azkenik, etorkizun utopiko bat imajinatzen du, nazioaren oinarrizko armonia berreskuratu delarik abertzaleen elkarrekintza nazionalari esker⁸².

Herri Batasunak egin zuen lehen deialdi publikoetako bat 1978ko udan izan zen. Bere jarraitzaileak Orreagako guduaren 1200. urteurrenaren harira antolatutako ospakizunetan parte hartzera gonbidatu zituen. Herri Batasunak azaltzen zuenez, 778. urtean Pirinioetako pasabidean Karlomagnoaren tropak garaitu ondoren, baskoiek herrialde independente bat sortu zuten: Nafarroako erresuma. Orreagako batailari zentzu hori ematen zion interpretazioa Piarres Narbaitz historialari eta Baionako bikario orokorrak azpimarratu zuen 1970an⁸³. Interpretazio horri lotuta, Herri Batasunarentzat Orreagako bataila euskal nazioaren iragan idealizatuaren oinarrizko datetako bat bihurtu zen⁸⁴.

⁸⁰ Matthew Levinger eta Paula Franklin Lytle, «Myth and mobilisation: the triadic structure of nationalist rhetoric», *Nations and Nationalism* 7, 2 zbk. (2001): 175-94.


⁸¹ Muro, *Ethnicity and Violence...*

⁸² Anna Veronika Wendland, «The Russian Empire and its Western Borderlands: National Historiographies and Their 'Others' in Russia, the Baltics and the Ukraine», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chris Lorenz (Palgrave Macmillan, 2011), 405-41; Chris Lorenz, «Representations of Identity: Ethnicity, Race, Class, Gender and Religion. An Introduction to Conceptual History», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger y Chirs Lorenz, 2008 (Palgrave Macmillan, 2011), 24-59.

⁸³ Iñaki Iriarte López, «Roncesvalles», hemen: *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco* (Madrid: Tecnos, 2012), 664-73.

⁸⁴ Landaberea Abad, *Los «nosotros» en la Transición...*, 300-304.

1.1 irudia. Juan Carlos Eguillor-ek *Eginen* argitaratutako zinta, Herri Batasunaren Orreagako ospakizuna karikaturizatuz (1978)



Iturria: *Egin*

778. urtea erreferentziatzat hartuta, Herri Batasunak lehenago azaldu dugun metakontakizun nazionalen egitura triadikoa erreproduzitzen zuen bere jarraitzaileei eginiko deialdian. Erresuma independente bat sortu ostean, Herri Batasunak kontatzen zuen gainbehera nazional garai bat egon zela: "fueron esquilmando las libertades de nuestro pueblo". Eta azkenean, orainaldi makur batera iritsi omen zen: "lo que es hoy: una región más de España (...) donde nuestros derechos históricos como pueblo (...) se ven atados y pisoteados". Baina metakontakizun nazionalaren egitura triadikoa errepikatuz, etorkizun utopiko eta ideal bat ere aurreikusten zuen: "la lucha de nuestro pueblo por su liberación nacional y social", hots, nazioaren elkarrekintzak lortuko zituen "cotas insospechadas de libertad"⁸⁵.

Bi urte beranduago, Herri Batasunak berriro egin zion erreferentzia Nafarroako erresumari, euskal subiranotasun nazionala aldarrikatzeke. Herri Batasuneko hogeita lau parlamentariak Leireko abadian bildu ziren, Iruñeko lehen erregeak ehortzi omen ziren

⁸⁵ Egin, «Herri Batasuna llama a concentrarse el 15 de agosto en Roncesvalles», *Egin*, 1978ko uztailaren 29a.

lekuan. Bertan, honakoa zin egin zuten: "no rendirnos y seguir en la lucha sin tregua hasta lograr la plena Unidad y la total soberanía de nuestra única patria Euskal Herria"⁸⁶.

Orreagako eta Leireko adibideetan ikus daitekeenez, Herri Batasunak egitura triadikoa zuen euskal metakontakizun nazionala jaso zuen: euskal herria/nazioa subiranoa izan zen Nafarroako erresuman eta gainbehera luze baten ostean, nazioaren borroka kolektiboak subiranotasun galdua berrezarriko luke. Historiaren ikuspegi hori Europako metakontakizun nazional gehienek berdina da. Euskal metakontakizun nazionala XIX. mendean zehar egituratzen joan zen, gainontzeko europar metakontakizun nazionalak bezala. Baina ez zen *ex nihilo* asmakuntza. Aurretik zeuden elementu diskurtsibo eta identitario batzuk moldatu zituen. Jarraian, elementu horiek zeintzuk ziren azalduko dugu.

Aldez aurreko elementuak euskal metakontakizun nazionalen

Aro Modernoko Europan, konkista eta erlijio gerrek gurutzatutako testuinguruan, etnotipo nazional ezberdinak garatu ziren, herri hizkuntzetako literaturarari lotuta. Etnotipoek Europa nazio ezberdinetan zatitzen zuten eta nazio bakoitzari izaera berezi bat atxikitzen zioten, irudi, erreferentzia eta estereotipo batzuetan oinarrituta⁸⁷.

Euskaldunei buruzko lehen aipamenak ere, euskaldunak kolektibo bezala irudikatuz, Aro Modernoan agertu ziren. Normalean euskararen erabilerari lotuta ageri ziren, Europako hegoaldeko testuinguru erromantzean isolatuta zegoen jatorri aurreindoeuroparreko hizkuntza zen heinean. Iberiar penintsulan *vascongado* erabiltzen zen, euskal hiztunak erromantze hiztunetatik ezberdintzeko. Aldi berean, Donostia eta Baiona arteko kostaldean, *pays des basques* edo *bàscou* delakoan lurraldea erabiltzen zen barnealdeari deitzeko. Kostaldeko zati horretan gaskoi erromantzea baitzen hizkuntza frankoa, barnealdean euskaraz hitz egiten zen bitartean⁸⁸. Euskaraz ere, garai hartan agertu zen euskaldunen kolektiboa adierazteko terminoa: *eusquel erri* (1567) Lezarraga arabarraren obran, *heuskal-herria* (1571) Joannes Leizarragak Joana

⁸⁶ Egin, «Parlamentarios de HB juraron en Leyre defender la unidad y soberanía de la patria vasca», *Egin*, 1980ko apirilaren 6a.

⁸⁷ Joep Leerssen, «The poetics and anthropology of national character (1500-2000)», hemen: *Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters. A critical survey*, ed. Manfred Beller eta Joep Leerssen (Amsterdam-New York: Rodopi, 2007), 63-75.

⁸⁸ Xabier Zabaltza Pérez-Nievas, *Mater Vasconia* (Donostia-San Sebastián: Hiria, 2005); Agirreazkuenaga, *De los vascos sin historia...*

Albretekoa erregina protestantearen aginduz idatzi zuen testamentu berrian eta *euskal herria* (1643) Pedro de Aguerre *Axularen* obran. Gainera, azken lan horretan euskal herria osatuko luketen lurraldeak zerrendatuta ageri dira, Pirinioen bi aldeetan⁸⁹.

Euskal etnotipoa espainiar eta frantses etnotipoak sortu ziren garai berean agertu zen. Etnotipoek nazio bakoitzari ezaugarri berezkoak ematen zizkioten, aldaezinak omen zirenak. Horri buruzko hausnarketa interesgarria topatu dugu gure ikerketan, Xabier Palacios (1941-2014) Gasteizko fakultateko filosofia irakaslearen artxibo pertsonalean. Bereziki nabarmentzekoa dena, kontuan hartuz gero Palacios 1978ko urrian sortutako Herri Batasunerako Laguntza Batzordeko kideetako bat izan zela. 1960ko hamarkadaren hasieran, Palacios abadegai gazte bat zen Salamancan eta bere egunerokoan ohar goibelak jasotzen zituen, atsekabetu egiten baitzuen agustindar errekoletoen monasterioan irudikatuta ikusten zuen Espainiak.

Frankismo bete betean, Palaciosek bere tristura adierazten zuen, izan ez zen Espainia erasmista eta unibertsalistaren penaz. Cervantesekin, Fray Luis de Leónekin eta *el Lazarillo*ekin esnatu omen zen Espainia bat, Inkisizioak eta intolerantziak ito zutena. Are gehiago, Palaciosen zoritxarrerako, intolerantzia inkisitoriala bihurtu omen zen Espainiaren berezko ezaugarria⁹⁰. 1965ean, ezinegon handien ondoren, Xabier Palaciosek monakotza alde batera uztea erabaki zuen. Bere egunerokoan idatzi zuen, azkenean erabaki zuela bihurtzea "un nuevo hombre que asume el riesgo de su libertad"⁹¹. Agian, Espainia bazter uztea eta euskal nazionalismoan parte hartzea aldaezina eta negatiboa iruditzen zitzaion espainiar naziotik ihes egitearen ondorio izan zen.

Antzeko irakurketa bat egiten zuen Leopoldo María Panero (1948-2014) poeta madrildarrak, 1977ko urriaren 12an Parisen irakurri zuen *Manifiesto anti-español* zeritzon testuan. Panerok bere ezinegona adierazten zuen, Inkisizioak abiatutako espainiar pentsatzeko moduaren harira: "los efectos de aquel gran tachón se dejan sentir aún hoy"⁹². 1977an hauteskundeak egin eta aste gutxira, Panerok uko egiten zion Espainia hari, "en la que la aventura está prohibida por principio", eta adierazten zuen

⁸⁹ Mees, «Ethnogenesis in the Pyrenees...

⁹⁰ Xabier Palacios, *El Convento* (Archivo personal de Marina Palacios, d. g.).

⁹¹ Ibid., 353.

⁹² Leopoldo María Panero, «Es-pa-ña», *Ajoblanco* especial (1977): 56-57.

abentura posible egiten zuen salbuespena zela "el marco en que la buscan los luchadores vascos"⁹³.

Paneroren adibideak eta Palaciosen biografiak Espainiari buruzko ideia zehatz bat adierazten dute eta euskalduntasuna jartzen dute bere aurkako bezala. Espainiartasunaren eta euskaltasunaren arteko aurkakotasuna oso berandu agertu zen eta kontuan hartu behar dugu Aro Modernoko etnotipoak eta Aro Garaikideko nazioa ez dira gauza bera. Baina azpimarratu beharra dago etnotipoek paper garrantzitsua jokatu zutela nobleen pribilegioek eta katolikoek eta protestanteen arteko banaketak gurutzatzen zituen gizarteetako hierarkiak justifikatzeko orduan eta, gainera, nazioek ondorengotzan jaso zituzten zenbait mito ezarri zituztela.

Izan ere, jada Erdi Arotik erresuma ezberdinek aldarrikatzen zuten kristauek kristauek zirela. Eta ideia hura biziberritu egin zen Erreformaren eta Kontrarreformaren Europan. Bestalde, jendarte estamentalean pribilegiatuen boterea balizko iragan ospetsuetan oinarritzen zen, horretarako kultura klasikora edo testu sakratuetara joz⁹⁴. Germaniarrek Troiako heroiak ondorengoak zirela haizatu zuten, ingelesek Brutusen sendikoak zirela eta eskoziarrek, Egiptoko Scota printzesaren leinukoak zirela. Iberiar penintsulako biztanleek Noeren seme Tubal hartzen zuten arbasotzat.

Euskaldunak, erromatarren iritsieraren aurreko hizkuntza mantentzen zuten espainiarrak, Bibliatik zetorren ondorengotza horren frogaz lirake. Gainera, euskaldunei kristautasuna iritsi aurretik ere monoteistak zirelako ideia atxikitzen zitzairen. Horrez gain, euskaldunak erromatarren konkistaren aurka gogor borrokatu zuten kantabriarren ondorengoak ere lirake, nahiz eta iturri klasikoek ez duten aukerarik ematen kantabriarren eta euskaldunen arteko loturak ezartzeko⁹⁵. Euskaldunen irudi hura Goi Erdi Aroan erresuma bisigodoan eta frankoan garatu zen estereotipo batean ere oinarritzen zen. Estereotipo horren arabera, baskoiak zibilizazioaren ertzetan

⁹³ Ibid.

⁹⁴ Peter Hoppenbrouwers, «Medieval peoples imagined», hemen: *Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters. A critical survey*, ed. Manfred Beller eta Joep Leerssen (Amsterdam & New York: Rodopi, 2007), 45-62.

⁹⁵ Joseba Gabilondo, «XVI. mendetik XX. mendera: apologistak eta subjektu euskalduna», hemen: *Euskal Herriko Pentsamenduaren gida*, ed. Alaitz Aizpuru et al. (Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea, 2012), 7-25.

bizi ziren herri bat ziren eta errege ezberdinek salbai haiek behin eta berriro diziplinatzen behartuta ikusten zuten bere burua⁹⁶.

Horrenbestez, Aro Modernoan zehar euskara bihurtu zen euskal etnotipoaren ezaugarri nagusia. Euskararen mantentzeari lotuta azaltzen zen euskaldunak-kantabriarrak-baskoiak ez zirela izan erromatarrek konkistatuak eta, horregatik, jatorrizko independentzia bat mantentzen zutela. Beraz, gaztelar eta frantses erresumekiko lotura, berdinen arteko akordio baten ondorio zen.

Mito multzo hori —Jon Juaristik "materia de Vasconia" deitu zuena—, euskaldunen kaparetasun unibertsala (noblezia kolektiboa) aldarrikatzeko erabili zen⁹⁷. Euskaldun guztiak nobleak izatearen ideia bereziki erabilgarria zen Habsburgotarren Monarkia Hispanikoan postu onak lortzeko, odol garbitasunaren froga bezala aurkeztuz. Bien bitartean, Pirinioen iparraldean katolikoaren eta protestanteen arteko gatazka ageriagoa izan zen. Bertan, euskal etnotipoa Kontrarreforma katolikoaren alde erabili zen eta, gainera, euskal literaturaren garapenerako eta populazioaren euskarazko alfabetatzerako giltzarri izan zen Sarako Eskolaren erdigune ideologikoan egon zen ideia hura⁹⁸. Bai Monarkia Hispanikoan bai Frantses Koroaren lurraldeetan, euskal etnotipoari atxikitako estereotipoak (euskara, kristautasun primitiboa, jatorrizko independentzia eta kaparetasun unibertsala) bertako eliteak erabili zituen, administrazioa zentralizatzeko saiakeren aurkako argudio bezala.

Frantses Iraultzaren garaian, euskal etnotipoaren inguruko mito multzoa erabili zuen Euskal Herriko eliteak testuinguru berriaren aurrean bere diskurtsoa garatzeko, hain zuzen ere nazio terminoa oinarritzko kontzeptu bihurtu zen garaian. Aldi berean, XVIII. mendetik frantses intelektualek zuten eraginak *basque/vasco* terminoa hedatu zuen baita Pirinioen hegoaldean ere. Pirinioen bi aldeetan, euskal eliteak foruzaletasuna deritzon ideia garatu zuen. Foruzaletasunaren arabera, euskal eremuko tokiko erakundeak eta horien funtzionamendua konstituzio liberal baten parekoak ziren eta, horregatik, euskaldunek ez zuten beste konstituziorik behar.

⁹⁶ Mikel Pozo Flores, «Vascones y wascones. Las relaciones entre las dos vertientes de los Pirineos occidentales según las fuentes escritas y los testimonios arqueológicos (siglos VI-VIII)», hemen: *Las fronteras pirenaicas en la Edad Media (siglos VI-XV)*, ed. Carlos Laliena Corbera et al. (Zaragoza: Prensas de la Universidad de Zaragoza, 2018), 25-65.

⁹⁷ Juaristi, *El linaje de Aitor...*, 52-55.

⁹⁸ Agirreazkuenaga, *De los vascos sin historia...*; Manuel Padilla Moyano, «Le Dauphin itsasontziko gutuneri (1757) edo euskararen historia behetik», *Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria* 2, extra zbk. (2015): 45-77.

Argudio hura erabili zuten euskal ordezkariak 1789an, Asanblada Nazional frantsesean. Baita ere arabar, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar ordezkariak, 1808an, Luis Bonaparte errege konkistatzailearen aurrean. Euskal eliteak britainiar eredia zuten buruan eta defendatzen zuten egin beharreko gauza bakarra jada bazeuden erakundeak eredu liberaletara egokitzea zela eta ez erakunde horiek deuseztatzea⁹⁹.

Azpimarratu behar da foruzaletasunak eta bere argudioek ez zutela auzitan jartzen Pirinioetako iparraldeko euskaldunak frantses nazioko kide zirenik, ez eta hegoaldeko euskaldunak espainiar nazioko parte zirenik. Eta kontuan hartu behar dugu orduantxe hartu zuela nazioak subiranotasun politikoari lotutako esanahia¹⁰⁰.

Frantzia Antzinako Erregimenetik zetozen erakundeak deuseztatu zirenean eta herrialdea departamentutan banatu zenean, euskal eremua Behe Pirinioen departamentuaren barnean geratu zen, eta departamentuko hiriburua Biarnon ezarri zen. Erakunde berrien ezarpenarekin, Pirinioen iparraldean foruzaletasunaren diskurtsoa indargabetu zen. Baina hegoaldean, foruzaletasuna oso garrantzitsua bihurtu zen, Frantses Iraultzaren osteko testuinguruan, Espainiar Monarkian sortu ziren gatazka politikoetan argudio bezala erabiltzeko¹⁰¹.

Hala ere, Espainiako diskurtso foruzaleak Ipar Euskal Herriko intelektuak eragin handia izan zuen. Frantses Iraultzaren testuinguruan agertu baitzen lehen aldiz euskal metakontakizun bat, une hartan sortu ziren metakontakizun nazional liberalen eta sendotzen ari ziren identitate nazionalen eredia jarraituz. Dominique-Joseph Garat-ek (1749-1833) artikulatu zuen euskal metakontakizun hura. Garat Lapurdiko Biltzarraren ordezkaria izan zen 1789 Estatu Orokorretan eta, ondoren, girondinoen buruzagietako bat eta frantses enbaxadorea Napolin. Napoleonen garaian senatari bihurtu zen eta 1811. uretan, denbora luzez buruan izan zuen plan bat jasotzen zuen txostena bidali zion

⁹⁹ Manex Goyeneteche, *Historia General del País Vasco. A las puertas de la sociedad moderna* (Donostia: Tartalo, 2000); Joseba Agirreazkuenaga, *Euskal herritarren burujabetza. Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz (1793-1919): Foruen bidezko erakundetzetik Autonomia Estatuturara* (Irun: Alberdania, 2012); Igor Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)* (Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2006), 87-97.

¹⁰⁰ Coro Rubio Pobes, «Centinelas de la patria. Regionalismo vasco y nacionalización española en el siglo XIX», *Historia Contemporánea* 53 (2016): 393-425; Coro Rubio Pobes, *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales* (Madrid: Biblioteca Nueva, 2003); Fernando Molina Aparicio, «“¿Delenda est Carthago?”. La nación española y los fueros vascos (1868-1898)», hemen: *El País Vasco y España: identidades, nacionalismos y Estados (siglos XIX y XX)*, ed. Luis Castells, Arturo Cajal eta Fernando Molina (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2007), 65-84.

¹⁰¹ Zabaltza Pérez-Nievas, *Mater Vasconia...*, 153. XIX. menderako Espainiar Monarkia erabiliko dugu, Aro Berriko Monarkia Hispaniko inperialarekin ezberdintzeko.

enperadoreari. Frantses Inperioari lotutako herrialde berri baten sorrera proposatzen zuen. Fenizia Berria izena izango zuen eta Pirinioen bi aldeetako euskaldunek osatuko lukete. Bere argudiaketaren testuingurua nazioarteko gerra napoleonikoa zen eta bere azalpenaren ardatza, herrialde sasi-indepenente batean bukatzen zen euskal metakontakizuna¹⁰².

Frantses hiritarren inguruko kontakizun haren eta kodifikazio legal haren testuinguruan, Garatek euskal nazioaren izatea genealogikoki argudiatu zuen. Horretarako, Aro Modernoko apologisten idatziak berrinterpretatu zituen eta ondorioztatu zuen iberiar penintsulako lehen biztanleak feniziarrek izan zirela. Zentzu horretan, espainiar autoreek garatutako ideia bere egiten zuten, Espainiaren herentzia feniziarra aldarrikatu baitzuten horiek, ilustratuek Espainiari buruz zuten irudi negatiboari aurre egiteko eta Espainiaren jatorri unibertsala aldarrikatzeko¹⁰³.

Horrela, lehen espainiarrak ziren heinean, Garaten kontakizunean euskaldunak feniziar haien ondorengoak lirarteke eta euskara, antzinako feniziarren hizkuntza. Euskaldunen erakundeak artzainek eta nekazariak idatzitako legedia batean oinarrituta zeudela defendatu zuen. Garat bezalako liberal baten ikuspegian, euskaldunek eta beren legeek Rousseuren herri idealaren esentzia mantentzen zuten. Gainera, euskaldunak eredu zko legedia eta moralak mantentzen zuten herri ezberdina zirela zioen topikoa jada hedatua zegoen europar intelektualen artean. Besteak beste, topiko hura honako autoreek hedatu zutelako: Antoine Court de Gébelin, (1719-1784), Lorenzo Hervás (1735-1809), John Adams (1735-1826), Juan Antonio Moguel (1745-1804) eta Wilhelm von Humboldt (1767-1835)¹⁰⁴.

Garaten arabera, feniziarrek antzinako greziarren arbasoak ere izan ziren, hau da, Mendebaldeko zibilizazioaren arbasoak. Horrela, euskaldunak europar zibilizazio unibertsalaren erlikia bihurtzen zituen. Eta zentzu horretan, frantsesen ustezko unibertsaltasunaren eta Napoleonen eredu inperialaren aliatu ziren euskaldunak. Garaten kontakizunean, euskaldunak itsasgizon ospetsu izateak egiten zituen berezi, Ternuaraino iritsi baitziren, lehen aldiz munduari itzulia burutu baitzuten eta kortsario beldurgarriak

¹⁰² Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...*, 113-22.

¹⁰³ Xavier Andreu Miralles, «Què se'n va fer, dels fenicis? Raça, història y nació a l'Espanya liberal (1830-1868)», hemen: *Inventar la nació. Cultura i discursos nacionals a l'Espanya conremporània*, ed. Ferran Archilés Cardona, Afers (Catarroja-Barcelona, 2017), 65-98.

¹⁰⁴ Agirreazkuenaga, *De los vascos sin historia ...*, 76; Iñaki Zabaleta Gorrotxategi, «Humboldtten euskal nazioaz», *Jakin* 219 (2017): 11-29; Mees, «Ethnogenesis in the Pyrenees...», 467-68.

izan baitziren. Fenizia Berriaren sorrerak euskaldunek beren baitan gordetzen zuten energia historiko guztia askatzea ahalbidetuko zuen eta, horrela, Frantziak itsas potentzia aliatu bat izango zukeen, britainiarren itsasoen kontrola auzitan jarriko zuena¹⁰⁵.

Frantsesak, Antzinako Erregimenaren kateak apurtuta, askatasun unibertsalaren eredu bihurtu baziren, Garatek argudiatzen zuen euskaldunen herrialde berriak antzeko eredu suposatuko zuela. Horrenbestez, Garatek egitura triadikodun euskal kontakizun bat sortu zuen. Euskaldunak antzinako zibilizazio feniziarren ondorengoak liriateke (urrezko aroa) eta herrialde propiorik gabe egon ostean (gainbehera nazionala), Fenizia Berria sortzean beren energia guztia askatuko lukete (etorkizun utopikoa). Garaten plana kaxoi batean gordeta geratu bazen ere, bere planteamenduen eragina hurrengo hamarkadetan zehar sumatzen da.

Europako hainbat metakontakizun nazional Napoleonen Inperioaren desagertzearen ostean finkatu ziren. Autore liberalak kezkatuta zeuden doktrina liberalak norbanakoari ematen zion gehiegizko garrantziarekin. Iruditzen zitzairen Frantses Iraultzak ekarri zuen kaosaren ostean, diskurtso antiliberala indartuta zegoela, Antzinako Erregimena garai armoniatu bat bezala berrimajinatu baitzuten erreazionarioek. Horregatik, pentsatu zuten liberalismoaren egitekoa zela subjektu historiko nazional indartsu bat garatzea, aurre egingo ziona Antzinako Erregimenaren apologiari. Testuinguru kultural erromantikoa murgilduta eta antiliberalen erretorika arrakastatsua imitatuz, XIX. mendearen lehen erdiko liberalek iraganean eta nazioan bilatu zuten beren proiektu politikoaren justifikazioa. Eta identitate nazionalaren oinarria historia komuna jarri zuten. Liberalek historia berridatzi zuten, nazioak bere buruaren kontzientzia hartzen zuten prozesu bat bezala. Sortu zituzten metakontakizun nazionaletan, hasiera batean anaitasunean, askatasunean eta berdintasunean oinarritutako nazioa egon zen (urrezko aroa) baina Antzinako Erregimenak balore horietan oinarritutako gizartea deuseztatu zuen (gainbehera nazionala). Kontakizun horretan, mitoak atzean utzi eta arrazoia ardatz

¹⁰⁵ Jean Casenave, «Dominique-Joseph Garat - Recherches sur le peuple primitif de l'Espagne; sur les révolutions de cette péninsule; sur les Basques espagnols et français. Rapport établi en 1811 pour Napoléon Ier», *Lapurdum* 11 (2006), <https://doi.org/10.4000/lapurdum.309>.

hartuta, abertzaleek lortuko zuten Antzinako Erregimenarengandik behin betiko libratzea eta nazioaren jatorrizko armonia berreskuratzea (etorkizun utopikoa)¹⁰⁶.

Euskal kasuan, metakontakizun liberal horiekin lot daiteke Juan Antonio Zamacolaren (1758-1826) lana. Dimoztarra jaiotzez, liberala eta masoia izanik erbestera ihes egin zuen 1815ean borbondarren errestituzioa gertatu zenean. Frantzia argitaratu zuen *Historia de las Naciones bascas de una y otra parte del Pirineo Septentrional* (1818). Bestetik, Euskal Herriko autore gazteagoek James Macpherson (1736-1796) eta Walter Scott (1771-1832) bezalako autoreen estilo erromantikoaren eta Erdi Aroko erreferentzien eraginpean idatzi zuten. Euskal iraganari buruzko mito zaharrak berridatzi eta berriak asmatu zituzten autore ezberdinek, hala nola Antoine Thompson d'Abbadie (1810-1897), Jean Pierre Duvoisin (1810-1891), Jean Martin Hiribarren (1810-1866), Francisco Navarro Villoslada (1818-1895), Antonio Trueba (1819-1889) eta José María Goizueta (1820-1884)¹⁰⁷.

Testuinguru kultural aberats hartan, Agosti Xahok (1811-1858) Garaten metakontakizuna berritu zuen. Xahorentzat, Garatentzat bezalaxe, euskaldunen askatasuna Frantses Iraultzari eta zibilizazio unibertsalari lotuta zegoen. Zuberotar autorea Pariseko inguru erromantikoetako eta errepublikazaleetako kide izan zen eta 1848 iraultzaren porrotaren ostean, garai batez Gasteizen erbesteratu zen. Garai hartan modan zeuden gnostizismoaren eta teoria orfikoaren eraginez, euskaldunak eguzkiaren semeak bezala izendatu zituen. Lehenagoko euskal etnotipoaren eta metakontakizun nazional liberalen topikoak errepikatzen zituen ikuspegia zen Xahorena. Euskaldunak, eguzkiaren semeak, bakean eta zoriontsu bizi izan ziren (urrezko aroa), gauaren semeen inbasioak (zeltak, feniziarak, erromatarak, germaniarrak, gaztelarrak, musulmanak...) iritsi arte (gainbehera nazionala). Baina Frantses Iraultza eta Karlismaldia euskaldunentzako garai loriatsu berri baten zantzuak omen ziren (etorkizun utopikoa)¹⁰⁸.

Euskaldunei buruzko metakontakizunari dagokionez, Xahok egin zuen ekarpen garrantzitsuenetakoa 1833-1839 arteko Karlismaldiaren interpretazio independentista izan zen. Karlismaldia euskaldunen askapenerako gerra bezala irudikatzea ohikoa izan

¹⁰⁶ Ceri Crossley, «History as a principle of legitimation in France (1820-48)», hemen: *Writing National Histories. Western Europe since 1800*, ed. Stefan Berger, Mark Donovan eta Kevin Passmore (London and New York: Routledge, 1999), 49-56.

¹⁰⁷ Agirreazkuenaga, *De los vascos sin historia ...*, 76-88.

¹⁰⁸ Xabier Zabaltza Pérez-Nievas, «Agosti Xaho eta Euskal Pizkundea», *Jakin* 189 (2012): 11-22; Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...*, 217-41.

zen atzerrian, Europan hedatuta baitzegoen euskaldunen irudi bat, herri ezberdin bezala eta ereduzko legediaren eta moralaren jabe bezala imajinatzen zituena¹⁰⁹. Xahok gerrari buruz egin zuen interpretazioa 1834an Françoise Eugene Garayk (1796-1873) argitaratu zuen faltsifikazio baten eraginpean ere bazegoen. Garayk aldarrikatu zuen Garaten artxibo pertsonalean *Altabiskarco Cantua* izeneko kantu epikoa topatu zuela, Erroldanen Kantuaren euskal bertsoia. Poema hark euskaldunen balentriak loriatzen zituen Orreagako guduan. Irudi hark Xahoren imajinazioa hauspotu zuen, Karlismaldia gerra independentista bezala irudikatzeko eta Orreagako gertakizunekin lotzeko¹¹⁰. Irakurlea konturatuko zenez, Xahoren eta bere metakontakizunaren oihartzunak Herri Batasunaraino iritsi ziren. Ez bakarrik Orreagako gudua interpretazioaren harira, baita karlismoaren azalpen independentista egiteko orduan ere. 1978an, Telesforo Monzonek (1904-1981) aldarrikatzen zuen Herri Batasuna Zumalakarregi jeneral karlistaren agindupean hildakoen ondorengoa zela¹¹¹.

Nahiz eta orduko iturriek, batez ere Pirinioen hegoaldekoek, Karlismaldiaren ikuspegi independentista ezeztatzen duten, azpimarratu behar da Lehen Karlismaldiak euskal identitatea indartu zuela. Garaiko herri literaturak batez ere Tomas Zumalakarregi loriatzen zuen, erregegai karlista baino askoz gehiago. Gainera karlismoarekiko sostengua tokiko euskal erakundeen defentsari lotuta aurkezten zen. Zentzu horretan, karlistek euskalduntasuna liberalismo atzerritarraren aurkako bezala ulertzen zuten, eta tokiko euskal erakundeak liberalismoaren aurkako gotorleku ziren haientzat¹¹².

Aldi berean, liberalismoa sostengatu zuten eliteek gerra erbestean pasa zuten, Ipar Euskal Herrian. Bertan, euskara erabat nagusi zen eremuan, liberalen eta euskaltzaletasunaren arteko harremana indartu zen. Behin bakea adostuta —eta badirudi lorpen horretan ezinbesteko izan zirela euskal liberalen eta britainiar diplomazia kontserbadorearen arteko harremanak—, euskal elite guztiak, izan karlista edo izan liberal, foruzaletasuna bere diskurtsoaren *leitmotiv* bezala hartu zuen. Foruzaletasun

¹⁰⁹ Laetitia Blanchard, «L'Identité espagnole au secours de la contre-révolution française: les provinces basques et la Navarre pendant la première guerre carliste dans la presse légitimiste française», hemen: *Être espagnol*, ed. Jean-René Aymes eta Serge Salaün (Paris: Presses Sorbonne Nouvelle, 2000), 69-105; Jose Mari Esparza Zabalegi, «Errepublikanoa eta independentista?», *Berria*, 2019ko martxoaren 10a.

¹¹⁰ Iriarte López, «Roncesvalles»...

¹¹¹ Egin, «Monzón llama a la responsabilidad a todo el pueblo vasco», *Egin*, 1978ko ekainaren 14a.

¹¹² Mikel Aizpuru, Ander Delgado eta Maitane Ostolaza, «Pueblo, política y nación en el País Vasco (1833-1936): una aproximación a través de los bertso-paparak», hemen: *Procesos de nacionalización en la España Contemporánea*, ed. Mariano Esteban de Vega eta María Dolores de la Calle Velasco (Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, 2010), 329-53.

kontserbadorea bihurtu zen euskal eremuko ideologia nagusia XIX. mendearen erdialdean. Nahiz eta ez zuten zalantzan jartzen euskaldunen espainiartasuna, euskal metakontakizun autonomo bat garatu zen eta garai haren sinbolo bihurtu zen *Guernicaco Arbola* kantua. José María Iparraguirrek (1820-1881) arrakastatsu bihurtu zuen kantu haren letran, bai euskalduntasunaren topiko kontserbadoreak bai frantses errepublikazaleen eragina hauteman daiteke¹¹³.

Horrenbestez, XIX. mendearen erdialdean bazegoen euskal metakontakizun bat, Ipar Euskal Herriko intelektualek sortu zutena eta frantses metakontakizun nazional eta liberalari lotua zegoena. Aldi berean, euskal identitate indartsu bat garatu zen, foruzaletasuna Espainiako monarkia liberal kontserbadoreari lotuta. Hala ere, ekidingo dugu euskal nazionalismoaren aurrekariez edo proto-nazionalismo batez hitz egitea. Egia da euskal nazionalismoak lehenagotik zeuden material kulturalak erabili zituela, baina euskal nazionalismoaren sorrerak ez zuen zertan gertatu. Hurrengo atalean, sorrera hura ahalbidetu zuen testuinguru zehatza azalduko dugu.

Euskal metakontakizun nazionalaren sorreraren testuingurua

XIX. mendean, Pirinioen hegoaldeko euskalduntasuna Espainiaren barnean ulertzen zen. Garai hartan, espainiar metakontakizun nazionalak bi aldaera izan zituen. Bata erreakzionarioa eta bestea liberala. Bi kontakizunen oinarrian Napoleonen inbasioaren aurkako gerra zegoen (1808-1813), baina aldaera bakoitzak interpretazio nazionalista ezberdina egiten zuen.

Erreakzionarioentzat, frantsesen aurkako gerra espainiar katolizismoak bere garai loriatsua berreskuratzeko borrokaren mugarri zen. Kasu horretan, espainiar metakontakizun nazionalaren urrezko aroa Habsburgotarren monarkiaren une gorenarekin identifikatzen zen, bere botere inperialarekin eta gaztelar literaturaren Urrezko Mendearekin. Gainbehera nazionala borbondar dinastia frantsesarekin hasiko

¹¹³ Agirreazkuenaga, *De los vascos...*, 98-100; Rubio Pobes, «Centinelas de la patria...», 415; José María Ortiz de Orruño Legarda, «Fueros, identidades sociales y guerras carlistas», hemen: *La autonomía vasca en la España contemporánea (1808-2008)*, ed. Luis Castells eta Arturo Cajal (Madrid: Marcial Pons & Instituto de Historia Social Valentín de Foronda, 2009), 25-52; Xabier Zabaltza Pérez-Nievas, «Gernikako Arbola, un himno huérfano», *Historia Contemporánea* 54 (2017): 207-41.

litzateke. Eta XIX. mendean egin beharrekoa benetako Espainia katolikoa berreskuratzea zen (etorkizun utopikoa)¹¹⁴.

Liberalen kasuan, Napoleonen tropen aurkako gerran, espainiar herriak 1521eko komuneroen adibidea jarraituko luke, errepikatuz orduan Karlos I enperadorearen legedia atzerritarra ezartzearen aurka gertatu zen borroka. Liberal espainiarren metakontakizun nazionalan, komuneroen porrota espainiar herri burujabearen (urrezko aroaren) bukaera zen. Eta gainbehera, habsburgotar eta borbondar dinastiekin etorri zen. Baina frantsesak kanporatzean, espainiar herriak irabazi egin zuen bere subiranotasunerako eskubidea, ordura arte dinastia atzerritarrek bahitu zutena. Liberal espainiarren metakontakizun nazionalaren arabera, nazioa subjektu subirano bezala aldarrikatzen zuen erregimen konstituzionala izango zen urrezko aro berri baten bermea (etorkizun utopikoa)¹¹⁵.

Espainiar liberalen eta erreakzionarioen arteko gatazka horretan, euskal eremuan liberalismo kontserbadorearen bertsio propio bat izan zen nagusi eta horregatik, 1868ko espainiar iraultzan legedia antiklerikalak onartu zenean, euskal populazioaren zati handi bat karlisten neokatolizismoarekin eta matxinadarekin lerratu zen. Izan ere, 1872-1876 arteko Karlistaldia ezin da bereizi orduko Europako giro kultural eta politiko orokorretik. Eta XIX. mendearen bigarren erdian gatazka areagotu zen liberal antiklerikalen eta neokatolizismoaren artean¹¹⁶. Neokatolizismo deritzongunak bere burua Estatu liberalak etengabe erasotua ikusten zuen eta sentimendu agoniko bat hartu zuen 1870ean, Italiako erresumak Aita Santua Vatikanon konfinatu zuenean¹¹⁷. Horrela, karlista espainiarrek "gure fedia Espainiakua"ren alde egin zuten gerra, hau da, katolizismoaren alde oihukatuz: "Biba gure Jangoikua! Biba Aita Erromakua!"¹¹⁸.

Gerra garaiko herri literaturak aditzera ematen du bai karlistentzat, bai gobernuaren aldekoentzat, Espainia zela erreferentzia nazionala. Baina, aldi berean, euskaldunak

¹¹⁴ José Alvarez Junco eta Gregorio de la Fuente Monge, «La evolución del relato histórico», hemen: *Las historias de España. Visiones del pasado y construcción de identidad*, (Fontana, Josep eta Villares, Ramón (zuz.), *Historia de España*), ed. Josep Fontana eta Ramón Villares (Barcelona: Crítica & Marcial Pons, 2013), 3-437; Joxe Azurmendi, *Espainiaren arimaz* (Donostia: Elkar, 2006).

¹¹⁵ Alvarez Junco eta de la Fuente Monge, «La evolución del relato...»; Azurmendi, *Espainiaren arimaz...*

¹¹⁶ Oded Heilbronner, «The Age of Catholic Revival», hemen: *A Companion to Nineteenth-Century Europe. 1789-1914*, ed. Stefan Berger (Oxford: Wiley-Blackwell, 2009), 236-47.

¹¹⁷ Christopher Clark, «The New Catholicism and the European culture wars», hemen: *Culture Wars. Secular-Catholic Conflict in Nineteenth-Century Europe*, ed. Christopher Clark eta Wolfram Kaiser (Cambridge: Cambridge University Press, 2003), 11-46.

¹¹⁸ Joseba Tapia, «Eta Tira eta Tunba» (Zakurraren bibolina, 2010).

zirela erreferentziazko lurralde eta kultura markoa¹¹⁹. Gauzak horrela, 1876an karlistek gerra galdu zutenean berriro, urte hura mugarri bihurtu zen eta hurrengo hamarkadetako euskal giro kulturalean eragin handia izan zuen¹²⁰.

Behin XIX. mendearen erdialdeko hamarkada gatazkatsuak pasata, 1870eko hamarkadaren bukaerarako Estatu liberalak finkatu ziren. Identitate nazionalei dagokienez, XIX. mendearen azken herenean eskualdeek garrantzia berezia hartu zuten identitate nazionalak sendotzeko orduan. Nazioen barneko eskualde ezberdinen gorazarreak egin ziren Europa osoan, kutsu kontserbadorearekin. Eskualdea ohiko paisaia bezala irudikatzean, estatikoa eta hurbila, irudi kontserbadore horrek ahalbidetu egiten zuen norbanakoek beren eskualdearekin zuten identifikazioa, identitate nazional zabalago bati eta nazioaren kontakizun historiko eta abstraktuei lotzea¹²¹.

Zentzu hartan, Hego Euskal Herrian bazegoen jada eskualdearen irudi kontserbadorea, euskaldunei buruzko lehenagoko estereotipoek indartua eta espainiar nazioari lotua. Baina euskalduntasun hura oso lotua ageri zen azken matxinada karlistari. Espainiako beste eskualde batzuetan bezala, eta Europako mendebaldeko gainontzeko herrialdeetan gertatu zen moduan, euskal komunitate homogenea eta kontserbadorea idealizatu zen eta irudi hori erreproduzitu zen¹²². Baina espainiar liberalek euskalduntasun hura beraien imajinariotik eta espainiar metakontakizun liberaletik egotzi zuten. Euskal estereotipoa 1876ko Errestaurazioko Espainia liberalaren antitesia zen beraien ikuspegiari eta, horrenbestez, espainiar liberalen diskutsotik desagertu egin ziren foruzaletasunari eta euskalduntasunari lotutako ideiak¹²³.

Bestalde, XIX. mendearen azken herenean Estatu liberalek hezkuntza sistema eta zerbitzu militar eraginkorrak jarri zituzten martxan. Bertan, identitate nazionala modu esplizitu batean irakasten eta erreproduzitzen zen. Identitate nazionala gizarteko ohiko elementu bihurtzeko beste faktoreetako batzuk, administrazioaren garapena, legedia

¹¹⁹ Antonio Zavala, *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* (Oiartzun: Sendoa, 1997).

¹²⁰ Muro, *Ethnicity and Violence...*; Félix Luengo Teixidor, «Restauración: identidad, fueros y autonomía. Liberales, republicanos y carlistas en la construcción de la identidad vasca (1876-1923)», hemen: *La autonomía vasca en la España contemporánea (1808-2008)*2, ed. Luis Castells eta Arturo Cajal (Madrid: Marcial Pons & Instituto de Historia Social Valentín de Foronda, 2009), 135-57.

¹²¹ Archilés Cardona, «“Hacer región es hacer patria”...

¹²² Xosé Manuel Núñez Seixas, «The Region as Essence of the Fatherland: Regionalist Variants of Spanish Nationalism (1840-1936)», *European History Quarterly* 31, 4. zbk. (2001): 483-518.

¹²³ Molina Aparicio, «“¿Delenda est Carthago?”...

ekonomikoa eta garraio sareak izan ziren¹²⁴. Aldi berean, gobernuek azeleratu egin zuten aldaera linguistiko zehatz baten ezarpena hizkuntza nazional bezala¹²⁵. Estatu liberalek hizkuntza nazional bakarra aldarrikatu zuten. Ondorio, beste hizkuntza bat nagusi zen eremuetan mugimendu kultural garrantzitsuak sortu ziren, bigarren mailan geratu ziren eskualdeko hizkuntza horiei lotuta. Berpizkunde linguistikoak bezala ezagutzen dira mugimendu kultural horiek, flandriar, britainiar, galestar eta katalandar eskualdeetan garatu zirenak, besteak beste.

Euskal kasuan, frantses testuinguruaren eragina azpimarratu behar da beste behin. Euskal berpizkundea III. Errepublika frantseseko gatazka politiko-kulturalei lotuta gertatu baitzen, hain zuzen ere, Estatu laikoaren eta neokatolikoaren arteko gatazkari¹²⁶. Frantziako beste eskualde batzuetan gertatu zen bezala, Ipar Euskal Herriko elite kontserbadore eta katolikoak tokiko identitate arrakastatsu bat garatu zuen, 'euskaldun fededun' topikoa azpimarratuz¹²⁷. 1851tik euskal lore jokoak ospatu zituzten Antoine d'Abbadieren babespean eta horietan, euskal herri sakonki katoliko baten ideia erreproduzitzen zen. Adibide hura jarraituz, 1879tik aurrera lore jokoak Pirinioen hegoaldean ere ospatzen hasi ziren eta tokiko erakundeek eta elkarte kulturelek Ipar Euskal Herriko eremuan oinarritutako lehiaketak sustatu zituzten. Lehiaketa horiek mugaren bi aldeetako euskal hiztunak eta literatoak harremanetan jarri zituzten eta mugaz gaindiko euskal identitatea indartu zuten¹²⁸.

Laburbilduz, XIX. mendearen azken herenean espainiar liberalek euskal imajinarioa baztertu zuten beraien Espainiaren ideiatik. Aldi berean, mugaz gaindiko euskal identitate katoliko eta kontserbadorea finkatu zen. Identitate horri lotuta, euskal metakontakizun bat ere ezarri zen. Euskaldunak berez ziren katolikoak eta kontserbadoreak (urrezko aroa) baina III. Errepublika frantseseko legedia antiklerikalak eta karlisten porrotak kalte handia egin zieten euskaldunei (gainbehera nazionala). Beraz, Euskal Herri katolikoa berrezarri behar zen (etorkizun utopikoa). Nahiz eta

¹²⁴ Eugen Weber, *Peasants into Frenchmen: The Modernization of Rural France, 1870–1914* (Stanford: Stanford University Press, 1976).

¹²⁵ Juan Carlos Moreno Cabrera, *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva* (Barcelona: Península, 2008).

¹²⁶ James McMillan, «'Priest hits girl': on the front line in the 'war of the two Frances'», hemen: *Culture Wars: Secular-Catholic Conflict in Nineteenth-Century Europe*, ed. Christopher Clark eta Wolfram Kaiser (Cambridge: Cambridge University Press, 2003), 77-101.

¹²⁷ Xabier Itçaina, *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak* (Donostia: Elkar, 2012).

¹²⁸ Xabier Zabaltza Pérez-Nievas, «Pizkunde: los "renacimientos" de la lengua vasca», *SCRIPTA, Revista internacional de literatura i cultura medieval i moderna* 11 (2018): 86-107; Aizpuru, Delgado eta Ostolaza, «Pueblo, política y nación...

espainiartasunari lotuta jarraitzen zuen, Fidel Sagarmínagaren (1830-1894) eta Arturo Campiónen (1854-1937) idatziek euskal metakontakizun hura gero eta autonomoagoa egin zuten espainiar metakontakizun nazionalarekiko¹²⁹.

Horrenbestez, euskaldunen historiari buruzko metakontakizun kontserbadorea finkatu zen XIX. mendearen bukaeran, egitura triadikoa zuena eta bai Frantzia eta bai Espainian zeuden metakontakizun nazional kontserbadore eta katolikoaren ereduaren errepikatzen zuena: berezko nazio katolikoa zen (urrezko aroa), liberalismoak nazioa arriskuan jarri zuen (gainbehera nazionala) eta nazio katolikoa berrezarri beharra zegoen (etorkizun utopikoa).

Azpimarratu dugu Espainia liberalaren iruditegitik at geratu zela ordurako euskalduntasuna eta mugaz gaindiko euskalduntasuna indartu zela. Baina nolatan birhutu zen metakontakizun kontserbadore hura euskal nazionalismoaren oinarria? XIX. frantses eta espainiar nazionalismoa bi porrot militarrek oso markatuta zegoen. Pentsalari eta idazle belaunaldi oso baten erreferentzia bihurtu ziren Sedanen II. Inperio frantsesak izandako *débâcle* delakoa (1870) eta itsasoz bestaldeko espainiar kolonien galera (1898). Euskal foruzaleentzat, antzeko esanahia izan zuen 1876 urteak, karlisten porrotarenak. Europako *fin de siècle* testuinguru kulturallean, nazioaren porrot militarrek garrantzi sinboliko handia hartu zuten. Inguru kontserbadoreetan nazioa ahuldua eta erasotua zegoela sentitzen zen. Nazioari erreferentzia nortuak egiten ziren, nazioa gorputza bailitzan, azalpen psikologiko eta medikoei lotuta. Kontserbadoreentzat, garaiko filosofia bitalistaren eraginpean, erremedio bat topatu behar zen gaixo zegoen nazioarentzat eta, horrela, mugimendu politiko antiparlamentarioak eta militaristak ugaritu ziren. Horri lotuta, kontuan hartu behar dugu *fin de siècle* testuinguruan alderdi sozialista handiak ere egituratu zirela eta beraz, ezkerreko lehiakide berri eta indartsu bat zegoela¹³⁰.

1892an, Bilbon, Sabino Aranaren (1865-1903) zenbait artikuluren bilduma argitaratu zen: *Bizkaya por su independencia*. Euskal historiaren kontakizun antiliberala eta militarista zen. Eta autoreak berak euskaratutako *Altabizcarco Cantuaren* pasarteak

¹²⁹ Corcuera, *La patria de los vascos: orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1903)*.

¹³⁰ Jean-Claude Rabaté, «Francia 1870 - España 1898. Desde la Débâcle hasta el Desastre», hemen: *La cultura del otro: español en Francia, francés en España*, ed. Manuel Bruña Cuevas et al. (Sevilla: Universidad de Sevilla, 2006), 636-49.

jasotzen zituen¹³¹. Aranaren obran erreferentziazko autoreak aipatzen ez diren arren, bere lanak garaiko nazionalismo kontserbadorean ohiko ziren topiko historizista guztiak errepikatzen zituen. Hala nola iragan katolikoaren, gainbehera liberalaren eta berreskurapen nazional katolikoaren egitura triadikodun kontakizuna. Aranak, espainiartasunari edo frantsesartasunari lotutako euskal katolikoaren ideia alboratuta, Agosti Xahoren ereduak kopia egin zuen. Hau da, euskal askatasunari buruzko metakontakizun nazional bat garatu zuen, baina katolizismo militante baten ikuspegitik¹³².

Aranaren lanean gerrak, odola eta aberriaren lurra azpimarratzen ziren, bai eta katolizismo integristari atxikimendua. Bere erretorikak bereziki gogoratzen du frantses nazioari buruz Maurice Barrès-ek (1862-1923) garatutako ikuspegia. Barrès 1889an aukeratu zuten ordezkarien gaberarako eta bertan, Boulanger jeneralaren nazionalismo militarista babeste zuen. Barres, Arana bera bezala, Loiolako Inazioaren euskal eredu katoliko-borrokalaria jarraitzaile bezala identifikatzen zen gainera¹³³. Horrenbestez, Aranak eraikitako euskal metakontakizun nazionala ez zen salbuespen bat *fin de siècle* garaiko europar testuinguru kontserbadorean, ez eta bere erretorika militaristan. Aranaren originaltasuna honakoa zen: bere metakontakizun nazionalaren etorkizun utopikoa euskal herri independente bat zen, Espainiarekiko loturarik gabe.

Ia mende bat geroago, 1978ko abenduan, Telesforo Monzonek Herri Batasunaren jarraitzaileak Aranaren ondorengo bezala aurkeztu zituen, euskal nazioaren salbatzaile bezala, lehen aldiz koalizioak Anoetako belodromoa mukuru bete zuenean: "Zer zan Arana Goiri? Utopiko handi bat! Utopikoak egiten diote munduari aurrera arazi. Zuek, utopikoak, ekarriko duzute Euskadiko askatasuna!"¹³⁴. Hurrengo atalean, Aranak egituratu zuen euskal metakontakizun nazionalari erreparatuko diogu.

Aranaren euskal metakontakizun nazionala

Metakontakizun nazional baten sorrera izan zen Sabino Aranak Espainiarekiko ezberdina zen euskal nazioaren eta mugimendu politiko berria abiatzeko modu kontzientean emandako lehen pausua. Nahiz eta Bizkaiaz aritu bere lanean, modu

¹³¹ Sabin Arana eta Goiri'tarr, *Bizkaya por su independencia* (Bilbao: Tipografía de Sebastián de Amorrortu, 1892).

¹³² Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...* 89, 145.

¹³³ Pedro Carlos González Cuevas, «Maurice Barrès y España», *Historia Contemporánea* 34 (2007): 201-24.

¹³⁴ Antton Ezeiza, *Erreferenduma* (Bertan Filmeak, 1978).

metonimiko batean egiten zuen, lan berean euskalduntasuna sinonimotzat hartzen baitzuen. Aranak bizkaitar/euskal herriari erakutsi nahi zion "lo que fué é indicándole en lo porvenir lo que debe ser", hau da, metakontakizun nazional orok egiten duena¹³⁵.

Nahiz eta bere ideologia ultrakatolikoa izan, Aranak ezin zuen ihes egin metakontakizun nazionalak sortzean intelektual liberalek ezarritako zenbait topikotatik: askatasunean, berdintasunean eta anaitasunean oinarritutako nazio bat existitu omen zen, zeinaren subiranotasuna bortxaz bahitua izan zen. Sabino Aranak "una existencia perfectamente feliz" egon omen epe bat deskribatzen zuen eta garai hartan bizkaitarrak/euskaldunak "libres e independientes" izan ei ziren, beren komunitateetako bizimodua ereduzkoa izanik: "armónica y fraternalmente unidas (...) no prestando obediencia más que á su *Jaungoikoa* [Dios] y á sus leyes consuetudinarias"¹³⁶. Espainiaren gatazkak ekarriko luke gainbehera: "decadencia, sí, y nadie se asombre de esta expresión: que si, en los siglos sucesivos y á medida que más íntimamente se relaciona con España, parece engrandecerse"¹³⁷. Azkenik, euskalduntasunaren benetakotasuna berreskuratzeko formula proposatzen zuen. Horretarako bizkaitarrek/euskaldunek bazuten eredia, "héroes y mártires de nuestra libertad" direlakoak, iraganeko abertzaleak. Aranak ezarritako metakontakizun nazionalaren arabera, espainiarren boterea eta espainiar legeak deuseztatzea zen euskal abertzaleen betebeharra¹³⁸.

Esan bezala, Aranaren euskal metakontakizun nazionalaren beste ezaugarri bat lehen aldiz euskalduntasuna eta espainiartasuna kontrajarri izana da. Ereduzko herri batek zapaltzaile atzerritar baten aurka egiten duen borrokan oinarritutako metakontakizun nazionala beste herrialde batzuetan ere ohikoa da, esaterako nazio nordikoetan. Sabino Aranak Aro Modernoko euskal apologisten mitoak birformulatu zituen bezala, nazionalista norvegiar, daniar eta finlandiarrek Aro Modernoko gotizismoa hartu zuten oinarritzat, beste monarkia batekiko beraien independentzia aldarrikatzeko. Atzerriko zapalketaren aurrean askatasuna helburu duten metakontakizun nazionalak beste identitate nazional batzuen oinarrian ere badaude, esaterako, belgikarra, luxenburgotarra, txekiarra, eslovakiarra, hungariarraren eta herrialde baltikoetakoa¹³⁹.

¹³⁵ Arana eta Goiri'tarr, *Bizkaya por su independencia...* 9.

¹³⁶ *Ibid.*, 18-19.

¹³⁷ *Ibid.*, 57.

¹³⁸ *Ibid.*, 12, 92.

¹³⁹ Wendland, «The Russian Empire and its Western Borderlands...; Marnix Beyen eta Benoît Majerus, «Weak and Strong Nations in the Low Countries: National Historiography and its 'Others' in Belgium,

Espainiarekin inolako harremanik ez zuen euskal berezitasunaren ideia *fin de siècle* garaiko moda primitibistarekin ere erlazionatu daiteke. Ikuspegi europar-unibertsalista batetik, euskaldunak periferiako herri berezi eta miragarrietako beste bat ziratekeen. Eta historiaren albo batean egongo lirateke herri horiek, Mendebaldearen Progreso liberalaren indarrak historiatik egotzita eta burgesentzat museo pieza bihurtuta. Kontuan hartu behar da, zentzu horretan, modako obra Pierre Lotiren (1850-1923) *Ramuntcho* (1891) zela. Obra horretan, euskal autoktonoa Miarrizen eta Donostian uda pasatzen zuen europar elitearen kontsumora egokituta ageri zen, Gérard de Nervalen (1808-1855) eta Gustave Flauverten (1821-1880) eredu literarioak jarraituz¹⁴⁰.

Bestalde, Aranaren biografian ere topa dezakegu espainiartasunarekiko ukoa. Familia burges karlista batean jaioa, etxean Antzinako Erregimenaren idealizazioa jaso zuen Aranak, liberalismoaren aurreko gizartea armonia, ordena eta erruki kristaua nagusi ziren garaia bailitzan. Bartzelonan ikasle ibili zen gero eta bertan integristengana hurbildu zen. Horiek karlismoarekin eta leialtasun monarkikoarekin apurtu zuten korrante bat ziren eta Aita Santuari bakarrik zirela fidel aldarrikatzen zuten. Integristismoarekiko hurbilketa hura Aranaren pentsamenduan funtsezko pausua izan zen, karlistek espainiar monarkiarekiko zuten loturaren gainetik, Aita Santuarekiko eta katolizismoarekiko lotura ezartzen baitzuen¹⁴¹. Bilbora itzuli zenean, XIX. mendeko azken hereneko garapen industrialak eraldatutako eskualdearekin aurkitu zuen. Langile klase berria, Espainiako beste eskualde batzuetatik iritsitakoa, Bilboko auzoetan eta Ibaizabal arroaren ezker aldean pilatuta bizi zen eta horiengan ideologia marxista eta

Luxembourg and the Netherlands in the Nineteenth and Twentieth Centuries», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chris Lorenz (Palgrave Macmillan, 2011), 283-310; Peter Aronsson et al., «Nordic National Histories», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chris Lorenz (Palgrave Macmillan, 2011), 256-82; Gernot Heiss et al., «Habsburg's Difficult Legacy: Comparing and Relating Austrian, Czech, Magyar and Slovak National Historical Master Narratives», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chris Lorenz (Palgrave Macmillan, 2011), 367-404.

¹⁴⁰ Kepa Larrea Muxika, «La literatura, coartada de la ideología: los apologistas vascos», hemen: *Ideology, Politics and Demands in Spanish Language, Literature and Film*, ed. Teresa Fernández Ulloa (Cambridge: Cambridge Scholars Publishing, 2012), 153-70; Loreto Casado, «“Las alpagatas de Ramuntxo”: significado social y cultural de un arquetipo romántico de la identidad vasca», hemen: *Los caminos de la nación. Factores de nacionalización en la España contemporánea*, ed. Félix Luengo Teixidor eta Fernando Molina Aparicio (Granada: Comares, 2016), 473-86; Joseba Gabilondo, «From Postcolonial Tourism to Postimperial Melodrama: Fernando Aramburu's Patria as Spanish Terrorism-Pornography», hemen: *Postcolonial Spain. Coloniality, Violence, independence*, ed. Helena Miguelez-Carballeira (Cardiff: University of Wales Press, 2019); César Alcalá, «Karl Marx y el carlismo: reflexiones reales o apócrifas», *Aportes: revista de historia contemporánea* 53 (2003): 82-93.

¹⁴¹ Pedro José Chacón Delgado, «Introducción al estudio de la etapa barcelonesa de Sabino Arana Goiri (1883-1888)», *Letras de Deusto* 42 (2012): 155-82.

antiklerikala zen eragin gehien zuena. Bilbo hura Aranaren haurtzaroko memoria bukolikoarekiko oso bestelakoa zen¹⁴².

Bilbotar burgesiaren aurreiritzi klasistek eta integristek benetako katolikoen eta mestizoen artean egiten zuten ezberdintasuna bere eginez, Sabino Aranak aldarrikatu zuen euskaldunak ezin zirela espainiar langile antiklerikalen arraza berdinekoak izan. Diskurtso zaratatsu eta xenofobo bat garatu zuen eta Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ) sortu zuen beranduago¹⁴³. Alderdi berriak Espainiarekiko independentzia aldarrikatzen zuen, euskal katolizismoa langile etorkinengandik eta antiklerikalismotik babesteko modu bakar bezala. Beraz, Sabino Aranak euskal nazio katoliko eta bukolikoa imajinatu zuen (urrezko aroa) baina Espainiaren konkistak, liberalismoak eta etorkinek nazio hura desagertzeko zorira eraman zuten (gainbehera nazionala). Horregatik, euskal nazio katolikoa salbatzeko modu bakarra Espainiarekiko independentzia zen (etorkizun-utopikoa). Gainera, Euzkadi neologismoa asmatu zuen Aranak, bere proiektu nazionalari izena emateko: Euzkadi litzateke euskal arrazako katoliko eta tradizionalistek osatutako nazioa.

Euskal nazionalismoa, mugimendu politiko bezala, nazionalista terminoa orokortzen ari zen garai batean sortu zen. Euskal nazionalistek Euzkadirentzat bere lekua aldarrikatu zuten Europako estatu-nazioen artean, tokian tokiko nazionalistek Finlandiarentzat, Norvegiarentzat, Irlandarentzat, Poloniarentzat, Jugoslaviarentzat edo Israelentzat eskatzen zuten bezala. EAJren arrakasta azkarra, gainera, 98ko krisiak espainiartasunean sortu zuen atsekabetasunari erantzun bezala ere ikus daiteke¹⁴⁴.

Euskal nazionalismo jaioberriak Aro Modernoko euskal etnotipoa bere egiten zuen: jatorrizko independentzia, euskara, kaparetasun unibertsala eta kristautasun primitiboa. Baina euskaldunen espainiartasunaren froga bezala hartu beharrean, herentzia mitiko huri euskaldunek espainiarrekiko zuten nagusitasun moralaren adierazpide bezala ulertzen zen. Birformulazio horretan, kontuan hartu behar da Sabino Aranak Espainiari buruzko aurreiritzi bat bere egin zuela, eta aurreiritzi hura oso ohikoa zela europar

¹⁴² Jon Juaristi, *El bucle melancólico. Historias de nacionalistas vascos* (Madrid: Espasa, 1997), 139-81.

¹⁴³ Díaz Freire, «El cuerpo de Aitor...

¹⁴⁴ Ismael Saz Campos, «Regeneracionismos y nuevos nacionalismos. El caso español en una perspectiva europea», hemen: *Estudios sobre nacionalismo y nación en la España contemporánea*, ed. Ismael Saz Campos eta Ferran Archilés i Cardona (Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 2011), 55-78; Juaristi, *El bucle melancólico...*, 33.

kulturaren: orientalismoa. Aranak berak zioenez, "los maketos. Esos son nuestros Moros"¹⁴⁵.

Orientalismoa Europako mendebaldean ohikoa den aurreiritzi bat da. Errenazimendu garaitik datorkigu, aurkako bezala irudikatu baitziren Europa unibertsal, humanista eta greziar filosofoen ondorengoa, alde batetik, eta Ekialde despotiko, nabarmenkeriazalea, lizuna eta pertsiar barbaroen ondorengoa, bestetik¹⁴⁶. Aro Modernoan zehar, Espainiaren irudi orientalizatu bat garatu zen. XVI. eta XVII. mendeen artean Monarkia Hispanikoak izan zuen nagusigoak ospe txarra ekarri zion gainontzeko monarkien ikuspegian. Espainiarrak Napoliko konkistarekin (1501-1504), Borgia Aita Santuaren gehiegikeriekin (1492-1503), jatorrizko amerikar biztanleen esplotazioarekin (1492tik aurrera) eta Felipe II. ren eta Ingalaterrako *Bloody Mary* ren arteko ezkontzarekin lotzen zituzten. Espainiarren estereotipo negatibo bat garatu zen, gaiztoa, zantarra eta handizalea bezala irudikatuz¹⁴⁷.

Behin Monarkia Hispanikoa europar botere hegemonikotik baztertuta gelditu zenean, XVIII. mendeko frantses ilustratuek espainiarren estereotipo negatiboa azpimarratu zuten. Espainia Argien Frantziaren kontra-adibide bezala hartu zuten. Hau da, Frantzia greziar filosofoen tradizio unibertsalaren ondorengo irudikatu zuten eta Espainia, ekialdeko barbarismoari lotuta. Iraganen iltzatuta zegoen Espainia bat irudikatu zuten, zapaltzailea eta harroputza, katolikotasun intolerante bat zuena gainera, Ilustrazioarentzat gainditu ezinezko hesia¹⁴⁸.

Aurreiritzi horri, XIX. mendean Europako ipar-mendebaldeko burgesiak hegoaldearekiko garatu zuen irudia gehitu zitzaion. Europa barneko Iparraldea eta Hegoaldea ezberdintzen zuen aurreiritzi horrek, mediterranean paisaiari esanahi berria eman zion, bere goren-unea jada aspaldi pasa zuen eta gainbeheran zegoen espazioa bezala birdefinituz. Italia, Grezia eta Espainia iragan loriatsudun lurralde bezala irudikatu ziren XIX. mendeko Europako ipar-mendebaldean. Pertsonaia miragarritz eta klise orientalistez beteako leku bezala. Irudi estatiko bat zen, Europako hegoaldea,

¹⁴⁵ Sabin Arana eta Goiri'tarr, «Nuestros moros», *Bizkaitarra*, 1893ko abenduaren 10a.

¹⁴⁶ Bernd Thum, «Orientalism», hemen: *Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters. A critical survey*, ed. Manfred Beller eta Joep Leerssen (Amsterdam & New York: Rodopi, 2007), 389-93.

¹⁴⁷ José Manuel López de Abiada, «Spaniards», hemen: *Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters. A critical survey*, ed. Manfred Beller eta Joep Leerssen (Amsterdam & New York: Rodopi, 2007), 242-48.

¹⁴⁸ Xavier Andreu Miralles, *El descubrimiento de España. Mito romántico e identidad nacional* (Barcelona: Taurus, 2016).

industrializazioaren eta kolonialismoaren proiektuaren imajinarioko periferian kokatu zuena¹⁴⁹.

Iraganean iltzatuta omen zegoen Espainia orientalizatu horrekiko Aranak garatu zuen erra arrazista, erakargarria zen bilbotar burgesiarentzat. Euzkadi mendebaldetar, industrial, dinamiko eta europarra aldarrikatu baitzezakeen, Espainia estatiko eta dekadente batetik askatzeko beharra zuena. Aldi berean, Espainiaren klixerik orientalisten euskal metakontakizun nazionala onargarri egiten zuen europar intelektuaren artean. Kontura gaitzen, zentzu horretan, zenbat antzekotasun dauden euskal nazionalismoaren eta europarrentzat Greziak XIX. mendean izan zuen irudikapen sinbolikoaren artean. Greziar metakontakizun nazionalaren oinarria, turkiar despotismoaren aurkako europar-kristau gotorleku izaera zen. Otomandar Inperioa europarrentzat Beste Handia izan zen Aro Modernoan zehar. XIX. mendeko europarrentzat, greziarren independentzia orientalizatutako botere despotiko baten hatzaparretatik herri kristau-mendebaldeko baten askapena izan zen. Poloniaren eta Errusiar Inperioaren arteko gatazka ere, antzera irudikatzen zen¹⁵⁰. Aranaren metakontakizunak Euzkadirentzat irudi kristau-mendebaldekoa sortu zuen, espainiar despotismo orientalizatutik askatu beharrekoa. Hau da, Grezia ekialdeko Otomandar Inperiotik salbatu behar zen nazio kristaua zen bezala, halaxe gertatzen zen ekialdeko Errusiar Inperiotik askatu behar ziren poloniar katolikoekin. Eta euskal nazionalistek beren buruaz eta Espainiaz zituzten irudiak, hala nola euskal nazionalista horiek Europan zehar euskaldunei buruz hedatu zuten metakontakizun nazionala, klixerik horietara egokituta zeuden.

Horregatik, Aro Modernotik zetorren espainiar estereotipoaren gainean Sabino Aranak egin zuen aukeraketa interesatu hura bere arrakastarentzako elementu garrantzitsua izan zen. Katolizismoa euskaldunentzat bakarrik erreskatatzen zuen, eta Espainiari atxikitzen zizkion Legenda Beltza delakoari zegozkion gainontzeko elementuak, esaterako zitaltasuna eta handinahikeria. Aranaren metakontakizunak XIX. mendeko neokatolizismo kontserbadorearen arrangurari erantzuten zion eta Espainian katolikotasunak zuen gainbehera sendatzeko modu bezala aurkeztu zuen Euzkadiren

¹⁴⁹ Astrid Arndt, «North/South», hemen *Imagology. The cultural construction and literary representation of national characters. A critical survey*, ed. Manfred Beller eta Joep Leerssen (Amsterdam & New York: Rodopi, 2007), 387-89.

¹⁵⁰ Hercules Millas, «History Writing among the Greeks and Turks: Imagining the Self and the Other», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, ed. Stefan Berger eta Chris Lorenz (Palgrave Macmillan, 2011), 490-510.

sorrera. XIX. mendeko espainiar politikaren gorabeherak eta gerra zibilak gogoan zituztenentzako, diskurtso erabat ulergarria zen. Horrela uler daiteke epe laburrean Hego Euskal Herrian izan zuen arrakasta. Baina, aldi berean, arrazari hainbesteko garrantzia ematean, hizkuntzarekiko lotura ahultzen zuen eta mugaz gaindiko euskal identitatearekiko lotura ahultzen zuen. Horrela, Hego Euskal Herrian arrakasta azkarra lortu zuen bitartean, Ipar Euskal Herriko elite kontserbadoreak euskal nazionalismoa atzerritar, espainiar, bezala sentitu zuen.

Aurrerago azalduko den bezala, Herri Batasunaren arrakasta ere antzeko fenomeno bat izan zen, bere proiektu politikoa espainiar testuinguruari erabat lotuta garatu baitzuen. Faktore hark hegoaldean bere arrakasta bermatu zuen hein berean, Ipar Euskal Herrian bere eragina mugatu zuen. Adibidez, 1979ko apirilean Herri Batasuna Hego Euskal Herriko bigarren indar politikoa bihurtu zen, koalizio sortu eta urtebete eskasera. Baina hilabete lehenago bakarrik, Herri Batasunak babestutako hautagaiek emaitza oso eskasak izan zituzten Ipar Euskal Herrian eta lehen itzulian kanporatuta geratu ziren urte hartako kantonamendu hauteskundeetan. Izan ere, bai EAJk bai Herri Batasunak, beren epe laburreko helburu nagusi bezala definitu zuten Espainia barruan euskal autonomia bat lortzea. Hurrengo atalean, Herri Batasunaren sorreraren baitan oinarritzko elementua izan zen proiektu horren jatorria azalduko dugu.

Euskal autonomia

Ia-ia lehen unetik, euskal metakontakizun nazionala eta espainiar markoan euskal autonomia baten aldarrikapena uztartuta agertu ziren. Zentzu horretan, Sabino Aranak eratutako euskal metakontakizun nazionala oso azkar eraldatu zen. Autonomiaren inguruko aferak harremanak garatu zituen euskal nazionalisten eta Espainiar nazioari loturiko indar politikoen artean eta, une batzuetan, euskal metakontakizun nazionala euskal eremuko diskurtso politiko guztietan eragitera iritsi zen¹⁵¹. Herri Batasuna egikaritzen joan zen garaian ere, Francoren heriotzaren osteko lehen hauteskundeetan, euskal autonomia ia-ia hautagaitza guztiek defendatzen zuten aldarrikapen bat izan zen. Eta Herri Batasunak berak aldarrikapen horren inguruan egituratu zuen bere lehen hauteskunde kanpaina, geroago.

¹⁵¹ Ludger Mees, «Berrezarkuntza», hemen: *Laurak bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendean*, ed. José Luis de la Granja Sainz eta Santiago de Pablo Contreras (Leioa: UPV-EHU, 2011), 29-57.

Euskaldunentzat autonomia administratibo baten proposamena Benito Jamar (1848-1899) errepublikazalearen eskutik iritsi zen 1891n. Hau da, Aranek *Bizcaya por su independencia* idatzi baino urtebete lehenago. Jamar anaiak, jaiotzez nafarrak, Donostiako elite burgesaren parte izan ziren XIX. mendeko azken zatian. Espainiar errepublikazaleak foruzaletasunaren benetako oinordekoak zirela aldarrikatu zuten. Beraientzat, euskal autonomia Espainia demokratizatzeko helburua zuen deszentralizazio proiektu baten oinarritzko elementua zen¹⁵².

Lehenago azaldu dugu XIX. mendeko azken hereneko euskal berpizkundean, ikuspegi katoliko-kontserbadorea nagusi izan zela. Ikuspegi horren eredu bihurtu zen, esaterako, Felipe Arrese Beitiaren (1841-1906) obra. Baina zenbait norbanako errepublikazalek ere parte hartu zuten euskal berpizkunde hartan eta mugaz gaindiko euskal identitatearen indartze hartan, mugaren bi aldeetan: Jean-Baptiste Elissamburu (1828-1891), Martin Guilbeau (1839-1912) eta Pedro Mari Otaño (1857-1910) dira ezagunenak¹⁵³. Horregatik, ez da harritzekoa euskal autonomiaren proposamena errepublikazale batek egin izana eta burgesen artean ere erakargarri izatea.

1893ko bi gertakarik hauspoa eman zieten euskal autonomistei. Batetik, William Gladstonen azken gobernuak Irlandarako *Home Rule* (autogobernua) garatzeko plana martxan jarri zuen. Bestetik, espainiar gobernuak erreforma fiskal baterako proposamena egin zuen eta Hego Euskal Herrian horren aurkako zenbait mobilizazio gertatu ziren, gamazada bezala ezagutuak¹⁵⁴.

Testuinguru ezin hobea izan zen Sabino Aranek bere proiektu politikoa abiatzeko. Proiektu horren abiatzeko, hiru elementuk hartu zuten garrantzia. Batetik, Euzkadirentzat —hasiera batean Bizkaiarentzat— bandera bat diseinatu zuen: britainiar *Union Jack* eredu bezala hartzen zuen ikurriña. Bigarrenik, 1839 urtea azpimarratzen hasi zen Arana euskaldunen *annus horribilis* bezala. Izan ere, 1876an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi zituzten legeek ez bezala, 1839ko bake akordioen ondoren Hego Euskal Herri osoko legedia, Nafarroa barne, geratu zen

¹⁵² Luis Castells Arce, «Liberales, fueros e identidades en el País Vasco», hemen *El País Vasco y España: identidades, nacionalismos y Estados (siglos XIX y XX)* ed. Luis Castells, Arturo Cajal eta Fernando Molina (Leioa: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco, 2007), 115-61.

¹⁵³ Zabaltza Pérez-Nievas, «Pizkunde: los “renacimientos”...»; Mikel Aizpuru, «Vascófilos y bertsolaris, coformadores del nacionalismo vasco en el último tercio del siglo XIX», *Gerónimo de Uztariz* 16 (2000): 59-72.

¹⁵⁴ Ander Delgado Cendagortagarza, «El fuerismo, el home rule bill y la política británica: el contexto internacional en los inicios del movimiento nacionalista vasco (1890-1903)», *Historia Contemporánea* 25 (2002): 289-317.

espainiar konstituzioaren menpean¹⁵⁵. Hirugarrenik, elkarte politiko bat abiatu zuen Aranak. Zenbait gazte bilbotarrek *Laurak-Bat* elkarte osatzeko proposamena baztertu zuen eta bere *Euskeldun Batzokija* propioa eratu zuen 1895ean, EAJren antolaketarako nukleoa izango zena¹⁵⁶.

EAJ martxan jarri eta gutxira, Aranaren jarraitzaileen eta euskal *home rule* baten alde zeuden burgesen arteko bateratzea gertatu zen. 1898an, Bilboko Sociedad Euskalerra elkarteko kideen zati bat EAJra batu baitzen¹⁵⁷. 'Euskalerrriaco' bezala ezagunak ziren haiek ordura arte 'feniziar' bezala izendatu zituenak Aranak, mespretxuz, merkataritzareki lotutako pertsonak baitziren. Baina praktikan euskal nazionalismoaren sortzaile izan ziren haiek ere. 1895-1898 artean, euskalerrriacoek agitazio politikoan eta kulturaren sustapenean oinarritutako kanpaina publikoa antolatu zuten. Euskal nazioarentzat bandera bat ere diseinatu zuten, bistan denez, ez zena ikurriña bezain arrakastatsua izan. Bestalde, *Euskelzale* izeneko astekaria jarri zuten martxan, Hego Euskal Herrian euskara hutsez argitaratu zen lehena —Ipar Euskal Herrian *Euskalduna* katoliko eta kontserbadorea argitaratzen zen 1887tik—¹⁵⁸.

Bilboko burgesiaren zati batengan eragin handia izan zuen XIX. mendeko euskal berpizkundeak eta literatura foruzalea deritzonak karlisten porroten aurreko Hego Euskal Herria urrezko aroa bezala irudikatu zuen. 1876ko espainiar konstituzioak mantendu egiten zuen Hego Euskal Herriko tokiko erakundeen autonomia fiskala, kontzertu ekonomikoaren bidez gauzatzen zena. Praktikan tokiko elitearen mozkinak handitu zituen fiskalitate autonomoa garatzeko aukerak, baina aldi berean ohiko bihurtu zen euskaldunen eskubide historikoez aritzea, historia hurbilean galdutako legedia bikaina eta eredugarria irudikatuz¹⁵⁹. Ideia hura ezin hobeto uztartzen zen euskal metakontakizun nazionalarekin: autogobernuden urrezko aroa (1876/1839 aurretik), espainiar legediaren ezarpena (gainbehera), eta autogobernuaren berreskurapena (etorkizun utopikoa). Modu horretan, euskal metakontakizun nazionalak euskal eremuarentzat autonomia administratiboa aldarrikatze marko diskurtsibo bereziki egoki bezala funtzionatu zuen.

¹⁵⁵ Zabaltza Pérez-Nievas, *Mater Vasconia...*, 163-67.

¹⁵⁶ Corcuera, *La patria de los vascos...*, 226-52.

¹⁵⁷ Ilkka Nordberg, *Regionalism, Capitalism and Populism. The Basque Nationalist Party, the PNV, and Politico-Economic Power in the Basque Country of Spain (1980-1998)* (Helsinki: Finnish Academy of Science and Letters., 2007), 80-83.

¹⁵⁸ Corcuera, *La patria de los vascos...*, 314-19.

¹⁵⁹ Agirreazkuenaga, *Euskal herritarren burujabetza...*, 275.

Aranaren heriotzaren ostean, sabinotar-tradizionalisten eta euskalerrriaco-burgesen arteko doktrina ofiziala adostu zen EAJ barnean 1906an. Berdindu egiten ziren 1839ko legea bertan behera uzteko exigentzia eta autonomia estatutu bat lortzea, helburu bikoitz bezala. Alderdi katoliko-kontserbadore garrantzitsu bat egituratzeko mugarrria izan zen, euskal metakontakizun nazionala diskurtsorako oinarri bezala hartzen zuena, helburu politiko zehatz bat markatu zuena (autonomia) eta burgesiaren zati batek babesten zuena. Horrela, azkar hedatu zen EAJren oinarri soziala, alderdi dinastiko ustel eta klientelarren aurkako herritar askoren arrangura bere eginez, garai berean sozialismoak eta errepublikazaletasunak egin zuten bezala. Alderdi monarkikoak industriarekin aberastutako familia oligarkikoetako notableek zuzenduak zeuden eta tokiko eliteei lotuta zeuden, saren klientelar baten bitartez. Baina burgesiaren zati bat EAJrekin eta bere diskurtso katoliko eta kontserbadorearekin lerratu zen. Oligarkia monopolizatzen zuen Estatuko boterearen aurka, erakunde deszentralizatu berrien sorrera exijitu zuten¹⁶⁰.

Modu horretan, EAJ Bizkaiko alderdi nagusia bihurtu zen XX. mendeko lehen bi hamarkadetan eta ezarpen garrantzitsua lortu zuen Gipuzkoan. Araban eta Nafarroan, aldiz, gizartearen zati handi batek karlismoari lotuta jarraitu zuen. Zentzu horretan azpimarratu behar da Gipuzkoa eta Bizkaia zirela industria modernoa ezartzen ari zen eremua eta, aldi berean, euskal hiztun gehien zuten herrialdeak zirela. Hau da, Aranaren metakontakizun nazionalak arrazari hizkuntzari baino garrantzia gehiago ematen zion arren, batez ere Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualde euskaldunetan izan zuen arrakasta Hego Euskal Herrian.

EAJk euskal metakontakizun nazionala epe laburreko helburu politiko batekin lotu zuen: autonomia. Eta aldi berean, metakontakizun horri kutsu liberal-burgesa eta kontserbadorea eman zion. Izan ere, behin euskal metakontakizun nazionala ezarrita, Europako gainontzeko metakontakizun nazionalen eredua jarraituz, jada metakontakizun horri ideologia ezberdinen kutsua eman ahal zitzaion. Hau da, ez urrezko aroak, ez eta etorkizun utopikoak, ez zuten zertan izan iruditegi katoliko-tradizionalista. Horrela sortu zen 1911n Partido Republicano Nacionalista Vasco, laster desagertu zena. Eta beranduago, 1930ean, Euzko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) alderdi akonfesionala. Zatiketa independentista-katolikoak ere eman ziren, Aberri 1921ean eta

¹⁶⁰ Ander Delgado Cendagortagalarza, *La otra Bizkaia: política en un medio rural durante la Restauración (1890-1923)* (Leioa: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco, 2008).

Jagi-Jagi 1934ean. Azken zatiketa horien ezaugarriak kontuan hartuta, agian jarrera autoritario edo faxistak hartu izango zituzketen denborarekin, baina praktikan ez zen horrela gertatu, bai Primo de Riveraren diktaduraren garaian (1923-1929) bai eta 1936ko gerran alderdi ezkertiarrekin elkartu behar izan baitzuten.

XX. mendeko lehen herenean, bai EAJk bai gainontzeko alderdi nazionalistek, euskal metakontakizun nazionala hedatzeko lan handia egin zuten, euskal jendartea nazio berriaren parametroetan doktrinatzeko helburuarekin. Prentsa, sindikatuak, emakumezkoen atalak eta kirolari, kulturari eta erlijioari lotutako elkarteak martxan jarri zituzten. Gainera, euskal nazioaren sozializazio fase horren garai berean sortu ziren Europan herrialde berriak, 1918an Gerra Handia bukatuta Europa erdialdeko inperioen lurraldeak zatitu zirenean. Eta Irlandako prozesu iraultzailea ere jazo zen (1916-1923), eztabaida garrantzitsuak sortu zirelarik gai horren inguruan, euskal nazionalisten artean¹⁶¹.

Euskal nazionalismoaren kronologiak eta eraketak Flandriako kasuarekin antzekotasunak ditu. XIX. mendearen bukaeran indartu egin zen belgikar nazioaren barnean flandriar herri bereizi bat zegoenaren ideia. Eta Flandriaren eta Belgikako nederlandera hiztunen arteko identifikazioa gertatu zen, Estatuko elite frantses hiztunaren aurka. Behin belgikar parlamentuak nederlanderaren koofizialtasuna onartu zuenean, flandriar nazionalistek eremuaren homogeneizazio linguistikoa sustatu zuten XX. mendeko lehen hamarkadetan¹⁶².

Espainiako II. Errepublikan, EAJ Bizkaiko eta Gipuzkoako alderdi nagusia bihurtu zen eta indarra hartu zuen Araban eta Nafarroan ere. Lorturiko zentraltasun politikoak bi autonomia proiektu proposatzera eramanez. Lehena 1931n karlistekin batera eta Errepublikaren prozesu konstituziogilearekiko modu paralelo batean. Estatutu proiektuaren izaera katolikoarengatik, Errepublikako gobernu antiklerikalak bere tramitazioa bertan behera utzi zuen. Bigarren estatutu proiektua Errepublikako legediaren arabera osatu zen eta 1933n Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan onartu zen erreferendum bidez. Karlisten oposizioak beren gotorleku zen Nafarroa kanpo utzi zuen

¹⁶¹ Xosé Manuel Núñez Seixas, «Ecos de Pascua, mitos rebeldes: el nacionalismo vasco e Irlanda (1890-1939)», *Historia Contemporánea* 55 (2017): 447-82.

¹⁶² Louis Vos, «Reconstructions of the Past in Belgium and Flanders», hemen *Secession, History and the Social Sciences*, ed. Bruno Coppieters eta Michel Huyseune (Brussels: VUB Brussels University Press, 2002), 179-206.

eta gainera, Errepublikaren gobernura urte berean eskuina iritsi zenean, estatutuaren tramitazioa eten zen¹⁶³.

Azkenik, euskal autonomia estatuturako proiektua azkar batean tramitatu eta onartu zuen Fronte Popularrak 1936ko urrian, jada gerra hasita zegoenean. Estatu kolpearen lehen uneetan, EAJ zalantzati agertu zen, bai matxinatuek eta bai elizako hierarkiak matxinada babestera deitu baitzuten. Azkenean, Largo Caballero sozialistaren gobernura batzeko *sine qua non* baldintza bezala jarri zuen EAJk euskal estatutuaren tramitazioa. Buruzagi independentziazaleenek gerratik aparte geratzea proposatu zuten, beste batzuek gurutzada katolikoaren alde lerratzea defendatu zuten bitartean. Aldi berean, militante eta boto emaile asko matxinatuekin batu ziren, katolikoentzat aukera egoki bakarra zela pentsatuz¹⁶⁴.

EAJ Madrileko gobernu ezkertiarra batu zenean, euskal gobernu autonomorako koalizioa osatu zuten EAJek eta Fronte Popularrak —Euzko Abertzale Ekintzak Fronte Popularrean parte hartzen zuen—. Gobernu autonomoaren kontrolpeko eremua Bizkaira eta Araban eta Gipuzkoan matxinatuen esku ez zeuden lurraldeetara hedatu zen. Lendakari bezala José Antonio Aguirre (1904-1960) enpresari gaztea, futbolari ohia eta EAJko parlamentaria aukeratu zuten¹⁶⁵. Agirrek ideologia demokrata kristaua zuen eta euskal gobernu autonomoak nolabaiteko kutsu antioligarkikoa eduki zuen, euskal elitea ia-ia aho batez matxinadarekin lerratu baitzen¹⁶⁶. Euskal autonomia EAJren ikuspegi nazionalaren arabera eraman zen praktikara. Estatutua euskal nazioaren aitorten bezala ulertzen zuten, eta ez Espainiaren deszentralizaziorako neurri bezala. Gobernu autonomoak *de facto* Estatu bat bezala agindu zuen gerra garaian, diru, polizia, pasaporte eta armada propioarekin. Eta bando nazionalak aurrera egin zuen heinean, hura euskal lurralde autonomoaren espainiar konkista bezala saldu zuten¹⁶⁷.

¹⁶³ de la Granja Sainz, *Nacionalismo y II República...*; Tusell, *Historia de la Democracia Cristiana...*; José María Tápiz Fernández, *El PNV durante la II República (organización, implantación territorial y bases sociales)* (Bilbao: Fundación Sabino Arana, 2002).

¹⁶⁴ Leyre Arrieta Alberdi, «Dilemas del nacionalismo vasco en la Guerra Civil», hemen *Desde la capital de la República: nuevas perspectivas y estudios sobre la guerra civil española*, ed. Sergio Valero Gómez y Marta García Carrión (Valencia: Universitat de València, 2018), 171-85.

¹⁶⁵ Lendakari hitza 'h'rik gabe idatzi zen 1980an lehen lehendakari autonomoa aukeratu zen arte.

¹⁶⁶ Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo, ed., *Bilbao desde sus alcaldes. Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal en la Dictadura. Vol. III: 1937-1979* (Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao, 2008); Pako Sudupe, *Telesforo Monzon. Aristokrata abertzalea. EAJtik HBra: bilakaera politiko-kulturala* (Donostia: Txertoa, 2018).

¹⁶⁷ José Luis de la Granja Sainz, *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil* (Madrid: Tecnos, 2007).

Nahiz eta euskal eremuko gizartearen zati handi bat 1936an matxinatuen alde mobilizatu zen eta beste bat Fronte Popularraren aldekoa zen, EAJk lortu egin zuen gerra euskaldunen aurkako kanpaina militar espainiar bat bezala irudikatzea¹⁶⁸. Kontakizun horren arabera, euskaldunek gerran beren autogobernua defendatzeko bakarrik parte hartu zuten. Horrela, gerrari esanahi berria eman zioten: euskaldunen aurkako espainiarren beste oldarraldi bat zen. Ordutik aurrera, 1936 urtea euskal metakontakizun nazionaleko beste urte gako bat bihurtu zen¹⁶⁹.

Frankismo garaian, EAJk sakondu egin zuen 1936ko gerraren interpretazio hura, euskaldunen aurkako Espainiaren gerrarena. Euskaldunek beren borondatearen aurka parte hartu izango zuketzen gerran eta gainera, ordena mantentzea lortu zuten, gehiegikeria errepresiboak, ezkertiarak eta antiklerikalak mugatuz. Zentzu horretan, EAJk harro defendatu zuen 1937an gobernu autonomoaren agindupean zeuden tropak errenditu izana beren krontolpeko eremua galdu orduko, gerra bukatu baino ia bi urte lehenago. Gerra garaitik garatutako euskal metakontakizun nazionalaren arabera, 1936-1937 artean euskaldunek europar demokrata errespetagarri bezala jokatu zuten, espainiarren barbarismo orientalizatuan erori gabe¹⁷⁰.

Herri Batasuna sortu zutenek 1978an gerraren ikuspegi hura jaso zuten. 1936a bere diskurtsoko data gako bezala hartu zuen Herri Batasunak eta gerra euskaldunen eta beren autogobernuaren aurkako oldarraldi bezala ulertzen zuen. Espainiaren irudi orientalizatu bat ere jaso zuten 1970eko hamarkadako independentistek. Irudi horren arabera, ezinezkoa zen Espainia Europa mendebaldeko herrialde normalizatu bat bihurtzea. Gainera, Herri Batasunak gerrak oraindik zirauela defendatzen zuen. Telesforo Monzon buruzagiak, gerra garaiko Euzko Jaurlaritzan parte hartu zuenak, 1978ko ekainean esaten zuen: "la guerra no ha terminado"¹⁷¹. Valentin Solasgaistua (1937-2011) buruzagiak ere Herri Batasunaren jatorria gerran ezartzen zuen: "nosotros procedemos de una lucha armada que se dio en el 36 y que, por desgracia para nuestro

¹⁶⁸ Xosé Manuel Núñez Seixas, *¡Fuera el invasor! Nacionalismos y movilización bélica durante la guerra civil española (1936-1939)* (Madrid: Marcial Pons, 2006).

¹⁶⁹ Diego Muro, «The politics of war memory in radical Basque nationalism», *Ethnic and Racial Studies* 32, 4 zbk. (2009): 659-78; Fernando Martínez Rueda, «La memoria de la Guerra Civil en el nacionalismo vasco de posguerra a través de Telesforo Monzón», *Sancho el Sabio. Revista de Estudios Vascos Extra 1* (2018): 245-62.

¹⁷⁰ Paloma Aguilar, «La guerra civil española en el discurso nacionalista vasco. Memorias peculiares, lecciones diferentes», hemen *La transición en el País Vasco y España. Historia y Memoria.*, ed. Javier Ugarte (Leioa: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco, 1998), 121-54.

¹⁷¹ Egin, «Monzón: "mantengo todo lo dicho en Tolosa"», *Egin*, 1978ko ekainaren 14a.

pueblo, aún no han terminado sus consecuencias"¹⁷². Solasgaistua EAE-ANV alderdiko bozeramailea zen, hau da, 1936ko Eusko Jaurlaritzan parte hartu zuen alderdikoa eta, aldi berean, Herri Batasunaren sorrerako kidea. 1979ko hasieran, Patxi Zabaleta (Leitza, 1947) buruzagia urrunago joan zen: "hoy José Antonio Aguirre estaría en Herri Batasuna"¹⁷³.

Koalizioak antolatu zituen lehen ekitaldietan ere gerraren jarraipena izan zen *leitmotiv*. 1978ko urriaren 28an lehen aldiz deitu zituen bere jarraitzaileak manifestazio batera, "atzo eta gaurko gudarien alde"¹⁷⁴. Egun batzuk geroago Bilboko La Casilla polikiroldegian antolatutako mitin handian ere, lema berbera hartu zuten goiburu¹⁷⁵. Jarraian ikus daitekeen irudian, Telesforo Monzon ageri da bildutakoen aurrean hitz egiten, eta berari so daude, ezkerretik eskuinera, Xabier Añua, Jon Idigoras, Francisco Letamendia eta Valentín Solasgaistua.

1.2 irudia. Herri Batasunaren mitina Bilbon, Konstituzioaren erreferendumaren kanpaina (1978)



Iturria: Kazetari Kanaia bloga

¹⁷² Egin, «La Federación Socialista Abertzale se transformará en partido en julio», *Egin*, 1978ko ekainaren 4a.

¹⁷³ Patxi Zabaleta, «Hay que institucionalizar Euskadi, con Navarra dentro», *Egin*, 1979ko otsailaren 21a.

¹⁷⁴ Egin, «Herri Batasuna y las Gestoras convocan una concentración el día 28», *Egin*, 1978ko irailaren 26a.

¹⁷⁵ Egin, «Herri Batasun abrió su campaña en Bilbao», *Egin*, 1978ko azaroaren 11.

Zenbait autorek azpimarratu dute Herri Batasunaren oinarrizko ezaugarria gerraren ideia zela eta, are gehiago, Sabino Aranaren metakontakizun nazionalaren berreskurapen hutsa zela¹⁷⁶. Baina 1970eko hamarkadaren bukaerarako, bai euskal metakontakizun nazionala, bai testuinguru espainiarra eta europarra erabat ezberdinak ziren. Beharrezkoa da aldaketa horiek aztertzea, Herri Batasunaren kontakizun nazionala ez baita 1892koa, ez eta 1937koa, nahiz eta zenbait ezaugarri komun dituen. Gainera, bere mezuaren interpelatzeko gaitasuna eta gizartearen zati batean izan zuen arrakasta ulertzeko, beharrezkoa da kontuan hartzea bai euskal eremuan eta bai Espainian frankismo garaian eman ziren aldaketa sozio-ekonomiko eta kultural garrantzitsuak. Hurrengo kapituluak tesuinguru kultural horri buruzko interpretazio bat proposatzen du, Herri Batasunak lehen unetik izan zuen sostengua eta jendartearen zati bat mobilizatzeko gaitasuna ulertzeko beharrezko baiteritzogu.

Ondorioak

Euskal metakontakizun nazionalak zenbait oinarrizko ezaugarri komun ditu Europako gainontzeko metakontakizun nazionalekin. Lehenik eta behin, Aro Berrian finkatu zen etnotipo bat da abiapuntua. Bigarrenik, nazioa hartzen du historiaren subjektu nagusi bezala. Eta hirugarrenik, egitura triadiko bat du: nazioa homogeneoa eta harmonikoa omen zen urrezko aroa, orainaldiraino luzatzen den gainbehera eta homogeneotasuna eta harmonia berreskuratuko dituen etorkizun utopikoa. Gainera, beste zenbait metakontakizunek bezala, euskal gainbehera nazio atzerritar, gaizto eta boteretsu baten eraginez gertatu zela suposatzen du.

Euskal metakontakizun nazionala eratzeko orduan, Ipar Euskal Herriko euskaldunen eragin kulturala funtsezkoa izan zen, mugaz gaindiko euskal identitate bat indartzeko orduan. Bertan sortu ziren frantses eredu liberala imitatzen zuten euskal kontakizun nazionalak eta gainera, iparraldeko euskaldunak protagonista izan ziren XIX. mendearen azken hereneko euskal berpizkunderan.

Sabino Aranaren euskal metakontakizun nazionalaren arrakasta *fin de siècle*ko kontserbadore erradikalekin eta XIX. mendeko neokatolizismoaren eskema kulturelekin duen loturan oinarritu zen. Horiekin komunean baitzuen garaiko egoera politikoaren interpretazioa. Europar kulturen ohikoa den Espainiaren irudi orientalizatua bere egin

¹⁷⁶ Muro, «The politics of war memory in radical Basque nationalism»; Gaizka Fernández Soldevilla, «Deuda de sangre. La visión del pasado de ETA y el IRA», *Aportes* 97 (2018): 267-94.

izana ere faktore garrantzitsua izan zen. Bestalde, euskal metakontakizun nazionala egituratu zen eta berori sozializatu zen garaia Europako eremu ezberdinetan nazionalismoak agertu eta garatu ziren garai bera da.

Behin euskal metakontakizun nazionalaren oinarritzko egitura ezarrita, ideologia ezberdinetako nazionalistek erabil zezaketen. Horrela, lehen bertsio katoliko-tradizionalistatik aldendu ziren kultura politikoez moldatu ahal izan zuten, hala nola burges-kontserbadoreek eta akonfesional-ekzertiarrek. Aldi berean, metakontakizun hura oso goiz moldatu zen euskal autonomia administratibo baten aldarrikapenari lotuta. Aldarrikapen hura, mugaz gaindiko euskal identitatea bezala, ideologia eta identifikazio nazional ezberdinetako pertsona eta alderdiek bere egin zuten. Horrek, aldi berean, euskal metakontakizun nazionalaren hedapena erraztu eta, azken batean, ahalbidetu egin zuen 1936ko gerrari eta urte hartako autonomiari buruz EAJk zuen ikuspegi nazionalista gailentzea.

Herri Batasunak euskal metakontakizun nazionalaren oinarritzko egitura eta Espainiaren irudi orientalizatua jaso zituen oinordekotzan, bai eta 1936ko gerraren interpretazio nazionalista ere. Baina horrek ez du esan nahi diskurtso hori moldaketarik gabe jaso zuenik. Izan ere, horrek ezinezko egingo luke azaltzea 1970eko hamarkadaren bukaerarako aldaketa politiko, ekonomiko eta sozial handiak jazo zituen eremu batean koalizioak izan zuen arrakasta.

2. Hegemoniarako aukera. Konbentzimendu nazionalista eta ezkertiarra Herri Batasunean

XIX. eta XX. mendeetan zehar mugimendu nazionalista guztiek pentsatu zuten beraien metakontakizun nazionalak ukaezinak zirela eta historiak noranzko bat zuela, nazioak subjektu bezala jorratzen zuena. Herri Batasunak ere bazuen ikuspegi hori. Bestalde, mugimendu nazionalistak ideologia ezberdinek markatuta zeuden (errepublikazaletasuna, inperialismoa, sozialismoa, komunismoa, faxismoa...) eta horrek bakoitzaren metakontakizun nazionalari, errealitatearen azterketari eta praktikari balore eta konbentzimendu batzuk ematen zizkion.

Modu horretan, Herri Batasuna sortzeko unean zenbait alderdi eta pertsonak egin zuten irakurketa politikoa faktore ideologiko zehatz batzuek baldintzatuta egon zen, eta faktore horien arabera interpretatu zuten 1970eko hamarkadaren bukaerako euskal gizartea. Kapitulu honetan zehar honako galderei erantzuten saiatuko gara. Nola eragin zuten frankismo garaiko euskal gizartearen aldaketek euskal metakontakizun nazionallean? Nola eragin zuen horrek bere sorreraren unean Herri Batasunak egin zuen egoeraren irakurketan?

Gure ikerketan ikusi dugunaren arabera, Herri Batasunaren sorrera ulertzeko hegemonia kontzeptuari erreparatzea beharrezkoa dela deritzogu. Hegemonia kontzeptua europako ezkerrek garatu zuen XX. mendearen bigarren erdian, Antonio Gramsci (1891-1937) komunista italiarraren idatzietatik abiatuta. Bere eragina batez ere Euskal Herriko Alderdi Sozialistan (EHAS) nabari daiteke¹⁷⁷. 1975eko abenduan sortu zen alderdia eta 1977ko uztailan birfundatu egin zen Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea (HASI) izenarekin. EHAS/HASI izan zen Herri Batasunaren sorreran eragin handiena izan zuen alderdia eta baita koalizioak lehen urteetan izan zuen garapen ideologikoa gehien baldintzatu zuen alderdia.

Tesiaren kapitulu honetan Herri Batasunaren sorreran eta uneko gizarteari buruz egin zuten irakurketan ezkertiar tradizioko faktore ideologikoez izan zuten garrantzia

¹⁷⁷ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo vasco...*, I. bol., 398-99.; Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...*, 361-67. EHASen jatorria 1974an sortutako bi alderditan dago. Batetik, Eusko Alderdi Sozialista (EAS), euskarazko argitaletxei lotutako nukleo bilbotarra zuena. Bestetik, Herriko Alderdi Sozialista (HAS). 1974ko martxoan sortu zen Carrero Blancoren hilketaren ondoren gertatu ziren atxiloketak salatzeke Baionan egin ziren protesten testuinguruan. Bi taldeak batu zirenean, EHASek aldarrikatu zuen mugaz gaindiko lehen alderdi euskal nazionalista zela.

azpimarratuko dugu. Hau da, azalduko dugu Herri Batasunak errealitateari buruz zuen ikuspegi nazionalista europar ezkertiar tradiziotik jaso zituen baloreek eta konbentzimenduek baldintzatuta ere bazegoela. Kapitulu honetan defendatuko duguna da antifrankismoarekiko identifikazioak Herri Batasunaren konbentzimendu ideologikoen zati handia osatzen duela.

Kapituluak frankismo garaiko Euskal Herria aztertzen du, harremanak ezarriz euskal metakontakizun nazionalaren eta diktadurarekiko herritarrek izan zituzten jarreraren artean. Garapen horretan teorizatu egingo dugu 1970eko hamarkadako erdialdean sentipen bat orokortu zela, Hego Euskal Herria homogeneouski antifrankista zela uste zuena. Azalduko dugu zein neurritan eragin zuen sentipen horrek Herri Batasunaren sorrera. Zentzu horretan, gure ikuspegiak aurretik Francisco Letamendiak, Mikel Arriagak, Iñigo Bullainek eta Emilio López Adánek egindako interpretazioekin harremana du, autore horiek ezkertiar eraginei eta belaunaldi mailako sentipen antifrankistari garrantzia eman baitiete Herri Batasunaren sorrera azaltzeko orduan¹⁷⁸.

Gure ikerketak Hego Euskal Herriko frankismo garaia buruzko interpretazio bat gehitzen du, frankismo garaiko Espainiari buruz azken urteotan egin diren ekarpen historiografikoak kontuan hartuz. Beharrezkoa da azpimarratzea frankismoaren historia euskal historiografiak egiteke duen zerbait dela. Badaude tokian tokiko monografiak, Amaia Lamikizek sare asoziatibora egindako hurbilketa interesgarria eta langile munduari buruz José Antonio Pérezek, Aritza Sáenz del Castillok eta Nerea Perezek egindako azterketa sakonak¹⁷⁹. Baina azken urteetako historiografiaren gehiengoa gerra eta gerraostea aztertzeraz mugatu da¹⁸⁰. Bestalde, Fernando Molinak euskal estereotipoaz

¹⁷⁸ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo vasco...*; Arriaga Landeta, *Y nosotros que éramos de HB...*; Bullain López, *Revolucionarismo patriótico...*; Emilio López Adán, *Biolentzia politikoaren memoriak (1967-1978)* (Baiona: Maiatz, 2014).

¹⁷⁹ Amaia Lamikiz Jauregiondo, «El problema del ocio: la organización del tiempo libre de la juventud trabajadora en Guipúzcoa en la década de 1960», *Vasconia* 30 (2000): 283-93; Amaia Lamikiz Jauregiondo, «La perspectiva local en el estudio de la sociabilidad. Espacios asociativos de la juventud guipuzcoana en la década de 1960», *Vasconia* 33 (2003): 49-61; Amaia Lamikiz Jauregiondo, «Espacios para una cultura desde abajo: asociacionismo donostiarra e imágenes de la nación durante el franquismo», *Historia y Política* 38 (2017): 129-59; José Antonio Pérez Pérez, *Los años de acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del Gran Bilbao (1958-1977). Trabajadores, convenios y conflictos* (Madrid: Biblioteca Nueva, 2001); Aritza Sáenz del Castillo Velasco, «Las damas del hierro. El proceso industrializador desde una perspectiva de género, 1950-1975», hemen: *Dictadura y desarrollismo. El franquismo en Álava*, ed. Antonio Rivera (Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 2009), 219-53; Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri baten eraketa. Iruñerria 1956-1976* (Iruña: Nafarroako Gobernua, 2017).

¹⁸⁰ Jon Kortazar-Billelabeitia, «Gipuzkoako 1936ko “izu urdinaren” bi kasu alderatuta: Beasain eta Arrasate», *Vasconia* 42 (2018): 101-38; Erik Zubiaga, *La huella del terror franquista en Bizkaia. Jurisdicción militar, políticas de captación y actitudes sociales (1937-1945)* (Bilbao: UPV-EHU, 2017);

frankismoak egin zuen erreprodukzioa aztertu du, ondorioztatuz frankismoak euskal estereotipo positibo bat sustatu zuela eta garrantzitsua izan zela hori euskal nazionalismoa ere sendotzeko¹⁸¹. Gure argudiaketan Molinaren azalpenaren zati bat gure egingo dugu baina beste faktore batzuen garrantzia nabarmenduko dugu euskal nazionalismoa sendotu izana azaltzeko orduan, hala nola euskaldun hiztunen identitatea eta mundu hiritar eta industrial.

Hein handi batean, kapitulu honetako ekarpena Espainiari buruz egin diren zenbait ikerketaren ondorioak Hego Euskal Herria azaltzeko erabiltzea da, arreta berezia jarriz diktadura garaiko egunerokotasuna eta herritarrek diktadurarekiko izan zituzten jarrerak aztertu dituzten lanei. Zentzu horretan, Xavier Domènechen lana azpimarratu behar dugu. Berak aztertu du nola langile mugimenduak ahalmena izan zuen praktika multzo bat sortzeko eta nola praktika horiek jendartearen zati handi batean sentipen antifrankista hedatzeko funtsezkoak izan ziren¹⁸². Kapitulu honetan gure egiten dugu Domènechen interpretazioa eta gehitu egiten diogu langile mugimenduaren eta euskal metakontakizun nazionalaren arteko uztarketaren analisia.

Azkenik, Francoren heriotzaren osteko lehen hilabetei dagokienez, gure analisiak Ferran Gallegoren lanarekin du harremana. Gallegok azpimarratu egiten du hilabete haietako dinamika politikoa gobernu monarkikoaren eta legez kanpoko oposizioaren arteko harreman asimetrikoak baldintzatuta garatu zela eta defendatu egiten du garaia azaltzeko funtsezkoa dela ulertzea gobernuaren eta oposizioaren arteko harreman aldakorra¹⁸³. David Beorleguiren ikerketa ere oso aintzat hartu dugu. Beorleguik ahozko historia hartu du oinarritzat eta garai hartan ezker iraultzaileko militanteek izan zituzten

Javier Gómez Calvo, *Matar, purgar, sanar. La represión franquista en Álava (1936-1945)* (Madrid: Tecnos, 2014); Virginia López de Maturana, *La reinención de una ciudad. Poder y política simbólica en Vitoria durante el franquismo (1936-1975)* (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2014); Aritz Ipiña, *Represión y terror franquista en la Diputación de Bizkaia: fusilamientos y depuración (1936-1937)* (Pamplona: Pamiela, 2018).

¹⁸¹ Fernando Molina Aparicio, «“Intersección de procesos nacionales”. Nacionalización y violencia política en el país vasco, 1937-1978», *Cuadernos de Historia Contemporánea* 35 (2013): 63-87; Fernando Molina Aparicio, «Afinidades electivas. Franquismo e identidad vasca, 1936-1970», hemen: *Imaginarios y representaciones de España durante el franquismo*, ed. Stéphane Michonneau eta Xosé Manuel Núñez Seixas (Madrid: Casa de Velázquez, 2014), 155-75.

¹⁸² Domènech Sampere, *Clase obrera, antifranquismo...*

¹⁸³ Ferran Gallego, *El mito de la Transición. La crisis del franquismo y los orígenes de la democracia (1973-1977)* (Barcelona: Crítica, 2008).

bizipenak aztertzen ditu¹⁸⁴. Zentzu horretan, gure ikerketan zehar jasotako testigantzak ere gehituko ditugu kapitulu honetan.

Gramsci eta bere eragina

Gramsciren idatzietan, hegemonia kontzeptua sistema politiko-ekonomiko bat kohesionatuta mantentzeko botere mekanismoak azaltzeko erabiltzen da. Interpretazio horren arabera, biztanleen gehiengoak gizarte batean dauden ezberdintasunak onartzeko orduan, ez da nahikoa Estatuaren botere hertsatzailea. Beharrezkoa litzateke, aldi berean, boteretsuen eta boteretsuen interesen menpe daudenen arteko harremana normalizat jotzen duen marko kultural eta etiko bat. Gramscirentzat marko kultural hori da boteretsuek hegemonia mantentzeko ardatza, hau da, jendarte batean boterea gutxiengoaren esku mantentzeko ardatza¹⁸⁵.

Gramsci Partito Comunista Italianoko (PCI) buruzagia izan zen eta Sobietar Batasunaren sorreraren lehen urteak ezagutu zituen. Errusiar kasuan ez bezala, gizarte liberal-burges sendo bat zegoen herrialdeetan iraultzaileek boterea hartzeak ekar zitzakeen arazoengatik inguruan hausnartu zuen. Horregatik, boterea hartu aurreko garaiari garrantzia eman zion eta aztertu zuen zer nolako borroka ematen ziren fase hartan. Horretarako, materialismo dialektikoaren oinarritzko eskematik abiatu zen. Eskema horren arabera, gizarte batek bere eguneroko funtzionamenduan bere antitesia sortuko luke eta tesia eta antitesiaren arteko borroka garai bat abiatuko litzateke, azkenenean gizarte berri bat sortu arte (sintesia).

Gramscik hauteman zuen gizarte bateko klase subordinatuek, hau da, boteretsuen interesek baldintzatutako gehiengoak, beren egunerokotasunean praktika eta kultura propioak garatzen zituztela eta denborarekin, ezarritako hegemonia zalantzan jartzen zutela. Testuinguru horretan, alderdi komunistaren lana honakoa litzateke: klase subordinatuei beharrezko tresna ideologikoak eskaintzea, ahalbidetuz klase subordinatuen interesak gizartearen interes orokor bezala aurkeztea eta, kontrara, interes orokorren aurkako bezala azaltzea boterea duen gutxiengoa. Behin klase subordinatuek sistemaren kohesio ideologikoa zartarazita, beraiek sorturiko errealitatea zentzu komuna bihurtuko litzateke eta klase subordinatuak, Gramsciren terminologiaren arabera, bloke

¹⁸⁴ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*

¹⁸⁵ Unai Apaolaza, «Hegemonia eta estrategia independentista», *hAUSnART 2* (2012): 50-69.

historiko kontrahegemoniko bihurtuko lirateke. Bloke historiko horrek lortuko luke denborarekin hegemonia berria bihurtzea eta gizarte berri baten oinarriak ezartzea¹⁸⁶.

Gramsciren pentsamendua eta terminologia 1950eko hamarkadaren bukaeran iritsi ziren ezker antifrankistara, PSUC alderdi katalanaren bitartez. Gramsciren lana zentsurak baimendutako zenbait argitalpenetan agertu zen, hala nola *Cuadernos para el diálogo* eta *Destino*, baina Hego Amerikatik iristen ziren legez kanpoko argitalpenen bitartez ere hedatu zen. 1966an Gramsciren testuen edizio baten argitalpena onartu zuen zentsura frankistak eta 1970eko hamarkadan zehar, Gramsciren testuen interpretazioak posizio ezberdinetatik egin ziren. Eurokomunismotik hasita, ezker iraultzaileraino¹⁸⁷.

Nahiz eta EHAS/HASIren dokumentuetan ez dugun erreferentzia espliziturik topatu, irudipena dugu komunista italiarrari buruz jaso zuten interpretazioa Gramsci kontsejista eta leninistarena zela. Adibidez 1975ean argitaratutako *Debate sobre los consejos de fábrica* antologian jasotzen zena eta zenbait alderdik bere egin zutena, hala nola Organización de Izquierda Comunista de Españak (OICE)¹⁸⁸. Baina litekeena da Gramsciren pentsamendua frantses literatura politiko-filosofikotik iritsi izana EHASraino, 1970eko hamarkadaren hasieran oso ohikoak baitziren Gramsciri egindako erreferentziak Frantziako giro ezkertiarretan¹⁸⁹.

Gramsciren bertsio kontsejistaren arabera, sindikatuen bitartekaritzarik gabe aukeratutako fabriketako kontseiluak etorkizuneko gizartearen nukleoa izango ziren. Hain zuzen ere 1977ko azaroan, Herri Batasunaren sorrera prestatzen ari zen garaian, *El Viejo Topo* ezkertiar intelektualen erreferentziazko aldizkariak Gramsciri buruzko dossier bat argitaratu zuen¹⁹⁰. Bertan, Francisco Fernández Buey filosofoak Gramsciren interpretazioa bere egin zuen eta fabriketako kontseiluak "el germen del futuro estado" zirela aldarrikatzen zuen, honakoa azpimarratuz: "formas consejistas de uno u otro tipo

¹⁸⁶ Antonio Gramsci, *La política y el Estado moderno* (Madrid: Público, 2009); Antonio Gramsci, *Antología. Para la reforma moral e intelectual* (Madrid: Catarata, 2016).

¹⁸⁷ Giaime Pala, «La recepción del pensamiento de Antonio Gramsci en España (1956-1980)», hemen: *Gramsci y la sociedad intercultural*, ed. Giaime Pala, Antonio Firenze eta Jordi Mir García (Barcelona: Montesinos, 2014), 185-200.

¹⁸⁸ Antonio Gramsci y Amadeo Bordiga, *Debate sobre los consejos de fábrica* (Barcelona: Anagrama, 1975).

¹⁸⁹ Robert Paris, «Gramsci en France», *Revue française de science politique* 29, 1 zbk. (1979): 5-18; Jean-Claude Zancarini, Romain Descendre eta Riccardo Ciavolella, «Présentation», *Actuel Marx* 57 (2015): 7-10; Chantal Mouffe eta Anne Showstack Saason, «Gramsci in France and Italy—a review of the literature», *Economy and Society* 6, 1 zbk. (1977): 31-68.

¹⁹⁰ Labrador Méndez, *Culpables por la literatura...*, 475-76.

(...) van a florecer en los próximos tiempos"¹⁹¹. Ikuspegi hura Herri Batasunaren sorrera bultzatu zutenen artean ere bazegoen, kapitulu honen bukaeran azalduko dugun bezala.

Hegemonia kontzeptua EHASren dokumentuetan hauteman daiteke baina orokorrean ez zen esplizituki agertzen¹⁹². Baina HASI sortu zenetik berebiziko garrantzia hartu zuen. Alderdiaren helburuen artean honakoa jotzen zen eredu politiko bezala: "una democracia popular bajo la hegemonía de la clase trabajadora"¹⁹³. Eta alderdiaren egitekoa zehazteko orduan, Gramsciren pentsamenduaren eragina agerikoa da, hurrengo pasartean ikus daitekeen bezala, hegemonia hitza —'nagusigo' bezala euskaratua— ideologia eta blokea kontzeptuei lotuta agertzen baita:

[Alderdiak] masen bidearen alde eginen du, horrela langileriaren eta herri masen autoerakuntza biltzar oinharrian bultzatuz, beronen bidez, bere askatasunaren alde egiten duen herri blokean behargin klaseak nagusigo politiko eta ideologikoa eduki dezan¹⁹⁴.

Hegemonia kontzeptua Euskal Iraultzarako Alderdiaren (EIA) zuzendaritzak ere azpimarratu zuen, HASI sortu zen hilabete berean idatzitako testu batean. Kontuan hartu behar da EIAko une hartako buruzagi nagusietako bi, Goyo López Irasuegi (1946-1988) eta Francisco Letamendia *Ortzi* (Donostia, 1944), Herri Batasunera pasa zirela 1978ko bukaeran, behin gorteetan espainiar Konstituzioa onartu zenean. EIAko buruzagitzak 1977ko uztailean idatzi zuen dokumentu hartan, hegemonia terminoaren azalpen bat ere jasotzen zen, eta Gramsci bera aipatu ez arren, agerikoa da bere pentsamenduaren eragina:

una clase es hegemónica cuando ejerce sobre los demás sectores (...) una coerción efectiva mediante el control de los medios de comunicación y enseñanza a través de los cuales intenta transmitir su ideología, sus valores y su concepción de la organización social¹⁹⁵

Hurrengo orrialdeetan zehar azaldu egiten da zergatik uste izan zuten Herri Batasuneko buruzagiek beraiek ordezkatzeko zuten ideologia etorkizuneko hegemonia bilakatuko

¹⁹¹ Francisco Fernández Buey, «Notas sobre Gramsci consejista con algunos problemas de hoy como fondo», *El Viejo Topo* 14 (1977): 59-63.

¹⁹² EHAS, «Euskadi, nación oprimida», *Materiales* 5 (1977): 123-33.

¹⁹³ HASI, «Bases de HASI», *Hertzale* 0 (1977). Euskarazko bertsioan ez da hegemonia hitza aipatzen: "herri demokrazia bat beharrezkotzat daukagu, beronetan, langileariaren zuzendaritzapean, Herriaren parte hartze zuzena, batzarre-oinharritik sortutako delegazioa sistema kontrolatuaren bidez, artikulatuz, klaserik gabeko gizartea lortu arte".

¹⁹⁴ HASI, «HASIren oinharriak», *Hertzale* 0 (1977): 20.

¹⁹⁵ Euskal Iraultzarako Alderdia, «Política Popular», *EIA (Boletín Interno)* 7 (1977): 1-8.

zela. Horretarako, beharrezkoa da aztertzea frankismo garaiko eraldaketak eta nola aldaketa horiek euskal metakontakizun nazionala ere aldarazi zuten.

Euskara metakontakizun nazionalaren erdigunean

Trantsizio garaian Herri Batasuna sostengatu zuten pertsonen egindako elkarrizketetan, historiari egindako erreferentziak bereziki urriak dira eta, egiten direnetan, familiako memoria hurbilari lotuta daude. Hau da, Herri Batasunarekiko atxikimendua azaltzeko orduan, elkarrizketatuek ez dute azpimarratzen euskal metakontakizun nazionala. Horrek ez du esan nahi berori zalantzan jartzen dutenik edo baztertzen dutenik, baizik eta ez dutela zertan beraien bizitzaren istorioa kontakizun nazional handi baten parte bezala aurkeztu.

Halere, gaztelera hiztun diren familietatik datozen elkarrizketatuen gehiengoak euskara ikasi izana azpimarratzen du bere bizitzako mugarri garrantzitsu bezala. Horrela jasotzen dute hurrengo adibideek, beren haurtzarora hiriburu ezberdinetako langile auzoetan igaro zuten pertsonekin egindako elkarrizketetan jasota. Garbiñek (Bilbo, 1957), Mirafloresen bizi zen Zeutako familiaren alabak, bere gurasoengandik jasotako baloreak aipatzen dituenean, jarraian gehitu egiten du honakoa: "tú ves que aquello es lo tuyo, que vas a empezar a hacer euskera..."¹⁹⁶. Mari Mar (Donostia, 1944) nafar jatorriko familia batean bizi zen Antiguán eta zehatzago azaltzen du euskararekiko harremana: "en mi casa se hablaba castellano (...) pero ya desde cría, le [sic] había comprado el primer librito para aprender euskera, por mi cuenta"¹⁹⁷. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Jesúsí (Lizarrá, 1936). Bere familia Arrotxapean ezarri zen eta honakoa kontatu zigun:

A mí me mandaron mis padres a los salesianos. Un colegio de frailes. De camino, había una tienda de ropa, de no sé qué, y ponía: "euskeraz mintzatzen da". Eta hori, igual tenía yo ocho o diez años, ¿eh? Ya me empezó el gusanillo¹⁹⁸.

Herri Batasunarekin identifikatu zen jende askorentzat, euskara identitate adierazle oso garrantzitsua izan zen, eta norbanako independente eta subjektu aktibo bezala hartutako erabaki politikoekin lotzen dute beren testigantzetan. Nahiz eta elkarrizketatutako pertsonentzat metakontakizun nazionala ez den elementu esplizitu bat beraien bizi

¹⁹⁶ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/19).

¹⁹⁷ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/16)

¹⁹⁸ Autorearekin elkarrizketa (2017/12/07).

istorioetan, euskararen eta Herri Batasuna sostengatzearen artean ezartzen duten harreman zuzena nolabait azaldu behar da. Eta harreman horrek zerikusia du, hain zuzen ere, euskal metakontakizun nazionalen euskarak hartu zuen garrantziarekin XX. mendearen erdialdetik aurrera. Euskarari lotutako dinamika sozialen analisia egingo dugu jarraian eta bertan ikusten da nola frankismoko botere harremanek, denbora gutxian dinamika bat sortu zuten, zalantzan jarri zuena ezarritako boterearen autoritatea. Jarraian, dinamika hori euskal metakontakizun nazionalaren garapenarekin erlazionatuko dugu.

Frankismoak gerraren irakurketa nazionalista bat egin zuen, espainiar kontakizun nazional kontserbadorean oinarrituta zegoena. Ikuspegi horren arabera, espainiar nazionalaren goren-unea bere esentzia katolikoari fidel izan zenean jazo zen. Horrenbestez, Espainia Ilustrazioaren garaitik mespretxatu eta baztertu zuten europar nazioak II. Mundu Gerrako anabasarantz zihoazen bitartean, 1936ko estatu kolpeak ordena berrezarri omen zuen Espainian eta lehengoratu egin omen zuen Espainiaren benetako izaera nazional katolikoa. Hau da, frankistentzat, mende luzetako gainbeheraren ostean, Espainia bere antzinako distira berreskuratzen ari zen, gerrak suntsitutako Europaren aurrean. Horretarako, beharrezkoa zen desagerraraztea Espainia berriro bide onetik atera nahi zuten guztiak¹⁹⁹.

Frankismoak Espainia posible bakarra Espainia frankista zela aldarrikatu zuen. Diktadura sostengatu zuten kultura politiko ezberdinek (tradizionalistak, falangistak eta nazional-katolikoak) ezaugarri komun bezala izan zuten benetako Espainia bezala ikustea euren burua, anti-Espainiaren aurka: errepublikazaleak, ezkertiarak, antiklerikalak, iraultzaileak, estatuz-azpiko nazionalistak... Eskolaren bidez, komunikabideen bidez eta disidentziaren errepresioaren bidez, frankismoak ezarri nahi izan zuen ideia argia zen: ez zegoen beste Espainia posiblerik²⁰⁰.

¹⁹⁹ Alvarez Junco eta de la Fuente Monge, «La evolución del relato histórico...», 353-57; Fernando Molina eta José Pérez, A., «Violencia y nacionalización de masas. El Franquismo», en *Los caminos de la nación. Factores de nacionalización en la España contemporánea*, ed. Fernando Molina Aparicio y Félix Luengo Teixidor (Granada: Comares, 2016), 125-39.

²⁰⁰ Ismael Saz Campos, «Las culturas de los nacionalismos franquistas», *Ayer* 71 (2008): 153-74; Ismael Saz Campos, «Negativo y parasitario. El franquismo y la conmemoración de la nación española», hemen: *De la idea a la identidad: estudios sobre nacionalismos y procesos de nacionalización*, ed. Ramón López Facal eta Miguel Cabo Villaverde (Granada: Comares, 2012), 247-59; Raúl Moreno Almendral, «Franquismo y nacionalismo español: una aproximación a sus aspectos fundamentales», *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea* 12 (2014).
<https://erevistas.uc3m.es/index.php/HISPNOV/article/view/1874/898>

Gainera, Espainia posible bakarria Espainia frankista zenaren ideia bere egin zuen hein handi batean gerra galdu zuen bando antifaxistak. 1939tik gerora, galtzaileek sentitu zuten beraien porrota espainiar kontakizun nazional liberal-ekzertiarren porrota ere bazela. Hau da, espainiar herri demokrata behin eta berriro garaitua zen botere despotiko, klerikal eta atzerakoiarengatik: 1815eko berrezarkuntza absolutistan, 1823ko San Luiseko Ehun Mila Semeen inbasioan, 1874ko Pavía jeneralaren estatu kolpean eta, azkenik, 1939an Errepublikako gobernuaren erbesteratzean. Espainiaren irudi orientalizatuarekin harremana zuen ikuspegia zen gainera. Espainia, bidelapur eta gerrillari harroen herria, behin eta berriz garaitzen zuen despotismo boteretsuak. II. Mundu Gerraren ostean faxismoarengandik askatutako Europaren testuinguruan, oso gauza espainiarra zirudien Espainian erregimen militar kontserbadore bat egoteak. Eta erbestean zeuden espainiar liberalen eta ekzertiarren sentipenetan, espainiar nazioaren ekidin ezinezko tragediaren parte zen hori guztia²⁰¹.

Azaldu dugu aurreko kapituluan nola espainiar kontakizun nazional liberal-ekzertiarrek bere imajinariotik baztertu zuen euskal berezitasun oro XIX. mendearen azken herenean, eta bere egin zuen euskalduntasuna kontserbadorea bakarrik izan zitekeenaren ideia. Halere, espainiar kontakizun nazional kontserbadoreak erdibideko jarrera bat hartu zuen, frankismo garaian bere aurka bihurtu zitzaiona. Anti-Espainia garaitzearekin itsututa eta Errepublikako gobernuaren sostengatu zuten estatuz-azpiko nazionalistekiko errebantxa hartu nahirik, autoritate frankistek euskararekiko hartu zituzten lehen neurriek euskara espazio publikotik desagerraraztea bilatu zuten²⁰².

Lehen debeku esplizitua 1936ko irailaren 25ean Ricardo Sanz komandanteak sinatutako bandoa izan zen: "se prohíbe la palabra 'Agur', importada por los separatistas en lugar del "Adiós", genuinamente español"²⁰³. 1936ko abenduaren 7an, Gipuzkoako

²⁰¹ Alvarez Junco eta de la Fuente Monge, «La evolución del relato histórico...», 385-86; Francisco Javier Capistegui Gorasurreta, «Basque violence in the international academy», hemen: *ETA's Terrorist Campaign: from violence to politics, 1968-2015*, ed. Rafael Leonisio, Fernando Molina eta Diego Muro (London & New York: Routledge, 2017), 201-17; Ferran Archilés Cardona, «Narrar la nación fracasada. Narrativas del fracaso e historiografía española contemporánea», hemen: *Mundos de ayer. Investigaciones históricas contemporáneas del IX Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea* (Murcia: Universidad de Murcia, 2009), 217-45.

²⁰² Xosé Manuel Núñez Seixas, «La(s) lengua(s) de la nación», hemen: *Ser españoles. Imaginarios nacionalistas en el siglo XX*, ed. Xosé Manuel Núñez Seixas eta Javier Moreno Luzón (Barcelona: RBA, 2013), 262-65; Josu Chueca Intxusta, «Se prohíbe la palabra "Agur". Son tiempos de Viva España. Euskeraren aurkako jazarpena Diktadura frankistaren garaietan», hemen: *Entre la construcció nacional i la repressió identitària. Actes de la Primera Trobada Galeusca d'Historiadors i d'Historiadors*, ed. Agustí Alcoverro eta Giovanni C. Cattini (Barcelona: Museu d'Història de Catalunya, 2012), 303-8.

²⁰³ Joan Mari Torrealdei, *El Libro Negro del Euskera* (Donostia: Ttartalo, 1998), 85-86.

gobernadore militarrek berrogeita zortzi orduko epea ezarri zuen ezaba zitezen "los rótulos, carteles y anuncios de k, tx, b, etc. con que han violado los nacionalistas el glorioso idioma español"²⁰⁴. 1937ko urtarrilaren 26an, Feliciano Echaniz apaizak bostehun pezetako isun bat jaso zuen, salatu baitzuten egin zituela "la bendición del Santísimo Sacramento, las preces o jaculatorias en vascuence"²⁰⁵. 1937ko maiatzaren 29an Donostiako autoritate politiko matxinatuek honakoa argitaratu zuten: "se denunciará a todo aquel que infrinja lo dispuesto sobre la prohibición de hablar idiomas y dialectos diferentes del castellano"²⁰⁶. Justizia ministerioak 1938ko abuztuko agindu batean adierazi zuen: "nulas y sin valor legal las inscripciones que se hallen practicadas en idioma o dialecto distinto al idioma oficial castellano"²⁰⁷. Urtebete beranduago, honakoa adierazi zen: "prohibido el empleo de términos de idiomas distintos del español para la nomenclatura de los hospedajes"²⁰⁸. Eta 1940an, Gipuzkoako gobernadore zibilaren zirkular batek salatu egiten zuen biztanleen ohitura, "llamar a las personas por sus nombres ´euskéricos´", eta honakoa agintzen zien bere menpekoei: "extirpar por completo esta costumbre que es contraria a la Unidad y postulados del Nuevo Estado"²⁰⁹.

Nahiz eta ez zen garatu corpus juridiko sendorik garatu alor horri lotuta, lehen autoritate frankisten agindu eta zirkularrek adierazten zuten euskara ez zela Espainia berriaren parte eta, gainera, euskaraz hitz egitea zigortu beharreko zerbait zela. Kanean eta eskolan euskaraz aritzeari beldurrak frustrazioa eta ikara eragin zituen, eta ondorio garrantzitsuak izan zituen, gerra garaiko eta gerraosteko haurrak hizkuntzarekin erlazionatzeko orduan²¹⁰. Euskal hiztun familietako kide izate hutsarekin lotuta, eskola errepresio eremu bezala gogoratzen dute askok, eta memoriako mugarri ohikoa bihurtu zen ondoren Herri Batasuna sostengatu zuten askorentzat, esaterako, Jon Idigoras (1936-2005) eta Itziar Aizpurua (Deba, 1943) buruzagien memorieta jasotzen den bezala²¹¹.

²⁰⁴ Ibid., 89.

²⁰⁵ Ibid., 90-91.

²⁰⁶ Ibid., 104-6.

²⁰⁷ Ibid., 136-37.

²⁰⁸ Ibid., 141.

²⁰⁹ Ibid., 155.

²¹⁰ Alfonso Pérez-Agote, «The Role of Religion in the Definition of a Symbolic Conflict. Religion and the Basque Problem», *Social Compass* XXXIII, 4 zbk. (1986): 424.

²¹¹ Jon Idigoras, *El hijo de Juanita Gerrikabeitia* (Tafalla: Txalaparta, 2000), 24-25; Itziar Aizpurua, *Jokin Gorostidi. Autobiografía* (Tafalla: Txalaparta, 2007), 12.

Gure ikerketarako elkarrizketatutako pertsonen artean, Koldo Urrutikoetxeak (Bilbo, 1949) ere antzeko testigantza eman zigun: "hain zen, nik uste dot, gure lehenengo denboratan, errepresino ta hori, jenteak ez zuen inork euskerarik egiten. O sea, kanpoan ez zendun apenas euskerarik entzuten"²¹². Koldo Herri Batasuneko militantea zen eta Arbolantxa auzoko baserri bateko familia euskaldunekoa. Jesús María Alegría (Araia, 1949) ere Herri Batasuneko militantea izan zen Trantsizio garaian, eta eskolaren eta euskararen arteko harreman negatiboa gogoratzen ditu bere testigantzan: "la escuela donde nos atacaban. Yo no hablaba euskera. Mis abuelos y todo eso sí (...) Y había otro amigo mío de un caserío que hablaba mal castellano y tal, y aquél..."²¹³. Lehenago aipatu dugun Jesusek (Lizarra, 1936) ere, nahiz eta ez izan euskaldun familiakoa, honakoa adierazi zigun: "el euskera estaba totalmente prohibido. Vamos, más que prohibido, había gente euskaldun baina no se atrevían a hablar en euskera"²¹⁴.

Beharrezkoa da azpimarratzea euskararen erabilera publikoa mugatzeko neurriak ez zirela berriak Pirinioen bi aldeetan. Eta belaunaldiz belaunaldi, euskal hiztunek berek abandonatu zutela beraien ama hizkuntza, maila goragoko status soziala lortzeko oztopo bezala sentitu baitzuten²¹⁵. Baina frankismoak esanahi politiko berri bat eman zion euskarari, lehen unean bederen anti-Espainiaren zati bezala aurkeztu baitzuen.

Halere, 1936ko estatu kolpea sostengatu zuen tradizionalismoaren oinarri sozialaren zati handia euskalduna zen eta tradizionalismoak beti hartu izan zuen euskara espainiar nazionaren elementu garrantzitsuetako bat bezala. José María Areilza (1909-1998) Bilboko alkate izendatu zuten matxinatuek hiria hartu ostean. Gerra bukatuta bi urte bakarrik pasa zirenean, Resurrección María Azkue (1864-1951) hizkuntzalari zaharrari proposatu zion Euskaltzaindia berriro martxan jartzea —euskararen akademia Hego Euskal Herriko lau diputazioek sortu zuten 1917an—. Berriro abiatzeko baldintza bakarra, erbestean zeuden euskaltzainak baztertzea izan zen²¹⁶.

Azkuek berriro antolatu zuen akademia Julio Urquijo (1871-1950) Errepublikara garaiko diputatu tradizionalistarekin batera. Bileretan parte hartzeri gonbidatu zuten Federico

²¹² Autorearekin elkarrizketa (2017/12/13).

²¹³ Autorearekin elkarrizketa (2017/11/07)

²¹⁴ Autorearekin elkarrizketa (2017/12/07).

²¹⁵ José María Larrea Muxika, *Euskaldungoa erroizturik* (Iruñea: Pamiela, 1994); Koldo Izagirre, *Autopsiarako frogak. Arseniko aztarnak gure hizkuntzan* (Donostia: Susa, 2010).

²¹⁶ Pako Sudupe, *50eko hamarkadako euskal literatura. I. Hizkuntza eta Ideologia eztabaidak* (Donostia: Utriusque Vasconiae, 2011), 24.

Krutwig (1921-1998) gaztea, enpresaburu alemaniar baten semea²¹⁷. Azkueren sostenguarekin, Krutwigek euskararen aldaera berria garatzea proposatu zuen, estandar formal eta literario bezala erabiltzeko. Horretarako, oinarri bezala XVII. mendeko lapurtar klasikoa hartzea planteatu zuen, eta beharrezko neologismoak latinetik eta grezieratik abiatuta sortzea. Horrela, euskara europar kulturaren ondare bezala aldarrikatzen zuen eta, aldi berean, baztertu egiten zituen Sabino Aranaren proposamen garbizaleak eta bere jarraitzaileek XX. mendeko lehen zatian garatutako euskara jaso²¹⁸.

Proiektu hura aurrera ateratzeko, Euskaltzaindian euskal hiztun frantsesak sartzea sustatu zen: Mathieu-René Lafon (1899-1974) Bordeleko unibertsitateko katetraduna eta Piarres Laffite (1901-1981) *Herria* (1945) aldizkariko zuzendaria. Euskaltzaindia berriak euskarari bultzada europar eta mugaz gaindikoa eman zion eta EAJren klitxe puristetatik aldendu zen. Arantzazuko seminarioko irakaslea zen Luis Villasante (1920-2000) akademiara batu zenean, horrela aldarrikatu zuen idazle lapurtarren ondarea: "Euskalherri guztiaren batasuna adierazten eta egiten duen symbola"²¹⁹.

Euskaltzaindiaren proposamen berriaren inguruko eztabaidek Pirinioen bi aldeetako hizkuntzalariak jarri zituzten harremanetan eta erbesteratutako hizkuntzalarien eta idazleen erreakzioa ere ekarri zuten. Polemika eskutitz pribatuen bidez garatu zen. Baita Euskaltzaindiaren eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen argitalpen baimenduen bidez ere —azken horrek *Egan* gehigarria sortu zuen 1953an—. Hirugarrenik, eztabaida erbesteko abertzaleen agerkerietan ere eman zen, hala nola *Gernika* (Ipar Euskal Herrian argitaratua 1945etik), *Alderdi* (erbesteko EAJren agerkari ofiziala 1947tik) eta *Euzko Gogoa* (Guatemalan argitaratzen zena 1949tik). Modu horretan, autoritate frankisten ekinbide batek euskararen inguruan sare intelektual mugaz gaindikoa eta belaunaldi ezberdinen artekoa izan zuen ondorio. Eta dinamika hura guztia euskara Espainia frankistaren parte bihurtzeko tradizionalisten gogoetatik erabat aldenduta garatu zen, izan ere, atzerriko eta erbesteko hizkuntzalari eta idazleekin harremanak ezarri ahal izan zituzten Espainia frankistan bizi zirenek²²⁰.

²¹⁷ Anton Ugarte Muñoz, «Federiko Krutwig (1921-1949): ideologo abertzale baten hezibidea», *Gerónimo de Uztariz* 26-27 (2011): 62-102.

²¹⁸ Imanol Murua Uria, «Federiko Krutwigi elkarrizketa», *Jakin* 101 (1997): 61-106.

²¹⁹ Sudupe, *50eko hamarkadako euskal literatura. I. Hizkuntza eta Ideologia eztabaidak*, 45.

²²⁰ Joxe Azurmendi, «56ko belaunaldiko pentsamendua ulertzeko giltza: hizkuntza», hemen: *Txillardegia. Batasunaren pentsalaria*, ed. Miren Rubio Iturria (Andoain: Jakin-AEK-UPV/EHU, 2019), 5-38.

Frankismoak dinamika bikoitza sortu zuen, beraz. Alde batetik, euskararen erabilera keinu antifrankista bezala hartu zuen, Espainiatik kanporatu beharreko zerbait bezala. Bestetik, euskararen erabilera formalerako oinarri izango zen aldaera berri baten agerpena ahalbidetu zuen eta berori mugaz gaindiko euskal identitate bati lotuta garatu zen. Testuinguru hartan, 1959an sortutako talde politiko berri batek, Euzkadi Ta Azkatasunak (ETA), euskal metakontakizun nazionalaren bertsio propioa garatu zuen eta hari guztiari zentzu politiko eta euskal nazionalista berria eman zion.

ETAren euskal metakontakizun nazionala

Talde berriaren inguruan artxiboetan dagoen lehen agiria ETAk erbesteko Euzko Jaurlaritzari bidalitako eskutitza da. ETAk 1937tik erbestean zegoen euskal gobernu autonomoaren oinordeko bezala aldarrikatu zuen bere burua. Gobernu hura "el depositario de la fé y voluntad de nuestro pueblo, libre y legalmente manifestado" bezala definitu zuen eta horregatik, talde politiko berriak honela ulertu zuen bere burua: "integrado en la trayectoria y principio que de él dimanan"²²¹.

ETAk bere egin zituen euskal metakontakizun nazionalaren oinarrizko elementuak eta Aranak ezarritako erretorika militarista, bai eta 1936ko gerrari eta orduko gobernu autonomoari buruz EAJk egindako irakurketa ere. Baina ezberdintasun argiak ezarri zituzten, euskal metakontakizun nazionalaren bertsio berri bat zehaztu zutenak: ETAren euskal kontakizun nazionala.

Alde batetik, Espainia frankistako gazte talde batek sortua izanagatik, ETako militanteek hein batean erakutsi zuten frankismoaren seme onak zirela. Ontzat eman zuten existi zitekeen Espainia bakarra Espainia frankista zela eta euskara espainiar naziotik kanporatuta geratu zela. Euskal nazioa frankismoaren aurkakotasun erabatekoa bezala ulertu zuten: euskal herri demokrata eta euskalduna, haien kontakizun nazionalaren hasieran eta bukaeran kokatu zutena, hots, iragan ideal eta etorkizun utopiko bezala²²². Sabino Aranak hitz egin zuen askatasunari eta demokraziari buruz, baina ñabartu zuen hitz horien interpretazioa erabat antiliberala zela²²³. Aldiz, ETako

²²¹ ETA, «Carta» (carpeta Correspondencia - EBB Baiona–Interior (1959): Archivo del Nacionalismo Vasco, 1959).

²²² Joseba Ereño et al., ed., *Documentos Y* (Donostia: Lur, 1979), 92-104.

²²³ Arana eta Goiri'tarr, *Bizkaya por su independencia...*, 53-54.

lehen militanteek imajinatu zuten aberri libre eta demokratikoa esplizituki demokrata-liberala eta europazalea zen²²⁴.

1960ko abuztuan Caracasen argitaratutako *Zutik!* agerkariaren zenbaki berezi batek, "Euzkadi'ko gaztediari bereziki zuzendua", ETAREN kontakizun nazionala modu simple eta argian laburbiltzen zuen²²⁵. Hasiera-hasieratik, testuak euskara ezartzen zuen euskal metakontakizun nazionalaren erdigunean: "euskera da euzkotarren aberri-izkuntza"²²⁶. Sabino Aranaren metakontakizun nazionalan bezala, 1839 hartzen zen euskal nazioaren *annus horribilis* bezala, baina kasu honetan, euskararen erabilerarekin lotzen zen: "1839-an, ots, azkatasuna galdu genuan urtean, euzkotarren oiko izkera euskera zan"²²⁷. Testuan zehar azpimarratu egiten zuenez, "euskeraz itzegiten entzuteak poztu egiten gaitu euskaldunak" baina, aldiz, "españolak bere onetatik ateratzen ditu euskeraz aditzeak (...) euskeraren eriotza bost ajola zaie"²²⁸. Modu horretan, ETARENTZAT euskara zen euskalduntasunaren oinarritzko ezaugarria, eta ikusiko dugun bezala, Herri Batasunak ere jaso zuen ideia hura. Herri Batasunarentzat euskara "gure hizkuntza nazionala" zen eta Iñaki Aldekoa buruzagiak horrela definitu zuen: "una de las esencias fundamentales que nos identifica como pueblo"²²⁹.

Aztertzen ari garen 1960ko testuan, ETAK euskal nazioaren lurraldea osatzen zuten herrialdeak ere definitu zituen, XIX. mendean euskarak zuen erabileraren arabera zerrendatuak: Gipuzkoa, Lapurdi, Zuberoa, Bizkaia, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Araba. Nahiz eta Nafarroako erresumaren "istori ospatsua" aipatzen zuen, ez zuen gehiegi azpimarratzen Erdi Aroko erresuma, independentziaren aurrekari bezala²³⁰. Nafarroaren mugaz gaindiko izaera —Nafarroa Beherea Frantzian eta Nafarroa Garaia Espainian—, euskal nazioaren lurraldetasunaren frogatzat aldarrikatzen zuen ETAK, bi Estaturen artean banatuta egoteak baieztatzen baitzuen "Nafarroa ez dala España"²³¹.

Herri Batasunak ere Nafarroari garrantzia sinboliko handia eskaini zion eta herrialde horretan erabilitako propagandetan eta egindako ekitaldietan Arrano Beltza erabili zuen,

²²⁴ ETA, «Principios (1962)», hemen *Documentos Y*, ed. Joseba Ereño et al. (Donostia: Lur, 1979), 530-31.

²²⁵ ETA, «Zutik! (Caracas) 32», en *Documentos Y*, ed. Joseba Ereño et al. (Donostia: Lur, 1960), 444-46.

²²⁶ *Ibid.*, 440.

²²⁷ *Ibid.*

²²⁸ *Ibid.*, 441.

²²⁹ Egin, «Cuestionario básico a los partidos: Herri Batasuna», *Egin*, 1979ko otsailaren 25a; Iñaki Aldekoa, «¿Es Rosón abertzale?», *Egin*, 1982ko apirilaren 11.

²³⁰ ETA, «Zutik! (Caracas) 32..», 441.

²³¹ *Ibid.*

Antso Azkarra erregearen zigilua. Baina erresuma independentearen aldarrikapena baino gehiago, Nafarroa euskal lurraldetasuna berresteko erabili zuten. Herri Batasunarentzat, "la unidad de Euskadi Sur y del euskera son temas en los que no podemos ni vamos a ceder jamás"²³². Horrenbestez, Herri Batasunak nazioa hizkuntzari eta lurraldeari lotuta definitzen zuen, ETAREN kontakizun nazionalak ezarri bezala: "Euskadi es una nación asentada sobre un territorio que como mínimo incluye a Alava, Guipúzcoa, Labourd, Navarra, Soule y Vizcaya y con una lengua nacional: el euskera"²³³.

ETAREN kontakizun nazionalaren beste oinarritzko ezaugarria Espainiaren irudi orientalizatua zen. Ikuspegi horrek uztartu ezinezko bihurtzen zituen euskal nazio zibilizatu-Mendebaldekoa eta Espainia. Aipatu 1960ko dokumentuan, ETAK modu dikotomikoan aztertzen zituen euskalduntasuna eta espainiartasuna, Espainiaren irudi estereotipo orientalizatua erreproduzitzen. ETAREN kontakizun nazionalan "Euskadi, 1839 arte, demokraziaren araura bizi izan da" eta, gainera, "bere esku izan zan urteetan jasamen edo tolerantziagatik ezagutu zan Euskadi"²³⁴. Euskal nazioa "erri zabala eta aurrerakoia" bezala definitzen zuen eta honakoa nabarmentzen zuen: "Europa'ko gañerakoan bezelaxe, erria eraberritu du industrietan"²³⁵. Aitzitik, Espainia "erri geldizale eta atzerakoia" litzateke eta bertan "Afrika'ko gañerakoia bezelaxe, industrietan asieran dago oraindik"²³⁶. ETAK Espainiari buruzko Legenda Beltza ere bere egiten zuen eta azpimarratzen zuenez, "Españi'n aspaldi ezker alkargainka bezela datoz erlijioa eta politika, zearo nasturik"²³⁷. Gainera, ziurtatzen zuenez, "jauntxokeria [feudalismoa] tinko dago Españi'n (...) gizarte-mallen arteko tartea txit handia da"²³⁸. Gainera, ETAK baieztatzen zuenez, "España errotik da nagusikeri eta inperialismoari emana" eta espainiar sistema politiko ohikoa "diktadura eta nagusikeria dira"²³⁹.

Horrenbestez, ETAREN euskal kontakizun nazionalak euskaraz hitz egiten zuen euskal nazio demokratikoa aurkezten zuen eta diktadura frankistari erabat lotutako Espainiaren irudi orientalizatua aurkakotzen zion. Beste alde batetik, euskaltasun idealaren garapena

²³² Egin, «Herri Batasuna de Navarra denuncia el Decreto de Bilingüismo», *Egin*, 1979ko maiatzaren 2a.

²³³ Egin, «El día 17 se constituirá en Pamplona el Euskal Herriko Batzarre Nazionala», *Egin*, 1979ko ekainaren 9a.

²³⁴ ETA, «Zutik! (Caracas) 32..., 440.

²³⁵ *Ibid.*

²³⁶ *Ibid.*

²³⁷ *Ibid.*, 441.

²³⁸ *Ibid.*

²³⁹ *Ibid.*, 440.

orduko erreferentzia intelektual ezkertiarren eraginpean egin zen. Intelektual ezkertiar berberak erabili zituzten hizkuntzalari gazteek 1960ko hamarkadan zehar euskara estandarraren berritzea defendatzeko. Kontuan hartu beharra dago ETAREN lehen urteetako bi ideologo garrantzitsuk pertsonalki parte hartu zutela aipatu eztabaida linguistikoan: Federico Krutwigek —1952an erbesteratua— eta José Luis Álvarez *Txillardegik* (1929-2012). ETAK imajinatutako euskal herri demokratiko eta euskalduna filosofia existentzialistak eta European eta Espainian disidentzia ezkertiarren artean modan zeuden autoreek eraginda zegoen: Miguel Unamuno (1864-1936), Max Horkheimer (1895-1973), Herbert Marcuse (1898-1979), Jean-Paul Sartre (1905-1980), Simone de Beauvoir (1908-1986), Simone Weill (1909-1943) eta Albert Camus (1913-1960). ETAREN ikuspegiak eztabaida filosofiko eta ideologiko bizia eragin zuten, zati handi batean elizaren babespeko argitalpenetan garatu zena, hala nola Donostiako kaputxinoen *Zeruko Argia* (1954) eta Arantzazuko frantziskotarren *Yakin* (1956)²⁴⁰.

Gabriel Arestiren (1933-1975) eragina ere nabaria zen. Bere lana nobela sozialarekin eta Espainiako 1950eko belaunaldiko idazleekin lot dezakegu (Gabriel Celaya, Blas de Otero, Ignacio Aldecoa...) ²⁴¹. Aresti EAJko gaztelania hiztun familia batean jaio zen eta denborarekin familiaren ideologiatik aldendu eta komunismora hurbildu zen. EAJ ideologia burgesiarekin lotu zuen eta horrenbestez, alderdia langileriaren sozialismoaren aurkako bezala hartu zuen. Arestirentzat benetako euskaldunak langile eta laborari euskal hiztunak ziren eta ez gazteleraz hitz egiten zuten EAJko buruzagi burgesak. Aresti bera ETAREN ikuspegiaren aurka eta euskara langile familia gaztelau eta galegoetako seme-alabei erakustearren kontra agertu zen. Baina bere obran egindako euskaldunen idealizazio sozialistak eta burgesiari eginiko kritikek lotura zuzenak zituzten ETAREN kontakizun nazional sozialistarekin eta euskal nazionalismo ezkertiarrentzat berebiziko erreferentzia literario garrantzitsua bihurtu zen Aresti²⁴².

Eragin haien bitartez, ETAK euskalduntasunaren irudi primitibista egokitu zuen, ordura arte ikuspegi kontserbadoreari lotua egon baitzen, eta 1950eko eta 1960ko hamarkadetako borroka antikolonialkin erlazionatu zuen. Euskalduntasuna

²⁴⁰ Joxe Azurmendi, *Oraingo gazte eroak. Gogoetak ETAREN sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz* (Irun: Luma Liburuak, 1998); Cameron Watson, *Nationalism and Political Violence: The Ideological and Intellectual Origins of ETA* (Reno: University of Nevada, 2007).

²⁴¹ Felipe Juaristi, «Generación perdida», *El País*, 10 de mayo de 2005.

²⁴² Azurmendi, «56ko belaunaldiko pentsamendua...», 16-27; Idoia Estornés Zubizarreta, *Cuando Marx visitó Loyola. ELA-STV, un sindicato vasco durante el periodo franquista* (Donostia: Erein, 2017), 100-113.

subalternitateari eta frankismoari erabateko oposizioari lotzen zion diskurtso modernizatzaile eta dialektikoa garatu zuen ETAk. 1962 eta 1964 artean, etorkizun utopiko sozialista azpimarratu zen ETAREN ideologian, eta euskaldunen iraganeko nazioak elkartasunari lotuta izan omen zuen izaerarekin lotzen zuen²⁴³.

1960ko hamarkadaren erdialdean finkatu zen kontakizunaren arabera, ETARI zegokion euskal herriaren lidergoa hartzea, frankismoaren kateetatik askatzeko eta nazio independente, sozialista eta euskalduna berrezartzeko, Txiprerren, Israelen, Tunisiaren, Irlandaren, Malasiaren eta Aljeriaren eredu antikolonial armatua jarraituz²⁴⁴. Herri Batasunaren lehen hauteskunde kanpainak, 1979ko otsailean, bere propagandan "Independentzia eta Sozialismoa" lema ezarri zuen, zuzenean lotuz bere hautagaitza ETAK formulatutako kontakizun nazionalarekin²⁴⁵. Gainera, lotura pertsonal zuzen bat zegoen ETAK lehen urteetan garatutako ideologiaren eta Herri Batasunaren artean, kanpaina hartan *Txillardegi* hautagaitzaren ohiko hizlarietako bat bihurtu baitzen²⁴⁶.

Laburbilduz, frankismoko hegemoniak euskal metakontakizun nazionalaren bertsio berri batera eraman zuen dinamika eragin zuen, euskara euskal nazioaren sinbolo nagusi bezala ezarri zelarik. Euskarari emandako garrantzia zela eta, EAJri atxikita ez zeuden sektoreek nazioaren izena bera aldatu zuten. Jada ez zen izango Euzkadi, euzkotarren lurra, baizik eta Euskadi (esez), euskararen lurraldea. Horri lotuta, ETAK eta bere inguruak Euskaltzaindiak 1960ko hamarkadaren erdialdean egindako euskara batuaren proposamena bere egin zuten. EAJk akademian ETAREN aldeko jarrera ikusi zuen, euskara batuaren proposamena baztertu zuen eta Euzkadi izena ere mantendu zuen²⁴⁷. ETAK, aldiz, araudi ortografiko berrira egokitu zuen taldearen izena ere. Lehenik Askatasuna, 1966ko uztailetik aurrera beti esez idatziko zutena eta, ondoren, 1967ko apiriletik, Euskadi. Horrela, orduz geroztik Euskadi Ta Askatasuna izango zen²⁴⁸.

²⁴³ Jáuregui Bereciartu, *Ideología y estrategia política...* 184-96.

²⁴⁴ José María Garmendia, *Historia de ETA* (Donostia: Haranburu, 1996), 142-77.

²⁴⁵ Herri Batasuna, «Estatuto tras las municipales. Independentzia eta Sozialismoa», *Egin*, 1979ko otsailaren 8a.

²⁴⁶ Egin, «Más de doce mil asistentes a los mítines de la margen izquierda», *Egin*, 1979ko otsailaren 20a.

²⁴⁷ Joseba Zuazo, *Euskara batua. Ezina ekinez egina* (Donostia: Elkar, 2005), 143-68.

²⁴⁸ ETA, «Zutik! Boletín de Noticias de Euzkadi Ta Askatasuna E.T.A.», hemen: *Documentos Y*, ed. Joseba Ereño et al. (Donostia: Lur, 1979), IV. blo., 347; ETA, «Zutik! 46», hemen: *Documentos Y*, ed. Joseba Ereño et al. (Donostia: Lur, 1979), VII. bol., 158.

2.1 irudia. Txillardegi bertaratutakoei hitz egiten Anoetako belodromoan, Herri Batasunaren espainiar parlamenturako kanpainan (1979)



Iturria: Kutxateka.

Bestalde, ETAk euskarari eman zion garrantziak Ipar Euskal Herriko abertzaletasunarekin harremanak ezartzea eragin zuen. Iparraldean erbesteratu ziren ETako lehen kideek nazioaren izaera berri bat bere egin zuten, Enbatan (1961) bildu ziren bertako euskal nazionalista gazteen eskutik. Horiek nazioaren ikuspegi boluntarista eta integratzailea zuten, frantses eredutik hartua eta gainera, erretorika antikolonialista indartsua erabiltzen zuten, Aljeriako gerrarekin batera hedatua zena Frantzian. Laster ezarri zen joan-etorriko harreman bat ETaren eta Enbatako gazteen artean eta harreman horren bitartez, euskara eta euskal nazioko kide izateko nahia azpimarratu ziren nazioaren oinarri bezala, euskal nazioa Espainiaren eta Frantziaren kolonia bezala definitzeaz gain²⁴⁹.

Enbatak Hegoalde industrializatuarekin batasuna aldarrikatzen zuen, euskal nazioa modernizazioaren sinbolo bezala hartuta eta aldi berean turisten interesi egokitutako Ipar Euskal Herri fosilizatu eta folkloriko baten iruditegitik urrunduz. Euskal departamentu baten aldarrikapenak eta eredu politiko federala bere egiteak Frantses Iraultzaren fase girondinoko imajinarioa berreskuratzen zuen eta gainera berriki

²⁴⁹ Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...*, 301-12; James E. Jacob, *Hills of Conflict. Basque Nationalism in France* (Reno: University of Nevada Press, 1994), 139-42.

fundatutako Europar Erkidego Ekonomikoarekin (1958) lotzen zuten euskal nazionalismoa. Ipar Euskal Herrian zenbait sektore ezkertiar ETArengana hurbildu ziren, garai bateko elkartasun antifaxista eta 1936ko gerrako errefuxiatuen memoria berreskuratuz. Horrek, aldi berean, lehen unetik ahalbidetu zuen tokiko euskal abertzaletasun ezkertiar baten ideia. Baina bertako sektore kontserbadoreek euskalduntasuna komunismoarekin, erradikalekin eta anarkistekin lotu izana salatu zuten. Baita Espainiaren barne arazoetan muturrak sartu izana ere, tokiko gazte abertzaleak 'espagnoleak' bezala erdeinatu²⁵⁰.

Hego Euskal Herriari zegokionez, euskal hiztunak gizartearen zati bat besterik ez ziren, are gehiago 1950eko hamarkadatik aurrera, industrializazioaren sakontzearekin batera Espainiako beste eremu batzuetako milaka langile iritsi baitziren. Pentsa dezakegu euskarak hartutako esanahi politiko berriak, frankismoaren erabateko aurkakotasun bezala eta euskalduntasunaren irudi kontserbadorearekin apurtuz, Herri Batasunak etorkizuneko hegemoniaren subjektu bezala hartuko duenaren parte zela. Baina 1960ko hamarkadaren hasieran, ETArekin kontakizun nazionalaren eragina talde intelektual txiki batera mugatzen zen. Hurrengo atalean azalduko dugu nola, ordutik aurrera, kontakizun hura gaztetasunari lotutako sentipen orokorraren parte bihurtu zen.

Euskalduntasuna, bitxikeriatik gazte erreboltera

Espainiar metakontakizun nazional kontserbadoreak ez zuen euskalduntasuna baztertu, lehenago azaldu dugun bezala, nahiz eta euskararen erabilera publikoaren aurkako neurriek asko indartu zuten euskara euskal nazionalisten jabetza eskusibo bezala. Espainiar metakontakizun nazional liberalak ez bezala, zeina Estatu eredu uniformatzaileari lotuagoa baitzegoen, espainiar kontserbadoreek maila sakonago batean txertatu zituzten eskualdeetako berezitasunak beraien Espainiaren zati bezala²⁵¹.

Euskalduntasunari zegokionez, frankismoak irudi atsegin eta positiboa erreproduzitu zuen, are eredugarria ere. Euskalduntasuna bilbotar oligarkiari lotuta zegoen, diktaduraren sostenguen gotorlekuetako bat zena, eta frankismoarentzat arduraren, seriotasunaren eta ohoragarritasunaren eredu²⁵². 1940ko eta 1950eko hamarkadetakoa Athleticen futbol garaipenak espainiar gizontasunaren eta euskal (hau da, espainiar)

²⁵⁰ Jacob, *Hills of Conflict...*, 141-49.

²⁵¹ Xosé Manuel Núñez Seixas, «El nacionalismo español regionalizado y la reinención de identidades territoriales, 1960-1977», *Historia del presente* 13 (2009): 55-70.

²⁵² Pedro José Chacón Delgado, *La identidad maketa* (San Sebastián: Hiria, 2006), 166.

arrazaren sinbolo bezala kontatu zituzten²⁵³. Euskalduntasunaren irudi folklorikoa ere, landa mundu ideal batean kokatua, oso ohikoa zen. 1950eko hamarkadan Pacho Dinamitaren komikiak argitaratu ziren, erreferentzia bezala Big Ben Bolten (1950) abenturak eta Paulino Uzkudun (1899-1985) boxeolari eta boluntario frankista zituena. 1963tik TBO aldizkarian Josechu el vascoren abenturak argitaratu ziren. Paisaia berde eta menditsuan bizi zen mutiko atsegina eta xaloa zen, Popeye marinelaren tokiko bertsioa bezala ezaugarritua. Antzeko estereotipo bat agertu zen garaiko bi izarren ondoan, Sara Montiel eta Joselito, Rafael Gilek zuzendu zituen bi filmetan. *La reina del Chantecler* (1962) eta *La nueva vida de Pedrito Andia* (1965). Tokiko mailan, oso ezagunak izan ziren Bilbon Chomin del Regato (Jesús Padros, 1918-2001) eta Donostian Pello Kirten (Agustín Zapiain, 1921-1997) pertsonaiak. Hiri modernora iristen zen baserritar xelebrea eta bihozbera islatzen zuten²⁵⁴.

Paco Martínez Soria aragoarrak zineman antzeztu zuen 'paleta' prototipoaren euskal bertsioak ziren azken bi horiek. Estereotipoa Pero Lazagak zuzendutako *La ciudad no es para mí* (1966) eta *Abuelo made in Spain* (1969) filmetan garatu zen, hala nola Marisol protagonista zuen *Ha llegado un ángel* (Luis Lucía Mingarro, 1961) filmean. Pelikula arrakastatsu horiek hiria moralik gabeko lizunkeriaren eta deserrotzearen eremu bezala irudikatzen zuten eta topiko kontserbadore eta patriarkalak azpimarratzen zituzten, landa eremu harmoniatu eta sano baten aurkakotzat hartzen baitziren²⁵⁵. Baina aldi berean, estereotipo horrek elkartasuna, zintzotasuna eta lanean saiatzearen baloreak sustatzen zituen eta, agian paradoxikoki, boomerang efektu bat eragin zuten, tokiko langile identitateak indartuta eta horiek elite frankisten moralik gabeko praktiken aurkako bezala ikusaraziz.

Bai EAJk eta bai ETAk proposatzen zuten euskalduntasunaren irudi idealizatua ez zen frankismo garaiko herritar kulturari arrotza zen zerbait. Eta horrek asko aldeztu zuen euskal nazionalisten diskurtsoak hedatzea. Galdetu beharrekoa zera da: nola monopolizatu zuen euskal nazionalismoak frankismoko herritar kulturaren presente zegoen estereotipo positibo hura, espainiar nazioarekiko lotura baztertuz?

²⁵³ Alejandro Quiroga Fernández de Soto, «Así también se hace patria. Fútbol y franquismo en Cataluña y el País Vasco (1939-1977)», *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea* 17 (2019): 270-305.

²⁵⁴ Fernando Molina Aparicio eta Antonio Míguez, «Boinas, zuecos y política. Rerruralización ideológica e identidades española, gallega y vasca en el franquismo y la transición», hemen: *Por surcos y calles. Movilización social e identidades en Galicia y País Vasco (1968-1980)*, ed. Daniel Lanero (Madrid: Catarata, 2012), 212-51.

²⁵⁵ Aintzane Rincón Díez, «Marisol y tío Agustín: Dos paletos en Madrid: un estudio del éxodo desarrollista a través del cine», *Ecléctica* 2 (2013): 90-101.

Lehenik eta behin, frankismoak garaiko gizartea interpelatzeko zein ahalmen zuen aztertu behar dugu. Zentzu horretan, diktadurak berak aurrebaldintzatu zuen egoera. Gerra garaitik, autoritateak banaketa ezarri zuten gerrako garaileen eta galtzaileen artean. Hiri eta herri guztietan frankismoak tokiko botere harremanak modu politizatuan ulertzea behartu zituen biztanleak. Alde batean frankistak leudeke, ezarritako estatuaren sare klientelarraren onurak zituzten familiak. Beste aldean, gainontzekoak. Euskal kasuan, azken horiek lirateke 1930ko hamarkadan euskal nazionalismoarekin edo espainiar ezkerrekin identifikatutako familiak eta, horrenbestez, galtzailearen estigma zuen populazioaren zatia nahikoa esanguratsua zen. Frankistentzat garaileen eta galtzaileen arteko banaketak konnotazio moral garrantzitsua bazuen, modu berean gertatzen zen kontrako zentzuan. Galtzaileentzat, frankistak kazike eta arribista talde diruzale bat ziren eta, bitartean, gainontzeko herritarrek kolektibo bat osatzen zuten: lanak, zintzotasunak eta berdintasunak ezaugarritutako herria²⁵⁶.

Horrek ez du esan nahi populazioaren gehiengoa antifrankista zenik, autoritateekiko jarrearen artean sorta zabal bat baitzegoen sostengu esplizitutik disidentzia aktibora zihoana, konformismotik, disimulutik eta apatiatik igaroz. Familia langile eta laborari gehienek erregimen frankistan zuten rol subordinatua onartu zuten, gizartea askeagoa eta berdintasunezkoagoa bihurtzeko esperantzak alde batera utzita, eta orokorrean moderazioaren eta beldurraren arteko sentipen bat barneratu zuten²⁵⁷. Halere, jende askok bazuen mirespen ezkutu bat, errepresioaz gaindi ekinbide politikoa mantentzen zutenekiko. Agian porrotera kondenatutako idealista huts bezala hartzen zituzten, baina azken batean, beren talde sozial bereko kideak ziren disidente horiek. Frankismoaren botereguneetatik at zegoen talde soziala: herria²⁵⁸.

Elkarrizketatu ditugun pertsonen artean gehiengoak, Trantsizio garaian Herri Batasunarekin identifikatu zirenak guztiak, beren testigantzetan frankismoaren errepresioaren inguruko familiako memoriak txertatzen dituzte eta beren familia gerrako galtzaileen artean ezartzen dute. Mari Marrek, Herri Batasuneko boz-emailea Donostian, honakoa kontatzen du bere aitari buruz: "estuvo en la cárcel hasta después

²⁵⁶ Marianne Heiberg, «Inside the Moral Community: Politics in a Basque Village», hemen: *Basque Politics: a Case Study in Ethnic Nationalism*, ed. William A. Douglass (Reno: University of Nevada, 1985), 285-307; Zulaika, *Basque Violence. Metaphor...*, 88.

²⁵⁷ Claudio Hernández Burgos eta Carlos Fuertes Muñoz, «Conviviendo con la dictadura. La evolución de las actitudes sociales durante el franquismo (1936-1975)», *Historia Social* 81 (2015): 49-65.

²⁵⁸ Antonio Cazorla Sánchez, *Fear and Progress. Ordinary Lives in Franco's Spain, 1939-1975* (Oxford: Wiley-Blackwell, 2010), 33-34.

de acabar la guerra. Y entonces, pues eso, pasaron unos años muy, muy duros"²⁵⁹. Felix Soto (Bilbo, 1937) Donostian Herri Batasuneko alkategai izan zen eta azaltzen du bera bizkaitar hiriburuan jaio zela bere familiak Donostiatik ihes egin zuelako tropa matxinatuak bertara iritsi aurretik. Ez ditu bere gurasoak kultura politiko zehatz bati atxikitzen baina gogoratzen du bazuela familiako bat, "el que fusilaron, que debía de ser anarquista. Que fusilaron porque ése no se fue". Beranduago kontatzen du nola bere aita euskal gobernu autonomoak gerrarako mobilizatu zuen eta ondoren Santoñan preso egon zela, bere ama hurrekin Donostiara itzuli zen bitartean. Une horretan gerrako galtzaileen bizimodua adierazten du, bere senarraren berririk ez zuen auzokide baten istorioa kontatuta: "mi madre y las otras se enteraron y tal ¿no?, Debe ser que recibieron la carta y que decía: —Quico ha muerto como Fulanito, de la misma enfermedad que Fulanito—. Que ya se habían enterado que a Fulanito le habían fusilado"²⁶⁰.

Lucía (Gasteiz, 1950) Alde Zaharreko gasteiztar familia batean hazi zen eta familiari erreferentzia egiten dio bere kontakizuna abiatzeko: "yo vengo de una familia trabajadora. Sobre todo eran... mi abuelo y la familia de mi madre eran anarquistas"²⁶¹. Eta datu horri berebiziko garrantzia ematen dio, bere identitate politikoa egituratzeko orduan:

mi abuelo tenía, como buen anarquista, tenía la idea de que... bueno, mi abuelo estuvo bastante tiempo en la cárcel, salió tuberculoso y se murió. Yo le conocí de pequeña, pero él sí que dejó en la familia la impronta de que la educación era básica para hacer frente al sistema²⁶².

Lehenago aipatu dugun Garbiñek bere aitaren memoriak kontatu zizkigun, hura CNTko militantea izan baitzen Zeutan: "cuando hubo el levantamiento, en mi casa había pistolas para defenderse". Eta gerrari buruzko familiaren memoria traumatikoa gehitzen du, honakoa azalduz: "a mis primas las fusilan, la familia de mi aita, un desastre"²⁶³. Iñaki Ruiz de Pinedo (Gasteiz, 1954) Herri Batasuneko buruzagia izan zen 1980ko hamarkadan eta Gasteizko klase ertaineko familia batean du jatorria. Berak ere oinordekotza anarkista aldarrikatzen du bere bizi istorioaren hasieratik: "nere familian beti politikako asuntoa... Nere aita ez zen oso militante, baina bueno, nire osaba

²⁵⁹ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/16).

²⁶⁰ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/07).

²⁶¹ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/30).

²⁶² Autorearekin elkarrizketa (2017/10/30).

²⁶³ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/19).

adibidez, zegoen errefuxiatua Venezuelan. Hortik tradizinoa familian zen anarkista"²⁶⁴. Patxi Zabaleta (Leitza, 1947) ere Herri Batasuneko buruzagia izan zen eta Iruñeko udaletxeko alkategai. Antzeko kasu bat kontatu zigun, baina beste kultura politiko bati lotuta: "gure familia ez zen PNVko militanziakoa, baina abertzalea. Euskaltzalea, bai. Osabaren bat banuen apaiza. Ibili zen... jazarpenen bat izandu zuen eta joan zen Venezuelara"²⁶⁵.

Beste kasu batzuetan ez da aipatzen familian tradizio politikorik eta familiak estatu kolpearen aurkakoak izan ez zirela ondoriozta daitekeen kasuetan, ondorengo anekdotaren bat azpimarratzen dute elkarrizketatuek, nolabaiteko disidentzia goiztiarra aldarrikatuz. Alfredo (1932an jaioa) Herri Batasuneko boto emailea da eta Nafarroako herri ertain batean jaioa izanik, Iruñeko zabalguneko berriko kalitatezko etxebizitza bat erosi zuen. Berak 1966ko Estatuko Lege Organikoari buruzko erreferendumean aurka bozkatu zuela kontatzen du. Horrelako keinu disidente bat oso arriskutsua bailitzan sentitzen zen testuinguruaren adierazgarri, Alfredok esaten duenean beste bi pertsonak ere herrian aurka bozkatu zutela, bere emazteak moztu egiten du: "no digas". Horrela jarraitzen du Alfredok: "los dos están muertos. No le he contado a nadie nunca eso. O sea, que fijate cómo pensaba la gente"²⁶⁶.

Beste adibide bat Jesús María Alegríaren testigantzan daukagu, berak kontatzen baitigu: "mi padre, pues estuvo en la guerra de gudari. Y por eso estuvo en la cárcel". Eta horri gehitzen dio: "yo tenía un abuelo, que no conocí, que era republicano". Gogoratzen du nola bere lehen ekintza politikoa 1964ean burutu zuen. Ordukoan udaletxearen bando batek herriko falangistak Francoren XXV Bake Urteen ospakizunetan parte hartzeko deitu zituen eta berak 'Viva la República' idatzi zuen gainean²⁶⁷.

Horrenbestez, Hego Euskal Herrian asko izan ziren gerran bando antifaxistaren porrotak estigmatizatu zituen familiak. Eta familia horietako asko, Espainian orokorrean gertatu zen bezala, ez ziren inoiz frankismoarekin identifikatu, nahiz eta horregatik ez zuten zertan posizio politiko bat hartu edo are etxean ere ez zuten zertan politikari buruz hitz egin. Gure ikerketan jaso dugun ahozko historiaren arabera, ondoriozta daiteke familia horietako seme-alabak izan zirela gehienbat Herri Batasunarekin identifikatu zirenak

²⁶⁴ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/17)

²⁶⁵ Autorearekin elkarrizketa (2017/12/04).

²⁶⁶ Autorearekin elkarrizketa (2017/12/07).

²⁶⁷ Autorearekin elkarrizketa (2017/11/07).

Trantsizio garaian. Frankista diruzale eta mendekatien aurkako herri langile eta solidario baten baloreek, frankismoarekin identifikatzen ez ziren familia askorentzat erakargarri egiten zuten ETArekin kontakizun nazionala.

Antifrankismo aktiborako pausua belaunaldi-fenomeno bat izan zen eta, euskal kasuan, bi faktorek baldintzatu zuten: militantzia katoliko sozialak eta euskal kantagintza berriak. Eliza katolikoak presentzia sozial handia izan zuen frankismo garaian, bai matxinatuei lehen unetik emandako sostenguarengatik, bai erregimenak Eliza Espainiaren birkatolizaziorako beharrezko tresna bezala zekusalako. Elizak elkarten sare zabal bat eratu zuen alor sozial guztiak ebanjelizatze helburuarekin, familiarik hasita lantokiraino, aisialditik igaroz. Arduratu egin zen gazteengana iristeko eta bereziki gazte langileengana, Hermandad Obrera de Acción Católica (HOAC) eta Juventud Obrera Católica (JOC) erakundeekin bitartez, bai eta Juventud de Acción Rural Católica (JARC) delakoekin ere, eremu euskaldunean 1959an Baserri Gaztedi izenarekin sortu zena²⁶⁸.

Elkarte katolikoaren sareak injustizia sozialaren aurkako kritika morala transmititzen zuen eta, era inplizituan, zalantzan jartzen zuen frankismoa bezalako erregimen argiki klasista baten zilegitasuna. Mezu kritiko hura mezetan ere erreproduzitzen zen, Frantzia eta Belgikako apaiz langileen eredu jarraitzen zuten apaizen bidez. Tasio Erkizia (Leitza, 1943) Bilboko alkategai izan zen Herri Batasunetik 1983an. Bere memoriatan kontatzen du bere ekinbide politikoa 1961ean hasi zela, seminarioko ikaslea zenean Oñati JOCekeko talde batean parte hartzen hasi zelarik. Aurrerago kontatzen duenez, 1966an auzo txiroetan ekiteko gazte talde bat antolatu zuen, apaiz langileen istorioak irakurri ostean *Temóignage Chrétien* aldizkarian. Horrez gain, kontatzen du nola bere ikaskide nagusiagoek *Erein* agerkaria sortu zuten eta nola horren bitartez euskaraz alfabetatu zen, ekintza katoliko soziala eta aurreko atalean azaldu dugun euskararen berrikuntza lotuz²⁶⁹.

Laster hartu zuen kutsu euskaltzalea ekintza katolikoak Hego Euskal Herrian, bai zenbait apaiz abertzale zeudelako, bai familia abertzaleetako seme-alabek parte hartzen zutelako mugimenduan. Talde horien ekintzak Elizaren autoritateekiko gero eta modu autonomoagoan garatu ziren eta denbora laburrean espazio berriak sortu zituzten.

²⁶⁸ Lamikiz Jauregi, «El problema del ocio...

²⁶⁹ Tasio Erkizia, *Bizipenak eta hausnarketak* (Tafalla: Txalaparta, 2016), 32-37.

Bertan, euskal kluxe folklorikoak erreproduzitzen ziren: dantzak, janzerak, kantak eta poesia. Nahiz eta frankismoak baimendu, erraz uler zitezkeen keinu antifrankista bezala²⁷⁰. Adibidez 1965ean, Gatican (Bizkaia) ospatzekoak zituzten ekitaldiak bertan behera utzi zituzten Baserri Gaztediko antolatzaileek, autoritateek exijitu baitzieten ekitaldietan bandera frankista ofiziala haizatzea²⁷¹. Ekintza katolikoaren politizazioa ez zen frankismoaren pean bakarrik gertatu, izan ere, Baionako apezpikuak eskualdeko *Mouvement Jeunesse Rural Chrétienne* desegin zuen, politizatu egin zela iritzita²⁷².

Paradoxikoki, erregimen frankistak aldeztutako erakunde katolikoek zubi lana egin zuten diskurtso ezkertiar eta antifrankista hedatzeko eta baita ekinbide sindikalera eta erakunde klandestinoetara jauzia emateko. Gizartea birkatolizatzeko tresna bezala funtzionatu beharrean, ekintza katolikoak langile gazteen belaunaldi oso bat kapitalismoarekin kritikoa zen diskurtso batean hezi zuen eta gazte horietako asko oposizio antifrankistara igaro ziren. Eremu euskaldunean, hainbatek pozarren jaso zuen euskal herri euskaldun eta demokratiko bati buruzko eta etorkizun sozialista bati buruzko ETAREN mezu politikoa²⁷³.

ETAREN mezuari atxikimendua batez ere belaunaldi-elementu bat izan zen. Horrela bizi izan zuten baita erbesteko EAJko buruzagiek, ETARI kluxe antikomunistez betetako hizkera paternalista eta kontserbadore batekin erantzun baitzieten. Honela hitz egiten zuen Manuel Irujok (1891-1981), gerrako garaian Errepublikako gobernuko kide izan zen EAJko kideak, Pariseko erbestetik: "[ETA es] el instrumento que el *gauchismo* internacional utiliza para apoyar al partido de la revolución en Euzkadi" eta bere helburua litzateke "nutrir a ese movimiento universal que es el *gauchismo*, con marxistas, anarquistas, trotskistas, nihilistas, invertidos, chorizos, gorilas, hombres de mano, argelinos, licenciados de presidio *ejusden furfuris*"²⁷⁴.

1960ko hamarkadan zehar, euskal estereotipoa frankismoaren tokiko adierazpen izatetik erabat antifrankista, gaztea eta aktibismo sozialari lotuta agertzera igaro zen. Egindako

²⁷⁰ Lamikiz Jauregiando, «El problema del ocio...», 89-90; Pérez-Agote, *La reproducción...*, 105-6.

²⁷¹ Angel Zelaia Gisasola, «ETA euskal apaizei so (I/II)», *Euskonews* 698 (2015).

²⁷² Jacob, *Hills of Conflict...*, 138.

²⁷³ Enrique Berzal de la Rosa, «Clérigos y fieles ante el franquismo: la evolución de las actitudes políticas de los católicos durante el franquismo», hemen: *No solo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista (1936-1977)*2, ed. Miguel Ángel del Arco Blanco et al. (Granada: Comares, 2013), 177-94; Leire Ibarguren, *Laura esaten zioten. Miren Odriozolaren borroak* (Tafalla: Txalaparta & Emagin, 2016), 83, 146; Zulaika, *Basque Violence. Metaphor...*, 40-60; Idoia Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo pasarnos esto. Crónica de una chica de los 60* (Donostia: Erein, 2013), 306-8.

²⁷⁴ José Félix Azurmendi, *PNV ETA. Crónica oculta (1960-1979)* (Donostia: Tartalo, 2012), 143-44.

elkarrizketetan, zenbait pertsonak adierazten dute testuinguru folklorikoa beren aktibista garaiaren hasiera izan zela. Iñaki Ruiz de Pinedok horrela kontatzen du: "ni lehenengo, hamalau urtekin, ba ni nengoen ambiente kultural euskaldunan. Hori, ba txistularia nintzen dantza taldeetan"²⁷⁵. Testigantzek mugimendu euskaltzalea frankismoaren pean zerbait aldatzen ari zenaren froga bezala gogoratzen dute, Alfredok adierazten duen gisan: "aquí en Navarra no había movimientos [antifranquistas]. Y entonces comenzó a gestarse el movimiento euskaldun"²⁷⁶.

Testuinguru horretan, euskal kantagintza berria izan zen euskal estereotipoa sendotu eta kohesionatu zuen elementua. Izan ere, gainontzeko mendebaldeko gizarteetan bezala, Espainian ere XX. mendearen bigarren erdian musika gazte kulturaren oinarriko elementu bihurtu zen. Mari Marrekin egindako elkarrizketan, Herri Batasuneko boto emaile horrek Anoetako belodromoan euskal kantagintza berriko zenbait abeslari bildu zituen kontzertu bat gogoratzen du 1975 inguruan, eta zuzenean lotzen du Herri Batasunarekiko atxikimenduarekin. Gogoratzen du "un festival de esos que te levantan del asiento", eta belodromoa mukurua betea. "Y, fue, pues clamoroso. Un ansia de libertad... Es así, y realmente emocionante. Emocionante". Eta jarraian gehitzen du: "Y siempre he vivido pues esa experiencia. [Con] contradicciones, pero siempre he votado Herri Batasuna"²⁷⁷. Agerikoa da zer nolako harremana ezartzen duen euskal kantagintza berriaren esanahiaren eta bere identitate politikoaren artean.

Euskal kantagintza berriaren jatorria Bilbon koka daiteke. Behin gerrako galtzaileen aurkako errepresio gordinenaren garaia pasata, zenbait erbesteratu Espainiara itzuli ziren 1950eko hamarkadan. Horien artean zen Manuel Robles-Arangiz (1884-1982), Errepublikaren EAJko parlamentaria eta Eusko Langillien Alkartasuna (ELA) sindikatuko buruzagia izan zena. 1952an itzuli zen Bilbora bere emazte Luisa Bernaolarekin eta hamaika seme-alabekin batera. Bikotearen semeek Soroak taldea sortu zuten. Beraien emanaldietan modako kanten euskarazko bertsiok abesten zituzten eta baita zenbait kanta tradizional ere. Azken horiei garaian ezagunak ziren boleroetako, folk musikako eta AEBtako nerabeen musikako elementuak gehitu zizkieten. 1960an Arboti-Zohotan (Behe Nafarroa) abestu zuten, Eskualtzaleen Biltzarrak antolatutako ekitaldi batean. Eskualtzaleen Biltzarra 1902an sortu zen, XIX. mendearen azken zatiko

²⁷⁵ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/17).

²⁷⁶ Autorearekin elkarrizketa (2017/12/07).

²⁷⁷ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/16).

euskal pizkundearen olatuaren baitan, eta mugaren bi aldeetako pertsona ezagunek eta intelektualek parte hartzen zuten erakundean²⁷⁸.

Soroakeko mutil gazteek tokiko notablea zen Michel Labéguerieren (1921-1980) interesa piztu zuten Behe Nafarroako ekitaldi hartan. Labéguerie geroago Enbataren sortzaileetako bat izan zen eta Soroak taldearen eraginez gitarra harturik bi EP grabatu zituen 1961ean eta 1963an, mezu abertzale argi batekin. Grabazioen artean egon zen laster belaunaldi-ereserki bihurtuko zena: "gu gira Euzkadiko gaztedi berria / Euzkadi bakarra da gure aberria"²⁷⁹. Denbora laburrean bere kantek muga pasa zuten. 1963an, adibidez, Derioko seminarioko ikasle bat zigortua izan zen, multikopista batean Labéguerieren hitzak kopiazen ari zela jakin zutenean²⁸⁰.

XIX. mendearen bigarren erdian gertatu bezala, mugaz gaindiko harremanak euskarazko kulturaren loraldi berri baten oinarrian egon ziren. 1950eko hamarkadatik tokiko autoritateen babespean zenbait ekitaldi antolatzen ari ziren Hego Euskal Herrian. Gabonak eta beste ospakizun erlijioso batzuk aitzakiatzat hartuta, musika folklorikoko eta euskarazko kanten txapelketak antolatu ziren. Nahiko goiz, zenbait kantautore gazte batu ziren ekitaldi horietara, euskaraz abesten zutenak folkaren modan eta hitz konprometituekin. Horien artean zeuden Mikel Laboa (1934-2008), Lourdes Iriondo (1937-2005), Benito Lertxundi (Orio, 1942) eta Maite Idirin (Ugao, 1943).

Lehenago Euskaltzaindiarekin gertatu bezala, autoritate frankistek tokiko folkloreakiko zuten permisibitateak haizatu egin zuen autoritateen kontroletik ihes egiten zuen mugimendu kultural bat, hain zuzen ere mugaz gaindiko harremanak ezartzen zituena eta euskalduntasuna antifrankista eta euskal nazionalismoari hurbileko bezala ulertzen zuen espazio soziokultural bat. Izan ere, prozesu hura modu aktiboan bultzatu zuten garaiko elkarte kulturalen sarean zuzenean parte hartzen zuten EAJko eta ETAko kideek. Nahiz eta autoritateek bazekiten hori, zentsuraren mekanismoak ez ziren oztopo nahikoa izan, zentsoreei hitz batzuk ematen baitzizkieten alde aurretik, ondoren

²⁷⁸ Joxemari Iriondo, «Euskal musika giroa 1960ko hamarkadan», *Jakin* 200 (2014): 77-94; Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...*, 193.

²⁷⁹ Michel Labéguerie, «Labéguerie' ren Lau Kanta» (Goiztiri, 1963).

²⁸⁰ Zelaieta Gisasola, «ETA euskal apaizei so...

beste kanta batzuk abesteko. Modu horretan, kantautore gazteen ekitaldiek izaera antifrankista are nabarmenagoa hartu zuten²⁸¹.

Euskal kantagintza berriak uztartu egiten zituen musika tradizionala eta abangoardiazko interpretazioa, Pete Seegerren, Joan Baezen, Bob Dylanen, Atahualpa Yupanquiren eta Violeta Parraren oihartzunak, txistua, dantza eta txalapartarekin²⁸². Oso azkar garatu zen industria diskografiko baten bultzadaz, euskal kantagintza berriak berebiziko garrantzia izan zuen euskalduntasunaren estereotipoa praktika antifrankistarekin eta euskal metakontakizun nazionalarekin lotzeko orduan. Horrela, identitate kolektibo berri baten funtsezko elementua izan zen: gaztea, euskalduna, modernoa, ezkertiarra eta nazioarteko kontrakulturari lotua. Funtsezko elementu politizatailea izan zen identitate euskaldun edota antifrankista euskal nazioari atxikitzeko. Gainera, ETak hizkuntzari lehentasunezko lekua eman izanagatik bere kontakizun nazionalan, mugimendu kulturalaren zati handia bere diskurtsoaren eta ekinbide politikoen eremura lerratzea lortu zuen²⁸³.

Mugimendu horren guztiaren baitan eredu estetiko zehatz bat garatu zen, ETaren kontakizun nazionalak eraginda zegoena eta euskal landa eremua berdintasunean eta demokrazian oinarritutako euskal herri batekin lotzen zuena. Eredu landatartu eta bukoliko hura, Néstor Basterrechea (1924-2014) eskultoreak eta Fernando Larrurquet (Irun, 1934) musikagileak zuzendu zuten Ama Lur (1968) filmak ezarri zuen, besteren artean²⁸⁴. Filma bera mugaz gaindiko harremanen beste adibide bat zen, zintan Gure Sor Lekua (1957) filmaren eragina nabaria baita. Nahiz eta audio pista galdua dagoen, Gure Sor Lekua euskaraz grabatutako lehen filma da. André Madré (1907-1971) jeneral gaullistak ekoitzi zuen armada frantsesaren azpiegitura erabilia eta bere helburua munduan zehar herriminez zeuden euskaldunen artean grabazioaren kopiak banatzea zen²⁸⁵. Euskal herri landatarra, euskal arima tradizionala, abangoardia estetikoaren parte ere bihurtu zen, Jorge Oteizaren (1908-2003) lanaren eta teorizazioaren bitartez.

²⁸¹ Ander Delgado eta Ekaitz Etxezarreta, «De los cantautores al Rock Radical. Una aproximación a la música popular y juventud en la vida política del País Vasco (1960-1990)», *Historia Contemporánea* 57 (2018): 377-412.

²⁸² Enrike Hurtado Mendieta, «Txalaparta y vanguardia. Ruido y música», *AusArt. Journal for Research in Art* 3 (2015): 58-68.


²⁸³ Amaia Lamikiz Jauregiondo, «From folklore to patriotic and protest songs: Music, youth, and Basque identity during the 1960s», *Nations and Nationalism* 25 (2019): 1280-1295.

²⁸⁴ Molina Aparicio eta Miguez, «Boinas, zuecos y política...»

²⁸⁵ Josu Martínez, *Gure (zinemaren) sor lekua. Euskerazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisisa* (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2015).

Herri Batasunak bai euskal kantagintza berriaren bai landa munduko imajinarioaren herentziak bere egin zituen. Adibidez, 1979an bere estatutu proposamena jendarteratzeko erabilitako karteletan txapela buruan txalaparta jotzen ageri zen gizon bat zen irudi nagusia. Bestalde, Herri Batasunaren lehen urteetako ekitaldietan ohikoa zen kantautoreen parte hartzea. Maite Idirin, Hibai Rekondo (Caracas, 1954) eta Lupe (Bermeo, 1960), esaterako, behin baino gehiago aritu ziren ekitaldi horietan²⁸⁶.

2.2 irudia. Estatutuaren onarpenaren aurkako kanpainako Herri Batasunaren ekitaldi nagusiko iragarkia (1979)



Iturria: *Egin*

Hau da, frankismo garaian, landa munduko imajinarioak esanahi berria hartu zuen. Euskalduntasunari lotua eta berez antifrankista balitz bezala ulertu zen, ETAk bere kontakizun nazionalen egiten zuen moduan. Gure buruari egin behar diogun galdera honakoa da. Nola bihurtu zen imajinario landatartu hura erreferente garrantzitsu, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan eraldaketa industrial handia bizi zuen Hego Euskal

²⁸⁶ Egin, «Considerable participación en los mítines de Vizcaya y Guipúzcoa sobre el referéndum», *Egin*, 1979ko urriaren 16a.

Herrian? Izan ere, 1960ko hamarkadan antifrankismoa inguru minoritario batzuetara mugatzen zen. Euskalduntasun antifrankista nekez izan zitekeen orduan etorkizuneko hegemonia bihurtuko zen subjektu politiko zabala. Aldaketa hura Espainian orokorrean eman zen industrializazio eta eraldaketa sozioekonomiko prozesuari lotuta azal daiteke.

Arketipo landatartua, langile klasearen abangoardia

Finantziario estatubatuarrari esker, agintari frankistek 1959ko Egonkortze Plana ezarri zuten. Horren ondorioz, hazkunde ekonomiko prozesu luzea eta ikusgarria gertatu zen. Atzerriko inbertsioa izugarri igo zen eta turismoak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen. Sektore eraldatzailearen garapena batez ere aurretik industrializatuta zeuden eskualdeetan gertatu zen, baina izaera industrial sakona hartzen joan ziren zonalde berrietara ere hedatu zen. Prozesu horretan zehar, zonalde industrialetarako landa exodoa gertatu zen eta espainiar populazioaren zati handiak bere jatorrizko herriak utzi zituen. 1960ko hamarkadan, Espainia jada erbesteko errepublikazaleek gogoratzen zutenaz oso bestelako herrialdea zen.

Aldaketa sozioekonomikoarekin batera, frankismoak zenbait erreforma sozial onartu zituen, Europako mendebaldeko ongizate estatuen imitazio oso mugatua eginez: gizarte-segurantza berrantolatu zen eta gutxieneko soldata ezarri zen. Azken finean, indize ekonomiko harrigarrien atzean langile familien sakrifizioak eta estutasunak egon ziren. Baina erregimenarentzat larritzekoa zena, eta gure argudiaketarako oso interesgarria dena, honakoa da: frankismoa ez zen gai langile klase berri hori guztia ordezkari-tza sistema ofizialean integratzeko. Praktikan, langileek lanorduei, soldatei eta hitzarmenei buruz zituzten aldarrikapenak langile batzorde (comisiones obreras) deiturikoen bitartez egin zituzten. Langile batzordeak ordezkari-tza eredu asanblearioa ziren eta militante katolikoen eta legez kanpoko erakunde ezkertiarretako kideen arteko lankidetzak sendotu zituen²⁸⁷.

Hazkunde ekonomikoak frankismoaren harrotasuna haizatu zuen eta 1960ko hamarkadaren erdialdean irekiera ideologikoko garai bat egon zen. Autoritateek ahalbidetu zuten liburu dendetara eta liburutegietara ordura arte Espainian imajina ezinak ziren autoreak iristea. Aldi berean, erregimena langile klasea bere alde lerratzen saiatu zen 1966-1967ko hauteskunde sindikalen bitartez. Langile batzordeek

²⁸⁷ Carme Molinero eta Pere Ysàs, *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España franquista* (Madrid: Siglo XXI de España, 1998), 151-64.

hautagaitzetan modu masiboan eta arrakastatsuan aurkeztuz erantzun zuten. Besteren artean, Jon Idigoras izan zen aukeratua, geroago Herri Batasuneko eledun izango zena eta orduan nobillero ezaguna eta militante katolikoa zena. Zornotzako Izar fabrikako bere lankideek aukeratu zuten ordezkari sindikal bezala. Bere memorietan ordezkari-tza sindikalean eman zuen garaitik azpimarratzen du ezagutu zituela "verdaderos compañeros y líderes obreros de izquierdas"²⁸⁸.

Enpresa ezberdinetako ordezkariak koordinatzeko beharrak langile batzordeei aldarrikapen politikoei lotutako izaera eman zien. Izan ere, adierazteko eta biltzeko askatasunak eskatu zituzten. Autoritateek azkar erantzun zuten, 1967an. Susmagarri zeritzeten ordezkari guztiak kargugabetu zituzten eta langile batzordeak legez kanpo ezarri zituzten. Soldadak bere horretan mantenduko zirela dekretatu zuten eta denboraldi batez hitzarmen berriak egitea debekatu zuten²⁸⁹.

Sindikalgintzarako oso garrantzitsuak izan ziren 1966-1967 urte horietan, Etxebarriko Laminaciones de Bandas en Frío enpresako langileen greba luzea gertatu zen. Bost hilabete iraun zuen greban hartan bai Elizako zenbait sektorek bai Bilboko Itsasadarreko langile familiek, grebalariekin elkartasun zabala adierazi zuten. Eta grebalarien aldeko mobilizazioek orduan gune industrial garrantzitsu bihurtzen ari ziren Gasteizen eta Iruñean ere lehen langile batzordeak agertzea eragin zuten. Autoritateen erantzuna salbuespen egoera ezartzea izan zen eta baita protestetan gehien nabarmendu ziren langileak beste probintzia batzuetara kanporatzea ere²⁹⁰.

Espainiako zonalde industrialetan, eta horien artean zeuden Bizkaia eta Gipuzkoa, 1960ko hamarkadan langile mugimendu garrantzitsua egituratu zen. Frankismoak porrot egin zuen langile mugimendua ordezkari-tza sistema ofizialean txertatzen saiatu zenean eta errepresioarekin erantzun zuen. Hego Euskal Herriko kasuan, gainera, ETaren kontakizun nazionalaren inguruan zebilen testuinguru kulturala eta ekintzailea ere bazegoen, aurreko atalean azaldu dugun bezala.

Une zehatz horretan, unibertsitateko bi ikasle gaztek, Javier Txabi Etxebarrietak (1944-1968) eta bere anaia José Antoniok (1940-1973), ETaren baitan subjektu historiko

²⁸⁸ Idigoras, *El hijo de Juanita...*, 158.

²⁸⁹ Domènech Sampere, *Clase obrera, antifranquismo...*, 326-30.

²⁹⁰ Joxerra Bustillo, «Represión franquista, luchas obreras y nuevos tiempos (1940-1990)», hemen: *Nuestro mayo rojo. Aproximación a la historia del movimiento obrero vasco (1789-1990)*, ed. Joxerra Bustillo Kastrexana eta Eugenio Etxebeste Arizkuren (Tafalla: Txalaparta, 2014), 506-28.

baten existentzia teorizatu zuten: Euskal Herri Langilea. Gazte izateari lotutako belaunaldi-bizipenen baitan, ETAk honela definitzen zuen Euskal Herri Langilea: "jauntxoek mendetza saretatik aldegin nai duen gizaldia, dirudun-jauntxoek eskeintzen zioten bizimoduari uko egin dion gizaldia"²⁹¹. Analisi marxista-leninista batek eraginda, ETAk azaltzen zuen subjektu berri hori ohartua zela "españiar inperialismo[ak]" eta "jauntxoek diktadurak dakartzkion alienazioaz"²⁹². ETarentzat, Euskal Herri Langilea espainiar identitatearen eta kapitalismoaren ukazioan oinarrituta zegoen eta bere kontakizun nazionalaren subjektu nagusia zen. Ezarritako sistemaren erabateko aurkakotasun bezala sortua, Euskal Herri Langilearen patua litzateke Euskal Herri independente, sozialista eta euskaldunaren utopia lortzea. Herri Batasunak subjektu zehatz horri egin zion erreferentzia bere lehen hauteskunde kanpainatik, boza eskatzeko orduan: "El Pueblo Trabajador Vasco vota Herri Batasuna"²⁹³.

ETAk bere kontakizun nazionalan egin zuen egokitze horrek frentepopulista deritzen kontakizun historikoen ezaugarriak ditu. Kontakizun historiko frentepopulistek *fin de siècle*ko mugimendu sozialisten eta ondorengo alderdi komunisten herentzia diskurtsiboa zuten. Subjektu historiko nagusi bezala langile klasea edota herria jartzen zuten eta ondorioztatzen zuten klase agintariek interes atzerritarrak zituztela, nazioaren aurkakoak. Kontakizun historiko ohikoa zen Espainiako eta Portugalgo diktaduretako giro klandestinoetan eta oposizioko alderdiei ahalbidetzen zieten izaera heterogeneoko subjektu bat, herria, diktadura sostengatzen zuen elitearen aurkako talde zabal eta homogeneoa bezala imajinatzea. Aldi berean, espainiar historialari gazteen artean gero eta ohikoagoa zen irakurketa politiko bat zen²⁹⁴.

Halere, Euskal Herri Langileari buruzko ETAREN analisisien testuinguruan erakundearen zatiketa gertatu zen. Batzuek interpretatu zutenaren arabera, Espainiako beste eskualde batzuetatik iritsitako migrazio handiak eta langile batzordeen indarrak eragin behar zuten ETAK euskal metakontakizun nazionala albo batera uztea eta bere lana langile

²⁹¹ ETA, «Euskal Erri-Langilea/Pueblo Trabajador Vasco», *Zutik!* 44 (1967).

²⁹² Ibid.

²⁹³ Herri Batasuna, «El Pueblo Trabajador Vasco vota Herri Batasuna», *Egin*, 1979ko otsailaren 20a.

²⁹⁴ Sergio Campos Matos eta David Mota Álvarez, «Portuguese and Spanish Historiographies: Distance and Proximity», en *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, 2008 (Palgrave Macmillan, 2011), 339-66; Gita Deneckere eta Thomas Welskopp, «The 'Nation' and 'Class': European National Master Narratives and Their Social 'Other'», hemen: *The Contested Nation. Ethnicity, Class, Religion and Gender in National Histories*, 2008 (Palgrave Macmillan, 2011), 135-70; Enric Ucelay da Cal, «La historiografía dels anys 60 i 70: marxisme, nacionalisme i mercat cultural català», hemen: *La historiografia catalana: balanç i perspectives*, ed. Joaquim Nadal (Girona: Cercle d'Estudis Històrics i Socials, 1990), 53-89.

mugimendua indartzera mugatzea. Interpretazio horren arabera, Espainia lehenago edo beranduago Europako mendebaldeko herrialde kapitalisten eredura hurbilduko zen eta ezinezkoa zen Euskal Herrian klasearteko subjektu iraultzaile bat artikulatzea. Militantziaren beste zati baten iritzia kontrakoa zen. Azken horiek ETA V. Biltzarra bezala ezagunak izan ziren —*ETA quinta* gazteleraz— eta uste zutenez, posible zen euskal independentzia eskuratuko zuen subjektu antifrankista eta iraultzaile bat gidatzea²⁹⁵. Horretarako, komunista vietnamdarren antolaketa eredia kopiatu zuten eta uztartu egin zituzten langile batzordeetan parte hartzea eta biolentziaren erabilera klandestino²⁹⁶. Geroago, Herri Batasuneko buruzagiek ETAREN defentsa garai hari erreferentzia eginez argudiatu zuten, Euskal Herri Langilea terminoa bere egin zueneko ETAREN nolabaiteko birfundazioari garrantzia emanaz: "la ETA de los años 80 es la que surgió de su V Asamblea (1966-67), por lo que en más de quince años se ha mantenido intacto en sus objetivos estratégicos de independencia y socialismo para Euskadi"²⁹⁷. Herri Batasuna bera, ETAREN V. Biltzarraren oinordekotzat aldarrikatzen zuten: "ETA-k bostgarren asanbladatik hasi zuen prozesua jarraitu besterik ez dugu egiten"²⁹⁸.

ETA V erakundearen ikuspegiak beste erakunde politiko baten eragin handia izan zuen, hain zuzen ere ETAKO beste sektorearen aurkako eztabaiden ondoren sostengatu baitzituzten. ETAKO beste sektoreak ETA Berri izena hartu zuen eta beranduago beste talde politiko batzuekin elkartu zen Movimiento Comunista de España (MCE) alderdia sortzeko. ETA V sostengatu zuen beste erakundea Barneko ELA zen. Horiek sindikatuaren erbesteko buruzagiekin eta EAJrekin loturak apurtu zituzten eta klasiko marxisten irakurketak eraginda, 1963an beren helburua demokrazia sozialista zela aldarrikatu zuten.

Barneko ELAK bi ideia giltzarri garatu zituen, geroago Herri Batasunaren kultura politikoak ere bere egin zituenak. Alde batetik, independentista ez zirenen alderdi politiko ezkertiarrekiko erdeinua, leninismoaren termino klasiko bat, 'sozial-inperialista' kalifikatzailea, berreskuratuz. Bestetik, frankismoa erori ondorengo lehen unetik euskal autonomia ezarri behar zelako ideia azpimarratzen zuen. Horrela, euskal

²⁹⁵ Azurmendi, *PNV ETA. Crónica oculta...*, 79-80; Iulen Madariaga-ko, *Egiari zor* (Donostia: Erein, 2014), 137; Garmendia, *Historia de ETA...* 295-300; López Adán, *Biolentzia politikoaren memoriak...*, 11-12; Jon Kortazar-Billelabeitia, «Euskadiko Mugimendu Komunista (1969-1991): Historia eta ideologia», *Vasconia* 38 (2012): 1079-1109.

²⁹⁶ Garmendia, *Historia de ETA...*, 337-47.

²⁹⁷ Iñaki Esnaola eta Iñigo Iruin, «Hau ZEN aldaketa», *Egin*, 1983ko uztailaren 24a.

²⁹⁸ Egin, «Herri Batasuna proiektu izatetik errealitate izatera iritxi da», *Egin*, 1982ko abuztuaren 15a.

autonomia etorkizuneko espainiar legediaren menpe ez geratzea ziurtatu nahi zuten. Ideia hura azpimarratzean, Barneko ELAk 1930eko Donostiako akordio errepublikazalea hartzen zuen kontuan. Izan ere, EAJ akordio horretatik kanpo geratu ostean, 1931ko euskal estatutu proposamena ez atzera ez aurrera geratu zen, aldi berean Errepublikak Kataluniarentzako autonomia onartu zuen bitartean²⁹⁹.

Nahiz eta gaiaren inguruan ikerketa berriak argitaratzeko zain gauden, errepublikanismo irlandarraren arrastoari ere segi dakioke, uste baitugu badaudela harreman handiak ETA V erakundeak politikari buruz zituen ikuspuntuaren eta irlandar tradizio politikoaren artean. Zentzu horretan, ETA V erakundearen ikuspuntuetan irlandar errepublikanoen eragina José Antonio Etxebarrieta eta Gallastegi familiaren arteko harremanaren bitartez iritsi izana da litekeena, Gallastegitarrak Irlandan erbesteratu baitziren frankismoaren lehen urteetan³⁰⁰.

1968. urtean ETA V erakundeak 'acción-reacción-acción' delako espirala abiatzea erabaki zuen. Behin ikusita langile mugimenduak errepresioaren ondorioz izan zuen geldialdia, helburua atentatuak egitea zen, frankismoaren errepresio bortitza eragiteko. Horrela, errepresioak gora eta gora egingo luke eta jendea ETAREN proiektu politikora hurbilduko litzateke, eszenatoki iraultzaile eta independentista bat sortuz eta zuzenean frankismotik Euskadi sozialistara jauzia emanez³⁰¹. Gauza da 1968an, aurretik planifikatu gabe José Antonio Pardines (1943-1968) guardia zibila erail zutela eta, ordu batzuk geroago, atxilotzeko unean Txabi Etxebarrieta hil zela. Handik aste gutxira, alde aurretik pentsatuta zuten bezala Gipuzkoako polizia politiko frankistaren burua hil zuten, Melitón Manzanás (1909-1968). Eta frankismoak ETA V erakundeak aurreikusi bezala erantzun zuen.

Erregimenaren erreakzio biolentoa erabatekoa izan zen, errepresioa disidentzia aktibotik askoz haratago hedatuz. 1968-1969 artean euskal gizartearen zati handi bat susmagarri bezala estigmatizatu zuen frankismoak, salbuespen egoerekin, bidegabeko erregistro eta atxilotetekin eta presentzia polizial izugarriarekin. Praktikan, euskal gizartea antifrankista bezala irudikatzen eta homogeneizatzen zen horrela, hain zuzen ere ETAK

²⁹⁹ Estornés Zubizarreta, *Cuando Marx visitó Loyola...*, 139.

³⁰⁰ Juaristi, *El bucle melancólico...*, 238-97, 352-53; López Adán, *Biolentzia politikoaren memoriak...*, 9-11; Núñez Seixas, «Ecos de Pascua...»; José María Lorenzo Espinosa, *Gudari. Una pasión útil. Eli Gallastegi (1892-1974)* (Tafalla: Txalaparta, 1992).

³⁰¹ Fernández Soldevilla eta López Romo, *Sangre, votos y manifestaciones...*, 25-26.

bere kontakizun nazionalen egiten zuen gisan. Euskal herria frankismoaren erabateko oposizioa omen zen³⁰².

Zentzu horretan, ezin zaio masa kulturaren garrantziari iskin egin. ETAko kide klandestinoak spaghetti western filmetako gizonezko heroien gisan irudikatzen ziren eta 'grisak' eta 'berdeak' gazteen kontsumorako etsai estereotipatu ezin hobea ziren³⁰³. Bere heriotzaren lehen unetik Etxebarrieta martiri bezala irudikatu zen, izaera karismatiko harrigarriarekin. *Che* Guevararen, Clint Eastwooden eta Daniel Cohn-Benditen arteko gurutzadura bezala irudikatua izan zen eta euskal nazionalismoaren bilbotar buruzagi erradikalen sekuentzian bere lekua egin zioten, Arana Goiri eta Eli Gallastegirekin (1892-1974) batera³⁰⁴.

1960ko hamarkadaren bukaeratik, frankismoak albo batera utzi zuen ezarritako sistema politikoan langile klasea integratzeko ilusio falangista eta atzera begiratu gabeko ihesari egin zion, bere izaera errepresiboa azpimarratuz³⁰⁵. Frankismoaren jarduteko modu hark ezin izan zuen ekidin, 1967-1968 arteko langile batzordeen errepresioaren ondoren, greba eta mobilizazio olatu berri bat gertatu izana 1969-1970 artean. 1970eko hamarkadaren hasierarako, frankismoarekiko jarrera berriak hedatu ziren zenbait faktorek eraginda, esaterako, erosahaltenaren handitzea, zinemak eta turismoak eskaintako irudi berriak eta lanpostuetan bizitako injustiziek. Azken horiek ikuspegi antifrankista baten arabera azaltzen zituzten gero eta kleroko kide, intelektual eta buruzagi sindikal gehiagok. Nazioarteko enbaxaden informeez hautematen zuten langile familien zati handia ez zela frankismoarekin identifikatzen eta beren bizimoduetan izandako hobekuntza beren lan eta esfortzu propioari erreferentzia eginez azaltzen zutelara, hots, ez zutelara zer eskertu autoritateei. Gero eta gehiago, sistema politiko frankista espainiarrek beren sorbalden gainetik kendu behar zuten traste zaharra bailitzan sentitzen zen, modernizaziorako oztopo bezala. Sentipen hura batez ere gazteriaren baitan hedatu zen, izan ere, gazteek atzerrira bidaiatzeko aukera izan zuten,

³⁰² Letamendia Belzunce, *Juego de espejos...*, 263; López Adán, *Biolentzia politikoaren memoriak...*, 177.

³⁰³ Arriaga Landeta, *Y nosotros que éramos de HB...*, 54-63; Brad D. Foster, «Heroic Identities: Masculinity and the Western Films» (Oregon State University, 2007), 37-50; López Adán, *Biolentzia politikoaren memoriak...*, 10; Madariaga-ko, *Egari zor...*, 61, 77.

³⁰⁴ Hamilton, *Women and ETA...*, 73-75.

³⁰⁵ Pau Casanellas, *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977* (Madrid: Catarata, 2014), 39-51; Domènech Sampere, *Clase obrera, antifranquismo...*, 330.

batez ere Frantziara eta Erresuma Batura, eta beren begiez ikusi zituzten Espainiaren eta Europako mendebaldeko beste herrialdeen arteko ezberdintasunak³⁰⁶.

Testuinguru horretan, ETAko kide armatuek itzal antifrankista handia eskuratu zuten langile klasearen begietan. ETA Veko militante asko euskal hiztunak eta industriako lanera joandako baserritar familietako kideak izanik, erabat antifrankista bezala hautemanak ziren³⁰⁷. Garaiko ikerketek adierazten dutenez, Hego Euskal Herrian jaiotako pertsonak langile identitate azpimarratua zuten eta, aldi berean, batez ere migratzaile gazteenek euskara eta euskal identitatea modu abegikorrean ikusten zituzten³⁰⁸. Modu horretan uler daiteke nola mobilizatu zen modu masiboan langile klasea 1970ean, ETA V erakundeko zenbait kide epaitegi militar batean epaitu zituen Burgosko Prozesuaren testuinguruan. Langile batzordeek antolatu zituzten protestak eta mobilizazio garrantzitsuenak migratzaile asko zeuden Gipuzkoako lekuetan gertatu ziren, hala nola, Pasaian, Errenterian, Donostian, Tolosan eta Eibarren³⁰⁹. Bertan jaiotakoek eta migratzaileek osatutako langile klaseak antifrankismoaren sinbolo bezala hartu zuen ETA, hein handi batean herri euskaldunetako gazteek osatzen zuten erakundea zena.

Ondoren Herri Batasunarekin identifikatu ziren pertsonen testingantzek ere langile identitatearen garrantzia azpimarratzen dute. Beraien bizi istorioetan lan munduari ematen diote garrantzia eta norberaren esfortzua azpimarratzen dute. Mari Marrek kontatzen duenez, "entonces, en junio cumplía catorce y en septiembre, el trece de septiembre, empecé en la fábrica. (..) trabajé muchísimo. ¡Muchísimo!". Ondoren, Burgosko Prozesuaren aurkako mobilizazioak aipatzen ditu, bere parte hartze politikorako funtsezko gertaera bezala azalduz: "Porque claro, llegaron los años setenta. Y fue los juicios de esto... El Proceso de Burgos. Y entonces, pues hicimos una huelga. Y a raíz de esa huelga, me llamaron a la comandancia"³¹⁰. Alfredok, eraikuntza enpresa baten jabe zena, bere bizi istorioaren hasieran azpimarratzen duenez, "trabajando, ¡eh! Aquí no ha habido jamás ningún motivo de agradecimiento a la política ni a nadie en

³⁰⁶ Carlos Fuertes Muñoz, *Viviendo en dictadura. La evolución de las actitudes sociales hacia el franquismo* (Granada: Comares, 2017), 231-60; Cazorla Sánchez, *Fear and Progress...*, 154-62.

³⁰⁷ Zirakzadeh, *A Rebellious People...*, 34-41.

³⁰⁸ Armando de Miguel, «Estructura social e inmigración en el País Vasconavarro», *Papers* 3 (1974): 249-73.

³⁰⁹ Molinero y Ysàs, *Productores disciplinados y minorías...*, 175-88; José Antonio Pérez Pérez, «Historia (y memoria) del antifranquismo en el País Vasco», *Cuadernos de Historia Contemporánea* 35 (2013): 41-62.

³¹⁰ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/16).

absoluto. Ha sido trabajo directo y personal"³¹¹. Garbiñek ere, familia umil batean sortua, bere testigantza osoan zehar lanarekin harremana azpimarratzen du bere identitatearen zati garrantzitsu bezala "ya empecé a trabajar (...) le dije a mi aita: —lo mío es currar— (...) y entonces ya empecé a trabajar más, en vez de media jornada empecé a trabajar jornada seguida". Ondoren, bere identitate politikoaz hausnartzen duenean, gai berdinerara itzultzen da: "soy... una forma de defender al obrero radical (...) Yo soy así. Yo estoy sindicada en LAB y soy de la izquierda abertzale"³¹².

1970tik aurrera, oposizioaren ekinbidea espazio publikoa bere egiten hasi zen eta euskal nazionalismoaren sinboloek protagonismoa hartu zuten. Euskal Herriko oposizio antifrankista plurala zen ideologia aldetik baina frankismoaren aurkako mobilizazio bateratua egikaritu zen eta oposizio guztiak bere egin zituen euskal nazionalismoaren sinboloak³¹³. Orain bai, 1970eko hamarkadaren hasieratik ari zen egituratzen ezarritako sistemaren aurkako subjektu politiko bat, ETAren kontakizun nazionalaren ikuspegiaren eragina zuena. Has gaitezke ulertzen zer dela eta garai hartan frankismoari oposizio aktiboan zeuden eta ondoren Herri Batasuneko buruzagi izango zirenen ustetan, fenomeno hark etorkizuneko hegemoniaren oinarriak ezarri zituen.

Zentzu horretan, 1973ko abenduan ETA V erakundeak Madrilen Carrero Blanco presidentea atentatu ikusgarri batean erail eta gutxira, hurrengo udan jertse eta jakak airera botatzeko praktika orokortu zen "voló, voló, Carrero voló..." kantatuz. Artean Franco bizirik zela, horrelako praktikek diktadura irrigarri uzten zuten espazio publikoan eta euskal herri homogeneouski antifrankistaren irudia indartzen zuten, ordura arte mesfidati izan ziren asko ere batzera animatuz³¹⁴. Aipatu kantu herrikoi hark berriro erakusten digu, gainera, mugaz gaindiko harremanen garrantzia, abesti originala euskaraz grabatu baitzuten Ipar Euskal Herrian Etxamendi eta Larralde³¹⁵. Herri Batasunak orduko giroari lotzen zion bere burua eta bere propagandak jertseak airera botatzen ziren irudia jasotzen zuen.

³¹¹ Autorearekin elkarrizketa (2017/12/07).

³¹² Autorearekin elkarrizketa (2017/10/19).

³¹³ Pérez-Agote, *La reproducción...*, 109; Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*, 393;

Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo pasarnos esto...*, 339; Pérez Pérez, «Historia (y memoria)...», 47.

³¹⁴ Patrick Eser, «La fiesta del Ogro. Canciones y lo carnavalesco en la cultura de la transición vaca (y española)», hemen: *Himnos y canciones. Imaginarios colectivos, símbolos e identidades fragmentadas en la España del siglo XX*, ed. Carlos Collado Seidel (Granada: Comares, 2016), 115-34.

³¹⁵ Etxamendi eta Larralde, «Yup la la» (Egia, 1977).

2.3 irudia. Herri Batasunaren iragarkia Eusko Legebiltzarrerako kanpainan (1980)



Iturria: *Egin*

Ikerketa honetan jasotako zenbait testigantzek ere giro herrikoi homogeneouski antifrankistaren ideia azpimarratzen dute, ziurrena frankismoko azken urteen eraginez berreraikitako gogorapen batean. Garbiñek Bilboko Miraflores auzoa gerrako galtzaileen arteko familia politiko ezberdinen uztarketa eremu bezala gogoratzen du: "los aitites contaban muchas historias. Eran muy parlanchines. ¡Había de todo, eh! Gente de Acción Nacionalista, había gente del PSOE, gente PNV, gente comunista... Muy diverso. Y yo creo que eso también te enseña mucho"³¹⁶. Eta Félix Soto haratago doa, 1960ko hamarkadako Donostiako auzo langileak deskribatzean: "apenas había gente que estaba a favor de Franco y compañía (...). O sea, uno pensaba una cosa o (sic) otra, pero todos eran antifranquistas. Todo Cristo, como quien dice"³¹⁷. Pilar (1941ean jaioa) Nafarroako herri batean jaiotako Herri Batasuneko boz-emailea da. 1970eko hamarkadan Iruñeko erdiguneko denda batean lan egiten zuen eta langile mugimenduan aktiboki parte hartzen zuen. Gero, Herri Batasuneko bozka emaile izan zen. Berak ere 1970eko hamarkadako erdialdeko mobilizazioei buruz antzeko gogorapena du, kasu

³¹⁶ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/19).

³¹⁷ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/07).

honetan Potasas enpresako meatzarien grebarekin elkartasunez —horiek 1975eko urtarrilaren 7an itxialdia hasi zuten— antolatu ziren protestak kontatzean: "es cuando más movimiento hubo. Aquella huelga... es que hubo mucha unión. (...) Todo el mundo salimos"³¹⁸.

Jarraian, garatu dugun argudiatzea eta ahozko testigantzetan jaso ditugun sentipenak Xavier Domènechek Kataluniari buruz egindako bere ikerketatik ateratako ondorioekin lotuko ditugu. Izan ere, Hego Euskal Herriko kasua ere azaltzeko balio dutela uste dugu. Langile mugimendua indartsu ezarri zen lekuetan, herritarren parte hartze espazio berriak sortu ziren. Parte hartze hura lan munduarekin zerikusia zuten gaiez haratago zihoan eta, errepresioak uzten zuen heinean, ekiteko eta pentsatzeko errepertorio berri bat martxan jarri zuten. Modu horretan, langile mugimenduak frankismoaren aurka ekiteko prest zeuden guztiak batu zituen eta ikusarazi zuen bazela posible frankismoak eskaintzen zuenaren bestelako gizarte eredu bat eraikitzea. Auzia ez zen diktadura edo demokrazia beste barik, baizik eta lan munduarekin, hezkuntzarekin eta kulturarekin harremana zuten alorrak birpentsatzea. Eta dinamika hura guztia termino politikoetan mahaigaineratu zuten klandestinitateko erakunde ezkertiarrek³¹⁹.

Laburbilduz, langileriarri loturiko gatazkak eta herritarren zati handi bat jarrera antifrankistetara lerratzea Espainian oro har gertaturiko fenomenoak izan ziren. Baina euskararen eta euskal kantagintza berriaren inguruan garatutako testuinguru kulturalak, ETaren kontakizun nazionalak eta bere ekinbide armatuak eta, batez ere, Hego Euskal Herriak 1970eko hamarkadan zuen izaera sakonki industrialak, subjektu politiko ezberdindu baten sentipena sendotu zuten. Bazirudien Hego Euskal Herria frankismoaren aurka modu homogeneoan lerratutako eremu bat zela, Espainiarekiko ezberdina zen herrialdea bailitzan. Sentipen horrek ziurtasun eta epika ezberdina ematen zizkion Hego Euskal Herriko oposizio antifrankistari eta gero eta eragin handiagoa zuen ETaren kontakizun nazionalak, bazirudien azalpen historiko egokia eskaintzen ziola fenomeno hari. Jarraian azalduko dugun bezala, 1975 eta 1977 artean ikuspegi hura indartu zen.

³¹⁸ Autorearekin elkarrizketa (2017/12/07)

³¹⁹ Domènech Sampere, *Clase obrera, antifranquismo...*, 328-30.

Francorik gabeko frankismoa, hezurdura hutsa?

Portugalgo diktadura 1974ko apirilean erori zen. Testuinguru horretan, Franco zahartuta eta gaixo zelarrik, oposizioko talde ezberdinak beren jarrerak zehazten joan ziren diktadorearen heriotza aurreikusiz. Oposizio antifrankistak buruan zuen eredia gobernu faxistak II. Mundu Gerraren ostean erori zirenekoa zen. Nola gerraostean herrialde guztietan koalizio gobernuak sortu ziren eta nola horiek hauteskundeak deitu zituzten eta kutsu sozial argiko legedia berriak eratu zituzten³²⁰.

Testuinguru berriari zein eratan aurre egin erabakitzeko orduan egondako eztabaidek ETA V erakundearen zatiketa eragin zuen eta hiru erakunde ezberdin sortu ziren. Alde batetik, Langile Abertzaleen Iraultzarako Alderdia (LAIA). Horiek langile klasearen antolaketan ezarri zuten lehentasuna eta etorkizuneko gizarte euskaldun, sozialista eta independentearen oinarri izan behar zuten langile batzorde independentista batzuk eratzeari ekin zioten —LAIARI lotutako batzordeek Langile Abertzale Komiteak (LAK) izena hartu zuten—. Beste alde batetik, ETA (militarra) zegoen. Horiek uste zuten Francoren heriotzaren ondoren adierazteko eta elkartzeko zenbait askatasun onartuko zirela eta horregatik, erabaki zuten ordutik aurrera ETA erakunde armatu hutsa izango zela, nahiz eta ez zuten baztertzeko alderdi eta langile erakundeak sostengatzea. Biolentziari erabateko atxikipen hori 1973ko Txileko estatu kolpearen adibidea aintzat hartuta argudiatzen zuten. ETA (militarra)-k armadak estatu kolpe bat emateko ideia burutik kentzeko berme bezala eta kolpea gertatzekotan horri aurre egiteko gotorleku bezala ikusten zuen bere burua. Hirugarrenik, ETA (politiko-militarra) sortu zen. Horiek uruguaiar tupamaroen antolaketa eredia hartu zuten. Poli-miliekin uste zutenek, kapaz izango ziren herria matxinada armatura gidatzeko eta horretarako kide anitzeko zuzendaritza bateratu bat osatu zuten, bertan zeudelarik ekintza armatuak burutzen zituzten militanteak eta antolaketa politikoan aritzen zirenak. Hiru erakunde horien artean bik parte hartu zuten Herri Batasunaren sorrera prozesuan; ETA (militarra)-k eta LAIAk³²¹.

Francoren heriotzaren aurreko hilabeteak oso biziak izan ziren Hego Euskal Herrian. 1975eko udaberrian ezarritako salbuespen egoera gogorrek oposizioa modu bateratuan Euskadi Información agerkaria sortzera eraman zuen eta bertan jaso zuten poliziaren

³²⁰ Borja de Riquer, *La dictadura de Franco (Historia de España 9)*, ed. Josep Fontana y Ramón Villares (Barcelona: Crítica & Marcial Pons, 2010), 745-46.

³²¹ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*, 388-99.

errepresioa eta baita eskuin muturreko taldeen ekinbidea³²². Beranduago, ETA V erakundeko eta FRAPeko —talde armatu iraultzailea eta errepublikazalea— zenbait kideren aurka ezarritako heriotza zigorren kontrako kanpaina handia antolatu zen. Fusilamenduen aurkako protestak antolatzeko, talde independentistek plataforma propio bat sortu zuten, Koordinadora Abertzale Sozialista (KAS) deitua. 1975eko udan zehar oposizioak modu bateratuan antolatutako mobilizazioetan, agerikoa zen euskal abertzaletasunaren pisua, bere memorieta Idoia Estornés historialariak gogoratzen duen bezala:

Nunca nuestro nacionalismo llegó tan lejos ni afectó a tantos, vascos y no vascos. Nos sublevó aquello, nos sentimos identificados con la tragedia, nos lanzamos a la movilización. Se abrió entonces una fase en la que muchos pusieron la ikurriña en su corazón³²³.

Euskal nazionalismoak markatutako giro hura azaltzeko orduan elementu garrantzitsu bati erreparatu behar diogu, zeina modu xeheagoan azalduko baitugun tesi honen laugarren kapituluan. 1960ko hamarkadaren hasieratik, frankismoak masen parte hartzea bilatzen zuen diskurtso bat erabili zuen. Helburua unibertsitate masifikatuetako, merkatu askera egokitutako industrializazioko eta landa munduko milaka pertsona jaso zituzten hirietako erronkak autoritateari lotuta bideratzea zen. Modu batean edo bestean, nahi zutena eraldaketa sozioekonomiko sakonarekin batera sortu ziren tentsioak bideratzea zen, horien ondorioz erregimenaren autoritatea zalantzan jar ez zedin. Ideia gizarteari parte hartzeko bideak eskaintzea zen, jendea antifrankismoaren tentaziotik alden zedin. Elkarte sare handi bat sortu zen lege berrien babespean. Agian Movimiento delakoaren eta Elizaren erakundeetatik at antolatzeko legezko modu bakarra zelako, baina batez ere, frankismoaren praktika izugarri urrun zegoelako bere erretorika sozialetik eta gora eta gora zihuan inflazioaren testuinguruan herritarrek zituzten beharretatik. 1970eko hamarkadan modu esponenzialean egin zuen gora elkarte kopuruak: ikasleen guraso elkarteak, auzo elkarteak, arazo psikiko edota fisikoak zituzten haurren gurasoen elkarteak, kirol elkarteak, aisialdi elkarteak, zinemazaleen elkarteak, musika elkarteak...³²⁴.

Beren erretorika gorabehera, autoritateek ez zuten inoiz erabat uste izan klase herritarrak frankismoari atxikita zeudenik. Horregatik, elkarteen gehiengoa

³²² Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 75.

³²³ Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo pasarnos esto...*, 379.

³²⁴ Radcliff, *Making Democratic Citizens...*, 23-30, 73-74, 91.

administrazioarekin eta zentsurarekin arazoetan sartzen zen mota ezberdinetako ekintzak eta bilerak antolatzeko orduan. Horrez gain, elkarteetan praktikak autoritateen kontroletik at zegoen parte hartzearen inguruko kultura eta tokiko komunitatean eta bere arazoetan biztanleen inplikazioa sustatu zituzten. Tokiko elkarten sare oso bati zenbait apaizek eman zieten sostenguak, eta elkarte ezberdinetan eta horien ekintzetan alderdi klandestinoetako pertsonak zuten parte hartzeak, laster eragin zuen langile auzoetan diskurtso antifrankista hedatzea. Are gehiago sentipen bat orokortu zenean, zeinaren arabera tokiko administrazio frankistak ez baitzituen herritarren oinarrizko beharrak asetzen —zolaketa, argiztapena, eskolen, gune kulturalen eta anbulatorioen eraikuntza...—, inbertsio sozial minimoa egiten zuen estatu klasista bateko parte izatean³²⁵.

Hego Euskal Herrian horrek guztiak ñabardura euskaltzalea zeukan, euskal nazionalismoaren hurbilekoa. Auzo elkarteek euskarazko izenak hartu zituzten, are Gasteizen ere, non ez baitzen euskara egunerokotasunean entzuten XIX. mendetik. Eta jende askok beren izenaren euskarazko aldaera hartu zuten, horrela euskalduntasunera egokitu ziren, hots, orduan gaztea eta apurtzailea zenera. Industriaguneetan, María zirenak Miren deitzen zituzten kalean eta lanean, Iñaki José Ignacio zirenei, Karmentxu Carmen izena zutenei, Mikel bihurtu zen Miguel eta Xabier Javier³²⁶. Euskararen moda harekin batera, eragin handiko talde bat antolatu zen euskarari bultzada berritzaile eta intelektuala eman ziona eta zenbait gipuzkoar idazle gaztek osatua, *Ustela* (1975-1976) aldizkariaren inguruan: Ramón Saizarbitoria (Donostia, 1944), Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951), Koldo Izagirre (Pasaia, 1953), Xabier Olarra (Tolosa, 1953) eta Ramón Etxezarreta (Urrestilla, 1954)³²⁷.

Elkarten eta alor kulturalaren dinamika horri guztiari lotuta, euskalduntasuna, ETaren kontakizun nazionalaren gero eta eragin handiagoarekin, erabat antifrankista bezala ulertzen zen eta gainera, normaltasuna bihurtzen ari zen. Eguneroko espazioa gero eta gutxiago zegoen frankismoari lotuta. Tokiko elkarte ezberdinak ziren aisialdia, kultura eta auzo eta herrietako jaiak antolatzen zituztenak. Eta lehenago esan bezala, fabriketan eta oro har iritzi politikoetan, frankismoaren zilegitasuna zalantzan jartzen zen Hego

³²⁵ Ibid., 34, 53-57, 99-103, 245-53.

³²⁶ Victor Urrutia Abaigar, *El movimiento vecinal en el área metropolitana de Bilbao* (Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública, 1985), 118-19; Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo pasarnos esto...*, 339; Perez Ibarrola, *Langileria berri baten eraketa...*, 375-76.

³²⁷ Beñat Sarasola, *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi* (Bilbao: Labayru Fundazioa & Amorebieta-Etxanoko Udala, 2015).

Euskal Herrian. Pamela Radcliffek Espainiarako oro har eginiko ikerketan, elkarte sarea azpimarratzen du praktika eta diskurtso politiko demokratikoak hedatzeko giltzarri bezala eta, are gehiago, oraindik legedia frankistak politikoki mugatuta egon arren gizarte zibil autonomo bat existitzen zela defendatzen du. Ferran Gallegok ere antzeko ondorio bat eskaintzen du bere ikerketan eta kaleetara jaitsi zen oposizio baten irudia eskaintzen du: "una ciudadanía que tomaba las riendas de su propia representación"³²⁸. Bi autore horien ekarpenek herritarren elkarten eta antifrankismoaren arteko harremanak azpimarratzen dituzte eta nola espazio horietan frankismoaren zilegitasun politikoa arrakalatzeko joan zen. Uste dugu interpretazio hori baliogarria dela Hego Euskal Herriko egoera ere ulertzeko.

Puntu honetan, euskal kasuari izaera berezia eman zion alor bat garatuko dugu. Elkarte sarean erreferente ziren zenbait pertsonak, oposizio antifrankistari hurbilekoek, tokiko hauteskundeak erabiltzea erabaki zuten. Helburua udalen jarduna elkarte sareak normaltzat hartzen zuenera egokitzea zen³²⁹. Jada 1960ko hamarkadatik, frankistekin harremanik ez zuten zinegotziak aukeratu zituzten zenbait udaletan. Baina 1975eko udal hauteskundeek askok aprobetxatu zuten bide berria zabaldu zuten. 1960ko hamarkadatik frankismoak erakundeetan parte hartzearen inguruan egiten zuen diskurtsoaren baitan, bai eta oposizioaren indarraren aurrean ezarritako administrazioa sendotzeko beharrari lotuta ere, gobernuak ahalbidetu zuen alkateak udal bakoitzeko zinegotziek aukeratzea, eta ez zitzatela ordura arte bezala gobernadore zibilek izendatu. Franco hil eta aste gutxira, Gipuzkoako zazpi udalerritan alkate antifrankistak zeuden eta 1976ko hasieran beste hainbeste aukeratu zituzten. Alkate horiek guztiek alderdi klandestinoekin harremana zuten eta adostu zuten udaletxeetara mozio politikoak eramatea, amnistia eta euskal autonomia eskatuz³³⁰.

Lurraldearen zati batean kontrol instituzionala ere galdu zuela ikusita, gobernuak batzorde bat jarri zuen martxan, Bizkaia eta Gipuzkoan "la implantación de un régimen administrativo especial" aztertzeko³³¹. Eta 1976ko otsailaren 6an, bi probintzia horietako diputazio frankisten ordezkariak Gernikako arbolaren kimu bat landatu zuten

³²⁸ Gallego, *El mito de la Transición...*, 299.

³²⁹ Txema Urrutia, *Alcaldes en lucha. El grupo de Bergara en la Transición. 1975-1979* (Tafalla: Txalaparta, 2006), 18-19.

³³⁰ *Ibid.*, 35-36.

³³¹ Boletín Oficial del Estado, «Decreto 3142/1975, de 7 de noviembre, por el que se crea una Comisión para el estudio de la implantación de un régimen administrativo especial para las provincias de Vizcaya y Guipúzcoa», 1975.

Tolosan elkarrekin. Hiriko alkateak, frankismoari lotua zegoenak, adierazi zuen Gernikako arbolak "siglos de historia de nuestro pueblo [vasco]" islatzen zituela³³². Nahiz eta adierazpen horien erroak espainiar metakontakizun nazionalaren bertzio kontserbadorean ohikoak ziren, jada 1976rako gizarteak keinu antifrankista bezala ulertzen zituen, autoritateek nahi zutenaz bestera.

Bazirudien, Gramsciren terminoekin azalduz gero, euskal nazionalismoa kontrahegemonia izatetik hegemonia berria izatera igarotzen ari zela, frankismoaren mugak gaindituz eta are autoritate frankistak gogoz kontra aritzera behartuz³³³. Beranduago bere memorietan jaso zuen Alfonso Osorio ministroak sentipen hura, honakoa idatzi baitzuen une hartako Hego Euskal Herriari buruz: "el gobierno había perdido la iniciativa y se había quedado quieto"³³⁴. Antzeko zer edo zer gertatu zen ikurrinarekin. 1976ko abenduaren 5ean, Errealeko eta Athleticeko kapitainak ikurrina eskuan atera ziren zelaira Atotxako estadioan, publikoak askatasunaren eta autonomiaren alde oihu egiten zuen bitartean³³⁵. Hego Euskal Herriko alkateen ordezkariekin bildu ostean, gobernuak ikurrinaren erabilera baimentzea erabaki zuen 1977ko urtarrilaren 20an.

Espainia guztian, Franco hil ostean greba eta mobilizazio olatu handia gertatu zen, batez ere ezker iraultzaileko alderdiek bultzatuta. Mobilizazioek Arias Navarroren gobernuak ordezkari-tza sistema oso mugatu bat ezartzeko zituen planak blokeatu zituzten. Enpresarien artean zenbait sektorek interpretatu zuten ezingo zutela etengabeko mobilizazioan zegoen langile klasea kontrolpean mantendu, eta nolabait sistema politiko berriak auzo langileek beretzat hartzen zituzten ordezkarien parte hartzea bermatu behar zuela³³⁶.

Modu horretan, 1976an zehar partida gogorra jokatu zen oposizioaren eta gobernuaren artean. Antifrankistek preso politikoaren askatasuna eta gobernu neutral batek antolatutako hauteskundeak exijitzen zituzten. Francoren heriotzaren aurreko hilabeteetatik 'haustura demokratikoa' aldarrikatuz oposizio antifrankistak egin zituen

³³² Juan José Echevarría Pérez-Agua, «La socialización foral en el País Vasco al inicio de la transición democrática», en *Fronteras Contemporáneas. Identidades, pueblos, mujeres y poder. Actas del V Encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea. Volumen 2*, ed. Cristian Ferrer González eta Joel Sans Molas, Universita (Barcelona, 2017), 82.

³³³ Gallego, *El mito de la Transición...*, 458-59.

³³⁴ Alfonso Osorio, *De orilla a orilla* (Barcelona: Plaza y Janés, 2000), 212.

³³⁵ I.E., «La fiesta vasca del fútbol y su resaca», *Punto y Hora de Euskalherria* 18, 1976ko abenduaren 15etik 30era: 9.

³³⁶ Wilhelmi, *Romper el consenso...*, 57-68, 123-36; Gallego, *El mito de la Transición...*, 356-57.

exijentziak ziren. Aldi berean, Adolfo Suarezek gidatutako gobernu berriak erakundeen erreforma prozesu bat gidatu nahi zuen eta gobernutik kontrolatzea Europako mendebaldeko eredura egokitutako sistema politiko baten ezarpena.

Testuinguru horretan, PCE eta PSOE alderdiek mobilizazioak gelditzearen alde egin zuten. Beren burua ordezkari politiko errespetagarri eta arduratsu bezala aurkeztu nahi zuten, oposizioko alderdiak legez kanpo mantentzen zituen gobernu arduragabe baten aurrean. Gobernua ezingo zutela erorarazi uste zuten, baina bai kapaz izango zirela frankismoarekiko 'haustura hitzartua' deitu zutena lortzeko. Moderazioaren estrategiak ez zuen gobernua arrakalatzetik lortu, ez eta negoziazioak abiatzerik. Estrategia horren azken kartutxoa, 1976ko azaroaren 12ko greba orokorra, porrot garratza bihurtu zen. Nahiz eta grebaren jarraipena oso handia izan zen, ez zen nahikoa izan gobernuak bere iritzia alda zezan. Suarezek amnistia eman gabe jarraitu zuen eta oposizio guztia legez kanpo egonagatik ere hauteskundeak deitzeko asmoari eutsi zion³³⁷.

Bestalde, euskal independentistek 1976ko abuztuan aldarrikapen zerrenda bat aurkeztu zuten: KAS Alternatiba. Suarezren gobernua solaskide bezala onartzen zuten, baina alde zehatz zehatz zuten zeintzuk ziren beraien ustetan frankismoarekin haustura eman zedin hartu beharreko neurriak: askatasun demokratikoak, amnistia, frankismoko indar errepresioen desagerpena, langile klaseen eguneroko bizimoduan hobekuntzak ezartzea langile erakundeek ezarritako terminoen arabera eta "la soberanía nacional de Euskadi" onartuko zuen autonomia estatutua³³⁸. 1976 urtearen bukaeran alderdi gehienek albo batera utzi zuten haustura demokratikoaren ideia eta onartu zuten gehienez jota gobernuarekin nolabaiteko haustura hitzartua lortuko zutela. Independentistek eta ezker iraultzaileak, aldiz, oposizioaren terminoak onartuz egin beharreko haustura demokratikoa ezinbestekoa zela defendatzen zuten, horrexerri irizten baitzioten Espainia demokratizatzeak aukera bakarra.

1977ko lehen asteetan, Espainian egunero atxilotzen zituzten oposizioko kideen batz bestekoa hogeita hamar pertsonakoa zen. Francoren garaiko salbuespen egoeretan jazotakoak baino zifra altuagoak ziren. Oposizioko alderdi guztiek legez kanpo

³³⁷ José Vidal-Beneyto, *Memoria democrática* (Madrid: Foca, 2007), 162; Juan Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) transición. La evolución ideológica de la izquierda durante el proceso de cambio político* (Madrid: Siglo XXI de España, 2012), 66-67; Gallego, *El mito de la Transición...*, 413-14.

³³⁸ KAS (EHAS, ETA (pm) y las organizaciones obreras LAB y LAK, «Alternativa Política de KAS para Euskadi Sur», hemen: *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta eta Emilio López Adán (San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1989), 332-35.

jarraitzen zuten. Eta gobernuak erabakia zuen laster egitekoak ziren hauteskundeetan ezin izango zirela monarkia, frankismotik zetorren armada edota Espainiaren lurralde batasuna auzitan jarri³³⁹.

Aldi berean, Hego Euskal Herrian ikurrinaren onarpenak euforia sortu zuen eta ETAREN kontakizun nazionalak inoiz baino eragin handiagoa izan zuen. Urtarrilean, EAJk bere barne buletinean erretorika militarista azpimarratu zuen eta bertan zehazten zuenez, alderdiaren helburua honakoa zen: "liberación de Euzkadi (...) definida ésta como nacional y social"³⁴⁰. Eta PSOERen euskal adarraren sorrerako kongresua omenaldi batekin abiatu zen "euskal herriaren askatasunaren alde odola isuri" zuten guztientzat, egun batzuk lehenago hil zituzten ETA (politiko-militarra) erakundeko bi kide aipatuz³⁴¹.

Giro hartan egin ziren Txibertako batzarrak. Euskal nazionalista ziren erakunde guztiek parte hartu zuten eta sustatzaile nagusia Telesforo Monzon izan zen, bere burua EAJren eta ETAREN arteko bitartekari bezala ikusten baitzuen. Txibertan, EHAS eta ETA (militarra) saiatu ziren EAJ konbentzitzen hauteskundeetan ez parte hartzeko, behin EAJ konbentzitzuz gero gainontzeko alderdiek ere ez zutela parte hartuko uste baitzuten. EHASren eta ETA (militarra)-ren obsesioa zen ETAREN kontakizun nazionalak orduan oposizio guztiaren baitan zuen eragina aprobetxatzea eta gobernu behartzea KAS Alternatiban independentistek ezarritako aldarrikapenak onartzera³⁴².

EHASren 1977ko hasierako dokumentu bati esker, alderdiak egiten zuen egoeraren interpretazioa azter dezakegu. Alderdiak uste zuenez, nahiz eta langile mugimenduaren mobilizazioak orokortuak izan ziren, protestarik handienak gobernuaren errepresioaren aurkakoak izan ziren. Lehenengo 1976ko martxoan, Gasteizen garatu zen mugimendu asanbleario zabala eta eskualdeko greba orokorra bost langileren hilketarekin bukatu ostean. Orduan bai geldiarazi zutela Hego Euskal Herria, martxoaren 9ko greba orokorrean polizia frankista desagertzeko eskatuz. Antzeko zerbait gertatu zen 1976ko irailean, urtebete lehenago fusilatuen oroimenez egindako greba orokorrak Hego Euskal

³³⁹ Pau Casanellas, «¿Un país donde reina el orden? Represión, control social y resistencias al cambio antes y después de Franco», hemen: *Cuarenta años y un día. Antes y después del 20-N*, ed. Ferran Archilés eta Julián Sanz (Valencia: Servei de Publicacions Universitat de València, 2017), 97-123.

³⁴⁰ Partido Nacionalista Vasco, «Objetivos inmediatos», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 7 (1977).

³⁴¹ Andrea Micciché, «Radicalismo y nueva imagen del socialismo en los años setenta: el caso vasco», *Historia del presente* 19 (2012): 17. Gazteleraz jatorrizkoan.

³⁴² Anai Artea, ed., *Las actas de Txiberta-Xibertako aktak-Les actes de Chiberta (1977)* (Anai Artea, 2011).

Herria geldiarazi baitzuen. EHASren ondorioen arabera, "la lucha queda radicalizada en Euskadi" eta eskuineko giro politikoetan ere oposizio antifrankistaren eragina nabaria omen zen³⁴³.

Gure ikerketaren baitan Gasteizen jasotako testigantzetan ere, Herri Batasunarekin identifikatu zirenen artean aste haiek izan zuten garrantzia azpimarratzen da. Rakel Peña (Eibar, 1964) Herri Batasuneko militante gaztea izan zen Trantsizio garaian eta martxoaren 3ko hilketak gertatu ziren auzoan bizi zen, Zaramagan. Bere testigantzan kontatzen duenez, 1976ko martxoa "mugimendu politikoarekin lotura hori ematen den momentua da (...) auzoan ikusten zala... ikusten ziren mobilizazioak, ikusten ziren, bueno, arazoak (...) nik uste dut gure adineko jendea, guztiok daukagula grabatuta gutxi gorabehera orduko giro nahasia"³⁴⁴.

Lucía, zertxobait nagusiagoa dena, antzera aritu zitzaigun, aste haiek azpimarratuz: "ahora, ¡es decisivo el tres de marzo, eh! (...) porque quieras o no quieras [hasta entonces] todo eso lo estás viviendo pero en grupos reducidos". Bere bizi istorioan aste horietako bizipenak bere familiako tradizio libertarioarekin lotzen ditu: "entonces empecé a ir a las asambleas y tal. Y claro, yo vi que las cosas que yo había oído de pequeña en mi casa (...) toda esa lucha se estaba, o sea... como materializando en algo real"³⁴⁵.

Antonio (Solana de los Barros, 1952) ere Herri Batasuneko militantea zen. Extremadurako migranteen semea, lehenik Bilboko txabola batean hazi zen eta ondoren Otxarkoaga auzoan. Inoiz ez zela alderdi politiko bateko kide izan kontatzen du, "porque no me gusta seguir directrices de nadie", baina baita Herri Batasunean parte hartu zuela hasieratik. Parte hartze eredu asanblearioa azpimarratzen du eta behin baino gehiago itzultzen da bere bizi istorioan alor horretara, 1976 eta 1977 arteko grebak gogoratzean bere ideologia politikoaz hausnartzean, esaterako: "yo soy asambleario (...) se podría decir que soy anarquista (risas), pero tampoco soy anarquista... ¿o sí? Pero no lo sé"³⁴⁶.

³⁴³ EHAS, «Planteamiento de la opción Abertzale Socialista en el seno de la clase trabajadora con presupuestos ideológicos mínimos» (Asteroko EHAS karpeta: Lazkaoko Beditarren Artxiboa, 1977).

³⁴⁴ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/09).

³⁴⁵ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/30).

³⁴⁶ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/08).

Norberaren atxikimendu ideologikoak gorabehera, EHAS alderdiak interpretatzen zuen amnistiaren aldarrikapenaren eta polizia frankistaren aurkako protestaren inguruan polarizazio bat ematen zela. Alde batetik, "la totalidad del pueblo (...) salvo, claro está, los fascistas" eta bestetik, "un gobierno que nadie desea"³⁴⁷. EHASren ikuspegi agerikoa zen "que Euskadi es distinta", kontuan harturik Espainiako alderdiek bere egiten zutela hein batean ETaren kontakizun nazionala, edo EHASren hitzetan, egoerak behartuta sinesgarritasuna lortzeko modu bakarra zutela: "disfrazarse de abertzale"³⁴⁸.

Une hartan, konbentzimendu iraultzailea eta nazionalista, Gramsciren ikuspegi kontsejistari lotuta, analisi politikoaren ardatza bihurtzen zen. EHASren zuzendaritzak adierazten zuenez, Francoren heriotzaren osteko greba olatuek "parecen haber reforzado el Movimiento Asambleario" eta sindikatuen indarra beharrean, identifikatzen zuten "en la Clase Obrera un alto sentimiento de independencia"³⁴⁹. Honakoa ulertaraztea lortu behar zela azpimarratzen zuten: "el hecho de que los abertzales de izquierda luchan fundamentalmente por la independencia obrera y la toma de poder por la misma"³⁵⁰. Eta lehenetsun bezala ezarri zuten sendotzea "los movimientos asamblearios, con todos aquellos que estuvieran dispuestos a potenciarlos, sean o no estatistas"³⁵¹. Hori lortuz gero, sindikalismo independentista eta asamblearioarentzat etorkizun arrakastatsua irudikatzen zuten: "es casi seguro que se convertiría en el gran sindicato vasco"³⁵².

Izan ere, 1977ko hasieran zenbait bilera burutu zituzten alderdi independentistek eta ezker iraultzailekoek eta, nahiz eta ez zen gauzatu, hauteskundeetarako hautagaitza bakarra eratzea proposatu zen bertan. Bilera haien fruitu nagusia Euskal Erakunde Herritarra izenarekin Gasteizen ospatzekoa zen Aberri Egunerako deialdia izan zen —gobernuak ez zuen baimendu—. Orduan erabaki zuen EHASEk Herri Batasunaren sorrerara eramango zuen konbergentzia prozesua martxan jartzea³⁵³. EHASen helburua alderdia birfundatzea eta ondoren Herri Batasunaren oinarrian egongo zen nukleoa indartzea zen. Etorkizuneko Herri Batasuna subjektu politiko zabalaren ordezkari litzateke: Hego Euskal Herri antifrankista, auzo langileetan oinarritua eta euskal nazionalismoari lotua.

³⁴⁷ EHAS, «Planteamiento de la opción...

³⁴⁸ Ibid.

³⁴⁹ Ibid.

³⁵⁰ Ibid.

³⁵¹ Ibid.

³⁵² Ibid.

³⁵³ Letamendia Belzunze, *Historia del nacionalismo...*, II. bol., 22-23; HASI, «La asamblea fue así», *Barnekoa* 0 (1977).

Sortu zutenentzat, Herri Batasuna ez zen beste koalizio bat, beste aukera soil bat hauteskundeetan aurkezten zirenen artean. Euskal gizartearen gehiengoaren nahi politikoaren adierazpena zen, berori 1975ean eta 1976an adierazi ei zen moduan. Gramsciren terminoen ikuspegitik aztertuta, Herri Batasunaren sortzaileentzat frankismoa bere buruaren borrarero izan zen, bere erabateko oposizio bezala egituratu zen subjektu politiko sorrarazi baitzuen. Subjektu politiko antifrankista hura espazio ezberdinak askatzen joan zen, fabriketatik hasita auzoetatik igaroz eta zenbait tokiko erakunde monopolizatzerara iritsiz. Egoera euskal nazionalismo ezkertiarren ikuspegitik begiraturaz gero, subjektu horrek ez zuen beste helbururik, ez bazen Euskal Herri independente, sozialista eta euskalduna sortzea.

Bi dira Herri Batasuna lau alderdi txikiren arteko koalizioa izanagatik denbora laburrean indar politiko garrantzitsua bihurtu izana ulertzeko gakoak. Batetik, historia norberaren alde dagoela uste zuen konbentzimendu nazionalista eta ezkertiarra eta jada etorkizun hurbilean hegemonikoa bihurtuko zen bloke historikoa egituratuta zegoelako ustea, koalizioa horren guztiaren adierazpen politiko hutsa izanik. Bestetik, 1975 eta 1977 arteko mobilizazio antifrankisten eta orduko giro abertzalearen inguruan jendartearen zati handiak zuen sentipen positiboa.

Ondorioak

Herri Batasunaren sorreraren oinarrian 1970eko hamarkadaren erdialdean orokortu zen sentipen bat dago. Hego Euskal Herria homogeneouski antifrankista zelako ustea, Espainiako gainontzeko lurraldea ez bezala. Irudi horren eraikuntzaren gakoa euskal nazionalismoak euskara bere egiteko eta baita euskalduntasunaren irudi tradizionala berez antifrankista balitz bezala ulerrarazteko izan zuen gaitasunean dago.

Fenomeno hura zenbait faktore kontuan hartuta azal daiteke. Hego Euskal Herriko populazioaren zati handia gerrako galtzaile izateagatik estigmatizatuta zegoen. Bestetik, frankismoak tokiko kulturaren inguruan izan zuen jarrera nasaiak ahalbidetu egin zuen laster izaera antifrankista hartu zuen dinamika intelektuala eta kulturala. Zentzu horretan, azpimarratu egin behar dira Pirinioen bi aldeetako euskaldunen arteko mugaz gaindiko harremanak eta euskal kantagintza berriaren garrantzia.

Bestalde, Hego Euskal Herriari bereziki eragin zion 1950eko eta 1960ko hamarkadetako eraldaketa sozioekonomikoak eta eskualdea espazio bereziki industrializatua bihurtu

zen. Beste gune industrialetan bezala, Hego Euskal Herrian ere langile mugimendu garrantzitsua eta elkarte sare trinkoa garatu ziren. Bi elementu horiek, Espainian oro har gertatu zen bezala, gizarte zibil autonomo baten sorrera ahalbidetu zuten, zeinak alderdi klandestinoen eraginpean izaera publiko antifrankista eta ezkertiarra hartu baitzuen.

ETAk XX. mendeko bigarren erdiko joera ezkertiarren baitan garatutako euskal kontakizun nazionalak aipatu fenomenoekin ezarri zuen loturak eragin zuen Hego Euskal Herrian oposizio antifrankista euskal metakontakizunarekin eta euskal nazionalismoaren sinboloekin identifikatu izana. Eta horrek sortu zuen 1970eko hamarkadaren erdialdean Euskal Herria berez antifrankista zelako ideia. Eta oposizioari Espainiako gainontzeko eremuan ez bezalako konbentzimendua eta mobilizatzeko gaitasuna eman zizkion.

Geroago Herri Batasuna sortu zuten euskal nazionalistek egoera Gramsciren hegemonia kontzeptuaren eta euskal metakontakizun nazionalaren ikuspegi teleologikoaren arabera interpretatu zuten. Uste izan zuten euskal herria bai ala bai ari zela Euskal Herri independente, euskaldun eta sozialistarako bidea egiten. Ikuspegi hark beren proiektu politikoaren sorrera baldintzatu zuen eta baita frankismoaren aurka mobilizatu zen euskal gizartearen zati handi bat interpelatzeko gaitasuna, hurrengo kapituluetan azalduko dugun bezala.

3. Gerra, bakea eta autonomia. Herri Batasuna eta erakunde politiko berriak

Frankoren heriotzatik Espainian monarkia konstituzional bat ezarri arteko prozesu politikoa konplexua izan zen, bidegurutze askokoa. Prozesu hura botere harremanek eta agente ezberdinek gizartea interpelatzeko eta mobilizatzeko izan zuten gaitasunak baldintzatu zuten. Hala ere, oso goiz, kontakizun zehatza ezartzen joan zen, Konstituzioa adosteko lehenagoko frankisten eta antifrankisten arteko hitzarmenerako gaitasuna erdigunean ezarri zuena. Ideia bat hedatu zen, zeinaren arabera irtenbide hura gerta zitekeen bakarra, eta gainera desiragarriena, izan baitzen³⁵⁴.

Ikerketa historikoak ere parte hartu zuen irudi horren eraikuntzan, Trantsizioa terminoa bera azpimarratzean, hasiera eta bukaera jakina egon balitz bezala. Zenbait azalpen historiko garatu ziren, aldaketa politikoen kausa nagusi bezala modernizazio ekonomikoa azpimarratu zutenak eta espainiar hiritarren ustezko moderazio ideologiko orokortua nabarmentzen zutenak³⁵⁵. Baieztatu egiten zen praktikan Suarezek martxan jarri zuena, Franco hil zenean antifrankistek exijitu zuten haustura demokratikoa izan zela³⁵⁶.

Azken urteotan, historiografian ontzat ematen zen irudi hori arrakalatzen joan da. Zenbait faktore azpimarratu dira Trantsizioaren azken eszenatokiaren eragile garrantzitsu bezala. Batetik, frankismotik zetorren gobernu baten eta oposizioaren arteko harremanaren izaera asimetrikoa. Bestetik, bai estatu egituretatik, bai eskuin muturretik eta bai talde iraultzaileen eskutik egin zen biolentziaren erabilera. Hirugarrenik, adostu zen sistema politikoaren izaera mugatzailea eta oposizioko alderdi nagusien baitan gertatu ziren aldaketa ideologikoak ere aztertu dira³⁵⁷.

³⁵⁴ Rafael Chirbes, «De qué memoria hablamos», hemen: *La Transición, treinta años después. De la dictadura a la instauración y consolidación de la democracia*, ed. Carme Molinero (Barcelona: Península, 2006), 229-46.

³⁵⁵ Xavier Domènech Sampere, «El cambio Político (1962-1976). Materiales para una perspectiva desde abajo», *Historia del presente* 1, 1 zbk. (2002): 47.

³⁵⁶ Santos Juliá, «En torno a los proyectos de transición y sus imprevistos resultados», hemen: *La Transición, treinta años después. De la dictadura a la instauración y consolidación de la democracia*, ed. Carme Molinero (Barcelona: Península, 2006), 59-79.

³⁵⁷ Gallego, *El mito de la Transición...*; Sophie Baby, «Volver sobre la Inmaculada Transición. El mito de una transición pacífica en España», hemen: *La transición española. Nuevos enfoques para un viejo*

Betalde, zenbait ikerketek Trantsizioaren bazterretan geratu ziren praktikak, bizipenak eta proiektuak aztertu dituzte. Eta horien garrantzia azpimarratu dute, ez baitira ezintasun historiko baten eredu bezala bazterrean utzi behar. Alderantziz, prozesu politiko haren azken helmuga zergatik izan zen halakoa, horixe azaltzeko beste faktore bat dira³⁵⁸. Kapitulu honetako gure ekarpena ikerketa multzo horrekin lerratzen da. Herri Batasunak Trantsizioan zehar izan zuen bilakaera aztertuko dugu, bere diskurtsoaren eta proiektu politikoaren ardatz nagusiak analizatuz 1977ko alderdi antzetzako lehen hauteskundeetatik, 1980an lehen Eusko Jaurlaritza autonomikoa eratu arte doan epean.

Hego Euskal Herrian erakunde autonomikoen sorrera aztertu duten lan monografikoek, tirabirak, interes kontrajarriak eta zalantzazko uneak azpimarratu dituzte, gutxienez Carlos Garaikoetxea (Iruñea, 1938) lehendakari autonomiko bihurtu zen unera arte³⁵⁹. Zentzu horretan, gure ekarpenak Herri Batasunak nola bere diskurtsoa eta proiektu politikoa aldatu zituen aztertzen du, erakunde autonomiko behin betikoak sortu arte egon ziren eszenatoki ezberdinetara egokitzen joan baitzen, azkenerako erakunde sistema berriaren erabat aurkako kultura politiko bezala finkatu zen arte.

Horrela, Hego Euskal Herriko Trantsizioaren garaiko historiografia aberastea da gure helburua. Izan ere, uste dugu eragin handia duela oraindik Trantsizioa modernizazioaren ete moderazioaren ondorio bezala ulertzen duen azalpenak. Esan dugun bezala, ikuspegi hori azken urteetan ñabartua izan da. Zentzu horretan, Raúl Lópezen eta Gaizka Fernándezen, Luis Castellsen, Fernando Molinaren eta Ludger Messen ikerlanek Herri Batasuna 1977ko hauteskudeetan ez parte hartzearekin lotu dute erabat, eta azaldu dute kultura politiko hura eta bere proiektu politikoa orduan finkatu zirela. Azpimarratu dute batez ere Herri Batasunaren salbuespeneko izaera, ez baitzen egokitu Trantsizio garaiko

debate, ed. Marie-Claude Chaput eta Julio Pérez Serrano (Madrid: Biblioteca Nueva, 2015); Xavier Casals, *La Transición española. El voto ignorado de las armas* (Barcelona: Pasado & Presente, 2016); Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) transición...*; Damián A. González Madrid, «La definición del cambio. Contienda política, represión y control institucional en la provincia de Albacete (1977-1979)», hemen: *La transición se hizo en los pueblos. El caso de la provincia de Albacete*, ed. Manuel Ortiz Heras (Madrid: Biblioteca Nueva, 2016), 45-72.

³⁵⁸ Joaquín Florido Berrocal et al., ed., *Fuera de la ley. Asedios al fenómeno quinqueni en la Transición española* (Granada: Comares, 2015); Wilhelmi, *Romper el consenso...*; Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*; Labrador Méndez, *Culpables por la literatura...*

³⁵⁹ Virginia Tamayo Solaberría, *La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo (1975-1979)* (San Sebastián: Instituto Vasco de Administración Pública, 1994); Álvaro Baraibar Etxeberria, *Extraño federalismo. La vía navarra a la democracia (1973-1982)* (Madrid: Centro de Estudios Políticos y Sociales, 2004).

eredu modernizatzaile eta moderatura³⁶⁰. Trantsizio garaiko ezaugarriak horiek izan zirela zalantzan jarri dela kontuan harturik, uste dugu Herri Batasunaren sorrerari buruzko interpretazioa ere berrikusi beharra dagoela. Lehenago azaldu dugunez, Herri Batasunaren sorrerak ez baitu Hego Euskal Herriko egoera bakarrik islatzen, baizik eta Espainian oro har gertatu ziren fenomeno politiko eta kulturalak.

Horregatik, gure analisiak 1977 eta 1980 artean espainiartasunari eta euskalduntasunari eman zitzaizkien esanahietan jartzen du arreta eta, aurreko kapituluetan egin dugun bezala, kontakizun nazional ezberdinen arteko dinamikak eta uztarketak aztertuko ditu. Uste baitugu horrela ekarpen interesgarria gehi diezaiekegula zenbait lani, horiek Trantsizioa testuinguru konplexua eta erpin askoduna dela azpimarratu baitute.

Kapitulu honetan defendatzen dugun ideia nagusia honakoa da: Herri Batasuna antisistema izaeradun kultura politiko bezala finkatu izana ez zegoen alde aurretik idatzia eta Hego Euskal Herri autonomikoa eratzeko prozesuaren tirabiren ondorio izan zen. Horrela, honako galderentzako erantzuna topatuko dugu: nola interpretatu zen prozesu autonomikoa metakontakizun nazional ezberdinen ikuspegitik? Zein izan zen Herri Batasunaren eta prozesu autonomikoaren arteko harremana? Zein neurritan eraldatu zen Herri Batasuna bera prozesu horretan?

Autonomiaren eskaera

Etorkizuneko Espainiaren lurralde eredua deszentralizatu izango zela, bai frankistek eta bai antifrankistek uste zuten Francoren heriotzaren ondoren. Frankismo garaiko tokiko eliteek Europako mendebaldean modan zeuden ideia ekonomikoak bere egin zituzten eta horien arabera, ekonomia kudeatzeko eta koordinatzeko modurik onena administrazio deszentralizatu zen. Gainera, eskualde ezberdinek eta horien berezitasun folklorikoek frankismoaren Espainiaren ikuspegia osatzen zuten eta, horrenbestez, eskualde mailako administrazioak sortzea ez zegoen frankismoarekin kontrajarria. Aldi berean, herrialdean egitura uniforme mantentzeko modu bezala ikusten zuten deszentralizazioa, izan ere, errezeloa sortzen zien euskal eta katalan nazionalismoen

³⁶⁰ Fernández Soldevilla eta López Romo, *Sangre, votos y manifestaciones...*; Luis Castells Arce, «La transición en el País Vasco (1975-1980)», hemen: *Euskadi 1960-2011. Dictadura, transición y democracia*, ed. Juan Pablo Fusi eta José Antonio Pérez (Madrid: Biblioteca Nueva, 2017), 67-89; Fernando Molina Aparicio, «Violencia en comunidad. El terrorismo nacionalista y la política del miedo, 1976-1982», hemen: *Euskadi 1960-2011. Dictadura, transición y democracia*, ed. Juan Pablo Fusi eta José Antonio Pérez (Madrid: Biblioteca Nueva, 2017), 129-50; Mees, *The Basque Contention. Ethnicity, Politics...*, 117-35.

goraldiak eta estaturik gabeko nazionalismoa zuten eskualdeak bakarrik autonomo bihurtzeko aukerak³⁶¹.

Bestalde, ezkerreko alderdiek, Asia eta Afrikako deskolonizazioaren aldeko borrokei sostengua eman ondoren, beren programetan nazioen autodeterminaziorako eskubidea txertatu zuten. Euskal eta katalan nazionalisten konpromiso antifrankistak bultzatuta, Franco hil zen unean bai PSOEek eta bai PCEk Espainiako herri ezberdinen banatzeko eskubidea onartzen zuten, nahiz eta beren proiektu politikoa zati bat bera ere galduko ez zuten Espainia federala izan³⁶².

Erbesteko Euzko Jaurlaritzak —EAJ, PSOE, EAE-ANV eta Izquierda Republicana alderdiek osatzen zutena, azken hori praktikan existitzen ez zen arren— komunikatu publiko bat egin zuen 1974ko irailean. Exijitu zuen behin frankismoa erortzen zenean, espainiar behin-behineko gobernuarekin batera behin-behineko euskal gobernu bat eratzea³⁶³. 1936ko estatutuan ez bezala Nafarroa ere barneratzea aldarrikatu zuten³⁶⁴. PCE erbesteko Euzko Jaurlaritzatik kanporatua izan zen Gerra Hotzaren testuinguruan eta Euskadiko Asanblea Demokratikoa antolatu zuen —bertan parte hartu zuten PSP eta PTE alderdietako euskal adarrek eta USO sindikatuak—. Komunistek gidatutako plataformak erbesteko Euzko Jaurlaritzan oposizio antifrankistako gainontzeko alderdiak sartzeko eta 1936ko estatutua berrezartzeko aldegin zuten³⁶⁵.

Azkenik, Euskalerriko Karlista Alderdiak (EKA) euskal oposizio antifrankista guztiarekin zenbait bilera antolatu zituen Ipar Euskal Herrian 1975eko urriaren 16tik aurrera. Helburua gutxieneko adostasun bat lortzea zen Francorik gabeko testuinguru politiko berrira begira eta azken fusilamentuen aurkako kanpaina arrakastatsuei jarraibidea ematea³⁶⁶. Azken akordioa, karlistez gain, independentistek eta MCE eta ORT alderdi maoistek bakarrik izenpetu zuten. ETA (politiko-militarra)-k idatzitako

³⁶¹ Núñez Seixas, «El nacionalismo español regionalizado...

³⁶² Alejandro Quiroga Fernández de Soto, «Coyunturas críticas. La izquierda y la idea de España durante la Transición», *Historia del presente* 13 (2009): 21-40.

³⁶³ Erbesteko Euzko Jaurlaritzak, «Declaración de las Fuerzas del Gobierno Vasco al Pueblo Vasco», hemen: *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*, ed. Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta eta Emilio López Adán (San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1989), 315-17.

³⁶⁴ de Pablo Contreras, Mees eta Rodríguez Ranz, *El péndulo patriótico...*, II. bol., 326.

³⁶⁵ Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta eta Emilio López Adán, *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976* (Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1989), 296-99.

³⁶⁶ Víctor Manuel Arbeloa Muru, «Lo que Navarra debe en la Transición», hemen: *Democratización y Mejora Foral. Una historia de la transición en Navarra*, ed. Gobierno de Navarra (Pamplona, 1999), 414.

testu batean oinarrituta, Euskadiko Herriko Batzarraren izenean honakoa aldarrikatu zuten sinatzaileek: behin frankismoaren porrota eta haustura demokratikoa lortzen zirenean, berehala estatutu bat martxan jartzea, euskal herriak askatasun osoz bere etorkizun nazionala erabakitzeko eskubidea jasoko zuena³⁶⁷.

Hau da, bai frankistek eta bai antifrankistek estatu deszentralizatu bat imajinatu zuten Francoren heriotzaren ondoren. Baina lehenek kudeaketa ekonomikorako neurri bezala eta estaturik gabeko nazionalistentzat oztopo bezala irudikatu zuten. Eta bigarrenek Espainia herri subirano ezberdinek osatuta zegoenaren ideia zuten oinarri bezala. Beste era batera esanda, frankistentzat subjektu subirano bakarra Espainia zen bitartean, oposizioarentzat zenbait herri subirano zeuden. Eta horiek parte hartu beharko zuketena sistema politiko berri baten eraikuntzan, behin 1936ko gerrako legitimitatea mantendu nahi zuen gobernu monarkikoa erortzen zenean.

Baina gobernu monarkikorik ez zen erori. Gobernuaren eta oposizioaren arteko gatazka gogorraren baitan, azkenean Adolfo Suarezren gobernuak alderdi anitzeko hauteskundeak izango zirela agindu zuen, aldi berean mantentzen zuelarik hauteskunde prozesuaren eta telebistaren kontrola eta gainera, frankismotik mantentzen ziren elementu errepresiboak modu diskriminatzaile batean erabiliz. Horrela, oposizioak egoera berriari aurre egin behar izan zion. Ez zen egongo frankismoarekiko apurketa instituzionalik. PSOEk esana zuen hauteskundeetan parte hartuko zuela nahiz eta alderdi batzuk legez kanpo mantendu. Eta PCEk bere legalizazioa adostu zuen 1977ko apirilera, trukean monarkia onartuz eta independentisten aurkako jarrera irmoa hartuz. ETA (militarra)-k eta EHASK hauteskundeak boikotatzea erabaki zuten. Uste zuten hauteskunde prozesuak ez zuela berme demokratiko nahikorik eta gainera, gainontzeko alderdi abertzaleak ez parte hartzeko konbentzitzen bazituzten, Suarez Hego Euskal Herrian inolako legitimitaterik gabe geratuko zela uste zuten³⁶⁸. Baina EAJK parte hartzea erabaki zuen. Argudiatu zuen parlamentura joan gabe ez zegoela inolako aukerarik ez autonomiarik ez eta amnistiarik lortzeko. Bere erabakiarekin

³⁶⁷ Partido Carlista de Euskadi et al., «Proyecto del “Euskadiko Herriko Batzarra”», hemen: *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*, ed. Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta y Emilio López Adán (San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1989), 326-29.

³⁶⁸ Luis Núñez, ed., *Euskadi eta Askatasuna* (Tafalla: Txalaparta, 1994), V. bol., 18-19; Euskal Herriko Alderdi Sozialista (EHAS), «Criterios para no participar», *ELA (Boletín Interno)* 5 (1977).

gainontzeko euskal nazionalista gehienak ere posizio horretara lerratzea lortu zuen eta bazirudien boikotaren aldekoak erabat isolaturik geratu zirela³⁶⁹.

Gainera, EAJ 1975eko bukaeratik ari zen berrantolatzen. Zuzendaritza gazteago bat zuen eta erbesteko buruzagiek pisu gutxiago zuten, ordura arte sasian ibili zen militantziaren mesedetan. Hamarnaka batzar sortu zituzten herri eta hirietan eta beren proposamen politikoa monarkiak erakusten zuen sendotasunera egokitu zuten³⁷⁰. Eragin handia lortu zuen buruzagi gazteetako bat Xabier Arzalluz (1932-2019) izan zen. Familia karlista euskaldun batekoa zen, jesuita ohia eta Deustuko unibertsitateko irakaslea. Monarkia Hispanikoari buruzko eta euskaldunen jatorrizko independentziari buruzko mitoak jaso zituen eta proposamen politiko bat atondu zuen: Francoren heriotzaren ostean egin beharrekoa, euskaldunen eta hispaniar monarkiaren arteko aspaldiko akordioa berritzea zen. Behin diktadura bukatzean, euskaldunek berdinen arteko akordio batera iritsi beharra zuten Espainiako gobernu monarkikoarekin³⁷¹.

Akordioaren ideia tradizionalista hura onargarria zen familia abertzaleentzat, baina baita ere karlismotik eta frankismo kontserbadoretik zetozen familientzat, ez baitzioten uko egin behar beren jarrera monarkikoari. Horrek EAJ alderdi bereziki garrantzitsua bihurtu zuen sektore kontserbadoreentzat. Langileen protestek, frankismoaren zilegitasun sozial eskasak eta independentismoaren gorakadak larritutako familia askorentzat, helduleku bihurtu ziren jeltzaleak.

1977ko udaberrian EAJk akordio bat itxi zuen PSOErekin, erbesteko bere aliatua, eta zenbait alderdi txikirekin: konpromiso autonomikoa. Konpromisoa sinatu zuten alderdiek (PNV, PSOE, ESEI, PCE, Democracia Cristiana Vasca eta EAE-ANV) agintzen zuten beren parlamentariak modu kolektiboan jardungo zutela, espainiar gobernuaren aurrean euskal herriaren ordezkari bezala agertuz³⁷². Gainera, PNV-PSOE ardatzak mezu modernizatzailea eta europarra zuen, batez ere 1977rako ezkerrean lerratu zirenean Hego Euskal Herrian mobilizazio antifrankistak zuen eraginaren

³⁶⁹ Anai Artea, *Las actas de Txiberta...*

³⁷⁰ Leyre Arrieta Alberdi, «The Basque Country within Spain and Europe: Basque Nationalist Party Proposals during the Spanish Transition to Democracy (1975-1980)», hemen: *Pulling Together or Pulling Apart? Perspectives on Nationhood, Identity, and Belonging in Europe*, ed. Susana Bayó Belenguer eta Nicola Brady (Berlin: Peter Lang, 2019), 29-53.

³⁷¹ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*, II. bol., 462; Juaristi, *El bucle melancólico...*, 326-44.

³⁷² Tamayo Solaberría, *La autonomía vasca contemporánea...*, 224-26.

ondorioz. Irudi hura bereziki egokia zen homogeneousoki antifrankista bezala hartzen zen Hego Euskal Herri erabat industrializatu batean³⁷³.

PSOEek bere europar izaera azpimarratu zuen Trantsizioan zehar, Willy Brandt, Olof Palme, François Mitterrand eta Michael Foot bezalako buruzagi karismatikoen sostengua haizatuz. Aldi berean, PCErengandik ezberdintzen zuen horrek, komunisten irudia oso lotua baitzegoen gerrarekin eta espainiar historia hurbilarekin. Gainera 1977ko PSOEren euskal adarraren —Partido Socialista de Euskadi (PSE)— irudia eta mezua bereziki lotuak zeuden euskal nazionalismoarekin³⁷⁴. Jesús Egiguren (Aizarna, 1954) buruzagiak bere memorietan kontatzen duenez, euskal nazionalismoarekiko hurbilketa argi hura "consecuencia del ambiente de exaltación muy propio de la época" zen³⁷⁵.

EAJren kasuan, erbestean Europako demokrazia kristauarekin harremanak mantendu zituen. Gainera, 'herrien Europa' kontzeptua garatu zuen, uste baitzuen, zenbait enpresarik bezala, eskualdeetako erakundeak zirela egokienak ekonomia kudeatzeko Europa mailan eta, horrenbestez, estatu handien egitura politikoak zaharkituta geratu zirela. Horrenbestez, autonomia zabala zuen Hego Euskal Herria, aldi berean Europa modernoaren baloreetara eta beharretara egokitutako Hego Euskal Herria zatekeen³⁷⁶.

Irudi europar eta modernizataile hari lotuta uler daiteke Hego Euskal Herrian PSOEek lortu zuen hauteskunde garaipena (%25), hurbiletik EAJk jarraituta (%24). Frankismoan jatorria zuten alderdien (UCD eta AP) batura %24koa zen eta batez ere Nafarroan eta Araban jaso zituzten bozak, hau da, industria gutxien zegoen eremuetan. Hego Euskal Herriko eskualderik industrializatuenean gogo modernizataile eta europazale bat adierazi zuten eta bigarren maila batean geratu zen modu batean edo bestean frankismoari lotuta zegoen eskuina, Espainiako gainontzeko eremuan ez bezala.

³⁷³ Partido Nacionalista Vasco, *Planteamientos político, socio-económico y cultural. Documentos de la Asamblea Nacional, marzo 1977* (Bilbao: Geu, 1977), 11-15.

³⁷⁴ Landaberea Abad, *Los «nosotros» en la Transición...*, 126-35.

³⁷⁵ *Ibid.*, 140.

³⁷⁶ Leyre Arrieta Alberdi, «Por los derechos del Pueblo Vasco. El PNV en la Transición, 1975-1980», *Historia del presente* 19 (II. garaia (2012): 42; Joseba Gabilondo, «On the global formation of the Basque and Andalusian cinema», en *A companion to Spanish cinema*, ed. Jo Labanyi y Tatjana Pavlović (New York: Wiley-Blackwell, 2012), 85-98; Gallego, *El mito de la Transición...*, 12-13.

3.1 irudia. Diputatuen Kongresurako hauteskunderen emaitzak Hego Euskal Herrian (1977)

PSE	322.617 (25,5%)
EAJ	314.272 (24,8%)
UCD	204.636 (16,2%)
AP/AFN	93.809 (7,4%)
EE/UNAI	85.906 (6,8%)
PCE	52.235 (4,1%)

Iturria: Barne Ministerioaren sareko datuekin lan honetarako egina

Hauteskundeak igaro eta egun gutxira, euskal parlamentarien biltzarra sortu zuten PSOEko eta EAJko parlamentariak. Emaitza kaskarrek behartuta, aste batzuk geroago APko eta UCDko parlamentariak ere bildu ziren kopromiso autonomikoa sinatu zutenen biltzarrera. PSOEko, EAJko, UCDko eta APko parlamentariak honela zehaztu zuten beren lanaren lehentasuna: "conseguir la devolución del poder foral y libertades originarias de los vascos"³⁷⁷. UCDko parlamentari nafarrak geratu ziren kanpo. Herrialde horretako bederatzi parlamentarietatik sei lortu zituzten eta uko egin zioten euskal autonomian parte hartzeari, independentziaren aurreko pausu arriskutsu bezala ikusten baitzuten³⁷⁸.

Behin parlamentua aukeratu zenean Suarezren gobernuak prozesu konstituziogilea martxan jarri zuen, ez baitzuen hori ekiditeko gehiengo osorik lortu. Negoziazio fase berri horretan, EAJk euskal parlamentarien biltzarra erabili zuen euskaldunen eta espainiar koroaren arteko mezua hedatzeko eta Hego Euskal Herrian lidergo politikoa eskuratzeko, aldi berean badaezpada erbesteko Euzko Jaurlaritza mantendu zuen bitartean. Halere, jarraian azalduko den bezala, alderdi independentistek bultzatutako beste autonomia proiektu batek lidergo hori eztabaidatu zion.

Herri Batasunaren jatorria Altsasuko Mahaia da. Ezkerreko alderdi independentistek udal hauteskundeetarako koalizioa sortzeko sinatutako akordioa zen, 1977ko urriaren 24an aurkeztua³⁷⁹. Aliantza bost alderdik osatu zuten: EIA, EAE-ANV, HASI, LAIA eta ESB. Euskal ezker nazionalistaren alderdi historikoa zen EAE-ANV eta erbesteko Euzko Jaurlaritzan ere parte hartzen zuen. Euskal Sozialisten Biltzarrea (ESB)

³⁷⁷ Javier Angulo, «Compromiso de los parlamentarios vascos para recuperar los fueros», *El País*, 1977ko uztailearen 22a.

³⁷⁸ Tamayo Solaberriá, *La autonomía vasca contemporánea...*, 243-56; Baraibar Etxeberria, *Extraño federalismo...*, 128-33.

³⁷⁹ Egin, «Acuerdo inicial de partidos de la izquierda abertzale ante las municipales», *Egin*, 1977ko urriaren 25a.

alderdiaren baitan talde bat Barnealdeko ELAtik zetorren, eta beste bat ETAtik. Beraien helburua gerra aurretik PSOEk izan zuen espazioa okupatuko zuen alderdi sozialista eta euskal nazionalista sortzea zen. ESB eta EAE-ANV, biak ala biak parlamentutik kanpo geratu ziren 1977an.

Euskal Iraultzarako Alderdia (EIA) 1976ko bukaeran ETA (politiko-militarra)-k sortu zuen alderdia zen eta bere helburua, sistema parlamentarioa behin ezarrita abangoardia iraultzailea bihurtzea zen. LAIA, lehenago azaldu dugun bezala, ETA Vetik sortu zen 1974an eta bere lehentasuna langile mugimendu iraultzaile eta asanblearioa antolatzea zen. Azkenik, HASI 1977ko uztailleko EHASren birfundazioa zen. Bertara batu ziren ETA (militarra)-k sustatutako eredu iraultzaile eta asanblearioaren aldekoak eta Eusko Sozialistak (ES) izeneko alderdi txikia³⁸⁰.

EIA, LAIA, EHAS eta ES alderdiek parte hartu zuten 1977rako Euskadiko Ezkerra eta Unión Navarra de Izquierdas hautagaitzetan, Euskadiko Mugimendu Komunistarekin (EMK) batera —Movimiento Comunista (MC) alderdiaren euskal adarra—. Euskadiko Ezkerrak diputatu eta senatari bana lortu zituen Gipuzkoan, hurrenez hurren Francisco Letamendia *Ortzi* eta Juan Mari Bandrés (1932-2011) abokatuak.

Baina EHASEk eta LAIAk hautagaitzari sostengua erretiratu zioten kanpainan bertan, uste baitzuten alderdi politiko guztiak legeztatu gabe eta amnistia gertatu gabe, hauteskondeek ez zutela oinarrizko berme demokratikorik. Beraien erabakia 1977ko maiatzeko amnistiaren aldeko asteko gertakariak ere eragin zuten. Mobilizazio hartan independentistek eta ezker iraultzaileak hordagoa bota zioten gobernuari baina ez zituzten beraien helburuak eta gainera, bost pertsona hil ziren poliziaren ekinbidearen ondorioz. Testuinguru horretan, gobernuak erabaki zuen ETAko zenbait kide ezagun kartzelatik atera eta Espainiatik kanporatzea —'extrañamiento' deitu zena— eta EIA eta ETA (politiko-militarra)-k kanpainarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten eta ondoren parlamentuan parte hartzea, Euskadiko Ezkerraren bitartez³⁸¹.

Aztertu ditugu bigarren kapituluan zein izan zen EHAS/HASI akordio zabal bat bilatzera eraman zuen testuingurua eta berorren inguruko interpretazioa. Baita akordio horren bidez 1977ko Hego Euskal Herriaren gehiengoaren ordezkari izango zen

³⁸⁰ Fernández Soldevilla eta López Romo, *Sangre, votos y manifestaciones...*, 119. ES taldea Langile Sozialisten Batasuna/Unión Sindical Obrera (LSB/USO) jatorri katolikoko sindikatuaren inguruan agertu zen eta Espainia mailako Federación de Partidos Socialistas delakoari lotuta zegoen.

³⁸¹ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*, II. bol., 41-46.

adierazpen politikoa sortuko zela uste zutela ere. Ekinbide hartan ETA (militarra)-ren sostengua izan zuten. Bestalde, parlamentutik at geratu ostean, ESBk ere ezkerreko koalizioaren beharra aldarrikatu zuen, EAJren "clase burguesa vasca" delakoari lehia egiteko³⁸². ESB ziur uste zuenez, "socialismo vasco" zeritzona EAJrentzat "un competidor irresistible" bihurtuko zen, euskal gizartearentzat alternatiba askoz ere progresistagoa eta europarragoa eskainiko baitzuen³⁸³. Horrenbestez, EHAS/HASiZ gain, ESB ere Herri Batasunaren sorrerarekin sakonki engaiatu zen partidua izan zen.

Esan bezala, 1977ko udazkenean independentistek proiektu autonomista bat aurkeztu zuten, parlamentariei lidergoa ebasteko helburuarekin. Herri Batasunak II. Errepublika garaiko estatutu proiektuak hartu zituen erreferentzia historiko bezala. 1931ko eta 1933ko estatutu proposamenen oinarrian udal ordezkarien batzarrak egon baitziren. Lehena gobernu ezkertiarrek baztertu zuen bere eduki klerikalarengatik. Bigarrena eskuina boterera iristean geldiarazi zen. Herri Batasuna koalizio bezala formalizatu zenean, 1978ko apirilaren 27an, euskal autonomia estatutua udal hauteskundeen ostean idatzi behar zela aldarrikatu zuen, horrek jarraipena ematen omen baitzion euskal tradizio historikoari³⁸⁴.

Koalizioak bai 1936ko estatutua eta bai erbesteko Euzko Jaurlaritza zaharrituta zeudela defendatzen zuen. 1970eko hamarkadan ezker abertzaleak zuen pisuak gaintuta, jada ez ei ziren baliozko erreferente politikoak. Aldi berean, 1960ko hamarkadan barnealdeko ELAk garatu zuen ideia ere bere egiten zuten. Uste zuten euskal estatutua espainiar konstituzioa baino lehen, edo gutxienez modu paraleloan, egin behar zela. Eta gainera, 1977ko hauteskundeetako emaitzak kontuan hartu gabe. Horrela ekidingo ziren, koalizio jaio berriaren arabera, "los intentos de imposición del proceso constituyente a nivel del Estado"³⁸⁵.

1975-1977 arteko mobilizazio antifrankista masiboen ostean, beren posizioak udal hauteskundeetan oso indartuta aterako zirela aurreikusten zuten. Izan ere, independentistak indarberrituta zeuden 1977ko udako amnistiaren aldeko mobilizazioen ostean. Parlamentuak ordezkartzarik gabe geratu izanaren pena beharrean, sentipen euforiko bat jaso zuten uda hartan. EAJ eta PSOE Askatasunaren Ibilaldia deitu zenaren

³⁸² ESB, «El fin de una época», *Ezkerra* 8 (1977): 3.

³⁸³ Ibid.

³⁸⁴ Egin, «"Herri Batasuna" se presentó ayer en Alsasua», *Egin*, 1978ko apirilaren 28a.

³⁸⁵ Ibid.

aurka agertu ziren, aldarrikatzen baitzuten euskal gizartearen ordezkari zilegi bakarrak parlamentariak zirela³⁸⁶. David Beorleguik bere ikerketan jaso dituen testigantzetatik honakoa ondorioztatzen du: "la cita transcurrió en medio de una fuerte euforia"³⁸⁷. Autore berberak azpimarratu egiten ditu "el enorme caudal de movilizaciones" eta "la radicalidad mostrada por los participantes" eta argudiatzen du bazirudiela independentistak eta ezker iraultzailea hauteskunderen osteko egoera zailari buelta ematen ari zirela³⁸⁸. Guk jasotako testigantzen artean Mikelek (Oñati, 1957) gogoratzen zuenez "hura izan zen ere oso momentu... bereizgarria", eta azpimarratzen ditu "oso, ez dakit... sentrazio onak izan genituen momentu hortan"³⁸⁹.

Kristiane Etxaluzek (Domintxaine, 1941) manifestarien eta poliziaren arteko banaketa adierazten du, Askatasunaren Ibilaldiaren azken eguneko zenbait usain eta soinu gogoratu, Iruñetik gertuko zelaietan: "gu hola joaten gira, eta beste alderditik gogoratzen naiz oso ondo kamioi bat guardia zibilekin. Zaldiekin. Zaldiak. Zaldien kaken usaina eta [zaldien irrintzia egiten du] badakik nola egiten duten zaldiak kamioietan. Orai. [Una] cosa. Nola bukatuko da hau?" Aldi berean, helarazten du sentrazio bat, zeinen arabera manifestari independentistek egiten zuten aurrera, eta gobernuak eta poliziak atzera: "bazen kontzientzia, genuen, urrats haundi bat egiten genuela gure independentziari buruz (...) polizia zegoen en la defensiva. Guk ez genuen armarik, baina estaban defendiéndose con... ulertzen? Hori sentitzen nuen"³⁹⁰.

Egun hartan Alfonso Pérez-Agotek jasotako apunteetan irakur daitekeenez, gehien oihukatu zena "independentzia!" eta "ETA herria zurekin!" izan zen, eta autoreak azpimarratzen du "una identificación afectiva de la gente con ETA"³⁹¹. Pérez-Agoteren analisisian, jende horrentzat ETAk mugimendu sozial bat eta herriaren batasuna irudikatzen zituen, espontaneoak eta naturalak bailitza³⁹². Sektore batzuek ETArekiko zuten sinpatari lotuta, Herri Batasunak bilatu zuen identifikazio eredu ere oso antzekoa izan zen, hurrengo atalean azalduko dugun moduan. Askatasunaren Ibilaldirako egin ziren pegatinetan subjektu homogeneoa, landatartua eta maskulinizatua irudikatu zen, ikurriña sinbolo nagusizat hartzen zuena.

³⁸⁶ Euzkadi Buru Batzar, «La marcha de la Libertad», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 32 (1977): 7.

³⁸⁷ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 101.

³⁸⁸ *Ibid.*, 99.

³⁸⁹ Autorearekin elkarrizketa (2017/08/01).

³⁹⁰ Autorearekin elkarrizketa (2017/07/05).

³⁹¹ Pérez-Agote, *La reproducción del nacionalismo...*, 227, 229.

³⁹² *Ibid.*, 229-30.

3.1 irudia. Askatasunaren Ibilaldiko pegatina (1977)



Iturria: Sancho el Sabio Fundazioaren Espainiar trantsizio politikoko pegatinen datu-basea

Formalki, Herri Batasuna espainiar prozesu konstituziogilearekiko modu paralelo batean proiektu politiko autonomista bat aurrera eramateko sortu zen. Eta horretarako udal hauteskundeak berehala deitzea exijitzen zuten. Beraien lehen hauteskunde kanpainako propagandak honako lema zuen: "Estatuto tras las municipales"³⁹³. Hala ere, aurretik azaldutakoa kontuan hartzen badugu, bai espainiar prozesu konstituziogileak bai Herri Batasunaren sorrerak erreforma politiko-administratibo huts batetik askoz haratago doazen esanahiak zituzten. Hurrengo atalean garatu dugun ideia da hori, aztertuz esanahi horiek aurretik landu ditugun metakontakizun nazionalekin zer nolako harremana zuten. Esanahi horiek ulertzeak lagunduko digu euskal eremu autonomiko bat sortu arte garatu zen prozesu politikoan jazo ziren tirabirak interpretatzen.

1936ko gerra atzean uzteko beharra

1977ko hauteskundeen ostean finkatu ziren espainiar alderdi handientzat (UCD, PSOE, AP eta PCE), Konstituzio proiektua eta Moncloako itunak (1977ko urria) ahalbidetu zituzten kontsentsu politikek Espainiaren berreraikitze nazionala sinbolizatzen zuten, krisi nazional garai luze baten ondoren³⁹⁴. Krisi horren jatorria II. Errepublika garaiko gatazka larrietan egon zela ulertzen zuten eta ondoriorik ankerrena Gerra Zibila izan zela, zeinaren ondoren frankismoa iritsi baitzen. Ikuspegi hori, hein handi batean, autoritateak frankismo garaiaren azken zatian hedatu zuten kontakizuna zen. Diktadura ordena berrezarri beharrarekin lotzen zuen eta ondorengo hazkunde ekonomikoa

³⁹³ Herri Batasuna, «Estatuto tras las municipales», *Egin*, 1979ko otsailaren 8a.

³⁹⁴ Laura Desfor Edles, *Symbol and ritual in the new Spain. The transition to democracy after Franco* (Cambridge: Cambridge University Press, 1998), 84-85.

ahalbidetzeko ordena hori beharrezkoa izan omen zen. Frankisten arabera, modernizazio ekonomikoaren ondoren modernizazio politikoa abiatu ahal izango zen, Europako mendebaldeko herrialdeekin erakagarria litzatekeen sistema politiko bat eraikiz. Horrela, gerrako garaipenaren zilegitasuna zalantzan jarri gabe, bazegoen proiektu erreformista bat martxan 1960ko hamarkadaren bukaeratik, adibide bezala de Gaulle-n Frantzia presidentzialista zuena. Frankismoaren ideia modernizatzaile eta europazale hura izan zen espainiar populazioaren zati handiak sostengatu zuena 1977an UCDren garaipenarekin, eta lehenagoko antifankistekin Konstituzioa adostu ahal izateko oinarrian egon zena³⁹⁵.

Frankismoaren azken zatiko kontakizun nazionala gerraosteko berbera ez zen bezala, antifrankisten kontakizuna ere aldatzen joan zen. Gerra galdu ostean erbesteratuek garatutako kontakizun liberal-europazalean, lehenagoko frankistekin adostutako akordioak espainiarren balizko kainismoa (anaien arteko borroka) gainditzea lortu zuten. Izan ere, kainismo hura izan ei zen Espainia europar nazio moderno bat bihurtzea ekidin zuena, XIX. eta XX. mendeetan zehar hiru gerra zibil latz izan baitziren. Kainismoa atzean utzita, Espainiak Europa mailan salbuespena izateari utzi zion, kontakizun nazional horren arabera.

Modu horretan, Espainiari buruz Konstituzioan ezarri zen definizioa, historian zehar identifika daitekeen izate esentzial bat bezala, frankismotik zetorren elitearen eta oposizioko alderdi nagusien buruzagien arteko akordioaren erdigunea izan zen. 1936ko gerraren bizipenetatik abiatuta historia hurbilari buruz batzuek eta besteek egin zituzten interpretazio nazionalistak egon ziren Espainia monarkia konstituzional bihurtzeko akordioen oinarrian³⁹⁶. Horrek, aldi berean, behartu egiten zituen PSOE eta PCE atzean uztera ordura arteko jarrerak, Espainia zenbait herri subiranok osatzearen ideari,

³⁹⁵ Fuertes Muñoz, *Viviendo en dictadura...*, 184-88; Patricia Arroyo Calderón eta Jesús Izquierdo Martín, «Españolitud: la subjetividad de la memoria frágil en la España reciente», hemen: *Pensar los Estudios Culturales desde España. Reflexiones fragmentadas*, ed. Patricia Arroyo et al. (Madrid: Verbum, 2012), 205-31; Jesús Izquierdo Martín, «'Que los muertos entierren a sus muertos'. Narrativa redentora y subjetividad en la España postfranquista», *Pandora. Revue d'études hispaniques* 12 (2014): 43-63; Pablo Sánchez León eta Jesús Izquierdo Martín, *La guerra que nos han contado y la que no. Memoria e historia de 1936 para el siglo XXI* (Madrid: Postmetropolis, 2017), 56-76; Gallego, *El mito de la Transición...*, 39-51.

³⁹⁶ Desfor Edles, *Symbol and ritual...*, 41-53.

autodeterminazio eskubideari eta ikuskera federalistari lotuta zeudenak hain zuzen ere³⁹⁷.

Gerra frankisten eta antifrakisten akordioaren bidez gaudituz zenaren espainiar ideia nazionalista hori ez zen hain eraginkorra izan Hego Euskal Herrian, ETAREN kontakizun nazionalak 1970eko hamarkadaren erdialderako lortua zuen eraginarengatik³⁹⁸. Nahiz eta horrek ez duen esan nahi euskal gizarteak ez zuela bere egiten gerrako garaile eta garaituen arteko zatiketa gainditzeko beharra. Ezberdintasuna zen gerra bukatutzat ematearen inguruko ideian, eragin handia zuela euskal metakontakizun nazionalak. EAJrentzat bakea euskaldunen eta espainiar koroaren arteko akordioarekin bakarrik iritsiko zen. Herri Batasunekoentzat, bakearen terminoak 1975ean Euskadiko Herriko Batzarrak proposatu zituenak ziren, 1976ko abuztutik KAS Alternatiba bezala birformulatu zirenak.

Halere, 1977ko hauteskundeek ezberdintasun argi bat eragin zuten EAJren eta batez ere ETA (militarra)-ren interpretazioei dagokienean. Hauteskundearen ostean EAJk adierazi zuen: "la guerra civil ha terminado"³⁹⁹. Beraz, geratzen zen bakarra bakearen terminoak adostea zen. ETA (militarra)-k egiten zuen irakurketan, aldiz, hauteskundeek helburu bakarra zuten: "perpetuar la dictadura militar"⁴⁰⁰. Horrenbestez, frankismoaren aurkako gerrak jarraitzen zuen eta ofentsiba militarra iragarri zuen, gobernuak KAS Alternatiba onartu arte. 1977ko urritik aurrera, ETA (militarra)-k hilketak pilatu zituen, batez ere espainiar konstituzioaren onarpena hurbiltzen zen heinean.

ETA (militarra)-ren oldarraldi biolento haren azalpenari dagokionez, espainiar kontsentsu konstituziogileari erantzun bezala azal daitekeela uste dugu. Hau da, kontsentsu hark ez zituen frankista ohiak solaskide bezala bakarrik onartzen, anaia parekide bezala baizik. Ideia hura erabat onartezina zen 1975-1977ko mobilizazio antifrakista erraldoiak gogoan zituen euskal gizartearen zati batentzat. Are gehiago kontuan hartzen badugu jarraitzen zutela 1936ko gerra euskal herri autonomo baten aurkako espainiar konkista bezala azaltzen. Hau da, ETA (militarra)-ren erretorika

³⁹⁷ Quiroga Fernández de Soto, «Coyunturas críticas. La izquierda y la idea de España durante la Transición», 26-27.

³⁹⁸ Desfor Edles, *Symbol and ritual ...*, 130-38.

³⁹⁹ Sixto Cámara, «Adiós Franco, adiós», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 30 (1977).

⁴⁰⁰ ETA (militarra), «Comunicado de ETA (militar) ante las elecciones», *EIA (Boletín Interno)* 5 (1977).

militarista Sabino Aranaren metakontakizun nazionalarekin lot daitekeen arren, bere praktikak askoz ere zerikusi gehiago zuen orduko espainiar testuinguru politikoarekin.

Azpinarratu beharreko beste kontu bat ETAREN kontakizun nazionalak bere baitan zuen konbentzimendu iraultzailea da, hots, gizateriaren etorkizun sozialista batekiko fedea. Geroago azalduko da ideia horren eragina Herri Batasunean, baina orain aipatu beharrekoa da ziurtasun iraultzaile hura indartu egin zela ETA (militar)-eko buruzagitzan ETA (politiko-militar)-etik zetozen 'bereziak' direlakoak sartu zirenean, 1977ko udazkenean⁴⁰¹. 1978ko hasieran ETAK bere burua "euskal langileriaren serbitzuko Abanguardia Armata" izendatu zuen⁴⁰². Atentatuen pilatzea konbentzimendu iraultzaile baten ondorio zen: euskal herritarren artean KAS Alternatibaren aldarrikapenak oso hedatuta zeuden eta beharrezko oldarraldi militar batek behartuko zuen berandu baino lehen gobernua aldarrikapen horiek onartzea. Izan ere, uste zuten oldarraldi militarrek gizartea polarizatuko zuela KAS Alternatiba sostengatzen zutenen aldera, eta gobernuak erantzun ezean, egoera iraultzaile bat eman zitekeela Hego Euskal Herrian⁴⁰³. ETA (militarra)-rekin zeuden bileretan HASI alderdiko ordezkaria zenak honela laburtzen zuen konbentzimendu iraultzaile hura: "leña, leña, leña. ¿Que no responden? Bueno, entonces ganamos la guerra"⁴⁰⁴.

Euskal herriaren eta gobernuaren arteko gerra bat zegoela uste zutenek argudioak topatzen zituzten zenbait gertaeratan. Gobernuak uko egiten zion independentzia beren estatutuetan aldarrikatzen zuten alderdiak legeztatzeari eta espainiar polizia protagonista izan zen 1978ko udan. Sanferminetan polizia Iruñeko zezen plazara sartu ostean gertatutako istiluetan ezker iraultzaileko militante gazte bat hil zuten, eta Iruñeko hilketarengatik egondako protestetan, beste gazte bat Donostian. Gertakari haien ondorioz deitu zen greba orokorraren egunean, polizia Erreterian agertu zen. *El País* egunkariak jaso zuenez, hiria erabat geldituta zegoen eta poliziaren jokabidea guztiz lekuz kanpo egon zen: "arrasaron (...) establecimientos públicos y domicilios privados (...) actuando vandálicamente"⁴⁰⁵.

⁴⁰¹ López Adán, *Biolentzia politikoaren memoriak...*, 115; Egin, «ETA berrantolatzen ari», *Egin*, 1977ko irailaren 29a; Alfonso Etxegarai, *La guerra del 58*, 2017 (Tafalla: Txalaparta, 2018), 48-49.

⁴⁰² ETA (militarra), «Acerca de la dictadura militar y la lucha armada», *Zutik!* 69 (1978): 49.

⁴⁰³ ETA (militarra), «Niveles de organización y métodos de integración en el seno del pueblo vasco, hoy», *Zutik!* 69 (1978): 37-48.

⁴⁰⁴ Natxo Arregi, *Memorias del KAS (1975-1978)* (Donostia: Hordago, 1981), 148.

⁴⁰⁵ Victorino Ruiz de Azua, «Actuación vandálica de una compañía de la Policía Armada Rentería», *El País*, 1978ko uztailearen 14a.

Tesi honetako lehen kapituluari adierazi dugu zer nolako garrantzia izan zuen erretorika militaristak Herri Batasunak espainiar konstituzioaren aurka egin zuen kanpainan. Baina azpimarratu beharrekoa da termino horiek harreman handia zutelako konstituzioaren inguruko kontsentsuarekin eta horrek gerra bukatutzat ematen zuelako ideiarekin. 1977-1978 artean, bai espainiar elite politiko berriaren partetik, bai EAJtik eta bai Herri Batasunetik, gerra eta bakeari buruzko diskurtsoak eraiki ziren, eta horien guztien helburua, orduan hartutako jarrera zehatzak bakoitzaren metakontakizun nazionalaren arabera azaltzea zen.

Testuinguru hartan, Herri Batasunak 1936ko estatu kolpearen aurkakoen eta gerra bukatutzat emateko modu bakarra gobernuak KAS Alternatiba onartzea zela uste zutenen ordezkari bezala aurkeztu zuen bere burua. Gertatu zena da gobernuak ekinbidea hartu zuela, Eusko Kontseilu Nagusia (Consejo General del País Vasco) sortu zuenean. Horrek eragin zuen koalizioaren lehen krisia, hurrengo atalean azalduko dugunez.

Bakea irudikatzeko lehia

Esan bezala, Espainiaren deszentralizazioaren ideia presente zegoen bai frankisten eta bai antifrankisten pentsamenduan. Hego Euskal Herria bezalako testuinguru hain industrializatu batean, 1970eko hamarkadaren bukaerarako enpresariak ere autonomiaren alde lerratu ziren, argudio ekonomikoekin: "pura eficiencia" eta "necesidad económica"⁴⁰⁶. Baina 1977ko hauteskundeetan ondoren ez zegoen zehaztuta nola sortuko ziren eskualde autonomoak Espainian. Are gehiago, oraindik erbesteko Euzko Jaurlaritza eta Generalitatea zeuden, biak ala biak Errepublika garaiko legediaren arabera sortuak. Suarezen gobernuaren estrategia eskualde bakoitzeko indar harremanen araberrako ekinbidea hartzea izan zen. Horrela, gobernuaren interesen araberrako denborak eta muga legalak markatu zituen, lehenago hauteskundeetarako deialdiarekin egin zuen bezala.

Katalunian 1977ko hauteskundeetan ezkerreko indarrek lortu zuten garaipen zabalaren ostean, gobernuak Josep Tarradellas (1899-1988) erbesteko presidentearekin negoziazioak azkartu zituen. Erbesteko Errepublikako gobernua behin desagertu zenean,

⁴⁰⁶ Cyrus Ernesto Zirakzadeh, «The Political Thought of Basque Businessmen, 1976-1980», hemen: *Basque Politics: a Case Study in Ethnic Nationalism*, ed. William A. Douglass (Reno: University of Nevada, 1985), 265-83.

eta Tarradellasen monarkiarekiko leialtasuna konprobatu ondoren, Suarezek kolpe ederra jo zuen. 1977ko iraileko Diada eguneko manifestazio handien ondoren, Errepublika garaiko gobernu autonomoa berrezarri zuen, nahiz eta horrek aurka egiten zion gobernuak ordura arte erabilitako argudiaketa legal guztiari⁴⁰⁷.

Suarezek horrelako erabaki bat hartu izanak, ordura arteko logika guztia aurkakotzen zuen eta bide ematen zien gobernuak akordio berezi baten bidez KAS Alternatiba onar zezakeela uste zutenei. Herri Batasunekoek gogoan zituzten 1978ko udaberrian hainbat buruzagik eginiko adierazpenak. Felipe Gonzalez oposizioko buruak adierazi zuen "soy partidario de negociar con ETA", eta Tarradellasek bere burua eskaini zuen ETA (militarra) eta gobernuaren artean bitartekari lana egiteko⁴⁰⁸. Jarraian hartu-eman batzuk gertatu ziren *La Hoja del Lunes* agerkariko José María Portell zuzendariaren eta KASeko ordezkarien artean. Azken horiek negoziazioak publikoak izatea exijitu omen zuten, jakitun Suarezen arrakasta negoziazio pribatu eta luzeetan oinarritu zela ordura arte. Hartu-emanek bukaera tragikoa izan zuten. ETA (militarra)-k kazetari bizkaitarra erail zuen ekainaren 28an eta, lau egun beranduago, beste aldearen bitartekari bezala aritu zen Juan José Etxabe *Haundixeren* aurkako atentatuan bere emaztea hil zuten⁴⁰⁹. Horrelako gertaerek euskal herriaren eta gobernuaren artean gerra bat zegoenaren ideia azpimarratzen zuten gizartearen zati batentzat.

ETA (militarra)-rekin zenbait kontaktu egon arren, Suarezen gobernuak euskal parlamentarien biltzarra hartu zuen solaskide bezala. Biltzarrak PNVren eta PSOEn artean adostutako testu bat onartua zuen 1977ko irailean, behin-behineko euskal gobernu bat proposatzen zuena. Parlamentarien testuan Espainia ez zen inondik inora aipatzen eta beren zilegitasuna argudiatzeko orduan, euskal erreferentziara jotzen zen: "la tradición inmemorial del autogobierno del pueblo vasco"⁴¹⁰. Erakunde konfederal baten sorrera proposatzen zuen, herrialde bakoitzeko hamarna ordezkariarekin, eta erakunde berriak ordena publikoaren kontrola bere gain hartzea. Araba, Bizkaia eta

⁴⁰⁷ Carme Molinero eta Pere Ysàs, *La cuestión catalana. Cataluña en la transición española* (Barcelona: Crítica, 2014), 51, 59, 175-76; Gallego, *El mito de la Transición...*, 457, 666, 686.

⁴⁰⁸ El País, «Felipe González, partidario de negociar con ETA», *El País*, 1978ko maiatzaren 16a; Alfons Quinta, «Entrevista Tarradellas-Leizaola, en Francia», *El País*, 1978ko maiatzaren 14a.

⁴⁰⁹ Iker Casanova, *ETA, 1958-2008. Medio siglo de historia* (Tafalla: Txalaparta, 2007), 230.

⁴¹⁰ Tamayo Solaberría, *La autonomía vasca contemporánea...*, 115-16.

Gipuzkoako biltzar nagusiak eta Nafarroako foru kontseilua ere berritzea proposatzen zuten, 1977ko hauteskundeetako emaitzen arabera osatuz⁴¹¹.

Nafarroako UCDko parlamentariak eta foru aldundiak —1973an aukeratua, artean Franco bizirik zela—, Nafarroak erakunde berrian parte hartzearen aurkako iritzia plazaratu zuten. Foru aldundiko presidenteordea —legez presidentea espainiar erregea zen— Amadeo Marco (1900-1987) zen. Gerran erreketean kapitaina izan zen eta Foru Aldundiko kide zen 1940tik. Horregatik, bere irudia pertsonaia frankista eta atzerakoi batena zen. Nafarroak behin-behineko euskal gobernu batean parte ez hartzea legeari erreferentzia eginez argudiatu zuen. Argudiaketa horren arabera, espainiar gorteekein egin bezala, zeuden erakundeak berritzea zen egin beharreko gauza bakarra, erakunde berriak sortu beharrean. Argudiatze hura UCDko parlamentaria zen Jaime Ignacio del Burgok (Iruñea, 1942) garatu zuen. Hark erretorika espainiar nazionalista esplizitu batekin aldarrikatzen zuenez, Nafarroa jada erakunde autonomo bat zen frankismo garaian, beraz legearen arabera absurdo bat zen herrialdeak erakunde autonomo berri batean parte hartzea⁴¹².

Nahiz eta gerora Nafarroaren euskalduntasunari buruzko erreferentziak desagertu ziren, 1977an zehar Nafarroako UCDk bere argudiaketaren zati bezala hartu zituen. Agian oposizioaren presiopean, izan ere, nahiz eta parlamentarien gehiengoa eskuratu, UCDk Nafarroako bozen %28a bakarrik lortu zuen eta euskal autonomian parte hartzearen aldekoek %55a⁴¹³. 1977ko abuztuan del Burgok argudiatzen zuenez, "Euskadi tiene unas connotaciones separatistas que impiden nuestra adhesión" eta, horregatik, "nuestro primitivo origen vascónico" ezin zen erabili Nafarroak euskal autonomian parte hartzeko argudio bezala⁴¹⁴. Nafarroako UCDren parlamentaria zen Pedro Pegenaute (Mélida, 1948) asaldatuta ageri zen, norbaitek aurpegiatzekotan "que nosotros somos obstáculo para la unión del Pueblo Vasco. Insisto e insistimos mil veces: nosotros somos vascos, vasquistas, pero se debe respetar la personalidad de Navarra"⁴¹⁵. Gauzak horrela, Amadeo Marcok gobernuari azaldu zionez, "Navarra es tan vasca como pueden

⁴¹¹ Ibid.

⁴¹² Baraibar Etxeberria, *Extraño federalismo...*, 99-100, 331-33; J. Javier Nagore Yarnoz, *Historia del Fuero Nuevo de Navarra* (Pamplona: Gobierno de Navarra, 1994), 503-6; Floren Aoiz, *El jarrón roto. La transición en Navarra: una cuestión de Estado* (Tafalla: Txalaparta, 2005), 86-90, 191-202.

⁴¹³ Fermín Goñi, «Oposición y parlamentarios de UCD, enfrentados por la cuestión autonómica navarra», *El País*, 1977ko abuztuaren 5a.

⁴¹⁴ Jaime Ignacio del Burgo, «En defensa de la identidad de Navarra», *El País*, 1977ko abuztuaren 2a.

⁴¹⁵ Landaberea Abad, *Los «nosotros» en la Transición...*, 195.

serlo Álava, Guipúzcoa y Vizcaya", baina Nafarroak ezin zuen parte hartu Hego Euskal Herri autonomo batean⁴¹⁶.

Azkenean gobernuak bi dekretu argitaratu zituen 1978ko urtarrilean. Batetik Eusko Kontseilu Nagusia sortu zuen eta bestetik, Nafarroa behin-behineko gobernu horretara batzeko baldintzak zehaztu zituen. Parlamentarien proposamenak ez bezala, gobernuaren dekretuek baztertu egin zen ganbera legegileak sortzea eta Eusko Kontseilu Nagusian 1977an aukeratutako parlamentarien bakarrik parte hartuko zutela xedatzen zuten. Gainera, herrialde bakoitzeko parlamentariak erabakiko zuten erakunde berrian parte hartzea edo ez, praktikan Nafarroa kanpo geratuko zela esan nahi zuena. Parlamentarien testuak ez bezala, dekretuek ordena publikoa gobernuaren esku mantentzen zuten eta Espainiaren "indiscutible unidad" delakoa azpimarratzen zuten, honakoa nabarmenduz: "el pueblo vasco tiene la aspiración de poseer instituciones propias" baina beti ere "dentro de la unidad de España" eta onartzeke zegoen konstituzioa zalantzan jartzen ez zen neurrian⁴¹⁷. Alderdi independentistek eta ezker iraultzaileak Nafarroarik gabe inolako erakunderik ezin zela onartu aldarrikatu zuten, Nafarroa euskal nazioaren zati banaezintzat ulertzen baitzuten. Nafarroako UCDko parlamentariak eta foru aldundi frankistak zuten beto eskubidea onartu ezinezko amore ematea zela argudiatzen zuten⁴¹⁸.

Bere aldetik, EAJk Suarezren estrategia arrakastatsua imitatzea aukeratu zuen. Gobernuaren arrakastaren gakoa, jada bazeuden erakundeak egon zitezkeen bakarrak zirela sinetsaraztea izan zen. Are gehiago, erakunde horiek zirela bakearen berme bakarra. Ikuspegi horretatik, erreforma politikoa zalantzan jartzea, hau da, haustura demokratikoa eskatzea, bakearen oinarriak zalantzan jartzea zen iritzi publikoari begira. EAJk ere zeuden erakundeen aldeko apustua egin zuen, gobernuaren dekretuen onarpena bakea lortzeko berme bakarra zirela argudiatuz. Izan ere, aldi berean bazegoen pertzepzio bat, Ramon Saizarbitoriak eta Koldo Izagirrek jasotzen zutena beren *Zeruko Argiako* asteroko zutabearen: "—ETA herria zurekin— oihuak inoiz baino indar handiagoa hartu du, itxuraz behintzat. Lehen isilean gordetzen zena kalean aldarrikatzen

⁴¹⁶ Baraibar Etxeberria, *Extraño federalismo...*, 143.

⁴¹⁷ Boletín Oficial del Estado, «Real Decreto Ley 1/1978, de 4 de enero, por el que se aprueba el régimen preautonómico para el País Vasco» 5 (1978): 326-27.

⁴¹⁸ Egin, «ANV, ESB, HASI y LAIA se definen ante el preautonómico», *Egin*, 1978ko urtarrilaren 10a; Egin, «EMK se define ante la situación actual del preautonómico», *Egin*, 1978ko urtarrilaren 10a; Egin, «Los extraparlamentarios navarros por la mayoría simple», *Egin*, 1978ko urtarrilaren 11.

da gaur. Borroka harmatuak, inanizoz hiltzera zihoala zirudienean, laudorio eta txalo gehiago sor erazten"⁴¹⁹.

Testuinguru horretan, EAJ gerrari eta frankismoari buruzko bere kontakizuna moldatzen joan zen 1977tik. Alde batetik, 1936ko gudarien irudia goratu zuen eta Gudari Egunaren hariko propaganda handitu zuen. 1964tik ospatzen zuten urriaren 15aren osteko lehen igandean, Santoñan 1937an fusilatutakoen omenez⁴²⁰. Diktaduraren garaian ETaren aurka egin zituzten kritika pribatu eta publiko gogorrak alboratuz, 1977ko bukaeran EAJk frankismo garaiko ETako militanteak bere kontakizun nazionalean txertatu zituen. Aldarrikatu zutenez, "su aparición fue más que justificada" eta erakunde armatuak "desde luego, se ha ganado un puesto en la historia vasca"⁴²¹. Bestetik, EAJk argudiatu zuen jada euskal parlamentarien biltzarra martxan zegoenetik ETak ez zuela "nada que ver con su actividad originaria"⁴²². Are gehiago, ETak jada ez zituen euskaldunen interesak babesten, izan ere "estos nuevos 'super-abertzales' son marxistas". Eta EAE-ANV ere larrutzen zuten, Herri Batasunaren sorreran parte hartuta demostratu omen baitzuen beti joan izana "chupando rueda detrás del bloque de izquierda españolista"⁴²³.

Modu horretan, EAJk erabat alboratu zuen 1977ko hasierako erretorika ezkertiarra eta ETaren kontra lehenago erabili zuen mezu kontserbadorea berreskuratu zuen. Horretarako ekuazio hirukoitz bat mahaigaineratu zuen, berdindu egiten zituena gobernuak eskainitako behin-behineko euskal gobernu onartzea, euskaldunen eta Espainiaren artean bakea lortzea eta egonkortasun ekonomikoa mantentzea. EAJ haserre ageri zen: "a quién van a ayudar las manifestaciones ruidosas, los desperfectos en los patrimonios privados, la violencia y la huelga"⁴²⁴. Eta alderdiaren zuzendaritzak honela laburbiltzen zuen 1977tik aurrerako ETaren aurkako jarrera berritua: "Euzkadi necesita hoy la Autonomía para su propia reconstrucción nacional, y precisa, muy especialmente,

⁴¹⁹ Ramón Saizarbitoria eta Koldo Izagirre, «Claudia Cardinaleren dezeptioa», *Zeruko Argia* 770 (1978): 32-33.

⁴²⁰ «El día del gudari», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 45 (1977): 6.

⁴²¹ Pedro Mari de Pagobakarra, «Pueblo Vasco y violencia», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 51 (1977): 3.

⁴²² Txemi Akesolo, «Euzko gudariak gera...», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 75 (1978): 16.

⁴²³ Mendi, «A vueltas con el 'nacionalismo burgués'», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 76 (1978): 14-15.

⁴²⁴ Mendarozketa, «El efecto boomerang de la violencia», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 63 (1978): 19.

fortalecer y recuperar sus bases económicas, seriamente deterioradas en los últimos tiempos. La actitud de ETA representa un claro obstáculo"⁴²⁵.

Gauzak horrela, 1978ko otsailean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako parlamentariak Eusko Kontseilu Nagusia eratu zuten. Presidente bezala Ramón Rubial (1906-1999) aukeratu zuten, gerra garaiko miliziano sozialista eta antifrankista historikoa, PSOE eta UCDez bozekin. UCDez antifrankista zahar bat sostengatu izana beste hautagairik aurkeztu gabe adierazten du zein indar harreman ezberdina zegoen euskal eremuan, eta zein punturarte zeukaten erakunde berriek beste zentzu bat Hego Euskal Herrian. Presidenterako beste hautagaia, EAJren aukera, beste antifrankista historikoa bat zen: Juan Ajuriaguerra (1903-1978). Bere hautagaia baztertua geratu zenean, EAJren eta espainiar alderdi handien arteko mesfidantza handitu zen, kontuan hartuta jeltzaleek nolabaiteko bazterketa sentipen bat garatu zutela Konstituzio proiektua idatzi zuen ponentziatik kanpo geratu zirenetik.

Eusko Kontseilu Nagusia martxan jartzean, independentisten udal hauteskundeetarako koalizioan lehen krisia eman zen. EIAk Altsasuko Mahaiko bileretan parte hartzeari utzi zion eta Kontseilu Nagusian parte hartzea adostu zuen, Juan Mari Bandres senatariaren bitartez. Erabaki hark, bide batez, EMK alderdiak Euskadiko Ezkerra koaliziotik alde egitea ekarri zuen. Aldi berean, HASIko zuzendaritzan zatiketa gertatu zen. Batzuek behin Kontseilu Nagusia martxan jarrita, berori sostengatzea eskatzen zuten, Altsasuko Mahaia politikoki isolatuta gera ez zedin. Besteek, aldiz, egin beharrekoa ETA (militarra)-ren abangoardiako kanpaina sostengatu behar zela defendatzen zuten. Krisia HASIren I Kongresuko eztabaida gogorrekini bukatu zen, 1978ko maiatzean. Eta zuzendaritzaren zati handi batek alderdia utzi zuen, handik gutxira Euskadiko Ezkerreko kide izatera pasatuz⁴²⁶

Horrela, Eusko Kontseilu Nagusian parte hartzeari uko egiten zioten lau alderdien koalizio bezala finkatu zen Herri Batasuna: EAE-ANV, ESB, HASI eta LAIA. Mantendu egiten zuten euskal autonomiarako estatutua udal hauteskundeen ostean egin behar zela eta gobernuak KAS Alternatiba onartu behar zuela. Baina Kontseilu Nagusia abiatu ostean eta EAJren ETArekin aurkako kontakizun berritua indartzean, koalizioa

⁴²⁵ Euzkadi Buru Batzar, «El Partido y la violencia», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 53 (1977).

⁴²⁶ HASI, «Hegoaldeko Ordezkaritzaren Barneagerkaria» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1978); HASI, «Programa revolucionario», *Eztabaidan* 7 (1978); HASI, «Crítica y autocrítica», *Eztabaidan* 7 (1978).

politikoki erabat baztertuta geratzeko aukerak handiak ziren. Herri Batasunak derrigortuta ikusi zuen bere burua ETA (militarra)-ren eta gobernuaren artean akordio bat lortzeko aukerak azpimarratzen zituen irudi bat eraikitza, horrela aldi berean euskalduntasuna eta bakezaletasuna irudikatzeko EAJ eraikitzen ari zen diskurtsoa zalantzan jarritz.

1978ko urrian Herri Batasunerako Laguntza Batzordea (Junta de Apoyo) aurkeztu zen. Zuzenean koalizioaren zuzendaritzan parte hartzera igaro ziren hamabi gizonak osatuta zegoen. Ezagunenak ziren Jon Idigoras sindikalista, bere lanpostua utzi zuena Herri Batasuneko bozeramaile bihurtzeko; Jose Angel Iribar (Zarautz, 1943), Ahtleticeko atezaina; Francisco Letamendia, diputatua; Xabier Añua (Gasteiz, 1935), abokatua eta saskibaloitza entrenatzailea; Xabier Sánchez Erauskin (Gasteiz, 1935), *Punto y Hora de Euskalherria* astekariko zuzendaria; Telesforo Monzon, gerra garaian Euzko Jaurlaritzako kontseilaria; Jokin Gorostidi (1944-2006), Burgosko Prozesuan kondenatua eta Jose Luis Elgoro (Elgeta, 1935), Bergarako alkatea. Zerrenda osatzen zutenak ziren Xabier Palacios, unibertsitateko irakaslea; Patxi Zabaleta (Leitza, 1947), abokatua; Josu Goia (1947-2018), ekintzaile kulturala eta Xabier Aguado, Erriberako idazlea. Laguntza Batzordea aurkeztu zen egunean, beste zenbait gizon ezagunek ere Herri Batasuna sostengatzen zutela adierazi zuten antolatzaileek: Antton Ezeiza zinema zuzendaria, Henrike Knörr hizkuntzalaria, Pedro Larumbe legelaria eta Ramón Bajo senataria⁴²⁷.

Herri Batasunerako Laguntza Batzordea koalizio gaztearentzako berebiziko hauspoa izan zen. Laguntza Batzordeak Herri Batasunari irudi berri bat eman zion, euskal gizarte zibilaren ordezkari zabalak biltzen, eta hauteskunde koalizio izaerari garrantzia kendu zion. 1970eko hamarkadaren erdialdeko antifrankismoaren batasun irudiarekin lotzen zuen Herri Batasuna. Hain zuzen ere, 1978an oraindik oposizioaren batasun hartatik zetozen zenbait dinamika gorpuztu ziren unean, esaterako Bai Euskarari kanpaina edo Bilboko jai herrikoien antolaketa eredu arrakastatsua⁴²⁸. Gainera, mugaz gaindiko euskarazko musikagintza borbor zegoen eta nahi eta nahiez ordurako berori euskal abertzaletasunari lotuta ulertzen zen. 1978an disko berriak plazaratu zituzten Gorka Knörr (Tarragona, 1950) eta Urko (Donostia, 1948) kantautore gazteagoek, baita

⁴²⁷ Egin, «Junta de Apoyo para Herri Batasuna», 1978ko urriaren 20a.

⁴²⁸ Raúl López Romo, «¿Espacios libres en (la) transición? La primera Semana Grande de Bilbao», *Inguruak* 64 (2018): 41-62.

Erramun Martikorenak (Baigorri, 1943) eta Errobik ere. Hala nola Sakre eta Itoiz talde berriek.

Azpimarratu behar da, bestalde, 1978an bi idazle talde egituratu zirela Pott Bandaren eta *Oh! Euzkadi* aldizkariaren inguruan, lehena Bilbon eta bigarrena Donostian eta idazle haiek euskarazko literaturaren berritze estilistikoa sustatu zutelako. *Oh! Euzkadi* Euskadiko Ezkerraren hurbilekoagoa zen eta zenbait emakume idazlek ere parte hartzen zuten, esaterako Arantxa Urretabizkaiak (Donostia, 1947) eta Lourdes Oñederrak (Donostia, 1958). Pott Bandari dagokionez, beraien abangoardiazko proposamena Latinoamerikako idazleen eraginpean zegoen eta erreferentetzat zituzten Gabriel García Márquez eta Borges, bai eta Guy Deborden filosofia ere⁴²⁹. Pott Bandako kideak —Bernardo Atxaga, Jon Juaristi (Bilbo, 1951), Joxemari Iturralde (Tolosa, 1951), Ruper Ordorika (Oñati, 1956) eta Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958)— euskarazko literaturaren erreferente garrantzitsu bihurtu ziren eta gainera, erakundeen inguruko diskurtso ironikoa eta kritikoa hedatu zuten, ondorengo pasartean jasotzen den bezala:

Euskadi Ofiziala sarritan deitu izan dudana errealitate boteretsu bihurtzen ari da azkenaldi honetan. Euskadi Ofiziala, España ttiki bat. Euskal polizia, euskal katedratikoak, euskal eliza eta euskal tituloak. Euskadi ofiziala, sustantiboa dagoen bezala utziz, adjetiboaz kezkatzen da bakar bakarrik. Horregatik behar dira, euskal star literatoak. Batzuk horretara prestatuko dira, noski. Borrokatuko gara posturen bat hartzen⁴³⁰.

Euskararen aldeko mobilizazio handien eta euskarazko kulturaren goraldi haren testuinguruan, Herri Batasunerako Laguntza Batzordeak horrela adierazi zuen bere egiteko nagusia: "contribuir de un modo eficaz a la paz en Euskadi"⁴³¹. 1977-1978 artean espainiar politikan inplizitua zegoen sinbolismoaren baitan kokatzen zuen bere burua eta bakearen eragile bezala aldarrikatzen zuen. Herri Batasunak ezberdintasun dikotomiko bat egiten euskal herri homogeneoki antifrankista baten ondorengo eta frankista ohien proposamena onartu zuten artean. Eta dikotomia horrek bere irudi publikoa ere baldintzatu zuen. Erabilitako karteak eta logoak —zuri-beltzeko ikurriña— onen eta gaiztoen mezu manikeoa errepikatzen zuten: edo herriarekin, edo herriaren kontra. Eta tipografiaren lerro zuzenek eta estilo soilak gizentasuna,

⁴²⁹ Sarasola, *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi*, 62-118; Jon Kortazar, *Pott Banda* (Bilbao: Bilboko Udala, 2003).

⁴³⁰ Pott bandako apatrida, «Poema liburu batetarako hitzaurregai bat», *Pott Bandaren Berriemailea* 3.

⁴³¹ Egin, «Junta de Apoyo...

seriotasuna eta zintzotasun morala adierazten zuten, gainontzeko alderdien kolore eta forma anitzen aurrean.

3.2 irudia. Herri Batasuneko pegatina Konstituzioaren erreferendumeko kanpainan (1978)



Iturria: Sancho el Sabio Fundazioaren Espainiar trantsizio politikoko pegatinen datu-basea

3.3 irudia. Herri Batasunaren kartela parlamenturako hauteskundeetan (1980)



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa.

Bestalde, Herri Batasunerako Laguntza Batzordeak hartu zuen garrantziak, ETA (militarra)-ren sostenguarekin, koalizioan alderdien pisua indartzeko helburua zuten bi proiektu geldiarazi zituen hein handi batean. 1978ko uztailean ESB eta EAE-ANV alderdiek Euskal Sozialista Ekintza osatu zuten. Koalizioko beste bi alderdi kideen diskurtso iraultzailearekin distantzia ezarririk, alderdi bateratuaren helburua Herri

Batasunera hurbiltzea zen "el sector de la clase obrera que gira en torno al PNV"⁴³². Baina EAE-ANVko militantziaren sektore bat sigla historikoak desagertzearen aurka agertu zen. Salatu zuten alderdi berria "marxista e internacionalista" zela eta, gainera, ESBk 1977ko hauteskunde porrotaren ostean pilatutako zorra jasoko zuela⁴³³.

Bateratzearen aurkako taldeak Gonzalo Nárdizen (1905-2003) sostengua lortu zuen, erbesteko Euzko Jaurlaritzako kontseilariarena hain zuzen. Horregatik, ANV (sector histórico) bezala ezagutu ziren. Alderdi bateratua, bere bidetik, saiatu zen erbesteko Euzko Jaurlaritzan bere hautagaia ezartzen: Josu Aizpurua (Bilbo, 1946). Baina Leizaola lendakariak ez zuen proposamena onartu⁴³⁴. Herri Batasunak erbesteko Euzko Jaurlaritzan eskua sartzeko aukera galduta eta alde egindakoek ANV siglak monopolizatzeo beldurrak eraginda, azkenean EAE-ANVk bertan behera utzi zuen ESBrekin bateratzea⁴³⁵. HASiren eta LAIaren arteko konbergentzia prozesu bat ere aurkeztu zen, baina ez zen inoiz martxan jarri⁴³⁶.

Konstituzioaren onarpenak frankisten eta antifrankisten arteko bakearen zentzua bazuen, 1978ko bukaeran alderdi euskal nazionalistak lehian ari ziren, ea nork bereganatuko zuen euskal herriaren eta bere inguruko mito bakezalearen irudia. Uda hartan zehar, EAJ saiatu zen parlamentuan euskal herria eta espainiar monarkiaren arteko ituna modu batean edo bestean jasotzen. Horrela, Konstituzioaren onarpena euskal metakontakizun nazionalean txertatu ahalko zuten eta Espainia eta euskal nazioaren arteko bake akordioa bezala aurkeztu, aldi berean ETA (militarra)-ri eta Herri Batasunari zilegitasuna kenduz.

EAJko, PSOEko eta UCDko parlamentarien arteko etengabeko eztabaiden eta gauzatu ez ziren behin-behineko akordioen ondoren, azkenean Konstituzioak 1839ko eta 1876ko

⁴³² Egin, «Ayer se presentó en Bilbao Euskal Sozialista Ekintza (ANV-ESB)», *Egin*, 1978ko ekainaren 24a.

⁴³³ Egin, «Un sector de ANV se muestra contrario a la unión con ESB», *Egin*, 1978ko abuztuaren 6a.

⁴³⁴ Egin, «El ejecutivo de ANV-ESB a punto de constituirse», *Egin*, 1978ko irailaren 20a; Egin, «ANV llama al orden a su representante en el Gobierno Vasco», *Egin*, 1978ko irailaren 12a; Jon Penche, *Gonzalo Nardiz (1905-2003)* (Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2016), 118-19.

⁴³⁵ Egin, «Valentín Solasgaistúa propone una manifestación "Por la paz en Euskadi"», *Egin*, 1978ko abenduaren 16a; Egin, «ANV-ESB explica por qué han detenido el proceso de fusión de ambos», *Egin*, 1978ko abenduaren 13a; Egin, «ANV-EAE convoca asamblea nacional mañana en Guernica», *Egin*, 1978ko abenduaren 16a.

⁴³⁶ Egin, «Proceso de convergencia política en KAS», *Egin*, 1978ko apirilaren 26a.

legen deuseztapena jaso zuen⁴³⁷. Lege haiek Hego Euskal Herriko legedia espainiar Konstituzioaren azpian ezarria zuten. 1978ko Konstituzioak honako disposapen gehigarria jaso zuen: "Konstituzioak babestu eta onartzen ditu forudun lurraldetako eskubide historikoak"⁴³⁸. Eta jarraian zehazten zuen beste hau: "Forudun errejimenaren gaurkotze orokorra, dagokionean, Konstituzio eta Autonomia Estatuaren barnean egingo da"⁴³⁹. Beraz, praktikan euskal autonomia Konstituzioaz haratago ezin zela existitu azpimarratzen zuen, hau da, 1839ko eta 1876ko legeen derogazioa erabat sinbolikoa zen. Hura ez zen nahikoa izan EAJrentzat eta alderdiko buruzagitzak haserre hitz egin zuen azken erredakzio hari buruz: "una farsa. Hubiera sido igual no aludir a los derechos forales"⁴⁴⁰.

Konstituzioaren onarpena parlamentuan gauzatu baino egun batzuk lehenago, eta ETA (militarra)-ren hilketa olatu baten erdian, EAJk 1978ko urriaren 28rako manifestazioa deitu zuen "por una Euskadi libre y pacífica", honakoa ziurtatzen baitzuten jeltzaleek: "nos sentimos intérpretes (...) de la gran mayoría del pueblo vasco"⁴⁴¹. EAJren lidergo politikoak PSOE, PCE, ORT, PTE eta EKA alderdiek mobilizazioan parte hartzea eragin zuen. Baita UCD manifestaziotik at utzi izana ere, nahiz eta gobernuko alderdiak parte hartu nahi izan zuen. EAJ sendotu nahian zebilen kontakizun nazionalean, euskaldunen eta espainiarren arteko bake akordioa sinatu behar zen eta, horrenbestez, Espainiako gobernuko alderdia ezin zen aldi berean euskaldunen ordezkari izan⁴⁴².

Herri Batasunaren erantzuna egun eta ordu berean beste manifestazio bat deitzea izan zen 'atzo eta gaurko gudarien alde'. Horrela gerra egon bazegoela azpimarratzen zuten, bai eta ETA (militarra)-ri babesa ere, nabarmenduz UCDko gobernuak erakunde armatu horrekin adostu behar zuela bakea⁴⁴³. Poliziak Herri Batasunaren manifestazioa kolpeka ekidin zuen, EAJrena bakean joan zen bitartean. Egun hartan Herri Batasunaren

⁴³⁷ Gregorio Monreal Zia, «La disposición adicional primera de la Constitución de 1978 en las Cortes», *Iura Vasconiae* 11 (2014): 239-386; Miguel Herrero de Miñón, «El paso de la disposición adicional primera por el congreso», *Iura Vasconiae* 11 (2014): 223-38; Konstituzio Espainiako, «Disposapen derogatzailea», *Boletín Oficial del Estado* 321, 1978ko abenduaren 29a: 29424.

⁴³⁸ Konstituzio Espainiako, «Disposapen gehigarria lehena», *Boletín Oficial del Estado* 321, 1978ko abenduaren 29a: 29423-24.

⁴³⁹ Ibid.

⁴⁴⁰ Fermín Goñi, «El PNV defiende su reivindicación foral mínima», *El País*, 1978ko urriaren 11.

⁴⁴¹ «Por qué se ha convocado la Manifestación del día 28», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 97 (1978): 9.

⁴⁴² Javier Angulo, «UCD apoya la manifestación antiterrorista de Bilbao», *El País*, 1978ko urriaren 26a.

⁴⁴³ Jesús Ceberio, «Los partidos abertzales se manifestarán mañana a la misma hora que el PNV», *El País*, 1978ko urriaren 27a.

diskurtso belikoa indartu zen —bide batez, baita bakeari lotutako EAJren irudia ere— eta gobernuaren eta poliziaren aurkako koalizio bezala irudikatuta geratu zen⁴⁴⁴.

Konstituzioa erreferendum bidez berretsi zenean, 1978ko abenduaren 6an, Herri Batasunaren posizioa ez zen aldatu. Erreferendumean abstentzioa eskatu zuten EAJk, ESEIk, EMKk, EKE/OICK eta PTEren euskal adarrak, bai eta erbesteko errepublikazaleen oinordeko zen ARDE alderdiak ere. Euskadiko Ezkerrak aurkako boza eskatu zuen eta Herri Batasunak, nahiz eta ofizialki ezezkoaren alde lerratu, ontzat eman zuen abstentzioa. Hego Euskal Herriko eta gainontzeko espainiar eskualdeetako emaitzak konparatuz gero, zenbait ezberdintasun azpimarra daitezke. Esaterako, gainontzeko eskualdeetan konstituzioaren aldeko botoak gehiago izan ziren, konstituzioa sostengatu zuten alderdiek aurreko urtean ateratakoak baino. Hego Euskal Herrian alderantziz gertatu zen. Eta gainontzeko eremuaren kasuan konstituzioaren sostengua erroldatuen %60ra iritsi bazen, Hego Euskal Herrian Nafarroan bakarrik gaudituzuen sostengu hark %50a, doi-doi. Herri Batasuna pozarren agertu zen emaitzen ostean:

el pueblo vasco ha rechazado la Constitución española de 1978 y, puesto que ésta era la culminación y resumen final del proceso de reforma [política de Suarez], puede afirmarse que el pueblo trabajador vasco ha rechazado claramente este proceso⁴⁴⁵.

Independentzia zaleek 1977ko parlamentariak prestatutako euskal autonomia estatutu proposamena bertan behera gera zedin eskatu zuten eta berriro exijitu zuten "convocatoria inmediata de elecciones municipales en Euskadi como única salida"⁴⁴⁶. Ekinbide politikoa hartzea deliberatu zuten, sinetsita orduan bai, gobernuak men egin eta KAS Alternatiba onartuko zuela. Abenduaren 23rako manifestazio bat deitu zuten Bilbon: "Por la paz en Euskadi"⁴⁴⁷.

Mezu bakezale hark estropozu egin zuen 1978ko abenduaren 21ean, espainiar zerbitzu sekretuen parte hartzearekin antolatutako atentatu batean Jose Miguel Beñaran *Argala* (1949-1978) ETA (militar)-eko buruzagia erail zutenean⁴⁴⁸. Bilboko manifestazioa

⁴⁴⁴ El País, «Treinta y cinco mil personas en la manifestación convocada por el PNV», *El País*, 1978ko urriaren 29a; El País, «La manifestación abertzale, abortada por la fuerza pública», *El País*, 1978ko urriaren 29a.

⁴⁴⁵ Egin, «Herri Batasuna pide la congelación de los proyectos constituyentes», *Egin*, 1978ko abenduaren 8a.

⁴⁴⁶ Ibid.

⁴⁴⁷ Egin, «Valentín Solasgaistúa propone...

⁴⁴⁸ Casals, *La Transición española...*, 121-22.

bertan behera geratu zen eta herri bakezale mobilizatu baten irudia beharrean, Arrigorriagako irudi hunkigarriak jarri ziren lehen lerroan. Gabon-egunez, hiria poliziak erabat itxita, Arrigorriagako kale hutsetan barrena eraman zuten *Argalaren* hilotza bere senideek eta Herri Batasuneko buruzagiek. Horrela, *Argala* Herri Batasunaren inguruan egituratzen ari zen oinarri sozialaren lehen martirra bihurtu zen. Eta bere irudiaren gurtza oso faktore garrantzitsua izan zen garatzen ari zen kultura politikoaren kohesiorako eta ETA (militarra)-rekiko atxikimendurako⁴⁴⁹.

1978an zehar, Herri Batasunaren irudia gerra/bakea binomioan oinarritu zen. Horrek espainiar elite politiko berriaren kontsentsua barneratzeke moduarekin zuen batez ere harremana, konstituzioaren onarpenak frankista eta antifrankista ohien artean bake akordio bat egon zela irudikatzen baitzuen. Aldi berean, Herri Batasunak argudiatzen zuen euskal estatutu proposamena udal hauteskundeen ostean egin behar zela. Baina, hurrengo atalean azalduko dugun, Espainia mailan konstituzioak izan zuen onarpen zabalak eta ondoren EAJren eta UCDren artean euskal estatutuari buruz eman zen akordioak, Herri Batasunaren aurreikuspenak aldatu zituen eta bere diskurtsoa, proiektua eta irudia egokitzea behartu zuten.

Independentisten proiektuaren aldaketa

1978ko abenduaren 29an, Gernikan antolatutako ekitaldi solemne batean, euskal parlamentarien biltzarrak Eusko Kontseilu Nagusiaren aginduz idatzitako estatutu proposamena onartu zuen. Gernikako estatutu proposamena gehiengo zabalarekin onartu zen. UCDko bi parlamentarik eta APEkoak ez zuten bozkatu eta kontrako boza eman zuen Patxi Iturriozek (1937-2002). Azken hura EMK alderdiko buruzagia zen eta Euskadiko Ezkerrako parlamentari bezala Letamendia ordezkatu zuen, hark bere postuari uko egin zionean Konstituzioa gortetan onartzearekin batera. Parlamentariaren gehiengoak onartutako testuak adierazten zuen: "el pueblo vasco o Euskal-Herria, como expresión de su realidad nacional (...) se constituye en Comunidad Autónoma (...) de acuerdo con la Constitución"⁴⁵⁰. Euskara "lengua nacional" bezala definitzen zuen eta, behin-behineko euskal gobernuaren proiektuan bezala, Espainia ez zen inondik inora ageri⁴⁵¹. Testua onartu ondoren PSOEek erbesteko Euzko Jaurlaritza utzi zuen. Halere,

⁴⁴⁹ Jesús María Casquete Badallo, «Argala (José Miguel Beñaran)», hemen: *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*, ed. Santiago de Pablo Contreras et al. (Madrid: Tecnos, 2012), 144-54.

⁴⁵⁰ «Anteproyecto de Estatuto de Autonomía del País Vasco», 1978ko abenduaren 9a.

⁴⁵¹ El País, «El PSOE abandona el Gobierno vasco», *El País*, 1979ko urtarrilaren 10a.

Suarezek gorteak disolbatzea eta hauteskundeak deitzea erabaki zuen eta estatutu proposamenaren tramitazioa bertan behera geratu zen.

Hego Euskal Herrian, autonomia *leitmotiv* izan zen 1979ko otsaileko hauteskunde kanpainen. EAJk eta Euskadiko Ezkerrak haientzako boza eskatu zuten Gernikako estatutu proposamena bermatzeko bide bezala. Herri Batasunak proposamen hori bertan behera uzteko eta estatutua udal hauteskunderen ostean idazteko exijitzen zuen. Euskal nazionalistentzako sostengua masiboa izan zen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. EAJk Hego Euskal Herrian jokoan zeuden hogeita hamahiru parlamentarietatik hamabost lortu zituen eta Euskadiko Ezkerrak 1977an baino boz gehiago eskuratu zituen, nahiz eta ordukoan Bandresen aukeraketa bakarrik lortu zuen, diputatu bezala. Halere, Nafarroan PNVk, Euskadiko Ezkerrak eta PTEk osatu zuten Nacionalistas Vascos hautagaitza parlamentutik kanpo geratu zen. Baita Herri Batasunak, PNVk eta Euskadiko Ezkerrak sostengatzen zuten senaturako hautagaitza ere: Nafarroa Batua. Herrialde horretan, etorkizuneko euskal autonomiatik kanpo geratzearen alde zeuden alderdiek jokoan zeuden bederatzi parlamentarietatik zazpi lortu zituzten.

3.4 irudia. Diputatuen Kongresurako hauteskunderen emaitzak Hego Euskal Herrian (1979)

EAJ	296.597 (24,7%)
PSE	245.634 (20,4%)
UCD	241.909 (20,1%)
Herri Batasuna	172.113 (14,3%)
Euskadiko Ezkerra	80.098 (6,7%)
UFV/UPN	62.356 (5,2%)
PCE	51.472 (4,3%)

Iturria: Barne Ministerioaren sareko datuekin lan honetarako egina

Herri Batasunak 172.113 boz eskuratu zituen, Hego Euskal Herriko bozen ehuneko hamalaua, eta lau parlamentari. Gipuzkoan Monzon diputatu bezala eta Miguel Castells (Busturia, 1931) abokatu senatari bezala eta bi diputatu Bizkaian: Letamendia eta *Periko* Solabarria (1930-2015) apaiz langile ezaguna —azken horrek Euskadiko Ezkerra sostengatu zuen konstituzioaren erreferendumean—. Independentisten emaitzak ez ziren nahikoa izan Gernikako estatutu proposamena geldiarazteko. 1979ko martxoaren 20an Gernikan bildu ziren orduko hartan aukeratutako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako parlamentariak —Herri Batasunekoak salbu— eta berretsi egin zuten estatutu proposamena, ordukoan aho batez, agian independentismoaren indarraren eraginez.

Hura Herri Batasunaren epe laburreko proiektuarentzat kolpe latza izan zen. Euskal gizartearen zati handiarentzat, gertu zegoen parlamentarien estatutu proposamenaren onarpenak euskaldunen eta espainiar gobernuaren arteko behin betiko bake hitzarmena gertatuko zela esan nahi baitzuen. *Argalaren* hilketak eta Gernikako estatutu proposamenaren tramitazioak Herri Batasunaren epe laburreko aurreikuspenak kolpatu zituen. Udal ordezkariak adostutako euskal estatutua egiteko aukera oso atzean geratu zen, bai eta gobernuak epe laburrean KAS Alternatiba onartzeko aukera ere.

1979ko martxoan, Herri Batasuneko buruzagitzak planteamendu bikoitza iragarri zuen. Alde batetik adierazi zuten: "aún cuando el estatuto del CGV [Eusko Kontseilu Nagusia] se apruebe en Madrid, tal y como está redactado, eso no parará la guerra en Euskadi"⁴⁵². Bestetik, komunikatu zuten udal hauteskudeen ostean martxan jarriko zutela "un organismo de contrapoder popular"⁴⁵³. 1979ko apirilaren 3ko udal hauteskundeetako kanpaina, hautagaitzak eta emaitzak tesi honen hurrengo kapituluan aztertuko ditugu. Baina kontua da Herri Batasuna ia-ia berrehun mila botor iritsi zela Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan —Araban Batzar Nagusiak udalen bitartez aukeratu ziren—, PSOE gaindituta. Herri Batasuna bigarren indarra bihurtu zen Iruñeko, Donostiako eta Bilboko udaletan. Gainera, bakarrik edo koalizioan, alkatetza garrantzitsuak lortu zituen hirigune industrialetan: Arrigorriaga Bizkaian, Hernani, Pasaia eta Errenteria Gipuzkoan, Laudio eta Agurain Araban eta Altsasu, Atarrabia eta Antsoain Nafarroan. Herri Batasunak protesta antifrankista handienak egon ziren eremuetan, hots, zonalde hiritar industrialetan, oso emaitza onak izan zituen. Koalizioa beste behin pozarren agertu zen. Beren burua honela aldarrikatu zuten: "la segunda fuerza política de Euskadi y la primera de la izquierda" eta "primera fuerza en capacidad de convocatoria y movilización"⁴⁵⁴.

EAJk Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian udal hauteskundeetan lortu zituen emaitza bikainen (bozen %37,8a) eta UCD Nafarroako udaletan alderdirik bozkatuena izan ondoren, sendotu egin zen Gernikako estatutu proposamena eta, aldi berean, Nafarroa autonomia horretatik kanpo geratzeko aukera. Baina Herri Batasunak gai ikusi zuen bere burua kontrabotere proiektua martxan jartzeko. Jatorrizko proposamena EIA

⁴⁵² Egin, «Monzon: "el estatuto del CGV no parará la guerra en Euskadi"», *Egin*, 1979ko martxoaren 25a

⁴⁵³ Ibid.

⁴⁵⁴ Egin, «Herri Batasuna: "segunda fuerza política de Euskadi"», *Egin*, 1979ko apirilaren 9a.

alderdiarena zen, baina bosgarren kapituluan azalduko dugun bezala, alderdi horren posizioak aldatzen joan ziren 1977ko udatik aurrera. EIAren proposamenaren arabera, kontrabotereak 1917ko otsaila eta urria bitarteko errusiar iraultza hartzen zuen adibide bezala. Ideia "dualidad de poderes" delakoa sortzea zen, ezarritako botere parlamentarioaren aurrez aurre egituratuz kontraboterea —sobietar eredia inspirazio bezala zuen antolaketa asanblearioa—. Kontraboterearen esku legoke eraikitzea "alternativas de organización social en todas las áreas", ondoren martxan jartzeko "fase insurreccional del proceso revolucionario vasco" delakoa, imitatuz boltxebikeen botere hartzea eta erakunde parlamentarioen deuseztatzea⁴⁵⁵.

EIAren lehenagoko planaren birplanteamendu haren oinarrian Herri Batasunaren eta mugimendu sozial berrien artean gertatzen zen hurbilpena zegoen. Koalizioak ezarritako sistemari erabateko kritika eta erakundeetatik haratago antolaketa ereduak eraikitzeko proposamena konpartitzen baitzituen mugimendu sozial berriek. 1979ko otsaileko hauteskunde kanpainan, Herri Batasuneko militanteek abortatzeko eskubidearen aldeko ekitaldietan parte hartu zuten. Eta koalizioaren mitinetan hitza hartu zuten Lemoizko zentral nuklearra geldiaraztearen aldeko militante ekologistek eta Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduko (EHGAM) kideek⁴⁵⁶.

Herri Batasunak uste zuen sistemaren oposizio guztiaren bozgorailu bihur zitekeela (independentistak, iraultzaileak, feministak, gay askapeneko militanteak...). Horretarako, 1979ko ekainaren 17rako Euskal Herriko Batzarre Nazionalaren (EHBN) sorrera ekitaldira deitu zuen. Deialdia ikuspegi nazionalista batetik interpretatu zuten bai gobernuak eta bai Herri Batasunak. Gobernuak ekitaldiak debekatu zituen, argudiatuz EHBNren asmoak "contra la indisoluble unidad de la Nación Española" zeudela⁴⁵⁷. Herri Batasunerako Laguntza Batzordeko Patxi Zabaletak debekua horrela ulertu zuen: "una abierta declaración de guerra"⁴⁵⁸. Izan ere, ETA (militarra)-ren hilketa kanpainak etenik gabe jarraitu zuen eta, aldi berean, erakunde horretako buruzagien aurkako zenbait atentatu burutu ziren 1979ko lehen hilabeteetan⁴⁵⁹.

⁴⁵⁵ Euskal Iraultzarako Alderdia, «Construir el BAT para hacer efectivo un poder popular en Euskadi», *EIA (Boletín Interno)* 7 (1977): 9-13.

⁴⁵⁶ Egin, «Hoy, mitin feminista en Sestao», *Egin*, 1979ko otsailaren 22a; Egin, «Más de doce mil asistentes...

⁴⁵⁷ Egin, «Prohibida la celebración del Euskal Herriko Batzarre Nazionala», *Egin*, 1979ko ekainaren 13a.

⁴⁵⁸ Ibid.

⁴⁵⁹ Patxo Unzueta, «Disparos de posta contra "Peixoto", dirigente de ETA militar, en San Juan de Luz», *El País*, 1979ko urtarrilaren 14a; Patxo Unzueta Javier Angulo, «Atentado contra un presunto dirigente

Herri Batasuna oilartuta zegoen eta hilketen sekuentzia larri haren erdian, UCDko eta APko espainiar parlamentariak Gernikako estatutu proposamena moldatzeko zuzenketak bata bestearen atzetik aurkeztu zituzten. Gobernuak errotik moztea erabaki zuen eta bide legalak alde batera uztea, estatutuaren testua Suarez eta Garaikoetxearen arteko negoziazio pertsonal eta pribatu baten bidez adosteko. Garaikoetxea EAJko buruzagia zen, 1979an aukeratuak izan ziren parlamentariak Eusko Kontseilu Nagusiko presidente berri bezala hautatu zutena. Dirudienez, negoziazio pertsonal horiek abiatu aurretik Suarezek aukera guztiak izan zituen mahai gainean, Hego Euskal Herriaren okupazio militar hertsia batetik autodeterminazio eskubidea onartzera arte⁴⁶⁰. Suarez eta Garaikoetxearen arteko akordioa 1979ko uztailaren 17an sinatu zen Moncloan eta zuzenean parlamentura eraman zen, aldaketarik gabe onar zedin.

Euskal parlamentarien biltzarrak Gernikan onartutako testuarekin konparatuz gero, euskal herria "naziotasun/nacionalidad" bezala definitzen zen, "realidad nacional" baztertuz eta Konstituzioan agertzen zen terminoa ("nazionalitate") finkatuz. Gainera, azpimarratu egiten zen euskal herria komunitate autonomo bat bihurtu zela, baina betiere "espainol Estatuaren barruan". Jada euskara ez zen "lengua nacional", baizik eta "Euskal Herriaren berezko hizkuntza" bat, besteren artean. Sortzear zegoen administrazio autonomikoari zegokionez, sistematikoki gehitu zen atal guztietan eskumenen garapena "Konstituzioaren 149-I-18 artikuluan jartzen denari kalterik egiteke" emango zela, zalantzarik izatekotan⁴⁶¹.

EAJk bi buruzagien arteko hitzarmena berdinen arteko akordio bezala interpretatu zuen, bi nazioen artekoa, Espainiaren eta euskal nazioaren artekoa. Eta aldi berean, erbesteko Euzko Jaurlaritzarekiko leialtasunaren froga bezala. Frankismoaren osteko behin betiko bake akordioa zen eta haren bitartez, berriro egokitzen zen euskal legedia espainiar monarkian. Berariaz aukeratu zen estutu proposamena berresteko erreferendumaren eguna: 1979ko urriaren 25a, 1839ko legearen urteurrena, hots, lehen aldiz euskal legedia espainiar konstituzioaren azpian formalki ezarri zuena. Erbesteko lendakariak, Jesus Maria Leizaola (1896-1989), Hego Euskal Herrira itzuliko zela adierazi zuen eta akordioa ikuspegi nazionalista batekin eta gerra/bakea binomiaren arabera interpretatu zuen:

de ETA-m en Bayona», *El País*, 1979ko maiatzaren 5a; El País, «Muerto en Bayona un presunto miembro de ETA», *El País*, 1979ko ekainaren 26a.

⁴⁶⁰ Casals, *La Transición española...*, 347-48.

⁴⁶¹ Tamayo Solaberría, *La autonomía vasca contemporánea...*, 864-94.

El Estatuto sometido ahora a votación es un instrumento de afirmación de Euskadi, de su existencia y de su vida, y lo es de su voluntad de paz, una voluntad de paz en el interior —entre los vascos— y de paz con nuestros vecinos⁴⁶².

Herri Batasunaren erantzunak ere 1839 hartzen zuen erreferentzia sinbolikotzat. Suarezen eta Garaikoetxearen arteko akordioa Maroto karlista eta Espartero liberalaren arteko besarkadaren errepikapen bat bezala azaldu zuen. 1839. urtea Aranaren interpretazioaren arabera ulertzen zuten, hau da, foruak espainiar konstituzioaren menpean geratzean azeleratu zen euskal nazioaren gainbehera. Horregatik, Herri Batasunarentzat 1979koa ez zen berdinen arteko akordioa, 1839an bezala, gerra galdu izanaren akordioa zen. Hitzarmenari 'Moncloako besarkada' deitu zioten eta adostutako testuari 'Moncloako estatutua'⁴⁶³. Azpimarratu egiten zuten horrela azken testuak Gernikan parlamentariak adostutakoa aldatu izana, nahiz eta Herri Batasunak lehenago uko egin zion Gernikako ekitaldian parte hartzeari.


Estatutuaren erreferendumerako kanpainan Herri Batasunak onartutzat eman zuen jada estatutua eta argudiatu zuen euskal estatutua 1976tik abiatutako erakunde frankisten erreformaren azken pausua zela. Horrela, bere burua frankismoaren erreformaren aurkako "verdadera resistencia" izendatzen hasi zen eta deitu egin zuen "por un proceso de ruptura democrática frente a la reforma" zegoen oro bere inguruan antolatzeraz⁴⁶⁴. Estatutuaren onarpenaren aurkako Herri Batasunaren kanpainan, argazki ezagun batetik abiatuta egindako collage bat erabili zen. Irudia Bartzelonan hartu zuten 1976ko otsailaren leian eta bertan polizia frankista ageri zen zenbait manifestari jipoitzen. Irudi ezagun haren erabilerarekin, independentistek 1979ko poliziaren eta frankismoaren arteko lotura ezartzen zuten eta, aldi berean, Herri Batasuna 1970eko hamarkaden erdialdeko mobilizazio antifrankista jendetsuekin erlazionatzen zuten.

⁴⁶² Jesús María Leizaola, «Los dos estatutos de autonomía: 1936-1979», *El País*, 1979ko urriaren 21a.

⁴⁶³ Egin, «El "Estatuto de la Moncloa", una claudicación vergonzosa», *Egin*, 1979ko uztailearen 19a.

⁴⁶⁴ *Ibid.*

3.4 irudia. Herri Batasunaren kartela estatutuaren onarpenaren aurka (1979)



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa

Kanpaina ezberdintasun argirik gabe egin zuten Herri Batasunaren, EHBNren edo Frente por la Abstención delakoaren izenean —azken horrek LKI eta EMK alderdiak ere biltzen zituen—. Kontraboterearen ideari eta mugimendu sozial berriekiko hurbiltetari lotuta, Herri Batasunaren kanpaina garrantzi handia hartu zuten bozeramaile feministek. Izan ere, gori-gorian zeuden Basauriko zenbait emakumeren aurka abortua praktikatzegatik egiten ari zen epaiketaren aurkako protestak⁴⁶⁵.

Laburbilduz, 1979an zehar Herri Batasunak bere sorreraren erdigunean izan zuen exigentzia alboratu zuen, hau da, udal hauteskundeen ondoren tokiko ordezkariak adostutako euskal estatutu proposamena. Eta bere sostenguaren gorako joerak eraikitzen ari zen sare instituzionalaren aurkako kontrabotere bat mahaigaineratzera eramane zuen. Halere, Suarezek eta Garaikoetxeak adostutako estatutuak bere aurreikuspenak mugatu zituen. Bere burua erresistentzia espazio bezala birdefinitu zuen eta 1975-1977 arteko giroa berreraikitzen saiatu zen, euskal herri antifrankistaren eta autoritate frankisten arteko gatazkarena. Erresistentzia espazio horretan, Herri Batasunak ETA (militarra)-

⁴⁶⁵ Egin, «Euskal Herriko Batzarre Nazionala se decidió por la abstención», *Egin*, 1979ko abuztuaren 19a; Egin, «Multitudinaria concentración de HB en Bilbao», *Egin*, 1979ko urriaren 21a.

ren jardun biolentoa sostengatzen zuen eta, aldi berean, ezker iraultzailearekin eta mugimendu sozial berriekin loturak estutu zituen. Kapitulu honetako azken atalean, biraketa hark koalizioaren baitan sortu zituen tentsioak aztertuko ditugu.

Herri Batasunaren zatiketa

Herri Batasunaren 1979ko udaberriko poza, urte bukaerarako erresistentziarako deia bihurtu zen. Lehen Eusko Legebiltzar autonomikorako hauteskundeak deitu zirenean, argitara atera ziren koalizioaren barneko desadostasunak. Batzuek erresistentzia hori mantentzea etorkizuneko iraultzaren berme bezala ikusten zuten, beste batzuek kontrakoa uste zuten bitartean.

Hasiera-hasieratik, Herri Batasunak etorkizun sozialista baten inguruko konbentzimendu iraultzaile sendoarekin erantzun zien bere kritikoei. 1978ko ekainean Txomin Ziluaga (1939-2012) HASI alderdiko idazkari nagusiak adierazten zuen: "se equivocan los que afirman que (...) se impone-estabiliza una democracia capitalista"⁴⁶⁶. Eta horrela definitzen zituen koalizioa kritikatzeko zutenak: "oportunistas de última hora, que no confían en el avance generalizado de toda la humanidad hacia el socialismo"⁴⁶⁷.

Garai hartako zenbait gertaera politikok utopia sozialista hura egingarri zela adieraz zezaketen. Esaterako, 1979ko martxoan matxinada baten ostean Maurice Bishop Grenadako presidentetzara iritsi zen eta, urte berean, independentzia lortu berri zuen Seychelleetako Errepublikak bere burua sozialistatzat aldarrikatu zuen. Iraneko iraultza ere oso presentezgoen Europako mendebaldeko iruditegian. Espainiar gorteetarako kanpainan, Francisco Letamendiak Iraneko adibidea erabili zuen, justifikatzeko Herri Batasuneko parlamentariak ez zutela gorteetan parte hartuko gobernua KAS Alternatiba onartu arte: "si Jomeiny no se hubiera opuesto a pactar con el Sha de Persia y Bajtiar, en este momento Persia (...) no hubiera roto con el imperialismo norteamericano"⁴⁶⁸.

Europako mendebaldean bertan, zenbait dinamika politikok Herri Batasunak bere burua indartuta ikustea eragin zuten. 1979ko ekainean, PCI italiarrak milioi eta erdi boto galdu zituen, bi urte lehenagoko hauteskudeen emaitzekin konparatuta. Eskuinarekin

⁴⁶⁶ Txomin Ziluaga, «La alternativa del KAS es la condición mínima para entrar en la lucha institucional», *Egin*, 1978ko ekainaren 21a.

⁴⁶⁷ Ibid.

⁴⁶⁸ Egin, «Ortzi: "los defensores del Estatuto de Guernica están haciendo demagogia, y lo saben"», *Egin*, 1979ko otsailaren 24a.

konpromiso historiko delakoa lortzeko bere proiektuaren gainbeheraren hasiera zen, berriz ere geratu baitzen demokristauek gidatutako koalizio gobernutik kanpo. Alderdi komunistek ez zuten lortu Italian edota Espainian bai eskuinak eta bai komunistek parte hartuko zuten kontzentrazio gobernurik eratzea. Eta helburu hura zenez 1970eko hamarkadako estrategia eurokomunistaren ardatza, beren proiektu politikoa erabat blokeatuta geratu zen⁴⁶⁹. Herri Batasunaren proiektu politikoak eskuineko gobernuetik jarraera intransigentea eta biolentziaren erabileraren onarpena zituen ezaugarritzat. Geroago aipatuko dugun Ipar Irlandako aparteko egoerak bere posizioak puzten zituen eta eurokomunismoa blokatu izana kontra-adibidetzat erabiltzen zuten.

Baina Herri Batasunaren inguruan egituratzen ari zen kultura politikorako gertakizun garrantzitsuena 1979ko uztailean Nikaraguan sandinistak boterera iritsi izana izan zen. Udan zehar *Eginen* ugaritu egin ziren nikaraguar egoerari buruzko berriak. Azpimarratzen zuten zenbait hilabete lehenago Somoza diktadoreak baztertu egiten zuela erabat boterea galtzeko aukera eta sandinistak terrorista bezala definitu zituela, baina azkenean, biolentziaren erabilerari esker iraultzaileek boterera iristea lortu zutela⁴⁷⁰. Herri Batasunaren nazioarteko iruditegian 1979an zehar bata bestearen atzetik eroriko ziren diktadurak zeuden: Iran, Nikaragua eta... Euskadi⁴⁷¹. Autonomia estatutuaren erreferendumaren kanpainan, jada erabat presentezgoen garaipen sandinista koalizioaren iruditegian eta ekitaldi publikoetan Nikaragua eta Euskadi erkatzen zituzten⁴⁷².

1979ko Hego Euskal Herriko egoera, erabat industrializatutako zonalde bat alderdi anitzeko erregimen parlamentario batean, eta Nikaraguako egoera berdinak zirela argudiatzeak zenbait muga argi zituen. Baina koalizioak behin eta berriz azpimarratzen zituen Espainia herrialde demokratiko bat izateko balizko ezintasunari buruzko argudioak: HASI eta LAIA alderdiak ez zeuden legeztatuta eta horri lotuta, independentziazaleek ez zuten estatutuari buruzko erreferendumaren kanpainan lekurik izan telebistan. Ofizialki, hauteskundeetarako ESB eta ANV alderdien koalizioa zen

⁴⁶⁹ Donald Sassoon, *Cien años de socialismo* (Barcelona: Edhasa, 2011), 616-57, 676-80.

⁴⁷⁰ Xabier Amuriza, «Semaforo gorria», *Egin*, 1979ko ekainaren 22a.

⁴⁷¹ S. Garmendia, «Nicaragua: “patria libre o muerte”», *Egin*, 1979ko irailaren 1a.

⁴⁷² *Egin*, «Considerable participación en los mítines de Vizcaya y Guipúzcoa sobre el referéndum», *Egin*, 1979ko urriaren 16a.

Herri Batasuna eta gobernuak argudiatzen zuenez, behin hauteskundeak pasata "Herri Batasuna no existe"⁴⁷³.

Errepideetako kontroletan gertatutako heriotzak, poliziak tiroz zauritutako manifestariak eta poliziek lanetik kanpo beren armak erabiltzean sortutako istiluak ohikoak ziren oraindik. 1979ko otsaila eta urria artean, hots, gorteetarako hauteskundeetatik euskal autonomia estatutua onartu arteko epean, Frantziako gobernuak errefuxiatu politiko statusa ukatu zien ETArri lotutako pertsoneri. Epe horretan horietako lau erailak izan ziren —bai eta PCE(r) taldeari lotutako beste bi ere Parisen—. 1979ko uztailean, Herri Batasunaren esku zeuden Hernaniko eta Errenterietako udalei eraso egin zitzaizen lehergailuekin. Herri Batasunaren egoitza nagusia ere, Bilboko Benito Pérez Galdós kalean, lehergailu baten ondorioz txikituta geratu zen abuztuaren 4an. Eta estatutuari buruzko erreferenduma baino aste batzuk lehenago, Tomas Alba (1937-1979), Donostian Herri Batasuneko zerrendan aukeratutako zinegotzia, eraila izan zen.

Horrela, Herri Batasunarekiko sostenguak eta bere mezuak, gobernuaren inertzia errepresiboen eta kontrolik gabe jarduten zuen eskuin muturreko sare parapolizialaren aurkako bozgorailu izaera nabarmena zuen. Koalizioarentzat Espainian ez zegoen inondik inora Europako mendebaldeko herrialdeekin erkatu zitekeen erregimen politikorik. Horrela argudiatzen zuen Castells senatariak: "no se puede pensar que existe democracia en España, porque no puede existir democracia en España y fascismo en Euskadi"⁴⁷⁴.

Hala ere, 1979an zehar Herri Batasunaren jarduera eta egoeraren interpretazioa euskal nazioaren eta Espainiako gobernuaren arteko gerra baten ideiak erabat baldintzatuta egotearen aurkako ahotsak agertzen joan ziren. Uztailean, ESBko kide Iñaki Gorroñok bere arrangura adierazi zuen, argudiatuz Herri Batasuna "un movimiento populista" bihurtzen ari zela, eta ez "partido de clase" bat⁴⁷⁵. Horrek izaera ezkertiarra zalantzan jartzen zuela zioen, izan ere "nacionalismo tradicional" delakoaren "componentes reaccionarios" bere egiteko arrisku handia zuen Herri Batasunak⁴⁷⁶. Bestalde, LAIA alderdiak azpimarratzen zuen EHBN, kontrabotere proiektua, ez zutela indar politiko esanguratsuek sostengatu eta indar harremana beste alderantz desorekatua zegoela jada.

⁴⁷³ Egin, «Herri Batasuna no existe», *Egin*, 1979ko urriaren 16a.

⁴⁷⁴ Egin, «Monzón y Castells ofrecieron una rueda de prensa en Bruselas», *Egin*, 1979ko uztailearen 13a.

⁴⁷⁵ Iñaki Gorroño, «¿Movimiento populista o partido de clase?», *Egin*, 1979ko uztailearen 4a.

⁴⁷⁶ *Ibid.*

LAIAREN arabera 1979ko erdialdean zegoena honakoa zen: “una relación de fuerzas favorables a las fuerzas reformistas y de la derecha”⁴⁷⁷. Horrenbestez, beharrezko ikusten zuten Herri Batasunaren birplanteamendua berandu baino lehen.

Behin estatutu proposamena erreferendum bidez berretsi zenean, eztabaida Herri Batasuneko buruzagitzara iritsi zen. ESBren interpretazioaren arabera “la reforma política (...) se ha impuesto”⁴⁷⁸. Horregatik defendatu zuten beharrezkoa zela parlamentu autonomikoan parte hartzea. LAIAk azpimarratzen zuen frankismoarekiko haustura demokratikoaren programa "desfasado" geratu zela⁴⁷⁹. Bi alderdi horiek gaindituztat ematen zituzten Herri Batasunerako Laguntza Batzordearen eta kontraboterearen faseak. Proposatzen zuten berriz ere Herri Batasunari ezkerreko alderdi independentisten arteko koalizio izaera ematea, hauteskunde autonomikoei begira.

Baina hain zuzen ere, EAE-ANVk eta HASIk zalantzan jartzen zutena espainiar prozesu konstituziogilea bukatuta zegoela zen. EAE-ANVren arabera estatutuak “presenta un proyecto social reaccionario y caduco” eta epe laburrean bertan behera geratuko zen⁴⁸⁰. Barakaldon 1979ko azaroaren 30ean antolatutako EAE-ANVren V Kongresuan, ESBren eta LAIAREN "posiciones voluntaristas y vanguardistas" zirelakoak salatu zituzten eta diktadurarekin apurtu eta "conseguir la normalización" bazen helburua, gobernuak ETA (militarra)-rekin KAS Alternatiba adostu behar zuela aldarrikatu zuen alderdiak⁴⁸¹.

HASIRI lotutako sektoreetan, bestalde, nazioarteko analisisira jotzen zen Hego Euskal Herriko egoera egonkortzea ezinezkoa zela argudiatzeko. Beraien interpretazioaren arabera, 1973an hasitako krisi ekonomikoari eliteek Europako mendebalderen faxistizazio prozesu batekin erantzun zioten, kapitalismoari alternatibak eratzea ekiditeko. Horretarako gobernuaren tresna nagusia hertsapena, errepresioa eta beldurra uztartzea omen zen. Horrela azaltzen zituzten talde armatu iraultzaileen ugalketari erantzuteko 1970eko hamarkadan zehar eratu ziren salbuespeneko legediak eta horien aplikazioa, eskubide zibilen aurkakoa. Ikuspegi horretan, elitearen beste tresnetako bat ideologien bukaera eta akordio sozialen beharra aldarrikatzea izan omen zen, eta horrela

⁴⁷⁷ LAIA, «Política municipal-popular», *Erne* 6 (1979), 15.

⁴⁷⁸ LAIA, «Acta reunión de partidos e independientes, 1979/11/24», *Erne* 6 (1979).

⁴⁷⁹ Ibid.

⁴⁸⁰ Ibid.

⁴⁸¹ EAE-ANV, «V Batzar Nagusia» (Lazkaoko Beneritarren Artxiboa, 1979).

ezkerreko alderdi eta sindikatu tradizionalak sistemaren parte bihurtzea lortu ei zuten. Espainiako kasuan, Moncloako Itunak eta konstituzioaren onarpena izan ziren politika horren isla. Horregatik, HASIren ikuspegian erabat bazterten zen berriro Espainian gobernu militar bat ezartzeko aukera, eliteak jada lortuak baitzituen bere helburuak. Bestalde, Europako mendebalde osoan ematen zen prozesu horretan AEBk Vietnameko porrotaren ostean galdutako lidergoa berreskuratzen ari omen ziren. Eta europar burgesiak estatubatuar hegemoniaren menpean berrantolatzen ari omen ziren. EAJ ere sare horretan harrapatuta geratu zela argudiatzen zuten, UCDrekin euskal estatutua martxan jartzeko akordioa adostu ondoren.⁴⁸²

Horrenbestez, HASIren irakurketa politikoaren arabera, EAJk jada ez zituen euskal herriaren interesak ordezkatzeko eta bere abertzaletasunari uko egina zion, nazioarteko kapitalaren interesen kudeatzaile bihurtzeko. Izugarritzko abagunea omen zen hura, Herri Batasunak aukera ezin hobea zuela uste baitzuen ordura arte EAJ sostengatu zuen oinarri sozial zabala iraultzaren alde lerratzeko⁴⁸³. HASIren arabera gobernuaren ekinbideak erakusten zuen funtsean Espainiak frankista izaten jarraitzen zuela. Eta horregatik, argudiatzen zuen haustura demokratikoaren aldeko aldarrikapena Europako faxistizazio prozesuaren oztopo nagusia zela. Aurreikuspen bikainak omen zituen gainera, Espainia inperialismoaren barnean katebegi ahula baitzen, are ezegonkorragoa zelako Hego Euskal Herriko egoera, ETA (militarra)-ren ekinbideari esker⁴⁸⁴.

Frankismoarekin apurtzea ezinezko zitzaion Espainiaren irudi hark berriz ere azpimarratzen zuen euskal nazionalismoak espainiartasunarekiko zuen irudi orientalizatua. EAE-ANV gustura sentitzen zen HASIren mezu berriarekin, erretorika nazionalista eta antifaxista gogorra baitzituen, 1936ko gerra garaikoa bezalakoa. Halere, gehiegi izan zen beste alderdientzat. ESBk bere sorreratik zuen erakundeetan parte hartzeko bokazioa eta LAIA oso lotua zegoen abangoardiako langile alderdi marxistaren ideari.

HASIk gainontzeko alderdiekiko zuen ezberdintasun garrantzitsua, 1970eko hamarkadaren bukaerako testuingurua aztertzeko orduan, mugimendu sozial berriei

⁴⁸² José Luis Cereceda, «La actual crisis del sistema capitalista», *Egin*, 1979ko apirilaren 25a; M. Korta, «La nueva Santa Alianza», *Egin*, 1979ko abuztuaren 12a; M. Korta, «La batalla que nos espera», *Egin*, 1979ko azaroaren 14a.

⁴⁸³ *Egin*, «Entrevista a Txomin Ziluaga: “las posibilidades de que salga el Estatuto de Guernica son casi nulas”», *Egin*, 1979ko uztailaren 13a.

⁴⁸⁴ Xabier Onaindia, «Por un sindicalismo de clase y nacional», *Egin*, 1979ko abenduaren 13a; Haritza, «El internacionalismo proletario, una necesidad imperiosa para Euskadi», *Egin*, 1979ko abenduaren 13a.

ematen zien garrantzia zen. Horien sorreratik, mugimendu feministak, ekologistak edo gay askapenekoak ezkerreko alderdiak hartu zituzten solaskide nagusi eta bidelagun bezala. Beren mezuak haiei zuzendu zizkieten, argudiatuz benetan ezkerrekoak baziren, mugimendu sozial berrien aldarrikapenak bere egin behar zituztela. Gutxika gutxika, lehentasunezko solaskide izanik eta militantzia bikoitzaren bidez —aldi berean mugimendu sozial bateko militante eta alderdikide ziren pertsonak—, ekologisten, feministen zein gay militanteen agenda ezkerreko alderdien programetan txertatzen joan zen eta zenbait alderdik gai horiei lotutako adar berezituak sortu zituzten. Halere, askotan mugimendu sozialek alderdien sostengua erretorikoa bakarrik zela salatu zuten eta ezkerreko alderdiak ez zeudela behar beste engaiatuak. Are gehiago, alderdiek mugimendu sozial berriak instrumentalizatu nahi zituztela ere salatu zuten askotan⁴⁸⁵.

HASIk mugimendu sozial berriak herriaren auto-antolaketaren eredu bezala ulertzen zituen, bigarren kapituluan jorratu dugun ikuspegi gramsciarrari oso lotuta. Horrenbestez, alderdiaren helburua mugimendu horiek alderdiaren helburu ideologikoetara —eta historiaren ekidin ezinezko noranzkora— lerratzea zen: euskal nazio independentea, euskalduna eta sozialista. Batez ere Lemoizko zentral nuklearra martxan jartzearen aurkako mobilizazio handiei egiten zien erreferentzia HASIk, mobilizazio haiek ez baitzuten alderdi politiko handien babesik izan. HASIren ikuspegiaren arabera, zentral nuklearra euskal herriaren interesen aurkako oligarkia espainiarraren inposizioaren sinbolo zen. Eta independentisten eskandalurako, EAJren babesa ere bazuen⁴⁸⁶.

HASIren hurbilketa instrumentalista hutsa bezala uler daitekeen arren, azpimarratu behar da HASIk mugimendu sozial berrietatik nabarmentzen zuena honakoa zela: beren aldarrikapenek ezarritako sistema osoa jartzen zutela zalantzan, familiari, sexualitateari eta garapen ekonomiko ereduari kritika egiten baitzioten⁴⁸⁷. HASIren arabera, mugimendu sozial berriak eta bestelako ekimenak (feministak, gay askapenak, gazte mugimendua, mugimendu hiritarra, kulturalen alorra...) oso garrantzitsuak ziren honakoa proposatzen zutelako: "intervención en la vida cotidiana (...) inasimilable para la burguesía"⁴⁸⁸. Bere ikuspegiari, 1970eko hamarkadaren bukaerako krisi ekonomikoa

⁴⁸⁵ López Romo, *Años en claroscuro...*, 151-52.

⁴⁸⁶ *Ibid.*, 242.

⁴⁸⁷ Jorge Riechmann eta Francisco Fernández Buey, *Redes que dan libertad. Introducción a los nuevos movimientos sociales*, 1994 (Barcelona: Paidós, 2001), 65-66.

⁴⁸⁸ HASI, «Apuntes sobre la reconversión económica», *Barnekoa* 39 (1979): 25.

"crisis de los valores burgueses" ere bazen. Horregatik, argudiatzen zuen tradizionalki mobilizatutuako langile klaseak, ordura arte ezker iraultzaileko alderdien teorizazioaren erdigunean egon zenak, lehenago ala beranduago mugimendu sozial berrien "bases de una nueva ética" zirelakoekin bat egingo zuela⁴⁸⁹. Beste behin, HASIren interpretazioetan eta bere konbentzimendu iraultzailean Gramsciren ideien oihartzunak ageri ziren.

Horrenbestez, HASIren ustez Herri Batasunak egin behar zuena mugimendu sozial berrietan parte hartzea zen. Lehenago ala beranduago langile masek ere bertara joko zutela defendatzen zuen, PSOEn erreformismoak eta EAJren errendizio nazionalak abandonatuta utzi baitzituzten. Gainera, estrategia horrek parlamentu autonomikoan parte ez hartzeak lekarkeen isolamendua eragotziko luke Herri Batasunarentzat. Zentzu horretan, ordura arteko hiztegia zertxobait aldatuta, HASIk jomugan jarri zuen epe luzeko "etendura demokratiko luzatua" eta etsai nagusitzat "neoliberalismo salvaje" delakoa jo zuen⁴⁹⁰. Proposatzen zuten Herri Batasuna etorkizuneko kontrabotere baten pantaila politiko bezala mantentzea, zeuden erakundeetatik erabat aldentuta. Horrek KAS Alternatiba ere birdefinitu zuen, 'iraultzarako tresna taktiko-estrategiko' bezala, nolabait onartuta ez zegoela gobernuak berori epe laburrean onartzeko aukerarik⁴⁹¹.

Herri Batasunaren strategiaren berritzeak, ANVren eta Laguntza Batzordeko kide gehienek babesa izan zuen eta bere diskurtsoan biraketa antiinperialista bat ekarri zuen. ETA (militarra) eta espainiar gobernuaren arteko gerra, etorkizunean garaile izango zen nazioarteko iraultza sozialista baten katebegi bezala irudikatu zen. Aldi berean, mugimendu sozial berriei eman zien garrantzia etorkizuneko kontraboterearen oinarri bezala, langileria industrialaren erdigunean zuen ordura arteko diskurtso tradizionaletik aldentuz. ESBk eta LAIAk bertan behera utzi zuten koalizioa eta parlamentu autonomikorako kanpainan Herri Batasunetik aldentu zirela iragarri zuten⁴⁹².

Eusko Legebiltzarrerako kanpainan, Herri Batasunak bere erretorika nazionalista eta errepresioaren aurkakoa azpimarratu zuen, argudiatuz "un estado de excepción contra

⁴⁸⁹ Ibid., 25-26.

⁴⁹⁰ HASI, *Barnekoa* 39 (1979): 2; HASI, «Apuntes sobre la reconversión económica» *Barnekoa* 39 (1979), 18, 24.

⁴⁹¹ HASI, *Barnekoa* 39 (1979), 5.

⁴⁹² Egin, «ESB, en desacuerdo con la Mesa Nacional, se retira de HB», *Egin*, 1980ko otsailaren 24a; Egin, «LAIA se retira de HB», *Egin*, 1980ko otsailaren 20a.

Euskadi" zegoela⁴⁹³. Ekitaldi publikoetan "Gora ETA militarra!" oihua orokortu zen, ordura arte ohikoa zen "ETA, herria zurekin!" beharrean⁴⁹⁴. Nolabait, Herri Batasunaren oinarri sozialak talde armatuak aldarrikatzen zuen abangoardia izaera onartzen zuenaren isla zen. Bestalde, Ana Ereño eta Itziar Aizpurua bezalako emakumeek ekitaldietan hitza hartzea ohikoago bihurtu zen, gizonezko buruzagiekin batera⁴⁹⁵. Herri Batasuneko ekitaldietan gay askapen mugimenduari ere ahotsa eman zitzaion, gainontzeko ezkerreko hautagaitzek bezala⁴⁹⁶. Kanpaina bukaerako festan Koska rock taldeak jo zuen eta propaganda kanpaina berritzaile bat garatu zuten. Komiki estiloko hizkiek eta collageek Herri Batasunaren irudia gazte kontrakulturarekin eta mugimendu sozial berriekin lotzen zuten, aldi berean Laguntza Batzordearen gizontasun eta seriotasun irudiarekin apurtuz.

3.5 irudia. Herri Batasunaren iragarkia hauteskunde autonomikoetarako kanpainan (1980)



Iturria: *Egin*

⁴⁹³ Herri Batasuna, «Herri Batasuna al Pueblo Vasco» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1980).

⁴⁹⁴ «News Item (077eb903-ab9f-6a94-8c90-8d757b4eb7be)» (AP Archive, 2005), https://www.youtube.com/watch?v=V22_QbTri8Y.

⁴⁹⁵ Egin, «Comenzó el último fin de semana electoral», *Egin*, 1980ko martxoaren 1a; Egin, «Herri Batasuna volvió a llenar Anoeta», *Egin*, 1980ko martxoaren 2a.

⁴⁹⁶ Raúl López Romo, *Del gueto a la calle. El movimiento gay y lesbiano en el País Vasco y Navarra, 1975-1983* (Donostia-San Sebastián: Tercera Prensa, 2008), 121.

3.6 irudia. Herri Batasunaren hauteskunde autonomikoetarako kanpaina bukaerako jaiaren iragarkia (1980)



Iturria: *Egin*

Azkenik, azpimarratu behar da Herri Batasunak bere burua izendatzeko gero eta ohikoagoa bihurtu zela 'gu' erabiltzea. Beste era batera esanda, 1980ko martxoko hauteskundeetarako badirudi jada finkatuta zegoela subjektu politiko bat: 'gu, Herri Batasunekoak'. Eva Forestek (1928-2007) modu esplizituan azaldu zuen sentimendu kolektibo hura finkatzeko 1980ko hauteskunde kanpainak izan zuten garrantzia:

ese deseo de constatar que no se está solo, que somos muchos aún y que hay otros nuevos que se incorporan (...) Lugar común en donde uno sabe que están los suyos (...) encuentros que dan la fuerza, que devuelven la confianza⁴⁹⁷

1980ko martxoaren 9ko hauteskundeetan Herri Batasunak aurreko urteko foru hauteskundeetan lortutako botoen ehuneko hogeia inguru galdu zuen. Baina parlamentu autonomikoko bigarren indar politiko bezala finkatu zen, jokoan zeuden hirurogei eserlekuetatik hamaika lortuta 151.636 botorekin. Parlamentuan parte hartzen ez zenez, praktikan EAJren gehiengo osoa ahalbidetu zuen. 1980ko apirilaren 9an EAJren

⁴⁹⁷ Eva Forest, «Cuando el mitin se transforma en asamblea y la asamblea en fiesta», *Egin*, 1980ko marxoaren 9a.

hautagaia, Carlos Garaikoetxea, aukeratu zuen Eusko Legebiltzarrak lehendakari bezala eta Euskal Autonomia Erkidegoaren bidea hasi zen, lehen gobernu autonomikoarekin batera.

Ondorioak

Herri Batasuna 1980ko lehen hilabeteetan finkatu zen kultura politiko bereizi bezala. Bere mezuaren ardatza eta bere buruaz zuen irudia, frankismoko inertzia errepresiboak mantentzen zituen espainiar gobernuaren aurkako erresistentzia mugimenduarena zen. Eta aldarrikatzen zuen oraindik lortzeke zegoela oposizio antifrankistak diktadorea hil zenean exijitu zuen haustura demokratikoa.

Herri Batasunaren sorrera espainiar prozesu konstituziogilearekin batera eman zen, hau da, Espainia diktadura militar bat izatetik monarkia parlamentario bihurtzeko prozesu bete-betean. Konstituzioaren inguruko kotsentsua Espainiaren historia hurbilaren kontakizun nazionalista baten inguruan eraiki zen modu berean, Herri Batasunak euskal abertzaletasunak gerra zibilari eta frankismoari buruz egituratutako kontakizuna jaso zuen. Bi kontakizun nazionalak komunean zuten 1936ko gerraren ondorioak gaindituztat eman nahi izatea, ezberdinen arteko akordio baten bidez. Zentzu horretan uler daiteke Espainia barneko euskal eremuan jendartearen zati esanguratsu batek Herri Batasunaren diskurtsoa bere egin izana. Bai 1970eko hamarkadaren erdialdean oposizio antifrankistak komunean zuen mezua errepikatzen zuelako, bai bere proiektu politikoa ezberdinen arteko akordiorako eta gerra bukatuztat emateko tresnatuztat aurkezten zuelako.

Bestalde, Espainiako Trantsizioa deszentralizazio prozesu batekin batera gertatu zen. Prozesu horrek aurrera egin zuen heinean Herri Batasunaren proiektu politikoa aldatzen joan zen. Hasiera batean udal ordezkarien batzar batek adostutako euskal estatutua exijitu ostean, kontrabotere iraultzailea martxan jartzen saiatzera pasa ziren. Eta bi proiektu horien porrotaren ostean, etorkizuneko kontraboterea mugimendu sozial berriekin batera eraikitzeko erresistentzia mugimendu bezala berrasmatu zuen bere burua Herri Batasunak.

Bide horretan, hasiera bateko bost alderdiko koalizioa laukoa izatera pasa zen, Eusko Kontseilu Nagusia martxan jarri zenean. Ondoren, zuzenean Herri Batasuneko zuzendaritzara igaro zen gizarte zibilaren ordezkari bat sortu zen, konstituzioaren

onarpen prozesuaren garaian. Azkenik, behin euskal estatutua erreferendum bidez berretsi zenean, koalizioa fundatu zuten bi alderdik Herri Batasuna utzi zuten.

Horrenbestez, Herri Batasunaren inguruan egituratu zen kultura politikoaren ezaugarriak eta proiektu politikoa ez zeuden aldez aurretik euskal nazionalismoak finkatuta. Espainiako prozesu konstituziogilearen eta euskal estatutuaren inguruan egondako tirabiren ondorio izan zen hori. Bukaeran, monarkia konstituzionalarekin batera eraikitako sare instituzional berriaren aurkako indar politiko euskal nazionalista eta iraultzaile bezala finkatuta geratu zen Herri Batasuna.

4. "Alkaterik onena... herria!". Herri Batasunarekin identifikazioa Trantsizioan

1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan zehar eraldaketa sozioekonomiko garrantzitsua gertatu zen Hego Euskal Herrian. Paisaia aldatu zen. Baita eskualdeko egitura demografikoa eta sozioekonomikoa eta bertako biztanleen egunerokoa ere. Horrek guztiak norbanakoen jarrera politikoetan ere izan zuen bere isla. Eraldaketa handi horren nondik norakoak ezagutzeak lagunduko digu ulertzen zergatik identifikatu zen pertsona asko Herri Batasunaren proiektu politikoarekin eta non izan zen independentisten interpelazioa arrakastatsua.

Praktika historiografikoan beharrezkoa da lekuari bere garrantzia ematea, edo beste era batera esanda, fenomeno historikoen eta eguneroko bizi espazioen arteko harremanarari erreparatzea. Doktorego tesi honen atal teorikoan eguneroko espazioaren eta nazioaren arteko erlazioaz aritu gara, esan bezala, Aro Garaikidean nazioak lotura ezarten baitu egunerokotasunaren eta Modernitate unibertsalaren diskurtsoaren artean. Hau da, nazioak lurralde zehatz bati atxikita daude eta horregatik, pentsa dezakegu metakontakizun nazional bat arrakastatsua izango dela baldin eta lurralde horretan bizi direnen eguneroko espazioari zentzua emateko gai bada.

Kapitulu honetan defenduko dugun ideia nagusia honakoa da: Herri Batasunari buruz aztertu dugun garaian 1979ko udal hauteskundeak izan ziren arrakastatsuenak, beraien diskurtsoa eta hautagaitzak mugimendu hiritar antifrankistari lotuta zeudelako. Herri Batasunak lotura ezarri zuen berez demokratikoa eta antifrankista balitz bezala irudikatzen zuen herriaren eta ETaren kontakizun nazionalaren artean. Independentziarako eta sozialismorako lehen geltokia, homogeneoki antifrankista, ezkertiarra eta euskal nazionalista zen herriak udaletxeak kudeatzea zen. Horrenbestez, argudiatuko dugu une hartako Herri Batasunaren arrakastaren gakoa bere konbentzimendu nazionalistak eta ezkertiarrek herritarren eguneroko bizipenarekin erlazionatzeko ahalmenean egon zela.

Aldi berean, bigarren kapituluari jorrotutako ideia azpimarratuko dugu, hau da, Herri Batasunaren oinarrian Francoren diktaduraren azken urteetan garatu ziren diskurtsoak eta praktikak zeudela. Azaldu dugunez, praktika horiek ez ziren diktadura kritikatzera mugatzen, aldiz, ordezkari sistema injustoa eta kapitalismoa ordezkatzeko zituzten

antolaketa politikoa eta soziala irudikatu zituzten. Inbal Oferrek Madrileko auzo mugimenduari buruzko ikerketan azpimarratzen duen bezala, frankismoaren krisia diktadorea hil aurretik mamitu zen, baina berori ez zegoen lotuta gizarte moderatu eta pasibo batekin, baizik eta gizartearen eraldatzea helburu zuen aktibismo sozial disidentearekin⁴⁹⁸. Zentzu horretan, argudiatuko dugu euskal gizartearen zati bat Herri Batasunarekin identifikatu izanak zerikusi handia duela langile eremuetan auzo mugimenduaren bitartez zabalduko diskurtsoarekin eta praktikekin.

Erreferentzia bezala José Luis Oyónen eta Rubén Pallolen eta Carlos Hernándezen lanak hartu ditugu, autore horiek langile auzoetako eguneroko praktikak, horien ezaugarriak eta hiritarrak kultura politiko ezberdinekin nola identifikatzen diren aztertutako baitute. Oyónen lanak 1936ko Bartzelona anarkistaren irudia hartzen du oinarri bezala eta anarkistak hegemoniko ziren hiriko espazioekin harremanak eraikitzen ditu. Anarkistak gehiago ziren hiriko espazioen ezaugarrien artean leudeke hiritarren migrante jatorria, langile ez kualifikatuak izatea gehiengoa eta gainontzeko hiritarrek baino bizi baldintza eskasagoak izatea⁴⁹⁹. Pallolek eta Hernándezek 1917ko abuztuko greba eta Madrileko iparraldeko langile auzoetan grebak izan zuten jarraipena aztertutako baitute. Espazio horietan grebak izan zuten arrakasta lotu egiten dute auzo horietako egunerokotasunean presente zeuden praktikekin: prezioen eta trafikoen istripuen aurkako protestak, zerbitzu publikoak eskuratzeko aldarrikapenak, auto-antolaketaarako joera eta polizia-erregimenaren jarrera gatazkatsua⁵⁰⁰.

Beste erreferentzia interesgarri bat Josu Santamarinak eta Juan Ibarrondok Gasteizko Zaramaga auzoari buruz argitaratu duten lana da, batez ere gure ikergaiarekin harremana baitu⁵⁰¹. Autore horiek paradoxa interesgarria mahaigaineratzen dute, azalduz nola auzo berria frankismoarekiko leial zen ideologia erreproduzitzeko espazio bezala pentsatu zuten autoritateek eta nola denbora laburrean espazio horixe bera disidentziaren erdigune bihurtu zuten bertako bizilagunek, egunerokotasunean oinarritutako praktika politikoaren bitartez. Zaramaga auzoa 1950ko hamarkadaren bukaeran planifikatu zuten landa eremutik iristen ziren familientzako bizileku bukoliko

⁴⁹⁸ Ofer, *Claiming the City...*, 13-15.

⁴⁹⁹ José Luis Oyón, *La quiebra de la ciudad popular. Espacio urbano, inmigración y anarquismo en la Barcelona de entreguerras, 1914-1936* (Barcelona: Ediciones del Serbal, 2008); José Luis Oyón, «The split of a working-class city: urban space, immigration and anarchism in inter-war Barcelona, 1914–1936», *Urban History* 36 (2009): 86-112.

⁵⁰⁰ Carlos Hernández Quero y Rubén Pallol Trigueros, «Suburbios rebeldes. Fragmentación y desborde social en la huelga de 1917 en Madrid», *Historia Social* 94 (2018): 47-69.

⁵⁰¹ Josu Santamarina y Juan Ibarrondo, *Zaramaga. Memoria de un barrio* (Gasteiz: Arabera, 2019).

bezala. Francok berak inauguratu zuen eta diktaduraren arrakastaren sinbolo bezala aurkeztua izan zen. Halere, 1970eko hamarkadaren erdialderako auzoa bizi-bizi zegoen, oposizio antifrankistari lotuta. Hau da, autoreek garrantzia ematen diote norbanakoen eguneroko bizipenari eta ekinbideari, autoritateen hiri-plangintza gainditzen duten errealitate disidenteak sortzeko faktore nagusi bezala.

Kapitulu honetan Hego Euskal Herriko 1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako eraldaketa sozioekonomikoa laburbilduko dugu eta, ondoren, hiriguneetako sare asoziatiboarekin eta bere izaera antifrankistarekin erlazionatuko dugu. Horri lotuta aztertuko ditugu Herri Batasunaren diskurtsoa, hautagaitzak eta hauteskunde emaitzak. Modu horretan, honako galderentzako erantzuna bilatuko dugu. Zeintzuk izan ziren desarrollismo frankistaren garaiko Hego Euskal Herriaren eraldaketaren ezaugarri nagusiak? Nor identifikatu zen Herri Batasunak bere propagandan irudikatzen zuen euskal herriarekin? Zein eremutan izan zen arrakastatsua eta zeintzuetan ez, Herri Batasunaren interpelazioa?

Hazkunde demografiko azeleratua

Espanian frankismo garaian gertatu zen industrializazioaren sakontzea Europa mailan II. Mundu Gerraren ostean garatutakoaren isla izan zen. Ezberdintasun nagusi batekin: Espainiako industrializazioa autoritate frankisten proiektu ekonomiko autarkikoak porrot egin ostean gertatu zen. 1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako industrializazio olatua estatubatuar kapitalaren sarrerak eta gobernu frankista nazioarteko erakundeetan onartzeak ahalbidetu zuten, nahiz eta frankistek 1936ko gerra Hitlerren eta Mussoliniren gobernuen laguntzari esker irabazi zuen.

Garapen ekonomikoa lehenago ere industriagune ziren eremuetan kontzentratu zen (Madril, Katalunia, Valentzia, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta horiei industriagune berriak gehitu zitzaizkien, esaterako, Zaragoza, Sevilla, Gasteiz, Iruñea, Vigo eta Kadiz. Milaka pertsona izan ziren industriagune horietaranzko landa exodo handiaren protagonistak eta 1975erako, Franco hil zen urtea, espainiar populazioaren laurdena probintzia batetik bestera lekualdatu zen. Biztanleria industriaguneetan kontzentratzen ari zen bitartean,

Iberiar Penintsularen barnealdeko eremu zabaletan eta Galiziako eta Andaluziako zenbait eskualdetan despopulatze prozesu sakonak gertatu ziren⁵⁰².


4.1 irudia. Hego Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria eta biztanleriaren hazkunde indizea (1950-1981)

	1950	1960	1970	1981	Populazioa 1981ean (100=1950)
Bizkaia	569.188	754.383	1.043.310	1.181.401	207
Nafarroa	382.932	402.042	464.867	507.367	132
Gipuzkoa	374.040	478.337	631.003	692.986	185
Araba	118.012	138.934	204.323	260.580	220
Espainia	27.976.755	30.528.539	34.040.989	37.683.362	134

Iturria: INEko datuen arabera lan honetarako egina

1950eko eta 1960ko hamarkadetan Espainian oro har gertatzen ari zen hazkunde demografiko naturala —bizi-itxaropenaren eta jaiotza-tasen hazkundeari lotua zegoena—, gainontzeko eremuetatik iritsitako milaka pertsonak indartu zuten Hego Euskal Herrian. Batez ere norbanako gazteak eta haur txikiak zituzten familiak iritsi zirenez, Hego Euskal Herriko gizartea gaztetu zen eta hazkunde demografikoa azeleratu zen⁵⁰³. Horrenbestez, 1980ko hamarkadaren hasierako Hego Euskal Herriko gizartea gaztea zen eta biztanlearen erdiak hogeita hamar urtetik behera zuen.

4.2. irudia. Hego Euskal Herriko biztanleria 1981ean, adin tarteka eta herrialdeka (%)



Iturria: INEko datuen arabera lan honetarako egina

⁵⁰² de Riquer, *La dictadura de Franco...*, 609–19, 634–45; José Maria Cardesín Díaz, «Spain Is Different: Economy, Politics and Urban Growth (1940-2000)», hemen: *The Coming of the Post-Industrial City. Challenges and Responses in Western European Urban Development since 1950*, ed. Lars Nilsson (Stockholm: University of Stockholm, 2001), 101–33; José Maria Cardesín Díaz eta Jesús Mirás Araujo, «Historic Urbanization Process in Spain (1746-2013): From the Fall of the American Empire to the Real Estate Bubble», *Journal of Urban History* 43, 1 zenb. (2017): 33–52.

⁵⁰³ Manuel González Portilla, *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Volumen I. Segunda industrialización, inmigración y capital humano* (Bilbao: Fundación BBVA, 2009), 116–25.

Hazkunde demografiko hura ez zen modu homogeneoan banatu lurraldean zehar. Aitzitik, hiriguneetan eta industriaguneetan kontzentratu zen populazioa. Bizkaian biztanleriak Bilboko Itsasadarrean kontzentratzen jarraitu zuen, hau da, Bilbon eta inguruko herrietan. Araban izugarri handitu zen Gasteizen pisu demografikoa gainontzeko lurraldearekiko. Nafarroan gertatu zen aldaketa handiena, populazioa Iruñerrian kontzentratu baitzen lehenago ez bezala. Gipuzkoan, populazioaren kontzentrazio handiena Donostialdean ematen zen arren, biztanleria gainontzeko herrialdeetan baino banatuagoa zegoen eskualde ezberdinen artean.


4.3 irudia. Hego Euskal Herriko eskualde industrial nagusietako biztanleria eta herrialde bakoitzarekiko biztanleriaren ehunekoa (1950-1981)

	1950	1960	1970	1981
Bilboko Itsasadarra	405.197	573.880	815.894	931.075
Bizkaiarekiko %a	71,25	76,07	78,20	78,81
Gasteiz	52.206	73.701	136.873	192.773
Arabarekiko %a	44,24	53,05	66,99	73,98
Donostialdea	159.897	197.219	271.232	303.673
Gipuzkoarekiko %a	42,75	41,23	42,98	43,82
Iruñerria	90.414	117.060	190.375	243.415
Nafarroarekiko %a	23,61	29,11	40,95	47,9

Iturria: INEko datuen arabera lan honetarako egina

Bestalde, biztanleria gehiagoko guneetan bizi zen jende kopurua handitu zen eta nukleo txikienetan despopulatze prozesua gertatu zen. Hau da, Bizkaian eta Gipuzkoan hiriburuetan jarraitu bazuen biztanleriaren kontzentrazio handienak eta Araban eta Nafarroan biztanleriaren kontzentrazio prozesu azeleratu bat jazo bazen hiriburuen baitan, baina, aldi berean, eskualde bakoitzeko nukleo handietako biztanleria ere hazi zen, herri txikien kaltetan.

4.4 irudia. Hego Euskal Herriko biztanleria, udalerrietako biztanle kopuruaren arabera banatua (1950-1981)



Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia⁵⁰⁴

Lehenago esan bezala, biztanleriaren hazkundera eta populazioa industriaguneetan kontzentratu izana migrazio prozesu garrantzitsuarekin batera gertatu ziren. Ondorengo tauletan ikus daiteke zein zen Hego Euskal Herriko herrialdeen osaketa demografikoa eta bertako industriagune nagusietakoa 1981ean biztanleriaren jaioterriaren arabera, bai eta zeintzuk ziren migratu zuten pertsonen jatorri nagusiak ere.

4.5 irudia. 1981eko biztanleriaren jatorria (herrialdearekiko/eskualdearekiko %)

	Herrialdea bera	Hego Euskal Herriko beste herrialdeak	Espainiako beste eskualde batzuk
Bizkaia	65,6%	2,6%	32,8%
Bilboko Itsasadarra	62,8%	2,4%	33,7%
Araba	57,9%	8,9%	32,4%
Arabako Lautada	56,2%	8,3%	34,5%
Gipuzkoa	68,5%	2,9%	27,3%
Donostialdea	65,1%	6,9%	26,3%
Nafarroa ⁵⁰⁵	80%	2,9%	15,5%

Iturria: INEko eta Eustateko datuekin lan honetarako egina

⁵⁰⁴ Francisco Javier Gómez Piñeiro, «Urbanización», Auñamendi Eusko Entziklopedia, s. f., <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/urbanizacion/ar-136229/>.

⁵⁰⁵ Ez ditugu Iruñerriko datuak.

4.6 irudia. Hego Euskal Herriko 1981eko biztanleen jatorri nagusiak, beste probintzia batzuetan jaiotakoen artean

	Bizkaia	Bilboko Itsasadarra		Gipuzkoa	Donostialdea
1	Gazt. eta Le. (156.785)	Gaztela eta Leon (152.903)	1	Gazt. eta Le. (66.976)	Gazt. eta Le. (33.194)
2	Galizia (47.223)	Galizia (38.704)	2	Extremadura (36.099)	Extremadura (16.944)
3	Extremadura (39.496)	Extremadura (30.147)	3	Nafarroa (24.150)	Nafarroa (14.166)
4	Andaluzia (32.837)	Andaluzia (26.955)	4	Galizia (19.972)	Galizia (11.251)
5	Kantabria (31.130)	Kantabria (25.878)	5	Bizkaia (14.412)	Andaluzia (5.707)
	Araba	Arabako Lautada		Nafarroa⁵⁰⁶	
1	Gazt. eta Le. (38.935)	Gazt. eta Le. (32.602)	1	Gazt. eta Le. (19.291)	
2	Extremadura (12.312)	Extremadura (11.364)	2	Andaluzia (14.386)	
3	Bizkaia (10.934)	Andaluzia (6.604)	3	Aragoi (11.328)	
4	Andaluzia (8.946)	Gipuzkoa (6.601)	4	Errioxa (10.095)	
5	Gipuzkoa (6.713)	Errioxa (6.244)	5	Guipúzcoa (9.483)	

Iturria: INEko eta Eustateko datuekin lan honetarako egina

Hego Euskal Herrira Espainiako gainontzeko eremuetatik iritsi zen populazioaz hitz egiteko orduan, kontuan hartu behar dugu ezin dugula kolektibo homogeen bati buruz aritu, bai jatorriak, bai migratzeko arrazoiak, bai bakoitza ezarri zen tokian bizitako esperientziak ezberdinak baitira. Batzuek pobrezia gorrian bizi zirelako migratu zuten. Beste batzuek lanpostu berrien bila migratu zuten hiriguneetako eta industriaguneetako aukerak erakarrita, modernitatearen ikur bezala irudikatzen baitziren horiek, landa munduari kontrajarriz. Askok beren familietako kideei jarraitu zieten eta egon zen jendea ihes egin nahi izan zuena itogarri eta zapaltzaile egiten zitzaion landa mundutik. Nahiz eta ez zuen zertan beti horrela izan, askotan lehenengo migratu zutenak gizon

⁵⁰⁶ Ez ditugu Iruñerriko datuak.

gazteak izan ziren. Migrazio prozesua azeleratzen joan zen heinean, batez ere familia gazteak izan ziren migratu zutenak eta, gutxiago, pertsona helduak eta nagusiak⁵⁰⁷.

Hego Euskal Herrira iritsitako migranteei buruz alor soziologikoan egin diren ikerketek azpimarratu egin dute norbanako bakoitzaren identitatearen konplexutasuna eta ondorioztatu dute zaila dela norbanakoen jatorrien eta pertzepzio eta identifikazio kultural eta politikoen artean lotura orokortuak egitea⁵⁰⁸. Amaia Izaolak eta Imanol Zuberok nabarmendu dute zer nolako garrantzia izan zuen lan munduak migratu zuten pertsonen soziabilitatean eta identitatean eta, halaber, zer nolako zailtasunak izan zituzten harreman sozialetarako etxetik kanpo lan egiten ez zuten emakume migranteek⁵⁰⁹. Hego Euskal Herrira iritsi ziren migranteei eta horien integrazioari buruzko interpretazioak —integrazio hitza egokiena ez dela uste dugun arren erreferentziatzko lanek erabiltzen dutena da— anitzak dira. Iraolak, Mateosek eta Zabalok integrazioari buruzko ikuspegi oso optimista ondorioztatu zuten beren ikerlanetik baina, aldiz, Raúl Lópezek eta Gaizka Fernándezek azpiarratu egin dute euskal nazionalismoak migranteekiko bere historia guztian mantendu omen duen bazterketarako joera⁵¹⁰.

Bigarren kapituluan azaldu dugun bezala, belaunaldi mailako pertzepzioek, lan munduari lotutako identitateek eta frankismo/antifrankismo ardatzaren inguruko banaketa politikoak bereziki garrantzitsuak dira Hego Euskal Herrian Trantsizioko momentu politikoa ulertzeko. Zoritxarrez, garai horretako migranteei buruz Hego Euskal Herrian dauden ikerlanek ez dute gai horietan sakondu. Baina azken urteotan garai berean Katalunian ezarri ziren migranteei buruz egin diren proposamenek guk

⁵⁰⁷ Amaia Izaola eta Imanol Zubero, «La inmigración en Gipuzkoa durante el franquismo», hemen: *Gipuzkoa. Inmigración e integración. Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975)*, ed. Fundación Ramón Rubial (Ramón Rubial Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, San Sebastián: 2018), 49-50, 66-88; González Portilla, *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Volumen I...*, 353-64.

⁵⁰⁸ José Ignacio Ruiz Olabuénaga eta M^a Cristina Blanco, *La inmigración vasca: análisis trigeracional de 150 años de inmigración* (Bilbao: Universidad de Deusto, 1994); Xabier Aierdi Urraza, *La inmigración en el espacio social vasco: tentativa de descodificación de un mundo social* (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 1993).

⁵⁰⁹ Izaola eta Zubero, «La inmigración en Gipuzkoa...», 89-90.

⁵¹⁰ Iker Iraola Arretxe, Txoli Mateos González eta Julen Zabalo Bilbao, «Discursos sobre la integración: la inmigración al País Vasco en los años 1950-1970», *RIPS: Revista de investigaciones políticas y sociológicas* 10, 3 zbk. (2011): 115-30; Raúl López Romo, «“Vinieron descalzos”. Inmigración y nacionalismo vasco durante la dictadura», hemen: *Gipuzkoa. Inmigración e integración. Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975)*, ed. Fundación Ramón Rubial (Ramón Rubial Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, 2018), 183-215; Gaizka Fernández Soldevilla, «Muertes paralelas. Un estudio de caso sobre la violencia de ETA y la nacionalización de los inmigrantes en el País Vasco», *Historia Contemporánea* 61 (2019): 1039-70.

aipatutako alorrak nabarmendu dituzte⁵¹¹. Gure ikergaia erdigunean jarrita euskal nazionalismoaren eta pertsona migranteen arteko erlazioa ulertzeko orduan, gakoak metakontakizun nazional ezberdinen eta horien interpelatzeko ahalmenean daude, bai eta nazio batari edo besteari atxikitako estereotipoetan, bosgarren kapituluaz aztertuko dugun legez.

Herri Batasunari dagokionean, pertsona migranteekiko izan zuen ikuspuntua oso baldintzatuta zegoen gizartea aztertzeko zuen ikuspegi marxista klasikoarengatik. Independentistek eta ezker iraultzaileko alderdiek ezberdintasun bat egiten zuten errealitate historiko objektiboaz jabetzen ziren pertsonen eta oraindik burgesiak alienatuta omen zeudenen artean. Horrela, Herri Batasunak ezberdindu egiten zituen alde batetik "conciencia nacional vasca" zutenak, hau da, Euskal Herri Langilea delakoa osatzen zutenaz jakitun zirenak eta, bestetik, oraindik kontzientzia hori ez zutenak⁵¹². Are gehiago, beraien ikuspegiak, zeina ETArekin kontakizun nazionalaren eskema teleologikoak baldintzatuta baitzegoen, bazeuden "distintos grados de conciencia nacional y social" eta denborarekin "se irán elevando a medida que vayamos avanzando hacia el objetivo final"⁵¹³. Herri Batasuna ziur zegoen bere proiektu politikoak herritarren gehiengoa modu objektiboan defendatzen zuelaz eta, horregatik, aditzera ematen zuen bere hautagaiek defendatuko zutela "en todo momento los intereses del pueblo trabajador vasco" eta bermatuko zutela "[que] sea la voluntad del pueblo la que impere"⁵¹⁴.

Nabarmendu behar da Herri Batasuneko zuzendaritzako kideen gehiengo handia Hego Euskal Herrian jaiotakoa zela eta, horrenbestez, migranteekiko zuten ikuspegiak pisu handia zuela autoktonoaren jarrerak, hau da, pertsona migranteak komunitateko kide izateko baldintzak betetzen dituen edo ez ebaluatzeko tokikoek izaten duten joerak. HASIko presidente Santi Brouardek adierazten zuenez, "es vasco el que vive y trabaja en Euskadi", baina jarraian baieztapen hori ñabartzen zuen: "sí, pero el que a su vez

⁵¹¹ Martí Marín, «De inmigrantes a ciudadanos: la (re)construcción de las identidades nacionales en Cataluña de la dictadura a la democracia, 1840-2017», hemen: *Clase antes que nación. Trabajadores, movimiento obrero y cuestión nacional en la Cataluña metropolitana*, ed. José Luis Oyón eta Juanjo Romero (Barcelona: El Viejo Topo, 2017), 285-308; Marc Andreu Acebal, «Fita, oblit o vigència del catalanisme popular. Classe obrera i qüestió nacional a la Catalunya metropolitana del tardofranquisme, la transició i la democràcia», hemen: *Clase antes que nación. Trabajadores, movimiento obrero y cuestión nacional en la Cataluña metropolitana*, ed. José Luis Oyón eta Juanjo Romero (Barcelona: El Viejo Topo, 2017), 309-33.

⁵¹² Egin, «El "Estatuto de la Moncloa", una claudicación vergonzosa», *Egin*, 1979ko uztailaren 19a.

⁵¹³ José Luis Cereceda, «No os comáis las margaritas», *Egin*, 1983ko uztailaren 27a.

⁵¹⁴ Herri Batasuna, «El mejor alcalde el pueblo», *Egin*, 1979ko martxoaren 25a.

siente sus problemas [de Euskadi], claro"⁵¹⁵. Beste era batera esanda, Herri Batasunarentzat pertsona migranteak ez ziren euskal nazioko parte *per se*. Baina horrek ez du esan nahi baztertu egiten zituztenik, guztiz bestela. Nolabaiteko tentsio bat zegoen Herri Batasunea, migranteak euskal nazioaren parte bezala ulertzeko orduan. Batetik, batez ere bertakoen kolektiboaren ordezkari zirela bazekiten independentistek baina aldi berean pertsona migranteen ordezkari ere izan nahi zuten. Tentsio hura HASIko idazkari nagusi Txomin Ziluagaren hitzetan ikus daiteke: "Si HB tuvo el apoyo de numerosos emigrantes en las pasadas elecciones, Herri Batasuna por su parte muestra su total apoyo a ellos, con los que nos mostramos totalmente identificados"⁵¹⁶.

Bestalde, Trantsizioko urteak pasa ahala, Herri Batasunak ideia bat azpimarratu zuen: Hego Euskal Herrian bertakoen eta migranteen arteko banaketari erreferentzia egitea PSOEek independentisten aurka zuen kanpainaren parte zen. Herri Batasunak egotzi egiten zien sozialistei "estar tratando de crear dos comunidades en Euskadi" eta salatu egiten zuen PSOEek sustatu egiten zituela "sectarismos (...) [que] intentan dividir al pueblo vasco en dos comunidades"⁵¹⁷. Herri Batasunak honakoa ziurtatzen zuen PSOERI buruz: "su espacio político lo intentan encontrar en los sectores migrantes que por diversos factores no se sienten plenamente vascos" eta ideia horri Herri Batasunaren ikuspegia aurkakotzen zion: "todos somos autóctonos y no hay emigrantes, porque todos formamos el pueblo trabajador vasco"⁵¹⁸. Gainera, bertakoen eta migranteen arteko zatiketa ekiditeko berme bezala aurkezten zuten independentistek beren burua: "no lo van a conseguir jamás, porque Herri Batasuna lo va a impedir"⁵¹⁹.

Beste era batera esanda, Herri Batasunak Hego Euskal Herrira iritsitako pertsonen inguruan zuen ikuspegia ETAREN kontakizun nazionalak eta kontakizun horren izaera teleologikoak baldintzatuta zegoen. Horrenbestez, aurreikusten zuten pertsona migranteak Herri Batasunarekin identifikatzea denbora kontua besterik ez zela. Ikuspegi horren ondorioz, ez zuten migrazioaren inguruko mezua garatu, bertakoen eta migranteen arteko gatazken aukera gogor gaitzesteaz haratago. Jarrera horrek hein handi

⁵¹⁵ Egin, «Shanti Brouard: "Este es el momento de la audacia política"», *Egin*, 1983ko ekainaren 19a.

⁵¹⁶ Egin, «Entrevista a Txomin Ziluaga: "las posibilidades de que salga el Estatuto de Guernica son casi nulas"», *Egin*, 1979ko uztailearen 13a.

⁵¹⁷ Egin, «Votar HB es luchar por la liberación nacional y social de Euskadi», *Egin*, 1982ko urriaren 23a; Miguel Castells, «Razones contra la sinrazón (breve recuerdo)», *Egin*, 1982ko urriaren 26a.

⁵¹⁸ Egin, «Votar HB es luchar por la liberación nacional y social de Euskadi», *Egin*, 1982ko urriaren 23a.

⁵¹⁹ Egin, «Letamendia: "Entusiasmo desbordante en la campaña de HB"», *Egin*, 1980ko martxoaren 4a.

batean Herri Batasuna bertakoen ordezkari bezala agertzen zuen eta zaildu egiten zuen migrante asko independentistekin lerratzeke aukera.

Laburbilduz, 1950eko, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako industrializazio, migrazio eta biztanleriaren kontzentrazio prozesu hirukoitzak Hego Euskal Herria eskualde bereziki industrializatua, hiritarra, jatorri anitzeko biztanleriaduna eta gaztea bihurtu zuen. Beste modu batera adieraziz, Herri Batasunak Trantsizio garaian interpretatu zuen gizartea bereziki hiritarra, industrialia eta gaztea zen eta biztanleen laurdena baino gehiago Hego Euskal Herritik kanpo jaioa. Herri Batasunaren diskurtsoa errealitate hari egokituta zein neurritan egon zen aztertzea bere interpelazioak izan zuen arrakasta ulertzeko gakoa da.

Desarrollismoko hiriburuak

Hego Euskal Herriko hazkunde industrialaren eta demografikoaren ondorio zuzena hiriguneen garapen azeleratua izan zen. Etxebizitza berrien etengabeko beharrak kontrolik gabeko eraikuntza prozesua ahalbidetu zuen eta hirigintza planen gainetik tokiko eliteen interes ekonomikoak eta langile klase berriaren segregazio espaziala ezarri ziren.

XX. mendeko bigarren erdiko hiriguneen hedapena horiek planifikatzeko eredu aldaketarekin batera gertatu zen. Zabalgune ortogonalen diseinuak alboratu ziren eta planifikazio organizista egin zen, hiriko espazio ezberdinak definituz funtzio-sozioekonomiko ezberdinei lotuta: etxebizitza guneak, industriaguneak, azpiegiturak eta aisialdi guneak. 1930eko hamarkadatik Europako hirien garapenerako nagusitu ziren korrante funtzionalisten eragina zuen planifikatzeko modu horrek eta adibide paradigmatikotzat Milan hiri italiarraren planifikazioa zuen⁵²⁰.

Lekuan lekuko autoritate frankistek hiri-antolamendurako planak onartu zituzten, baita Hego Euskal Herrian ere. 1945ean *Ley de Bases para la Ordenación Urbanística y Comarcal de Bilbao y su Zona de Influencia* eta 1950ean *Plan General de San Sebastián*. 1956an *Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria* onartu zen eta hurrengo urtean Iruñekoa.

⁵²⁰ Fernando de Terán Troyano, «Evolución del planeamiento urbanístico (1846-1996)», *Ciudad y Territorio. Estudios Territoriales* 28, 107-108 zbk. (1996): 174-75; Ofer, *Claiming the City...*, 25-27.

Gerora ikusita, zenbait ezaugarri komun zituzten autoritate frankistek espainiar hiriburuetarako onartu zituzten planek: neurrigabeko aurreikuspenak, lurraldean zehar inolako hierarkiarik gabe hedatzen zen komunikabide-sarea eta zerbitzu publikoak kontuan ez hartzea. Praktikan, 'olio orban' erakoa deritzon hiriaren garapena baimendu zuten tokiko autoritateek. Etxebizitzen eraikuntzarako esleitutako eremuak zabalegiak ziren eta etxebizitza blokeak auzoak antolatu behar zituzten plan partzialak garatu aurretik eraiki ziren. Eraikinak kontrolik gabe zutitu eta hedatu ziren. Eraikuntza prozesua etxebizitza-sustatzaileen interesen arabera garatu zen eta horiek administrazioetako sare klientelar ustelak aprobetxatu zituzten auzo berriak eraikitzeko, biztanleentzako beharrezkoak izango ziren azpiegiturak eta zerbitzuak sortu gabe. Gainera, eraikuntza enpresek lekurik urrunetan eraikitzea aldeztu zuten, bertan lurzorua merkeagoa zelako, eta horrek auzo berrien eta hirietako erdiguneen arteko loturetan arazo larriak sortu zituen⁵²¹.

Bestalde, diktadura frankistak alokairua nagusi zen merkatuarekin bukatzea eta etxebizitzen jabetza orokortzea bultzatu zuen, uste baitzuen langile familiak etxejabe bihurtzearekin batera, diktaduraren sistema politiko-soziala sendotuko zela. Atzitik, etxebizitzak erostera bultzatzen zuten politika haien ondorio nagusiak lurzoruaren espekulazioa eta etxebizitza-sustatzaileek kalitate eskaseko eraikinak eta beharrezko ekipamendurik gabeko auzoak eraikitzeko *laissez faire* delakoa izan ziren⁵²².

Hirien hazkunde azkarraren ondorioz larriena Espainiako hiri nagusietan agertu ziren autoeraikuntzako auzoak izan ziren⁵²³. Ez zen fenomeno berria baina ordurarte ikusi gabeko maila hartu zuen eta 1950eko hamarkadaren bukaeran gobernuak esku-hartzera derrigortua ikusi zuen bere burua. Madrilerako, Bartzelonarako eta Bilborako Planes de Urgencia Social delakoak onartu ziren. Autoritate frankistek azkar batean auzo berriak planifikatu zituzten eta horien helburu nagusia txabolak espazio publikotik desagertzea izan zen, nahiz eta ez zuten beren helburua erabat erdietsi. Korrika eta presaka eraikitako etxebizitza haiek propaganda kanpaina handiekin batera egin zituzten baina

⁵²¹ Jesús María Erquicia Olaciregui, *Hirigintza-plangintzatik lurraldearen antolamendura. Eskala-aldaketaren premia* (Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Lurralde Antolamendu eta ingurumen saila, 2003), 67-68, 115-16; de Terán Troyano, «Evolución del planeamiento...», 176-77.

⁵²² Cardesín Díaz eta Mirás Araujo, «Historic Urbanization Process...», 42.

⁵²³ Ofer, *Claiming the City...*, 58-78.

hasieratik gabezia larriak izan zituzten eta ez zituzten konpondu auzo horietako biztanleen bazterketari eta segregazioari loturiko arazoak⁵²⁴.

Hazkunde azeleratuko garai horretan Hego Euskal Herriko hiriburuak aztertuz gero, ezberdintasun nabariak egon ziren Bilboren, eta hein txikiago batean, Donostiaren hazkunde deskontrolatuaren eta Gasteizen eta Iruñean gertatu zen hedapen kontrolatuagoaren artean, nahiz eta hiri horietan ere zenbait auzo bazterketa gune bihurtu ziren. Bi faktoreri egin diezaiekegu erreferentzia, Hego Euskal Herriko hiriburuen arteko ezberdintasun hori azaltzeko. Alde batetik, Arabako eta Nafarroako foru ogasunek baliabide ekonomikoak eskaintzen zizkieten tokiko autoritateei, Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuetan ez bezala. Foru Aldundiek baliabide horiek erabili zituzten Gasteizen eta Iruñean industria ezar zedin azpiegiturak finantzatzeko, planifikatzeko eta eraikitzeko eta, bide batez, hori guztia enpresarien interesei lotuta egiteko. Bestalde, Gasteizkoa eta Iruñekoa modernizazio ekonomiko gune berriak ziren eta industrializazioa ez zen garatu eremu jada saturatu batean, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala. Alderantziz, Gasteiz eta Iruñea ordura arte nekazalgune izandako eremu zabalek inguratuta zeuden eta errepide bidezko komunikaziorako kokapen egokia zuten bi hiriek.

Gasteiz hiri antolaketa planifikatuaren eredu izan zen, administrazio frankistan ohikoak ziren ustelkeria sareak eta zenbait interes partikularren lehentasunak gora-behera. Arabar autoritateek zenbait kenkari fiskal eskaini zituzten enpresak Gasteizen koka zitezten eta lortu zuten 1940ko hamarkadaren bukaeratik zenbait lantegi gipuzkoar bertan ezartzea. Arrakasta ikusita, tokiko elite enpresarialari erabat lotua zegoen udaletxeak ordura arte nekazaritzarako erabiltzen ziren eremu zabalak eskuratu zituen eta hiriaren kanpoaldean industriagune ezberdinak eraiki zituen, ondoren enpresei kostaprezioan salduz⁵²⁵. 1950 eta 1975 artean, Gasteizko biztanleria hirukoiztu egin zen eta Espainia mailan epe horretan hazkunde demografiko handiena izan zuen hiria bihurtu zen. Denbora laburrean, probintzia hiriburu bat gehiago izatetik hiri industrial

⁵²⁴ Iñigo López Simón, «El chabolismo vertical. Los movimientos migratorios y la política de vivienda franquista [1955-1975]», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia* 25 (2018): 173-92; Ofer, *Claiming the City...*, 28-33.

⁵²⁵ Aitor González de Langarica, «Vitoria durante el Franquismo: el tercer modelo de industrialización vasca (1946-1976)», hemen: *Dictadura y desarrollismo. El franquismo en Álava*, ed. Antonio Rivera (Murcia: Universidad de Murcia Servicio Editorial, 2008), 6-7; López de Maturana, *La reinvencción...*

izatera igaro zen —biztanleria aktiboaren %60a bigarren sektorean enplegatua baitzegoen—⁵²⁶.

Landa eremuetatik milaka pertsona iritsi arren, Gasteizen ez zen autoeraikuntzazko auzorik egon. Garaiz garatutako zenbait ekinbidek iritsi berrientzako pasadisozko etxebizitza bezala funtzionatu zuten, nahiz eta etxegune horiek kalitate eskasekoak izan eta erdigunetik urrun eta gaizki komunikatuta egon. Pasadisozko izaera hura izan zuten Armentiaiko San Prudentzio etxetaldeak —inspirazio falangista zuena—, Errekaleor auzoak —apezpikutzak finantzatu zuena—, Abetxukuko herrixkak —udaletxearen inizatiba— eta ekinbide pribatuko zenbait etxetaldek, hala nola, Ceferino Uríen, Imosa taldea eta Bustaldea poligonoa⁵²⁷. Aldi beran, ekialdeko eta mendebaldeko zabalgunek eraiki ziren, etxebizitzak, tailerrak eta zerbitzuak uztartzen zituzte espazio berriak sortuz, eta bertan arabar herrietatik iritsi zen jende asko bilduz. Bestalde, langile auzo handiak ere eraiki ziren, erdigunetik urrunago eta bertan kontzentraturik batez ere Hego Euskal Herri kanpotik iritsitako jendea: Adurtza hegoaldean —lehenagoko San Cristobal langile auzoaren inguruan eta Esmaltaciones San Ignacio fabrikatik hurbil—, Ariznabarra ekialdean —Mercedeseko lantegira bidean— eta Zaramaga iparraldean —Forjas Alavesas lantegiaren erraldoiaren parean—⁵²⁸.

Gasteizen bezalaxe, tokiko autoritate nafarrek kenkari fiskalak onartu zituzten 1952an eta Landabeneko industriagunea eraiki zuten. Bertan autogintza industria garrantzitsua finkatu zen 1960ko hamarkadaren erdialdean, Iruñerriko industrializazioaren akuilu bihurtu zena. Lantegi asko iparraldean kokatu ziren, hiriko langile auzo zaharra zen Arrotxapearen inguruan. Handik gertu, Sainduzelain beste langile auzo bat eraiki zen, lehenagotik tren geltokiaren inguruan zeuden etxetaldeen ondoan. Hiriaren ipar-ekialdean Txantreako auzoa ere eraiki zen, inspirazio falangista zuen lorategi-hiri proiektu baten arabera. 1940ko hamarkadan martxan jarri zen eta bizilagunek berek eraiki zituzten etxebizitzak hasiera batean. Ondorengo hamarkadetan auzo hura asko dentsifikatu zen. Hiriaren iparraldeko lantegien eta langile auzoen ardatz horri lotuta,

⁵²⁶ Pedro M^a Arriola Aguirre, *Aspectos del crecimiento periférico de Vitoria-Gasteiz* (Vitoria-Gasteiz: Diputación de Álava, 1984), 58-61; Sáenz del Castillo Velasco, «Las damas del hierro...», 227-32.

⁵²⁷ Arriola Aguirre, *Aspectos del crecimiento...*

⁵²⁸ Manuel Antonio Zárate Martín, «Vitoria: transformación y cambio de un espacio urbano», *Boletín de la Institución Sancho el Sabio XXV* (1981): 5-520; González de Langarica, «Vitoria durante el Franquismo...

Iruñearen alboan dauden Antsoainen, Burlatan, Atarrabian eta Uhartan ere hazkunde demografiko eta urbanistiko azeleratua gertatu zen⁵²⁹.

Arga ibaiaren hegoaldean, errekaren bestaldean, Iruñea bi dinamika ezberdin jarraituz hedatu zen. Ziutadelaren inguruan zabalgunek berria eraiki zen eta hari lotuta, Iturramako auzoa hegoalderantz. Kalitatezko etxebizitzak zituzten eremu horiek eta planifikatutako eredia jarraitu zuten. Halere, zabalgunek klasikoen estiloko hedapen horren mugetan Donibanen langile nukleoa ere eraiki zen, ekialdean. Eta Arrosadia mendebaldean, lehenago Mochuelo auzoa bezala ezagutzen zen eremuan kontrolik gabeko eraikuntza eta dentsifikazioa gertatu zelarik, espazioa ganoraz planifikatu gabe eta beharrezko azpiegiturak eraiki gabe. Erdigunetik askoz ere urrunago, bertako biztanleei bazterreko izaera eman ziena, Etxabakoitz auzoa geratu zen, Iquinasa produktu kimikoen lantegi ondoan eraikia. Iruñeko udalera 1953an atxiki zenean, Etxabakoitzeko biztanleria —1950eko hamarkada hasieran bostehun pertsona ingurukoa zena— halako hamar bihurtu zen hurrengo hamarkadetan. Auzo horretatik hurbil, Zizurreko udalean ere hazkunde adierazgarria gertatu zen, Zizur Nagusiko eta Barañaingo dorreak eraiki zirenean, baina eremu horiek ez zuten Etxabakoitz bazterreko ezaugarririk izan⁵³⁰.

Donostiako kasua Iruñekoaren antzekoa izan zen, zenbait eremu planifikazioari lotuta eraiki baitziren eta beste zenbait kontrolik gabe. Gainera, hiriaren hedapena Bilbo eta Irunen arteko errail anitzeko autobideak eta trenbideak baldintzatzen zuten, udalerrria hego-ekialdetik mendebaldera gurutzatzen baitzuten. Hego Euskal Herriko hiriburuen artean, Donostia izan zen izaera industrial gutxien hartu zuena, industriaren gehiengoa hiriaren periferian ezarri baitzen, Lasarten eta Hernanin —hegoaldean— eta Pasian eta Errenterian. Herri horietan gertatu zen batez ere hazkunde demografiko handia. Halere, Donostian ere hedapen garrantzitsua gertatu zen ekialderantz, Pasaiako porturaino iristen den korridorea jarraituz⁵³¹.

⁵²⁹ Joseba de la Torre, «Trabajadores, empresarios y tecnócratas en el desarrollo industrial de Navarra (c. 1950-1980)», *Gerónimo de Uztariz* 22 (2006): 75-103; Perez Ibarrola, *Langileria berri baten...*, 61-65.

⁵³⁰ Pau Serra del Pozo, *Usos del Suelo y Promoción Inmobiliaria en el Área Metropolitana de Pamplona: 1957-1997* (Pamplona: Ediciones Universidad de Navarra, 2000); Pau Serra del Pozo, «Pamplona y su área metropolitana», en *Vivienda y promoción inmobiliaria en España*, ed. Joan Vilagrassa (Lleida: Universitat de Lleida, 1997); Zuriñe Sáinz Pascual eta Nerea Perez Ibarrola, «Transformación urbanística y evolución socioeconómica de una ciudad. Pamplona 1900-1979», hemen: *Euskal Hiria, Reflexión sobre la ciudad y las ciudades vascas*, ed. Andeka Larrea (Donostia: -ex liburuak, 2012), 105-59; Perez Ibarrola, *Langileria berri baten...*, 162-79.

⁵³¹ Francisco Javier Gómez Piñeiro, *Aproximación a la geografía social y urbana de la comarca donostiarra* (San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1984).

Donostia turismo leku garrantzitsua zen XIX. mendeko bigarren erditik⁵³². Gipuzkoar hiriburuak frantses elegantziaren aura zuen, Miarritzekiko hurbiltasunak eta bere zabalgunearen paristar inspirazioak eraginda. Francoren diktaduraren garaian turismo elitistaren helmugetako bat izaten jarraitu zuen baina izaera hura diktadorearen osasunarekin batera apaldu zen. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Mediterraneoko kostan uda-garaiko turismoa orokortu zenean, Donostia pasozko turismo leku bihurtu zen europar motorzaleak eta motxileroak iritsi ahala. Testuinguru horretan, alde zaharrak benetakotasun aura bat hartu zuen, bere izaera herritar eta euskalduna erdigunearekiko oso ezberdina baitzen, hiriaren erakargarritasuna bertan kontzentratu zelarik handik aurrera⁵³³.

Hiriaren hedapen garrantzitsua Kontxako hondartzako, alde zaharreko eta zabalguneko bistetatik urrun gertatu zen. Amarako zabalgunea hegoalderantz modu antolatuan eraiki bazen, ez zen hala gertatu Egian. Hiriko langile auzo tradizionala izaera planifikaturik gabe dentsifikatu zen. Ekialderantz jarraituz, Ulia-Ategorrieta eta Intxaurrendoko eremua ere dentsifikatu ziren, planifikaziorik jarraitu ez zuten etxetaldeen eraikuntzarekin, errepidearen eta trenbidearen alde bietan zehar. Eta hiriaren ekialdeko muturrean etxebizitza bloke handiak eraiki ziren Altzan eta Bidebietan, hiriko langile gunerik garrantzitsuenak bihurtuz eta bertan kokatuz familia migratzaileen gehiengoa. Urrunago geratzen ziren Loiolako eta Martuteneko langile gunek, 1950ko hamarkadan eraiki zirenak. Eta baita Antigua ere, badiaren mendebaldeko muturrean, bertan kokatzen zelarik elitearentzako lorategi-hiria hondartza parean eta langileen etxebizitzak aldapan gora⁵³⁴.

Azkenik, Bilboren hedapenak kontrolik gabeko hiri hazkundearen eruedetako bat bihurtu zuen Bizkaiko hiriburua. Espazioen planifikazioa etxebizitza-sustatzaileen interesen arabera aldatzen joan zen eta praktikan, izugarri dentsifikatutako auzoak eraikitzea baimendu zen. Horrek biztanleentzako azpiegiturretan eta zerbitzuetan gabezia

⁵³² John K. Walton, «The First Century of Beach Tourism in Spain: San Sebastián and the Playas del Norte from the 1830s to the 1930s», hemen: *Tourism in Spain: critical issues*, ed. John Towner, Michael Barke eta Michael T. Newton (Wallingford: CAB international, 1996), 35-61; John K. Walton, «Planning and seaside tourism: San Sebastián, 1863-1936», *Planning Perspectives* 17 (2002): 1-20.

⁵³³ John K. Walton, «Another face of 'mass tourism': San Sebastián and Spanish beach resorts under Franco, 1936-1975», *Urban History* 40, 3 zbk. (2013): 483-506.

⁵³⁴ María Jesús Calvo Sánchez, *Crecimiento y estructura urbana de San Sebastián* (San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1983); Javier Gómez Piñeiro eta Juan Antonio Sáez García, ed., *Geografía e historia de Donostia-San Sebastián* (Donostia: Ingelba & Instituto Geográfico Vasco "Andrés de Urbatea" Euskal Geografi Elkargoa, 1999).

larriak eragin zituen. Kontrolik ezaren adierazgarri, 1978ko udan oraindik Konstituzioa onartzeke zegoenean, Eusko Kontseilu Nagusiari eman zitzaizkion lehen eskumenen artean hirigintzako zegoen. Eta horrek erakunde berri horri hirigintza planak bertan behera utzi eta berriak onartzeko baimena eman zion⁵³⁵. Aurrerago, Eusko Legebiltzarrak onartutako lehen legeen artean Bilbo Handia korporazioaren desagertzea xedatzen zuena egon zen. Izan ere, autoritate frankistek sortutako korporazio hura oztopo larria zen udaletxeek eta gobernu autonomikoak hirigintza alorrean baitezpadako esku-hartzeak abia zitzaten⁵³⁶.

1950eko hamarkadan autoeraikuntzako auzoak gaina hartu zieten Bilboko autoritateei eta Otxarkoagako auzoa diseinatu zen, hiriko leku askotan ikusten ziren txabolak desagerrarazteko helburuarekin. Azkar batean eraiki zen Otxarkoaga, 1959-1961 artean, hiritik aldentuta zegoen eremu batean eta hasiera-hasieratik arazo larriak izan zituzten kalitate eskaseko etxebizitzekin⁵³⁷. Eredu horren oso bestelakoa izan zen San Inazio auzoaren eraikuntza. Hiriaren beste muturrean eraiki zuten 1940ko eta 1950eko hamarkadetan zehar eta esku-hartze urbanistiko falangista handia izan zen. Auzoan kalitatezko etxebizitzak egin ziren eta beharrezko zerbitzu publikoak eta ekipamenduak eraiki ziren. Nahiz eta auzo hura eredu izatea zen hasierako helburua, San Inazio salbuespena izan zen⁵³⁸.

Egin egin ziren Bilboko auzo ezberdinak antolatzeke plan partzialak. Eta zenbait etxetalde eraiki ziren udaletxeak sustatuta Deustun, Solokoetxen, Santutxun, Las Cortesen eta San Adrianen 1940ko eta 1950eko hamarkadetan. Baina une hartatik aurrera, ohikoena inolako ekipamendurik kontuan hartu gabe eta legediari iskin eginez eraikitzea izan zen. Eremu isolatuetan eta industriaguneetan etxebizitzak eraikitzeke baimenak eman ziren eta blokeetako asko administrazioko tramiteak bukatu aurretik ere

⁵³⁵ «Real Decreto 1981/1978, de 15 de julio, sobre transferencias de competencias de la Administración del Estado al Consejo General del País Vasco en materia de agricultura, industria, comercio y urbanismo.», *Boletín Oficial del Estado* 199 (1978): 19493-99.

⁵³⁶ «"Bilbo Haundi"-ko arduralaritza-bazkunaren ezabapenari buruzko abenduaren 18ko 3/1980 Legea», *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 3 (1981eko otsailaren 16a): 28.

⁵³⁷ Iñigo López Simón, «Otxarkoaga, un caso de poblado dirigido en Bilbao. De la chabola a la marginación urbana en el desarrollismo franquista», *Historia Contemporánea* 52 (2016): 309-45; Ianire Castrillo, «Bilboko txabolismoa. XX. Mendearen erdialdeko auzo autogestionatuak», *Uztaro* 60 (2007): 37-64.

⁵³⁸ José Antonio Pérez Pérez, «De la comunidad nacional a la comunidad de propietarios. Los límites del nacional sindicalismo», hemen: *El País Vasco y España: Identidades, Nacionalismos y Estado (siglos XIX y XX)*, ed. Luis Castells Arce, Arturo Cajal Valero eta Fernando Molina Aparicio (Leioa: Servicio editorial de la UPV/EHU, 2007), 215-47.

eraiki zituzten. Horrela, Santutxu, Errekalde eta Zurbaran auzoak garaiko legedia errespetatu gabe eraiki ziren eta bereziki dentsifikatutako hiri espazioak sortu ziren⁵³⁹.

Horren guztiaren ondorioa Bilboko hiri-eremuan muturreko pilaketa izan zen, etxebizitza eta industria eremuak korapilatuz ibaiak zeharkatutako *continuum* batean, jada 1970eko hamarkadarako kutsadura maila izugarria pairatzen zuen eremu zabalean. Errontegiko zubiaren eraikuntza, 1945ean proiektatu zena ibaiadarraren bi aldeak lotzeko, ez zen abiatu 1977ra arte, Bilbo inguruko trafikoaren pilaketa arintzeko oinarritzko azpiegitura zen arren. Hirigintza planetan zegoena kontuan ez hartzearen beste ondorio bat Frantziatik iristen zen autopistarentzako Solución Sur delakoaren eraikuntza izan zen. Biaduktua, 1965 eta 1972 artean eraiki zena, Errekalde auzoaren gainetik igarotzen zen, autoak zuzenean Bilboko erdigunera irits zitezten⁵⁴⁰.

Franco hil ondoren egin ziren lehen udal hauteskundeetan, 1979ko apirilaren 3an, Herri Batasuna bigarren hautagaitza bozkatuena izan zen Bilbon, Donostian eta Iruñean, eta emaitza esanguratsuak lortu zituen Gasteizen. Bigaren postua lortu zuen baita beste hirigune industrial batzuetan ere, esaterako, Erreterian, Barakaldon, Arrigoarriagan eta Antsoainen. Eta hautagaitzarik bozkatuena izan zen Pasaian, Hernanin eta Atarrabian. Hau da, 1970eko hamarkadaren bukaeran Herri Batasunaren interpelazioa hirigune industrialetan izan zen arrakastatsua batez ere, hots, populazioaren kontzentrazioa eta migrazioa gertatu ziren lekuetan. Hiriguneetako arrakasta hura esanguratsua da, gainera, tokiko populazioa nagusi zen landa eremuarekin konparatzen badugu, bertan UCD eta EAJ izan baitziren alderdirik bozkatuenak udalerrri gehienetan. Jarraian 1979ko hauteskunde orokorretako datuak eskaintzen ditugu, batez ere Nafarroan udal hauteskundeetan aurkeztu ziren hautagaitza independenteen kopuru handiak ez baitu hain argi adierazten Hego Euskal Herriko landa eremu kontserbadorearen irudia.

⁵³⁹ Manuel González Portilla, *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Volumen II. Infraestructuras, espacio y recursos* (Bilbao: Fundación BBVA, 2009), 117-20.

⁵⁴⁰ *Ibid.*, 83-98.

4.7 irudia. Alderdirik bozkatuena 1979ko hauteskunde orokorrean, herrialde bakoitzeko udal kopuruaren arabera

	UCD	PNV	PSOE	HB	UPN	EKA
Áraba	31	16	2	1	-	0
Gipuzkoa	0	53	7	21	-	0
Nafarroa	216	10	16	3	8	5
Bizkaia	1	79	10	6	-	0
Guztira	248	158	35	31	8	5

Iturria: Segurtasun Sailaren eta Barne Ministerioaren sareko datuekin lan honetarako egina

Esandakoa kontuan harturik eta jarraian azalduko ditugun beste elementu batzuei erreparatuta, uste dugu Trantsizio garaian Herri Batasunak hiritar izaera garrantzitsua eduki zuela. Hurrengo ataletan, independentisten hautagaitzen aukerak eta mugak aztertuko ditugu, bai eta hiriburuetan izan zituzten emaitzak ere. Horrela, hiritarren banaketa espazialaren eta identifikazio politikoen arteko harremanak aztertzeko aukera ere izango dugu.

Sare asoziatiboa eta frankismoa porrot urbanistiko bezala

Gerra ofizialki 1939an bukatu zen arren, 1948ra arte luzatu zuen Francoren diktadurak salbuespeneko errepresio garaia. Eta gerrillarien aurkako taktika indiskriminatuek 1952ra arte jarraitu zuten herrialdeko zenbait eremutan⁵⁴¹. Badirudi hirietara nork migratu zuen eta nork ez 1930ko hamarkadan identifikazio ezkertiar bat erakutsi zuten familiek gerrostean jasan zuten estigmatizazioak eta izan zituzten zailtasun ekonomikoek baldintzatu zutela⁵⁴². Tradizio ezkertiar bizia zuten landa eremuetatik hiriburuetara alde egiteak azaltzen du, adibidez, Kordoban 1970eko hamarkadan zehar alderdi komunistak lortu zuen indarra⁵⁴³.

Behin errepresio gogorrenaren garaia pasata, autoritate frankistek espainiar bizimodu publikoan hiritarren parte-hartzea sustatzen zuen mezua hedatu zuten. Horretarako, 1964an *Ley de Asociaciones* onartu zuten. Helburua eraldaketa sozioekonomiko sakona

⁵⁴¹ Jorge Marco eta Mercedes Yusta Rodrigo, «Irregular War, Local Community and Intimate Violence in Spain (1939-1952)», *European History Quarterly* 49, 2 zbk. (2019): 231–249.

⁵⁴² Angelina Puig i Valls, «La Guerra Civil espanyola, una causa de l'emigració andalusa en la decada deis anys cinquanta?», *Recerques: Història, economia i cultura* 31 (1995): 53-69; Ofer, *Claiming the City...*, 44-47.

⁵⁴³ Javier Contreras-Becerra, «La construcción del “califato rojo”. El movimiento vecinal en Córdoba (1963-1986)», hemen: *La Historia, lost in translation? Actas del XIII Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea*, ed. Damián A. González Madrid, Manuel Ortiz Heras eta Juan Sisinio Pérez Garzón (Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, 2017), 1485-98.

gertatzen ari zen unean sortzen ari ziren tentsioak arintzea zen eta, modu horretan, biztanleria antifrankismotik aldentuta mantentzea. Ezarritako legedia aprobetxatuta, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan auzo elkarteak ugaitu ziren. Auzo elkarteek zanga handi bati erantzuten zioten, hain zuzen ere, erregimenaren erretorika sozialaren eta azpiegitura eskasekin, ekipamendu eta zerbitzu nahikorik gabe eta etengabeko inflazio ekonomikoaren pean bizi ziren herritarren zati handiaren errealitatearen artekoa⁵⁴⁴.

Auzo elkarteetan auzo bakoitzean zeuden aldarrikapen ezberdinak uztartzen ziren eta erreferentziazko erakundeak bihurtu ziren jai egunak, kultur jardunaldiak eta auzoetan zeuden arazo ezberdinen inguruko mobilizazioak antolatzeko. Legez-kanpoko alderdietako kide askoren parte hartzeak elkarte horiei ere bizi gehiago eman zien, baita bisai eta erretorika antifrankista ere, langile mugimenduekin eta langile batzordeekin lehenago gertatu bezala⁵⁴⁵.

1960ko hamarkadako hauteskunde sindikaletan gertatu zenaren antzera, zenbait lekutan frankismoko botere egituretatik kanpo zeuden udal hautagaitzak aurkeztu ziren eta saiatu ziren legedia aprobetxatzen herritarren bizi mailaren hobekuntzan eragiteko. Gasteizen Hermandad Obrera de Acción Católicaak (HOAC) hautagaitza bat antolatu zuen 1963an. Hautagaiak Gasteizko botikari errepublikazale bat, kooperatiba bateko kudeatzaile zen gipuzkoar bat eta Toledon jaiotako ordezkari sindikal bat izan ziren. Hautagaitzak emaitza bikainak lortu zituen Adurtzan eta Abetxukun eta hirurak zinegotzi bihurtu ziren⁵⁴⁶.

Iruñean ere antzeko hautagaitza bat antolatu zen eta 1966an iritsi zen udaletxera, zinegotzi sozialen taldea sortuz. Horien ekinbide nagusietakoa udaletxeari auzo berriak antolatzeko hirigintza plan partzialak onar zitzan exijitzea izan zen. Baina gainontzeko hautetsiak tokiko enpresarien interesei lotuta zeuden. Hirigintzaren inguruko bi ikuspegiak Ermitagaña auzoaren eraikuntza proiektuan talka egin zuten. Zinegotzi sozialek lurra udaletxeak erostea eta ondoren jabeen kooperatiba bat sortzea bultzatu zuten, horrela lurzorua espekulazioa ekiditeko. Azkenean, halere, proiektu aurrerakoi

⁵⁴⁴ Radcliff, *Making Democratic Citizens...*, 23-34, 73-74, 91.

⁵⁴⁵ Andrés González Rojas, «Comunistes, dones, catòlics i radicals. El moviment veïnal a València: el cas de la Malva-rosa», hemen: *Mirar el pasado en tiempos de crisis. Historia social, conflicto y cultura de masas. Actas del V Encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea. Volumen 3*, ed. David Alegre Lorenz, Miguel Alonso Ibarra eta Assumpta Castillo Cañiz (Barcelona: Departament d'Història Moderna i Contemporània de la Universitat Autònoma de Barcelona, 2017), 101-15; Wilhelmi, *Romper el consenso...*, 68-71.

⁵⁴⁶ López de Maturana, *La reinvencción de una ciudad...*, 249-53.

hura etxebizitza ministerioak geldiarazi zuen eta enpresarien interesen arabera moldatu zuen⁵⁴⁷.

Agian Nafarroa eta Araba 1936ko estatu kolpearean gotorleku bihurtu izanak ezberdinu egiten zituen Gipuzkoarengandik eta Bizkaiarengandik, azken bi herrialde horietan bertan behera geratu baitzen foru ogasuna 1937an, Espainiak historikoki izandako "generosidad excepcional" delakori traizio egin ondoren⁵⁴⁸. Beharbada Araban eta Nafarroan tokiko autoritateek beren buruan zuten konfiantzak aldeztu egin zuen udaletxeetan zinegotzi disidenteak egotea. Izan ere, ez zen gauza bera gertatu Bilbon edo Donostian. Are gehiago, Bilboko kasuan eztabaida handiak gertatu ziren udaletxearen eta auzo elkarteen artean.

Pilar Careaga (1908-1993) zen Bilboko alkatea 1969tik. Dikadurarekin lerrokatutako familia oligarkiko batetakoa zen eta, gainera, erregimen frankistaren edozein erreforma baztertzeko zuten sektore ultren ingurukoa zen. Careaga auzo elkarteen eta gobernuarekin kritiko ziren zenbait kazetariren jomuga bihurtu zen, hiriko biztanleen arazoei, esaterako, hirigintza eredu espekulatiboari, trafikoaren itolarriari eta kutsadura adierazle kezkarriari erantzunik ez ematea egozten baitzioten. Errekaldeberriko auzo elkarteak hartu zuen protagonismoa, auzo horretako biztanleak bereziki kaltetuak izan baitziren Solución Surreko biaduktuen erakuntzaren eraginez, beraien auzoan hainbat kale asfaltatu gabe eta saneamendu arazo larriekin zituzten bitarean. Alkateari publiko aurrean txistu jo zioten behin baino gehiagotan eta ikusita udaletxeko karguak auzitan zeudela eta aldi berean baita hiriko autoritate frankistak ere, zenbait zinegotzik sostengua erretiratu zioten. Azkenean, Pilar Careagak dimititu egin zuen 1975eko uztailaren 3an eta auzo mugimenduaren mugarri eta mito garrantzitsu bihurtu zen⁵⁴⁹.

1970eko hamarkadako Espainian, auzo elkarteek frankismoa enpresarien interesak defendatzen zituen sistema bezala aurkeztu zuten, argudiatuz frankisten patrikak langile

⁵⁴⁷ Zuriñe Sáinz Pascual, «El despertar de una conciencia ciudadana a través del urbanismo: el Ayuntamiento de Pamplona, 1966-1976», *Gerónimo de Uztariz* 23-24 (2008): 123-74.

⁵⁴⁸ Francisco Franco, «Decreto-ley Disponiendo que desde el día 1 de julio próximo la gestión y recaudación de todas las contribuciones, rentas e impuestos del Estado se realizará en las provincias de Guipúzcoa y Vizcaya, con arreglo al régimen común vigente, en la forma que es», *Boletín Oficial del Estado* 247 (1937): 2042-2042.

⁵⁴⁹ Agirreazkuenaga y Urquijo, *Bilbao desde sus alcaldes...*, 418-41; Urrutia Abaigar, *El movimiento vecinal...*, 128-35; Igor Ahedo Gurrutxaga, «Acción colectiva vecinal en el tardofranquismo: el caso de Rekalde», *Historia y Política* 23 (2010): 275-96.

auzuneetan bizi zen gehiengoaren bizkar betetzen zirela⁵⁵⁰. Bigarren kapituluan azaldu bezala, hiriguneetako sare asoziatiboa publikoki antifrankismorantz lerratzen joan zen, zenbait zinegotzi disidente sostengatuz —horietako batzuk alkate ere bihurtu ziren 1975-1976 artean— eta beste kasu batzuetan tokiko autoritateen aurkako protestak antolatuz.

Auzo elkarteen garapena eta horiek udaletxeekin izan zuten harremana oso garrantzitsuak izan ziren Herri Batasunarentzat eta esperientzia horretan oinarrituta zehaztu zuten independentistek beraien jarrera erakundeetan parte-hartzea mahaigaineratzeko orduan. Auzo mugimenduak 1976ko maiatzean aktualitatera jauzi egin zuen. Guardia Zibilak kolpeka sakabanatu baitzituen bi mila lagun inguru, Aranjuezen Madrileko auzo elkarteek antolatutako jai egunaren bukaeran. Egun hartan antolatutako ekitaldietan, auzoentzako hobekuntzak aldarrikatzeaz gain, langile mugimenduko eta mugimendu feministako bozeramaileek hitza hartu zuten eta antolatzaileek frankismoko preso politikoentzat amnistia eskatu zuten⁵⁵¹. Eguneroko arazoen eta beharren eta eskaera politiko unibertsalen artean zubiak eraikitzen zituztelako, berebiziko garrantzia dute auzo elkarteek Franco hil bezain pronto abiatu zen protesta handien zikloa ulertzeko⁵⁵².

Auzo elkarteek oposizioko alderdien, lan munduaren eta mugimendu sozialen aldarrikapenen elkargune bezala funtzionatu zuten. Zentzu horretan, ezker iraultzaileko kideek interpretatu zuten auzo mugimenduak proiektu politiko iraultzailera lerratutako aktibismoa eta mobilizazioa sustatzen zituela. Are gehiago, auzo elkarteen diskurtsoak auzitan jartzen zuen ezarritako sistema, bai espazioaren antolaketari, bai eredu ekonomikoari, bai emakumeen eskubideei eta bai ordezkaritza politikoari zegokionean. Botereari klase ikuspegi batekin hitz egiten zioten, auzo elkarteek langile identitate sendoa garatu baitzuten⁵⁵³. Bestalde, auzo elkarteetan asanblea zen erabakigune nagusia. Parte hartze eredu zuzena eta aktiboa sustatzen zen bertan, bi ideiatan oinarritua:

⁵⁵⁰ Ricard Martínez i Muntada, «Movimiento vecinal, antifranquismo y anticapitalismo», *Historia, Trabajo y Sociedad* 2 (2011): 72, 90.

⁵⁵¹ Radcliff, *Making Democratic Citizens...*, 261; El País, «La Guardia Civil disuelve una concentración de “vecinos”, en Aranjuez», *El País*, 1976ko maiatzaren 18a.

⁵⁵² Ofer, *Claiming the City...*, 117-21.

⁵⁵³ Martínez i Muntada, «Movimiento vecinal...», 65-67.

erantzukizun kolektiboa eta ongizate komuna interes partikularren gainetik. Horregatik guztiagatik, ezker iraultzaileak oso hurbileko sentitzen zituen auzo elkarteak⁵⁵⁴.

Zenbait aktibistek plazaratu zituzten lan teorikoek, esaterako Manuel Castelles, Jordi Borjak eta Tomás Villasantek, auzo elkarteak etorkizuneko udaletxeen antolaketaren erdigunean jarri zituzten eta sistema kapitalistak asimilatu ezinezko elementu bezala ezaugarritu zituzten. Hirien antolaketarako eredu horretan, auzo elkarte bidez gizarte sozialistaren eraikuntzarako pausuak ematea aurreikusten zuten, izan ere auzoetako elkarteak demokrazia eredu parte-hartzaile baten ardatzak bihurtu nahi zituzten. Eredu horretan hiritarren parte hartzea ez zen zinegotziak aukeratzera mugatuko eta hautetsien lana auzoetan mamitutako ekinbideak bideratzea zatekeen⁵⁵⁵.

Tokiko politikarako eredu hura Laudioko udaletxean gorpuztu zen. Laudio Bilbotik gertu dagoen arabar udalerria da eta 1950eko hamarkadatik aurrera industrializazio, migrazio eta hiri-hazkunde prozesu azkarrak gertatu ziren bertan. Hau da, 1970eko hamarkadako Hego Euskal Herriko hirigune industrial paradigmaticoetakoia zen. Auzo mugimenduak zenbait hautetsi disidenteren aukeraketa lortu zuen 1970ean, udaletxearen hirigintza politikaren kritika ardatz bezala hartu zuen kanpaina baten ondoren. Gutxika, legez kanpoko oposizioaren oniritzia zuten zinegotziak gehiengo bihurtu ziren Laudion eta 1977ko urtarrilean, hots, alderdi anitzeko lehen hauteskundeak gertatu baino lehen, honakoa aldarrikatu zuten: "la instauración de un auténtico poder popular"⁵⁵⁶. Ezker iraultzailearen eta independentisten sostenguarekin, udalerria zortzi barruti asambleariotan banatu zuten eta aurretik asamblea herrikoietan erabakitakoa onartzera bakarrik mugatu ziren handik aurrera udal plenoak⁵⁵⁷.

1970eko hamarkadako Espainian 'popular' eta 'pueblo' terminoek —'herritar'/'herriko' eta 'herri' bezala ekar daitezkeenak euskarara—, boterean zueden eliteen aurkako kutsua hartu zuten. Ezarritako ordenari aurka egiten zioten eskakizunek herritar interesak modu bateratuan defendatzen zituztelako ideia orokortu zen. Auzo elkarte mobilizazioetan honelako ohiauak ohikoak ziren: "¡educación popular!" eta "¡viviendas

⁵⁵⁴ Urrutia Abaigar, *El movimiento vecinal...*, 55; Radcliff, *Making Democratic Citizens...*, 245, 252-53.

⁵⁵⁵ Radcliff, *Making Democratic Citizens...*, 265-71; Urrutia Abaigar, *El movimiento vecinal...*, 56.

⁵⁵⁶ Jon Martínez Larrea, «El movimiento vecinal en Álava durante la Transición», hemen *Otras voces, otros ámbitos: Los sujetos y su entorno. Nuevas perspectivas de la historia sociocultural*, ed. Vicent Bellver Loizaga et al. (Valencia: Universitat de València & Asociación de Historia Contemporánea, 2015), 273.

⁵⁵⁷ *Ibid.*

populares!"⁵⁵⁸. Herritar terminoak auzo elkarteen eguneroko hiztegia osatzen zuen, bai eta ezker iraultzailearena ere eta frankismoak defendatzen omen zituen interes pribatuen erabat aurkako bezala hartzen zen⁵⁵⁹. Hego Euskal Herrian alderdi independentistek osatu zuten Herri Batasunak, herritar terminoa beretzat hartuta, garai hartan ezkerreko giroetan oso ohikoa zen terminoari egiten zion erreferentzia. Hiztegi eta mezu horrekiko eta auzo mugimenduaren praktikarekiko atxikimendua faktore garrantzitsuak dira biztanleriaren zati bat Herri Batasunarekin identifikatu zela ulertzeko orduan, hurrengo adibideetan ikus daitekeen bezala.

1979ko hauteskunde orokorretako kanpainan, Cascanten (Nafarroa) zinegotzia zen Domingo Guardia artzainak horrela eskatzen zuen boza Herri Batasunarentzat: "porque ya va siendo hora de que al pueblo se le dé la oportunidad de decidir sobre las cuestiones de interés"⁵⁶⁰. Izan ere, Guardiaren hitzetan, herriaren kontra daudenak dira "los mismos de siempre, los que todos sabemos", hau da, tokiko elite frankista⁵⁶¹. Bestalde, Pamplonica lantegiko behargina eta sindikalista zen Alberto Ardanazek antzera egiten zuen Herri Batasunaren alde: "porque el mismo nombre lo dice: Unión del Pueblo"⁵⁶².

1979an Donostiako Herri Batasuneko alkategai izan zen Felix Sotoren testigantzak harreman zuzena ezartzen du independentisten udaletxeko parte hartzearen eta hiri eredia aldatzeko beharraren artean, adieraziz udaletxea ezin zela oinarritu enpresarien interesetan eta lehentasun nagusia hiritarren beharrei erantzutea zela: "¿en aquel momento? En aquel momento lo que más interesaba era darle la vuelta a toda la ciudad. Estaba, en Alza por ejemplo, la carretera principal ¡estaba de tierra todavía! Habían construido todo sin urbanizar, [los] sinvergüenzas éstos"⁵⁶³. Gasteizen Herri Batasuneko alkategai izan zen Seber Rodríguez de Yurrek ere zentzu berean hitz egin zuen bere testigantzan: "nuestra misión fue, sobre todo, el tema de los barrios. Eso era lo más importante. Qué tipos de necesidades había en los barrios, qué deficiencias había, parcelas llenas de ratas que había que habilitar... en fin, todo"⁵⁶⁴. Eta Bilbon zinegotzirako aurkeztu zen Tasio Erkiziak ere gauza bera azpimarratzen du: "Bilbon...

⁵⁵⁸ José María Baviano eta Rafael Fraguas, «50.000 personas se manifiestan en el centro de Madrid», *El País*, 1976ko ekainaren 23a.

⁵⁵⁹ Wilhelmi, *Romper el consenso...*, 260; Martínez i Muntada, «Movimiento vecinal...», 84.

⁵⁶⁰ Herri Batasuna, «¿Por qué vamos a votar a Herri Batasuna?», *Egin*, 1979ko otsailaren 27a.

⁵⁶¹ *Ibid.*

⁵⁶² *Ibid.*

⁵⁶³ Autorearekin elkarrizketa (2018/05/07).

⁵⁶⁴ Autorearekin elkarrizketa (2017/09/06).

urbanistikoki desastre bat egina zegoen. Orduan, aurreko udaletxeak, frankismo garaiko udaletxeek barkatu zieten enpresarioei, bueno konstruktoreei barkatu zieten, eta utzi zituzten urbanizatu gabe auzoetako hainbat kale"⁵⁶⁵.

1979an Herri Batasuneko hautagai izan zirenek kudeatzaile frankistei egozten zizkieten Hego Euskal Herriko hiriguneetako arazoan erruak eta beraien ikuspegian, independentisten helburua biztanleen eguneroko beharrei lehentasuna ematea zen. Udal hauteskundeetarako Herri Batasunaren kanpainak ikuspegi hori laburbiltzen zuen, udaletxeen kudeaketarako eredu parte-hartzaileari lotuz: "Alkaterik onena... herria!".

4.8 irudia. Herri Batasunaren kartela udal hauteskundeetarako (1979)



Iturria: Dipòsit digital de documents de la Universitat Autònoma de Barcelona

Kartela bera aztertuz gero, pentsa dezakegu subjektu kolektibo batez ari dela, herria, eta berori alkaterik onena bada, aldi berean definitzen ari dela nor ez den, edo gutxienez, nor ez den izan alkate ona. Hau da, Herri Batasunarentzat 'herria' frankismoarekiko erabateko aurkakotasuna zen. Bestetik, karteleko atzealdean eraikinen *continuum* bat ageri da eta zaila da jakitea etxebizitzak edo lantegiak diren, ederki adieraziz une hartako hiriguneetako paisaia industrial. Horrenbestez, Herri Batasunak gizarteari interpelazioa egiten zion, ziurtatuz bazegoela herria zeritzon subjektu bat autoritate

⁵⁶⁵ Autorearekin elkarrizketa (2017/09/27).

frankisten aurkakoa eta subjektu hori zela hiriguneetako paisaia industrialia kudeatzeko arduraduna.

Herri Batasunaren proposamenak ziurtzat jotzen zuen auzo elkarteek modu arrakastatsuan hedatu zituztela ezker iraultzailearen hurbileko diskurtsoa eta praktikak, bai eta Hego Euskal Herriko kasuan euskal identifikazio nazionala ere⁵⁶⁶. Aitzitik, beharrezkoa da kontuan hartzea gauza bat elkarteen nukleo aktibista zela. Gune horietan asko ziren ezker iraultzaileko kideak eta haiek ziren elkarteen diskurtsoak eta argitalpenak idazten zituztenak. Baina gauza ezberdina ziren auzo elkarteen mobilizazioetan parte hartzen zuten hiritarrak oro har. Nahiz eta neurri batera arte hedatu zen eguneroko espazioa eta berori gurutzatzen zuten interesak ulertzeko eta azaltzeko modu bat, ezin da pentsatu auzo elkarteen diskurtsoa erabat bere egiten zutenik mobilizazioetan parte hartzen zuten hiritar guztiek, are gutxiago auzoetako biztanle guztiek⁵⁶⁷.

Horrenbestez, beste faktore batzuen artean, Herri Batasuneko hautagaitzen arrakastak zerikusia luke auzo mugimenduaren diskurtsoak eta baloreek auzoetan lorturiko hedapenarekin. Independentisten propagandak auzo elkarreetan ohikoak ziren mezu herritarrak erreproduzitzen zituen, klase izaera argi batekin. Donostiako Egia auzoan, Herri Batasunekoek salatu egiten zituzten "los intereses que están detrás de los ayuntamientos (inmobiliarias, capitalistas...)"⁵⁶⁸. Groseko Herri Batasunak zioen: "los grupos que están en el poder quieren excluir a los trabajadores utilizando la especulación del suelo". Eta horregatik, aurreratzen zuten hautetsi independentistek egingo zutela "una dura oposición ante ese tipo de maniobras"⁵⁶⁹. Antiguako Herri Batasunak galdetzen zuen ea egia zen "[si] están hechas las ciudades, las poblaciones para el ciudadano" eta honakoa aldarrikatzen zuen: "ciudad para el ciudadano"⁵⁷⁰.

Bilboko Itsasadarraren kasuan, Herri Batasunak klase ikuspegiarekin hausnartzen zuen hirigintzari buruz: "la burguesía (...) contamina el aire que respiramos, porque las viviendas de las clases trabajadoras las sitúan cerca de las industrias. No sucede lo

⁵⁶⁶ Urrutia Abaigar, *El movimiento vecinal...*, 118-19; EHAS, «Planteamiento de la opción Abertzale Socialista en el seno de la clase trabajadora con presupuestos ideológicos mínimos» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1977).

⁵⁶⁷ Martínez i Muntada, «Movimiento vecinal...», 86-87; Urrutia Abaigar, *El movimiento vecinal...*, 236.

⁵⁶⁸ Egiako Herri Batasuna eta independentiak, «Herri Batasuna ante las elecciones municipales», *Eguía Únete* (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

⁵⁶⁹ Herri Batasuna, «El barrio de Gros y sus problemas» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

⁵⁷⁰ HB Antiguoa, «¿Qué es la ciudad?» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

mismo con las viviendas de la burguesía"⁵⁷¹. Azpimarratzen zuten Negurin erabaki zutela "dónde y cómo debemos vivir los pobres" eta Bilbo "el paraíso de la especulación" bihurtua zela: "viviendas reducidas en calles que no existen y, con frecuencia, que no pueden existir"⁵⁷². Egoera definitzeko "catástrofe urbanística por falta de planeamiento" erabili zuten eta hori aldatzeko bide bakarra honakoa zela defendatzen zuten: "la fuerza que hagamos los vecinos"⁵⁷³.

Independentisten koalizioak konpromisoari eta parte-hartze aktiboari lotutako kultura politikoa ere bere egiten zuten, auzo elkarteek bezala asanbleak hartuz eredu gisa. Herri Batasunak zioenez, "donde todos prometen lo que no van a cumplir", beraiek ez zuten agintzen "que por llegar a los ayuntamientos vamos a conseguir algo"⁵⁷⁴. Bilboko alkategaiak, HASIko presidentea eta pediatra zen Santi Brouardek, honakoa nabarmentzen zuten: "Herri Batasuna no cree en la democracia delegada"⁵⁷⁵. Independentistek azpimarratu egiten zuten ideia hura: "no os pedimos el simple voto, sino que, a través de este voto, participéis en las asambleas de los barrios y en las organizaciones populares", horrela helburu nagusia lortzeko udalerrietan: "ayuntamiento popular"⁵⁷⁶.

Bestalde, Herri Batasuna ezker iraultzailearekin eta Euskadiko Ezkerrarekin batera sustatutako hautagaitzetan aurkeztu zen udalerrri askotan. Hautagaitza haiek 'herri hautagaitzak' edo 'independenteak' deitu ziren eta Nafarroako kasuan EAJk ere parte hartu zuten horietako batzuetan. Ezagunena Laudion antolatu zen Gure Aukera izan zen eta bere helburua udaletxea kudeatzeko asanbleen eredu parte-hartzaileari segida ematea zen. Horrelako hautagaitzak udalerrri anitzetan izan ziren aurkeztuak, guztiek oinarrizko diskurtso komuna zuten arren.

Adibidez Tafallan, zenbait lantegi zituen Nafarroako hegoaldeko hirigunea, Agrupación Electoral Popular deitu zen. Hauteskunde programan aldarrikatzen zuten "una ciudad en la que podemos vivir" eta hirigintza garatzeko orduan, berori egitea "con la

⁵⁷¹ Comité de Apoyo a Herri Batasuna, «Santi Brouard, candidato a alcalde», *Bilboko municipalak* (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

⁵⁷² Ibid.

⁵⁷³ Ibid.

⁵⁷⁴ HB Antiguo, «Continuaremos trabajando por el Antiguo» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

⁵⁷⁵ Comité de Apoyo a Herri Batasuna, «Santi Brouard, candidato a alcalde», *Bilboko municipalak* (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

⁵⁷⁶ Herri Batasuna, «Ayuntamiento Popular=Asamblea Popular» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

participación de todos los vecinos"⁵⁷⁷. Lurzorua udaletxearen esku geratzea exijitzen zuten eta aldarrikatzen zuten herritarrak "hartos de caciques (...) [y] de fascismo" zeudela. Horregatik eskatzen zuten "recuperar nuestro Ayuntamiento para el pueblo"⁵⁷⁸.

Antzeko mezua zuten hautagaitzak aurkeztu ziren baita landaguneetan ere, esaterako Gamiz-Fikan, Bilbotik hurbil. Gamiz-Fikako Ezker Batuak zioenez, "gure kandidatura jende independentiak osatzen dau" eta aldarrikatzen zuten aurkezten zirela "orain arte gertatu dana gerta ez daiten"⁵⁷⁹. Azpimarratzen zutenez, beraien egitekoa udaletxean "herriak eskatzen duena" aurrera ateratzea zen eta honela laburbiltzen zuten zinegotzien egitekoa: "herriko udaletxean danok, zuek eta guk parte hartuz, arazoei urten bide bat emotea, ta ez gure irabasiaren bila joatea"⁵⁸⁰.

Hala ere, hautagaitza horiek guztiek bazuten beraien joera ideologikoa, nahiz eta herritarrak beren osotasunean ordezkatzeko zituztela aldarrikatu. Adibide batekin azter dezakegu hori. Gasteizen, Herri Batasunak Independientes por Vitoria hautagaitzarentzat eskatu zuen boza. Azpimarratzen zuten hautagaitza horretako kideak zirela "hombres y mujeres que han mantenido posiciones claras y combativas frente a los capitalistas que intentan manejar a su antojo"⁵⁸¹. Hau da, sostenguen oinarria mezu hiritarra eta antikapitalista zen. Zerrendako lehen postuetan mugimendu asoziatiboan ezagunak ziren pertsonak zeuden. Alkategaia, Seber Rodríguez de Yurre, Txagorribidea auzo elkartekoa zen eta frantses irakaslea zen auzoko eskola katoliko batean. Bigarrena, Saturnino Heras, pentsiodunen Las Cuatro Torres elkartekoa zen eta lehenago borrokalari komunista izana zen. Hirugarrena, Guillermo Perea, Aranbizkarrako auzo elkarteko presidentea zen eta laugarrena, Nicolás Xamardo, galiziar jatorriko filologoa. Beste izen ezagun batzuk José Luis Catón arkitektoa eta Santos Iñurrieta margolaria ziren.

Aldi berean, beste hautagai batzuek zentzu politiko argia ematen zioten hautagaitzari. Adibidez, José Miguel Markiegi ETA (militarra)-ko hildako kide baten anaia zen —1975ean poliziatik ihesean ari zela erail zuten Jesús Mari *Motri*, Gontzal Mendibilek grabatu zuen *Kapitalismoak* kantuen egilea—. Markiegitarrek Arrasatetik migratu

⁵⁷⁷ Agrupación Electoral Popular de Tafalla, «Soluciones para el pueblo por la participación popular» (José María Esparzaren artxibo pribatua, 1979).

⁵⁷⁸ Ibid.

⁵⁷⁹ Gamiz-Fikako Ezker Batua, «Gamiz-Fikako Ezker Batua» (Joseba Etxebarriaren artxibo pribatua, 1979).

⁵⁸⁰ Ibid.

⁵⁸¹ Herri Batasuna, «Independientes por Vitoria» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

zuten Gasteizera, eta bi anaiak Zaramaga auzo langilean hezi ziren. Beste adibide bat Blanca Rodríguez zen, ETA (militarra)-ri lotutako amnistiaren aldeko batzordeetako parte-hartzaile ezaguna. Blanca Alde Zaharreko gasteiztarra zen, migrante errioxar batekin ezkondua eta beraien seme Félix Martínez *Pitxi* Ipar Euskal Herrian zen poliziarengandik ihesi.

Donostiako kasuan ere Herri Batasunaren hautagaitzak izaera bikoitz hura zuen. Auzo mugimenduaren ordezkari gisa aurkeztu zuen bere burua eta aldi berean ETA (militarra)-ri lotuta agertzen zen. Félix Soto alkategaia Banco Guipuzcoanon ordezkari sindikala zen. Halere, ezaguna zen batez ere Egiako eskubaloi taldeko entrenatzaile izan zelako. 1971n federaziotik kanporatua izan zen, telebistan ematen ari ziren neurketa bat aprobetxatzeagatik amnistia eskatzeko⁵⁸². Uliako auzo elkarteko presidentea ere izan zen. Bertako auzotarrek udaletxe frankistaren planen aurkako protestak egin zituzten, plan horiek jada eraikita zeuden etxebizitza asko suntsitzea aurreikusten baitzuen.

Aldi beran, hautagaitzak ETA (militarra)-ri lotuta zeuden pertsonak biltzen zituen, Ángel Aguirre esaterako, zeina kartzelatik irten berri baitzegoen. Aguirrek kartzelaldia gogoratuz eskatzen zuen boza Herri Batasunarentzat, aste batzuk lehenago presoek hauteskunde orokorrak nola bizi izan zituzten gogoratuz: "los otros presos y yo sabíamos que los votos de HB son votos de luchas (...) y recibíamos cada voto como quien recibe a un compañero en el mismo camino"⁵⁸³.

Pilar Pérezek eta Mikel Zabaletak Errenteriako kasuan bildutako datuak ere baditugu. Herri Batasunak udaletxerako aurkeztu zuen hautagaitzari buruz azpimarratzen zuten hautagaien ehuneko handia euskalduna zela eta, batez ere, industrian lan egiten zuten gizonezkoek osatzen zutela. Aldi berean, autore horiek nabarmentzen zuten Herri Batasunaren udaletxerako kanpainaren ardatzak herritarrek tokiko erakundeetan parte hartzearen beharra eta hirigintzarekin lotutako arazoak izan zirela⁵⁸⁴.

Esan bezala, Bilboko kasuan Santi Brouard zen alkategaia, eta Iruñean Patxi Zabaleta, Herri Batasunerako Laguntza Batzordeko kidea. Bi hiriburu horien kasuan,

⁵⁸² Ainara Arratibel Gascon, «“Alderdi batzuei erreparoa ematen die presoek eskubideak defendatzeak”», *Berría*, 2016ko irailaren 18a.

⁵⁸³ Egiako Herri Batasuna eta independentiak, «Herri Batasuna ante las elecciones municipales» (Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

⁵⁸⁴ Pilar Pérez y Mikel Zabaleta, «Las elecciones de 1979 en Rentería: un estudio electoral local en el marco de la Transición», *Bilduma: Revista del Servicio de Archivo del Ayuntamiento de Errenteria* 16 (2002): 185.

zerrendetako lehen postuetan Herri Batasuneko alderdietako kideak ageri ziren baina baita aktibista ezagunak. Bilboko zerrendan Tasio Erkizia eta José Antonio Díez apaiz langileak zeuden eta Iruñekoan, Ignacio Borlegui, Elías Antón eta José Luis Napal langile ezagunak.

Laburbilduz, 1979ko udal hauteskundeetan Herri Batasunak aurkeztu zituen hautagaitzek bi elementu nagusi zituzten. Batetik auzo elkarteen diskurtsoa eta udaletxeetarako kudeaketa parte-hartzailea, zerrendetan tokiko sare asoziatiboko kideen presentziak bermatua. Bestalde, independentismoarekiko lotura, ezkerreko buruzagi independentisten eta ETA (militarra)-ri lotutako pertsonen presentziarekin. Pentsa daitekenez, Herri Batasunaren mezuaren interpelazio ahalmenak harreman zuzena zuen auzo elkarteek frankismoko azken urteetan hedatutako diskurtsoaren arrakastarekin eta, aldi berean, ETA (militarra)-ri sostenguak, mezuaren mugak argi adierazten zituen. Are gehiago kontuan hartzen badugu EAJk eta PSOEk ere beren programetan auzo elkarteen aldarrikapenetako asko jaso zituztela eta auzoetan ezagunak ziren aktibistak ere batu zirela horien zerrendetara⁵⁸⁵.

Independentisten mezua zertxobait gehiago aztertzen badugu, konturatuko gara udal hauteskundeetako kanpainan mezua dibertsifikatu zutela, aste batzuk lehenagoko hauteskunde orokorretan frankismoaren jarraipena eta gobernuak KAS Alternatiba onartzeko exigentzia izan baitziren gehien azpimarratu zituzten ideiak. Tokiko hauteskundeetarako kanpainak modu esplizituan utzi zuen bigarren mailan Herri Batasunaren mezu nazionalista: "aquí ya no se trata de saber quién es patriota. Aquí se trata de saber quién puede defender los intereses de los trabajadores"⁵⁸⁶. Zentzu horretan, behin eta berriro errepikatzen zuten honako mezua: "la derecha vasca no representa los intereses del pueblo trabajador vasco"⁵⁸⁷.

Independentistek udal hauteskundeetarako kanpaina erabili zuten gizartearen antolaketarako zituzten ideien berri emateko eta horiek zalantzarik gabe ezkerreko esparru politikoan kokatzen zituzten. Hirigintzari zegokionez, aldarrikatzen zuten: "la

⁵⁸⁵ Mikel Aizpuru, «El asociacionismo popular ¿reverso del modelo de organización social del franquismo? El caso de Barakaldo», hemen: *Estado, protesta y movimientos sociales. Actas del III.er Congreso de Historia Social de España*, ed. Santiago Castillo eta José María Ortiz de Orruño (Leioa: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco, 1998), 477-92.

⁵⁸⁶ Herri Batasuna, «El mejor alcalde el pueblo», *Egin*, 1979ko martxoaren 27a.

⁵⁸⁷ *Ibid.*

vivienda es un derecho ciudadano que debe ser garantizado por el municipio"⁵⁸⁸. Horregatik, exijitzen zuten "un control municipal sobre precios (...) para romper con la especulación", eta, muturreko egoerarik egotekotan, ontzat ematen zuten "la ocupación de viviendas desocupadas para los que carecen de ella"⁵⁸⁹. Aldi beran, osasun sare deszentralizatua aldarrikatzen zuten, bereziki hartuko zuena kontuan "la dignidad y la condición de la mujer"⁵⁹⁰. Baita euskarazko eskola eredua ere, hezkuntza komunitateak berak kudeatua⁵⁹¹. Gizarte-segurantzari zegokionez honakoa aldarrikatzen zuten: "gestionada y controlada por los trabajadores"⁵⁹². Azkenik, Lemoizko zentral nuklearraren eraikuntzaren inguruko polemikaren harira, exijitzen zituzten "referéndum sobre las centrales nucleares" eta "penalización progresiva de los que atentan sobre el medioambiente"⁵⁹³.

Erakunde publikoek kontrolatutako etxebizitza merkatua, langileen ordezkariak kudeatutako gizarte-segurantza, emakumezkoen duintasuna, kutsatzen zuten enpresentzako zigorrak eta administrazio eredu deszentralizatua, alor horiek guztietako posizioek Herri Batasuna ezkerreko tradizio ideologikoaren baitan kokatzen zuten. Zentzu horretan, beraien interpelazioa onargarri izan zitekeen zenbait sektorerentzat, ez zutenak zertan independentziaren alde egon. Lerratze ideologiko horrek eta euskal eskuina deitzen zutenaren aurkako kanpainak, beste muturrean muga jartzen zuen independentisten interpelazioa gizarteko sektore kontserbadoreen artean arrakastaz hedatzeko, izan horiek euskal nazioarekin edo espainiarrarekin identifikatuak.

Non bozkatu zuten eta non ez, Herri Batasuna

Irudikatu duguna bezalako Hego Euskal Herri hiritar eta industrialean, Herri Batasunaren interpelazioa bi eremu ezberdinetan izan zen arrakastatsua. Batetik, hirigune industrialetan, aurrerago aztertuko dugun bezala. Bestetik, Hego Euskal Herriko landa eremuko zonalde zehatz batean: Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako mugatik Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurdiko mugara doan ardatza.

⁵⁸⁸ Ibid.

⁵⁸⁹ Ibid.


⁵⁹⁰ Herri Batasuna, «El mejor alcalde el pueblo», *Egin*, 1979ko martxoaren 16a.

⁵⁹¹ Ibid.

⁵⁹² Ibid.

⁵⁹³ Herri Batasuna, «El mejor alcalde el pueblo», *Egin*, 1979ko martxoaren 29a.

4.9 irudia. Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan Herri Batasuna lehen edo bigarren hautagaitzarik bozkatuena izan zen udalerrien mapa (1979)




Lehen indarra
Bigarren indarra

Iturria: Barne Ministerioaren sareko datuekin lan honetarako egina

Ez dago Hego Euskal Herriko landa eremuko frankismo garaiko botere harremanetan, gerraurreko kultura politikoen balizko jarraikortasunean edota Trantsizio garaian aukera politiko bata edo bestea aukeratu zutenen familietan sakontzen duen ikerlanik, orain gutxi Nerea Perezek ere azpimarratu duen gisan⁵⁹⁴. Horregatik, ardatz zehatz horretan Herri Batasunak izan zuen sostengua azaltzeko hipotesiak bakarrik eskain ditzakegu. Gure kasuan, tesi honetako bigarren kapituluan argudiatutakoa gakoetako bat dela uste dugu, espazio geografiko hori eskualde euskaldunen erdigunea delako.

⁵⁹⁴ Perez Ibarrola, *Langileria berri baten eraketa...*, 352.

4.10 irudia. Euskara ohiko hizkuntza zen eremua XX. mendearen bigarren erdian



Iturria: *The History of Basque*⁵⁹⁵

Pentsatzekoa da euskal eremuaren erdiguneko eskualde horietan gizartearen zati handia Herri Batasunarekin identifikatu zela, berori zelako euskarak euskal nazioaren erdigune bezala zuen lekua gehien aldarrikatzen zuen hautagaitza, ETAren kontakizun nazionalari lotuta. Hauteman daiteke, zeharka bada ere, EAJk ere etekina lortu zuela euskara erdigunean jartzen zuen kontakizun nazional bati esker, izan ere eremu euskaldunaren zatirik handienean identifikazio nazional espainiarra zuten alderdi kontserbadoreen sostengua oso txikia bihurtu zen.

Aldi berean, euskal nazionalistekiko identifikazioa ez zen orokortu gaztelera ohiko hizkuntza zen eskualdeetan. UCDk lehen indarra izaten jarraitu zuen 1979ko hauteskunde orokorretan, bai Araban eta bai Nafarroan. Eta PSOEek sostengu zabala lortu zuen gaztelera ohiko zen landa eremuetan, euskal eremuan Herri Batasuna ezkerreko erreferentzia nagusia bihurtu zen bitartean. Udal hauteskundeei dagokienez, ziurrena da Herri Batasunako kide ziren alkate gehiago egon izana, baina landa eremuko hautagaitza herritarretako alkateen artean Herri Batasunak Gipuzkoako zenbait udalerritakoak bakarrik aldarrikatu zituen beretzat: Iruerrieta, Irura, Hernialde, Ataun eta Zizurkil.

Beste alde batetik, Herri Batasunak bere zilegitasuna 1970eko hamarkadako mobilizazio antifrankistan kokatzen zuen eta mobilizazio hura batez ere fenomeno hiritarra izan zen,

⁵⁹⁵ Robert Lawrence Trask, *The history of Basque* (London: Routledge, 1997), 2.

hiriguneetako industria langileak eta beraiek bizi ziren auzoetako biztanleak izan baitzuten protagonista nagusitzat. Herri Batasunak eta independentistek sostengatutako hautagaitzek lortu zituzten alkatetzak nukleo industrial horietan kokatu ziren batez ere. Jakitun hirigune industrialetan gizartearen zati handia pertsona migranteek osatzen zutela, independentistek zuzenean eskatu zieten boza udaletxeetarako beren propagandan: "trabajador andaluz, valenciano, extremeño, gallego, catalán, etc. Apoya la Unidad Popular de este que es tu pueblo. Vota Herri Batasuna"⁵⁹⁶. Herri Batasunak alkateak lortu zituen Arrigoarriagan, Pasaian, Hernanin eta Erreterian. Eta independentistek sostengatzen zituzten alkateak izan ziren aukeratuak Laudion, Agurainen, Larrabetzun, Altsasun, Lizarran, Uhartan, Burlatan, Zizurren, Atarrabian, Antsoainen eta Tafallan.

Landa eremuan euskararen eta Herri Batasunaren arteko harremana azpimarratuta, aldi berean beste hipotesi batetik urruntzen gara, hain zuzen ere Hego Euskal Herriko landa eremu katoliko-karlista eta independentismoa lotzen dituen eta hainbat aldiz proposatua izan dena⁵⁹⁷. Lotura hura gertatu balitz, pentsatzekoa da independentismoak askoz ere sostengu handiagoa izango zuela Araban eta Nafarroan, hots, tradizionalismoa indartsuen ziren eremuak, eta askoz txikiagoa ezkertiar tradizioko hiriguneetan. Bina kontua da udal hauteskundeetan bigarren hautagaitza bozkatuena izan zela Herri Batasuneko hirigune nagusietan (Gasteizen salbu). Hiriguneetako biztanleen egunerokotasunaren eta Herri Batasunarekiko identifikazioaren arteko harremana aztertzeko, Gasteizeko, Bilboko, Donostiako eta Iruñeko emaitzei erreparatuko diegu.

Hiriburuetako espazioak bost kategoriatan sailkatu ditugu eta banaketa horrekin eguneroko espazio ezberdinei erreferentzia egin nahi izan diegu, ahalbidetuz hiri ezberdinetako auzoak sailkapen bakarrean bateratzea eta konparatzea. Proposatutako sailkapenak biztanleen izaera sozioekonomikoa eta auzo eredia hartzen ditu kontuan, bai eta bertakoak/migranteak ardatza ere. Banaketa Leonardo Aurtenetxeren, Zárate

⁵⁹⁶ Herri Batasuna, «Trabajador andaluz...» (1979 udal hauteskundeak HB: Lazkaoko Beditarren Artxiboa, 1979).

⁵⁹⁷ Jon Juaristi, *Sacra Nemesis. Nuevas historias de nacionalistas vascos* (Madrid: Espasa, 1999); Sáez de la Fuente Aldama, *El movimiento de liberación nacional vasco, una religión de sustitución*; Molina Aparicio, «Afinidades electivas...»

Martínen, Gómez Piñeiroren, eta Lópezen eta Montororen lanak kontuan hartuta egin dugu⁵⁹⁸:

1) tokikoen klase altuko auzoak

- Bilbo: Abando eta Campo Volantin
 - Donostia: Zabalgunea, Mirakontxa eta Antiguako lorategi hiria
 - Gasteiz: Zabalgunea, Lorategi Hiria y Armentia
 - Iruñea: Zabalgunea
-

2) tokiko klase ertainaren auzoak

- Bilbo: Indautxu, Zabala y Ametzola
 - Donostia: Gros
 - Vitoria: Lovaina eta Desamparadas
 - Iruñea: Iturrama
-

3) tokiko klase ertain eta herritarren auzoak

- Bilbo: Alde Zaharra, Iralabarri, Deustu, Matiko eta Begoña
 - Donostia: Alde Zaharra, Amara Berri eta Antigua
 - Gasteiz: San Martin, Txagorritxu eta Judimendi
 - Iruñea: Alde Zaharra eta Donibane
-

4) dentsifikatutako auzo herritarrak (bertakoen eta migranteen nahasketa handia)


- Bilbo: Bilbo Zaharra, Las Cortes-San Frantzisko, Atxuri, Iturribide, Solokoetxe eta Olabeaga
 - Donostia: Amara zaharra, Egia eta Uliá-Ategorrieta
 - Gasteiz: Coronación, El Anglo, Adurtza eta Alde Zaharra
 - Iruñea: Arrotxapea eta Txantrea
-

5) migranteen presentzia handiko langile auzo berriak

- Bilbo: San Inazio, Arangoiti, Sarriko, Uribarri, Zurbaran, Arabella, Otxarkoaga, Santutxu, Bolueta, La Peña, San Adrian, Errekalde, Iturrigorri, Uretamendi, Masustegi, Altamira eta Zorrotza
 - Donostia: Añorga, Martutene, Loiola, Intxaurren, Altza eta Bidebieta
 - Gasteiz: Zaramaga, El Pilar, Ariznabarra, Ehari-Sansomendi, Abetxuku, Errekaleor, Aranbizkarra eta Arana
 - Iruñea: Sanduzelai, Arrosadia eta Etxabakoitz
-


⁵⁹⁸ Zárte Martín, «Vitoria: transformación...»; Gómez Piñeiro, *Aproximación a la geografía...*; Jon Joseba Leonardo Aurteneche, *Estructura urbana y diferenciación residencial: el caso de Bilbao* (Madrid: CIS-Siglo XXI de España, 1989); Dolores López y Carolina Montoro, «Cambios en la ciudad de Pamplona (1945-1975). Una mirada desde la demografía», hemen: *De leal a disidente: Pamplona, 1936-1977*, ed. María del Mar Larraza Micheltorena (Pamplona: Ediciones Eunat, 2006), 261-311.

4.11 irudia. Bilboko auzoak 1970eko hamarkadaren bukaeran




Iturria: Lan honetarako egina

4.12 irudia. Donostiako auzoak 1970eko hamarkadaren bukaeran



Iturria: Lan honetarako egina

4.13 irudia. Gasteizko auzoak 1970eko hamarkadaren bukaeran



Iturria: Lan honetarako egina

4.14 irudia. Iruñeko auzoak 1970eko hamarkadaren bukaeran



Iturria: Lan honetarako egina

Iruñeko kasuan, ez dira inongo artxibotan ageri 1979ko hauteskundeetako emaitzak sekzioz sekzio eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo geratu zenez, Nafarroan ez zen egon hauteskunde autonomikorik 1980an. Horregatik, hiriko espazioak *Diario de Navavarrak* argitaratutako barruti bakoitzeko emaitzen arabera antolatu ditugu:

- 1) goi eta ertain klaseen barrutia: Zabalgunea
- 2) klase ertain eta herritarrak biltzen dituzten barrutiak: Alde Zaharra, Zitadelako zabalgunea, Iturrama, Donibane, Arrosadia eta Etxabakoitz
- 3) klase herritarren barrutiak: Txantrea, Arrotxapea eta Sanduzelai

4.15 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Bilboko hiri espazioetan (1979-1980)

Tokikoen klase altuko auzoak			Tokiko klase ertainaren auzoak		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%8,2	%9,5	%7,3	%9,1	%12,0	%8,7
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak			Dentsifikatutako auzo herritarrak		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%11,7	%16,3	%12,4	%16,8	%21,9	%18,0
Migranteen presentzia handiko langile auzoak			HBren bozak hirian ⁵⁹⁹		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%14,1	%20,8	%17,2	%12,5	%17,5	%13,9

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

4.16 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Donostiako hiri espazioetan (1979-1980)

Tokikoen klase altuko auzoak			Tokiko klase ertainaren auzoak		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%9,1	%11,5	%8,7	%11,6	%16,3	%11,2
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak			Dentsifikatutako auzo herritarrak		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%15,1	%18,7	%13,7	%18,7	%25,3	%17,9
Migranteen presentzia handiko langile auzoak			HBren bozak hirian ⁶⁰⁰		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok..	1979 uda.	1980 aut.
%18,4	%24,9	%19,8	%15,7	%20,8	%15,3

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

⁵⁹⁹ Ez dira batu Erandioko eta Txorierriko emaitzak.

⁶⁰⁰ Ez dira batu Astigarragako eta Zubietako emaitzak.

Figura 4.17. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Gasteizko hiri espazioetan (1979-1980)

Tokikoen klase altuko auzoak			Tokiko klase ertainaren auzoak		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%5,6	%6,4	%6,3	%8,7	%8,9	%9,9
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak			Dentsifikatutako auzo herritarrak		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%9,4	%10,3	%13,1	%10,6	%11,5	%15,1
Migranteen presentzia handiko langile auzoak			HBren bozak hirian		
1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.	1979 orok.	1979 uda.	1980 aut.
%9,5	%10,0	%15,8	%9,53	%10,16	%13,84

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

4.18 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Iruñeko hiri espazioetan (1979-1980)

Goi eta ertain klaseen barrutia		Klase ertainak eta herritarrak biltzen dituzten barrutiak	
1979 orok.	1979 uda.	1979 orok.	1979 uda.
%8,38	%13,69	%11,84	%21,82
Klase herritarren barrutiak		HBren bozak hirian	
1979 orok.	1979 uda.	1979 orok.	1979 uda.
%17,68	%27,87	%12,86	%22,89

Iturria: *Diario de Navarra*ko datuekin lan honetarako egina

Tauletan ikus daitekeen bezala, 1979-1980 epean Herri Batasunak izan zuen sostenguak klaseari lotutako izaera garrantzitsua du, batez ere espazio herritarretan eta langile auzoetan gertatu baitzen. Gainera, ez zegoen ezberdintasun nabarmenik bereziki migranteen presentzia handia zen eta tokiko biztanle gehiago zeuden langile auzoen artean. 4.20 irudian ageri dena hautagaitza nagusiek Gasteizen, Bilbon eta Donostian lortutako boz kopuruaren batura da eta emaitzak bozak jaso zituzten hiri espazioen arabera antolatuta daude. Bertan ikus daitekeenez, 1979ko hauteskunde orokorretan hautagaitza ezberdinek lortutako emaitzek bazuten harremana hirietako biztanleen klase izaerarekin eta tokikoak/migranteak ardatzarekin.

Unión Foral Vascak (Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Alianza Popularren hautagaitza), EAJk eta UCDk beren bozak tokikoak gehiago ziren auzoetan kontzentratuta zituzten. Nahiz eta UCDren kasuan nabarmendu behar den bere sostenguaren zati handia lortzen zuela baita migranteen presentzia handiko langile auzoetan. PSOEn eta PCEn kasuan kontrakoa gertatzen zen, beren sostenguaren gehiago zabala gehingo migrantedun langile auzoetan baitzegoen. Bi soslai horien artean, Euskadiko Ezkerra eta

Herri Batasuna zeuden eta bi koalizio horiek bereziki indartsuak ziren dentsifikatutako langile auzoetan. Herri Batasunaren kasuan, gainera, azpimarratzekoa da migranteen presentzia handiko auzo langileetan zuen sostengu zabala, euskal nazionalista ziren gainontzeko hautagaitzekin konparatuta.

Herri Batasunak boz-ehuneko handienak lortu zituen auzo zehatzei erreparatzen badiegu 1979-1980 epean (4.19 irudia), ikusiko dugu migranteen presentzia handiko auzo langileetan bereziki errotua zegoela. Hau da, Herri Batasunak epe horretan lortutako sostenguak harremana zuela batez ere lantoki industrialek eta hiri hazkunde azeleratuak markatutako espazioekin, baita hirigintzaren gabeziek bereziki eragiten zieten auzoekin. Zentzu horretan, independentisten sostengua indartu zen bereziki izaera migrantea eta periferikoa zuten Hego Euskal Herriko zenbait auzotan, esaterako Bidebieten, Errekaleorren eta Otxarkoagan.


4.19 irudia. Herri Batasunak emaitzarik onenak lortu zituen auzoak Gasteizen, Bilbon eta Donostian (1979-1980)

		1979 (orokorrak)	1979 (udalak)	1980 (autonomikoak)
Gasteiz	1	Ehari-Sansomendi (%13,4)	El Anglo (%12,4)	Zaramaga (%19,5)
	2	El Anglo (%12,2)	Alde Zaharra (%12,3)	Errekaleor (%17,6)
	3	Zaramaga (%11,3)	Aranbizkarra (%11,9)	El Anglo (%17,0)
Bilbo	1	San Adrián (%22,5)	San Adrián (%32,9)	San Adrián (%26,1)
	2	La Peña (%19,3)	Altamira (%28,3)	Altamira (%24,4)
	3	Altamira (%17,8)	Boluetza (%26,6)	Otxarkoaga (%22,5)
Donostia	1 ⁶⁰¹	Añorga (%25,1)	Intxaurrondo (%28,6)	Intxaurrondo (%21,4)
	2	Intxaurrondo (%21,0)	Ategorrieta (%28,5)	Bidebieta (%20,6)
	3	Martutene (%20,2)	Egia (%27,7)	Añorga (%20,6)

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

⁶⁰¹ Donostian kanpoan utzi dugu Igeldo taula honetarako, erdialdeko eremu euskaldunaren ezaugarriak baititu eta identifikazio nazional espainiarra duten alderdien pisua bereziki txikia baita bertan.

4.20 irudia. Gasteizen, Bilbon eta Donostian guztira hautagaitza bakoitzak lortutako bozak, hiri espazioen arabera antolatuta, diputatuen kongresurako hauteskundeetan (1979)



	Tokikoen klase altuko auzoak
	Tokiko klase ertainaren auzoak
	Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak
	Dentsifikatutako auzo herritarrak (tokikoen eta migranteen nahasketa handia)
	Migranteen presentzia handiko langile auzoak

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

Hauteskundeetako datuek erakusten duten beste ezaugarria honakoa da: 1979-1980 garaian udal hauteskundeak izan ziren arrakastatsuenak Herri Batasunarentzat. Lehenago aztertu bezala, kanpaina horretan erretorika nazionalista zertxobait alboratu zuten eta klase diskurtso ezkertiarra azpimarratu zuten independentistek, udaletxeen kudeaketa ereduari eta hiriguneetako arazoiei erreferentzia eginez gehienbat. Udal hauteskunderi dagokienez Gasteiz salbuespena da, ziurrenik lehenago zinegotzi sozial izandako José Ángel Cuerda (Gasteiz,1934) EAJren hautagaiak zuen ospe onaren eraginez. Iruñeko kasuan, Herri Batasunak aste gutxitan izan zuen igoera ikusgarria baliteke erlazioatuta egotea independentisten baitan euskal boz nazionalista kontzentratu izanarekin, Euskadiko Ezkerraren eta EAJren kaltetan, Nafarroa euskal estatutuaren proiektutik kanpo geratu ostean. Bestalde, kontuan hartu beharra dago Iruñean ezker iraultzaileak presentzia bereziki esanguratsua izan zuela 1970eko hamarkadan zehar eta, azaldu bezala, independentistek udaletxeko parte hartzeari buruz zuten ideia ezker iraultzailearen planteamenduekiko oso hurbilekoa zen.

1979ko udal hauteskundeen ondoren Herri Batasunak azpimarratu egin zuen independentistak "la segunda fuerza de Euskadi" zirela EAJren atzetik eta PSOEn aurretik "la primera de la izquierda"⁶⁰². Izan ere, 1977ko hauteskunderen gero, bi urtean PSOEk bozen erdia galdu zituen Gasteizen, Bilbon eta Donostian, eta bosten bat Iruñean. Herri Batasuna gehien bozkatu zuten hirigune industrialetan eta langile auzoetan, PSOE izan zen alderdirik bozkatuena 1977an, ezberdintasun handiarekin. Ez dugu uste PSOEtik Herri Batasunera boto emaileak modu orokorrean igaro zirenik, baina nabarmentzekoa da PSOEn gainbeheraren eta independentisten igoeraren arteko alderantzizko harreman proportzionala, batez ere kontuan hartzen badugu aldaketa hura protesta antifrankisten erdigune izan ziren espazioetan gertatu zela.

1979ko hauteskunde orokorren eta udal hauteskundeen artean Hego Euskal Herrian PSOEk izan zuen gainbehera ez zen gertatu Espainiako gainontzeko hirigune industrialetan, nahiz eta bai Hego Euskal Herrian eta bai Espainian oro har parte-hartzeak behera egin zuen. PSOEk hauteskunde orokorretan baino boz gehiago lortu zituen udal hauteskundeetan hirigune industrial handietan, hala nola Bartzelonan, Kadizen, Madrilen, Ferrolen, Vigon eta Valentzian. Agian Hego Euskal Herriarekiko paralelismoren bat Sevillan topa dezakegu. Bertan andaluziar autonomiari buruz gertatu

⁶⁰² Egin, «Herri Batasuna: "segunda fuerza política de Euskadi"», *Egin*, 1979ko apirilaren 9a.

ziren eztabaiden testuinguruan Partido Socialista Andaluzek (PSA) emaitza bikainak lortu zituen udaletxean, PSOEek bozen erdia galdu zuen bitartean. Baina ziuraski interesgarriagoa da euskal gizartearen antzeko ezaugarriak zituen Kataluniara begiratzea, bertan Estaturaz-azpiko mugimendu nazionalista indartsua eta biztanle migrante asko biltzen zituzten hiriguneak baitzeuden. Migrante kopuru handia zuten hirigune industrialetako emaitzei erreparatzen badiegu, esaterako L'Hospitalet de Llobregat, Badalona eta Sabadell, PSOEek behera egin zuen guzti horietan udal hauteskundeetan, Hego Euskal Herrian gertatu bezala. Halere, boz haietatik indartuta atera zena ez zen izan nazionalismo katalana, PSUC komunista baizik⁶⁰³.

Oro har, bai Hego Euskal Herrian eta bai Katalunian, udal hauteskundeetan PSOEn ezkerretara zeuden bozak indartu zirela esan dezakegu. Baina ziurrena bai PSUCek bai Herri Batasunak ordura arte abstentziorako joera izan zuten zenbait sektore mobilizatzeko ahalmenarekin du zerikusia fenomeno horrek eta ez, orokorrean, PSOEtik beste alderdietara joandako boto emaileekin. Pentsatzekoa da 1970eko hamarkadan zehar bereziki mobilizatuta egon ziren gizarte horietan, PSOEek nabaritu izana Trantsizioarekiko jarrera apatikoen eta nolabaiteko desengainuaren zantzuak.

Atal honetan azaldutakoa laburbilduz, 1979-1980 urteetan Herri Batasunak izan zuen sostengua bi eremutan kontzentratuta zegoen: euskal hiztunen eskualdeen erdigunean eta hirigune industrialetako langile auzoetan, non tokiko/migrante ardatzak ez baitzien era esanguratsuan eragiten independentisten emaitzei. Herri Batasuneko zuzendaritzako kideek hauteskunde emaitzak ETArekin kontakizun nazionalak ematen zien konbentzimendurekin interpretatu zituzten: Euskal Herri Langileak, euskaldun izateagatik eta langile izateagatik, gero eta sostengu handiagoa ematen zion independentismoari eta aukera bakarra sostengu hark gora eta gora egitea zen. Herri Batasunaren propagandan jasotzen zen bezala: "pueblo trabajador vasco, vota Herri Batasuna"⁶⁰⁴.

PSOE gainditutzat eman zuten, langile izaerari dagokioenean, eta EAJ gainditzea bakarrik falta ei zen, euskalduntasunari lotuta. Independentistek Moncloako Itunak Espainian diktadura militar baten aurkako berme bezala interpretatu zituzten modu berean, Herri Batasunak 1979ko hauteskunde emaitzak independentismoaren

⁶⁰³ Barne Ministerioraren sareko hauteskunde artxiboan eskuragarri daude datuak.

⁶⁰⁴ Herri Batasuna, «El Pueblo Trabajador Vasco vota Herri Batasuna», *Egin*, 1979ko otsailaren 20a.

goraldiaren froga bezala ulertu zituen. Urte batzuk geroago Iñaki Aldekoa buruzagiak jasotzen zuen gisan, une hartan "todo lo que no fuera descenso del PSOE, desaparición de EE, justo mantenimiento del PNV y ascenso de HB no cabía en los pronósticos"⁶⁰⁵.

Ondorioak

Frankismoaren desarrollismo garaian, Hego Euskal Herria eskualde bereziki hiritarra, industrial eta gaztea bihurtu zen eta biztanleriaren zati handia Espainiako beste eskualde batzuetatik iritsitako jendeak osatzen zuen. Populazioaren gehiengoa hiribuen inguruan kontzentratu zen eta horregatik, hiriburuetakoa espazio ezberdinak aztertzeak ahalbidetu egiten digu ulertzea zein espaziotan izan zen arrakastatsua Herri Batatasunaren interpelazioa.

Herri Batasunaren sostengua bi eremutan gertatu zen batez ere: eskualde euskaldunen erdigune geografikoan eta hiriguneetako langile auzoetan. Bi espazio horietan eduki zuen arrakastak zerikusia du Herri Batasunak ETaren kontakizun nazionala erreproduzitzeko izan zuen moduarekin, kontakizun horren erdiguean kokatu baizuen euskal herri demokratiko bat, berori euskal hiztuna eta langilea zela irudikatuz.

Horrenbestez, landa eremuan izan zuen sostenguak batez ere zonalde horietan euskara ohiko hizkuntza izatearekin zuen zerikusia, landa eremu izate hutsarekin baino gehiago. Hiriguneei dagokionez, Herri Batasunaren sostengua bereziki zabala zen dentsifikatutako auzo herritarretan baina esanguratsua zen baita migranteen presentzia handiko langile auzo berrietan. Hau da, eguneroko esperientziari lotutako boza zen eta horri lotuta, independentisten sostengua txikiagoa zen klase ertain eta altuko hiri espazioetan, baita kalitatezko etxebizitzak zituzten auzo berrietan ere, espazio horietan tokikoak gehiengoa ziren arren.

Herri Batasunak izan zuen sostengu zabala ETaren kontakizun nazionalistak barnebiltzen zuen ikuspegi teleologikoarekin interpretatu zuten buruzagi independentistek. Hau da, historia bai ala bai euskal nazio independente eta sozialista baterantz zihoala uste zuten. Interpretazio hura eta independentisten hauteskunde emaitzak ulertzeko, beharrezkoa da kontuan hartzea nola egituratu eta moldatu zen euskal metakontakizun nazionala, tesi honetako aurreko kapituluan azaldu dugun bezala. Modu berean, Herri Batasunak hurrengo urteetan espainiar Trantsizioari buruz

⁶⁰⁵ Iñaki Aldekoa, «Carta abierta a Tapala», *Egin*, 1983ko ekainaren 18a.

eginiko irakurketa eta hartutako erabakiek zerikusi zuzena dute 1979ko sostengu zabalari buruz independentistek egin zuten interpretazioarekin, hurrengo kapituluetan aztertuko dugun moduan.

5. Kontsentsuaren bukaera eta frankismoarekiko haustura. Herri Batasuna eta legegintzaldi aztoratua

Oro har, PSOEk 1982ko urrian lortu zuen garaipena hartzen da espainiar Trantsizioaren bukaeratzat. Sozialistek lortu zuten garaipen zabalarekin alderdi antifrankista bat iritsi zen boterera lehen aldiz, diktadorea hil eta zazpi urte beranduago. Hura bazen Trantsizioaren bukaera, Herri Batasunekoek ez zuten espero. 1982ko hauteskundeetan independentistak lau parlamentari izatetik bi diputatu izatera igaro ziren —bata Gipuzkoatik eta bestea Bizkaitik— eta Herri Batasuneko buruzagiak bereziki harrিতuta agertu ziren. Baieztatzen zutenez, "nadie contaba con la fulminante ascensión del PSOE", edo modu informalean Xabier Amurizak adierazten zuen bezala, "hemen PSOEren gorakadak denok larru gorritan harrapatu gaitu"⁶⁰⁶.

Kapitulu honetan zehar, independentisten harriduraren eta PSOEren gorakadaren arteko harremana azalduko dugu. Horretarako, bi ideia nagusi hartuko ditugu abiapuntutzat. Batetik, UCDren gobernuaren bigarren legegintzaldiak dinamika bereizia izan zuela. Defendatuko dugu Trantsizioaren fase ezberdin bezala har daitekeela eta fase berri horri erantzuteko, indar politiko guztiek beren jarrerak egokitu zituztela. Bigarren ideia nagusiarri dagokionez, defendatuko dugu 23-F estatu kolpe saiakeraren ondorio garrantzitsuenetakoa alderdi nagusien baitan espainiar mezu nazionalista indartzea izan zela. Zentzu horretan argudiatuko dugu Herri Batasunaren hauteskunde porrot erlatiboak agente ezberdinek Konstituzioa onartu ostean hartutako jarreraren ondorio izan zela eta testuinguru berrian independentistek ere beren jarrera eta mezuak aldatu zituztela.

Kapituluan zehar, Trantsizio garaiko espainiar nazionalismoa aztertu duten lanak hartuko ditugu kontuan⁶⁰⁷. Eta aurreko kapituluetan egin dugun bezala, testuinguru

⁶⁰⁶ Egin, «Herri Batasuna valora positivamente las elecciones generales», *Egin*, 1982ko urriaren 29a; Xabier Amuriza, «Hemen berriz ere», *Egin*, 1982ko urriaren 30a.

⁶⁰⁷ Núñez Seixas, «Sobre la memoria histórica...»; Ángel Duarte, «La república, o España liberada de sí misma», hemen: *Ser españoles. Imaginarios nacionalistas en el siglo XX*, ed. Javier Moreno Luzón eta Xosé Manuel Núñez Seixas (Barcelona: RBA, 2013), 104-32; Muñoz Mendoza, *La construcción política...*; Andrea Geniola, «El estado de la nación, las naciones del Estado. El socialismo español y la cuestión nacional/regional en la Transición», *Pasado y memoria: Revista de historia contemporánea* 17 (2018): 11-42; Vega Rodríguez-Flores Parra, «¿Construyendo banalmente la nación? Comunismo e identidad en el tardofranquismo y la Transición», hemen: *Ondear la nación: nacionalismo banal en España*, ed. Alejandro Quiroga y Ferran Archilés (Granada: Comares, 2018), 205-24; Xacobe Bastida, «La senda constitucional. La nación española y la constitución», hemen: *Nacionalismo español. Esencias, memorias e instituciones*, ed. Carlos Taibo (Madrid: Los Libros de la Catarata, 2007), 113-58.

zehatz batean metakontakizun nazional ezberdinek nolako harremana izan zuten aztertuko dugu. Bestalde, Herri Batasunean epe horretan gertatu ziren aldaketak azpimarratuko ditugu Francisco Letamendiak egin zuen interpretazioari jarraiki eta aldendu egingo gara ohikoa den ikuspuntu batetik, zeinak independentisten jarrerak 1977ko hauteskundeetan ez parte hartzeko erabakiarekin erabat finkatu zirela defendatzen baituen⁶⁰⁸. Modu horretan, Trantsizio garaian zehar ezkerreko alderdiek beren interpretazioak, jarrerak eta proiektuak nola aldatu zituzten aztertu duten lanei ere ekarpena egingo diegu⁶⁰⁹.

Lehenengo, 1979-1982 epean zehar PSOEn eta Euskadiko Ezkerraren inguruan eraiki ziren irudiek Herri Batasunaz iritzi publikoak zuen ikuspuntuari nola eragin zion aztertuko dugu. Jarraian, 23-F eta bere ondorioei erreparatuko diegu, arreta berezia jarrita Nafarroako kasuan eta EAJren diskurtsoan. Hirugarrenik, independentisten baitan gertatu ziren aldaketak aztertuko ditugu, azalduz zeintzuk izan ziren Herri Batasunak momentu politiko hura aztertzeko orduan egin zituen akatsak eta hori guztia erlazionatuz 1982an independentistek izan zituzten hauteskunde emaitzekin. Horrenbestez, honako galderen erantzuna bilatuko dugu. Nola eragin zuten metakontakizun nazionalek Herri Batasunak bere buruaz zuen irudian eta beste sektore politikoek independentistez zuten pertzepzioan? Zein aldaketa gertatu ziren 1979-1982 legeintzaldian eta nola egokitu zen Herri Batasuna aldaketa horietara?

Espainiartasuna, iragana ala etorkizuna?

Adolfo Suarezek gidatutako UCD alderdiak bigarrenez hauteskundeak irabazi zituen 1979ko martxoan. PSOEek interpretatu zuen Konstituzioaren inguruko adostasunaren onuradun nagusia presidentea bera izan zela. Aurreko urteetan, PSOEek politika bereziki moderatua eta zenbait keinu ezkertiar uztartu zituen. Esaterako, Konstituzioaren batzorde txostengilea utzi zuen behin-behinean, UCDri eta APi beren arteko akordioak ezarri nahi zituztela egotzi ondoren. Konstituzioa parlamentuan onartu zenean, PSOEek Errepublikaren aldeko boz sinbolikoa eman zuen eta Moncloako Itunen alderdi soziala ez zela bete salatu zuten. 1979ko udaberrietik aurrera, aldiz, PSOEek 1977-1978 artean erakutsitako moderazioa alde batera utzi zuen eta gobernuaren aurkako oposizio gogorra egin zuen. Aldi berean, bere burua gobernurako alternatiba bezala aurkeztu zuen. Behin

⁶⁰⁸ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*

⁶⁰⁹ Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) transición...*; Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*; Wilhelmi, *Romper el consenso...*; Quiroga Fernández de Soto, «Coyunturas críticas...

ezkerreko alderdi nagusia bezala sendotuta, boterera iristeko oztopo izan zitezkeen ezaugarriak ezabatu zituen, batez ere elite ekonomikoei keinu eginez eta gizartean oso hedatuta zeuden diktadura garaiko antikomunismoari eta estatu kolpe berri baten beldurrari begira⁶¹⁰.

PSOEk bere burua etorkizuneko gobernua bezala irudikatzeko orduan, azpimarratu egin zuen espainiar nazionalismoarekiko atxikimendu publikoa eta, zehatzago, Espainiako lurralde nazionalaren batasunaren defentsa. Alde batetik, alderdiaren dokumentu ofizialetatik autodeterminazioa terminoa desagertu zen —nahiz eta odura arte modu ñabartuan eta aldakorrean erabili zuten— eta behin betikotzat jo zuten Konstituzioan ezarritako administrazioaren deszentralizazioa. Beste alde batetik, eskuineko gobernuak espainiar abertzaletasunarekin zuen konpromiso eskasaren froga bezala aurkeztu zituzten espainiar lurraldean zeuden base militar estatubatuarrak, Gibraltar Erresuma Batuen parte izatea eta 1977-1978 artean Kanariar Uharteetan egon zen egoera ezegonkorra⁶¹¹.

Hirugarren kapituluan azaldu dugunez, ideal europar eta moderno bati lotu beharreko Espainiaren ideia berebizikoa izan zen prozesu konstituziogilean zehar, frankismotik zetorren elitearen eta oposizioaren arteko adostasuna eraikitzeke orduan. Fase horretan PSOEk izan zuen jarrerak irudi europar eta zibilizatua sortzen lagundu zuen, ezberdinen artean akordioetara iristen zen Espainiarena. Hots, eredu europarra eta Mendebaldekoa bere egiten zuen Espainiarena, lehenagoko anaien arteko borrokak atzean utziz.

1979ko hauteskundeen ondoren, PSOEk ofentsiba politikoa abiatu zuenean, kolpe ederra eman zuen marxismoa alderdiaren doktrina politiko bezala baztertuta. Barne polemika garrantzua gertatu ostean, 1979ko iraileko PSOEn kongresuak Felipe Gonzalezen lidergoa eta bere irudi pragmatikoa sendotu zituen, Gonzalezen figura kontrajarriz marxista gogor zeritzenei. Irudi pragmatiko hura komunikabide nagusiek sendotu zuten eta aldaketak alderdira azken orduan iritsitakoen sostengua izan zuen. Horiek harrotasunez begiratzen zieten batez ere antifrankismoaren garaiko PSOeko militanteak ziren marxistei eta atzean utzi beharreko iragan ideologizatuaren parte bezala irudikatu zituzten. Marxismoa alboratu izana modu arrakastatsuan gizarteratu zuten. PSOEn ardura erakusten omen zuen erabaki hark, antigoalekoak ziren

⁶¹⁰ Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) transición...*, 126-45.

⁶¹¹ Geniola, «El estado de la nación...», 29-32.

ideologiak atzean uzteko eta Espainia modernoaren beharretara egokitzeko prestutasuna⁶¹².

Alderdiaren irudi pragmatikoa indartuta eta bere aurka klixe antikomunistak erabiltzea oztopatuz, PSOEek bere burua Konstituzioa ikuspegi ezkertiar batetik garatzeko alternatiba bezala aurkeztu zuen eta bere gobernu programa propioa plazaratu zuen: dibortzio legea, herrialdea NATOn sartzea atzeratzea, Europako Ekonomia Erkidegoko kide bihurtzea, neurri ekonomiko interbentzionistak... Behin Konstituzioa lehenagoko frankistekin negoziatu ostean eta behin ziurtatuta Espainia europar eredura egokitutako monarkia parlamentarioa bihurtu zela, PSOEren helburua boteretik "aldeanos del antiguo régimen" delakoak kanporatzea zen⁶¹³.

Konstituzioaren inguruko adostasuna Espainiaren balizko iragan kainita atzean utzi izanaren frogaz bezala aurkeztu izanak, PSOEren irudi ona indartu zuen espainiar iritzi publikoan. Izan ere, sozialisten parte hartzea oso eskasa izan zen antifrankisten borrokan eta horregatik, PSOE ez zen ageri diktadura garaiari lotuta, oposizio antifrankistari oso atxikita ikusten zen PCE ez bezala. Gainera, monarkia onartu izanak eta marxismoa alboratu izanak PSOEko 1930ko hamarkadatu buruzagiekin erlazionatzea ekiditen zuen. PSOEek bere burua iraganarekin apurketaren eta laster iritsi behar zuen Espainia moderno baten berme bezala aurkeztu zuen⁶¹⁴.

Zentzu horretan, UCDren krisiak mesede izugarria egin zion. 1970eko hamarkadan eraldaketa politiko eta sozial handia gerta zitekeela irudikatu zuen oposizio antifrankistak. Horregatik, 1979ko hauteskundeetan UCDren gobernua berri izana garai zaharkitu eta itogarri baten isla bezala sentitu zuten gizarteko sektore zabalek. Langile munduari, auzoetako arazoei, amnistiari eta autonomiari lotutako protesta handietan parte hartu zutenetako asko desengainatuta sentitu ziren azken emaitzarekin eta lehenagoko goi kargu frankistak gobernuan mantentzearekin⁶¹⁵. Horri guztiari UCDren barne tentsioak gehitu zitzaizkion, izan ere, Suarez presidenteak nahi izan zuen 1977an gobernadore zibilen sare klientelarrei lotuta antolatutako notableen koalizio

⁶¹² Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) transición...*, 147-52, 273-83.

⁶¹³ José María Marín Arce, «La oposición del PSOE al tercer gobierno Suarez», hemen: *Las izquierdas en tiempos de transición*, ed. Carme Molinero eta Pere Ysàs (València: Universitat de València, 2016), 99.

⁶¹⁴ Sebastian Balfour eta Alejandro Quiroga Fernández de Soto, *España reinventada. Nación e identidad desde la Transición* (Barcelona: Ediciones Península, 2007), 158-66.

⁶¹⁵ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 138-40, 154-60, 183-84.

hura alderdi homogeen bihurtzea⁶¹⁶. Presidentearen alderdian barne polemikak etengabeak ziren eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta Katalunian 1980an UCDek izan zituen emaitza eskasen ondoren, enpresarien eliteak eta hierarkia katolikoak UCDeengan konfiantza galdu zuten eta eskuineko alderdi handi bat osatzeko Francoren ministro izana zen Manuel Fragaren asmoak sustatu zituzten. Giro kontserbadorea indartuta ageri zen gainera, Erresuma Batuko gobernura Margaret Thatcher iritsi ondoren eta AEBetako presidente Ronald Reagan bihurtu eta gero⁶¹⁷.

Eskuin are kontserbadoreagoa boterera iristeko beldurrak ezkerreko boto emaileak mobilizatu zituen modu orokorrean 1982ko urrian. Izan ere, PSOEek frankismoarekiko behin betiko apurketa gertatzeko eta oposizio frankistak lehenago lortu ez zuen haustura demokratikoa gauzatzeko berme bezala aurkeztu zuen bere burua. Gainera, alderdi praktikoa, europar eta ez ideologizatu gisa zuen irudiak PSOEren arrakasta bermatu zuten ezkertiar boto emaileez haratago⁶¹⁸.

Herri Batasunak ere gizarteari dei egin zion frankismoarekiko haustura gerta zedin. Lehenago PSOEko militante izan zen Justo de la Cueva (1937-2017) soziologoak, Nafarroan bizi zena eta Herri Batasunako kide zena, 1982an baieztatzen zuen independentisten lehentasuna zela "resistir la embestida final del franquismo (...) porque Euskadi hará la ruptura democrática"⁶¹⁹. Eta urriko hauteskunde kanpainari begira Herri Batasunak behin eta berriro errepikatu zuen ideia: "la salida del callejón sin salida de la reforma [franquista] es precisamente la ruptura democrática"⁶²⁰. Beste modu batera batera esanda, "sólo la ruptura (...) es la única salida para que se produzca un cambio real"⁶²¹. Narbaitz izengoitiarekin, *Egineko* orrialdeetan estilo literarioagoan errepikatzen zen ideia berbera: "¡adelante todos hacia la Ruptura democrática con el franquismo para lograr trigos verdes y amapolas, vino y pan, energía limpia y acero, economía y educación, alegría y libertad!"⁶²².

⁶¹⁶ Natalia Urigüen, «UCD y la ideología demócrata cristiana ¿estrategia calculada?», *Historia del presente* 30, 2 zbk. (2017): 69-82.

⁶¹⁷ Charles Power, «Alianza Popular y la Transición: la difícil forja de una derecha democrática española», hemen: *Los partidos en la transición. Las organizaciones políticas en la construcción de la democracia española*, ed. Rafael Quirosa-Cheyrouze Muñoz (Madrid: Siglo XXI de España, 2013), 163-83.

⁶¹⁸ Marín Arce, «La oposición del...

⁶¹⁹ Justo de la Cueva, «Dónde van y por qué los navarros de HB», *Egin*, 1982ko urtarrilaren 13a.

⁶²⁰ Egin, «HB: "Nos presentamos para garantizar el camino de la ruptura democrática y la liberación del pueblo vasco"», *Egin*, 1982ko irailaren 15a.

⁶²¹ Egin, «HB presentó un programa para la normalización de Euskadi», *Egin*, 1982ko urriaren 6a.

⁶²² Narbaitz, «Contra el golpismo: ruptura democrática», *Egin*, 1982ko urriaren 6a.

Independentistek beren ikuspegia 1970eko hamarkadako bukaerako giro euskal nazionalistan iltzatuta zuten eta beraien ustean, euskal gizartean ezinezkoa zen espainiartasuna modernitatearen eta europartasunaren berme bezala agertzea. Horregatik, aukera bakarra Herri Batasunak gero eta sostengu zabalagoa izatea ei zen. 1977tik UCDk eta PSOEek Hego Euskal Herrian gero eta boz gutxiago izateak eta 1979-1980 epeko hauteskundeetan euskal nazionalistak lehen eta bigarren indar bezala agertu izanak ideia hura baieztatuko luke haien ikuspegian.

Gainera, Herri Batasuna frankismoaren bigarren zatian hedatu zen Espainiaren ideiaro oso lotuta zegoen. Espainiartasun alaia, arduragabea eta politikatik urrundua, flamenkoaren irudi zehatz bati eta zezenketei lotua. Hura zen frankismoak irudikatu zuen Espainia atzerriko turistei saldu ahal izateko eta hura zen XX. mendeko bigarren erdiko europar gizartean ezarri zen irudia, oso lotua baitzegoen lehenagoko Espainiaren pertzepzio orientalizatuarekin. Kulturalki, gainera, Andaluziako eta Mediterraneoko topikoei lotuta zegoen irudi hura⁶²³.

Estereotipo hura bereziki arrotza zen Hego Euskal Herriko paisaia atlantiarrean eta bereziki industrializatuan. Are gehiago 1960ko hamarkadan euskal folklorea gaztetasunarekin, modernitatearekin eta antifrankismoarekin lotu zenetik, bigarren kapituluan azaldu dugun bezala. Miguel Castells Herri Batasuneko senatariak Espainiaren irudi orientalizatua bere egiten zuen, eta honakoa ziurtatzen zuen: "España es diferente (...) entre peinetas y mantillas, traje de luces, rosario y pandereta, han sentido la democracia"⁶²⁴. Estereotipo horrekin apurtzeko ezintasuna Espainian demokrazia ezartzeko ezintasunarekin erkatzen zuten independentistek, izan ere, Espainian egon zitekeen demokrazia bakarra litzateke "de oligarcas, policías enchufados (...), de banqueros, de estrellas y galones en bocamanga, por encima de Gobiernos (...) de duques y marquesas, de ministros y mandones que han jurado fidelidad al glorioso movimiento"⁶²⁵.

Aldi berean, Herri Batasuna konturatzen zen Trantsizioko urteetan euskalduntasuna desagertua zegoela espainiar imajinariotik, frankismo betean ez bezala. Rafael

⁶²³ Claudio Hernández Burgos, «Franquismo suave: el nacionalismo banal de la dictadura», hemen: *Ondear la nación: nacionalismo banal en España*, ed. Ferran Archilés Cardona eta Alejandro Quiroga Fernández de Soto (Granada, 2018), 137–157; Balfour eta Quiroga Fernández de Soto, *España reinventada...*, 80.

⁶²⁴ Miguel Castells, «Larrabetzu y la “fiesta nacional”», *Egin*, 1982ko abenduaren 15a.

⁶²⁵ *Ibid.*

Castellanok (Madril, 1943) *Eginen* 1982tik idazten zuen eguneroko zutabeetako batean Madrileko Gran Viatik osteratxoa deskribatzen zuen. Oroigarriak saltzen zituzten bi postu azpimarratzen zituen, bi Espainien sinbolo bezala hartuz: urdina, "barroco tenderete", parafernalia frankistaz betea; eta gorria, erreproduzitzen zuena "la hispanidad perenne: carteles taurinos, escribanías con banderillas, panderetas con malla goyesca rojigualda", kutsu politiko berezirik gabe. Baina euskalduntasunaren sinbolorik ez zegoen, ez batean ez bestean. Herri Batasunarentzat, bi noranzkoetan gertatzen zen fenomeno: euskaldunek ez zuten espainiartasuna bere egiten eta, alderantziz, espainiarrek ez zuten euskalduntasuna bere egiten⁶²⁶.

Horregatik guztiarengatik, Herri Batasunak uste zuen PSOEn mezua, Espainia europar bati buruzkoa, ez zela inondik inora eraginkorra izango Hego Euskal Herrian. Ziur agertzen horretaz: "el PSOE es una rara ave que está al borde de la extinción", "en el caso de celebrarse nuevas elecciones, el PSOE se llevaría en Euskal Herria un descabro bestial"⁶²⁷. Baina PSOEk arrakasta handia izan zuen Hego Euskal Herrian. Are gehiago, independentistek Espainiarekiko zuten irudi orientalizatuaren harira hartutako erabakiengatik, ez zuten esperotako hauteskunde igoerarik lortu. Hurrengo atalean azalduko dugun bezala, gizartearen zati handiarentzat Herri Batasuna bihurtu zen zaharkituaren eta zibilizatu gabekoaren sinbolo, independentistek beren buruaz zuten irudiaz oso bestela.

Alter ego eurokomunista

Herri Batasunaz gain Konstituzioaren aurkako boza eskatu zuen Euskadiko Ezkerrak ere, euskal alderdi nazionalisten artean. Aitzitik, behin Konstituzioa onartuta bi koalizioen irudi publikoa gero eta gehiago ezberdintzen joan zen, bata bestearen kontrako ispilu bihurtu arte⁶²⁸. Atal honetan aztertuko dugu nola joan zen Herri Batasunaren eta Euskadiko Ezkerraren arteko dikotomia hori ezartzen 1979-1982 artean, zein estereotipo hedatu ziren eta nola eragin zion horrek Herri Batasunak gizartea interpelatzeko zuen gaitasunari.

⁶²⁶ Rafael Castellano, «Ausencia selectiva», *Egin*, 1982ko abenduaren 17a.

⁶²⁷ Egin, «La prohibición gubernativa a la manifestación de Bilbao, "una burla contra todo el pueblo vasco"», *Egin*, 1982ko maiatzaren 19a; José Luis Cereceda, «Fianzas pagadas», *Egin*, 1982ko maiatzaren 27a.

⁶²⁸ José Antonio Egido, *Viaje a la nada. Principio y fin de Euskadiko Ezkerra* (Tafalla: Txalaparta, 1993); Fernando Molina Aparicio, *Mario Onaindia (1948-2003): biografía patria* (Madrid: Biblioteca Nueva, 2012); Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos...*

Euskadiko Ezkerra 1977ko udaberrian sortu zen independentisten eta ezker iraultzaileko alderdien hauteskunde koalizio bezala. Baina bai hauteskunde kanpainan eta bai parlamentuan parte hartzeari buruzko ezadostasunek hainbat alderdik eta hautagaik koalizioa uztea eragin zuten⁶²⁹. Azkenean, hiru alderdik parte hartu zuten kanpainan: Euskal Iraultzarako Alderdia (EIA), Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) eta Eusko Sozialistak (ES). Hautagaitza talde batzuek ere sostengatu zuten: ETA (politiko-militarra), Ezker Komunista Erakundea (EKE/OIC) eta Euskal Komunistak (EK/OPI). Azkenean, Euskadiko Ezkerrak Gipuzkoatik diputatu eta senatari bana lortu zituen 1977ko ekainean.

Baina urte haren bukaeratik, EIA alderdiko zuzendaritzak jada Hego Euskal Herrian prozesu iraultzaile bat martxan jartzeko baldintzarik ez zegoela argudiatu zuen, ordura arte defendatu zutenaz bestera, eta aprobetxatu beharra zegoela Euskadiko Ezkerraren sostengu esanguratsua, EAJren ezkerrean indar politiko nazionalista bat sendotzeko. Zentzu horretan, Eusko Kontseilu Nagusian parte-hartzea erabaki zuten, nahiz eta horrek berekin ekarri zuen ezker iraultzaileko sozioek koalizioa uztea⁶³⁰.

Euskadiko Ezkerra Bloke Politiko-Militarra delakoaren —EIAren eta ETA (politiko-militarra)-ren zuzendaritza koordinatua— pantaila politikoa bihurtu zen. Euskadiko Ezkerrak erretorika iraultzailea eta independentista alboratu zituen eta euskal estatutuaren proiektuan parte hartu zuen. Garai hartan Partido del Trabajo de Euskadi (PTE) eta Euskal Sozialisten Elkartze Indarra (ESEI) alderdien sostengua lortu zuen Euskadiko Ezkerrak, bai eta Herri Batasuna utzi zuten zenbait talderena ere: ANV (sector histórico) eta Euskal Kidego Abertzale Iraultzailea (EKIA) —HASIko zuzendaritzatik kanporatutakoek sortutako taldea—⁶³¹. Bazirudien, EAJren ezkerrean indar politiko nazionalista arrakastatsua egituratzen ari zela Euskadiko Ezkerraren baitan.

1979an zehar Euskadiko Ezkerraren eta Herri Batasunaren arteko ezberdintasun nagusia lehenek parlamentarien euskal estatutu proiektua bere egin zutela izan zen. Baita Euskadiko Ezkerrak bere baitan jatorri militante eta ideologiko anitzeko pertsonak bildu

⁶²⁹ EHAS, «Reunión de KAS, 1977/02/21» (Asteroko EHAS karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1977); EHAS, «Reunión de KAS, 1977/03/07» (Asteroko EHAS karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1977); EHAS, «Informe final sobre las elecciones, 1977/05/07, 3 am» (Asteroko EHAS karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1977).

⁶³⁰ Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos...*, 142-51; Egido, *Viaje a la nada...*, 42-49.

⁶³¹ Egido, *Viaje a la nada...*, 50-52, 67-71; Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos...*, 162-82.

izana ere, ezkerreko alderdi nazionalista euskalduna egituratzeko. Bien bitartean, hirugarren kapituluan azaldu dugun bezala, Herri Batasunak kontrabotere iraultzailearen aldeko apustua egin zuen eta Suarezzen eta Garaikoetxearen arteko akordioa sostengatu zuten guztiei frankista zaharrekin elkar hartu izana egotzi zien.

Hau da, Herri Batasunarentzat 1979ko estatutua onartzen zuten guztiak iragan frankistaren parte bihurtu ziren, baita Euskadiko Ezkerra ere. Independentistek Euskadiko Ezkerrak estatutuaren alde deitutako mobilizazioak boikotatu zituzten eta zenbait liskar ere gertatu ziren⁶³². Testuinguru hartan, Herri Batasunaren gainean irudi bat eraikitzen ari zen, indar politiko zaharkitua eta landatartua bezala aurkezten zuena, ez omen baitzegoen gizarte moderno bati egokitua.

Estereotipo hura Euskadiko Ezkerratik hurbil zeuden sektoreek eraiki zuten hein handi batean, 1979an zehar argitaratu zen *Euskadi Sioux* aldizkariaren bitartez, esaterako. Aldizkariaren zazpi zenbakietan Harri Batua pertsonaiaren abenturak agertu ziren. Superheroi independentista zen, Gabino Jaranaren zakil usteldu gabearen oinordekoa. Poliziaren gomazko pilotak esku huska partidu batean balego bezala itzultzen zituen eta "mesetario" delakoen "maketita" gasa zen bere kriptonita⁶³³. Estereotipo horren bitartez, Herri Batasunak gerraurreko nazionalismoaren oinordeko bezala bere buruaz zuen irudia bere kontra bilakatzen zen eta euskal nazionalismo kontserbadoreenaren irudi arrazista, landatartua eta jainkozalea independentismoari lotzen zitzaizkion. Trufa egiten zioten Herri Batasunak euskal herriaren ordezkari bakar eta benetazko bezala bere buruaz zuen irudiari eta bere mezuaren epikari: "el destino le tenía señalado a Harri algo más sublime (...) estaba escogido para una tarea excelsa"⁶³⁴.

Irudi horri EAJren inguruan sortutako erretorika gehitu zitzaion, zeinaren arabera independentistak faxisten ondorengoak baitziren. 1977ko hauteskundeen ostean ETARI sostengua ematea gatazkarekin eta poliziarekiko liskarrekin lotu zuen EAJk eta horrela, frankismo garaiko protestekin erlazionatzen zuen Herri Batasuna. Nahiz eta independentistek harrotasunez aldarrikatzen zuten oposizio antifrankistaren oinordeko zirela, EAJren ustetan hura atzean utzi beharreko iragana zen. Ikuspegi kontserbadore batekin, EAJk mobilizazio antifrankistaren ikur izan ziren praktikak —asambleak eta

⁶³² Egin, «Dos mil personas en la manifestación de EE por el estatuto y los refugiados», *Egin*, 1979ko irailaren 16a; Egin, «Tensa manifestación pro-Estatuto de Guernica», *Egin*, 1979ko uztailearen 22a; Egin, «Enfrentamientos en la manifestación pro-Estatuto de EE en Vitoria», *Egin*, 1979ko irailaren 30a.

⁶³³ Falete, «Harri Batua contra los mesetarios», *Euskadi Sioux* 2 (1979): 11.

⁶³⁴ Falete, «La odisea de Harri Batua», *Euskadi Sioux* 1 (1979): 11.

oposizioaren batasuna— faxismoarekin konparatzen zituen, gogorarazten baizizkioten "[la] fastuosidad de Hitler con sus grandes paradas" eta "aquellas grandes concentraciones en la plaza de Oriente"⁶³⁵. Are gehiago, tonu patriarkal batekin baieztatzen zuten EAJko kideek: "apurtzaile zeratenok bai zeratela fatxistak! Zuek, mutikokak, frankismo azpian zituak (...) eta lotsagabeak"⁶³⁶.

1979ko hauteskunde orokorretako kanpainan, Herri Batasunari erreparatuz, honakoa adierazten zuten EAJko diputatuek: "Euzkadi no está para aventuras revolucionarias (...) no queremos cambiar una dictadura fascista por otra"⁶³⁷. Hau da, EAJrentzat mezu iraultzaileak eta protestak frankismo garaiko kontua ziren, ez ziren egokiak erregimen parlamentario batean. Are gehiago, praktika haiek frankistek erabiltzen zituztenen parekoak ziren.

Modu horretan, Euskadiko Ezkerratik Herri Batasuna tradizionalista bezala irudikatzen zen. Aldi berean, EAJtik proiektu politiko iraultzailea frankismoarekin konparatzen zen eta irrazional eta sentimental bezala ezaugarritzen zen. Bi ikuspegi horietan, Herri Batasuna atzean utzi beharreko iraganaren parte zen, izan EAJren ezkerrean indar politiko nazionalista egituratzeko edo izan euskal nazioa Europa modernoaren eta demokratikoaren parte bihur zedin.

Estatutua erreferendum bidez onartu eta gero, Euskadiko Ezkerra PCE alderdiaren euskal adarrarekin batzeko prozesua abiatu zen eta horrek Herri Batasunaren irudi isolatua are gehiago indartu zuen. PCEko buruzagi eurokomunistek sozialismorako gutxikako bidea irudikatu zuten Trantsizio garaian eta bide horretan beharrekotzat jotzen zituzten eskuinarekin akordioak, estatu kolpe arriskua ekiditeko. Zentzu horretan onartu zituzten militante komunistek monarkia Estatu-eredu bezala, marxismo-leninismoa alboratzea alderdiaren ideologia ofizial gisa eta Konstituzioaren inguruko akordioak⁶³⁸. 1980an zehar Euskadiko Ezkerra eurokomunismoaren antzeko jarrerak

⁶³⁵ Manuel Ezcaray, «¿Es la calle de todos?», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 41 (1977): 5.

⁶³⁶ K. Arrizabalaga'tar, «Nortzuk Fatxistak?», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 48 (1977): 18.

⁶³⁷ Euzko Alderdi Jeltzalea, «Los nacionalistas proclamamos inequívocamente nuestra opción por las vías pacíficas», *Euzkadi. Euzko Alderdi Jeltzalearen Izpar Aldizkaria. Boletín Informativo del Partido Nacionalista Vasco* 117 (1979): 23.

⁶³⁸ Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) transición...*, 68-81.

hartzen joan zen. Alde batetik, EAJk gidatutako gobernu autonomikoan bere parte-hartzea eskaini zuten, estatutua ikuspegi ezkertiar batekin garatzeko berme bezala⁶³⁹.

Bestetik, Euskadiko Ezkerran teorizatu zuten diktadura militarra berrezartzeko arrisku handiena talde armatu iraultzaileak zirela, lehenago eurokomunismoak egin zuen bezala. 1981eko hasieran Euskadiko Ezkerrak ETA (politiko-militarra)-ri eta ETA (militarra)-ri su eteneak aldarrika zitzatela eskatu zien. Bide batez, Euskadiko Ezkerreko buruzagiek gobernuarekin elkarrizketak abiatu zituzten, klandestinitatea uzten zuten ETA (politiko-militarra)-ko kideekin zer egin adosteko⁶⁴⁰.

PCEko tokiko komiteak izan ziren ETA (militarra)-ren hilketa baten aurkako lehen protesta deitu zutenak 1978ko ekainaren 28an, Portugaleten⁶⁴¹. Beraien ikuspegi eurokomunistan, biolentziaren erabilera eta sozialismoaren eraikuntza uztartzea ezinezkoa zen europar testuinguruan. Horrek ez du esan nahi PCE, gainontzeko alderdi ezertiarrek bezala, asko hurbildu ez zenik ETAREN kontakizun nazionalera 1970eko hamarkadan zehar. Izan ere, 1977an Hego Euskal Herrian hauteskunde emaitza txarrak izan ondoren, PCEk bere mezuaren kutsu euskal nazionalista azpimarratu zuen. ETAKo kide ohi zen Roberto Lertxundi aukeratu zuten idazkari nagusi bezala, alderdia "partido de los comunistas de la nación vasca" bezala definitu zuten eta garaiko euskal estetikara egokitutako logotipo berria —Eduardo Chillidak diesinatua— aurkeztu zuten, euskarazko izena indartzeaz batera: Euskadiko Partidu Komunista (EPK)⁶⁴². Hala ere, hauteskunde emaitzak oso eskasak izan ziren 1979an ere eta Espainian oro har gertatu zenaz bestela, PCE-EPKk bozak galdu zituen Hego Euskal Herrian.

1979an, behin PSOE behin betiko ezarri zelarik ezkerreko alderdi nagusi bezala, barne tentsioek eztanda egin zuten PCEn, eurokomunisten eta leninista delakoen artean. Hego Euskal Herriko kasuan, PCE-EPK barneko eztabaida espainiar alderditik aldendu nahi zutenen eta euskal nazionalismotik aldendu nahi zutenen artean gertatu zen. 1981eko urtarrilean, bi korrante kontrajarri horiekin, PCE-EPK alderdiaren IV Kongresuan

⁶³⁹ Javier Angulo, «El Gobierno vasco seguramente será monocolor», *El País*, 1980ko martxoaren 13a; El País, «Bandrés: “Euskadi ha pasado factura a UCD por su nefasta política autonómica”», *El País*, 1980ko martxoaren 11.

⁶⁴⁰ Egido, *Viaje a la nada...*, 67-96; Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos...*, 183-84, 234-38.

⁶⁴¹ Raúl López Romo, *Informe Foronda. Los efectos del terrorismo en la sociedad vasca (1968-2010)* (Madrid: Los Libros de la Catarata, 2015), 57.

⁶⁴² Javier Angulo, «PC de Euskadi: ni vencedores ni vencidos», *El País*, 1977ko azaroaren 1a.

Roberto Lertxundi aukeratu zuten berriro idazkari nagusi bezala eta Euskadiko Ezkerrari aliantza eskaini zioten, EAJren ezkerrean indar nazionalista bat sendotzeko⁶⁴³.

1982ko martxoan Euskadiko Ezkerra-Izquierda para el Socialismo (EE-IPS) alderdi berriaren sorrera kongresua ospatu zen. Ohorezko presidente bezala aukeratu zuten erbestetik itzuli berri zen Juan Astigarrabia (1901-1989), gerra zibil garaiko buruzagi komunista. Alderdi politiko berriak bere burua abertzale eta sozialista bezala aurkeztu zuen, independentzia aipatu gabe. Konstituzioak ezarritako legedia ontzat eman zuen eta erakundeetako lanari lehentasuna eman zion, alderdikideek sindikalismoan edota mugimendu sozial berrietan egin zezaketen lana gora-behera.

Aitzitik, ez zuten lortu ETA (politiko-militarra)-ko militanteen gehiengoak borroka armatua bukatutzat eman zezan. Talde minoritarioa —*zazpiki* zeritzenak ETAre VII. Biltzarraren harira— izan zen 1982ko irailean modu publikoan ETA (politiko-militarra) erakundearen bukaera prentsaurrean aurkeztu zuena. Bestalde, PCE-EPKko zati batek ez zuen Euskadiko Ezkerrarekin bat egitea ontzat eman eta sigla tradizionalak mantendu zituen, espainiar PCERI lotuta.

Herri Batasunekoek ezker iraultzailereren baitan eurokomunismoari aurka egiteko ohikoa zen tonu harroputza erabili zuten, EE-IPS alderdi berriari buruz hitz egiterakoan. Bozeramaile independentista batek adierazten zuenez, "nos parece lógico, sin más, que dos partidos eurocomunistas intentasen fusionarse" eta gaineratzen zuen alderdi berriak bazuela "el tan extraño apoyo de los medios", helburu argi batekin: "relanzar precisamente a la izquierda en que menos futuro prevén"⁶⁴⁴. Herri Batasuneko beste bozeramaile batek honakoa azpimarratzen zuen EE-IPS buruz: "no tiene perspectivas (...) puede acabar tragándose a ambas organizaciones"⁶⁴⁵. Eta aurreikusten zuen horrek epe laburrean eragina edukiko zuela: "favorecería fuertemente el amplio espacio político de Herri Batasuna"⁶⁴⁶.

⁶⁴³ Tonia Etxarri, «Lertxundi dimite como parlamentario tras ser reelegido secretario del PC de Euskadi», *El País*, 1981eko urtarrilaren 27a; Javier Angulo eta Tonia Etxarri, «Pugna entre las corrientes obrerista y vasquista del PC de Euskadi», *El País*, 1981eko urtarrilaren 24a; Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos...*, 206-8.

⁶⁴⁴ Egin, «Organizaciones políticas valoran el proceso de convergencia EPK-EE», *Egin*, 1981eko azaroaren 6a.

⁶⁴⁵ Egin, «Nicolás Sartorius afirmó que “de disolución del EPK nada de nada”», *Egin*, 1981eko irailaren 16a.

⁶⁴⁶ *Ibid.*

1982ko hauteskunde orokorretan 100.326 boz eskuratu zituen EE-IPSk, Hego Euskal Herriko bozen %6,8a. Lehenago bi alderdiek banatuta eskuratu zituztenak baino boz gutxiago ziren eta Juan Mari Bandres alderdiko presidentearen aukeraketa bakarrik lortu zuten, berriro ere diputatu izango zelarik Gipuzkoatik. Baina garrantzitsuena EE-IPSren irudia zen, lehen unetik Herri Batasunari kontrajarri baizitzaion. Euskal ezker nazionalista bakarra independentistak zirela zalantzan jartzen zuen EE-IPSk eta Herri Batasuna isolatuta utzi zuen biolentziaren erabilera sostengatzen zuen indar politiko bezala.

Gainera, espainiar politika modernora egokitutako ezkerreko euskal nazionalismoa bihurtu zen EE-IPS, Konstituzioa onartu baitzuen eta Espainiaren eta euskaldunen arteko gerraren ideia erabat baztertu baitzuen. Horrexegatik, EE-IPS Madrileko komunikabideek lausengatu zuten hasiera-hasieratik, bere irudiari ezkertiarri kontrajarriz Herri Batasuna gogorki nazionalista eta biolentoa⁶⁴⁷. EE-IPS eredu bihurtu zen monarkia konstituzionalaren baitan ezker independentistak jokatu beharreko rola ezartzeko orduan eta erakutsiz espainiar irtzi publikoari posible zela euskal nazionalista ezkertiarra izatea, Konstituzioa onartzea eta biolentziaren erabilera arbuiatzea. Mezu hura Euskadiko Ezkerrak azpimarratu zuen etengabe baina, esaterako, une hartan egituratzen ari zen euskal zinemaren industrian ere ideia bera erreproduzitu zen⁶⁴⁸.

Herri Batasunaren irudia atzean utzi beharreko iraganarekin lotu zuen beste elementu bat 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpe saiakera izan zen. Hurrengo atalean azalduko dugu nola estatu kolpe saiakerak indartu egin zuen espainiar mezu nazionalista eta nola erantzun zion testuinguru hari Herri Batasunak.

Nazioa babesteko beharra

1978-1979 artean ETA (militarra)-k eta Herri Batasuneko buruzagiek interpretatzen zutenez, Espainiako elite ekonomikoak lortu zituen jada bere helburuak, erreforma politiko bat ezarri baitzen baina sistema ekonomikoa aldatu gabe. Horregatik, ia-ia

⁶⁴⁷ Egido, *Viaje a la nada...*, 118-22; Fernández Soldevilla, *Héroes, heterodoxos...*, 218-19.

⁶⁴⁸ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 202-3; Gorka Etxebarria Dueñas eta Josu Martínez, «“Herri Batasuna”ren irudikapena 1980ko hamarkadako Euskal Herriko zineman», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria* 102 (2017): 49-69; Gorka Etxebarria Dueñas eta Josu Martínez, «A traditional stereotype for modern Spanish politics: The Basque pro-independence coalition Herri Batasuna and its depiction in cinema», hemen: *Conflict and Controversy in Small Cinemas*, ed. Janina Falkowska eta Krzysztof Loska (Berlin: Peter Lang, 2018), 57-69.

ezinezkotzat jotzen zuten estatu-kolpe militar baten aukera⁶⁴⁹. Bat-batean Adolfo Suarezek dimisioa aurkeztu zuenean, 1981eko urtarrilaren 29an, Herri Batasunak adierazi zuen arrazoi nagusia gobernuak bere burua "incapaz de resolver el problema vasco" ikusten zuela zela eta geratzen zen irtenbide bakarra hurrengo gobernuak KAS Alternatiba onartzea zela⁶⁵⁰.

Hala ere, gizartean hedatuta zegoen ETA (militarra)-ren etengabeko eraso eta hilketek estatu-kolpe militar bat eragin zezaketenaren ideia eta hura zen hain zuzen ere eurokomunismotik talde armatu iraultzaileei egiten zitzaien kritika. Xavier Casalsek aztertu duen bezala, Hego Euskal Herriko talde independentista eta iraultzaileen erasoak faktore garrantzitsua izan ziren Armadako, guardia zibileko eta poliziako zenbait sektoretan eskuin muturreko posizioak indartzeko⁶⁵¹. Aitzitik, talde horiek eskuin muturrarekin lerratzeko arrazoi nagusia beste bat zen: Armadako zenbait sektoretan ez zuten onartu nahi izan alderdi antifrankisten legalizazioa, ez eta monarkia konstituzionalaren ezarpena. Ideia horri lotuta antolatuta zituzten matxinada saiakera ezberdinak: gobenuak PCE legalizatu zuenean, ezkerrek 1977ko ekaineko hauteskundeak irabazteko aukera ikusi zutenean eta 1978ko bukaeran Konstituzioa onartzekotan zenean —Operación Galaxia bezala ezagutua izan zen azken saiakera hura—.

Komunikabide nagusiek Suarezren dimisioa espainiar monarkia konstituzionalak zituen ezegonkortasunarekin eta etorkizunari buruzko zalantzekin lotu zuten. *El País* egunkariak adierazi zuen Suarezren dimisioaren atzean "escalada permanente de las fuerzas reaccionarias" zegoela eta UCDe, "antiguo régimen" delakoaren interesari lotuta egotean, ezin izan zuela "ofrecer una alternativa democrática"⁶⁵². Herri Batasunak aditzera eman zuenez, dimisioa gertatu zen "por la presión de altos mandos militares y sectores financieros"⁶⁵³. Hau da, bai *El País*en eta bai Herri Batasunaren ikuspegian, soluziobide bakarra gobernu demokratikoago bat zen, frankismoarekin loturak behin betiko apurtuko zituen. Kasu batean, horrek PSOE gobernura iristeko beharra esan

⁶⁴⁹ ETA (militarra), «Acerca de nuestra táctica», *Zutik!* 69 (1978): 21-34; Egin, «Mañana en Alsasua HB convoca la Euskal Herriko Batzarre Nazionala», *Egin*, 1979ko ekainaren 16a.

⁶⁵⁰ Egin, «Los partidos vascos prevén una derechización, más acusada aún», *Egin*, 1981eko urtarrilaren 31.

⁶⁵¹ Casals, *La Transición española...*, 91-105.

⁶⁵² El País, «Editorial», *El País*, 1981eko urtarrilaren 30a.

⁶⁵³ Egin, «Los partidos vascos prevén una derechización, más acusada aún» *Egin*, 1981eko urtarrilaren 31.

nahi zuen, Espainia "al borde del vértigo" baitzegoen⁶⁵⁴. Independentistentzat, aldiz, gobernu demokratikoaren lehen egitekoa KAS Alternatiba onartzea zatekeen.

Zentzu horretan, kontuan hartu behar dugu Herri Batasunaren mezuak gobernuak KAS Alternatiba onartu behar zuela azpimarratzen zuela. Hau da, Herri Bataren lehentasuna, paradoxikoki, Espainia europar eredura egokitutako demokrazia bat bihurtzeko aukera zen. Espainian gobernu demokratikoa ezartzen bazen, euskal herriaren askapen bidea onartu beharko zuen eta Herri Batasuna bere helburuetatik hurbilago egongo litzateke. Testuinguru hartan, Herri Batasuna espainiar politikoaren joan-etorrien menpe zegoen eta bere ikuspegiaren gobernuarekin akordioa pausu garrantzitsua zen. Horrek guztiak Herri Batasunaren inguruan egon zitezkeen bi kultura politiko independentistengandik bereiztea ekarri zuen: giro autonomoak eta Ipar Euskal Herriko ezker nazionalista euskalduna.

Autonomoak biltzen zituen giro heterogeneoan eragin handia izan zuen 1970eko hamarkadaren bukaeran iraultzarako aukerak urrundu izanaren sentipenak, batez ere langile munduko eta gazteriako zenbait sektorerengan⁶⁵⁵. Beraien posizioen oinarria alderdi handiei eta abangoardiazko erakundeei kritika zen, asanbleen lehentasuna baztertuta iraultza elitizatu eta burokratizatu nahi zutela egotzita. Italian autonomo mugimendua zeritzona egituratu zen 1977ko otsailean eta Alemaniako Errepublika Federalean 1978ko hasieran agertu ziren giro autonomoak. Espainian ere 1978. urtearen hasieran egituratu ziren lehen taldeak, esaterako, Federación Ibérica de Grupos Anarquistas eta Autonomía Obrera⁶⁵⁶.

Hego Euskal Herriko mugimendu autonomoan, langile eta gazteez gain, ETA (politikomilitarra) erakundetik zetorren militante talde bat eta LAIA (ez) alderdia ere elkartu ziren —azken horrek KAS koordinadora utzi zuen 1977ko udaberrian—. 1978ko apirilean Komando Autonomo Antikapitalistek lehen eraso burutu zuten, Gipuzkoako enpresarien elkartearen bulegoetan eztanda bat burututa. Hego Euskal Herriko autonomo zeritzanek ETArekin kontakizun nazionala bere egiten zuten hein handi batean eta independentziara eta sozialismora zihoan euskal herria irudikatzen zuten. Baina Herri Batasunari aurre egiten zioten, egotzen baitzioten fabriketako mugimendu asanblearioa eta mugimendu sozial berriak bere intereserako erabili nahi izatea.

⁶⁵⁴ El País, «Editorial» *El País*, 1981eko urtarrilaren 30a.

⁶⁵⁵ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 149-54.

⁶⁵⁶ Wilhelmi, *Romper el consenso...*, 188-92.

Gainera, uste zuten KAS Alternatiba iraultzarako arriskutsua zela, izan ere, gobernuak onartzekotan euskal gizartearen zati erradikalizatu eta iraultzaile zabala sisteman intergatuta geratuko zen⁶⁵⁷. Autonomoen ustean, "KASen programa burgesiak onar dezake, liseritu eta indarge utzi"⁶⁵⁸.

Bestalde, lehenago ETA V erakundearen azpiegituran parte hartu zuten Ipar Euskal Herriko zenbait gaztek Iparretarrak (IK) erakunde armatua sortu zuten 1973an. IKk ere ETAREN kontakizun nazionala bere egiten zuen baina talde horren ekinbidea tokiko dinamikan oinarrituta zegoen. 1960ko hamarkadatik gorpuzten ari zen mugimendu anitza, Ipar Euskal Herria gune turistiko bihurtzeko frantses gobernuak eta tokiko eliteek zuten asmoen kontra. Erantzunak kutsu antikapitalista eta euskal nazionalismoari lotutako mezua hartu zituen. Ipar Euskal Herrian zeuden lantegi apurren itxiera eta horrek eragiten zuen gazteen migrazio masiboa salatu zituzten.

1974tik, IKko kideek ETA (militarra)-ren asmoekin topo egin zuten, bigarren horien helburua Ipar Euskal Herrian erakundearen azpiegitura sendotzea baitzen eta IKren ekinbidea mehatxua zen horretarako, zonaldean poliziaren presentzia areagotu baitzezakeen. Azkenean, IKren inguruan kultura politiko propio bat egituratzen joan zen, Herri Batasunarena egituratu zen garai berean.

Ipar Euskal Herriko egoera ezberdina zela jakitun, 1977ko uztailean HASI sortu zenean EHASen iparraldeko adarrak bere siglak mantendu zituen, HASIrekin federatutako alderdi gisa. Saiatu zen Ipar Euskal Herrian konbergentzia prozesu bat abiatzen 1977ko bukaeran eta bere baitara erakartzen talde ezkertiar eta euskal nazionalista ezberdinak. Baina ez zuen bere helburua lortu eta praktikan EHAS Herri Batasunari eta Hego Euskal Herriko dinamika politikoari oso lotuta geratu zen⁶⁵⁹.

Ipar Euskal Herrian IKren inguruan ezkerreko kultura politiko nazionalista egituratzeko lehen pausua 1977ko abenduan Baigorri ospatu zen ekitaldi politikoa izan zen. Aste batzuk geroago, IKko militante bat atxilotu zuen frantses poliziak lehen aldiz eta berori askatzea exijitzeko herri ezberdinetan sortutako taldeak egituratu egin ziren handik gutxira. IKren eta Herri Taldeak zeritzanen ikuspegian, ETA (militarra) eta Herri Batasuna oso loturik ageri ziren espainiar politikari eta gainera, Ipar Euskal Herriko

⁶⁵⁷ López Adán, *Biolentzia politikoaren memoriak...*, 130.

⁶⁵⁸ *Ibid.*, 99.

⁶⁵⁹ Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...*, 392-96.

euskal nazionalista iraultzaileen antolaketari trabak jartzen zizkioten⁶⁶⁰. Horrela, bai autonomoak, bai Ipar Euskal Herriko euskal nazionalisten gehiengoa, Herri Batasunaren kultura politikotik kanpo geratu ziren.

Hego Euskal Herriko testuingurura itzuliz, independentistak protagonista bihurtu ziren Espainiako prentsan 23-F gertatu aurreko asteetan, egoera bereziki tenkatu baitzen Hego Euskal Herrian. Halere, nabarmendu beharra dago Hego Euskal Herriko egoera ez zela izan estatu kolpe saiakeraren kausa nagusia, nahiz eta egoera tenkatuak nolabaiteko katalizatzaile lana egin ahal izan zuen⁶⁶¹. Juan Karlos I erregeak Euskal Autonomia Erkidegora egin zuen lehen bisitari independentistek "presoak kalera, erregea bere etxera" kanpainarekin erantzun zioten. Eta Gernikako juntetxean egin zitzaion harrera ekitaldia boikotatu zuten 1981eko otsailaren 1ean, erregeak hitza hartu zuenean ukabilak altxata *Eusko Gudariak* abestu baitzuten Herri Batasuneko eta LAIAko hautetsiek.

Bi egun beranduago, Lemoizko zentral nuklearraren eraikuntza lanetako arduraduna, José María Ryan, hilik agertu zen, ETA (militarra)-k bahitu eta bi egunera. Otsailaren 13an ETA (militarra)-ko Jose Arregi kidea atxilotua izan ondoren jasotako torturen ondorioz hil zen Madrilen. Bi greba orokor gertatu ziren jarraian Hego Euskal Herrian, lehena Ryanen hilketaren aurka protesta egiteko, eta bigarrena, jendetsuagoa, Arregiren heriotza salatzeke.

23-F delakoak une bereziki asaldatu harekin kointziditu zuen Hego Euskal Herrian. Aurreko asteetan Herri Batasunak ziurtatzen zuen egoera politiko nahasi hartan gertatu zena zela "[que] se han exteriorizado claramente dos polos" eta testuinguru hartan independentistak sektore zabalenaren ordezkariak zirela: "de los marginados, de los que sufren la miseria del paro y la injusticia de las leyes que el sistema capitalista, que el Rey representa"⁶⁶².

PSOEko kideek espainiar banderekin egin zioten ongietorria erregeari Hego Euskal Herrira eta 23-F ostean Felipe Gonzalezek adierazi zuenez, "nadie ma gana ha

⁶⁶⁰ Eneko Bidegain, *Iparretarrak. Erakunde politiko armatu baten historia* (Larresoro: Gatuzain, 2007), 70-77, 94-103; Ahedo Gurrutxaga, *El viaje de la identidad...*, 368-88.

⁶⁶¹ Alfonso Pinilla García, *El laberinto del 23-F. Lo posible, lo probable y lo imprevisto en la trama del golpe* (Madrid: Biblioteca Nueva & Universidad de Extremadura, 2010); Xavier Casals, *La Transición española...*, 512-14.

⁶⁶² Egin, «HB expresó en Foronda su rechazo a la visita real», *Egin*, 1981eko otsailaren 4a.

patriota"⁶⁶³. Herri Batasunaren ikuspunuan, PSOE jada erabat lerratu zen frankista ohien interesekin. Esan bezala, independentistek uste zuten une hartan jada espainiarekiko identifikazio nazionala oso txikia zela Hego Euskal Herrian eta, horrexegatik, PSOEko kideek bidea libre utzi zieten eta bazegoela "posibilidad real" Herri Batasunera biltzeko "todos los que honestamente luchamos por la soberanía popular"⁶⁶⁴. Baina independentisten interpretazioaren arabera 'frankistak Herri Batasunaren kontra' zena, gainontzeko sektore politikoetan ulertu ezinezko 'Herri Batasuna guztien kontra' zen.

23-Fko gertaerek bi ondorio nagusi izan zituzten, Herri Batasunak abantaila bezala interpretatu zituenak, baina praktikan independentisten interpelazio ahalmena asko murriztu zutenak. Alde batetik, EAJk bere diskurtso kontserbadorea sendotu zuen eta, bestetik, Konstituzioa sostengatu zuten alderdiek mezu espainiar nazionalista indartu zuten. 1981eko Aberri Egunean Herri Batasuna EAJren oinarri soziala erakartzen saiatu zen. Izan ere, hirugarren kapituluan azaldu dugun bezala, independentistek uste zuten oinarri sozial nazionalista jada ez zuela ordezkatzeko interes estatubatuar eta kontserbadoreei lotutako EAJren buruzagitzak. Herri Batasunak Gernikara deitu zituen bere jarraitzaileak eta bertara joateko gonbita egin zien "[a quienes] realmente son nacionalistas en el PNV, a los sectores progresistas de EE, a las fuerzas obreras del PSOE y PCE"⁶⁶⁵.

Praktikan, parlamentuz kanpoko ezker iraultzailea bakarrik batu zen Herri Batasunaren deialdira: EMK, LKI, PTE eta PST⁶⁶⁶. EAJk manifestu luze batekin erantzun zuen, kutsu bereziki kontserbadorea eta antikomunista zituena. Alderdiaren zuzendaritzak bere "vocación democrática y occidental" azpimarratu zuen eta honakoa salatu zuen: "intereses internacionales pretenden aprovechar la radicalización reivindicativa de sectores de nuestro pueblo"⁶⁶⁷. Herri Batasuna behin ere aipatu gabe, adierazten zuen Hego Euskal Herrian bazierela "gutxi batzuen talde gogotsu, zainart eta susmo txarreko lagundiekin dabilta[nak] (...) sakonki errotua den abertzaletasuna bide harturik,

⁶⁶³ Ibid.; ABC, «Felipe González: "El golpe ha causado estragos en Europa"», *ABC*, 1981eko martxoaren 17a.

⁶⁶⁴ Egin, «Denuncian la imposibilidad de defensa a la que han sido sometidos por los medios de comunicación», *Egin*, 1981eko otsailaren 15a.

⁶⁶⁵ Egin, «Herri Batasuna convoca un único y central Aberri-Eguna el domingo 19 en Gernika», *Egin*, 1981eko apirilaren 10a.

⁶⁶⁶ Egin, «Aberri Eguna 81: EMK, LKI y ELP-PTE acudirán a Gernika», *Egin*, 1981eko apirilaren 11; Egin, «Aberri Eguna: LAB y PST estarán en Gernika», *Egin*, 1981eko apirilaren 16a.

⁶⁶⁷ Euzkadi Buru Batzar, «Una reflexión en el camino hacia la libertad» (Aberri Eguna 1981 karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1981).

berebiziko gogamen kontrabandoaz ideologi marxistak barruratzen"⁶⁶⁸. EAJren buruzagitzak adierazten zuenez, enpresaria "izuikaraz ta laidoztua, gerorako itxaropenik gabe, hor aurkitzen da dirua eragiltzeko elbarri ta egipidean beldurtuta" eta hori konpontzeko "sindikalismo arduratsua" aldarrikatzen zuen. Aldi berean, erabateko lehenasuna ematen zion "gogorkerian diarduten talde koxkorreri zaieten beldurra uxatu ta galtzea[ri]", esaldi berean Franco, 23-Fko matxinatuak eta ETA erkatuz⁶⁶⁹.

1981eko bukaeran bere irudi konstertadorea indartu zuen EAJk, UCDeekin, APekin eta Kataluniako eskuinarekin bateara Espainia NATO n sartzearen alde bozkatu zuenean⁶⁷⁰. EAJk argudiatzen zuenez, AEBekin aliantzak "ha permitido a Europa disfrutar de un periodo de paz frente al expansionismo soviético" eta honako ideia azpimarratu zuten: "la amenaza está en la Unión Soviética, porque está agitando los movimientos revolucionarios en Europa"⁶⁷¹. Horrela, EAJren mezuan Sobietar Batasuna, ETA, frankismoa eta 23-Fko protagonistak gauza bera ziren eta horiek guztiak garapen ekonomikorako eta Hego Euskal Herria eremu europar zibilizatua bihurtzeko oztupoak ziren.

Herri Batasunak uste zuenaz bestela, independentistek buruz iritzi publikoaren zati hadi batek zuen irudia talde minoritario eta biolento batena zen, espainiar Armadaren sektore erreakzionarioekin pareka zitekeena eta Gerra Hotzeko klitxe antikomunista ohikoak barnebiltzen zituen. Halere, Herri Batasuneko buruzagiek ETArekin kontakizun nazionalen erabateko ustea zuten eta hura guztia EAJk eta PSOEk euskal herriari eta antifrankismoari egindako traizio bezala azaltzen zuten. Zentzu horretan interpretatzen zuten jarrerak argitu egin zirela eta independentisten garaipena gero eta hurbilago zegoela⁶⁷².

23-F ostean, espainiar alderdi nagusiak Konstituzioaren defentsan gotortu ziren eta beraien espaiartasuna azpimarratu zuten, mezu nazionalista sektore erreakzionarioen esku gera ez zedin. Konstituzioa sostengatzen zuten alderdiek bandera nazional berriaren erabilera orokortu zuten, zeinak frankismo garaikoaren koloreak mantentzen

⁶⁶⁸ Euzko Alderdi Jeltzalearen EBB, «Gogoeta txolarte bat, askatasunaren bidean» (Aberri Eguna 1981 karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1981), 4.

⁶⁶⁹ Ibid.

⁶⁷⁰ Bonifacio de la Cuadra, «Los nacionalistas vascos y catalanes, máximos defensores de la incorporación de España a la Alianza», *El País*, 1981eko urriaren 29a.

⁶⁷¹ Egin, «El PNV defiende “desde una visión de Estado” el ingreso de la alianza», *Egin*, 1981eko urriaren 29a.

⁶⁷² Landaberea Abad, *Los «nosotros» en la Transición...*, 309-11.

baitzituen armarrri berri batekin. Gobernuako goi karguek beti banderaren ondoan agertzeko jarraibideak jaso zituzten eta 1981eko urrian, PSOEek bere XXIX Kongresua ospatu zuen, lehen aldiz bandera espainiarraren azpian, ordura arteko bandera gorria erabili beharrean. Gobernuak urriaren 12a "fiesta nacional de España y de la hispanidad" izendatu zuen. Parlamentuak lege berri bat egin zuen, zeinaren arabera bandera espainiarra lehentasunezko leku batean kokatu behar baitzen eraikin publiko guztietan. Abenduaren 6an, Konstituzioa onartzeko erreferendumaren urteurrenean, egunkariak espainiar banderak banatu zituzten⁶⁷³. Asteburu hartan, futbol talde asko espainiar banderarekin atera ziren zelaira eta ereserki monarkikoa entzun zen partiduak hasi aurretik. Bigarren B mailako Erandio taldeari isuna jarri zioten Palentzian, etxeko taldearekin eta banderarekin ez formatzeagatik. Eta José María Ziluaga, Recreativo de Huelva-ko futbolaria, zigortu egin zuten, gobernadore zibilak interpretatu baitzuen ez zuela errespetuz jardun ereserkia entzun bitartean⁶⁷⁴.

Alderdi nagusien eta komunikabideen ahotan frankismoko nostalgikoen aurka egin beharreko demokraziaren defentsa zen. Baina Herri Batasunarentzat, haustura demokratikoaren aurkako frankisten defentsa zen eta erreforma frankistari kontra egiten zion oro zigortzen zuten. Urte hartako Herri Batasunaren Aberri Eguna legez kanpo utzi zuten, baita Telesforo Monzon martxoan hil ostean antolatu zituzten ekitaldiak ere. Halaber, maiatzaren 8ko goizaldean, berrogeita hamabi Herri Batasuneko ordezkari publiko eta hautetsi atxilotuak izan ziren.

Independentistek Hego Euskal Herriaz zuten irudia 1975-1977 arteko mobilizazio antifrankista zabalena zen eta horregatik, espainiar nazionalismoa hain esplizituki adierazi ostean, pentsatzen zuten independentistek herritarren artean gero eta sostengu zabalagoa lortuko zutela. 23-F igaro eta aste gutxira erronka jo zioten gobernuari: "desafiamos a que convoquen nuevas elecciones para ver quién es el que queda descalificado"⁶⁷⁵. Beranduago, 1981eko udan berriro errepikatu zuten ideia. Izan ere, EAJko Julio Jauregi senataria hil zen eta gobernuak ez zituen bera ordezkatzeko hauteskundeak deitu, nahiz eta orduko legediak hala eskatzen zuen. Independentistek

⁶⁷³ Núñez Seixas, «La(s) lengua(s) de la nación...»; «Ley 39/1981, de 28 de octubre, por la que se regula el uso de la bandera de España y el de otras banderas y enseñas», *Boletín Oficial del Estado* 271, 1981eko azaroaren 12a.

⁶⁷⁴ Egin, «Sanción gubernativa contra los jugadores del Erandio», *Egin*, 1981eko abenduaren 10a; Antonio Álamo, «Expediente al Erandio en Palencia», *El País*, 1981eko abenduaren 10a; El País, «Zuloaga, multado por no respetar el himno nacional», *El País*, 1981eko abenduaren 9a.

⁶⁷⁵ Egin, «HB: "sentimos profunda vergüenza ajena por las que se llaman fuerzas democráticas de Navarra», *Egin*, 1981eko martxoaren 25a.

adierazi zutenez, "temen una nueva confrontación electoral que confirmaría la ampliación del apoyo popular a Herri Batasuna"⁶⁷⁶.

Esan bezala, independentistek EAJren jarrera kontserbadore argia eta PSOEn espainiar nazionalismo esplizitua abantaila bezala irudikatu zituzten. Baina gainontzeko alderdiek Herri Batasunaren irudi biolentoa, arriskutsua eta iraganekoa indartu zuten, espainiar militar matxinatuena bezain arriskutsua omen zena. Independentistentzat egoerak gainezka egin zuen PSOEk behin betiko jarrera aldatu zuenean Nafarroan. Izan ere, Nafarroaren euskalduntasunari edo euskalduntasun ezari buruzko eztabaida bandera nazionalen kontuarekin uztartu zen.

1979ko apirilean hirurogei kideko Nafarroako Parlamentua eta zazpi pertsonak ostatutako Foru Aldundia aukeratu ziren, biak hautespen zuzen bidez. Herri Batasunak eta independentisten sostengua zuten hautagaitzek hamabost parlamentari eskuratu zituzten eta bi foru diputatu. Une hartan, PSOErekin akordio bat sinatzeko zorian egon ziren. Sozialistek Nafarroako Parlamentuko presidentearen eta Altsasuko alkatearen postuak exijitu omen zituzten, Patxi Zabaleta Herri Batasuneko kidea Iruñeko alkate izendatzearen truke. Baina azkenean ez zen akordiorik gauzatu. Herri Batasunak Julián Balduz sozialista ezarri zuen Iruñeko alkatetzan baina PSOEk UCDeekin akordioa egin zuen Nafarroako Parlamentuan.

1979an, oraindik Nafarroan aparteko eskuale autonomiko bat sortzea ekidin zezaketelakoan, Herri Batasuneko kideek Nafarroako Parlamentuan parte hartzea erabaki zuten, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ez bezala. Bai espainiar Konstituzioak eta bai euskal estatutuak Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegora batu zedin erreferenduma egiteko aukera jasotzen zuten eta aukera horren alde aritu zen batez ere Euskadiko Ezkerra. Halere, erreferenduma gauzatzeko proposamena *sine die* atzeratu zen 1979ko abenduaren 17an, proposamena tramitatzea ekidin baitzen Nafarroako Parlamentuan, PSOEn abstentzioari esker⁶⁷⁷.

UCDko kideek aurreko urteetan garatutako argudiaketa indartu zen eta Nafarroa ez zen Euskal Autonomia Erkidegora batu. 1980an Nafarroako Parlamentuak *Bases de Reintegración Foral y Amejoramiento* onartu zituen. Nafarroak frankismo garaitik zuen

⁶⁷⁶ Egin, «HB exige la inmediata convocatoria de elecciones para cubrir una vacante en el Senado», *Egin*, 1981eko abuztuaren 9a.

⁶⁷⁷ Egin, «Rechazada la moción sobre integración de Navarra», *Egin*, 1979ko abenduaren 18a.

statusa monarkia konstituzionalera egokitzeko oinarri juridikoak ziren. PNVren parlamentari nafarrek ez zuen proposamen hura bozkatu eta Herri Batasunekoek adierazi zuten 'reintegración' delakoa gertatzekotan, aukera bakarra 1512ko konkistaren aurreko egoerara itzultzea zela, hau da, Nafarroako erresuma independentera⁶⁷⁸.

1981eko bukaeran, Herri Batasunak Nafarroako Parlamentuan izan zuen parte hartzea porrot garratzarekin amaitu zen. Urriaren 26an *Norma sobre Bandera y Escudo de Navarra* onartu zen. UPN, PSOE eta UCD alderdiek nafarroan Nafarroako bandera eta espainiarra ofizial bihurtzen zituen proposamenaren alde bozkatu zuten. Ez zen ikurriñari buruz ezer ere esaten, nahiz eta 1977tik Nafarroako udaletxe askotan eskegita zegoen⁶⁷⁹. UCDko eta UPNko zinegotziek ahalik eta udal gehienetan mozioak aurkeztu zituzten ikurriña erretira zedin, lege berriaren arabera ez baitzen ofizialki Nafarroako bandera. PSOEren sostenguarekin lortu zuten hori, PNVko zinegotzien haserre artean eta Herri Batasunekoek protesta gogorrekin⁶⁸⁰.

1981. urtea bukatu zenean, Herri Batasunak adierazi zuen jada ez zuela gehiago Nafarroako Parlamentuan parte hartuko. Argudiatu zuten demonstratu zutela ezinezkoa zela parlamentuetan parte hartuz frankismoarekiko apurketa gauzatzea⁶⁸¹. Halere, erabakiak berak erakusten zuen 1979ko apirilean Hego Euskal Herriko bigarren indar politiko bozkatuena bihurtu ostean, Herri Batasunak ez zuela lortu bere proiektu politikoa martxan jartzea. Behin betiko alboratu zuen tokiko ordezkariak adostutako estatutuaren ideia eta ez zen gai izan Nafarroan beste autonomia baten sorrera ekiditeko.

Egoera hura epe laburreko Herri Batasunaren porrota zela, ANVko buruzagiek eman zuten aditzera: "la vía estatutaria como proyecto nacional de Euskadi ha fracasado tanto para el PNV como para nosotros"⁶⁸². Herri Batasuneko buruzagitzako kide ziren ANVko bozeramaileen ustean, Nafarroako Parlamentua utzi izanak esanahi argia zuen: "una derrota clara"⁶⁸³.

⁶⁷⁸ Baraibar Etxeberria, *Extraño federalismo...*, 241-62.

⁶⁷⁹ Ibid.

⁶⁸⁰ Fermín Goñi, «UCD y UPN intentan limitar la exhibición de la "ikurriña" en Pamplona», *El País*, 1981eko azaroaren 25a; Egin, «El PSOE quitará la ikurriña de los ayuntamientos navarros», *Egin*, 1981eko abenduaren 1a; Egin, «El Ayuntamiento de Pamplona acordó ayer la retirada de la ikurriña», *Egin*, 1981eko abenduaren 11.

⁶⁸¹ Egin, «Herri Batasuna abandona las instituciones forales de Navarra», *Egin*, 1981eko abenduaren 30a.

⁶⁸² Comité Nacional de EAE-ANV, «Línea política de EAE-ANV: sobre participación en instituciones», *Egin*, 1982ko urtarrilaren 24a.

⁶⁸³ Ibid.

Hurrengo atalean azalduko dugun bezala, epe laburrean mahaigaineratu zituen proiektuen porrotari erradikalizazio ideologikoarekin erantzun zion Herri Batasunak. 1981etik aurrera espainiar iritzi publikoan mezu espainiar nazionalista nagusitu bazen, aldi berean Herri Batasunak euskal nazionalismoa azpimarratu zuen bere mezuan. Gure interpretazioaren arabera, erabaki hura muga bihurtuko zen, hain zuzen ere, independentistek espero zuten hauteskunde garaipenerako.

1977ko gauza bera?

1982an zehar, iritzi publikoaren aurrean gogotsu eta pozarren agertu zen Herri Batasuna, ziur baitzegoen espainiar parlamenturako hauteskundeetan emaitzak ederrak lortu zituela. Behin eta berriro errepikatzen zuen ideietako bat bere jarrera politikoak aldatu ez zituela zen, PNVk, PSOEk eta Euskadiko Ezkerrak ez bezala. Iñaki Ruiz de Pinedo zuzendaritzako kideak adierazten zuenez, "vamos a vencer porque seguimos diciendo lo mismo que hace muchos años" eta aurreikusten zuen "un aumento en los voto que va a asustar a más de uno"⁶⁸⁴. Miguel Castells senatariak honakoa azpimarratzen zuen: "Herri Batasuna siempre dice lo mismo y no cambia" eta Bizkaitik kongresurako hautagai zen *Periko* Solabarriak ideia berbera nabarmentzen zuen: "es una fuerza honrada, sincera. Lo que dijo el 77 lo repite ahora"⁶⁸⁵.

Herri Batasunak egoera politikoari buruzko irakurketa bereziki positiboa egiten zuen, 1979-1980 urteetan lortutako sostengu esanguratsuan oinarritua. 1980ko martxoko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzei buruz egin zuen irakurketa ere halakoa izan zen: "un rotundo triunfo"⁶⁸⁶. Agian gehiegizkoa dirudi baieztapen horrek baina nolabaiteko zentzua hartzen du, Herri Batasunaren indarra espainiar prozesu konstituziogilearen garaian ikuspegi iraultzaile bat mantendu zuten gainontzeko alderdiekin konparatuz gero. Herri Batasunarengan ez bezala, ezker iraultzailearen baitan 'desencanto' delako sentazioa orokortua zen⁶⁸⁷. Euskadiko Ezkerrak joera eurokomunista hartua zuen. Espainiako ezker iraultzaileko bi alderdi nagusiek, PTEk eta ORTk, 1979ko uztailean Partido de los Trabajadores (PTE-ORT) sortu zuten baina handik gutxira bata zein bestea desagertu ziren. Herri Batasuna sortu zuten lau

⁶⁸⁴ Egin, «HB llenó el polideportivo de Zaramaga en la presentación de sus candidatos por Alava», *Egin*, 1982ko urriaren 8a; Egin, «HB: "Nos presentamos para garantizar el camino de la ruptura democrática y la liberación del pueblo vasco"», *Egin*, 1982ko irailaren 15a.

⁶⁸⁵ Luis Castells, «Razones contra la sinrazón (breve recuerdo)», *Egin*, 1982ko urriaren 26a; Egin, «Periko Solabarria: "A nosotros nos van a oír en Euskadi"», *Egin*, 1982ko irailaren 26a.

⁶⁸⁶ Egin, «HB acordó la vuelta a las instituciones», *Egin*, 1980ko martxoaren 19a.

⁶⁸⁷ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 92-103.

alderdietako bik ere, ESB eta LAIA, koalizioa uzti zuten beren kideen interpretazio optimista ez baitzuten ulertzen.

ESBk abstentzioa eskatu zuen 1980ko hauteskunde autonomikoetan eta handik denbora laburrera desagertu zen, nahiz eta alderdiko ohiko bozeramaileak, Iñaki Aldekoak, Herri Batasuneko zuzendaritzan jarraitu zuen. LAIAk bai abstentzioa eta bai hautagaitza iraultzaileen aldeko boza ontzat eman zituen hauteskunde autonomikoetan. LAIAko militanteek Herri Batasuneko zerrenden arabera Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan zegozkien postuak hartu zituzten (hiru ete bi batzarkide, hurrenez hurren), nahiz eta Herri Batasuneko zuzendaritzak LAIAko eta ESBko zinegotzi guztiei dimisioa aurkeztea eskatu zien⁶⁸⁸. LAIAk bere ekinbidea mantendu zuen udaletxeetan eta Batzar Nagusietan parte hartuz eta mugimendu sozial berriekin, bai eta Herri Batasunarekin ere, kaleko mobilizazioetan. 1983an LAIAko kide asko LKI alderdiarekin eta Nueva Izquierdarekin —Euskadiko Ezkerreko sektore kritikoa— elkartu ziren Auzolan alderdia sortzeko.

Herri Batasunari dagokionez, kontrakoa defendatzen zuten arren independentistak ere egoera berrira moldatzen joan ziren. 1979ko bukaeran ANVren proposamena onartu zuten Mahai Nazionala zeritzona sortzeko eta koalizioaren zuzendaritza antolatzeko. Mahai Nazionalan alderdi bakoitzeko lau ordezkari zeuden eta horiei herrialde bakoitzeko batzarrek aukeratutako pertsonak batzen zitzaizkien⁶⁸⁹. ESBk eta LAIAk Herri Batasuna utzi ostean, Mahai Nazionalaren aukeraketarako modua eta osaketa aldatzen joan ziren eta zuzendaritzan gero eta pisu handiagoa hartu zuten bai herrialdeetako batzarretan aukeratutako pertsonak, bai Mahai Nazionalak berak zuzenean aukeratutakoek⁶⁹⁰.

Herri Batasunaren zuzendaritzaren berregituraketa hartan, 1978ko Laguntza Batzordeko kide gehienek politikaren lehen lerroa utzi zuten. Izan ere, Herri Batasunerako Laguntza Batzordea bakea lortzearen aldeko salbuespeneko plataforma bezala aurkeztu zen eta behin ikusita gobernuak ez zuela azkar batean KAS Alternatiba onartuko, hasierako

⁶⁸⁸ Egin, «LAIA anuncia su abandono de la coordinadora KAS», *Egin*, 1980eko otsailaren 13a; Egin, «LAIA ocupará cargos en diputaciones y Juntas Generales», *Egin*, 1980ko martxoaren 8a; Mesa Nacional de Herri Batasuna, «Aberri Eguna Borroka Eguna!! Denok Iruinara!!», *Egin*, 1980ko apirilaren 1a.

⁶⁸⁹ Herri Batasuna, «Organigrama estructural de Herri Batasuna» (HB 01, 02 / 001, 07 karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1979).

⁶⁹⁰ Herri Batasuna, «Herri Batasuna Objetivos y estructuración» (HB 01, 02 / 001, 07 karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1980); Herri Batasuna, «Historia de un proceso» (HB 01, 02 / 001, 07 karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1980); Herri Batasuna, «Reestructuración» (HB 01, 02 / 001, 07 karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1981).

zentzu hura galtzen joan zen⁶⁹¹. Bestalde, Herri Batasunak 1979ko udaberrian mahaigaineratu zuen kontrabotere proiektuaren porrota ere esplizituki onartu zuen. Hala ere, azpimarratu egiten zuen erabakirik onena izan zela udaletxeetan bakarrik parte hartzea, horrela lortu baitzuten geldiaraztea "la infiltración reformista"⁶⁹².

Hirugarren kapituluan azaldu dugun bezala, 1979ko bukaerako euskal estatutuaren erreferendumaren garaian, Herri Batasunak bere burua frankismoaren aurkako azken erresistentzia bezala aurkeztu zuen. Erresistentzia espazio hura sendotzeko, 1980ko bukaeran "asko gara, bildu egin behar" kanpaina abiatu zuen KASek. Koordinadora Abertzale Sozialista 1975eko abuztuan sortu zen, bigarren kapituluan azaldu bezala, Francoren bizitzaren azken asteetan oposizio independentista egituratzeko asmoarekin. Urtebete geroago KAS Alternatiba aurkeztu zuten: frankismoarekin haustura demokratikoa gauzatzen zela ziurtatzeko gobernuak onartu beharreko programa minimoa. Une batez KASen baitako aldaketei erreparatuko diegu, Herri Batasuna zer zen ulertzeko garrantzi gero eta handiagoa hartu baitzuen KAS koordinadorak.

1977ko abuztuaren 30ean, lehenetsi beharreko aliantzen inguruko eztabaida etengabeen ondoren, KASetik kanporatu zuten Bloke Politiko-Militarra. Ordutik aurrera, EIA alderdiak eta ETA (politiko-militarrak) indarrak Euskadiko Ezkerran jarri zituzten. KAS koordinadoran geratu ziren ETA (militarra), HASI eta LAIA alderdiak eta Abertzale Sozialista Komiteak (ASK) zeritzenak. ASK 1976ko abenduan sortu zen eta bertan biltzen ziren alderdietako kide izan gabe tokiko sare asoziatiboan (auzo elkarteak, kultur elkarteak, ikastolak...) edo mugimendu sozial berrietan (antinuklearra, feminismoa, gay askapena...) parte hartzen zuten aktibista independentistak⁶⁹³. ASK erakundeak funtzionamendu asanblearioa lehenesten zuen eta KAS eta Herri Batasuna alderdi politikoek kontrolpean egotea gaitzesten zuen. Horregatik, ASKra hurbiltdu ziren ezker iraultzailekoak izandako pertsona asko, abangoardiazko alderdien porrotak desengainatuta⁶⁹⁴.

Koordinadorara batu ziren baita KAS Emakumeak ere, 1978ko hasieran sortu zena, eta Jarrai (KAS) gazte erakundea, 1979ko maiatzean antolatu zena. Erakunde ezberdinen sare honen azalpena bukatzeko, jakin behar dugu LAIA alderdiak KAS utzi zuela

⁶⁹¹ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*, II. bol., 385-86.

⁶⁹² Egin, «Con el lema "Asko gara, bildu egin behar" se desarrolla la campaña de KAS», *Egin*, 1980ko azaroaren 22a.

⁶⁹³ Iñaki Egaña, *Diccionario histórico-político de Euskal-Herria* (Tafalla: Txalaparta, 1996), 76.

⁶⁹⁴ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 103.

1979ko abenduan, Herri Batasunatik publikoki aldendu baino zenbait aste lehenago. Bestetik, LAB sindikatuak KASen parte hartzen zuen 1976ko abuztutik baina koordinadora utzi zuen 1978ko urtarrilean, Bloke Politiko-Militarrarekin lerratu zenean. Hainbat hilabetez, praktikan bi LAB sindikatu egon ziren, bata Euskadiko Ezkerrari lotua eta bestea KASi. Azkenean, 1980ko apirilean bi kongresu ospatu ziren aldi berean. Euskadiko Ezkerrari hurbilekoak zirenek erakundea desagerrarazi eta sindikatu nagusietan izena ematea erabaki zuten. Bien bitartean, beste sektoreak LAB berriro KAS koordinadorako kide bihurtzea erabaki zuen.

Laburbilduz, 1980ko martxotik aurrera Herri Batasuna sostengatzen zuten bakarrak KAS koordinadorako parte hartzaileak eta ANV alderdi txikia ziren. KASeko kideek teorizatu zuten, KASen bertan mota guztiako erakunde iraultzaileak batuta (alderdi politikoa, erakunde feminista, gazte erakundea, sindikatuak eta oinarri asanblearioak) KAS etorkizuneko kontraboterearen oinarria izango zen eta iraultzara bidea ETA (militarra)-k, abangoardia armatuak, gidatuko zuen.

Idea hura HASIren baitan ernatu zen 1977an, Gramsciren eragin handia zuen mezu batekin. HASIren arabera, KAS etorkizunean hegemonia lortuko zuen bloke politikoa zen⁶⁹⁵. Izan ere, HASIren ikuspuntuaren arabera KAS koordinadoraren ideologiak —independentzia eta sozialismoa— "recoge mejor que ninguna otra los intereses populares y obreros" eta horrexegatik, "KAS reúne en sí todos los elementos objetivos para ser la vanguardia de la revolución vasca"⁶⁹⁶.

Antolaketa eredu hark imitatu egiten zuen Frente Sandinista de Liberación Nacional (FSLN) arrakastatsua. Gerra luze baten ondoren boterera iritsi ziren Nikaraguako sandinistak Herri Batasunarentzako nazioarteko erreferentziarik esanguratsuen bihurtu baitziren 1979tik. 1980 eta 1983 artean, KASeko barne dokumentuetan Movimiento de Liberación Nacional Vasco esamoldea gero eta ohikoago bihurtu zen beren burua izendatzeko. Eta horrek, aldi berean, ETA (militarra)-ren abangoardia eta lidergo izaera sendotzea esan nahi zuen. Are gehiago, ETA (militarra) izan zen lehen erakundea KASen baitan Movimiento de Liberación Nacional esapidea erabiltzen, 1980ko bukaeran, nahiz eta orduan ez zen argi adierazten zeri egiten zion erreferentzia⁶⁹⁷.

⁶⁹⁵ HASI, *Barnekoa* 4 (1977): 9-10.

⁶⁹⁶ HASI, «Valoración de la situación creada», *Barnekoa* 7 (1977).

⁶⁹⁷ ETA (militarra), «Introducción-Entrevista», *Zutabe* 22 (1980): 1.

Askpapeen nazionalerako mugimenduaren eskema hark Gramsciren eragin ideologikoa mantentzen zuen, hain garrantzitsua izan zena Herri Batasuna sortzeko orduan. KAS "Bloque Revolucionario" bezala definituta geratu zen eta HASI alderdi politikoa "intelectual colectivo y orgánico de la clase obrera" izango zen⁶⁹⁸. Hau da, Herri Batasunaren sorreran Gramsciren ideologiak HASIren bitartez izan zuen garrantzia mantentzen zen. Baina antolaketa modua erabat ezberdina zen. Ez zuen zer ikusirik hasiera bateko alderdi independentisten hauteskunde koalizioarekin, ezta Herri Batasunaren ospe onaren oinarrian egon zen Laguntza Batzordearen bultzadaren garaiarekin ere. Antolaketa eredu berrian, Herri Batasuna "bajo el control de la lucha de masas" geratu zen, hau da, KASen agindupean. Eta bere egitekoak nazioarteko harremanetara eta prentsaren aurrean bozeramaile lana egitera mugatu ziren⁶⁹⁹. 1979ko hasieran sortutako tokiko Laguntza Batzordeak ere desagertu egin ziren eta auzo eta herri bakoitzean Herri Batasuneko Batzarrak sortu ziren. Bertan parte hartzera dei eginen zieten "a todos los militantes y simpatizantes" eta Komite Koordinatzaile batek antolatzen zituen, normalean HASIko kideek osatua zena⁷⁰⁰.

Nikaraguaz gain, gutxika Ipar Irlandak ere pisua hartu zuen Herri Batasunaren kultura politikoaren nazioarteko ikuspegian. Eta bereziki garrantzitsua da erreferentzia hura, gatazka biolento larriak gertatzen ziren Europako mendebaldeko testuingurua baitzen. 1981eko maiatzaren 7an, Herri Batasuneko ordezkari bat Belfastera joan zen Bobby Sandse hiletara⁷⁰¹. Irlandako errepublikanoek, Herri Batasunak bezalaxe, beren ikuspegi politikoa egokitu zuten 1980ko hamarkadaren hasieran. Alde batera utzi zuten epe laburrean garaipen militarra eta britainiar autoritateen kanporatzea lortzeko aukera. Baina, aldi berean, erretorika sozialista indartu zuten eta konturatu ziren talde armatu independentista eta iraultzaileak herritarren artean sostengu esanguratsua zuela. Horrela, 1981ean "armalite and ballot paper" (errifleak eta boto paperak) izenez ezaguna egin zen politika abiatu zuen Sinn Féin alderdiak. Bere burua IRAren borroka armatua sostengatzen zuen mugimendu herritar independentista eta ezkertiar baten bozeramaile

⁶⁹⁸ KAS, «ASK: necesidad de una dirección política en la lucha de masas» (KAS, 5, 1 karpeta: Lazkaoko Beditarren Artxiboa, 1980).

⁶⁹⁹ Egin, «Con el lema "Asko gara, bildu egin behar" se desarrolla la campaña de KAS», *Egin*, 1980ko azaroaren 22a.

⁷⁰⁰ Letamendia Belzunze, *Historia del nacionalismo...*, II. bol., 424-25.

⁷⁰¹ Egin, «La madre de Bobby Sands: "Transmitid un saludo a los presos y refugiados vascos"», *Egin*, 1981eko maiatzaren 13a.

bezala irudikatzen zuen alderdiak, Herri Batasunak bere burua KASen bozeramaile bezala aldarrikatu zuen bezala⁷⁰².

Herri Batasunak eta KASek 1981an hildako gose grebalari errepublikanoen omenezko hil-mezuak argitaratu zituzten *Eginen*. Eta urte hartako abuztuaren bukaeran, Ipar Irlandan giroa bereziki gogorra zenean —hamar gose grebalari hilik zeuden eta ohikoak ziren liskarrak kaleetan—, Bobby Sandsen anaiak Hego Euskal Herrira bidaiatu zuen. Séan Sands gobidatu nagusia izan zen Lemoizko zentrala eraistea eskatzen zuten mobilizazioetan. Bilbon hartu zuen hitza Sandsek, manifestazio handi baten ostean eta IRAREN eta ETA (militarra)-ren aldeko oihu artean. Nuklearren aurkako mugimendua eta errepublikanismoa lotu zituen eta biolentzia politikan erabiltzea zilegi zela argudiatu zuen⁷⁰³.

Hirugarren kapituluan aipatu dugu Herri Batasunaren eta mugimendu sozial berrien arteko harremana eta erlazio hura ez zen salbuespena ezkerreko indar politikoen artean. Ezker iraultzaileko alderdiek, behin ikusita abangoardiako alderdiak gidatutako iraultza proletarioak ez zuela gertatu behar, beren esperantza mugimendu sozial berriengan jarri zuten. ORT-PTE batasun proiektuak huts egin ondoren, PTEko militante talde batek teorizatu zuen abangardia iraultzaile berria ezker iraultzaileko militantziaren eta mugimendu sozial berrietako aktibista erradikalizatuen arteko elkarlanak sortuko zuela. PTEko kide ohien arabera, elkarlan hartan programa politiko komuna sortzeko aukera egongo litzateke eta ondo antolatuz gero, UCDren alternatiba bezala aurkez zitekeen, PSOE eta PCE gaindituz. ORTko kide ohien ikuspuntuan ere, aukera bakarra borroka anitzak elkartzea zen eta antzeko ikuspuntua zuten LCR eta MC alderdietako militanteek ere, zeintzuek hasiera-hasieratik mugimendu sozial berrietan parte hartu baitzuten⁷⁰⁴.

Hain zuzen ere azken bi alderdi horietako euskal adarrek, LKI eta EMK, erabaki zuten 1982ko hauteskundeetan Herri Batasunaren hautagaitzen aldeko boza eskatzea. EMKk

⁷⁰² M.L.R. Smith, *Fighting for Ireland? The Military Strategy of the Irish Republican Movement* (New York: Routledge, 1995), 147-65; Brian Hanley y Scott Millar, *The Lost Revolution. The Story of the Official IRA and the Worker's Party*, 2009 (London: Penguin, 2010), 380; John A. Hannigan, «Armalite and the Ballot Box: Dilemmas of Strategy and Ideology in the Provisional IRA», *Social Problems* 33, 1 zbk. (1985): 31-40; F. Stuart Ross, «Between Party and Movement: Sinn Féin and the Popular Movement against Criminalisation, 1976-1982», *Irish Political Studies* 21, 3 zbk. (2008): 337-54; Eoin Ó Broin, *Sinn Féin and the Politics of Left Republicanism* (London: Pluto Press, 2009), 235-42; Henry Patterson, *The politics of illusion: a political history of the IRA* (London: Serif, 1997), 186-91.

⁷⁰³ Egin, «Multitudinaria manifestación contra Lemóniz, en Bilbao», *Egin*, 1981eko abuztuaren 30a.

⁷⁰⁴ Wilhelmi, *Romper el consenso...*, 267-75.

argudiatzen zuenez, Herri Batasuna zen "la opción que mejor puede aglutinar y unir a los votos de todos los sectores populares descontentos con la política de la derecha" eta azpimarratzen zuen independentistekin elkartzen zituena lan munduan eta mugimendu sozial berrietan egiten zuten eguneroko lana zela⁷⁰⁵. LKIk adierazten zuen ezkerreko hautagaitza guztien artean Herri Batasuna zela "la única que pone en primer lugar la movilización y la lucha"⁷⁰⁶.

KASek, bien bitartean, helburu bezala jartzen zuen "apoyar y potenciar" lan munduko mobilizazio erradikalak, ekologismoa eta feminismoa eta, horien baitan, "hacer prevalecer una dirección política rupturista y revolucionaria"⁷⁰⁷. KASek argudiatzen zuenez, modu horretan borroka molde ezberdinak uztartzen joango ziren eta azkenean lortuko zen martxan jartzea "[un] contrapoder popular (...) al margen del ordenamiento democrático burgués"⁷⁰⁸. KASen logikaren arabera, hau da, ETAREN kontakizun nazionalaren arabera, mugimendu sozial berriak protagonista bihurtuko ziren independentziara eta sozialismora bidean, ETA (militarra) abangoardia armatuak gidatuta.

Zentzu horretan, Lemoizko zentral nuklearraren auzia bere posizioak egokiak zirela argudiatzeko erabiltzen zuen Herri Batasunak. Zentral nuklearraren eraikuntzaren aurkako mugimenduan hiru agente nagusi egon ziren. Batetik, 1976an hainbat auzo elkarteren elkarlanaren bitartez eta zenbait legelariren laguntzarekin sortutako Comisión de Defensa de una Costa Vasca No Nuclear. Hego Euskal Herrian eraikitzeak ziren zentral nuklearren aurkako lehen protestak deitu zituzten eta hasiera-hasieratik autoritate publikoak interpelatu zituen. Lemoizko eraikuntza prozesuan gertatu ziren lege haustek zerrendatu zituen eta obren jarraipenaren inguruko erreferenduma exijitu zuen.

Bestetik, Komite Antinuklearrak zeuden. 1977an antolatutako mugimendu asanblearioa zen eta hasiera bateko 'Lemoiz gelditu!' lema alboratuta, 'Lemoiz apurtu!' hedatu zuten, zentralaren eraikuntzak aurrera egin zuen heinean. Lema hura bereziki arrakastatsua izan zen eta Gasteizen ematen ari ziren kontzertu batean, Mamá pop talde

⁷⁰⁵ Egin, «EMK llama a sus militantes a dar el voto a Herri Batasuna», *Egin*, 1982ko irailaren 12a.

⁷⁰⁶ Egin, «También LKI solicitará el voto para HB», *Egin*, 1982ko irailaren 14a.

⁷⁰⁷ KAS, «Necesidad de una dirección política en la lucha de masas» (KAS, 1, 11 karpeta: Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, 1980).

⁷⁰⁸ Ibid.

madrildarreko kide batek ere oihukatu zuen mikrotik⁷⁰⁹. Komite Antinuklearrak izan ziren Séan Sands gonbidatu zutenak 1981eko abuztuan antolatu zituzten jardunaldi antinuklearretara. Gainera, jardunaldi haietan kontzertu handiak antolatu zituzten, garaiko talde ezberdinen parte-hartzearekin: Leño madrildarrak, La Bullonera aragoarrak, Gente del Pueblo andaluziarrak eta Zarama eta Niko Etxart euskal rockeroak⁷¹⁰.

Zentral nuklearra eraikitzearen aurkako mugimenduarena izan zen Trantsizio garaian gertatu zen manifestaziorik handiena, 1977ko uztailaren 14an, orduko prentsan jasotzen denez⁷¹¹. Baina une hartatik aurrera, PSOEek eta PNVk, alderdi bozkatuenek, ez zuten gehiago parte hartu Lemoizen aurkako mobilizazioetan, izan horiek Comisión de Defensak antolatuak edota Komite Antinuklearrak. Hori bai, PSOEko eta PNVko parlamentariak abstentziora jo zuten, Madrileko gorteetan Lemoizko zentralaren eraikuntzari sostengua eman zitzaionean.

Lemoizen aurkako mugimenduaren hirugarren protagonista ETA (militarra) izan zen. 1977ko bukaeratik zentralaren obren aurkako eta Iberduero enpresaren kontrako eraso etengabeak burutu zituen. Kalte material handiak eragin zituen eta zentralako obretako hiru langile hil ziren erasoetan. Baita ETA (militarra)-ko bi kide ere.

1981eko urrian EAJk ofizialki zentral nuklearren aldeko jarrera hartu zuen eta abenduan Eusko Legebiltzarrak Madrileko parlamentuari galdegin zion gaiaren inguruan erreferenduma eska zieziola gobernuari. Espainiar gobernuak erabat baztertu zuen erreferendumerako aukera⁷¹². Urteetako protesta bakezalearen ondoren eta behin eta berriro Lemoizko zentral nuklearra martxan jartzearen aurkako txosten teknikoak aurkeztu eta gero, Comisión de Defensa de una Costa Vasca No Nuclear gatazkatik erretiratu zen. Salatzen zuenez, "el contencioso de Lemóniz se hunde cada vez más en el abismo de la irracionalidad"⁷¹³.

⁷⁰⁹ Martintxo, «“Mamá”, “Alaska y los pegamoides” y “Nacha Pop” congregaron a un buen número de “nuevaoleros” en Mendizorroza», *Egin*, 1981eko irailaren 16a.

⁷¹⁰ Equipo Muskaria, «Festival de las nacionalidades bajo la luna», *Egin*, 1981eko abuztuaren 29a; Roge, «Las doce horas de rock, un éxito de calidad musical», *Egin*, 1981eko abuztuaren 30a.


⁷¹¹ Javier Angulo, «Unas 200.000 personas se manifiestan en Bilbao contra una costa vasca nuclear», *El País*, 1977eko uztailaren 15a.

⁷¹² Egin, «El Parlamento Vasco lleva a las Cortes Generales el debate sobre la central nuclear de Lemóniz», *Egin*, 1981eko abenduaren 23a; Tonia Etxarri, «El Gobierno vasco recibe sin sorpresa la negativa estatal al referéndum», *El País*, 1982ko urtarrilaren 17a.

⁷¹³ Comisión de Defensa de una Costa Vasca No Nuclear, «La trágica ironía de Lemóniz», *Egin*, 1982ko otsailaren 4a.

1982ko maiatzaren 5ean gobernu autonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoan energia nuklearra kudeatzeko sozietate publikoa aurkeztu zuen. Egun berean, ETA (militarra)-k Ángel Pascual hil zuen, zentral nuklearren obretako zuzendari bezala Ryan ordezkatu zuena. Obretako teknikariek adierazi zuten ETA (militarra)-ren mehatxuarekin ez zirela lanera itzuliko eta egun batzuk lehenago zirudienaz guztiz bestela, 1982ko maiatzaren 12an Iberdruerok Lemoizko obrak bertan behera geratzeko zirela adierazi zuen.

5.1 irudia. Herri Batasunaren kartela espainiar parlamenturako hauteskunde kanpainan (1982)



Iturria: Lazkaoko Beneritarren Fundazioa

Herri Batasunak argudiatzen zuenez, gertaera haiek guztiek eta batez ere azken erabakiek frogatu egiten zuten gobernu autonomikoaren eskumen eza, ezin izan baitzuen inolako erreferendumik antolatu Espainiako gobernuaren baimenik gabe. Herri Batasunak beste faktore bat ere azpimarratzen zuen: nahiz eta urte luzetan mobilizazio baketsu eta jendetsuak ospatu ziren zentral nuklearren eraikuntzaren kontra, proiektua bertan behera geratzeko arrazoia ETA (militarra)-ren esku hartzea izan zen. Independentisten ikuspegian, horrek erakusten zuen espainiar gobernu oraindik faxista zela eta ezgai zela herritarren eskaerei modu demokratikoan erantzuteko, ez bazen biolentziaren erabilerak behartuta. Horregatik, beraien ikuspuntuak Lemoizko obraren

geldiarazteak adierazten zuen independentistak, iraultzaileak eta mugimendu sozial berriak garaipenera bidean zihoazela, ETA (militarra)-ren lidergoarekin. 1982ko hauteskunde kanpaina, Lemoizko obrak bertan behera geratu izana izan zen Herri Batasunak gehien erabili zuen argudioetako bat bere posizio politikoen egokitasuna frogatzeko⁷¹⁴.

Azken alor bati ere erreferentzia egin behar diogu, euskararen erabileraren aldeko mugimendua Herri Batasunari gero eta lotuago agertu baitzen. Azaldu dugunez, euskara euskal nazionaren nukleoan zegoen elementua zen Herri Batasunak erreproduzitzen zuen ETAREN kontakizun nazionalan. Gainera, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako sare asoziatiboari lotuta hedatu ziren ikastolak eta gau eskolak euskal subjektu kontrahegemonikoaren oinarritzko elementuetako bat ziren Herri Batasunaren ikuspegian⁷¹⁵. Testuinguru horretan koka daitezke baita Udako Euskal Unibertsitatearen sorrera 1973an eta Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK) martxan jarri izana 1976an⁷¹⁶.

Euskalgintza Francoren aurkako oposizioari eta Hego Euskal Herri antifrankista, euskaldun eta ezkertiarren irudiarri lotua agertu zen 1970eko hamarkadan zehar. Oraindik orain dinamika bateratuak izan ziren 1978ko Bai Euskarari kanpaina, Euskadiko futbol selekzioak 1979an eta 1980an jokatu zituen hiru partidak —norgehiagoketan jasotako dirua euskalgintzarentzat izan zen—, ikastolen urteroko festen sorrera —Kilometroak Gipuzkoan (1977), Ibilaldia Bizkaian (1978), Araba Euskaraz (1981) eta Nafarroa Oinez (1981)— eta Korrikaren antolaketa 1980ko bukaeran.

Hala ere, gobernu autonomikoa sortu zenean, euskalgintza gatazka eremu bihurtu zen erakunde berriak onartzen zituztenen eta Herri Batasunaren artean. Independentistak saiatu ziren gobernuak euskaltegiak eta ikastolak finantza zitzaizkien beraien

⁷¹⁴ Egin, «Los puntos de KAS, base de la campaña electoral de HB», *Egin*, 1982ko urriaren 6a; Egin, «La prohibición gubernativa a la manifestación de Bilbao, “una burla contra todo el pueblo vasco”», *Egin*, 1982ko maiatzaren 19a.

⁷¹⁵ Euskaltzaindia eta Ikastolen Elkarteak, *Ikastola mugimendua. Dabilen Herria. Ikastola eredia 1960-2010* (Bilbao: Euskaltzaindia, 2010); Aintzane Rincón y Arantza Anzizar, *Ametsak egi bihurtuz. San Nikolas ikastolako lehen andereñoak (1966-1969)* (Getxo: Getxoko Udala, 2014); Iñaki Zabaleta, Joxe Garmendia eta Hilario Murua Cartón, «Movimiento popular y escuela en el franquismo: las ikastolas en Guipúzcoa», *Historia de la Educación* 34 (2015): 305-36.

⁷¹⁶ Prudencio García Isasti, «Udako Euskal Unibertsitatea-Universidad Vasca de Verano (UEU)», *Revista de Estudios Políticos* 84 (1994): 305-16; Mertxe Mugika, «Helduen euskalduntze alfabetatzearen historia gaur egungo argazkia eta etorkizuna», *Bat: Soziolinguistika aldizkaria* 62 (2007): 39-47.

funtzionamendua aldatu gabe. Ikastolak eta euskaltegiak etorkizuneko sistema publikoaren oinarri izatea nahi zuten. Finantzaziorako zenbait akordio gauzatu ziren baina aldi berean, eztabaida handiak gertatu ziren eta bukatu egin zen ordura arte euskalgintzak izan zuen izaera bateratua.

1979ko azaroan, Herri Batasunaren hurbileko Euskal Herrian Euskaraz elkarte sortu zen, Txillardegik sustatua⁷¹⁷. 1982ko maiatzean bigarren aldiz Korrika antolatu zenean, EAJk ez parte hartzea erabaki zuen eta hasiera batean, Nafarroako gobernadore zibilak ez zuen lurraldea zeharkatzeko baimenik eman⁷¹⁸.

Aldi berean, Herri Batasunak euskalgintza beste mugimendu sozial berri baten gisa ikusi zuen eta saiatu zen berori sistemaren aurkako logikan eta Herri Batasunari lotuta mantentzen. Euskalgintzari lotutako pertsonak Herri Batasunaren oinarri sozialaren parte bezala ikusten zituzten independentistek. Itziar Aizpurua buruzagiari eginiko elkarrizketa batetik hartutako hurrengo pasartean, ideia hori ageri da eta Herri Batasunak erakundeetan parte hartzeari eta mugimendu sozial berriei buruz zuen jarrera ere jasotzen da:

nola biltzen den jendetza hain zabala [Herri Batasunean]? Gaur langabezian daudenak soluziorik bilatzeko, euskararen alde daudenak berdin, antinuklearrak, presoan askapena, marginazioarekin apurtzea, askatasun demokratikoak, noski independentzia eta sozialismoa, guzti hau oraingo erreforma sistema honetan lortu ezin delako. Guzti honen atzetik dabilzanak instituzioetan ez dadukate zereginik, eta hausketa bat behar dute desarroilatu ahal izateko, eta hausketa horretarako alternatiba, KASek eskaintzen du⁷¹⁹.

Laburbilduz, 1979 eta 1982 artean Herri Batasunak molde antisistema eta erakundeen aurkako jarrera erradikala hartu zituen. Erabateko lehentasuna eman zion mugimendu sozial berrietan parte hartzeari, KAS indartzeari eta ETA (militarra) sostengatzeari, epe ertainean kontrabotere iraultzailea martxan jartzeko helburuarekin. Gainera, sandinismoa eta irlandar errepublikanismoa hartu zituen nazioarteko erreferente bezala eta horrek gatazka armatu larrien iruditegi bat zekarren berarekin. Aldi berean, uste zuen ez zituela bere lehenagoko jarrerak aldatu eta horixe egin izana egozten zien EAJri, Euskadiko Ezkerrari eta PSOeri.

⁷¹⁷ Egin, «“Euskal Herrian Euskaraz” elkarte berria», *Egin*, 1979ko azaroaren 6a.

⁷¹⁸ Punto y Hora, «PNV o el partidismo entorpecedor del Euskaraz», *Punto y Hora de Euskalherria*, 1982ko maiatza; Egin, «AEK de Navarra realizará diversas gestiones para intentar la autorización de la Korrika», *Egin*, 1982ko maiatzaren 20a.

⁷¹⁹ Egin, «Herri Batasuna proiektu izatetik errealitate izatera iritxi da», *Egin*, 1982ko abuztuaren 15ean.

Halere, bai testuinguru politikoa, bai Herri Batasuna ezberdinak ziren, koalizioaren lehen hilabeteekin konparatuz gero. 1978an Herri Batasunak uste zuen udaletako ordezkarien asanblea batek autodeterminazio eskubidea jasotzen zuen autonomia estatutu ezkertiar bat eratuko zuela eta gobernuak estatutu hura onartu beharko zukeela ETA (militarra)-ren eraso kanpaina bortiz baina labur baten ostean. 1977an ETA (militarra)-ko buruzagiak zirenak ere, Txibertako elkarrizketetan parte hartu zutenak, jada ez zeuden: José Miguel Beñaran *Argala* eraila, José Manuel Pagoaga *Peixoto* larri zaurituta hainbat hilketa saiakeraren ostean eta Dolores Gonzalez *Yoyes* politikatik erretiratuta erbestean.

1982ko hauteskunde orokorrak

1982an Herri Batasunak bere burua 1936ko Fronte Popularraren eta euskal gobernu autonomoaren oinordeko bezala irudikatzen zuen, bai EAJren bai espainiar ezker antifrankistaren oinordeko bakar bezala. Bere erretorikak eta estrategiak, ezker iraultzaileko alderdien oso antzekoa, gerra galdu zutenen zilegitasuna aldarrikatzen zuen eta espainiar pertsona ezagunen babesa eskuratu zuen, esaterako, Alfonso Sastre, José Bergamín, Pepa Flores *Marisol*, Antonio Gades, Lola Grimau eta Gonzalo Santonja. Alderdi independentista galego eta katalanek eta Andaluziako Sindicato de Obreros del Campok (SOC) ere Herri Batasunaren aldeko boza eskatu zuten 1982an. Hego Euskal Herrian ere babesa anitza zen: pertsona homosexualen zenbait kolektibotatik hasita, aipatu LKI eta EMKra eta Euzkotarrak deitzen zen EAJren zatiketa independentzia zale batera⁷²⁰.

HASIko zuzendaritzako kide eta Bilboko zinegotzi zen Santi Brouardek baieztatzen zuenez, "cada vez somos más fuertes" eta *Egineko* zutabegileak konbentzituta ageri ziren: "Herri Batasunak irabaziko du"⁷²¹. Hauteskunderen aurretik egindako azken bileran, Mahai Nazionalak zetorren "auge y asenso electoral" delakoa eskaini zien asko ez zela hildako Telesforo Monzoni eta Miguel Amilibiari. Hurrenez hurren Errepublika

⁷²⁰ Egin, «Personas populares de las artes, el deporte y la cultura mostraron en Oiartzun su apoyo a HB», *Egin*, 1982ko urriaren 13a; Egin, «Reafirmación política de HB en Gernika», *Egin*, 1982ko urriaren 26a; Herri Batasuna, «Lista de apoyo a Herri Batasuna», *El Correo español*, 1982ko urriaren 17a; Egin, «Representantes de nacionalidades del Estado en el mitin de HB», *Egin*, 1982ko urriaren 12a; EHGAMkide batzu, «HBren aldeko EHGAMkide batzu», *Egin*, 1982ko urriaren 24a; Colectivo de Mujeres y hombres homosexuales de izquierda de Gipuzkoa, «Euskadi es una nación», *Egin*, 1982ko urriaren 13a.

⁷²¹ Egin, «Brouard: "HB dirige todas sus acciones hacia la ruptura democrática», *Egin*, 1982ko urriaren 12a; Koldo Santisteban, «Herri Batasunak irabaziko du», *Egin*, 1982ko urriaren 19a.

garaian EAJko eta PSOEko diputatu izandakoak ziren eta beren zahartzaroan Herri Batasuneko buruzagitzan parte hartu zuten⁷²².

5.2 irudia. Diputatuen kongresurako hauteskunderen emaitzak Hego Euskal Herrian (1982)

PSOE	460.806 (31,0%)
PNV	395.656 (26,6%)
UCD-AP-UPN	246.648 (16,6%)
Herri Batasuna	210.601 (14,1%)
EE-IPS	100.326 (6,8%)

Iturria: Barne Ministerioko sareko datuekin lan honetarako egina

1982ko hauteskundeetako Herri Batasunaren emaitzei erreparatzen badiegu, konturatuko gara nahiz eta parte hartzeak gora egin zuen 1979ko hauteskunde orokorrekin konparatuta, independentisten sostenguaren ehunekoak ez zuela behera egin. Halere, emaitza haiek ez ziren esperotakoak.


5.3 irudian ikus daitekeenez, sostengurik handiena zuen eremu geografikoa lehengo berbera zen: euskal hiztunen eskualdeen erdigunea. 1979an 149 udalerritan izan bazen lehen edo bigarren indarra, 1982ko kasuan 148 udalerritan lortu zuen hura eta aldaketa txiki batzuk egon arren, ez zegoen bateko eta besteko udalerrien artean ezberdintasun handirik. Hau da, jendearen gehiengoa euskal nazionalismoari lotuta zegoen eskualdeetan ez zuen lortu EAJ gainditzea.

Hirigune industrialetako emaitzak ere ez ziren izan independentistek esperotakoak. PSOEk babes zabala lortu zuen, Espainiako gainontzeko eskualdeetan jasotakoaren antzekoa. Izan ere, bai parte-hartzearen igoera, bai PSOEren bozen gorakada oso antzekoak izan ziren Hego Euskal Herrian eta Espainian oro har. Nahiz eta independentistek 1979ko hauteskunde orokorretan baino boz gehiago lortu, PSOE izan zen garaile Herri Batasuneko edo independentistek sostengatutako alkateak zituzten udalerrietan, esaterako, Laudion, Agurainen, Errenterian, Pasaian, Arrigorriagan, Altsasun, Atarrabian eta Tafallan⁷²³. Jarraian, Herri Batasunak Hego Euskal Herriko hiriburuetakoko espazio ezberdinetan 1979ko eta 1982 hauteskunde orokorretan lortu zituen emaitzak konparatuko ditugu.

⁷²² Egin, «HB considera su “actual gran auge” fruto de la “honestidad y combatividad”», *Egin*, 1982ko urriaren 26a.

⁷²³ Barne Ministerioaren sareko artxiboko datuak.

5.3 irudia. Diputatuen Kongresurako hauteskondeetan Herri Batasuna lehen edo bigarren hautagaitzarik bozkatuena izan zen udalerrien mapa (1982)



	Lehen indarra
	Bigarren indarra

Iturria: Barne Ministerioaren sareko datuekin lan honetarako egina

5.4 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoak Bilboko hiri espazioetan (1979 eta 1982)

Tokikoen klase altuko auzoak		Tokiko klase ertainaren auzoak	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%8,2	%6,2	%9,1	%7,2
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak		Dentsifikatutako auzo herritarrak	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%11,7	%10,3	%16,8	%14,4
Migranteen presentzia handiko langile auzoak		HBren bozak hirian	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%14,1	%11,7	%12,5	%10,5

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

5.5 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Donostiako hiri espazioetan (1979 eta 1982)

Tokikoen klase altuko auzoak		Tokiko klase ertainaren auzoak	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%9,1	%10,4	%11,6	%14,2
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak		Dentsifikatutako auzo herritarrak	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%15,1	%19,8	%18,7	%19,4
Migranteen presentzia handiko langile auzoak		HBren bozak hirian	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%18,4	%20,8	%15,7	%17,1

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

5.6 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Gasteizko hiri espazioetan (1979 eta 1982)

Tokikoen klase altuko auzoak		Tokiko klase ertainaren auzoak	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%5,6	%5,0	%8,7	%7,4
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak		Dentsifikatutako auzo herritarrak	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%9,4	%9,1	%10,6	%10,5
Migranteen presentzia handiko langile auzoak		HBren bozak hirian	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%9,5	%9,3	%9,53	%8,67

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

5.7 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Iruñeko hiri espazioetan (1979 eta 1982)

Goi eta ertain klaseen barrutia		Klase ertainak eta herritarrak biltzen dituzten barrutiak	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%8,38	%10,44	%11,84	%14,37
Klase herritarren barrutiak		HBren bozak hirian	
1979 orok.	1982 orok.	1979 orok.	1982 orok.
%17,68	%20,16	%12,86	%14,22

Iturria: *Diario de Navarra*ko datuekin lan honetarako egina

Tauletan ikus daitekeenez, Iruñean eta Donostian modu orokortuan igo ziren Herri Batasunaren bozak 1979ko hauteskunde orokorrekin konparatuta. Nafarroako hiriburuari dagokionean, litekeena da Herri Batasunak boz euskal nazionalista kontzentratu izana EAJren eta Euskadiko Ezkerraren kaltetan, 1979ko udal hauteskundeetan gertatu bezala. Donostiako kasuan, kontuan hartu behar dugu euskal

eremuaren erdigunean, hots, independentistek eragin handiena zuten eremu geografikoan dagoen hiriburu bakarra dela.

Bestalde, nabarmentzekoa da bai Iruñeko eta bai Donostiako kasuetan, bozen igoera batez ere tokikoen presentzia handia zegoen klase ertaineko auzoetan gertatu izana. Bien bitartean, Bilbon eta Gasteizen Herri Batasunak jasotako bozen ehunekoak batez ere migrante gehien biltzen zuten auzoetan egin zuen behera. Badirudi kasu honetan tokikoak/migranteak ardatzak 1979ko hauteskundeetan baino eragin handiagoa izan zuela. Arreta Herri Batasunak emaitzarik onenak lortu zituen auzoetan paratzen badugu, 1982ko kasuan lehenago agertzen ez ziren eta tokikoen presentzia esanguratsua zuten auzoak ditugu zerrendan —Donostiako eta Gasteizko Alde Zaharrak eta Bilbon Olabeaga eta Bilbo Zaharra—. Aitzitik, lehen postuetatik desagertu egin ziren migranteen presentzia oso handia zuten auzoak —Zaramaga, Sansomendi, La Peña, San Adrián eta Martutene—.

5.8 irudia. Herri Batasunak emaitzarik onenak lortu zituen auzoak Gasteizen, Bilbon eta Donostian (1979 eta 1982)

		1979 (orokorrak)	1982 (orokorrak)
Gasteiz	1	Ehari-Sansomendi (%13,4)	Alde Zaharra (%12,7)
	2	El Anglo (%12,2)	El Anglo (%11,6)
	3	Zaramaga (%11,3)	Errekaleor (%11,1)
Bilbo	1	San Adrián (%22,5)	Olabeaga (%18,0)
	2	La Peña (%19,3)	Bilbao la Vieja-Las Cortes (%16,4)
	3	Altamira (%17,8)	Altamira (%16,4)
Donostia	1	Añorga (%25,1)	Añorga (%26,1)
	2	Intxaurrondo (%21,0)	Intxaurrondo (%23,1)
	3	Martutene (%20,2)	Alde Zaharra (%21,2)

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egin

Behin honaino iritsita, kapitulu honetan mahaigaineratu dugun galdera nagusiari erantzuna topatu behar diogu. Zergatik ez ziren Herri Batasunaren aurreikuspenak bete 1982an? Kapituluan zehar garatu dugun azalpena kontuan hartuta, erantzunik egokiena honakoa dela uste dugu: Herri Batasunak 23-F osteko giro espainiar nazionalistan frankismoarekin apurtzeko berme bezala independentismoa indartu zuela uste zuen

bitartean, independentisten inguruan iritzi publikoaren zati handiak zuen irudiak kontrako ondorioa ekarri zuen.

Gainera, testuinguru hartan Herri Batasunaren diskurtsoa askoz konplexuagoa zen, hiru urte lehenagoko hauteskunde orokorretan proposatzen zuen "estatuto tras las municipales" delakoarekin konpartuz gero. Are konplexuagoa 1979ko udal hauteskundeetako "alkaterik onena... herria!" kanpaina eta ezkerreko hautagaitza herritar arrakastatsuak kontuan hartuz gero. 1982an Herri Batasunaren interpelazioa onartzeak ETA (militarra)-ren hilketa kanpaina luzeari sostengua esan nahi zuen, baita mugimendu sozial berrietan aktiboki parte hartzea, ezarritako sare instituzional berriaren aurrez aurre ezartzea eta, azkenik, Ipar Irlandakoa eta Nikaraguakoa bezalako eszenatoki biolentoa irudikatzea ere.

5.9 irudia. ETA (militarra)-ren pankarta Herri Batasunaren mitin batean Barakaldon, espainiar parlamenturako hauteskunde kanpainan (1982)



Iturria: *Egin*

Bere boto emaileei konpromiso aktiboa eskaintzen zien Herri Batasunak, "dar un voto a la lucha, a la resistencia, a la militancia" eta ohartarazi ere egiten zuen: "os ofrecemos la posibilidad de que os repriman, sí, pero también el orgullo de construir la victoria final"⁷²⁴. Agian hura guztia bereziki konplexua eta gogorra zen 1970eko hamarkadako etengabeko mobilizazioaren ostean nekatuta zeuden sektore ezkertiarrentzat. Are

⁷²⁴ Egin, «Periko Solabarria: "A nosotros nos van a oír en Euskadi"», *Egin*, 1982ko irailaren 26a; Egin, «Participación masiva en el mitin de HB en Bilbao», *Egin*, 1982ko urriaren 16a.

gehiago 23-Fko kolpe emozionalak eraginda eta eskuin kontserbadoreagoa espainiar gobernura iristeko beldurrez baziren. PSOEek irudi modernoa, despolitizatu eta europarra zuen eta boza bakarrik eskatzen zuen, besterik ez, gizarteko sektore ezkertiar zabalentzat zaharkitua eta zapaltzailea zen UCDren gobernu atzean uzteko. 1982an, espainiar iritzi publikoari lotutako Hego Euskal Herrian, PSOE Herri Batasuna baino askoz ere aukera erakargarriagoa zen. Horregatik Espainian oro har gertatu bezala, PSOEek emaitza bikainak lortu zituen Hego Euskal Herrian ere.

Ezberdintasuna zen Herri Batasunak uste izan zuela Hego Euskal Herriko iritzi publikoak espainiar nazioarekiko atxikimendua behin betiko galdua zuela eta, horregatik, pentsatzen PSOEek irudikatutako etorkizuneko Espainia modernoaren eragina oso txikia izango zela. Emantzat jo zuen ezkerreko antifrankismoarekin identifikatu zen gehiengoaren babesa. Bestetik, euskal identifikazio nazionala erabat nagusi zela pentsatu zuen eta horrenbestez garaipenerako lehia "en el campo nacionalista" gertatuko zela⁷²⁵.

1982an zehar independentistek PSOE existituko ez balitz bezala jokatu zuten eta beren mezua EAJk eta Euskadiko Ezkerrak Suarezekina adostutako estatutua onartu izanean zentratu zuten. Haiek ziotenez, Herri Batasunak ordezkatzten zituen "los intereses de la gran base abertzale de este País" eta bere helburu nagusia "clara conciencia abertzale" zutenen boza eskuratzea izan zen, izan ere, "HB es la única fuerza que defiende los derechos nacionales"⁷²⁶. Ezkerretik independentistekin identifikatu ziren sektoreengana zuzendu beharrean, batez ere euskal nazioarekin identifikatutakoei dei egin zien. Bereziki zuzendu zitzairen "[a los] trabajadores de la base social y electoral del PNV, [que] ni se consideran, ni quieren considerarse de derechas" izan ere, uste zuten sektore horientzat ezinezkoa zela agertzea "en contra de los objetivos y de la lucha de HB"⁷²⁷.

Paradoxa handiena zen Herri Batasunak eskatzen zuela botoa "[a los] revolucionarios, vascos y socialistas" eta baita euskal nazioari, "pero no la Euskadi de los patronos". Eta aldi berean, lehenago EAJri babesa eman zioten sektore kontserbadoreei dei egiten


⁷²⁵ Egin, «HB: "Nos presentamos para garantizar el camino de la ruptura democrática y la liberación del pueblo vasco"», *Egin*, 1982ko irailaren 15a.






⁷²⁶ Aldekoa, «¿Es Rosón abertzale?», *Egin*, 1982ko apirilaren 11; Egin, «HB: "Nos presentamos para garantizar el camino de la ruptura democrática y la liberación del pueblo vasco"», *Egin*, 1982ko irailaren 15a.

⁷²⁷ Egin, «La Mesa Nacional de HB emplaza al EBB del PNV», *Egin*, 1982ko otsailaren 7a.

ziela⁷²⁸. Ez zuen kontuan hartzen 1977az geroztik EAJ Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako indar politiko bozkatuena bazen, hori eskuineko mezua indartu izanaren ondorio zela. Gainera, NATOn sartzearen eta energia nuklearraren alde agertzean, EAJk eskualdeko alderdi kontserbadorea bezala zuen erreferentzialtasuna indartu besterik ez zuen egin⁷²⁹.

5.10 irudia. Gasteizen, Bilbon eta Donostian guztira hautagaitza bakoitzak lortutako bozak, hiri espazioen arabera antolatuta, diputatuen kongresurako hauteskundeetan (1982)



	Tokiko klase altuko auzoak
	Tokiko klase ertainaren auzoak
	Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak
	Dentsifikatutako auzo herritarrak (tokikoen eta migranteen nahasketa handia)
	Migranteen presentzia handiko langile auzoak

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

⁷²⁸ Egin, «El velódromo registró el mayor lleno de su historia», *Egin*, 1982ko urriaren 26a.

⁷²⁹ Luis Núñez, *Euskadi Sur electoral* (San Sebastián: Ediciones Vascas, 1980), 42-58.

5.10 irudian ikus daitekeenez, AP-UCD koalizioak hiriburuetan zituen bozak tokiko gehiengoa zuten klase ertain eta altuko auzoetan kontzentratu ziren eta galdu egin zuten UCDe migrante auzo berrietan zuen babesa. Aldi berean, EAJk gorakada nabarmena izan zuen migranteen presentzia handiko langile auzoetan lortutako bozen ehunekoan.

Herri Batasunari dagokionean, EE-IPSk zuenaren boto emaile perfil antzekoa izan zuen 1982an. EE-IPS alderdi bateratuak lehenago Euskadiko Ezkerrak migranteen artean zuen sostengua handitu zuen baina PCEk lehenago lortu zuen sostengu mailatik urrun geratu zen espazio horietan. Herri Batasunekoek uste izan zutenaren kontrara, ez zuten beren boto emaileak langile auzoetan kontzentratzea lortu eta PSOE izan zen boto emaileengan perfil lagileena eta migranteena izan zuen alderdia.

Ondorioak

PSOEek asmatu egin zuen gizartearen aurrean bere burua Espainiak azkenean frankismoa atzean utzi eta Europako herrialde modernoan eredia jarraitzeko berme bezala aurkezteko orduan. Baina Herri Batasunak Espainiarekiko estereotipo orientalizatuari atxikita jarraitu zuen, hain zuzen ere frankismoak hedatu zuen hartara. Independentistek uste zutenenez, 1979-1980 arteko hauteskundeen emaitzek erakutsi zuten Hego Euskal Herrian ez zuela eraginik izango PSOEek irudikatutako etorkizuneko Espainia modernoak.

Herri Batasuna autonomia estatutuaren aurka agertzeak ahalbidetu egin zuen bere aurkako estereotipo bikoitza eraikitzea. Herri Batasuna euskal nazionalismorik kontserbadoreenaren eta frankismoaren biolentziaren oinordeko bezala irudikatua izan zen, hots, espainiar modernizazioaren eta europartzearen B aldea bezala. Irudi horrek indar handiagoa hartu zuen Euskadiko Ezkerra PCEren euskal adararekin batu zenean, EAJren ezkerrean alderdi nazionalista indartsua egituratzeko asmoz.

23-F ostean, monarkia konstituzionalaren defentsarako diskurtso nazionalista espainiarra hedatu zen. Testuinguru hartan Herri Batasunaren isolamendua handitu zen eta independentisten inguruan klaxe antikomunistekin eraikitako irudi minoritario eta biolentoa sendotu zen. Herri Batasunak uste zuenez, 1977tik ez ziren testuinguru politikoa ez eta bere jarrerak aldatu. Baina erradikalizazio ideologiko bat gertatu zen independentisten baitan eta Herri Batasunak mezu nazionalista indartu zuen, bere aurreikuspenentzako eragin kaltegarria izan zuena. Etorkizuna baitezpada iraultzailea

eta sozialista izango zela sinetsita, barne egituraketa moldatu zuten, Herri Batasuna KASen azpian ezarriz. ETA (militarra)-ren abangoardia izaera finkatu zen eta sandinismoarekiko eta irlandar errepublikanismoarekiko lotura sinbolikoak indartu zituzten.

Nahiz eta Herri Batasunak bete betean parte hartzen zuen mugimendu sozial berrietan eta ezker iraultzailearen sostengua lortu zuen, gainontzeko sektore politikoek hori guztia 'Herri Batasuna guztien aurka' bezala identifikatu zuten eta izaera minoritarioa eta naizionalista gogorra egotzi zizkieten. Horrela, euskal identifikazio nazionala orokortua zegoen eskualde gehienetan EAJk jarraitu zuen alderdirik bozkatuena izaten eta PSOEk emaitza bikainak lortu zituen hirigune industrialetan, hain zuzen ere Herri Batasunak bere boto emaileak izugarri gehituko zirela uste zuen espazioetan.

6. Zikloaren bukaera. Herri Batasunaren gainbehera eta kalearen lehentasuna

PSOE gobernura iritsi zenean Espainiako historiako epe berria hasi zen. Halere, zaila da haustura bat ezartzea Trantsizioaren eta 1980ko hamarkadaren gainontzeko urteen artean, nolabaiteko jarraikortasuna adierazten duten zenbait elementu sozioekonomiko eta politiko zeudelako: eredu industrialaren krisia eta langabezia tasa altuak, gazteen delinkuentziari lotutako alarma soziala, eszena musikal underground arrakastatsua, drogomenpekotasunaren hazkundera eta Espainia NATOko kide bihurtzearen inguruko eztabaida.

Gainontzeko kapituluetan azaldu dugun bezala, Herri Batasuna espainiar prozesu konstituziogile bete-betean egituratu zen eta gainontzeko agente politikoek eta sozialek egin zuten bezala, Francoren heriotzaren ondoren sortu zen sistema politiko berria baldintzatzen saiatu zen. Independentisten hasierako proiektuak, autodeterminazio eskubidea jasoko zukeen ezkerreko euskal estatutuak, porrot egin zuen. Baina kultura politiko iraultzaile eta euskal nazionalista gisa finkatu zen, jarrera antisistema hartu zuena eta hauteskunderetan sostengu esanguratsua lortu zuena.

Kapitulu honetan argudiatuko dugu 1983. urteak Herri Batasunarentzako goraldi eta beheraldi ziklo baten bukaera markatu zuela eta sinbolo nagusia 1979an lortutako udal boterea galdu izana izan zela. Hein handi batean, gainbehera koalizioak hartutako erabakien ondorio izan zen, 1981etik euskal herriaren eta espainiar gobernuaren arteko gerraren ideia azpimarratu baitzuen, bere irudi nazionalista nabarmenduz. Zentzu horretan, gure ikerketan baieztatu egin dugu Herri Batasunaren sorreran eta finkapenean faktore nazionalista funtsezkoa izan zela. Baina baita ezin dela faktore hori absolutizatu ere.

Kapitulu honetan aztertuko dugu Herri Batasunak gerraren erretorika nola mantendu zuen PSOEn gobernuaren lehen hilabeteetan zehar eta zeintzuk izan ziren horren ondorioak. Aldi berean, banderek zilegitasun politikoaren eta subiranotasunaren sinbolo bezala duten garrantziaz arituko gara, Moreno Luzónek eta Núñez Seixasek egindako

lanak erreferentziatzen hartuta⁷³⁰. Horrela, 1983ko udan banderen gerra bezala ezagutu zena aztertuko dugu.

Bigarrenik, azalduko dugu zeintzuk izan ziren Herri Batasunaren kultura politikoa egunerokotasunean iltzatu zuten elementuak eta nola horiek Herri Batasuna kultura politikoa bezala Trantsizioaz haratago erreproduzitzea ahalbidetu zuten. Gure ekarpenak José Manuel Matak eginiko ikerketarekin du lotura. Autore horrek 1982-1988 arteko Herri Batasuna aztertu zuen eta azpimarratu zuen zer nolako garrantzia zuen kultura politikoa hartan ezarritako Estatuarekiko hartutako jarrerak. Bere lanean azaltzen du Herri Batasunaren ezaugarri nagusiak honakoak izan zirela: Estatuak eskainitako definizio nazionala eta politikoa onartzen ez zuen kolektiboa ordezkatzeko zuten eta "mecanismos de interacción" eta "depósito simbólico propio" zehatzak garatu zituen, kultura politikoa erreproduzitzea ahalbidetzen zutenak eta, gainera, Estatuarekiko harreman gatazkatsua ezartzen zutenak⁷³¹. Tesiaren sarreran esan bezala, Izaskun Sáez de la Fuenteren eta Jesús Casqueteren lanek Herri Batasunaren kultura politikoa erritu-elementuak eta sinboloak aztertu dituzte⁷³². Kapitulu honetan, elementu horiez gain, egunerokotasunak eta independentistek testuinguru sozialarekin eta kulturalarekin eraiki zituzten loturek izan zuten garrantzia azpimarratuko dugu.

Hain zuzen ere, testuinguruarekiko harreman dinamiko horretan identifikatuko ditugu Herri Batasunaren goraldi berri bat ahalbidetu zuten elementuak, 1987an iritsi baitzen inoizko hauteskunde sostengurik zabalena izatera. Horregatik deritzogu garrantzitsua dela Herri Batasunaren mezuan egon ziren aldaketak aztertzea eta testuinguru aldakor batera egokitzeko izan zuten gaitasunari erreparatzea.

Kapitulu honen hirugarren eta laugarren ataletan, Trantsiziotik zetozen baina 1980ko hamarkada markatu zuten zenbait dinamikaren aurrean Herri Batasunak hartutako jarrera aztertuko dugu: industriaren krisia, rock-punk eszena eta NATOren aurkako mugimendua. Ion Andoni del Amoren, Ander Delgadoren eta Ekaitz Etxezarretaren eta David Mota Zurdoren lanek Herri Batasunaren eta Hego Euskal Herriko punk eszenaren

⁷³⁰ Javier Moreno Luzón eta Xosé Manuel Núñez Seixas, «Los símbolos nacionales en la España constitucional (1978-2017): un consenso precario», hemen: *La España constitucional (1978-2018). Trayectorias y perspectivas*, ed. Benigno Pendás (Madrid: Centro de Estudios Políticos y Sociales, 2018), 381-94; Archilés Cardona eta Quiroga Fernández de Soto, *Ondear la nación...*

⁷³¹ Mata López, *El nacionalismo radical vasco...*, 44.

⁷³² Sáez de la Fuente Aldama, *El movimiento de liberación nacional...*; Casquete Badallo, *En el nombre de Euskal Herria...*

arteko harremana aztertu dute berriki⁷³³. Kapitulu honetan autore horien interpretazioak ñabartuko ditugu eta harreman horretan kronologiak eta garaiko eztabaidek izan zuten garrantzia azpimarratuko dugu.

Defendatuko dugun ideia nagusia honakoa da kapitulu honetan: sozialisten gobernuaren lehen hilabeteetan Herri Batasunaren goraldi eta gainbehera fasearen bukaera gertatu zen baina, une horretarako, Herri Batasunaren kultura politikoa egunerokotasunean erreproduzitzen zuten elementuak finkatuta zeuden. Aldi berean, Herri Batasunak jarrera zehaztu zuen 1980ko hamarkadan iritzi publikoa markatu zuten arazoenguruz eta, horrela, bere sostenguaren hazkunderako oinarriak sendotu zituen. Modu horretan, honako galderentzako erantzuna bilatuko dugu: zein elementuk zuten jarraikortasuna 1983ko Herri Batasunaren mezuan? Zeintzuk ziren mezu horren mugak? Nola artikulatu zen Herri Batasunaren presentzia egunerokotasunean? Zein jarrera hartu zuen 1980ko hamarkadako arazoenguruz?

Higaduraren zantzuak

PSOE gobernura iritsi eta gero, Herri Batasunak bere burua antifrankismoaren ordezkari bezala eta alderdi handien amore ematearen eta traizioen aurreran gotorleku bezala irudikatzen jarraitu zuen. Gainontzeko indar iraultzaileekin konparatuta zuen indarrak 1983ko otsailean ETA (politiko-militarra)-ren zati bat Herri Batasunarekin lerratzea ere eragin zuen. ETA (politiko-militarra) VIII. Biltzarra pro-KAS izenarekin ezagutu ziren eta *miliki* izengoitia eman zitzaizkien. Bere aldetik, ETA (militarra)-k eraso eta hilketekin jarraitu zuen, ordukoan PSOEren gobernua behartzeko KAS Alternatiba onartzera.

Baina aurreko kapituluetan aztertutako hauteskunde emaitzei lotuta, baziren lehenagotik ere independentisten higaduraren zantzuak. Herri Batasunetik eta Euskadiko Ezkerratik alde egindakoak LKI alderdiarekin elkartu ziren eta 1983ko Nafarroako parlamentu autonomikorako Auzolan hautagaitza sortu zuten —1984ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara ere aurkeztu ziren—. Lehenago Euskadiko Ezkerra-Izquierda para el Socialismo alderdiarekin egin bezala, Herri Batasunak konbentzimendu iraultzaileekin mespretxatu zituen Auzolanaren hautagaitzak. "Comparsa variopinta" bezala

⁷³³ Ion Andoni del Amo, *Party & Borroka. Jóvenes, músicas y conflictos en Euskal Herria* (Tafalla: Txalaparta, 2016); Delgado eta Etxezarreta, «De los cantautores...»; David Mota Zurdo, «Hoy es el futuro: un acercamiento en perspectiva histórica de carácter crítico-comparativo a la música underground en el País Vasco», *Bilduma: Revista del Servicio de Archivo del Ayuntamiento de Errenteria* 29 (2018): 5-309.

ezaugarritu zituen eta honakoa egotzi zien: "para hacer política reformista es mucho más efectivo estar en el PSOE"⁷³⁴.

Bidean zenbait norbanako esanguratsuk ere utzi zuten Herri Batasuna eta independentistengan epe laburreko proiektuak gauzatzeko izan zuten ezintasuna eta horrek sortutako nekea islatzen zuen horrek. Badirudi, gainera, norbanakoen erretirada horietan eskuin muturreko sare parapolizialak egindako erasoek eragin handia izan zutela. Desertziorik garrantzitsuena ziurrenik Dolores Gonzalez Yoyesena izan zen, 1977-1978 artean ETA (militarra)-ko buruzagia izandakoa zen eta, bere erretiratzeak zuten garrantziarengandik, ez zen publiko egin. Bere egunerokoan jaso zuenez, zuzendaritzako beste kideen aurkako hilketa eta erasoen ondoren bera hurrengo izateko beldurrak eragin handia izan zuten Yoyesek ETA (militarra) uzteko orduan. Beldur hark, hein handi batean, politikatik aldenduta Mexikora erbesteratzeko 1980ko urtarrilean hartu zuen erabakia azaltzen du⁷³⁵.

Oso atzeko arrazoiengatik 1980ko ostailan *Egineko* zuzendariak, Mirentxu Purroyk (Iruñea, 1943), dimisioa eman zuen eta Venezuelara erbesteratu zen: "mehatxuak ez ziren bakarrik nire kontra, baizik eta nire familiaren aurka (...) Gainera, 38-40 sumario nituen zain. Eta kartzela. Erabaki nuen ezin nintzela gehiago bertan bizi"⁷³⁶. Aste batzuk geroago EAE-ANVko idazkari nagusiak dimititu zuen, Josu Aizpuruak (Bilbo, 1946), eta argudiatu zuen oso nekatuta zegoela antifrankismo garaian bidelagun izandako EAJko kideen erdeinuarekin⁷³⁷. Desertzio horiei 1982ko martxoan Francisco Letamendia *Ortzi* diputatuarena gehitu zitzairen. Frantziara erbesteratzea erabaki zuen, 1978ko Konstituzioaren erreferendumaren kanpainen esandakoengatik kartzelaratu izateko arriskuan baitzegoen⁷³⁸.

Gure ikerketan egindako elkarrizketetan Andoniren (Oñati, 1957) testigantza jaso dugu. 1977tik HASI alderdian lan egiten zuen eta barne antolaketaren arduradunetako bat zen Araban baina militantzia utzi zuen 1980an. Kontatzen duenez, "Batallón Vasco Español, Triple A, ta hoiek. Eta orduan hor ya... gauza... puf! Gauza ya, beldurgarria zan. Hor...

⁷³⁴ José Luis Cereceda, «Juntos pero no revueltos», *Egin*, 1983ko urriaren 23a; Patxi Zabaleta, «Votaremos HB, ¿por qué?», *Egin*, 1983ko maiatzaren 6a.

⁷³⁵ Elixabete Lasa et al., *Yoyes. Desde su ventana* (Iruñea: Garrasi, 1987), 66-67.

⁷³⁶ Iñaki Petxarroman, «Kazetaritzan jadanik ez dago etikarik», *Berría*, 16 de noviembre de 2003.

⁷³⁷ *Egin*, «Josu Aizpuru abandona la política y sus cargos en ANV, el Parlamento y Mesa Nacional de HB», *Egin*, 1980ko uztailearen 30a.

⁷³⁸ *Egin*, «Ortzi, empujado al exilio», *Egin*, 1982ko otsailaren 24a.

ez dakit nola esan. Oso garbi izan behar zenun asuntoa, jarraitzeko"⁷³⁹. Aipatzen du beldurrak geldiarazita zegoela, atentatu baten aukerak ikaratuta:

sentitu nintzen erabat kontrolatua [poliziarengatik]. Eta hor ba hasi nintzen pixka bat ba hori, ez dakit, ba guk deitzen genion manía persecutoria (...) Eta beldurtuta bukatu nuen. Eta hor izan zen, bueno, hori... batipat, nik uste dut horrek eragin zuela, eragin ninduela pixka bat mugimentutik apartatzeko⁷⁴⁰.

Horrenbestez, 1980an euskal autonomia martxan jarri zenetik Herri Batasunan banakabanakako desertzioak areagotu ziren eta fenomeno esanguratsua izan zen hura, koalizioaren finkapenean garantzia handia izan zuten pertsonak zirelako alde egin zutenetako asko. 1980-1983 arteko gainbehera faseari lotuta, ETA (militarra)-k ere 1980n hasitako gerrilla-erako erasoak bertan behera utzi zituen. Latinoamerikako gerrillen eredia jarraitu nahi izan zuen, Hego Yemenen bereziki horretarako entrenatutako taldeekin baina espainiar militarren aurkako erasoak askotan ETA (militar)-eko kideen heriotzarekin bukatu ziren⁷⁴¹.

Herri Batasuna utzi zuten pertsona esanguratsuen testigantzek aipatzen duten bezala, ez zen ETA (militarra) bakarrik izan gobernuarekin gerra irudikatzen zuena. Estatuko botereari loturiko zenbait sektoretatik gerra planteamenduekin erantzun zitzaion ETA (militarra)-ren eta ezker iraultzailearen mehatxuari, gutxienez 1970eko hamarkadatik 1981ra arte. Zentzu horretan, Calvo Sotelo gobernura iritsi ostean eskuin muturraren erasoak ia desagertu zirenean, hura oztopo garrantzitsua izan zen ETA (militarra)-ren eta Herri Batasunaren diskurtso belikoa zilegitzeko, 23-F osteko testuinguruan⁷⁴².

Nahiz eta bazeuden nekearen zantzuak bere militantziaren eta oinarri sozialaren artean, Herri Batasunak euskal herrriaren eta espainiar gobernuaren arteko gerraren mezua azpimarratzen jarraitu zuen, ETArekin kontakizun nazionalari atxikita. "Evidente" iruditzen zitzaion ezinezkoa zela Espainiako monarkia konstituzionala egonkortzea eta, aldiz, "irreversible" zela askapen prozesu bat, honako helburuekin: "la identidad nacional del pueblo vasco y el acceso de la clase trabajadora al poder real"⁷⁴³. PSOEren arrakasta handiaren ostean, independentistek behin eta berriro argudio tautologiko bat

⁷³⁹ Autorearekin elkarrizketa (2017/08/01).

⁷⁴⁰ Autorearekin elkarrizketa (2017/08/01).

⁷⁴¹ Zigor Oleaga, «Ispasterreko atentatuak 40 urte. ETArekin erasoaren erforma vs. haustura arteko gerra garaian», *Argia* 2675 (2020): 22-26; Casanova, *ETA, 1958-2008...*, 266-68, 284-86.

⁷⁴² Xavier Casals, *La Transición española...*, 339-40.

⁷⁴³ Gorra Martínez, «La liberación nacional no se cuestiona», *Egin*, 1983ko otsailaren 15a.

errepikatu zuten: Herri Batasunaren existentzia etorkizuneko Euskal Herri sozialista eta independentearen bermea zen⁷⁴⁴. 1983ko udal hauteskundeak "unas maniobras generales con fuego real" bezala ezaugarritu zituzten eta aldarrikatu zuten orduan emango zela "la batalla definitiva", mitinetako hizlariak gogoz oihukatu zituztelarik Kubako iraultzaileen "patria o muerte" eta sandinisten "¡que se rinda su padre!", publikoak ETA (militarra)-ri gorazarre egiten zion bitartean⁷⁴⁵.

Berrero ere arrakastarik gabe, Herri Batasuna EAJren oinarri soziala bereganatzen saiatu zen 1983ko lehen hilabeteetan. Baina EAJk bere jarrera kontserbadorea sendotu zuen eta gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan indar handia hartu zuen. Alde batetik, PSOEren gobernuaren lehen hilabeteetan Euskal Autonomia Erkidegoaren tresna esanguratsuenak martxan jarri ziren: euskarazko irratia eta telebista, polizia autonomikoa kaleetan zehar eta hiru eredu linguistikoetan oinarritutako hezkuntza sistema. Eusko Jaurlaritza EAJk bakarrik osatzen zuenez, autonomia martxan jartzeari lotutako aldaketa haiek EAJren lorpen bezala irudikatu zituen iritzi publikoak.

Bestalde, 1983an zehar EAJk bere zentralitatea indartu zuen PSOEren eta Herri Batasunaren aurrean. Urte hartako hasieran Carlos Garaikoetxea lehendakariak abiatutako bakerako elkarrizketak faktore esanguratsua izan ziren⁷⁴⁶. Herri Batasunak elkarrizketek publikoak izan behar zutela exijitu zuen eta uko egin zion ETA (militarra)-ri su-etena eskatzeko aukerari. Horren ondorioz, PSOEek independentistei elkarrizketetan parte hartzeko betoa ezarri zien. Horrek guztiak EAJ utzi zuen bakearekin konprometitutako alderdi arduratsua bezala iritzi publikoaren aurrean, jarrera arduragabea erakusten omen zuten Herri Batasunaren eta PSOEren aurrean⁷⁴⁷.

EAJrentzat bigarren bultzada 1983ko udan iritsi zen, LOAPAREN inguruko Auzitegi Konstituzionalaren sententzia argitaratu zenean. Lege hura UCDEk eta PSOEek adostu zuten 23-F ondoren, autonomia erkidegoen ezarpena eta antolaketa kontrolatzeko.

⁷⁴⁴ Aizpurua eta Gorostidi, «Euskadik ez du etsiko», *Egin*, 1983ko apirilaren 26a; Egin, «Herri Batasuna abarrotó una vez más el pabellón Anaitasuna de Pamplona», *Egin*, 1983ko maiatzaren 7a; Egin, «La Mesa Nacional de HB valora de modo positivo la “resistencia a la marea española”», *Egin*, 1983ko maiatzaren 11.

⁷⁴⁵ Egin, «HB protagonizó ayer en Anoeta la mayor concentración hasta ahora de la campaña electoral», *Egin*, 1983ko apirilaren 24a.

⁷⁴⁶ El País, «Garaikoetxea propone a González negociar un plan de paz para Euskadi», *El País*, 1983ko urtarrilaren 14a; Javier Angulo, «Las negociaciones para la paz en el País Vasco, entre la esperanza y el escepticismo», 1983ko urtarrilaren 23a.

⁷⁴⁷ Egin, «Paralizadas las conversaciones para la normalización», *Egin*, 4 de febrero de 1983ko otsailaren 4a; Egin, «Jon Idigoras: el PSOE está multiplicando las torpezas», *Egin*, 1983ko otsailaren 10a; Egin, «El PSE-PSOE rechaza una “mesa por la paz” en la que esté presente HB», *Egin*, 1983ko otsailaren 15a.

Estatuz-azpiko nazionalistek eta ezkerreko gainontzeko alderdiek lege hura militar matxinatuei egindako amore ematea zela salatu zuten. Azkenean, Auzitegi Konstituzionalak LOAPA legeari izaera organikoa kendu zion eta, horrenbestez, jada onartutako autonomia estatutuak aldatzeko gaitasuna kendu zion. Erabaki hark leku txarrean utzi zuen PSOE, legearen sustatzaileetako bat, eta Herri Batasunaren aurreikuspenak ere hoztu zituen, independentistek iradokitzen baitzuten LOAPAren euskal estatutua "papel mojado" bihurtuko zela⁷⁴⁸. Sententziaren ostean, Carlos Garaikoetxea EAJko buruzagiak aldarrikatu zuen lehendakari bezala "más autoridad moral que nunca" zuela⁷⁴⁹.

1983ko haueskundeetako emaitzek hilabete batzuk lehenagoko hauteskunde orokorren bidea jarraitu zuten. Herri Batasuna blokatuta gelditu zen PSOEn gorakadarekin eta Arrigorriagako, Laudioko, Errenteriako eta Pasaiako alkatetza enblematikoak galdu zituen. Hego Euskal Herriko hiriburuetakoko emaitzak aztertuz gero, ez ziren aldaketa esanguratsuak gertatu 1982ko urriko hauteskundeekiko eta baieztatuta geratu zen migranteen presentzia handiko langile auzoei zegokienez independentismoak goia jo zuela 1979-1980an. Ondorioak batez ere Bilboko eta Iruñeko langile auzoetan nabaritu ziren, independentisten sostenguaren ehunekoa ia hamar puntuan jaitsi baitzen. Halere, 6.5 irudian ikus daitekeen bezala, Herri Batasunak emaitza onenak ateratzen zituen auzoen artean zeuden bereziki izaera periferikoa eta migrantea zuten auzoetako batzuk, esaterako Abetxuku, Altamira eta Bidebieta.

6.1 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Bilboko hiri espazioetan (1979 eta 1983)

Tokikoen klase altuko auzoak		Tokiko klase ertainaren auzoak	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%9,5	%5,8	%12,0	%6,9
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak		Dentsifikatutako auzo herritarrak	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%16,3	%10,0	%21,9	%13,7
Migranteen presentzia handiko langile auzoak		HBren bozak hirian	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%20,8	%11,4	%17,5	%10,0

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

⁷⁴⁸ Egin, «Herri Batasuna denunció ayer en rueda de prensa las tácticas pseudoabertzales del PNV», *Egin*, 1983ko ekainaren 16a.

⁷⁴⁹ Tonia Etxarri, «Carlos Garaikoetxea emplaza al PSOE y al Gobierno a agotar las vías del diálogo y la negociación», *El País*, 1983ko abuztuaren 12a.

6.2. irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Donostiako hiri espazioetan (1979 eta 1983)

Tokikoen klase altuko auzoak		Tokiko klase ertainaren auzoak	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%11,5	%9,7	%16,3	%14,3
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak		Dentsifikatutako auzo herritarrak	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%18,7	%14,2	%25,3	%19,6
Migranteen presentzia handiko langile auzoak		HBren bozak hirian	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%24,9	%21,6	%20,8	%17,0

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

6.3 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Gasteizko hiri espazioetan (1979 eta 1983)

Tokikoen klase altuko auzoak		Tokiko klase ertainaren auzoak	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%6,4	%4,5	%8,9	%6,7
Tokiko klase ertain eta herritarren auzoak		Dentsifikatutako auzo herritarrak	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%10,3	%8,3	%11,5	%9,6
Barrios nuevos de mayoría migrante		HBren bozak hirian	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%10,0	%9,3	%10,16	%8,58

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

6.4 irudia. Herri Batasunaren bozen ehunekoa Iruñeko hiri espazioetan (1979 eta 1983)

Goi eta ertain klaseen barrutia		Klase ertainak eta herritarrak biltzen dituzten barrutiak	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%13,69	%8,38	%21,82	%13,39
Klase herritarren barrutiak		HBren bozak hirian	
1979 uda.	1983 uda.	1979 uda.	1983 uda.
%27,87	%19,36	%22,89	%14,22

Iturria: *Diario de Navarra*ko datuekin lan honetarako egina

6.5 irudia. Herri Batasunak emaitzarik onenak lortu zituen auzoak Gasteizen, Bilbon eta Donostian (1979 eta 1983)

		1979 (udalak)	1983 (udalak)
Gasteiz	1	El Anglo (%12,4)	Alde Zaharra (%12,1)
	2	Alde Zaharra (%12,3)	Abetxuku (%11,4)
	3	Aranbizkarra (%11,9)	El Anglo (%11,4)
Bilbo	1	San Adrián (%32,9)	Olabeaga (%18,8)
	2	Altamira (%28,3)	Altamira (%17,4)
	3	Boluetta (%26,6)	San Adrián (%15,3)
Donostia	1	Intxaurrondo (%28,6)	Añorga (%26,5)
	2	Ategorrieta (%28,5)	Intxaurrondo (%24,4)
	3	Egia (%27,7)	Bidebieta (%21,4)

Iturria: Segurtasun Sailaren sareko datuekin lan honetarako egina

PSOEk 1982-1983 arteko hauteskundeetan lortu zuen sostengu zabalak hirigune industrialetan Herri Batasunaren bozen ehunekoia jaitsiarazi zuen eta, zentzu batean, horrek eragin zezakeen Herri Batasunaren irudia landa mundu euskaldunarekin lotzea, hirigune industrialekin beharrean. Izan ere, Hernani eta Agurain salbu, 1983an independentistek lortu zituzten alkatetza guztiak landa eremu euskalduneako udalerriak izan ziren: Amoroto, Arrankudiaga, Etxebarria, Ereño, Murelaga, Mallabia, Ubidea eta Zaratamo Bizkaian; Goizueta, Leitza, Etxarri-Aranaz eta Bakaiku Nafarroan, eta Orexa, Ibarra eta Zaldibia Gipuzkoan. Hala ere, kapitulu honetan jorratuko dugun bezala, Herri Batasunak hiriko kulturari atxikita jarraitu zuen eta, are gehiago, langile klase industrialari lotutako irudia indartu zuen.

Banderen gerra

PSOEren ezkerretara zeuden alderdiek eta Estaturaz-azpiko nazionalistek oposizio antifrankistaren lorpenetan atzerapauso bezala irudikatu zuten LOAPA. Bandera monarkikoaren onarpenak, aldiz, beste zentzu bat izan zuen, ezkerreko alderdi gehienek onartu baitzuten modu konszientean eginiko kontzesio gisa. Horregatik, nahiz eta oraindik bandera hori-gorria batez ere eskuin muturrak erabiltzen zuen, jada Adolfo Suarezren gobernuaren garaian bandera monarkikoa Espainia konstituzionalaren sinboloa zen. Banderaren armarrinari eta erabilera ofizialari buruzko legedia 23-F osteko giro espainiar nazionalistaren garaian onartu zen eta modu esplizituan erlazionatu zen

bandera monarkikoa subiranotasun nazionalarekin⁷⁵⁰. 1983an udal berriak aukeratu eta gero, banderaren auzia bereziki polemikoa gertatu zen Hego Euskal Herrian, jarraian azalduko dugun bezala.

Tesiaren bigarren kapituluan azaldu dugun ideia izan da 1970eko hamarkadan zehar Hego Euskal Herria Espainiatik ezberdintzen zuen irudia hedatu zela. Espainiako alderdi handiek euskal nazioa subjektu subirano izan zitekeenaren ideia prozesu konstituziogleak zehar alboratu zuten. Baina alderdi euskal nazionalista guztiek aurka egin zioten Konstituzioaren azken erredakzioari eta ez zuten parte hartu orduko kontsentsuan. Euskal nazioa Konstituzioa onartu aurretiko subjektu subiranoa zela defendatu zuten, nahiz eta *de facto* Konstituzioa ere ontzat eman zuten, lehenengo EAJk —estatutuaren negoziazioaren bidez— eta ondoren EE-IPSk —1982ko adierazpen esplizitu baten bidez—⁷⁵¹.

Hego Euskal Herrian ikurriñaren erabilera baimendu izana —1977ko urtarrilean— oposizio antifrankistaren lorpen handitzat hartu zen. Ikurriña udaletxeetan ezartzeak nolabait frankismoarekiko apurketa irudikatzen zuen modu berean, gauza bera gertatu zen 1977an zehar bandera frankistak udaletxeetako balkoietatik kendu zituztenean. Trantsizio garaian, espainiar bandera Hego Euskal Herriko udalerrri askotako espazio publikotik desagertu zen. Udaletxe askotan, normalean ez zegoen inolako banderarik eta jai egunetan ikurriña jartzen zen.

PSOE gobernura iristearekin batera, sozialistek bandera konstituzionalaren erabilera sustatu zuten, espainiar nazionalismo kontserbadorearen eta banderaren arteko erlazioarekin apurtzeko modu bezala, eta balore europar eta modernoetara atxikita zegoen Espainiaren sinbolo bezala⁷⁵². Hego Euskal Herriko espazio publikoaren zati handi batean bandera hura ez egotea anomalia esanguratsua zen. Polemikak Tolosan eztanda egin zuen. Udaletxeko balkoian ez zegoen banderarik normalean eta 1983an aukeratutako zinegotziek erabaki zuten herriko jaietan ikurriña eta herriko bandera jartzea. Udaletxe askok hartu zituzten halako erabakiak aurreko urteetan, baina UCDren gobernuen garaian, salbuespenak salbuespen, ez zen oro har istilurik gertatu. Hala ere, 1983an tupust egin zuten PSOEk bandera konstituzionala sustatzeko apustuak eta erabaki hura Herri Batasunak lehen mailako gatazka politiko bihurtzeko izan zuen

⁷⁵⁰ Moreno Luzón y Núñez Seixas, «Los símbolos nacionales...», 3-4.

⁷⁵¹ Juan María Bandrés, «Un juramento innecesario», *El País*, 1982ko martxoaren 3a.

⁷⁵² Moreno Luzón y Núñez Seixas, «Los símbolos nacionales...», 6.

abileziak. Independentistek euskal udalen autonomiaren aurkako eraso bezala aukeztu zuten gatazka, hain zuzen ere udaletxeak baitziren parte hartzen zuten erakunde bakarrak.

Guardia Zibila Tolosako udaletxean agertu zen jaiak hasi eta bi egunera, 1983ko ekainaren 25ean. Beraiekin espainiar bandera zeramaten eta alkateari aipatu zioten Konstituzioaren aurkakoa zela udaletxean ikurriña ondoan espainiar banderarik gabe eskegitzea. Lehen unean EAJko alkateak bandera guztiak erretiratu zituen baina udal plenoak bere erabakia berretsi zuen EAJren, Herri Batasunaren eta EE-IPSren aldeko botoarekin eta berriro ikurriña eta herriko bandera ezarri zituzten. Gauez, Guardia Zibilaren zenbait patruila udaletxera sartu ziren eta espainiar bandera jarri zuten. Udaletxeko areto nagusiko ikurriña zigarroekin egindako zuloz beterik agertu zen hurrengo goizean. Behin jaiak bukatu zirenean, Herri Batasunaren proposamena aurrera atera zen EAJren eta EE-IPSren abstentzioarekin eta Tolosako udalak erabaki zuen bandera konstituzionala Madrileko gobernuari postaz bidaltzea⁷⁵³.

Independentistek Tolosako gertaerak euskal herritarren erabakien aurkako Espainiako gobernuaren inposizioaren frogatzat aurkeztu zituen eta erabaki zuen herriko jaiak iristen zirenean udaletxeetan ikurriña espainiar banderarik gabe jartzeko mozioak aurkeztea udaletxe ezberdinetan⁷⁵⁴. Bestalde, gobernuak erabakia zuen ezin zuela onartu erakunde ofizialetan Estaturaz-azpiko nazionalismoaren sinboloak egotea lurraldea Espainiaren parte zela gogorarazten zuen banderarik gabe. Aditzera eman zuen gobernuaren "autoridad legítima" erabiliko zuela, beste udaletxeren batek Tolosan hartutakoaren antzeko erabakia gauzatzekotan⁷⁵⁵.

Polemika Errenterian haizatu zen berriro. PSOEko alkateak banderen inguruan eztabaidatzeko plenoa deitzea baztertu zuen eta berak erabaki zuen jaietan herriko bandera, ikurriña eta Espainiako bandera jarriko zirela. Txupinazoaren orduan, kaleko jantzita eta makilak eta kateak eskuan zituztela, poliziak agertu ziren udaletxeko plazan. Aurrez-aurre, Herri Batasunaren aldekoak zeuden. Banderak ordu beteko istiluen ostean

⁷⁵³ Egin, «La ikurriña fue colocada de nuevo en el mástil del Ayuntamiento de Tolosa», *Egin*, 1983ko ekainaren 26a; Egin, «Tolosako HBko kontzejalaren komunikatua», *Egin*, 1983ko ekainaren 26a; Egin, «El Ayuntamiento de Tolosa aprobó el envío de la bandera a Interior», *Egin*, 1983ko uztailaren 5a.

⁷⁵⁴ Egin, «Tolosako HBko kontzejalaren komunikatua», *Egin*, 1983ko ekainaren 26a; Egin, «Idirogas: "los concejales de Tolosa expresaron la voluntad mayoritaria del pueblo vasco», *Egin*, 1983ko uztailaren 8a; Egin, «HB denuncia "una oleada ofensiva" contra su formación por parte de medios periodísticos españoles», *Egin*, 1983ko uztailaren 14a.

⁷⁵⁵ La Vanguardia, «Tolosa: el gobierno manda reponer la bandera», *La Vanguardia*, 1983ko uztailaren 7a.

jarri ziren, jada plaza hutsik zegoela eta poliziaren oihu eta txalo artean. Poliziak berak erretiratu zuen espainiar bandera gauez, goizean berriz ere ezartzeko. Hurrengo egunean istiluak errepikatu eta gero, jai batzordeak ospakizunak bertan behera uztea erabaki zuen, alkatea erabakiaren aurka azaldu zen arren⁷⁵⁶.

Banderen gerra deiturikoa leku ezberdinetara hedatu zen udan zehar. Donostian, Herri Batasuneko zinegotziek espainiar bandera erretiratu zuten, nahiz eta udal plenoak bandera guztiak ezartzeko erabakia hartu⁷⁵⁷. Bilbon udal plenoak banderarik ez jartzea erabaki zuen baina jaien erdian polizia udaletxera sartu zen eta herriko bandera, ikurriña eta espainiar bandera ezarri zituen, zinegotzien protesten artean⁷⁵⁸.

PSOEkko gobernuak erabaki zuen espainiar bandera Hego Euskal Herrian presente ez gotea onartezina zela. Baina espainiar alderdi handiak gutxiengoa ziren udaletxe askotan eta gobernuak bere erabakia gauzatzeko polizia erabiltzea deliberatu zuen. Eta, hain zuzen ere, poliziaren presentzia Herri Batasunak erabili zuen Espainiako gobernuak Hego Euskal Herria okupatua zuela argudiatzeko eta indarra euskal herritarrei erabakiak inposatzeko gobernuak zuen modu bakarra zela azpimarratzeko. Jon Idigoras bozeramaileak ziurtatzen zuen banderen gerrak argi eta garbi errepikatzen zituela "los tiempos del fascismo de 1936", izan ere, "han impuesto la bandera española (...) contra la voluntad mayoritaria del pueblo vasco"⁷⁵⁹. Herri Batasunak gerrako galtzaileen ondorengotzat zuen bere burua eta, ikuspuntu horretatik, bandera monarkikoa beti izango zen 1936ko gerra irabazi zutenen sinboloa. Independentistek interpretatzen zutenez, 1936ko gerraren ondorioz ezarri zen bandera hura Hego Euskal Herrian eta antifrankismoaren indarrak kendu zuen 1977an. Horregatik, 1983an berriro espainiar bandera ezarri zenean, argudiatu zuten jada udaletxe askok frankismoarekin hausteko erabakia hartua zutela baina gobernuak frankisten ondorengo izaten jarraitzen zuela.

Modu horretan, Herri Batasunak mantendu zuen PSOE gobernura iritsi arren ez zela frankismoarekiko haustura demokratikorik gertatu eta euskal herriaren eta Espainiar

⁷⁵⁶ Egin, «HB en Rentería responsabiliza al alcalde de lo que pueda ocurrir durante las fiestas», *Egin*, 1983ko uztailaren 21a; Egin, «Policías de paisano provocaron graves incidentes en el comienzo de las fiestas de Rentería», *Egin*, 1983ko uztailaren 22a; Egin, «Orereta: las asociaciones populares trataron ayer inútilmente de salvar las fiestas», *Egin*, 1983ko uztailaren 23a.

⁷⁵⁷ José Luis Barbería, «El alcalde nacionalista de San Sebastián pide que se encargue a la policía autónoma del orden público en el País Vasco», *El País*, 1983ko abuztuaren 16a.

⁷⁵⁸ Arantza Elu y Patxo Unzueta, «El gobernador civil ordenó a la policía colocar las banderas de España, Euskadi y Bilbao en el ayuntamiento», *El País*, 1983ko abuztuaren 21a.

⁷⁵⁹ Egin, «HB puntualiza las declaraciones de Sotillos», *Egin*, 1983ko uztailaren 15a.

gobernu frankistaren arteko gerra oraindik bazela. Banderen gerrak borrokaren jarraipena adierazten zuen, sinbolo nazionalen testuinguruan. Halere, 1983rako askoz mugatuagoa zen erretorika beliko horren arrakasta 1978-1980 epearekin konparatuz gero eta udal hauteskundeen emaitzetan argi eta garbi ageri zen hori.

Herri Batasunak banderen inguruan abiatu zuen agitazio kanpaina "Geurea, ikurriña" lema zuen manifestazioarekin bukatu zen. Buruzagi independentistek ere bazekiten LOAPArekin euskal autonomia kolapsatzeko aukera desagertua zela eta manifestazioaren helburu nagusia "un empujón para nuestra moral" zela, ikusi baitzuten gertatua zela "un retroceso en las esperanzas"⁷⁶⁰. Bazirudien 1983rako Herri Batasunaren goraldia ahitua zela. Monarkia konstituzionalak eta Eusko Jaurlaritza autonomikoak sendo ziruditen eta frankismo erreformatuaren aurka mobilizatzeko euskal herri antifrankistari egiten zioten deialdiaren oihartzuna oso mugatua zen. Herri Batasunak ere onartzen zuen bere eragina talde esanguratsu baina mugatu batera bakarrik iristen zela: "el núcleo irreductible"⁷⁶¹.

6.6 irudia. Herri Batasunaren kartela, ikurriñaren aldeko manifestazioara deituz (1983)



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

⁷⁶⁰ Egin, «Xanti Brouard: "La ikurriña simboliza la reafirmación de la identidad nacional vasca"», *Egin*, 1983ko azaroaren 1a; Egin, «HB espera que la manifestación haga reflexionar "sobre la normalización de Euskadi"», *Egin*, 1983ko azaroaren 9a.

⁷⁶¹ Egin, «La Mesa Nacional de HB valora de modo positivo la "resistencia a la marea española"», *Egin*, 1983ko maiatzaren 11.

Berez antifrankista ei zen eta herrialde independente eta sozialistara abiatuko zen euskal herriari buruzko ETAREN kontakizun nazionalak hedapen zabala lortu zuen 1970eko hamarkadaren bigarren erdian, baina bere eragina gero eta ahulagoa zen. Herri Batasuna kontakizun nazional horretan oinarrituta sortu zen eta 1977an egoeraren analisi oso positiboa egin zuten, konbentzimendu ezkertiar eta iraultzaile tinkoari lotuta. Trantsizio garaian zehar, ETAREN kontakizun nazionala beste kontakizun nazional batekin lehiatu zen, zeinak 1978ko Konstituzioa ezarri baitzuen Espainiaren krisi garaia bukatutzat ematen zuen mugari bezala eta Espainia moderno eta europarra lortzeko abiapuntu bezala.

PSOE boterera iritsi izana gizartearen zati handia kontakizun nazionalista espainiar hari atxiki izanaren ondorio zen eta horrek zaildu egiten zuen Herri Batasunaren interpelazio arrakastatsua. Izan ere, ETAREN kontakizun nazionala frankismoaren erabateko oposizio bezala egituratu zen eta, iritzi publikoarentzat, PSOE gobernura iritsi ostean bai eman zela frankismoarekiko nolabaiteko haustura. Bidean, beste euskal kontakizun nazional bat ere indartu zen, euskal nazioak europartzean eta modernizazioan parte hartzeko modua Espainia barnean euskal eremu autonomo baten sorrera zela azpimarratzen zuena. Horrek guztiak Herri Batasuna lehengoarekin eta biolentziarekin lotzen zuen, iragan frankistarekin.

Hala ere, Herri Batasuna ez zen bazterreko indar politiko txikia bihurtu. Are gehiago, bere eragina eta sostengua handitu egingo ziren 1980ko hamarkadan zehar. Kapitulu honetako hurrengo ataletan aztertuko ditugunak fenomeno hori ahalbidetu zuten elementuak dira: Herri Batasunaren inguruan egituratutako kultura politikoa egunerokotasunean erreproduzitzeko moduak, alde batetik, eta ETAREN kontakizun nazionalari lotuta Herri Batasunaren mezua indarberritu zuen testuinguruarekiko harremana, bestetik.

Kalearen ordezkaria

Herri Batasunaren jatorria ezkerreko alderdi independentisten parte hartze instituzionalerako koalizioa zen eta bere lehen proiektua udaletxeetako ordezkarietan oinarritua zegoen. Aitzitik, hirugarren eta bosgarren kapituluetan azaldu dugun bezala, Herri Batasunaren inguruan kultura politiko antisistema egituratu zen eta denborak aurrera egin ahala erakundeetatik kanpoko elementuak indartu zituen bere diskurtsoan

eta praktikan, hala nola kaleko mobilizazioa, parte hartze asanblearioa eta ETA (militarra)-ren biolentziaren erabilera.

Are gehiago, Herri Batasuneko kideek erakundeetan izan zuten parte hartzea esperientzia negatibo bezala bizi izan zuten. 1979-1983 arteko legegintzaldiaren balorazioa egiteko orduan, Bilboko zinegotzia zen Tasio Erkizia ez zen batere optimista ageri: "el balance es negativo, ha producido desilusión"⁷⁶². Laugarren kapituluan azaldu bezala, Herri Batasunak udaletxeetarako eredu asanbleario eta parte hartzailea garatu nahi izan zuen, 1970eko hamarkadan zehar auzo elkarteek eta ezker iraultzaileak egin zituzten planteamenduei lotua. Baina prozesu konstituziogilean zehar Espainian eraiki zen sistema politikoak osagai elitista eta patriarkal garrantzitsuak zituen eta praktikan asko mugatu zuen herritarren parte hartzea⁷⁶³.

Frankismo garaian ezarritako sare klientelarrak bertan behera geratzeko modu bezala tokiko sare asoziatiboan oinarritutako kudeaketa ereduak proposatu zituzten udal proiektuek ez zuten alderdi handien sostengurik eduki. 1979ko udal hauteskundeetan ostean Laudioko alkateak 1977an martxan jarritako kudeaketa parte hartzailearekin jarraitzeko egindako proposamena bertan behera utzi zuten gainontzeko alderdiek. Eta 1980ko abuztuan UCDren eta PSOEn arteko akordioak eragin zuen alkateak dimisioa ematea Las Palmas Kanaria Handikoan. Horrela, urtebete lehenago Unión del Pueblo Canario koalizioaren eskutik hiriburu batean ezarri zen parte hartze eredu ezkertiar bakarra ere bertan behera geratu zen⁷⁶⁴.

Herri Batasunak udalen kudeaketan eta plenoetan auzo elkarteek eta herritarrek zuzenean parte hartzeko egin zituen proposamenak blokeatu zituzten gainontzeko alderdiek eta independentistek etengabe aurkezten zituzten mozio politikoak (amnistia, estradizioei, poliziaren presentziari... lotuak) eztabaidatu aurretik baztertzea ere erabaki zuten. Horren guztiaren ondorioa Herri Batasuneko eta gainontzeko alderdien arteko eztabaida handiak izan ziren udaletxe nagusietan. Independentistek udaletxeen bitartez politika orokorrean eragiteko zuten asmoa blokeatuta geratu zen eta,aldi berean, Herri Batasunak erakunde publiko guztien inguruko pertzepzio oso negatiboa garatu zuen. Independentistek beren burua benetako herria delakoarekin identifikatzen zuten, hau da,

⁷⁶² Egin, «Cualquier problema es municipal en la medida en que afecte al pueblo», *Egin*, 1983ko maiatzaren 1a.

⁷⁶³ Pamela Beth Radcliff, «Imagining Female Citizenship in the “New Spain”: Gendering the Democratic Transition, 1975-1978», *Gender & History* 13, 3 zbk. (2001): 498-523.

⁷⁶⁴ Wilhelmi, *Romper el consenso...*, 327-32.

auzoetako sare asoziatiboarekin, eta gainontzeko alderdiei boteretsuen eta frankismotik oinordekotzan jasotako sare klientelarren defentsa egitea egozten zien⁷⁶⁵.

Gainera, aurreko kapituluetan azaldu bezala, 1979tik Herri Batasunaren eta mugimendu sozial berrien arteko loturak indartu ziren eta horiek instituzioetatik kanpoko parte hartze ereduak sustatzen zituzten. Komite Antinuklearren eta EHGAMen ekinbidean pisu handia zuen ETArekin kontakizun nazionalak eta mugimendu horietako kideek Herri Batasunaren kanpainen parte hartzen zuten. Mugimendu feministari dagokionean, 1981n desagertu egin zen KAS Emakumeak eta Aizan! sortu zen. Bosgarren kapituluan azaldu dugun bezala independentisten lehentasuna KASen parte hartzea bihurtu zenez, Aizan! taldeko emakumeek gainontzeko talde feministetan parte hartzeari utzi zioten eta erakunde berria indartu nahi izan zuten, Herri Batasunari erabat loturik⁷⁶⁶.


Zentzu horretan, 1983ko udaletxeetarako kanpaina 1979koaren arras ezberdina zen. Jada auzia ez zen "alkaterik onena... herria", hau da, zinegotzien lana parte hartzearen kudeaketara mugatuko zela. 1983ko udaberrian Herri Batasunak bere burua honela ulertzen zuen: "fuerza consecuente (...) para representar a los grupos y personas contrarios a la reforma"⁷⁶⁷. Hau da, Herri Batasunak ezarritako sistemaren aurkako gizartearen zatiaren ordezkari bezala ikusten zuen bere burua. "Udala herrira" kanpainak hedatzen zuen mezua honela uler daiteke: monarkia konstituzionala onartu duten guztiak xurgatu ditu sistemak eta Herri Batasuna da sistematik kanpo mantendu direnen ordezkaria. Kanpainarako erabili zuten irudian manifestari bat oihuka ageri zen eta Herri Batasuna udaletxeen aurrez aurre eta horietatik kanpo kokatzen zuen. Zalantzarik gabe, mezu erradikalizatua zen, are gehiago PSOE gobernura iritsi ostean, eta 1979an Herri Batasunak eredu parte hartzaile baten inguruan zuen mezu sinpletik urrun zegoen. Oraingoan, bere boto emaileei exijitu egiten zien mugimendu sozial berrietan eta ezarritako erakundeen aurka zeuden ekinbideetan parte hartzea.

⁷⁶⁵ Egin, «Incidentes y suspensión en el pleno del Ayuntamiento de Bilbao», *Egin*, 1979ko uztailearen 10a; El País, «Incidentes en el pleno del Ayuntamiento de Vitoria», *El País*, 1981eko urriaren 6a; Egin, «Los de ayer, fueron los sucesos más graves ocurridos en la actual Corporación», *Egin*, 1981eko ekainaren 13a; ASK (KAS) Donostia, «Pero... ¿qué esperamos de los ayuntamientos?», *Egin*, 1982ko martxoaren 31.

⁷⁶⁶ Edurne Epelde Pagola, Miren Aranguren Etxarte eta Iratxe Retolaza Gutierrez, *Gure genealogía feminista. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat* (Nafarroa: Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro feminista, 2015), 157-60.

⁷⁶⁷ Narbaitz, «Por la senda de la libertad», *Egin*, 1983ko martxoaren 5a.

6.7 irudia. Herri Batasunaren kartela udaletxeetarako hauteskunde kanpainan (1983)



Iturria: Sancho el Sabio Fundazioa

Nahiz eta udaletxeetan parte hartzeko proposamena Herri Batasunak sare asoziatiboan zuen ekinbideari lotuta egon, lehenago esan bezala hauteskunde kanpaina ETArekin kontakizun nazionala indartzean oinarritu zen, horrela EAJren oinarriaren zati bat beregana zezaketelakoan. Herri Batasunaren oinarri sozialaren zati batek hauteman zuen deskonexioa gertatu zela independentisten mezuaren, hirietako paisaiaren eta auzo langileetako egunerokotasunaren artean, bereziki azpimarratu baitzuten euskal identitate nazionala, koalizioaren izaera antisistema eta gobernuaren aurkako gerra.

1983ko maiatzeko hauteskundeetako emaitza kaskarren ostean, eztabaida zabala abiatu zen *Egin* egunkariaren bidez eta zenbaitek zalantzan jarri zuten Herri Batasunak euskal herriaren eta Espainiaren arteko gerrari ematen zion garrantzia. Boto emaile batek azpimarratzen zuenez, bere boza "no es un voto a ETA y punto" eta salatzen zuen kanpaina garatu zela "basada casi exclusivamente en el fenómeno de la represión que sufre nuestro pueblo" eta, horrenbestez, albo batera geratu zirela "los pueblos de nuestro país [que] están llenos de problemas"⁷⁶⁸. Beste boto emaile batek adierazten zuenez, Herri Batasunak udaletxeetan parte hartzekotan, beharrezkoa zuen proposamen bat egitea boto emaileen eguneroko arazoei begira: "que le llegue de verdad en las concretas circunstancias en que se encuentra y con relación a los problemas que le angustian a

⁷⁶⁸ Jon Ugarte, «¿El comienzo de la debacle?», *Egin*, 1983ko maiatzaren 17a.

diario"⁷⁶⁹. Besteren batek ETA (militar)-etik aldentzea eskatzen zuen eta lehenasun bezala ezartzea "programas y alternativas a los planes de la derecha y de [la] izquierda reformista"⁷⁷⁰. Azken batek zuzenean erreparatzen zien Herri Batasuneko buruzagiei: "¡DIMISIÓN, joder!"⁷⁷¹.

Kritikak gora behera, erakundeetan parte hartzearen aurkako jarrerak sendotu ziren eta beste behin Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ez egotea erabaki zuten Herri Batasuneko militanteek. Nafarroako kasuan, parlamentu autonomikoan parte hartzearen alde ageri zen militantziaren ehuneko berrogeia eta kanpo geratzeko erabakiaren ostean, politikaren lehen lerrotik aldendu ziren ordura arte Nafarroan Herri Batasunak izan zituen bozeramaile ezagunenak: Patxi Zabaleta Iruñeko zinegotzia izana eta Nafarroako Parlamentuan koaliziaren bozeramaile izan zen José Antonio Urbiola (1937-2019)⁷⁷².

Kritikak baztertzen zituztenek adierazten zuten Herri Batasuneko kideek erakundeetatik kanpo kokatu behar zutela beren burua eta egin beharrekoa zela "la organización de los organismos populares"⁷⁷³. Baieztatzen zutenez, "sail guztietan (...) HBak ba ditu lagunak. Arteri sistema egina dago. Sistema horri bizia eta dinamismoa ematea falta da"⁷⁷⁴. Oinarrizko ideia honakoa zen: erakundeetan parte ez hartzea orekatzeko, Herri Batasunak behar zuena zen "lan organizatua, gizarte maila eta arlo guztietan" eta hori ganoraz eginez gero, iritsi iritsiko zen "aurrerakada handia"⁷⁷⁵. Hau da, 1983an Herri Batasunak erakundeetatik kanpoko mugimendu sozial berrietan eta sare asoziatiboan are gehiago parte hartzeko erabakia hartu zuen. Ez zen ideia berria, pentsatuz gero koalizioa sortu aurreko testuingurua 1970eko hamarkadan gertatu zen sare asoziatiboaren hazkundera eta indartzea izan zela. Herri Batasunak imajinatu zuen lehenago sare asoziatiboa antifrankismoarekin lerratu bazen, posible zela Herri Batasuna bihurtzea,

⁷⁶⁹ Xabier Goñi, «Debate, pero menos», *Egin*, 1983ko maiatzaren 26a.

⁷⁷⁰ Karla, «"Cambio"ren beharra», *Egin*, 1983ko maiatzaren 29a.

⁷⁷¹ Salbiderena, «Gure kanpaina (boto biltzearen ezaugarri batzuk)», *Egin*, 1983ko maiatzaren 31.

⁷⁷² Egin, «Las bases de Herri Batasuna son contrarias a la participación institucional», *Egin*, 1983ko martxoaren 22a; Zabaleta, «Votaremos HB, ¿por qué?», *Egin*, 1983ko maiatzaren 6a; Carmelo C.

Ridruejo, «HB se convertirá en "un grupúsculo cualquiera" según José Antonio Urbiola», *El País*, 1983ko otsailaren 16a.

⁷⁷³ Guillermo Perea, «Carta abierta a los EMK, LKI y a cuantos Yon Ugarte han sido», *Egin*, 1983ko maiatzaren 22a.

⁷⁷⁴ Xabier Amuriza, «Hauteskunderen ondorioz», *Egin*, 1983ko maiatzaren 15a.

⁷⁷⁵ Xabier Amuriza, «Semaforo gorria», *Egin*, 1983ko maiatzaren 25a; Amuriza, «Hauteskunderen ondorioz», *Egin*, 1983ko maiatzaren 15a.

1980ko hamarkadan, parlamentuetatik eta udaletxeetatik kanpo sortzen zen guztiaren ordezkaria.

Horretarako beharrezkoa zen Herri Batasunaren kaleko presentzia ohikoa bihurtzea. Alde batetik, Herri Batasuneko kideak elkartzeko mekanismoak zeuden. Horien artean batez ere Bilbon deitzen zituzten manifestazio handiak nabarmendu daitezke. Manifestazio haietan azpimarratu egiten zen independentistak Hego Euskal Herriko eskualde ezberdin eta anitzetan zeudela eta norbanakoiei beraien auzoetan eta herrietan jarduteko bultzada eta gogoia ematen zien hainbeste jende elkartuta ikusteak. 1983. urtea adibidetzat hartuz gero, Herri Batasunaren oinarri guztia batzea helburu zuten lau manifestazio handi deitu zituzten Bilbon: urtarrilaren 2an, ETA (militarra)-ri lotutako presoen amnistia exijitzeko; martxoaren 6an, bake elkarrizketen porrotaren ondoren; ekainaren 19an, Gernikako 1981eko gertakariengatik Herri Batasuneko ordezkarien epaiketa salatzeke eta azkena azaroaren 5ean, ikurriña aldarrikatzeko.

6.8 irudia. Herri Batasunaren manifestazioa Bilbon, 1983ko martxoaren 6an



Iturria: *Egin*

Herri Batasunaren kultura politikoa erreproduzitzeko orduan azpimarratu beharreko beste elementu bat urteroko egun seinatuak dira, horietan ekitaldi publiko bereziak antolatzen baitzituzten. 1980ean KASek irailaren 27a, frankismoko azken fusilamenduen urteurrena, Gudari Eguna izendatu zuen. Gudari Eguna EAJk 1965tik ospatzen zuen, Santoñan 1937an errenditu ondoren fusilatu zituzten bere militanteen

omenez. Baina batez ere Alderdi Egunari eman zioten garrantzia jeltzaleek, eta hura bihurtu zen urteko zita garrantzitsua euskal autonomia estatutuarekin gehien identifikatutako alderdiarentzat. EAE-ANVk ere ospatzen zuen Gudari Eguna 1970etik Albertia mendian, gerrako milizianoen omenez, eta 1978tik Herri Batasuneko buruzagiek ere parte hartzen zuten ekitaldi horretan.

KASek 1980ean formulatu zuen Gudari Eguna ez zegoen gerrari zuzenean lotuta eta 1975ean eta fusilamenduen urteurrenean Hego Euskal Herria geldiarazi zuten protestak gogorarazten zituen. Hori abiapuntu bezala hartuta, frankismoak bizirik jarraitzen zuela argudiatzen zuen KASek "porque el pueblo sigue explotado y oprimido" eta egunaren ospakizuna ETaren kontakizun nazionalari lotzen zion.⁷⁷⁶ Honela definituta geratu zen Gudari Eguna: "día de lucha en recuerdo de todos los que con su sangre han posibilitado y posibilitarán la consecución de una Euskadi independiente, socialista, reunificada y euskaldun"⁷⁷⁷.

Beste urteroko zita garrantzitsua Aberri Eguna zen, EAJk 1932an Pazko Igandez abiatutako ospakizuna. Francoren heriotzaren ondoren gobernuak baimendu zuen lehen Aberri Eguna 1978an ospatu zen eta euskal nazionalista guztiek eta espainiar ezkerreko alderdi guztiek parte hartu zuten, pankarta bateratuarekin: "Autodeterminación en la Constitución". 1979ko Aberri Eguna ere bateratua izan zen, baina PSOEek ez zuen parte hartu, Eusko Kontseilu Nagusia sortu ostean erbesteko Euzko Jaurlaritzan ere parte hartzen ez zuela eta. Autonomia estatutua onartu eta gero, 1980ean, 1981ean eta 1982an euskal nazionalistek bakarrik egin zuten deialdia. EAJren eta Euskadiko Ezkerraren Aberri Egunek gobernuaren baimena izan zuten. Herri Batasunaren egun bereko deialdietara ezker iraultzaileko alderdiak batu ziren baina gobernuak ez zituen baimendu eta urtero istiluak errepikatu ziren.

Aberri Eguna ospatzeko baimenik ez izatea Herri Batasunak erabili zuen, frankismoaren aurkako gerran jarraitzen zutela argudiatzeko. Baina, aldi berean, istiluek independentisten inguruko estereotipo biolentoa eta zaharkitua erreproduzitzen zuten, gainontzeko euskal nazionalistez bestelakoa. Agian estereotipo horren indarrak larrituta, Herri Batasunak gero eta garrantzi handiagoa eman zion gizartean proiektatzen zuen irudiari. 1982ko Aberri Eguneako deialdian —gobernuak ez zuena baimendu— jada

⁷⁷⁶ KAS, «Día 27, día de lucha», *Egin*, 1980ko irailaren 26a.

⁷⁷⁷ *Ibid.*

azpimarratu egiten zuten ospakizunaren izaera izango zela "abierto, unitario, legal, reivindicativo y festivo"⁷⁷⁸. Urte berean, HASIk azpimarratu egin zuen maiatzaren leheneko ospakizunari buruz honakoa: "al tiempo de ser clara jornada de combate y lucha, tiene carácter alegre y festivo"⁷⁷⁹.

Gobernu sozialistak 1983ko Aberri Eguna ospatzeko baimena eman zien independentistei. Eta hura aldaketa zen UCDren gobernuekiko. Zailagoa zen egun hura gobernu autoritario baten aurkako gerrarekin lotzea. Urte hartatik aurrera, Aberri Egunak izaera errituala hartu zuen, aldarrikapen orokorreari eta, batez ere, Herri Batasunak bere oinarri soziala biltzeko zuen gaitasunari lotuta⁷⁸⁰. 1983ko deialdiko lema argia eta sinplea zen, "Herri bat gara. Nazio bat gara" eta kartelek mezu oso orokorra zuten: "Gora Euskadi Askatatuta! Gora Euskadi Sozialista!"⁷⁸¹.

Herri Batasunaren kaleko presentzia ez zen koalizioaren mobilizazioetan bakarrik gorpuzten. Izan ere, militante independentistek mugimendu ezberdinek antolatutako mobilizazioetan parte hartzen zuten, esaterako, feminismoa, ekologismoa, gay askapena, antiimperialismoa eta euskalgintza. Fenomeno hark ez zion Herri Batasunari zuena baino sostengu zabalagoa ematen baina mobilizazio haietan ere parte hartzeak bere kaleko presentzia biderkatzen zuen.

Gainera, Herriko Tabernak ireki zituzten, zuzenean Herri Batasuneko kideek kudeatzen zituztenak. Dirudenez, lehena Sestaon ireki zuten, 1979ko uztaileko herriko jaietan. PSOEn Casas del Pueblo delakoen eta PNVren batzokien antzera, Herriko Tabernak aldi berean egoitza ofiziala eta oinarri sozialarentzat elkargunea ziren. Herriko Tabernetan iritziak elkartrukatzen ziren, kultura politikoan parte hartzea elikatzen zen, mobilizazio ezberdinei buruzko informazioa partekatzen zen eta, hau ere oso garrantzitsua, auzo eta herrietan Herri Batasunaren eguneroko presentzia adierazten zuten.

Herriko Tabernek Herri Batasuna herrietako eta langile auzoetako egunerokotasunean txertatzen zuten. Hein batean, auzo bakoitzeko aktibisten elkargunea ere baziren,

⁷⁷⁸ Egin, «HB llama a un Aberri Eguna abierto, reivindicativo y festivo», *Egin*, 1982ko apirilaren 3a.

⁷⁷⁹ Oficina de prensa de HASI, «Zutik lurrean kondenatu!», *Egin*, 1982ko apirilaren 30a.

⁷⁸⁰ Egin, «Las bases de Herri Batasuna son contrarias a la participación institucional», *Egin*, martxoaren 22a; Egin, «HB volvió a demostrar en Pamplona su capacidad de convocatoria», *Egin*, 1983ko apirilaren 5a.

⁷⁸¹ Herri Batasuna, «Denok Iruñara!», *Egin*, 1983ko martxoaren 31.

lehenago auzo elkarten egoitzak izan ziren antzeko moduan⁷⁸². Pentsa daiteke Herri Batasunak udaletxe demokratikoen hautaketaren ondoren elkarte sare herrikoiak izan zuen gainbehera orekatzen zuela. Sare asoziatiboan inplikazio handia eduki zuen zenbait jenderentzat independentismoa erakargarria zen, baldin eta udaletxe eredu alternatibo eta parte hartzaileari atxikita jarraitu bazuten, ezarritako sistemaren aurkako jarrera kritikoa harturik⁷⁸³.

6.9 irudia. Sestaoko Herriko Taberna



Iturria: Sestaoko ezker abertzalearen artxibo pribatua

Kalean egoteko beste modu bat ETA (militarra)-ri lotutako pertsonentzat amnistia aldarrikatzea izan zen. Amnistiaren aldeko batzordeak 1976an agertu ziren, hiriburuetako abokatu talde baten inguruan egituratuta. Baina 1977an zehar berrantolatu egin ziren, preso zeudenen senideen eta lagunengandik inguruan. Amnistaren dekretuaren ondoren, KASi lotuta egon ziren⁷⁸⁴. 1980ko hamarkadaren hasieratik ohikoa bihurtu zen amnistiaren aldeko batzordeek ekitaldiak antolatzea jai bat zegoen aldiro. Adibide bezala Olentzero erabil dezakegu. Nafarroako iparraldean neguko solstizioari lotutako pertsonaia zen Olentzero eta 1970eko hamarkadan zehar hirigune industrialetara hedatu

⁷⁸² Ofer, *Claiming the City...*, 89, 110.

⁷⁸³ Urrutia Abaigar, *El movimiento vecinal...*, 289-90.

⁷⁸⁴ Letamendia Belzunce, *Historia del nacionalismo...*, II. bol., 23-24, 64-65, 108-10.

zen sare asoziatibo euskaltzaleari lotuta, euskal Santa Claus bailitzan: Gabon gaez haurrei opariak eramaten zizkien ikazkin mozkortia⁷⁸⁵.

Hasiera batean, amnistiaren aldeko batzordeek postu bat ezartzen zuten auzo elkarteek edo kultur elkarteek antolatutako ekitaldien baitan. Baina 1981etik aurrera herri eta hiri bakoitzean amnistiaren aldeko Olentzero bereziak antolatzea erabaki zuten. Orduz geroztik, urtero errepikatuko zen amnistiaren aldeko protesta, Olentzeroren inguruan⁷⁸⁶. Antzera gertatu zen herri bakoitzeko jai eta ospakizunekin ere. Gasteiz eredu bezala hartuz gero, amnistiaren aldeko San Prudentzioren tanborrada ospatzen hasi ziren tanborrada ofizialetik at eta abuztuko jaien erdian amnistiaren aldeko manifestazioa antolatzen zuten urtero⁷⁸⁷.

Modu horretan, 1980ko hamarkadaren hasieratik Herri Batasunaren presentzia ohikoa zen egunerokotasunean, Herriko Tabernen eta modu erritualizatuan egiten ziren etengabeko mobilizazioen bitartez. Eta horiei noizean behin deituriko manifestazio handiak eta greba orokorrak gehitu behar zaizkie, bai eta independentistek mugimendu sozial berrietan zuten parte hartze ohikoa. Horrek guztiak hiriguneetan gainontzeko indar politikoei baino askoz ere presentzia handiagoa ematen zion Herri Batasunari. Aldi berean, ekiteko modu hark Herri Batasuneko kide izateran harrotasuna indartzen zuen eta orokortu egin ziren "gora gu ta gutarrak!" eta "todos a una, Herri Batasuna" bezalako ohiuak⁷⁸⁸. Buruzagi independentisten hitzek ideia bat azpimarratzen zuten: hauteskundeetako emaitzak gorabehera, kalean etengabe egoteak erakusten zuenez, "en HB somos muchos y además, también para desgracia del señor Sotillos [portavoz del primer gobierno socialista] somos los mejores"⁷⁸⁹.

Egunerokotasunean ikusten ziren praktika horiek guztiek Herri Batasuna ohiko paisaiaren parte bihurtzen zuten. Herriko Tabernetan egunero elkartzen zen jendeak eta independentisten kartekek, pegatinek eta manifestazioek, Hego Euskal Herriko ohikotasunaren parte bihurtzen zuten ez bakarrik Herri Batasuna bera, baita euskal herri independente eta sozialistaren ideia ere. Bazirudien hura guztia Hego Euskal Herrian

⁷⁸⁵ Erkizia, *Bizipenak eta hausnarketak...*, 24.

⁷⁸⁶ Egin, «Movilizaciones populares en favor de los presos y refugiados», *Egin*, 1981eko abenduaren 26a.

⁷⁸⁷ Egin, «Hoy en Gasteiz, tamborrada silenciosa en petición de amnistía», *Egin*, 1983ko apirilaren 27a; Egin, «Los blusas de Gasteiz desfilaron ayer en silencio en recuerdo de los presos», *Egin*, 1982ko abuztuaren 8a.

⁷⁸⁸ Narbaitz, «Por la senda de la libertad», *Egin*, 1983ko martxoaren 5a.

⁷⁸⁹ Egin, «HB puntualiza las declaraciones de Sotillos», *Egin*, 1983ko uztailearen 15a.

berezko zerbait zela, ohiko paisaiak eta praktikak, eta ez independentistentzat bakarrik, baita biztanle guztientzat ere, are erabat aurka zeuden norbanakoentzat ere⁷⁹⁰.

Espazio publikoan presente egoteko Herri Batasunak zuen beste modu bat Bilboko eredu arrakastatsua imitatuz leku guztietan agertu ziren txosnak ziren. Txosnak espazio komun batean ezartzen ziren baina bakoitza talde bati atxikita zegoen. Esaterako, 1983an Gasteizen UGTk, PCEk, LKIk, EMKk, Herri Batasunak, LABek, amnistiaren aldeko batzordeek eta Aizan!-ek jarri zuten txosna⁷⁹¹. Berez, txosnak ez ziren Herri Batasunak erabat bereganatutako espazioak baina egia da independentistak horien antolaketan bereziki engaiatu zirela eta askotan espazio horiek monopolizatu zituztela. Modu horretan, berretsi egiten zuten beraiek zirela kalea eta herritarren auto-antolaketa erreferente bezala zutenak, gainontzeko alderdiek udaletxearen ospakizunetan parte hartzen zuten bitartean.

Figura 6.10. KASen txosna Gasteizko jaietan (1983)



Iturria: *Egin*

Beste alde batetik, independentistek jaien zentzu politikoa nabarmendu zuten, klase diskurtso anti-elitistarekin. 1982tik aurrera, Herri Batasunak 'jaiak bai, borroka ere bai' lema hedatu zuen, helburu bikoitzarekin: independentisten aldarrikapenak jaietan ere

⁷⁹⁰ Ederson, *National Identity, Popular...*, 19-24, 50-54.

⁷⁹¹ Egin, «Al final, las txosnas se imponen», *Egin*, 1983ko abuztuaren 7a.

presente egotea eta koalizioaren irudia jaiekin eta ospakizun alaiekin lotzea, jende hasarretu eta biolentoa bezala irudikatzen zituen estereotipoarekin apurtu nahirik.

1982ko udan, esaterako, Donostiako Herri Batasunak alkatetzaren jai erdua salatzen zuen. Adierazten zuten helburu bakarra zela "dar espectáculo (...) sin desmadres, cuidando los jardines y controlando las malas pintas"⁷⁹². Eta horri aurkakotzen zioten honako ideia: "la presencia masiva en las calles tiene que ser gozosa y alegre como la fiesta misma"⁷⁹³. Herri Batasuneko Donostiako kideek adierazten zuten, "es cierto que la fiesta se ha hecho para divertirse" baina honakoa ere aldarrikatzen zuten: "en algún momento de la fiesta mostraremos lo orgullosos que estamos porque tantos hijos nuestros están en la cárcel, en el exilio o en la tumba a causa de su lucha por algo justo"⁷⁹⁴.

1983an, sistemaren aurkako koalizio bezala zuen izaera indartuta, jaia "tradiciones burguesas de paz" delakoei aurkakotzen zieten eta independentismoa klase herritarrekin lotzen zuten, elite ekonomikoarekin aurkakotuz: "mientras ellos sacan a sus hijos con ropitas nuevas (...) nosotros seguiremos juntando la calderilla en las cuadrillas"⁷⁹⁵. Testuinguru hartan Iñaki Gil de San Vicentek artikulu luzea argitaratu zuen eta azpimarratu zuen zein garrantzitsua zen "politizar la fiesta" ezkerreko proiektu sozial batek lortzeko "atraer los miles de votos perdidos"⁷⁹⁶. Jaia eszenatoki bezala definitzen zuen, "capaz de anunciar diariamente el futuro deseado (...) [y] encarar los combates venideros con alegría"⁷⁹⁷. 1983ko abuztuan jada horrelako mezuak Herri Batasuneko buruzagitzara ere iritsi ziren. Banderaren gerrari erreferentzia eginez, independentistek adierazi zuten beraiek gizartearen "la parte más honrada" ordezkatzeko zuela eta gainera, euskal herriatarrek erakutsi zutela "un pueblo combativo y alegre" zirela⁷⁹⁸.

Laburbilduz, 1982-1983 artean Herri Batasuna iritzi publikoan independentistek zuten irudia moldatzen saiatu zen, bere burua eta aldarrikapenak jai giro alaiarekin lotuz. Gainera, ordurako kaleko presentzia erritualizatua zuen eta egunerokotasunean oso presente zegoen. Horiek izan ziren 1980ko hamarkadan zehar bere sostengua handitu

⁷⁹² Herri Batasuna de Donostia, «Jaiak bai, borroka ere bai», *Egin*, 1982ko abuztuaren 8a.

⁷⁹³ Ibid.

⁷⁹⁴ Ibid.

⁷⁹⁵ Herri Batasuna de Billabona, «Festak bai borroka ere bai», *Egin*, 1983ko uztailearen 20a.

⁷⁹⁶ Iñaki Gil de San Vicente, «Fiesta y revolución», *Egin*, 1983ko uztailearen 10a.

⁷⁹⁷ Ibid.

⁷⁹⁸ *Egin*, «Las FOP de Madrid y Gasteiz cargaron contra los concentrados por la amnistía y la ikurriña», *Egin*, 1983ko abuztuaren 16a.

izanaren kausetako batzuk. Baina kapitulu honen sarreran esan bezala, Herri Batasuna bere jarrera zehazten joan zen Espainian 1980ko hamarkada markatu zuten dinamiken inguruan. Eta horrek ere 1980-1983 arteko independentisten gainbehera geldiaraztea eragin zuen. Azken horri erreparatuko diogu jarraian.

Punk, de entrada sí

1983ko urriaren 22an Tuteran musika jaialdi bat ospatu zen Espainiak NATOren parte hartzearen aurka. Tuteran leku berezia zen mugimendu bakezalearentzat eta nuklearren aurkakoentzat. Izan ere, bertan zentral nuklear bat eraikitzeko proiektua egon zen 1970eko hamarkadan eta Energia Nuklearraren Aurkako Egunean, 1979ko ekainaren 3an, antolatutako mobilizazio handietan poliziak Gladys del Estal (1956-1979) manifestaria hil zuen. Tuteran Nafarroako Erriberako udalerrri nagusia ere bada eta inguru hartan Bardeetako tiro eremua dago, estatubatuar armadak entrenatzeko erabiltzen zuena. Aipatu musika jaialdia Otoño 83 kanpainaren bukaera zen. Kanpaina hartan Komite Antinukleareek, toki ezberdinetako komite antimilitaristek, biolentziaren aurkako asanbladek, asanblea internazionalistek, Herri Batasunak eta ezker iraultzaileko alderdiek (EMK, Auzolan eta PCE (ml)) parte hartu zuten⁷⁹⁹.

Tuterako jaialdiak garrantzia bikoitza izan zuen. Alde batetik, Espainia NATOko kide izatearen aurkako kanpainaren indarra erakutsi zuen eta, bestetik, Hego Euskal Herriko punk eszenako taldeek zuten konpromiso politikoa erakutsi zuen. Bertan parte hartu zuten Santurtziko Eskorbutok eta Zaramak, Arrasateko RIP taldeak, Iruñeko Barricadak, Errenteriako Basurak eta Kanariar Uharteetako Eskorbuto Crónico taldeak. Gainera, jaialdia antolatu zen asteburuan Espainian osoan zehar NATOren aurkako ekitaldiak eta mobilizaizoak egon ziren, hau da, ez zen Hego Euskal Herriko fenomeno isolatua⁸⁰⁰.

Protesta antinuklearrak eta NATOren aurkako mobilizazioak 1980ko hamarkadaren hasieran elkartu ziren, NATOk Europako mendebaldean misil atomikoak ezartzea erabaki zuenean. Euromisilen krisia deritzona Gerra Hotzaren pasarteetako bat izan zen eta Europa mailako mugimendu zabala agerrarazi zuen. Eskalada nuklearra geldiarazteko eskatzen zuen eta teknologia nuklearraren garapenak gizakien bizitza bera

⁷⁹⁹ Egin, «53 organismos populares, partidos políticos y centrales sindicales, convocan a una campaña de movilizaciones contra la OTAN», *Egin*, 1983ko uztailaren 8a; Egin, «Organizaciones políticas llaman a los actos de “Otoño 83” en Tudela», *Egin*, 1983ko urriaren 21a.

⁸⁰⁰ El País, «Comités anti-OTAN y grupos ecologistas, principales animadores», *El País*, 1983ko urriaren 24a.

arriskuan jartzen zuela salatzen zuen. Mugimenduak desarrollismo industrialari, inperialismoari eta militarismoari kritikak uztartzen zituen eta bertara batu ziren lehenago mugimendu ekologistan, bakezalean, feministan eta errepresioaren aurkakoan parte hartu zutenetako asko⁸⁰¹. Espainiako kasuan, NATOren aurkako protestek antifrankismoarekin lotura esanguratsua zuten, sinbolikoki AEBen aliantza militarra diktadurari emandako sostenguekin lotzen baitzen. Gainera, bakearen aldeko mugimendua gizarte eredu parte hartzaile eta berdinzaleagoarekin erkatzen zen, 1970eko hamarkadan zehar auzo mugimenduak erabili zuenaren antzeko mezuarekin⁸⁰².

NATOren aurkako mugimenduaren lehen pausuak MC eta LCR alderdiek sustatu zituzten Espainian eta 1981ean zehar gutxika mugimendua egituratuz joan zen. Urtarrilean Torrejonera martxa antolatu zuten —bertan estatubatuar armadaren baseetako bat zegoen— eta uztailean Madrilén ekitaldi handia antolatu zuten, alderdi handien ezkerretara egituratutako mugimendu zabal baten baitan⁸⁰³. Bere aldetik, 1981eko abuztuan PSOEkan kanpaina propioa abiatu zuen, 'OTAN, de entrada no', AEBen lidergoeko aliantzan Espainia mantentzearen inguruko erreferenduma exijitzen zuena⁸⁰⁴. 1981eko urria eta azaroa bitartean NATOren aurkako manifestazio handiak ospatu ziren Europako hiri garrantzitsuetan, esate baterako Bonnen, Bruselan, Amsterdamen, Erroman eta Atenasen. Hego Euskal Herrian ere NATOren aurkako lehen manifestazioak antolatu ziren 1981eko urrian, Herri Batasunaren eta ezker iraultzailearen sostenguekin, eta Nikaraguarekin elkertasunez Carlos Mejía Godoy y los de Palacagüina lurraldean zehar aritu ziren egun berberetan⁸⁰⁵.

⁸⁰¹ Dario Fazzi, «The Nuclear Freeze Generation: The Early 1980s Antinuclear Movement between 'Carter's Vietnam' and 'Euroshima'», hemen: *A European Youth Revolt. European Perspectives on Youth Protest and Social Movements in the 1980s*, ed. Knud Andresen eta Bart van der Steen (UK/US: Palgrave MacMillan, 2016), 150-51; Riechmann eta Fernández Buey, *Redes que dan libertad...*, 5-6; Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 241-42.

⁸⁰² Giulia Quaggio, «Social Movements and Participatory Democracy. Spanish Protests for Peace during the Last Decade of the Cold War (1981–1986)», *Archiv für Sozialgeschichte* 58 (2018): 279-302.

⁸⁰³ El País, «Se celebra hoy la "marcha sobre Torrejón"», *El País*, 1981eko urtarrilaren 25a; El País, «50.000 Personas asistieron en la Casa de Campo de Madrid al festival contra el ingreso de España en la OTAN», *El País*, 1981eko uztailearen 7a.

⁸⁰⁴ Carlos Ángel Ordás, «OTAN de entrada NO. El PSOE y el uso político de la integración española en el Pacto Atlántico o cómo hacer de la necesidad virtud, 1980-1986», hemen: *España en democracia. Actas del IV Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*, ed. Carlos Navajas Zubeldía eta Diego Iturriaga Barco (Logroño: Universidad de la Rioja, 2014), 293-305.

⁸⁰⁵ Egin, «Bilbao: Las FOP arremetieron ayer contra la manifestación autorizada Anti-OTAN», *Egin*, 4 1981eko urriaren 4a; Egin, «La manifestación anti-OTAN de Pamplona no pudo llegar a su fin», *Egin*, 1981eko urriaren 10a; Egin, «Dos mil personas se manifestaron contra la OTAN en San Sebastián», *Egin*, 1981eko urriaren 25a; Egin, «Manifestación anti-OTAN, anoche en Gasteiz», *Egin*, 1981eko urriaren 27a.

Espainiako parlamentuak 1981eko urriaren 29an onartu zuen NATOra sarreara, alderdi kontserbadoreen aldeko bozekin eta ezkerrekoen oposizioarekin. Azkenik, 1982ko maiatzaren 30ean sartu zen ofizialki Espainia NATOn. PSOEn gobernu programan aliantzan mantentzeko buruzko erreferenduma jasota zegoen heinean, 1983an berriro abiatu ziren NATOren aurkako protestak.

Herri Batasunak hartu zuen jarrera zehatzari dagokionez, 1981eko abuztuan Kataluniako, Kanariar Uharteetako eta Galiziako alderdi independentistekin batera komunikatu bat argitaratu zuen. Bertan NATO horrela definitzen zuten: "el obstáculo más importante frente a las luchas de liberación nacional y de clase" eta adierazten zuten NATOren sorreraren oinarrian zegoela "el miedo al avance del socialismo como ideología"⁸⁰⁶. Uda hartan, Bilbon Lemoizko zentral nuklearraren aurka antolatu ziren jardunaldietan ETA (militarra)-ren aldeko oihuekin batera entzun ziren NATOren aurkakoak: "yanquis no, OTAN fuera"⁸⁰⁷. 1983ko ekainean, Herri Batasunaren ordezkariak —Herri Arteko Bakea izenarekin— Pragan ospatu zen Bakearen eta Biziaren aldeko Mundu Asanblean parte hartu zuen eta aurretik esan bezala, independentistek NATOren aurkako Otoño 83 kanpainaren antolaketan parte hartu zuten⁸⁰⁸.

HASI izan zen Herri Batasunaren barnean NATOren kontrako dinamikari arreta handiena eskaini ziona. Alderdiak ziurtatzen zuenez, Espainia NATOko kide bezala finka zedin zegoen oztoporik handiena ETA (militarra)-ren eta Herri Batasunaren egoera desorekatzeko ahalmena zen. HASIk interpretatzen zuen euskal nazio independente eta sozialistaren aldeko hautua berez zela NATOren aurkakoa, aliantza militarren lehentasuna baitzen "sofocar cualquier intento de acabar con el Capitalismo"⁸⁰⁹. Bestalde, hirugarren kapituluan azaldu bezala, HASIk eta Herri Batasunaren zuzendaritzan parte hartzen zuen abokatu taldeak Europan faxistizazio prozesu bat gertatzen ari zela baieztatzen zuten eta gizartea kontrol polizialaren menpe geratzen ari zela. Aurreikusten zuten, behin NATOko kide bihurtuta Espainian Alemaniako Errepublika Federalaren —Herri Batasunaren ustetatan Europaren

⁸⁰⁶ Egin, «Manifiesto conjunto anti-OTAN de partidos de la izquierda nacionalista», *Egin*, 1981eko abuztuaren 26a.

⁸⁰⁷ Egin, «Multitudinaria manifestación contra Lemóniz, en Bilbao», *Egin*, 1981eko abuztuaren 30a.

⁸⁰⁸ Egin, «Iñaki Pinedo, miembro de Herriarte Pakea: "Somos la vía revolucionaria en Europa"», *Egin*, 1983ko uztailearen 17a.

⁸⁰⁹ HASI, «La independencia es nuestra lucha hacia el socialismo», *Eraiki* 2 (1981).

fasxistizazioaren erdigunea— Estatu eredu ezarriko zen eta, horregatik, NATOren aurkako jarrera hiritarren eskubide politiko eta zibilen aldekoa ere zen⁸¹⁰.

ETA (militarra) sostengatzea eta modu berean Europa mailako mugimendu bakezale batean parte hartzea kontradikzio bezala ikus daitezke. Baina kontuan hartu behar dugu biolentziaren erabilera eta horri mezu bakezalea atxikitzea ezker iraultzaileko kultura politikoan oso ohikoa zela, iraultza boltxebikearen eta Kominternaren garaitik. NATOren aurkako mobilizazioetan parte hartu zuten alderdi politiko gehienak ezker iraultzailekoak ziren eta haien ikuspegi politikoetan presente zegoen ortzimuga erreboltari bat, nahiz eta gehienek praktikan ez zuten biolentziaren erabilera aldeztu. Modu berean, NATOren aurkako mugimendua Nikaraguako iraultzari elkartasuna adieraztearekin lotuta zegoen eta jakin badakigu sandinistak gerra luze baten ostean iritsi zirela boterera. Are gehiago, gerrak jarraitu egiten zuen, estatuatuar zerbitzu sekretuek 'contra' delakoa antolatu baitzuten gobernu iraultzailearen aurka. 1983ko apirilean Managuan (Nikaragua) Concierto Por la Paz en Centroamérica antolatu zen. Latinoamerikar kantagintzako kide ezagunenek parte hartu zuten (Mercedes Sosa, Chico Buarque, Alí Primera, Silvio Rodríguez, Daniel Viglietti...), aldi berean bakearen aldarria eta gerrilla iraultzaileen aldeko mezua hedatzen zen bitartean.

6.11 irudia. Herri Batasunaren iragarkia bere oinarre sozialari Ertamerikan estatubatuarren esku hartzearen aurka Europa mailan antolatu zen mobilizazioetan parte hartzeko eskatuz (1982)

CARAVANA EUROPEA CONTRA LA INTERVENCION YANQUI EN CENTROAMERICA

Herri Batasuna llama a todos sus militantes y simpatizantes y a todo el Pueblo Vasco a acudir a los actos programados:

HOY 15 SABADO

- 12H.— Recibimiento en Irún (puente de Santiago)
- 12,30.— Recibimiento de Rentería
- 7H.— Recibimiento de Bilbao (Pl. La Casilla)
 - Manifestación (legalizada): Casilla-Pl. Nueva
 - Mitin y Festival musical en Pl. Nueva

EUSKADI — CENTROAMERICA ELKARTASUNA!!

HERRI BATASUNA

HERRI BATASUNA

Iturria: *Egin*

⁸¹⁰ Egin, «HB se posiciona ante el ingreso en la OTAN», *Egin*, 1981eko irailaren 1a.

Aipatu dugu iraultza sandinistak Herri Batasuna txunditu zuela. 1979-1983 artean bai *Eginen* bai HASIren barene argitalpenetan behin eta berriro jasotzen ziren sandinisten garaipenaren berriak eta El Salvadorreko gerrilla iraultzailearen (FMLN) nondik norakoak. Horri eman zioten berebiziko garrantzia eta bigarren mailan geratu ziren *a priori* euskal nazionaistentzat lehentasunezko izan zitezkeen berriak. Esaterako, 1980ko abenduan Parti Socialiste-k frantses Asanblea Nazionalean euskal departamentuA sortzeko proposamena egin zuen baina prentsa independentistan ez zioten ia-ia jaramonik egin⁸¹¹.

Testuinguru hartan orokortu zen Movimiento de Liberación Nacional Vasco (MLNV) deitura, jada aurreko kapituluan aipatu duguna eta *Eginen* maiuskulaz agertzen hasi zena NATOren aurkako 1983ko kanpainaren asteetan. Bere ideologoentzat MLNVren helburua honakoa litzateke: "el avance de todos los pueblos oprimidos en su lucha contra el imperialismo". MLNV siglak KASen zeuden erakundeak izendatzeko erabiltzen ziren eta Herri Batasunari sigla horietan zegokion lekua zehazteko orduan, aditzera ematen zen "unidad popular" zela (ez deitura soila, baizik eta kontzeptu gisan) eta "polo de referencia" zela langile klaseak gidatutako borrokan lor zedin "el apoyo del resto de las capas populares"⁸¹².

KASi deitzeko modu berria eta Herri Batasunaren ikuspegi internazionalistagoa 1983ko bukaeran finkatu ziren, HASIren II. Biltzarra eta EAE-ANVren VII. Biltzarra burutu zirenean. Mota horretako mezu internazionalista eta erretorika nazionalista Greziarekin eta 1981an boterera iritsi zen PASOK Mugimendu Sozialista Panheleniarrarekin ere erlazioa daitezke. PASOKen diskurtso nazionalista eta ezkertiarren eta Herri Batasunaren artean zenbait ezaugarri komun antzeman baitaitezke: Europako periferian zeudelako sentipena, askapen mugimendu antikolonialekin identifikazio afektiboa eta nazio propioa Beste Handi baten aurka definitzea. Iritzi publikoarentzat Turkia zena Grezian, Herri Batasunarentzat frankismoarekin hausteko ezintasuna zuen Espainia zen⁸¹³.

⁸¹¹ Assemblée Nationale, «J'ai reçu de M. Christian Laurissergues et plusieurs de ses collègues une proposition de loi portant création d'un département de pays basque», *Compte Rendu Integral* 2 séance d (1982): 5058.

⁸¹² HASI, «Herri Batasuna-Unidad Popular», *Eraiki* 5 (1982).

⁸¹³ Eirini Karamouzi eta Dionysios Chourchoulis, «Troublemaker or peacemaker? Andreas Papandreou, the Euromissile Crisis, and the policy of peace, 1981–86», *Cold War History* DOIC: 10.1 (2018).

Nazioarteko mugimendu bakezale bati lotuta egotea da Hego Euskal Herriko 1983ko NATOren aurkako kanpainaren ezaugarrietako bat. Bigarren elementu aipagarriena Tuterako jaialdian punk eszenako talde ezagunenen parte hartzea izan zen. *Egineko* Plaka Klik musika orrialdean ekitaldi hartan Rock Radical Vasco delakoa egikaritu zela eman zuten aditzera. Egunkari independentistako erredaktoreen ikuspegian, Rock Radical Vasco estilo musikalak gainditzen zituen etiketa zen eta Hego Euskal Herrian izaera propioa luke, taldeen hitzen erradikaltasunarengatik eta talde gehienak hirigune industrialetan sortu zirelako. Taldeen hitzetan poliziaren aurkako mezua zegoela ere azpimarratzen zuten, bai eta taldekideak "gente de la calle (...) populares", gazteriarentzako erreferente zirela⁸¹⁴. Aipatu ezaugarriak komunak ziren Europako punk eszenan baina *Eginek* zentzu berezitua ematen zien, Herri Batasunak Hego Euskal Herriko gizartean zuen eraginari lotzen baitzituen.

Independentismoaren eta Hego Euskal Herriko punk eszenaren arteko harremana aztertzeko orduan, interpretazio ezberdinak egin dira. David Mota Zurdo historialariaren ustez Herri Batasunak egin zuena izan zen "una vampirización del rock contestatario"⁸¹⁵. Aritza Sáenz del Castillok ikuspegi bera du, autore horren hitzetan, Herri Batasunak "mugimendua xurgatzeko ahalegina" egin baitzuen⁸¹⁶. Autore horien ikuspegitik pentsa daiteke benetako punk bat existitu zela lehenago baina Herri Batasunarekin kontaktuan sartu zenean, "fue desvirtuando su esencia" eta gertatu zena izan zela "la pérdida de autenticidad y originalidad"⁸¹⁷. Guk nabarmendu nahi dugu arriskutsua dela ikuspegi metodologiko batetik pentsatzea bazegoela benetako punka eta ondoren punka kutsatu zela. Horregatik, egokiago deritzogu Christian Lahusenaren proposamenari. Autore horren arabera, Hego Euskal Herriko punk taldeen artean politikaren inguruko hiru jarrera bereiz daitezke, bata edo bestea benetakoagoa edo punkarentzat zuzenagoa dela zehaztu beharrik gabe: batetik, ekinbide politiko oro arbuia zuten jarrera probokatzailerik eta pesimistak; bigarrenik, punka mugimendu

⁸¹⁴ Plaka Klik, «El rock de Euskadi contra la OTAN en Tudela», *Egin*, 1983ko urriaren 16a.

⁸¹⁵ Mota Zurdo, «Hoy es el futuro...», 76.

⁸¹⁶ Aritza Sáenz del Castillo Velasco, «Jaungoikoak lehendakaria babes dezala! Euskal Herriko rock erradikaleko erretorikaren interpretazio libertarioa», *Sancho el Sabio. Revista de Estudios Vascos* 36 (2013): 119.

⁸¹⁷ Mota Zurdo, «Hoy es el futuro...», 66-67.

antikapitalista zabal baten parte bezala irudikatzen zuena eta, hirugarrenik, euskal nazioaren independentzia proiektu antisistema bezala onartzen zuen jarrera⁸¹⁸.

Herri Batasunaren eta punk talde ezberdinen arteko harremana gorabeheratsua izan zen 1980ko hamarkadan zehar. Baina orain arte kapitulu honetan azaldutakoaren ildotik, uste dugu Herri Batasunak bere burua kaleko kultura politikoa eta antisistema zen guztiaren ordezkari bezala ikusteak, erraztu egin zuela puntu batera arte independentismoaren eta punk eszenaren arteko harremana, Ion Andoni del Amok azaldu duen bezala⁸¹⁹.

Hala ere, bai David Mota Zurdok eta bai Ander Delgado eta Ekaitz Etxezarretak, Herri Batasunak 1983an bat-batean punkarekiko jarrera aldatu zuela ematen dute aditzera eta aldaketa hori erabat interesatua izan zela. Ordura arte, autore horien arabera, independentistak rock eta punk musikaren erabat aurka leudeke, euskal tradizioaren kontrako musika inperialista bezala ezaugarrituz. Horrela, badirudi 1980ko hamarkadaren hasierako Herri Batasunako oinarri soziala 68ko kontrakulturaren eta kantautore erreibindikatioben gustuetan iltzatua zegoela⁸²⁰. Jarraian azalduko dugun bezala, independentismoaren eta punk eszenaren arteko harremana ulertzeko erlazio horren kronologia errepasatzea derrigorrezkoa da.

Egia da 1980-1983 artean Herri Batasunaren eta gazte kulturen arteko nolabaiteko etendura gertatu zela. Zentzu horretan, 1983ko hauteskundeetako emaitzak aztertzeke orduan harrিতuta ageri ziren Herri Batasuneko bozeramaileak, hirigune industrialetan gazteriaren boza masiboki independentista izango zela uste baitzuten. Gasteizko alkategai zen Guillermo Perek argi adierazten zuen nola hauteskundeetan, gazteria "ha pasado"⁸²¹. Iñaki Aldekoa ESBko buruzagi izandakoak azpimarratu egiten zuen bazegoela "un desencanto y desconfianza de algunos sectores del pueblo, especialmente el juvenil"⁸²². EAE-ANVko presidente Seber Ormazak honakoa adierazten zuen: "el bajón ha venido de la juventud estudiantil"⁸²³. Eta jada Herri Batasunako

⁸¹⁸ Christian Lahusen, «The aesthetic of radicalism: the relationship between and the patriotic nationalist movement of the Basque country», *Popular Music* 12, 3 zbk. (1993): 263-80.

⁸¹⁹ del Amo, *Party & Borroka...*, 56-57.

⁸²⁰ Mota Zurdo, «Hoy es el futuro...», 83; Delgado eta Etxezarreta, «De los cantautores al Rock...», 394-95.

⁸²¹ Egin, «Importante abstención juvenil en los partidos de izquierda en Gasteiz», *Egin*, 1983ko maiatzaren 10a.

⁸²² Egin, «La Mesa Nacional de HB valora de modo positivo la "resistencia a la marea española"», *Egin*, 1983ko maiatzaren 11.

⁸²³ Jon Ugarte, «Seber Ormaz: "Ya hemos perdido cuatro años con este Estatuto"», *Egin*, 1983ko uztailaren 23a.

zuzendaritzatik aldentuta ageri zen Patxi Zabaletak honela ziharduen: "la juventud, los parados, los obreros más combatidos, los movimientos de vanguardia han votado a HB (...) menos que antes"⁸²⁴.

Aste batzuk beranduago, *Egineko* ohiko zutabegileetako batek Vulpes taldeak TVEn 1983ko apirilaren 16an egin zuten agerraldi polemikoa aipatzen zuen eta honakoa ondorioztatzen zuen: "una forma de integrar al compromiso a la juventud marginada puede ser asumir los valores rupturistas de la contracultura punk"⁸²⁵. Interpretazio horren arabera, talde bilbotarraren agerpenaren ostean La caja de ritmos programa bertan behera geratu izanak PSOEn gobernuaren muga kontserbadoreak aditzera eman zituen eta, horregatik, Herri Batasunak lekua egin behar zion ezarritako baloreei kulturaren alorrean aurre egiten zion gazteriarik⁸²⁶. Ez zen zutabegile hura hori uste zuen bakarria. 1983ko urtarriletik Plaka Klik igandetako orrialdea zegoen *Eginen*, punk taldeen berriak jasotzen zituena. Urte haren bukaeran *Eginrock* lehiaketa antolatu zen eta irakurleek herrialde bakoitzean talde bat aukeratzea aurreikusten zen, egunkariak antolatutako jaialdi batean jotzeko.

Egia da baita ere, Herri Batasunaren erreferentzia musikal nagusiak iraultzarekin konprometitutako kantautoreak izan zirela. 1979ko abenduan Jarrai (KAS) erakundeak bere aurkezpen jai antolatu zuenean, bertan parte hartu zuten Paco Ibañezek eta Txomin Artlolak eta 1980ko maiatzean, KASEk Silvio Rodriguezen eta Pablo Milanesen kontzertuak antolatu zituen Bilbon eta Donostian⁸²⁷. Kantaureen jaialdi handien garaia urte batzuk lehenago iritsi zen bere goren-unera eta, ziurrenik, jada ordurako ez ziren planik erakargarriena gazteen jai baterako⁸²⁸.

⁸²⁴ Patxi Zabaleta, «Causas y soluciones del descenso electoral de HB», *Egin*, 1983ko maiatzaren 21a.


⁸²⁵ Takolo, «Jon Ugarte vende la piel del oso sin cazarlo», *Egin*, 1983ko ekainaren 3a.

⁸²⁶ Ibid.

⁸²⁷ Egin, «Paco Ibañez, Txomin Artola y Nekez, mañana en el Pabellón de los Deportes», *Egin*, 1979ko abenduaren 15a; Egin, «Pablo Milanés y Silvio Rodríguez, dos trovadores de la revolución cubana», *Egin*, 1980ko maiatzaren 3a.

⁸²⁸ del Amo, *Party & Borroka...*, 42; Delgado eta Etxezarreta, «De los cantautores al Rock...», 392.

6.12 irudia. KASEk antolatutako Silvio Rodríguez eta Pablo Milanésen kontzertuaren iragarkia (1980)



Iturria: *Egin*

Baina rocka euskaldun izateko aukeraren inguruko eztabaida askoz ere lehenago gertu zen eta esan daiteke are gaintutia ere bazegoela. Niko Etxart eta Errobi 1970eko hamarkadaren erdialdean iritsi ziren Ipar Euskal Herritik eta zertxobait beranduago rock progresiboa euskaraz egiten zuten taldeak agertu ziren, esaterako Sakre tolosarrak eta Koska elgoibartarrak. Hori guztia jada 1980ko hamarkadaren hasierarako Herri Batasunaren kultura politikoaren parte zen. Gainera, pentsatzekoa denez, Herri Batasuneko boz-emaileak ez ziren zegozkien belaunaldien gustu musikaletatik aparte bizi, batez ere beren burua gazte eta erradikal bezala ikusten bazuten. Ordurako helduak zirenek Beatles eta Rolling Stones entzun bazituzten, Trantsizio garaian gazte ziren independentistak Triana taldearen hitzek eta musikak txundituta zeuden⁸²⁹.

Eztabaida egon bazegoen, baina 1980ko hamarkadan ez zen euskalduntasunaren eta rockaren ingurukoa eta, gainera, *Eginen* islatu zen 1983. urtea baino askoz ere lehenago. Bere lehen urteetan, *Eginen* kantautoreen kontzertuen eta folk musikaren inguruko kronikak argitaratu ziren. Baina 1980ko irailaren 13tik aurrera, larunbatetako *Jaiegin* orrialdea jaio zenean, Carlos Arkok eta Felix Linaresen musikaren inguruko orrialde bat idazten zuten astero eta bertan lehen unetik rockari berebiziko garrantzia eman zioten. Arko Los 40 Principales irrati-etxeko esataria zen eta hark sinatutako bigarren kronikan

⁸²⁹ Labrador Méndez, *Culpables por la literatura...*, 71-72, 441.

gazteriaren "marcha" eta rocka aldarrikatu zituen⁸³⁰. Hego Euskal Herriko eszena musikala Anoetako belodromoan antolatu ziren kontzertu batzuek erabat aztoratu zuten, bertan jo baitzuten orduko talde gazte ezagunenek: 1980ko azaroaren 27an The Ramones, 1981eko urtarrilaren 11n ACDC eta maiatzaren 2an The Clash. Nolabaiteko eztabaida sortu zuena ACDC izan zen. *Egineko* kronikak aipatzen zuen bazegoela "un cierto desfase generacional" 1970eko hamarkadako rockeroen eta musikari australiarren kontzertura hurbildu zirenen artean: "la chavalada de menos de 20 años"⁸³¹. Arkok eta Linaresen ere uste zuten bazegoela "litigio generacional" bat, gogorazten ziena "aquel viejo carisma generacional que enfrentó a nuestros padres con los amores por los Rolling Stones"⁸³². Hau da, eztabaidak ez zuen inolako zerikusirik rockaren eta euskalduntasunaren klixeeekin, baizik eta gustu musikalen inguruko belaunaldien arteko aldearekin.

Suari garra eragin ziona Koldo San Julian izan zen, *Eginek* musika kulturako eta folk kontzertuetarako zuen ohiko zutabegilea. The Ramones, ACDC eta Saxon heavy britainiarrak aipatuz, honakoa zioen: "son tres los hijos del ruido y todos son malos"⁸³³. The Clash Donostiara iritsi zenean, *Eginek* sustatu zuen kontzertuan, polemikak eztanda egin zuen. San Julianek baieztatzen zuen britainiarrek kontzertuan erabaki zutela "hacer copias exactas de la lata (...) pero, en malo", nahiz eta zerbait onartzen zien: "pusieron mucho empeño y poco a poco se metieron al público en el bolsillo"⁸³⁴. Bestalde, San Julianek zalantza egiten zuen, ea The Clashen ideologia benetakoa zen edo "simplemente (...) marketing"⁸³⁵. Ikuspegi horri erabat aurka eginez, Arkok eta Linaresen azpimarratu egiten zuten The Clashen hitzetako "el combate y la defensa de los oprimidos" eta salatu egiten zituzten "los críticos de pluma confortable", izan ere, Arkoren eta Linaresen ustez britainiarrak "un grupo de primera fila popular" ziren eta haien konbentzimendu iraultzaileari zegokionez, "no ofrece duda"⁸³⁶.

⁸³⁰ Carlos Arko, «Ramones, coyotes envidiables del rock», *Jaiegin*, 1980ko irailaren 27a.

⁸³¹ J.T., «ACDC: 40.000 watos y doce mil espectadores en San Sebastián», *Egin*, 1981eko urtarrilaren 20a.

⁸³² Karlos Arko eta Félix Linares, «Cacahuets, Reagan y rock and roll. Se está dibujando otra era generacional en la música», *Jaiegin*, 1981eko otsailaren 14a.

⁸³³ Koldo San Julián, «Del sueño musical de "Gwendal" al infierno decibélico de "Saxon"», *Egin*, 1981eko martxoaren 24a.

⁸³⁴ Koldo San Julián, «The Clash: un grupo que pierde en directo», *Egin*, 1981eko maiatzaren 5a.

⁸³⁵ *Ibid.*

⁸³⁶ Karlos Arko eta Félix Linares, «The Clash, rock al servicio de las izquierdas», *Jaiegin*, 1981eko maiatzaren 2a.

6.13 irudia. *The Clash* taldearen Donostiako kontzerturako sarrera (1981)



Fuente: canal de Youtube de Fermin Muguruza

Eztabaidaren hariari tiraka, Arkok eta Linaresek teorizatu egin zuten rockak bazituela "connotaciones revulsivas para el individuo" eta horrek aurre egiten ziola "Europa de las policías" delakoari⁸³⁷. *Egineko* irakurleek eskutitzak bidali zituzten egunkarira rocka horrela deskribatuz: "un sarpullido que le ha salido a la clase dominante"⁸³⁸. Eta Koldo San Julianen inguruan azpimarratu egiten zuten gazteak "de mala ostia" jartzeko zuen erraztasuna, musikari buruz eztabaidatzen baitzuen "igual-igual que mi abuelita"⁸³⁹.

Aipatu aipatzen zen bazegoela klixe bat rockaren eta euskalduntasunaren balizko ezinikusiaren ingurukoa, baina uste dugu belaunaldien arteko zangarekin duela harremana, izatekotan, 1980ko hamarkadaren hasierako iturrietan topatzen dugun eztabaidak ez baitu horrekin zerikusirik⁸⁴⁰. Independentista ez zen irakurleren batek aipatzen zuen rocka elite ekonomikoak gazteriaren artean "aborregamiento" delakoa hedatzeko estrategiaren parte zela, euskalduntasunari edo naziotasunari erreferetziarik egin gabe⁸⁴¹. Eta besteren batek adierazten zuen paradoxikoa zela energia nuklearraren aurka izugarritzko kostu elektrikoa zuten rock kontzertuak antolatzea⁸⁴². Baina rockaren aldeko jarrera orokortua zen.

⁸³⁷ Karlos Arko eta Félix Linares, «Rock y política, ¿la trama de un conflicto?», *Jaiegin*, 1981eko abuztuaren 8a.

⁸³⁸ Jon Odriozola, «Zakilixut, rock y política», *Egin*, 1981eko abuztuaren 23a.

⁸³⁹ Yon Lavin, «Koldo San Julián, ¡cállate!», *Egin*, 1981eko abuztuaren 15a.

⁸⁴⁰ Egin, «El rock: una música más allá de las etiquetas de simple negocio y de movimiento revolucionario», *Egin*, 1981eko irailaren 29a.

⁸⁴¹ Yoko (miembro de la JCE(ml)), «La "rockmanía" de los que nos gobiernan», *Egin*, 1981eko uztailaren 21a.

⁸⁴² Jesús, «No derrochar electricidad», *Egin*, 1981eko uztailaren 2a.

Horrenbestez, jada 1981eko udan *Egin*, praktikan Herri Batasunaren agitprop tresna, rockaren alde lerratu zen, berori iraultzaren aldeko elementu positibo bezala hartuta. Kronologiari dagokionean, kontuan hartu behar dugu Hego Euskal Herriko lehen punk fanzinea, *Destruye!*, uztail hartan bertan agertu zela. Horregatik, Herri Batasunak punk eszenaren aldeko jarrera berandu eta modu interesatuan hartu zuenaren ideia ñabartu egin beharra dago, gutxienez. 1982an punk fanzine berriak agertzen joan ziren heinean (*Sorbemocos*, *Neo Ama de Kass*, *El ojo tóxico*, *Sintonía cerebral...*), punk banden hiztegia eta iruditegia *Eginen* agertzen joan ziren eta ez zen inolako eztabaidarik gertatu⁸⁴³.

Bestalde, punk-rock taldeen eta independentismoaren arteko harreman positiboa ziurtatzea arriskatua den arren, talde horien lehen sigle-en eta LPen karatulak eta kanten hitzak begiratzen baditugu konturatuko gara urte haietan Herri Batasunak erabiltzen zuen estetikaren oso antzekoa erabiltzen zutela. Collagez betetako iruditeria, zeinetan herritarrak polizien aurrez aurre agertzen baitziren. Ez da harritzekoa Ingalaterrako istiluek eta Herbehereetako okupen protesta biolentoei markatutako punk mugimendua hein batean bederen hurbil sentitu izana ezarritako ordenaren aurkako matxinada aldarrikatzen zuten independentistekiko, are gehiago jakinik horien protestetan ere ohikoak zirela poliziarekin istiluak⁸⁴⁴. Halaber, Europa mailako punk mugimendua transgresioari eta matxinadari lotua zegoen, bai eta zenbait balore ezkertiarrei, Herri Batasunak bere burua espainiar faxismoaren aurkako azken erresistentzia bezala irudikatzen zuen unean⁸⁴⁵.

Ondorengo irudian Iruñeko Txantrea auzoan —Herri Batasunak bere bozen zati handia kontzentratzen zuen auzoa— sortutako Barricada taldearen lehen LPa ikus daiteke. Karatulan taldekideak ageri dira, taberna batean denbora pasa. Kontraportadan, barrikadaren bestaldean, ke artean aurrera egiten duten poliziaren jeepak ageri dira.

⁸⁴³ Egin, «“Los Ramones” repiten el domingo actuación en San Sebastián», *Egin*, 1981eko azaroaren 13a; Txema García, «Escupir a la sociedad. Los punkis, entre la marginación y la rebeldía», *Jaiegin*, 1982ko abuztuaren 7a; Plaka Klik, «Vulpes: punk-rock por antonomasia», *Egin*, 1983ko martxoaren 27a.

⁸⁴⁴ Matthew Worley, «Riotous Assembly: British Punk’s Cultural Diaspora in the Summer of ’81», hemen: *A European Youth Revolt. European Perspectives on Youth Protest and Social Movements in the 1980s*, ed. Knud Andresen eta Bart van der Steen (UK/US: Palgrave Macmillan, 2016), 217-28; Almuth Ebke, «From ‘Bloody Brixton’ to ‘Burning Britain’: Placing the Riots of 1981 in British Post-Imperial History», hemen: *A European Youth Revolt. European Perspectives on Youth Protest and Social Movements in the 1980s*, ed. Knud Andresen eta Bart van der Steen (UK/US: Palgrave Macmillan, 2016), 258-70.

⁸⁴⁵ Sebastian Haunss, «Unrest or Social Movement? Some Conceptual Clarifications», hemen: *A European Youth Revolt. European Perspectives on Youth Protest and Social Movements in the 1980s*, ed. Knud Andresen eta Bart van der Steen (UK/US: Palgrave Macmillan, 2016), 25-38.

6.14 irudia. Barricada taldearen *Noche de Rock & Roll* LParen karatula eta kontraportada (1983)



Iturria: blog Revolution Rock Ñ ról

Europako punk mugimenduaren ezaugarri garrantzitsua taldeek hirigune industrialetan zuten jatorria zen eta 1980ko hamarkadaren hasieran espazio horiek gainbehera ekonomikoarekin eta ingurunearen kutsadurarekin lotutako arazo larriak zituzten. Hego Euskal Herrian 1950eko hamarkadatik garatu zen eredu ekonomiko industrialak jada agortua zegoen 1970eko hamarkadaren erdialderako. Handik gutxira, Europako ardatz atlantiar osoan hauteman zitezkeen geldialdi ekonomikoaren eta gainbeheraren hasieraren zantzuak. Energia merkean eta industria elektromekanikoan eta petrokimikoan oinarritutako hazkunde ekonomiko ereduaren bukaera zen. 1973an petrolioaren prezioan gertatu zen igoerak eta laneku merkean oinarritzen ziren Asiako eta Hego Amerikako industriagune lehiakorren hedapenak, Europako eredu industrialaren krisia azeleratu zuten⁸⁴⁶.

Industriaren krisia

Hego Euskal Herriko sare industrialak bereziki ahula zen, industria handiei lotutako enpresa txiki eta ertain asko zeudelako eta jada industria handiak ezin zutelako mundu mailako merkatuan lehiakorrak izan⁸⁴⁷. Ordura arte industriaren oinarria Espainiako gainontzeko eremuetara egindako esportazioak izan ziren baina 1970eko hamarkadaren bigarren erdian eskaria jaitsi zen, errentagarritasunak behera egin zuen

⁸⁴⁶ González Portilla, *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Volumen II...*, 496-99.

⁸⁴⁷ Susana Serrano, «Despegue, expansión, crisis y reconversión (1860-2000). La vida del eje industrial vertebrado por la Ría de Bilbao», *Lan Harremanak* 6, I zbk. (2002): 133-60.

eta inbertsioan geldialdia gertatu zen. Bat-bateko eragina are handiagoa izan zen, aurreko urteetan zehar espainiar gobernuak merkatua babestu zuelako eta esportazioak diruz lagundu zituelako⁸⁴⁸.

Langile mugimenduak berebiziko garrantzia izan zuen gizartearen baitan sentimendu antifrankista heda zedin, bigarren kapituluan azaldu dugun bezala. Langileek eta langile auzoetako mobilizazioek lortu zuten Espainian sistema politiko autoritarioa mantentzeko egondako saiakera bertan behera geratzea 1976an. Baina espainiar prozesu konstituziogilearen garaian (1977-1978) jada industriaren krisiaren eragin gogorak nabaritu ziren Espainian. Eta gizartea erabat aldatzea aurreikusten zuten mobilizazio handiak oso azkar bihurtu ziren lanpostuak mantentzearen aldeko halabeharrezko borroka etsiak. Frankismoaren bukaerako mobilizazio ofentsiboaren unean ez bezala, monarkia konstituzionala eta bere parte hartzeko politiko eredu mugatua egonkortu zirenean langileen mobilizazio defentsiboek ez zuen iritzi publikoaren zati handienaren babesik. Nahiko goiz sentimendu nostalgiko bat agertu zen, 1970eko hamarkadaren erdialdea eta orduko mobilizazioak ilusioan eta batasunean oinarritutako garaia bezala gogoratzen zituena⁸⁴⁹.

Alderdi handiek eta gainontzeko euskal nazionalistek ez bezala, Herri Batasunak langile mobilizazio handien inguruko memoria nostalgiko horrekin identifikatu zuen bere burua eta 1980ko hamarkadaren hasieran industriaren gainbehera gertatu zenean, langileen protesta defentsiboa sostengatu zuen. 1979ko estatutuaren onarpenaren aurkako kanpaina, EMK eta LKI alderdi iraultzaileekin batera antolatu zuena, Sestaon hasi zuten, Bizkaiko industrializazioaren sinbolo zen herrian. La Naval ontziolako sarreran, Rosa Olivares EMKko bozeramaileak, Herri Batasunaren izenean ere hitz eginez, honakoa adierazi zuen: "esto no cuela (...) el Estado capitalista (...) es una máquina terrorista cuya función es explotar, oprimir y reprimir"⁸⁵⁰. Eusko Legebiltzarrerako kanpainan, independentistek honakoa ezarri zuten lehentasunen artean, aurreko urteetako mobilizazioei erreferentzia eginez: "consolidar los logros de la clase trabajadora"⁸⁵¹. Nahiz eta ez zuten parlamentuan parte hartzen, Herri Batasunak salbuespen bat gehitu zuen: "se reservaba su libertad para hacer acto de presencia allí

⁸⁴⁸ Manuel Escudero, «Esplendor y caída del gran Bilbao», *Estudios Territoriales* 19 (1985): 113-31.


⁸⁴⁹ David Beorlegui Zarranz, «La fábrica como espacio de lucha y de memoria, el caso de Bilbao y la Margen Izquierda (1975-1995)», *Historia Contemporánea* 58 (2018): 815-47.

⁸⁵⁰ Egin, «Comenzaron los mítines pro abstención en las empresas bilbainas», *Egin*, 1979ko urriaren 10a.

⁸⁵¹ Gorka Martínez Bilbao, «Acerca de la lucha institucional e intervención en la misma», *Egin*, 1980ko otsailaren 29a.

donde su intervención fuera claramente necesaria en defensa de (...) los intereses de los trabajadores y de las capas populares de Euskadi"⁸⁵². 1980ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpainatik, langileen protesten irudiak ohikoak izan ziren Herri Batasunaren propagandan.

6.15 irudia. Herri Batasunaren iragarkia Eusko Legebiltzarrerako kanapinan (1980)



Iturria: *Egin*

Izan ere, Herri Batasuneko ordezkariak behin joan ziren Eusko Legebiltzarraren plenora: 1980ko ekainaren 26an, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzan. Plenoak hasi behar zuen unean, areto nagusian hamarnaka langile agertu ziren, atzetik polizia jarraika zutela. Nervacero lantegi siderurgikoko langileak ziren, zazpi hilabete zeramatzaten greban eta parlamentariei beren egoerarentzako irtenbidea topa zezaten exijitzen zieten. Plenoa bertan behera geratu zen baina langileek parlamentariak barnean atxiki zituzten, konpromiso zehatzak har zitzaten exijituz. Orduan agertu ziren Herri Batasuneko Jon Idigoras eta Xabier Onaindia —LAB sindikatuko zuzendaritzako kideak ere bazirenak— eta Txomin Ziluaga HASIko idazkari nagusia. Haiekin batera zeuden Euskadiko Ezkerreko Txutxi Korres eta EMKko Rosa Olivares. Ez ziren parlamentariekin elkartu eta langileen asanbleara batu ziren, horiei sostengua helaraziz. Azkenean, inolako akordiorik lortu gabe alde egin zuten goizaldean bai langileek eta bai parlamentariak⁸⁵³.

⁸⁵² Egin, «Los parlamentarios de HB de Navarra se presentarán al pleno del Parlamento Foral», *Egin*, 1980ko martxoaren 9a.

⁸⁵³ Egin, «Las FOP apalearon a los trabajadores de Nervacero ante el Parlamento vasco», *Egin*, 1980ko ekainaren 27a.

Euskadiko Ezkerreko Mario Onaindia buruzagiak langileentzako mezu gogorra argitaratu zuen eta beren jardunbidearen oinarrian "ilusiones frustradas" eta "sentimientos heroicos medievales" zeudela egotzi zien⁸⁵⁴. Garaikoetxea lehendakariak horrela definitu zuen langileen jarduna: "un atentado frontal a la democracia". Bere oinarri sozialak heroia bailitzan hartu zuen eta indar erakustaldi bat ere antolatu zuten, EAJko indar parapolizialak babestutako manifestazio batekin⁸⁵⁵. Herri Batasunak, bestalde, gobernu autonomikoa salatu zuen eta ikuspegi klasista egotzi zion: [para el Gobierno Vasco] los trabajadores son unas personas incultas y rudas que nada saben de sus legítimos derechos⁸⁵⁶.

1981an erregearen aurka egin zuten protestaren harira eta gainontzeko alderdien kritikei erantzunez, Xabier Antoñana Herri Batasuneko parlamentari nafarrak adierazten zuen independentistak zirela "los que antes defendían y morían por defender, como buenos socialistas, al mundo trabajador (...) y hoy continúan en la misma línea"⁸⁵⁷. Herri Batasunarentzat langileen protesten alde agertzea eta espainiar gobernuaren aurkako gerra gauza bera ziren⁸⁵⁸. Are gehiago, aldarrikatzen zutenez, udaletxeetan bakarrik parte hartzearen erabakia bereziki garrantzitsua zen independentistak une oro mantenez "en contacto directo con las clases trabajadores y el pueblo"⁸⁵⁹.

PSOE boterera iritsi baino hilabete batzuk lehenago Herri Batasuneko Mahai Nazionalak berresten zuenez, "en todos los casos y en los diferentes sectores afectados fuertemente por la crisis económica (...) HB se ha posicionado y movilizado clara y rotundamente en defensa de los intereses de los trabajadores"⁸⁶⁰. Behin sozialistak boterera iritsi ostean, independentistek lehentasun bezala ezarri zuten zuten "romper las cadenas que los promotores del 'cambio' y sus compañeros de viaje nos quieren imponer" eta "autoorganización obrera y popular" delakora deitu zuten, egituratu ahal

⁸⁵⁴ Mario Onaindia, «La renovación de Nervacero y el corporativismo radical», *El País*, 1980ko uztailaren 1a.

⁸⁵⁵ Egin, «Garaikoetxea calificó de aves de rapiña a los dirigentes de la izquierda abertzale», *Egin*, 1980ko ekainaren 28a; Egin, «Duras críticas de los partidos a la actuación de los ertzainas del PNV», *Egin*, 1980ko uztailaren 8a; Joxean Agirre, *¿Cipayos? Policía vasca o brazo armado del PNV* (Tafalla: Txalaparta, 2007), 51-55.

⁸⁵⁶ Egin, «Moción del PNV a las Juntas Generales de Vizcaya en relación a los sucesos de la Diputación», *Egin*, 1980ko uztailaren 3a.

⁸⁵⁷ Xabier Antoñana, «La hez de Euskadi», *Egin*, 1981eko otsailaren 15a.

⁸⁵⁸ Egin, «HB llama "a defender nuestras libertades y aspiraciones obreras y populares"», *Egin*, 1982ko martxoaren 28a.

⁸⁵⁹ Egin, «HB reafirma en Bilbao el fracaso de la Reforma y el afianzamiento del franquismo», *Egin*, 1981eko abenduaren 31.

⁸⁶⁰ Egin, «La Mesa Nacional de HB emplaza al EBB del PNV», *Egin*, 1982ko otsailaren 7a.

izateko "la fuerza y el éxito del combate obrero"⁸⁶¹. Felipe Gonzalezen gobernuaren inguruan, independentistek salatzen zuten sozialistek zutela "una política al servicio del gran capital y en contra de los intereses de los trabajadores"⁸⁶².

6.16 irudia. KASen iragarkia espainiar Parlamenturako hauteskunderetan Herri Batasunarentzako boza eskatuz (1982)



Iturria: *Egin*

Herri Batasunak langile mugimenduarekin eraiki zuen identifikazioak ezaugarri nostalgiko argia zuen eta hein handi batean langile identitatearen eta independentismoaren arteko lotura mantendu zuen. Gainera, zenbait protesta etsien biolentziaren ikusgarritasunak, esaterako Olarrako eta Euskaldunako langileenak, nolabaiteko erlazioa zuen Herri Batasunaren diskurtso eta praktika belikoarekin eta bere iruditegiarekin. Horrek guztiak ezker iraultzaileko militante ohi asko Herri Batasunari atxikitzea eragin zuen 1980ko hamarkadan zehar⁸⁶³.

Are gehiago, PSOEek errekonbetsio industrialia deitu zenari lotutako lehen neurriak abiatu zituenean, HASIk Herri Batasunaren erretorika sozialista indartu zuen, zertxobait alboratuta geratu zena 1979-1983 artean, EAJren inguruko langile klasea bereganatu nahi izan zuten garaian. HASIk ziurtatzen zuenez, kapitalismoa zen "la causa

⁸⁶¹ HASI, «El 3 de marzo: una herencia revolucionaria», *Egin*, 1983ko otsailaren 27a.

⁸⁶² Egin, «HB: "El discurso de González demuestra el absoluto fracaso del Gobierno del PSOE"», *Egin*, 1983ko azaroaren 5a.

⁸⁶³ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 148-51.

fundamental de nuestra opresión nacional" eta Francoren heriotzaren ostean abiatutako liberalizazio politikoaren helburu bakarra zen "mantener las tasas de beneficio del capital al menor coste social posible", erakundeetan ezkeraren parte hartzea bermatuta iraultzarako aukera zaildu baitzuten⁸⁶⁴.

Horrenbestez, Herri Batasunaren zeregin nagusia izango zen Felipe Gonzalezek hartutako neurriei oposizioa antolatzea eta "explicar que existe otra salida diferente", horrela kontraerasoa abiatuz eta sostengu berriak bilatuz langile mugimenduan, hots, "sectores adyacentes que hoy no están con nosotros"⁸⁶⁵. Langile klasearen lidergo independentista bermatzea baitezpadako baldintza zen HASIrentzat, baldin eta Herri Batasunak historiaren zentzuarekin bat egin nahi bazuen. Independentistentzat historiaren noranzkoa bat eta bakarra zen: "el Proceso Revolucionario Mundial (...) de transición del sistema capitalista, al sistema socialista"⁸⁶⁶.

Bukatzeko, pobrezia eta bazterketa egoerei erreparatuko diegu eta horren inguruan zer nolako iruditegia eratu zen eta Herri Batasunak auzi horretan zer nolako jarrera hartu zuen azalduko dugu. Espainiako hazkunde ekonomikoa ez zen homogenea izan eta hirigune industrialetan zenbait espazio baztertu garatu ziren, bertan bizi zirelarik kontsumo gizartean gainontzekoek baino parte hartze txikiagoa zuten gizarteko zenbait sektore. Sektore baztertu horietako gazteentzat bereziki gogorrak izan ziren 1970eko hamarkadaren bukaerako industriaren krisiaren ondorioak, kontuan harturik jada gazte horiek bazituztela hezkuntzari lotutako gabeziak eta ez zutela lanpostu batean egonkortzeko aukerarik⁸⁶⁷. Gazte askok lapurretak eta biolentzia erabili zituzten ordaindu ezin zuten kontsumo gizartearen parte bihurtzeko eta modu hedonista batean bizi nahi izan zutelako antifrankismoak exijitutako askatasuna —gerora monarkia konstituzionalaren etorrera ospatzen zuen erretorikaren oinarri ere bihurtu zen ideala—⁸⁶⁸.

Komunikabide nagusiek lapurreten gorakadari buruzko mezu alarmista hedatu zuten eta baztertutako gazteen inguruan irudi sinplista eta klasista eraiki zuten, delinkuentziaren

⁸⁶⁴ Iñaki Etxebarria, «Independentzia eta sozialismoaren bidean...», *Egin*, 1983ko irailaren 20a; HASI, «Ponencia de línea política», hemen: *II Biltzarrea Congreso*, 1983, 43.

⁸⁶⁵ HASI, «Ponencia de línea política»..., 61-62.

⁸⁶⁶ HASI, «Ponencia de política internacional», hemen: *II Biltzarrea Congreso*, 1983, 80-81.

⁸⁶⁷ Iñigo López Simón, «Los olvidados. Marginalidad urbana y delincuencia juvenil en los extrarradios de las ciudades industriales: Otxarkoaga y San Blas [1959-1986]» (UPV/EHU, 2018), 41-42, 275-76.

⁸⁶⁸ Amanda Cuesta, «Los Quinquis del barrio», hemen: *Fuera de la ley: asedios al fenómeno quinquí en la Transición española*, ed. Joaquín Florido Berrocal et al. (Granada: Comares, 2015), 16.

handitzea sistema politiko berriaren balizko autoritate faltarekin lotuz. Frankismoarengandik jasotako diskurtso patriarkala eta kontserbadorea zen, diktadura garaitik beren postuetan mantentzen ziren poliziek eta epaileek ere bere egiten zutena⁸⁶⁹. Herri Batasunak salatu egin zuen estereotipo hura, "delincuentes, macarras, quinquis, drogadictos, etcétera" eta azpimarratu zuen ideia horren izaera "sensacionalista"⁸⁷⁰. Independentistek salatzen zutenez, espazio baztertuak gizartean "reprimidos, alejados y apartados" zeuden eta gizartea "definida en favor de la élites poderosas" zegoen, eta, horregatik, Herri Batasunaren inguruan "agrupamiento de todos los sectores marginados" lortzeko engaiatu behar zutela uste zuten⁸⁷¹.

Buruzagi independentistek gazte haien biolentziari ere zilegitasuna onartzen zioten hein batean, hura "hasta cierto punto contraria al sistema establecido" baitzen⁸⁷². Gernikako erregearen aurkako protesten harira denboralditxo bat kartzelan egon ostean Jon Idigorasek eta Xabier Amurizak salatu zuten kartzelan aurrez aurre ezagutu zutela gizartearen "hipocresía moralista" eta "un régimen penitenciario absurdo y demoledor" ironiaz gaineratuz sistemak egiten zuela "una continua apología de la delincuencia al perseguir a unos jóvenes a los que no ofrece ninguna posibilidad de salida"⁸⁷³.

Kinkien estereotipoarekin egin bezala, komunikabideek mezu sensazionalista erabili zuten 1978tik aurrera gertatu zen heroinaren kontsumoaren igoera esponentziala azaltzeko, berori gazteria-delinkuntzia-drogomenpekotasuna hirukian txertatuz. Bien bitartean, ezker iraultzaileko giroetan konspirazioaren teoria batek indarra hartu zuen. Azaldu nahi baitzuten zer dela eta iritsi zen heroina merkea modu masiboan, Trantsizioak muga legal berriak ezarri zituen unean eta industriaren krisia gogor kolpatzen hasi zenean. Testuinguru hartan, poliziarri errezeloa zioten giro politizatu eta disidenteetan, frankismotik zetorren poliziarren, droga-trafikatzaileen eta elite

⁸⁶⁹ Germán Labrador Méndez, «La Habitación del Quinqui. Subalternidad, biopolítica y memorias contrahegemónicas, a propósito de las culturas juveniles de la transición española», hemen: *Fuera de la ley: asedios al fenómeno quinquis en la Transición española*, ed. Joaquín Florido Berrocal et al. (Granada: Comares, 2015), 45-46; López Simón, «Los olvidados. Marginalidad...», 39; Wilhelmi, *Romper el consenso...*, 342-43.

⁸⁷⁰ Comisión Acción Social HB Donostia, «La delincuencia juvenil», *Egin*, 1981eko azaroaren 11.

⁸⁷¹ *Ibid.*

⁸⁷² Herri Batasuna, «Existe en Euskadi una mafia de la heroína, sin que se pongan los medios para erradicarlas», *Egin*, 1980ko apirilaren 17a.

⁸⁷³ *Egin*, «Herri Batasuna: "No es lo mismo la soldada de un mercenario que el jornal de un obrero"», *Egin*, 1982ko uztailaren 8a.

ekonomikoaren interesak lotzen zituen konspirazioaren teoria bereziki sinesgarria zen⁸⁷⁴.

6.17. Herri Batasunaren iragarkia "langile herriko gazte horri" boza eskatuz, udal hauteskundeetarako kanpainan (1983)



Iturria: *Egin*

Herri Batasunak ziurtatzen zuenez "los grandes traficantes (...) están introduciendo cantidades cada vez más importantes de heroína (...) en connivencia y protegidos por aquellos que teóricamente están encargados de defender el bien público"⁸⁷⁵. Interpretazio horren arabera, drogomenpekotasuna hedatzeko plana "desde altas esferas del poder" zuzenduta zegoen eta bere helburuak interes sozialak, politikoak eta kulturalak zituen gazteria baztertzea eta drogomenpekotasunak behartuta norbanako asko poliziaren kolaboratzaile bihurtzea ziren⁸⁷⁶. Herri Batasunak hori guztia Estatu polizial eredu batekin lotzen zuen eta salatzen zuen delinkuentziaren eta drogomenpekotasunaren hazkundeak sortuko zuela "psicosis de peligro indiscriminado"

⁸⁷⁴ Labrador Méndez, *Culpables por la literatura...*, 540-44; Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 305-7.

⁸⁷⁵ Herri Batasuna, «Existe en Euskadi una mafia de la heroína, sin que se pongan los medios para erradicarlas», *Egin*, 1980ko apirilaren 17a.

⁸⁷⁶ *Ibid.*

delakoa eta, horrela, disidentzia mugatzea eta gizartearen kontrol poliziala ahalbidetuko zirela⁸⁷⁷.

Teoria hark giro militanteek drogomenpeketasuna bizitzeko izan zuten moduarekin ere badu harremana, gure ikerketan jasotako testigantzetako batean ikus daitekeenez. Rakel Peña Herri Batasuneko zuzendaritzako kide izan zen 1990eko hamarkadan eta 1980ko hamarkadaren hasieran Gasteizko Zaramaga auzoko militante gaztea zen. Kontatzen duenez, fenomeno harrigarria eta gogorra zen:

ikusten zenuenean ba borroketan zegoen pertsona bat. Eta ze azkar ematen zen bide hori (...) oso erreza zelako ba kontaktuan sartzen zen, ez? drogarekin (...) eta hortik bi, hiru, lau hilabetera, pertsona hori ikusten zenuen anulatuta, ez? Edo ikusten zenuen lapurretan. Edo ikusten zenuen gure ingurukoei incluso, ba bueno, engainatu nahian eta erabat kolgatuta⁸⁷⁸.

Hego Euskal Herrian baziren, beste leku askotan bezala, harremanak heroinaren trafikaren eta poliziako kideen artean eta azpimarratu behar da Hego Euskal Herrian antiterrorismoari lotuta egiten zuten lanak nolabaiteko inmunitatea ere ematen ziela segurtasun indarretako kideei⁸⁷⁹. Egia da, aldi berean, poliziak ez zuela berebiziko ahaleginik egin batez ere giro disidenteetan eta hirigune industrialetan hedatzen ari zen drogomenpeketasunari aurre egiteko. Baina horrek ez du esan nahi derrigor elite ekonomikoak heroinaren kontsumoa sustatzeko eta hedatzeko estrategia zuenik. Beharrezkoa da, heroinaren hedapena modu zabalean ulertu nahi badugu, kontuan hartzea norbanakoen erabakitzeko ahalmena sustantzia toxikoak kontsumitzeko orduan eta, horrenbestez, erreparatzea klase herritarren sozializatzeko moduei, horien artean krisi industrialak eragin zuen pesimismoari eta giro disidenteetan konbentzio moralei aurre egiteko zegoen joerari⁸⁸⁰.

Heroinaren arazoa laster bihurtu zen auzi larria eta erakundeen erantzuna geldoa izan zen. Horregatik, eragin handiena izan zuen eremuetan sare asoziatiboaren bitartez eman zitzaizkion lehen erantzunak. Erantzun haiek modu askotakoak izan ziren, drogomenpeketasuna ikertzeko eta ekiditen saiatzeko elkarteen sorreratik hasita, salerosketa guneen eta droga-trafikatzaileen aurkako ekintza zuzenetaraino. Gainera,

⁸⁷⁷ Ibid.

⁸⁷⁸ Autorearekin elkarrizketa (2017/10/09)

⁸⁷⁹ Juan Carlos Usó, *¿Nos matan con heroína? Sobre la intoxicación farmacológica como arma de Estado* (España: Libros Crudos, 2015), 107-13.

⁸⁸⁰ Ibid., 128-29; Labrador Méndez, *Culpables por la literatura...*, 561; Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 298.

auzokideek oso mezu gogorra eta belizista erabili zuten droga-trafikatzaileen aurka⁸⁸¹. Zentzu horretan, pentsatzekoa da ETA (militarra)-k droga trafikoan nahastuta egotea egotzita egin zituen hilketek —1980 eta 1983 artean hamaika pertsona erail zituen salaketa hura medio— nolabaiteko zilegitasuna izan zezaketela gizartearen zati batentzat. Aldi berean, Herri Batasunaren girotik abiatuta geroago Askagintza deituko zen drogomenpekotasunaren aurkako elkartearen lehen pausuak eman ziren 1983an bertan⁸⁸².

Laburbilduz, aldedi nagusiek ez bezala Herri Batasunak bere burua NATOren aurkako jarrerarekin, punk musikarekin, langileen mobilizazioekin, kinki deiturikoekin eta drogomenpekotasunaren aurkako ekintza zuzenarekin lotu zuen. Horiek guztiak ETaren kontakizun nazionalera eta bere identitate politikora gehitu zituzten, aberastuz frankismoari azken erresistentzia bezala eta indar politiko antisistema eta iraultze gisa zuen irudia. Herri Batasunak arazo anitzak diskurtso nazionalista batean txertatzeko eta espainiar gobernuaren aurkako ideiarekin baitan birformulatzeko izan zuen ahalmena bere biziraupenerako gakoetako bat izan zen. Modu horretan, 1983an ageria zen independentisten gainbehera geldiaraztea lortu zuten.

Ondorioak

Nahiz eta bere epe laburreko proiektu politikoek porrot egin, Herri Batasunak ETaren kontakizun nazionalari sendo atxikita jarraitu zuen. Bai hauteskundeetan, bai militantziaren baitan ageri zen nekeari, autokonfiantzarekin eta gainontzeko indar politikoekiko jarrera harroarekin erantzun zioten.

Hego Euskal Herriko egoera arazo garrantzitsua zen PSOEn gobernuarentzat eta 1983ko udako banderen gerrak garrantzia sinboliko handia hartu zuen, Herri Batasunarentzat bezala baita gobernuarentzat ere. PSOEntzat lurralde nazional guztia UCDko gobernuak zutena baino zilegitasun handiagoarekin kontrolatzen zuela bermatzea lehentasuna zen eta, aldiz, independentistentzat gobernuaren izaera frankista adierazten zuen jarrera hark. Halere, ordurako Herri Batasunak zuen mobilizaziorako ahalmen eskasa independentismoaren gainbeheraren erakusgarri zen.

⁸⁸¹ Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 303-4.

⁸⁸² Usó, *¿Nos matan con heroína...*, 123.

Aldi berean, Herri Batasunak kalean zuen presentzia sendotu zuen mugimendu sozial berrietan eta jai eredu alternatiboetan parte hartuz, manifestazio handiak antolatuz, Herriko Tabernak irekiz eta etengabe mobilizatuz ETA (militarra)-ri lotutako pertsonentzat amnistia eskatzeko. 1980ko hamarkadako lehen urteetan, Herri Batasuna Hego Euskal Herriko eguneroko paisaiaren parte bihurtu zen, batez ere hirigune industrialetan, hauteskundeetako sostenguariaren ehunekoa 1979-1980 epean baino txikiagoa zen arren. Horrek eguneroko espazioetan euskal independentismo iraultzailea erreproduzitzea ahalbidetu zuen eta zaildu egin zuen Espainia demokratikoari buruzko mezu nazionalista egonkortzea.

Independentisten kultura politikoaren izaera antisistema eta iraultzailea indartuta, Herri Batasunak harreman emankorrak eraiki zituen Espainia NATOko kide bihurtzearen aurkako mugimenduarekin eta rock-punk musikaren eszena antikapitalistarekin, kalean gertatzen zen ororen ordezkari izateko Herri Batasunaren asmoari lotuta. Aldi berean, PSOE goernura iritsi ondoren independentistek klase erretorika ere indartu zuten eta industriaren krisiaren testuinguruan langileen protesteei atxiki ziren. Horrek ezker iraultzaileko militante izan ziren askoren sinpatia eragin zuen. Independentistek jaiari eta alaitasunari lotzeko ahalegina ere egin zuten, ezagutzen baitzuten beren irudia erresistentzia etsiarekin eta haserrearekin lotua zegoela iritzi publikoaren baitan.

Gainera, Herri Batasunak baztertutako gizartearen zatiaren, gazteriaren eta drogomenpekotasunaren inguruan eraikitako klixek kontserbadoreak salatu zituen eta bere burua baztertutako sektoreekin eta drogaren aurkako ekintza zuzenarekin identifikatu zuen. Elementu horiek guztiek euskal herriaren eta espainiar gobernuaren arteko gerraren ideiatik haratago zihoan kultura politiko antisistemaren sareak ehundu zituen eta ahalbidetu zuten Herri Batasunaren kultura politikoa erreproduzitzea 1980ko hamarkadan zehar, espainiar Trantsizioari erabat lotuta jaio zen arren.

General Conclusions

When analysing national identities, the main studies have highlighted two principal characteristics: their narrated character and their link to the territory perceived as national. In our research we have analysed how these two characteristics are related, through the study of Herri Batasuna. Thus, we have explained the success of Herri Batasuna's interpellation as the capacity that a determined national story had to make sense of the daily experience of society.

To explain the identification with Herri Batasuna, the testimonies collected have highlighted events closely linked to sociability in everyday spaces, such as speaking Basque, organizing a strike, participating in neighbourhood associations or attending a concert. Thus, we understand that identification with Herri Batasuna did not occur through an abstract link with their historical account, but through the ability that Herri Batasuna's discourse had to frame in a coherent whole individuals' day to day experiences and problems. In this way, we have related Herri Batasuna to the notions of an omnipresent, everyday nationalism developed by authors such as Michael Billig and Michael Skey.

A political culture is based on a series of values and practices and a concrete attitude towards the established state, as well as a series of historical references and the projection of an ideal future. Herri Batasuna was set up as opposition to the political system that emerged from the 1977 multiparty elections in Spain. They interpreted the political situation from a left wing and Basque nationalist conviction and linked their identity to the practice of popular associations, worker mobilization and anti-Franco protests. Their discourse, and therefore their references to history and an ideal future, were marked by what we have called ETA's Basque national account.

We have argued that the category of the historical metanarrative facilitates the study of national identities as well as political cultures. So it is a valid and useful tool for the study of Basque nationalism. Political cultures usually take a certain version of the corresponding national metanarrative as the basis on which to explain existing problems in society and propose concrete solutions. In other words, national identity and the presumption that the world is divided into nations that have a series of predetermined characteristics and even a character of historical subject, is common to most political

cultures in Western Europe. As Homi Bhabha and Tim Ederson have emphasized, national identity fits in with the everyday territory of a universal story about historical Progress, common to contemporary European culture. Our research points in the same direction, through the study of how Herri Batasuna's nationalist discourse served to give a political meaning to the daily life of a part of society.

For all these reasons, the first chapter of this thesis analyses the origin and development of the Basque national metanarrative, placing special emphasis on the general context of Western Europe, as well as on the relationship with other national metanarratives and, especially, the Spanish and French ones. By studying the creation of national stereotypes in Western Europe and the development of different national metanarratives, we have underlined the idea that Basque national identity, as well as the existence of a Basque national metanarrative, are not exceptional events, neither in their characteristics nor in their chronology. Therefore, the interpretive frameworks established to analyse the different European nationalisms are also applicable to the Basque case. In addition, we have underlined the importance of cross-border relations between Basques on both sides of the Pyrenees when creating and establishing the Basque national stereotype and its historical narrative.

The Basque national identity to which Herri Batasuna referred was linked to the Basque national metanarrative, which had been established by Sabino Arana at the end of the 19th century. According to the Basque national metanarrative, there would have been an ideal and homogeneous Basque people that would be in decline, so nationalists should re-establish the original harmony of the nation as a solution to the problems of society. The Basque national metanarrative has a triadic structure (golden age-decadence-utopian future), which is typical of all European national metanarratives. As for Herri Batasuna, they had inherited this metanarrative in ETA's version, which emphasized the importance of Basque language and democracy as nuclei of national identity and projected an independent and socialist utopian future.

One of the main elements that ETA's, and therefore Herri Batasuna's national account, inherited from previous Basque nationalism, was the orientalist image of Spain that would make it incapable of adapting to the European-Western-civilized standard. Therefore, the only way for the Basque people to become part of universal history would be their disengagement from Spain. Spain became the great Other of the

Basques, in a history of constant attacks on Basque national freedom. The last episode would have been the war of 1936, interpreted as a Spanish national conquest of the Basque autonomous territory.

The other main characteristics of ETA's national story were conditioned by the Francoist context. ETA ideologues imagined a Basque people homogeneously Basque-speaking and democratic per se, which became the absolute opposition to Francoism. In addition, they linked the independence of the Basque Country to anticolonial movements and a socialist utopian horizon. Thus, they managed to socialize the idea that the strength of the anti-Franco protests in the Basque Country in the 1970s meant the expression of the Basque national character, in its double democratic aspect and detached from the rest of Spain. However, we have argued that opposition to the Franco Regime in the Basque Country can be framed in the general Spanish context, since it shares a series of characteristics with the labour movement and popular associations that occurred in the main industrialized and urban regions in Spain. As Xavier Domènech and Pamela Radcliff have analysed, both the labour movement and popular associations created by the mid-1970s models of social organization outside the official channels of dictatorship, which gradually took ownership of public spaces, were sliding towards anti-Francoism thanks to the participation of activists from the clandestine left-wing opposition. They projected the possibility of creating an alternative society not only to the Franco regime, but also to the capitalist economic system. In this sense, the exceptional mobilizing capacity of the anti-Franco protests in the Basque Country had a lot to do with the social and economic transformation that turned the region into one of the most urban and industrialized spaces in Spain.

It should also be noted that the Franco regime reproduced a positive stereotype about Basques, linked to the rural landscape, honesty and industry. Basque nationalism, which saw the last stronghold of an ideal Basque Country in the Basque-speaking rural communities, managed to take possession of this stereotype and turn it against the dictatorship with a progressive nuance. It can be considered as an example of everyday and popular nationalism as analysed by Tim Ederson, who underlined the capacity of popular culture to give its own meaning and transform existing cultural elements.

The previous existence of Basque nationalism, the fact that a large part of society found itself on the losing side of the war, as well as the success of youth cultures and

especially of the New Basque Song, were elements that made a Basque nationalist anti-Franco protest interpretation possible during the 1970s. In the same way, in this context the violent activity of ETA catalysed a forward flight from Francoism, which in its last years sharpened its repressive character. As a response to that suffocating reaction of Francoism, part of society emotionally identified with the armed activists of ETA and with their national story about an anti-Franco Basque people who were walking towards an independent and socialist Basque Country.

The creation of Herri Batasuna was determined by the conviction of a series of political leaders that the foundations of a future independent and socialist Basque society had already been established in the Basque Country. This vision was highly influenced by the Italian communist Antonio Gramsci's idea of hegemony, and his language and his way of interpreting society were assimilated by the main ideologues of Herri Batasuna, as we have indicated through the analysis of his internal documents. The idea of creating Herri Batasuna crystallized at the beginning of 1977, linked to the mobilizing capacity that protests against the Franco Regime police force and the assembly-based labour movement had had during 1975-1976. Herri Batasuna tried to represent a political subject that they believed to be a large majority and that would be characterized by its anti-Franco Regime left wing politics and its assimilation of the national narrative of ETA.

The organizational nucleus of Herri Batasuna was a coalition of the pro-independence parties (HASI, ESB, LAIA, EIA and ANV) called Altsasuko Mahaia (Table of Altsasu) and presented in October 1977. The Table of Altsasu proposed that the Basque autonomy statute be drawn up by an assembly of local elected officials, following the example of the statutory process of the 1930s, and which, in turn, did not take into consideration the draft Constitution that was being prepared in the Spanish Parliament. As we explain in the third chapter, the initial coalition and its political project were modified as the political process of the Spanish Transition progressed and as the new decentralized administrations were established.

The need for administrative decentralization in Spain was an idea shared by both the anti-Franco opposition as well as part of the Franco elite and business circles. But its political significance was very different. While for the government it was above all a decentralization of the administration, as well as an important symbolic concession to

the opposition, for the leftist parties and sub-state nationalists it was the adaptation of the state to the plurinational reality of Spain. When the Suárez government created a provisional autonomous government in Araba, Biscay and Gipuzkoa at the beginning of 1978, it led to the first crisis of the pro-independence coalition, and the exit of a large part of the HASI leadership and, later, of an ANV sector.

The Table of Altsasu was rebranded in April 1978 with the name of Herri Batasuna and the participation of four parties (ANV, ESB, LAIA and HASI). It was defined as being a political force opposed to the approval of the Constitution and participation in the provisional autonomous government, as long as it did not also incorporate Navarre and the government did not accept the right of self-determination of the Basque nation. The coalition interpreted that until these conditions were met, the 1936 war would not have ended in the Basque Country and that, therefore, the ETA (military) assassination campaign, which accelerated dramatically as approval of the Constitution progressed, was fully justified. In this context, they presented the Board of Support for Herri Batasuna, which brought together twelve representatives of civil society and which was proposed to act as a pressure group for the government to agree with ETA (military) the establishment of peace in the Basque country.

This rhetoric on war and peace was adapted to the political logic of the moment, in which the constitutional consensus was presented as the peace agreement between former Francoists and anti-Francoists. This symbolism of the constitutional pact was marked by the Spanish national account of the late Franco regime - for which the dictatorship would have been a necessary evil to restore order in Spain and to carry out the modernization of the country -, as well as by that of the republican exile - for which the cause of the Spanish exceptionalism in the European context would have been the inability of Spaniards to settle their differences in a civilized way. However, the impact that ETA's national narrative had achieved in Basque society in the 1970s meant that the Spanish nationalist interpretation of the Constitution was not as successful in the region. In a certain sense, support for Herri Batasuna in the 1979 general elections was based on the ability of the coalition to present itself as the necessary guarantee so that an agreement would be reached in the Basque Country that would end the 1936 war.

Thus, in the third chapter the hypothesis that has guided our research is highlighted. It has been argued how the creation of Herri Batasuna is totally linked to the process of

political transition in Spain. On the other hand, the way in which Herri Batasuna's discursive framework was established in the dialogic relationship between the Basque national metanarrative and the Spanish national metanarrative and has been analysed in depth.

Once the Constitution had been approved and after a new Parliament had been formed in early 1979, the draft of the Basque statute that had been drawn up by the Basque members of parliament elected in 1977 was processed. Herri Batasuna, emboldened by significant electoral support, prepared to create a revolutionary counter-power linked to the popular associative movement and new social movements. Herri Batasuna's discourse in the face of the 1979 municipal elections had stood out for its link to popular associations and the assumptions socialised by the citizen movement during the last years of the Franco Regime.

Basque society at the end of the Franco regime was especially young, urban and industrialized. It was one of the main regions of arrival for thousands of migrant families who staged a great rural exodus during the 1950s. Thus, Herri Batasuna's speech would be successful as long as they knew how to adequately represent the existing Basque society at that time. As we have explained in the fourth chapter, their campaign for the municipal elections was based on the demand for an assembly and participatory model of local institutions, which would provide, among other things, an urgent solution to the problems created by an accelerated and out of control urbanization process.

As we have argued through the analysis of the electoral results, in the case of the provincial capitals, the success of Herri Batasuna's candidacies was concentrated in the densely populated and overcrowded popular neighbourhoods, and in the new working-class neighbourhoods with a significant migrant presence. That is to say, in urban spaces more affected by a practice that had prioritized business profit rather than the creation of adequate infrastructures and the necessary services for the population. Thus, the candidacies supported by Herri Batasuna also gained important town halls in the main industrial towns of the regions of San Sebastián and Pamplona. Therefore, our research emphasizes Herri Batasuna's urban character over a ruralising aesthetic they had inherited from the 1960s.

Herri Batasuna interpreted the electoral results of 1979 as proof that their positions would become a majority in a short time and that they were in line with the needs of a young, industrialized and urban Basque Country. However, the definitive pact on the Basque statute between President Suárez and Carlos Garaikoetxea - the leader of the PNV that members of parliament had elected as the new President of the provisional autonomous government - led to a new crisis in the coalition. From HASI it was argued that the pro-independence movement should get involved in the new social movements as a way of supporting a model of society alternative to capitalism, and they turned Sandinismo, which had come to power after a long war, into a new political reference. However, evidence that a Basque statute was going to be approved with majority of support gave Herri Batasuna a character of resistance, which they claimed to be the last trench against the reform of the Franco Regime. Once the Autonomous Community of the Basque Country had been created, the ESB and LAIA parties left the coalition, believing their counter-power project had failed and that it was necessary to participate in the autonomous parliament.

Far from that extreme, Herri Batasuna radicalized their message during 1980 and reorganized as the political cover for KAS, a conglomerate of political, union and activist groups in which ETA (military) participated as the undisputed vanguard. Their objective was to configure a future counter-power that would advance towards an independent, Basque-speaking and socialist Basque Country. In this strategy, the leaders of Herri Batasuna assumed that their support would increase exponentially, due to the supposed reformist surrender of PSOE when accepting the capitalist system and because of the national betrayal that PNV would have committed by having accepted a Basque statute without the incorporation of Navarre nor the right to self-determination.

